

Colección  
MENDAUR  
bilduma

XII



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa  
Ibai Iriarte Goñi



ISBN: 978-84-125463-0-9



9 788412 546309

Colección MENDAUR bilduma

XII



Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa

Ibai Iriarte Goñi



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE





Colección **MENDAUR** bilduma

**XII**

Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa

Ibai Iriarte Goñi



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**



**EUSKALTZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Iriarte Goñi, Ibai

Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa / Ibai Iriarte Goñi. - Iruña : Nafarroako Gobernua, Herritarrekiko Harremanetako Departamentua (Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua) ; Bilbo : Euskaltzaindia, 2022 - (Mendaur; 12)

454 or. ; 24cm

L. G. NA 1048-2022

ISBN: 978-84-125463-0-9

I. Nafarroa (Foru Komunitatea). Herritarrekiko Harremanetako Departamentua (Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua). II. Euskaltzaindia. III. Mendaur (Euskaltzaindia)

Liburuaren izenburua      Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa

Liburuaren egilea:        Ibai Iriarte Goñi

© **Nafarroako Gobernua**      Herritarrekiko Harremanetako Departamentua  
(Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua)

© **Euskaltzaindia / R.A.L.V.**

Argitalpen hau Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarlanaren emaitza da

Testuen hizkuntza-orraketa:      Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia  
zerbitzua (HIZBEA)

Taxuketa eta moldaketa:        Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Plaza Barria, 15, 48005 BILBO

Bildumaren diseinua / Azala:      Iñaki Cabodevilla / CAB

ISBN:                                  978-84-125463-0-9

Lege Gordailua:                      NA 1048-2022

**Nafarroako Gobernua**  
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua  
(Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua)

Sustaketa eta banaketa:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza  
Navas de Tolosa kalea, 21  
31002 IRUÑA  
Tf.: 848427121  
fondo.publicaciones@navarra.es  
www.cfn Navarra.es/publicaciones

\*\*\*\*

**Euskaltzaindia / R.A.L.V.**  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Tel.: 94 415 81 55  
info@euskaltzaindia.eus  
www.euskaltzaindia.eus

## AURKIBIDEA

<b>Eskaintza</b> .....	IX
<b>Eskertza</b> .....	XIII
<b>Aitzinsolasa</b> .....	XVII
<b>Laburdurak</b> .....	XXI
<b>I. Liburuaren helburuak</b> .....	1
<b>II. Joakin Lizarraga eta bere garaia</b> .....	7
2.1. Gizarte eta kultura egoera.....	9
2.1.1. Gizarte antolaketa.....	10
2.1.1.1. Garaiko gudak.....	12
2.1.1.2. Eliza .....	13
2.1.1.3. Administrazioa .....	18
2.1.1.4. Eskola.....	19
2.1.2. Lexikoa LEMan .....	19
2.1.3. Argitalpenak .....	21
2.1.3.1. Hego-nafarreraz jasotako lekukotasunak.....	23
2.1.4. Euskararen mugak.....	23
2.2. Joakin Lizarragari buruz dakiguna .....	24
2.2.1. Haurtzaroa eta gaztaroa.....	24
2.2.2. Nobiziotza jesuitekin.....	27
2.2.3. Elkanora .....	29
2.2.4. Gramatikako irakasle izatear.....	29
2.2.5. Predikazioa.....	30
2.2.6. Elkanoko parrokiako egitekoak.....	30
2.3. Lizarragaren obra.....	33
2.3.1. Eskuizkribuak.....	33
2.3.2. Argitaratuak.....	38
2.3.3. Lizarragaren obraren oihartzuna .....	39
2.4. Obraren bizitza eta eskuizkribuen egungo kokapena .....	42
2.5. <i>Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak</i> (JMSB).....	44
2.5.1. Grafia azterketa .....	44

2.5.1.1. Garaiko grafiaren joera nagusiak.....	44
2.5.1.2. Lizarragaren idazkera .....	45
2.5.1.3. Lizarragaren grafia sistema.....	48
2.5.1.4. Lizarragaren grafia eguneratzeko harturiko erabakiak	49
2.5.2. <i>Jesukristo, Maria eta Sanduen Bizitzaken</i> nondik norakoak	50
2.5.2.1. <i>Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak</i> (JMSB) .....	50
2.5.2.2. <i>A kodizea</i> .....	51
2.5.2.3. <i>B kodizea</i> .....	54
2.5.2.4. Lizarragaren iturriak .....	56
<b>III. Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa</b> .....	59
3.1. Balizko iturrien azterketa .....	61
3.1.1. Larramendi .....	62
3.1.1.1. Elkarketa bidez sorturikoak .....	63
3.1.1.2. Eratorpen bidez sorturikoak.....	64
3.1.1.3. Larramendiren eraginaz .....	66
3.1.2. Axular.....	66
3.1.2.1. Axularrek eta Lizarragak erabilitako lexikoa.....	67
3.1.2.2. Axular eta Lizarragaren lanetan erabilitako lexikoa	68
3.1.2.3. Axularren eraginaz.....	70
3.1.3. Mendiburu.....	70
3.1.3.1. Mendibururen eraginaz .....	74
3.1.4. Kardaberaz .....	74
3.1.4.1. Kardaberazen eraginaz.....	75
3.2. Lizarragaren ekarria.....	76
3.2.1. Hapaxak, aldaera ezezagunak eta lehen erabilerak .....	76
3.2.1.1. Hapaxak .....	77
3.2.1.2. Aldaera ezezagunak .....	82
3.2.1.3. Lehen erabilerak .....	85
3.2.2. Eratorpena eta elkarketa.....	89
3.2.2.1. Eratorriak .....	89
3.2.2.2. Elkartuak.....	92

3.2.3. Maileguak.....	93
3.3. Hego-nafarreraren lexikoa Lizarragaren obran .....	96
3.3.1. Hego-nafarreraren eremua .....	97
3.3.2. Hego-nafarreraren hizkerak eta corpora. ....	100
3.3.2.1 Mendebaldeko hego-nafarrera (MHN) .....	102
3.3.2.2. Hegoaldeko hego-nafarrera (HHN) .....	103
3.3.2.3. Erdialdeko hego-nafarrera (ErdHN) .....	104
3.3.2.4. Ekialdeko hego-nafarrera (EkiHN).....	106
3.3.2.5. <i>IriarteE</i> corpusaren ezaugarriak .....	107
3.3.3. Lizarragak erabilitako lexikoaren banaketa	
hego-nafarreraren baitan .....	109
3.3.4. Lizarragaren lexikoaren banaketa dialektologikoa .....	111
3.3.4.1. Hedadura zabaleko lexikoa.....	113
3.3.4.2. Erdialde zabaleko lexikoa.....	132
3.3.4.3. Nafarroa, Lapurdi eta Baxenabarreko lexikoa.....	138
3.3.4.4. Hego-nafarrera eta Nafarroa .....	142
3.3.4.5. Hego-nafarreraren muga markatzailea den lexikoa .	145
3.3.4.6. Hego-nafarreraren bi joerak.....	150
3.3.4.7. ErdHNan soilik lekukoturiko item lexikoak.....	156
3.3.5. Ondorioak.....	156
<b>IV. Hiztegia .....</b>	<b>157</b>
Nola erabili hiztegi hau .....	159
Item lexikoen hautaketa.....	159
Erabilera .....	161
<b>Bibliografia .....</b>	<b>421</b>





**Eskaintza**

---



Euskara maitatzen irakatsi zidan herriari; herria maitatzen erakutsi zidan euskarari.

Juan Apececheari, Lizarragaren eta hego-nafarrerazko testu zaharren gaineko ezagutza iturri agorrezinari, atzetik heldu garenondako bidea zabal uzteagatik.



**Eskertza**



Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkieke euskara oparitu zidaten gurasoei eta Imozko aldaera erakutsi zidan aitona Luisi. Prozesu honetan guztian ondoan izan ditudan Aixe, Belen, Iosu, Oihana, Ana, Jabi, Irantzu eta Joseri. Nabaskozeko eta Urritzako senideei; ez daudenei eta heldu berri den Zuhaitzi. Baita ere bide honen bukaera udazkeneko lorez bete didan Amaiurri. Bizileku berriari etxeko usaina eman dioten Kanpezuko lagun guztiei eta baita Iruñeko kuadrilari ere, bidearen tarte ilunenetan argia ikusten lagundu didatelako. Iñaki Camino eta Blanca Urgell zuzendari, irakasle eta bidelagun bikainei, haiek eman baitidate prozesua burutzeko laguntza, ezagutza eta babesa. Baita Euskaltzaindiari eta Nafarroako Gobernuari ere, nigan jarritako konfiantzagatik.

Esker mila lanari kolorea eta sakontasuna emateko ezinbestekoak izan diren Apecechea eta Ondarrari, Gaspar, Bitoriano eta Txatori, El Vergel zaharren egoitzako langileei, kaputxinoen Iruñeko egoitzako liburuzainari eta Iruñeko apaizgaitegiko liburuzainei.

Mendiari, oihanari, betidanik eta betirako.





**Aitzinsolasa**



Joakin Lizarraga da, ezbairik gabe, euskal letretan ezagutzen den idazlerik oparoenetariko bat. Garai bateko Iruñerri euskaldunean bizi ziren eliztarrei heziketa erlijiosoa eskaini ahal izateko, 5.000 orrialde inguru idatzi zituen eskuz, eta euskaraz. Hala ere, ez du beste autore batzuek erdietsi ospe eta entzuterik izan, eta honako lan hau aurretik bidea urratu duten beste aditu batzuen ekarpena aberasteko saiakera da.

Hizkuntzari dagokionez, oso aberatsa da Joakin Lizarragaren lanek eskaintzen duten informazio iturria. Egun galdua den Iruñerriko euskararen lekukotasun baliotsu bezain zabala da elkanoarrarena, eta, hori baliaturik, Nafarroa Garaiko euskara hobeki ezagutzen saiatu gara. Tradiziozko hizkuntzalaritzan, lexikoa periferiako gaia izan ohi da, besteak beste, aditzaren, fonetika-fonologiaren eta sintaxiaren mesedetan. Lan honetan, baina, lexikoa izan dugu ardatz idatzizko iturriak eta eremu dialektalak aztertzeko.

Gutxitan, bilaketa zehatzetarako, beste lan batzuk erabili baditugu ere, azterketa honetarako Apececheak eta Ondarrak *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak* (JMSB) lanean bildutako hiru eskuizkribuak erabili ditugu (§2.4. eta §2.5.), dela zuzenean edo edizio modernoagoak baliaturik.

Liburu honek bi zati edo atal nagusi ditu: azterketa (§II. eta §III.) eta hiztegia (§IV.). Azterketaren zatian Lizarragaren bizitzaren nondik norakoak, bere obra, erabilitako idatzizko iturriak eta zerabilen lexikoaren azterketa filologiko eta dialektologiko xeheak bildu ditugu. Hiztegian, aldiz, JMSBtik hautaturiko hitz eta aldaerekin, 1.509 sarrera sortu ditugu.

Elkanokoaren bizitza aztertu dugunean (§II.), Lehen Euskara Modernoaren (LEM) garaiko gizarteari, egoera politikoari, euskararen egoerari eta testuinguru kulturalari begira jarri gara, hizkuntzatik abiatuz. Lizarragaren bizitzaz gain, bere obra ere aztertu dugu, zertan datzan (§2.3.) eta egun non dagoen ikasteko (§2.4.).

Lizarragak erabilitako lexikoa aztertzeko, hiru multzo edo talde nagusi osatu ditugu. Lehenik (§3.1.), idatzizko iturri eta eredu izan zitezkeen artean egiantzekoenak iruditu zaizkigunak aztertu ditugu, esan nahi baita, Axular (Ax),

Larramendi (Lar), Kardaberaz (Cb) eta Mendiburu (Mb). Aipatu berri dugun bezala, Lizarragak LEMaren garaian idatzi zuen, eta Larramendiren hizkuntz proiektua eta *Hiztegi Hirukoitza* (HH) ezagutu zituen. Ez hori bakarrik, badakigu HHaren lehen liburukiaren ale baten jabe zela. Larramendiren eraginez-edo, Axularren *Gero* ere ezagutu zuen, eta gaur ezagutzen diren lehen edizioaren hamabi aleetatik bat (Iruñeko kaputxinoen esku dagoena) berea zen. Kardaberaz eta Mendiburu Iruñeko Anuntziada eskolako irakasle izan ziren, eta bertan ikasi zuen Lizarragak ere. Argi dago, beraz, Elkanokoak euskal tradizio idatzian entzutetsuak diren pertsona ugari izan zituela inguruan, eta harengan izan zuten eraginari behatu diogu.

Lizarragak euskarari egindako ekarpen lexikoa ikertu dugu ondoren (§3.2.), bertan hapaxak, aldaera ezezagunak eta lehen erabilerak bereiziz: guztira 157 hitz eta aldaera. Horiez gain, multzo honetan, Lizarragaren eratorpena, elkarketa eta maileguak ere aztertu ditugu.

Lehen atal nagusia bukatzeko, azterketa dialektologikoa egin dugu Lizarragaren lana eta hego-nafarrera ardatz harturik (§3.3.). Caminok (2003, 2004a) definituriko hego-nafarrera aurkeztu, eta lan honetarako erabilitako corpus idatzia deskribatu dugu lehenik. Horren ondotik, erdialdeko hego-nafarrerarekin (ErdHN) muga egiten duen ipar-Esteribarren 2020-2021. urteetan jasotako ahozko lekukotasunen inguruko informazioa ere eman dugu, haren emaitzak hiztegian (§IV.) aurkeztu baditugu ere. Azkenik, dialektoen arteko multikonparazioa baliatu dugu Lizarragak erabilitako hitz eta aldaeren erabilera eremuak ezagutzeko (§3.3.4.).

Hiztegiak den bezainbatean (§IV.), azterketaren oinarri izan diren 1.509 hitz eta aldaeren gaineko informazioa jaso dugu modu antolatu eta egituratuan. Ohikoak diren sarrera burua, kategoria gramatikala, adiera eta adibideez gain, honakoak jaso ditugu aukera izan dugun kasuetan: euskal tradizio idatzian elkanorak baino lehenago erabilia izan den, lehen erabilera Lizarragarena den ala hapaxa den; informazio dialektologikoa; gorago aipatu ditugun iturrietan (Ax, Lar, Cb eta Mb) ageri den; hego-nafarreraz aurkitu ditugun aldaerak (aurkitzekotan); Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko* (EHHA) datuak; ipar-Esteribarren lekukoengandik iaz jasotako erantzunak; eta hitz edo aldaerari buruzko informazio jakingarria.

**Laburdurak**



Hauek izan dira liburuan zehar erabili ditugun laburdurak:

Laburdura orokorrak:

<b>Laburdura orokorrak:</b>	
BEM	Bigarren Euskara Modernoa
EG	Euskara Garaikidea
EZK	Euskara Zahar eta Klasikoa
LEM	Lehen Euskara Modernoa
NGN	Nafarroako Gordailu Nagusia
<b>Erreferentzia bibliografikoei dagozkienak:</b>	
<i>Artola1-9</i>	<i>Artola</i> Arko artikulua zenbakiari egiten dio erreferentzia.
<i>ArtolaAr</i>	<i>Artzibarko aldaera</i> deitu izanaren inguruan (Artola, 2006-2014).
AELIE	<i>Ahozko egungo lekukotasuna Ipar Esteribarren</i> (IriarteE).
<i>CaminoAe</i>	<i>Aezkoako hitzen bilduma (1982-1997)</i> (Camino, argitaragabea).
<i>Cor</i>	<i>Corografía de Guipúzcoa</i> (Larramendi, 1754).
DLE	<i>Diccionario de la Lengua Española</i> (RAE).
EBO	<i>Euskararen Berri Onac</i> (Kardaberaz, 1761).
EKC	<i>Euskal Klasikoen Corpora</i> (UPV/EHU).
EH	<i>Euskararen Historia</i> (Gorrotxategi et al., 2018).
EHHA	<i>Euskararen Herri Hizkeren Atlas</i> (Euskaltzaindia).
EI	<i>Erizkizundi Irukoitza</i>
FHV	<i>Fonética Histórica Vasca</i> (Mitzelena, 1971)
FS	<i>Flos Sanctorum</i> (Rivadeneira)
HH	<i>Hiztegi Hirukoitza</i> (Larramendi, 1745)
HNCor	hego-nafarrerazko corpora



<i>IbarraH</i>	<i>Erroibarko eta Esteribarko hiztegia</i> (Ibarra, 2007)
<i>IriarteE</i>	Eugiko lekukoengandik jasotako ahozko corpus argitaragabea (Iriarte)
JMSB	<i>Jesu Kristo Maria eta Santuen Bizitzak</i> (Lizarraga, 1994)
OEH	<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (Euskaltzaindia)
SEG	<i>Sareko Euskal Gramatika</i> (UPV/EHU)
<b><i>Autoreei dagozkienak:</i></b>	
Ax.	Axular
Cb.	Kardaberaz
Lar.	Larramendi
LE	Lizarraga
Mb.	Mendiburu
SP	Silvain Pouvreau
<b><i>Euskalkiei dagozkienak:</i></b>	
B	bizkaiera
BN	behe-nafarrera
Bzt.	baztanera
EkiHN	ekialdeko hego-nafarrera
ErdHN	erdialdeko hego-nafarrera
Er.	erronkaria
G	gipuzkera
GN	goi-nafarrera
HHN	hegoaldeko hego-nafarrera
HN	hego-nafarrera
L	lapurtera
MHN	mendebaldeko hego-nafarrera

Z	zuberera
Zar.	zaraitzuera
<b><i>Hiztegiari dagozkionak:</i></b>	
ad.	aditza
ad. esap.	aditz esapidea
adb.	adberbioa
adj.	adjektiboa
ald.	Aldaera ezezaguna
det.	determinatzailea
erab.	erabilia
erak.	erakuslea
erak. ind.	erakusle indartua
esap.	esapidea
galdetz.	galdetzailea
grad.	graduatzaila
hap.	hapaxa
interj.	interjekzioa
iz.	izena
izord.	izenordaina
junt.	juntagailua
leh.	lehen erabilera
lok.	lokailua
mend.	menderagailua
onomat.	onomatopeia
part.	partikula
zenbatz.	zenbatzailea



# I. Liburuaren helburuak<sup>1</sup>

---

---

<sup>1</sup> Lan hau Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmen bidez gauzatu da. Horretaz aparte, «Monumenta Linguae Vasconum 5: periodización y cronología» (MINECO, FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren laguntza izan du.



1) Liburu honek helburu nagusia Elkanoko Joakin Lizarragaren lexikoa aztertzea du. Lizarraga Elkanokoaren lana oso interesgarria da lexikologiaren eta dialektologiaren ikuspegitik, haren lanek balio handia dute. Bonaparte printzeak XIX. mendean euskalkiak sailkatzeko erabili zituen. Gerora ere hainbat hizkuntzalarik eta ikertzailek goretsi dute Lizarragaren lana, hala nola R. M. Azkuek, Polikarpo Iraizozkoak, Damaso Intzakoak, A. Irigaraik, K. Mitxelenak, J. Apececheak, F. Ondarrak, J. M. Satrustegik eta P. Salaberrik.

Euskal hitzen historiaz dakiguna baliaturik, Lizarragaren obraren ikerketa filologiko-dialektologikoa egin dugu erabilitako hitzen jatorria, historia eta hedadura azterturik. Besteren artean, ikerketaren emaitzek garai horretako Iruñerriko ekialdeko euskararen ezaugarriak ezagutzeko parada eman digute. Horrez gain, bestelako galdera batzuen erantzuna aurkitzen saiatu gara: Zerk bultzatu ote zuen Eguesibarko apaiz bat halako obra mardula idaztera? Izan zitzakeen bestelakoen artean, Larramendiren hizkuntza proiektuaren eragina antzeman dugu, Mendibururen akuilari lana tarteko.

2) Honakoa da lan hau egiteko baliatu dugun metodologia: Lizarragaren *Jesu Kristo Maria eta Santuen Bizitzak* [JMSB] liburutik hitzak aukeratu eta erkatu ditugu Euskaltzaindiaren OEH hiztegian lehenik, eta gero goi-nafarrerarekin (GN) lotutako lekukotasun dialektalekin zein balizko iturritzat aukeratu ditugun hiztegiarekin (Larramendi) eta idazleen obreakin (Axular, Mendiburu, Kardaberaz), honela hitz bakoitzaren adieraz eta erabileraz, historiaz eta dialekto-hedaduraz ikasteko. Azterketa horren emaitzak hiztegian jaso dira. Hiztegiaren atalaren hasieran emanen ditugu haren inguruko irizpide eta ikurrak eta erabiltzeko oharrak.

3) Hitzaurrean hiru gauza egin ditugu. Lehenengo biek Lizarraga eta haren lanak kokatzeko balio dute: alde batetik, hala Lizarragaz nola beraren idatziez eta bereziki JMSBz irakurleak jakin behar duena bildu; bestetik, Lizarraga bizi izan zen garaian Larramendiren eta haren jarraitzaileen eraginez euskalaritzan eta literatur hizkuntzan izan ziren aldaketa handien berri eman dugu. Hala, Elkanokoaren bizitzaren eta inguruan zuen gizarte- eta kultur-giroaren inguruko datuak bildu ditugu eta haren corpusa eratu dugu.

4) Hitzaurrean aurkeztu ditugu azterketaren ondorioak ere, alegia, hiztegia bildutako datu ugariatatik atera direnak. Aurreikus zitekeen bezala, egiaztatu ahal izan dugu Lizarragaren lexikoa konplexua dela: baduela herrikoitik, baduela ikasitakotik eta baduela sorkuntza propiotik ere. Eguesibarko hizkeratik hartutako hitzak, literatur tradizioetik ekarritakoak (Axular...) eta Larramendiren lanetatik hartutakoak (*Hiztegi Hirukoitza*) bereizten saiatu gara eta horrekin batera Lizarragaren beraren hitz berrigintzaren eta mailegutza berri ematen ere bai.

Ikasitako eta sortutako lexikoaren aldetik bere garaiko idazlea da Lizarraga. Larramenditarrek ohi zutenez, HH erabili ez ezik, bestelako liburuetan ere hitzak ikasi zituen eta haren ereduaren arabera hitz berriak egin. Alabaina, gaurko irakurlearentzat agian harrigarri litekeen neurrian, hainbat aldiz mailegutza hautatu zuen euskal lexikoa aberasteko bide nagusi gisa.

5) Lanaren bigarren atalean Joakin Lizarragaren hiztegia dakargu, baina ez da hiztegi soila; item lexikoak izan dira lanaren oinarri, baina haien bitartez azterketa filologiko eta dialektologikoa gauzatu dugu. Lizarragak erabilitako hitzen historia eta geografia aztertu ditugu. XVIII. mendeko idazle baten lana aztertu dugun heinean, hizkuntzaren alderdi diakroniko eta historikoan murgildu behar izan dugu.

6) Azterketa honen helburu nagusi eta berritzaileenetako bat izan da hego-nafarrera lexikoaren aldetik deskribatzea eta definitzea. Garai horretako Eguesibarko euskarak zein hizkerari begiratzen zion ezagutu nahi izan dugu inguruko hizkerekin partekatzen duen lexikoa aztertuz. Joakin Lizarragak bere lanetan erabili zuen euskara hego-nafarreraren (harako hegoaldeko goi-nafarreraren) ordezkarietat har daiteke. Iruñerriko ekialdeko euskara zahararen erakusgarri garbia dugu, nafarreraren gune-guneko hizkera baten lekuko. Iruñe inguruko euskara itzalia da egun, eta ez dugu hango berri handirik, baina Lizarragaren lanak iturri oparoa dira ezbairik gabe euskara zahar horren arrastoari segitzeko. Lizarraga Elkanokoa oso idazle emankorra izan zen, eta haren lana aztertzeak Nafarroa Garaiko euskara hobeki ezagutzen lagunduko digu. Gure lana lexikoari begira eratu da, Elkanokoaren hizkuntzaren alderdirik aberatsena eta joriena lexikoa delako.

Dialektologiaren aldetik, Eguesibar aldeko hitzak bereizi ditugu, eta, bestetik, saiatu gara arakatzen ea ba ote den eragin zenbaiten ondorioz Lizarragaren eskualdekoa ez den baina haren testuetara sartutako hitz edo aldaerarik. Liburu honen langai bat Eguesibarko lexikoa geografiari eta dialektologiari begira aztertzea izan da. Erdigunetik gertuko hizkera da Eguesibarkoa, eta bertako lexikoa nora begira dagoen aztertzeke, Nafarroa Garaiko beste eskualde batzuei begira jarri behar izan dugu ezinbestean: Esteribar-Eroibar, Elortzibar, Artzibar, Urraul, Aezkoa, Zaraitzu, Baztan-Bidasoa... Eta baita Ipar Euskal Herriari begira ere.

Hitz eta aldaeretatik abiatuak, filologia, dialektologia eta lexikografia lagun, Nafarroako eta are euskal letretako idazlerik oparoenetako baten lexikoa aztertzen duen lan hau osatu dugu.

Ororendako aberasgarri eta baliagarri izanen ahal da!





## **II. Joakin Lizarraga eta bere garaia**



## 2.1. Gizarte eta kultura egoera<sup>2</sup>

Atal honetan, Lizarragaren garaiko gizarteari, egoera politikoari eta kultur joera nagusiei begiratuko diegu, hari nagusitzat hizkuntza harturik. Larrak (1997) proposaturiko periodizazioari jarraituz, Lehen Euskara Modernoaz (LEM) arituko gara, garai horretan idatzi baitzuen Lizarragak.

LEMak 1745-1896 arteko garaia hartzen du. Bestela esan, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (HH) argitaratu zen urtean hasi eta Azkueren *Euskal Izkindearekin* bukatzen da. Euskararen gramatizazioaren garaia da, zeren eta 1745ean Larramendiren hiztegia argitaratzearekin batera, euskarak gramatika (Larramendi, 1729), hiztegia eta apologia (Larramendi, 1728) lortu baitzituen. Horrez gain, nolabaiteko adostasuna nabari da garai horretako idazle euskaldunengan; euskararen eta haren gaitasunaren gainean antzeko iritzia dute, lapurtera klasikoko autore gehienak ezagutzen dituzte eta lexiko eta grafia irizpide bertsuak darabiltzate. Hizkuntz lanabesak ere berberak dituzte eta horien laguntzaz lau euskalki landu ziren nagusiki, beste zenbait aldaerekin batera: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera. Gainera, Hegoaldean gipuzkera erabili zen estandar bezala, eta Iparraldean lapurtera.

Eliteko kide batzuek euskararen aldeko jarrera agertu zuten, eta euskarak jasotzen zituen erasoei aurre egiten saiatu ziren, euren ahaleginak galerak berdintzeko nahikoa izan ez arren. Komunitate euskaltzale hori Euskal Herriaren luze zabalean hedaturik zegoen, Bilbotik Maulera, eta interes linguistiko, erlijioso edota politikoek mugiturik aritzen ziren.

Mugimendu euskaltzale berri horren ernamuina herritar eskolagabeen heziketa erlijiosoa izan bazen ere, gerora bestelako interesak zituzten pertsonak ere erakarriko ditu (Humboldt, Xaho, Bonaparte...). Mugimendu horri esker, aurreko garaietan baino argitalpen gehiago izan ziren, eta hortaz, irakurle gehiago ere egonen zirela pentsa daiteke.

---

2 Atal honetako informazio gehiena Apecechea (1978) eta Urgell (EH: 549-657) lanetatik hartua da.

Urgellek hiru alditan banatu zuen LEM (EH: 550): lehena predikazioarena, gero herriaren berraurkitzearena eta azkenik batasunarena. Lizarraga (1748-1835) predikazio aldiko autorea da eta guk aldi horri erreparatuko diogu nagusiki. Era berean, ez dugu eremu euskaldun guztia aztertuko, Nafarroaz eta bereziki hego-nafarreraren eremuaz ariko baikara.

### 2.1.1. Gizarte antolaketa

xvii. mende bukaeratik xix.aren hasierara doan denbora tarteari Argien Mendea esaten zaio. Garai hartan Ilustrazioa deitzen den mugimendu intelektuala zen nagusi, batez ere European, baina baita Ameriketako kolonietan ere. Mugimendu horrek aurrerapen ugari ekarri zizkion gizarteari (Burke, 2004), esate baterako higiena eta osasungintza, derrigorrezko eskolatzea, etab. Garai horretan baina, ideien eta mundu ikuspegi desberdinen arteko talka nabarmena gertatu zen (Iáñez, 1990: 7-13), eta horrek ordura arte elkarbizitza arazorik ez zuten elite burgesen eta herriaren arteko konfrontazioa eragin zuen Euskal Herrian.

Kutsu herrikoia zuen ooren kontra jo zuten eliteek: dantzak, ohiturak, sinesmenak... Eliteen parte izan arren, Elizako kide guztiak ez ziren iritzi berekoak, eta Larramendik adibidez, eztabaida ugari izan zituen bere jarraitzaileekin dantzak zirela eta, batez ere Mendibururekin. Larramendiren ustez, dantzan aritzea ez zen herritarrek egin zezaketen okerrena eta defendatu ez arren, jarrera malguagoaren aldekoa zen (*Cor*: 204 eta hur.). Mendiburuk, aldiz, guztiz arbuia-garrizat zituen eta Lizarraga ere iritzi berekoa zen, 1800. urte inguruan idatzirik sermoi batean adierazi zuena ikusirik:

Eta gizonki ta emastékien danza góiek errietán Patrono Sanduen jaietán nondik etorri dire? Nork paratu [di]tú? Jangoikoak, ez; elizak ere ez; Zeruko Aingeruek ere ez. Nork bada? Aditzen nago diotena zenbaitek berén kolkoan. Eztákit zierto, baña sospetxatzen dút (Satrustegi, 1976: 222<sup>3</sup>)

Kontu horretan eta beste batzuetan zuen iritzia adierazi izanak arazoak ekarri zizkion Larramendiri, eta, horrenbestez, bere egitasmoari. Elizako buruen eta bere ondoan hezitako apaiz gazte askoren ideiekin bat ez etortzearen ondorioz proiektuak ez zuen ahal bezainbateko dimentsiorik eta iraupenik lortu.

Orduko Euskal Herrian, gizarte maila bereizteko erabili zen hizkuntza, estereotipo honek lagundurik: gaztelania edo frantsesa eliteek, jende ikasiak eta boteretsuek erabiltzen zituzten eta euskara herritarrek. Horrela, eliteetako kideen artean euskara jende xume, ezjakin edo are basatiena zelako ustea zabaldu zen, eta gurasokeriaz egiten zioten erreferentzia herrietan bizi zen jende eskolatu

---

3 Pasarte honen eta hurrengo grafia gaurkoturik eman dugu.

gabeari. Esaterako, Mogelek herritar nekazariak hiriguneetan zabaltzen eta hedatzen ari zen mundu modernoan egokitu ahal izateko asmoz idatzi zuen bere *Erakasteak* lana.

Erdarak ziren, hortaz, giltza eta baldintza gizarte maila goragoa erdieste-ko, eta horrek bere ama hizkuntza zekienik ere ukatzera eraman zuen euskal-  
dun asko, euskaraz jakiteak bere helburua lortzeko ekar ziezazkiokeen arazoak saihesteko, dagoeneko Larramendik aipatu bezala (HH: LIV-LVII). Erdarek zuten balio instrumental handiak eta euskararen beraren estigmatizazioak eragin izugarria izan zuten Araba eta Nafarroako egoera soziolinguistikoan (§ 2.1.3.), eta horrela, bi belaunalditan familia asko elebakar euskaldun izatetik elebakar erdaldun izatera igaro ziren.

Horrez gain, euskara gramatikarik, egiturarik, sintaxirik eta funtsean edozein hizkuntzak duen ezaugarriarik gabeko hizkuntza basatia zela esaten zuten hizkuntza handietan idazten zuten jende ikasietariko askok (Mayans, Ossorio...). Horrek ia arrakalatu ezinezko murrerua ezarri zion euskarari gizartearen hainbat esparrutara hedatzeko orduan.

Euskarak, hortaz, bi auzi zituen aurrean: batetik, hizkuntza nagusien aldekoek aldarrikatzen zuten diskurtso gutxiesleari aurre egitea eta bestetik euskarari berari estatusa ematea. Lehenarekin loturik, euskara gainerako hizkuntzak bezalakoa zela, hots, gramatika zuela frogatu behar zen. Horretarako, hizkuntza nagusiak edo “kultur hizkuntzak” deskribatzeko erabiltzen ziren garaiko gramatika parametroetan sartu beharra zegoen. Ideia horren baitan sortu ziren Urteren *Gramaire Cantabrique Basque* (1712; 1900), Harrieten *Gramatica escuaraz eta francesez composatua, francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (1741) edota Perotxegi (1731) eta Azpitarteren (1774) apologiak. Horrez gain, bete-behar modernoagoetan aritzeko lagungarri izanen zen lexikoa ere eskura jarri behar zitzaizen euskara goragoko eginkizun horietara egokitzen saiatuko zirenei; gaitasun hiztegi bat behar zen.

Hiztegi hori 1745ean iritsi zen, Manuel Larramendi andoaindarraren esku-  
tik. Hiztegia argitaratzerako baina, hainbat urrats emanak zituen. Lehenik euskararen apologia idatzi zuen, *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España*<sup>4</sup> (1728); hurrengo urtean, euskarak gramatika arauak (artea) zituela frogatzen zuen lana kaleratu zuen, eta *El imposible vencido: Arte de la lengua vascongada* (1729) izenburua jarri zion, euskara egiturarik gabeko basatien hiz-

---

4 Izenburu osoa honakoa da: *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas, Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua.*

kuntza dela esaten zutenei aurre egiteko-edo. Eta azkenik, *Hiztegi Hirukoitza* (HH) edo *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin* (1745) iritsi zen.

Larramendirena bezalako egitasmoak aurrera eramateko saiakera gutxi batzuk ezagutzen dira, besteak beste, Bidegarairena (1675) eta Etxeberri Sara-koarena (1718ko *Lau-Urdiri gomendiozco carta, edo gutunean adierazi bezala*), baina andoaindarra izan zen egitasmoa arrakastaz burutu zuen bakarra. Horrez gain, Mayans eta abarrek botatako euskararen kontrako erasoei erantzuteko baliatu zituen apologia, gramatika eta hiztegia, hiruretan haien ideiak aipatu eta kontra egiteko argumentuak ematen baititu.

### 2.1.1.1. Garaiko gudak

Lehen Euskara Modernoaren garaian bi gerrate izan ziren Nafarroan, Frantziako Iraultzaren (1789-1799) oihartzunen eraginez: Konbentzioarena (1793-1795) eta Independentziarena (1808-1814). Lehenak ez zuen Elkanon eragin zuzenik izan, Pirinio inguruko herrietan nabaritu baitzen gehienbat. Hala ere, Lizarragak elizako ornamenturik onenak Erriberara bidali zituen badaezpada. Bertan bi urtez egon ziren, 1795eko uztailaren 22ra arte, Basileako ituna sinatu baitzen orduan.

Independentzia Gerran, aldiz, muturreko egoerak bizi izan zituzten Iruñerri inguruan, batez ere bukaera aldera. 1808ko otsailaren 9an iritsi zen Frantziako armada Iruñera eta ekainaren 6an Jose Bonaparte Espainiako errege izendatu zuten. Hura errege izendatzearekin batera, erresumako eskualde guztietan tropa frantsesak mantentzeko zergak ezarri ziren; Nafarroan gainerako eskualdeetan baino altuagoak, “nafarrak mugiarazten zituen izpiritu txarragatik” (Apecechea, 1978: 154; itzul.).

Ezarrিতako zergek zekarten zama astuna alde batera utzirik, Elkanon eta Iruñerrian oro har, herritarrek ez zuten aparteko arazorik izan gudaren hasierako urteetan. Hala ere, egoerak okerrera egin zuen denborak aurrera egin ahala. Nafarroako herri askotan nekazari eta abeltzainak egoera benetan larrian utzi zituzten hainbeste urtez jasandako zerga handiek. Hori gutxi balitz, soldaduek gero eta maiztasun handiagoz sartzen ziren herrietara, eta nahi zutena egin eta hartzen zuten.

1812-1813. urteetan Iruñe inguruko herrietan egoerak nabarmen egin zuen okerrera, guda frontea bertara mugitu baitzen eta soldaduak askoz ere jarrera bortitzagoa erakusten hasi baitziren: arpilaketak bata bestearen atzetik heldu ziren eta norbaitek aurre egiten bazien, bertan akabatzen zuten (ibid.: 159).

1813ko uztailaren 21ean frantsesek espainiar eta ingelesen aurka galdu zuten Gasteizen, eta Pirinioetaraino atzera egin behar izan zuten. Ihesaldian, bes-

teren artean, Atarrabiako bikarioa hil zuten, mihia moztu ondoren, eta inguruko herrietan sekulako sarraskia egin zuten. Uda horretan bertan, aliatuak Iruñera iritsi ziren frantsesen atzetik, eta herritarrek bakea laster iritsiko zela eta uzta salbatzen ahalko zutela pentsatzen hasi ziren. Oso bestela izan zen, ordea.

Aliatuen eta frantsesen arteko muga aurrera eta atzera ibili zen Iruñe inguruan eta, txandaka, alde bateko zein besteko soldaduak bertako nekazarien bizkar bizi ziren lurra irabazi edo galdu ahala. Hala ere, Olorizek (1910: 280-281) jasotakoaren arabera, askotan makurragoa izan zen “laguntzera” heldu aliatuen jarrera frantsesena berena baino:

¡Espectáculo doloroso! Sin autorización de los propietarios, sin más ley que la fuerza, sin género alguno de consideración, como si operáran en país enemigo, los soldados españoles y las tropas aliadas invadían los campos cubiertos de mieses [...] segaban en verde los cereales [...] y luego de agotar aquellas subsistencias, exigían de imperiosa manera y en brevísimo plazo nuevos aprontos al desdichado pueblo, al pueblo que acababan de sumir en la indigencia.

Elkanoraino ere iritsi zen gudaren oihartzuna. Iruñetik heldu tropak 1812ko irailaren 3an iritsi ziren herrira lehen aldiz. Orduetik 1813ko ekainera bitarte, bospasei aldiz utzi behar izan zuten herria bertako biztanleek, soldaduei zieten beldurratik mendira ihes egiten zuten eta. Guda bukatu ondoren, Elkano oso egoera larrian geratu zen: herritarren gehiengoa txiroa zen eta ez zuen maileguei aurre egiteko gaitasunik. Antzeko egoera izan zen Nafarroako herri askotan, Pirinio inguruan batez ere.

### 2.1.1.2. *Eliza*

Elizaren baitan aldi nahasia izan zen LEMarena. Gertakizunik esanguratsuenetakoa jesuita edo jesulagunen kanporaketa izan zen. 1766aren hondarean, Carlos III.a jesuitak Espainiatik kanporatzeko ahaleginean hasi zen eta 1767ko otsail bukaeran lortu zuen horretarako baimena (Fernández, 2014: 170-172). Urte bereko apirilera, Arandako kondeak dena prest zuen kanporaketa gauza zedin (Fernandez, 2002: 24-34). Lizarraga momentu horretan jesuitekin ikasten ari zen, baina gorabehera askoren ondoren konpainia utzi eta Elkanora itzultzeko erabakia hartu zuen (§ 3.). Gauzak horrela, euskararen alde hainbeste egin zuen konpainia 1767an Espainiako Erresumatik kanporatu eta Italiara erbesteratu zuten<sup>5</sup>. Hori baino lehenago Portugaldik (1759) eta Frantziatik (1762)

---

<sup>5</sup> Euskararen aldeko lana ez zuten beti euskararekiko maitasun hutsagatik egin. Beren helburu nagusia Jainkoaren eta erlijio kristauaren alde egitea zen.



kanporatu zituzten, eta geroago Napolitik (1769), Errusiatik (1814) eta beste hainbat lekutatik (Garrido, 1881: 233-318).

Bestalde, Independentzia Gerran (1808-1814), Elizarekin loturiko gertakari esanguratsu ugari jazo ziren. 1809an ordena erlijioso askoren egoitzak armadek okupatu eta bertan bizi zirenak kaleratu zituzten<sup>6</sup>. Gerra bukaturik eta urte batzuk geroago, 1820ko Hirurteko Liberalean, Fernando VII.ak ere zenbait ordena erlijioso sekularizatu zituen<sup>7</sup>:

Art. 1.º Se suprimen todos los monasterios de las órdenes monacales; los de canónigos regulares de S. Benito, de la congregación claustral Tarraconense y Cesaraugustana; los de S. Agustín y los Premonstransenses, los conventos y colegios de las órdenes militares de Santiago, Calatrava, Alcántara y Montesa; los de la de S. Juan de Jerusalem; los de la de S. Juan de Dios y de betlemitas; y todos los demas hospitalarios de cualquiera clase (BOE: 1820/10/25).

Bi kaleratze horiek Nafarroako errealitate soziolinguistikoa aldatu zuten. Kanean geratu ziren erlijioso erdaldun elebakar horietariko askok herri euskaldunetan ikusi zuen bere burua, eta, tokian tokiko apaizekin harremanetan has-tearekin batera, predikazioan gaztelania gehiago erabiltzen hasi ziren (Lekaroz, 2014).

Beste aldaketa batzuk ez ziren indarkeriarekin lotuak izan. Horietariko batzuk apaizen prestaketari eta predikazioari eragin zietenak izan ziren. Elizak bere boterea eta jendearengan zuen kontrol ideologikoa arriskuan ikusi zituen. Frantziako Iraultzak lehenik, eta Errepublikak ondoren, Erregimen Zaharrea betirako ezarritakotzat zeuden balore gehienak kolokan jarri zituztenean. Kontrol hori ziurtatzeko eskura zuen tresnarik eraginkorrena predikazioa zen, eta berebiziko garrantzia hartu zuen. Horrekin batera, zenbait herritako egoera soziolinguistikoak hartaraturik, hizkuntza gutxituak ere jopuntuan jarri zituen. Kasu batzuetan euskararen mesedetan izan zen, apaizek euskara lantzerako jo zuten-eta.

---

6 Honakoak izan ziren 1809an hustutako erlijio institutuak. Gehienak irailean hustu zituzten, baina batzuk hilabete batzuk geroago (Andueza, 2012: 694): La Oliva, Fitero, Urdazubi, Martzilla, Irantzu, Leire eta Iratxe. Iruñean: mesedeetako oinetakodunak, agustindarrak, karmeldar oinetakodunak, domingotarrak, karmeldar oinutsak, trinitarioak, antonianoak, frantziskotarrak eta kaputxinoak. Zangozan: mesedeetako domingotarrak, karmeldar oinetakodunak, Rocafuerteko otoitzegiko frantziskotarrak. Tuteran: karmeldar oinetakodunak, mesedeetakoak, domingotarrak, karmeldar oinutsak, frantziskotarrak, antonianoak eta kaputxinoak. Cascanten: San Frantzisko. Valtierra: kaputxinoak. Cintruénigon: kaputxinoak. Villafranca: karmeldar oinutsak. Tafallan: frantziskanoak eta kaputxinoak. Erriberrin: antonianoak eta frantziskanoak. Azkoiñen: kaputxinoak. Lerinen: kaputxinoak. Garesen: trinitarioak eta Hilobi Santua. Lizarran: mesedeetakoak, agustindar oinetakodunak, domingotarrak eta frantziskotarrak. Vianan: frantziskotarrak. Los Arcosen: kaputxinoak. Beran: kaputxinoak. Corellan: mesedeetako oinetakodunak eta karmeldar oinutsak. Eta horiekin batera, Hondarribiko kaputxinoen komentua.

7 <https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1820/123/C00544-00544.pdf> [kontsulta 2021/08/27].

Beste batzuetan, aldiz, euskararen kalterako izan zen, apaizek nahiago izan zutelako herritarrei erdara irakatsi.

Ordura arte, herri bakoitzeko apaizgaia bertakoa edo ingurukoa izan ohi zen eta bertako apaizak hezi ohi zuten. Horren ondorioz, eliza asko prestakuntza eskaseko bikarioen eskuetan geratu ziren, eta horrenbestez, predikazioa ez zen behar bezalakoa.

Munduko hainbat lekutan bezala, Euskal Herriko aunitz lekutan predikazioaren gaineko kezka handia zabaldu zen XVIII. mendean. Zenbait tokitan predikazioaren maila apala hizkuntzari egotzen zitzaion, eta, hartara, hizkuntza lantzeko materialak sortu ziren. Ez zen hori kezka bakarra, ordea, beste zenbait lekutan edukiari buruzko eztabaida ugari izan baitzen. 1777. urtean apaizgaitegia eraiki aurretik, handia zen Iruñeko gotzainak eta beste zenbait elizgizonen zuten predikazioarekiko kezka, bai hizkuntzari eta baita edukiari zegokionez ere. Agindu pastoral ugari kaleratu zituzten eta eztabaida sutsuak ere piztu ziren. Egoerari konponbidea emateko, Erromako katiximaren bertsio bat prestatu zuten predikazioa hobetu eta, bide batez, eliztarrak hezteko. Apaiz asko material hori erabiltzearen kontra agertu zen, beren gaitasun intelektualari egokitu gabekoa zela argudiatuz. Horren aurka, Irigoyen y Dutari Iruñeko gotzainak esan zuten aitzakia horrek ez zuela inongo baliorik, eta baldin eta arazorik bazegoen, hura ez zela katiximaren maila goragatik, apaizaren gaitasun apalagatik baizik. Ateratako idatziaren bukaeran, gotzainak katixima erabiltzen ez zutenen aurka jotzeko asmoa adierazi zuen, lanetik bota eta are eskumikatuko zituela mehatxu eginez.

Hortaz, herritarrak dotrinatzeko hizkuntza eta eduki egokiak beharrezkoak zirela ikusi zuen orduan Elizak, eta, beti euskararekiko maitasunagatik izan ez arren, prediku landuak emateko erabakia hartu zuen, hizkuntza egokia erabiliz eta eliztarrek ulertzeko moduan. Aginduak ez ziren beti bete, batzuetan utzikeriagatik eta besteetan prestaketa faltagatik. Etorkizunean apaiz izanen zirenen heziketa hobetzeko, zenbait apaizgaitegi sortu ziren azkenean, tartean Iruñekoa 1777an.

Apaizgaitegi berriek, baina, ez zuten bere horretan euskarak gizartean zuen estatusen eragin zuzenik izan. Aitzitik, apaiz euskaldun askok beren lana euskaraz baino erdaraz errazago egitea ekarri zuen horrek, heziketa latinez edo gaztelaniaz jasotzen zutelako. Gaztelania erabiltzeko joera nabarmenagoa zen berea ez zen herria egokitzen zitzaien apaizengan (Lekaroz, 2014). Egoera hori aldatzeko ahalegina egin zuten Larramendik eta haren jarraitzaileek. Andoaindarrak *Corografía* “vuelvo a los predicadores vascongados. Si quieren predicar con limpieza y fruto, aprendan bien el dialecto del país que predicán” (*Cor*: 260-261) esaten die apaizei. Are gehiago, nagusiki nork bere euskalkian egin

arren, besteena ere baliatzeko dei egiten die: “Además de ésto deben aprender el vascuence de los demás dialectos [...]” (ibid.). Dei berbera egin zuen Kardaberrazek ere: “Alper alperrik leiatzea da: animen onerako, Bizcaiko, Nafarroako, ta Gipuzkoako iru Dialektotan eskribitzea, guztiz premiazko, ta gauza txit bearra da” (EBO: 63).

Ez dugu ahaztu behar Elizako kideak ere elitearen parte zirela eta horrek eragina zuela euskararekiko zuten ikuspegian. Ikastetxe berri horietan, gainera, eremu euskaldunetako ikasleak eremu erdaldunekoekin elkartzen ziren, eta horrek ere eragina izan zuen, euskaldunek kasu askotan beren hizkuntza ahaztu edo erabiltzeko erraztasuna galdu baitzuten. Gauzak horrela, ezin daiteke esan Elizak euskararekiko jarrera bat eta bakarra izan zuenik, herriaren eta apaizaren arabera ezberdin jokatzeko baitzuten.

Esaterako, sermoietan erabiliko zuten materiala prestatu beharrean, eremu euskaldunetan predikatzen zuten apaizetariko askok bat-batean itzultzen zuten gaztelaniaz edo latinez idatzirik zuten materiala, entzuleei diskurtso ulertezin bat eskainiz:

[N]o se atreverían a hablar de repente en latín [...] pues con qué vergüenza se atreven a hacerlo en vascuence? Sólo la demasiada piedad, y devoción de los pueblos vascongados<sup>8</sup> pudiera sufrir con paciencia semejantes sermones en que sólo se oye un barbarismo continuado, más latín y castellano, que vascuence, solecismos a cada paso, que no los ofenden, como si solo en latín hubiera solecismos. Qué repetir! Qué trabucarse! Qué no atinar con las voces del vascuence oportunas! Qué invertir conjugaciones y tiempos! Parece, que están haciendo burla del auditorio, de la Iglesia y de la palabra de Dios: y luego tienen el desahogo de decir que no da más de sí el vascuence. (HH: XLI)

Beste toki batzuetan kanpotarrak aitzakiatzat erabilita gaztelaniaz predikatzen zen. Hala zen XVIII. mendean euskaldun ia elebakar zen Urraulgoiti ibarrean adibidez (Jimeno Jurio, 2008: 450-451): erromeria egunetan eta eliztar asko elkartzen ziren egunetan, gaztelaniaz predikatzen zen “aunque la obligación es de predicar en vascuence por ser este valle vascongado”, eta arrazoiak “por concurrir forasteros de pueblos romanizados” edota “porque no siempre se halla orador vascongado” ziren.

Dena dela, esan dugun bezala, Elizak harturiko jarrera oso ezberdina izan zen leku batetik bestera, baita ibar beraren barnean ere. XVIII. mendeko Eguesibar da horren adibide ezin hobea: Lizarragak Elkanon 1771-1835 urteen artean euskaraz eta ahalik eta modu egokienean predikatzen zuen bitartean, hamar kilometrorra dagoen Badostainen (Eguesibar), Andres Martín Uztarrozeko erronkariar

---

8 *Vascongado* hitzak ‘euskaldun elebakar’ esan nahi zuen garai horretan.

euskaldunak gaztelania erabiltzen zuen 1802-1821 aldian; euskara elebkarrei dotrina erakusteko bakarrik erabiltzen zuen (Lekaroz, 2014). Egues herrian ere, Juan Agustin de Egues apaizak euskaldunei dotrina gaztelaniaz ikasarazi zien 1814-1820 artean, baita hizkuntza ulertzen ez zuten agureei ere. Iruñeko Uhart-en jaioa zen, baina, gaztaroa Tuteran igaro zuenez, euskaraz aritzeko erraztasuna galdua zuen eta nahiago zuen gaztelaniaz egin (Jimeno Jurio, 2007, 363).

Oso bestelakoa izan zen Gipuzkoako jesuitek eta frantziskotarrek euskarari prestigioa emateko eta herritarrak Elizaren ideien arabera hezteko egin zuten ahalegina. Garai hartan, ordena erlijiosoetako kideak “barne misio” deituak egin aritzen ziren Euskal Herriko luze-zabalean. Esaterako, Mendiburu, Iruñeko Anuntziada ikastetxean gazteak hezteaz gain, herritarrak kristautzeko lanetan aritzen zen Nafarroan barrena (Pérez, 2008), ohitura zaharrak alde batera utzi eta erlijio kristauaren arauari jarraituz bizi zitezten.

Frantziskotarren sermoietan hobekuntza nabarmena sumatu zuela adierazi zuen Larramendik bere *Corografian* (1882[1754]: 259), eta gerora, haien predikazioaren kalitatea eta ospea zela eta, Zarauzko frantziskotarren komentua predikatzaileak hezteko mintegi bihurtu zuten. Bertara joaten hasi ziren eremu euskaldunean (ez Gipuzkoan soilik) aritzen ziren misiolari ugari: frantziskotarrak, jesuitak, karmeldarrak, etab.

Esan dugun bezala, orduko hartan, misioei eta dotrina irakasteari garrantzia handia eman zitzaion. Hain egiteko larria ongi betetzeko lanabesak prestatzeko beharra ikusi zuen Larramendik, eta halaxe aipatu zuen bere lan guztietan, gramatikan esaterako:

Baina dagoeneko metododun artea eta arauak badituenez, eta jainkoak hala nahi badu, aurrerago argitaratuko den hiztegi bat ere, [...] predikari, misiolari, apaiz jaun eta arimen ongizateaz arduratzen diren beste zenbaitek ere beren egitekoa betetzen ahalko dute. (1729: hitzaurrea; *itzul.*)

Predikazioa hobetzeko prestatutako tresnak argitaratu eta zabaltzeko, ordea, Elizako kideen onspena eta babesa behar zuen; hots, aldaketaren alde egiten zutenekin bat egin eta gainerakoei euskara erabili eta lantzeak merezi duela sinetsarazi. Horretarako hainbat bide erabili zituen: euskara Jainkoak Babelen sortu hizkuntzetarik bat dela eta Tubalek Iberiar penintsulara ekarri zuela; jainkoak sortu hizkuntza izanik, gainerakoek dituzten bertute eta dohain berak dituela; jende ikasiak ere erabiltzeko modukoa dela, eta ikasteko ere balio duela aipatu zituen, besteak beste.

Andoaindarraren proiektua batez ere erlijio ordenetako kideek jarraitu zuten lehendabiziko urteetan. Hasieran, jesulagunak izan ziren nagusiki eta predikazioan laguntzeko materiala sortzeko lanean hasi ziren; nolabait, Hegoalde-

ko tradizio idatziari ekin ziotenak direla esan daiteke (Salaberri, 2002: 126). 1745ean, Larramendik bere HH argitaratu zuen urtean, Kardaberaz, Mendiburu eta hirurak Loiolan bizi ziren elkarrekin eta bi horiek izan ziren andoaindarraren ideien jarraitzaile eta hedatzaile nagusi eta ezagunenak.

Egitasmoak, ordea, jesulagun ez ziren askorengan ere ilusioa piztu zuen. Arakistain karmeldarrak, esate baterako, proiektua aberasteko hitz zerrenda bat bidali zion 1746an Erronkarin jasotako hitzekin, eta hiztegian zuzendu beharreko akatsak aurkitu zituela ere esaten zion (Fita, 1880: 41-91). Horrekin batera, behar zuen guztian laguntzeko eskaini zion bere burua, eta apaizen jarrera ere gaitzetsi zuen. Alfertzat zeuzkan, eta gaztigatu zion, euskara hobea erabiliko bazuten, bidea konpainietako kideek ireki beharko zutela, prestigioa eman eta gero, agian, atzetik jarraituko zietela:

Pero porque los clérigos sólo se moverán a ello por el punto y emulación honrosa, el primer móvil son los religiosos para introducir su mayor pureza y elegancia, porque si éstos dan en picarse de cultos y elegantes, no faltarán otros que los quieran imitar. (Fita, 1880: 66)

Dena dela, Elizako goi karguek kaleraturiko aginduetan jasotakoaren arabera, oro har apaizek ez zuten predikazioa hobetzeko ahalegina egiteko borondate handirik erakutsi, ez hizkuntzari ez eta edukiari dagokionez ere. Hala ere, gorago ikusi dugun bezala, askotariko jarrerak atzeman daitezke herriaren eta apaizaren arabera, eta gutxi izanagatik ere, ez dira alde batera utzi beharrekoak. Lizarragaz gain, Gandara gernikarrak aipamen berezia merezi du. Berari buruzko informazio askorik ez dagoen arren, 1743an “Protonotario Apostólico, Presbítero Beneficiado de esta Villa de Gernika” (Arana Martija, 1984: 505) zela badakigu. 1764an gabon kanta batzuk idatzi zituen eta Larramendiri bidali zizkion bere iritzia ezagutu nahi zuelako, gureganaino iritsi diren elkarren arteko gutunek erakusten duten bezala (Kaltzakorta, 1998).

### 2.1.1.3. *Administrazioa*

Administrazioko garai horretako dokumentu guztiak erdaraz idatziak dira, eta euskara zeharka besterik ez da agertzen. Epaitegiei dagokienez, bai Elizaren eta baita justizia epaitegian ere, bi txandatan hartzen ziren deklarazioak Nafarroan: batean erromantzez eta bestean euskaraz. Euskarazko txanda hori herritarren gehiengoa euskaldun elebakarra zen herrietan (*vascongado*) eskaintzen zen soilik. Herri horietako komisario plaza lortzeko, hortaz, ezinbesteko baldintza zen euskaraz jakitea.

Komisario erdaldunak eremu euskalduneko zati bat bereganatzen saiatu ohi ziren, bertako herritarren gehiengoa gaztelania ulertzeko gai zela esanez. Hala

ere, Agoitzen, 1793an, adibidez, plaza eskuratzeko aurkeztu zen aetz batek euskaraz zekiela adierazi zuen eskaera orrian, plaza eskuratzen lagunduko ziolakoan (Jimeno Jurio, 1998: 79).

#### 2.1.1.4. Eskola

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, Ilustrazioak, beste gauza batzuen artean, derrigorrezko eskolatzeari ekarri zuen; Nafarroan 1780-1781ean. Hala ere, eskolak gehienetan patronoek sortuak eta mantenduak izan ziren. Euskal Herriko seme batzuek aitoren seme zirela frogatzen ahal zuten eta horrek bidea ireki zien gizarte mailaz igo ahal izateko. Horrek elite berriak sortu zituen xvii. mendetik hasi eta koloniak xix. mendean galdu arte. Patrono gehienak bide hori egindakoak ziren, hots, Ameriketara joan, bertan dirua egin, eta horren zati bat euren herrietako eskoletara bideratzen zuten pertsonak izan ohi ziren (Imizcoz, 2014: 66-67). Nolanahi ere den, kasu askotan horrek ez zion euskarari mesederik egin, eskola izan baitzen erdara herrian sartu eta euskara galtzearen eragile nagusia. Agoitzen, esaterako, 1790ean haurrek debekaturik zuten eskolan euskaraz egitea; etxean, kalean eta elizan erabiltzen zuten arren (Jimeno Jurio, 2008: 436). Honakoa idatzi zuen Gorraizko abadeak 1821ean eskolari buruz:

[E]s de naturaleza vascongada [el pueblo], y se hablaba mas vascuenz que castellano, hasta que se puso maestro de escuela, que hace como diez y seis años, desde cuyo tiempo se a fomentado la lengua castellana y se hablan ambas. (Jimeno Jurio 2007: 358)

Gauzak horrela, alfabetaturiko pertsonak gaztelaniaz idatzi eta irakurtzeko gai ziren, baina ez euskaraz. Euskarazko liburuen eskaera gutxitzeak gutxiago argitaratzea ekarri zuen (Oyharçabal, 2001: 254-264) eta argitaratuak batez ere dotrinak ziren.

Geroago ikusiko dugunez (§ 2.2.1.), Apececheak jasotakoaren arabera (1978: 31), 1791. urtean Elkanon eskola bat zegoen<sup>9</sup>, eta hura zen Eguesibarko bakarra. Lekarozek (2014), ordea, ibarreko lehena Badostaingoa zela dio, 1805 inguruan irekia, eta Gorraizko abadea eskola horri loturik ematen du. Ezin izan dugu jakin Elkanoko eskolan gaztelania edo euskara erabiltzen zuten, baina litekeena da gaztelaniaz egitea.

#### 2.1.2. Lexikoa LEMan<sup>10</sup>

---

9 NGNko Estatistikako 27. leg., 2. karpetatik ateratako datua.

10 Azpiatal honetako datu gehienak Blanca Urgelli hartuak dira (EH: 628-637).

XVII. eta XVIII. mendeetan, lexikoaren eta garbizaletasunaren gaineko kezka sortu zen Europako, zenbait hizkuntzatan, baita handienetan ere (alemanera, ingelesa, italiara, nederlandera...; Burke, 2004: 150-154). Lexikoaren gaineko kezka hori Euskal Herrira ere iritsi zen, eta maila guztietako idazleengan izan zuen eragina. Garai horretako testuetan, mailegu garbien ordeztuak, idazlearen aburuz jatorragoak ziren hitzak erabiltzeko joera atzematen da (askotan maileguekin ordezkaturiko badiutze ere), baita testurik xumeenetan ere.

Horretarako irizpideak Larramendirenak izan arren (EH: 575-580), idazleek beraien asmo edo beharrek eragin handia izan zuten hitz berrien kopuruan (testuaren gaiak, hizkuntz erregistroak, balizko hartzaileak), eta, hortaz, testu batetik bestera aldea nabari da baita autore beraren baitan ere.

Urgellek lau hitz mota bereizi zituen LEMko autoreen lexikoa aztertu zenean: Hitz berriak, maileguak, beste euskalkietako hitzak eta hitz arruntak. Hitz berriei dagokienez, Elizarekin zerikusia dutenak dira ugarienak, baina ez bakarrik. Esaterako, garai horretakoak dira Larramendiren *aditz, ahots eta adiera*.

Maileguez den bezainbatean, autore gehienak erdarakadak baztertzearen aldekoak dira, baina BEMan ez bezala, mailegu zaharrenak onarturik eta berriei atea guztiz itxi gabe. Guztiarekin ere, bi jarrera nagusi antzeman daitezke garai honetan: eliz kontuetarako maileguak onartzen eta lehenesten dituztenak (Mogel, adibidez) eta garbizaleago sentitu arren, mailegu zenbait erabiltzera beharturik sentitzen direnak (besteren artean Kardaberaz). Egia da guztiaren gainetik mailegu berri ugari egiten direla, gai berriek hala eskatzen dutenean (cf. *alfabeto, genero, seminario, zigarro*...). Era berean, badirudi Larramendik erdarazko zenbait hitzi euskal etimologia eman izanak mailegu horiek usuago erabil zitezkeen ekarri zuela (cf. *alabanza, bizarro, mantxa muralla*...).

Autore bakoitzaren lexikoan egon litezkeen hutsuneak barne-mailegaketaren bidez, hau da, hizkuntza bereko dialektoen arteko mailegaketaren bitartez, betetzeko ahalegina ere atzeman zuen Urgellek. Horren atzean, HHn hitzak euskalki markarik gabe agertzea egon liteke, baina zaila da horrek izandako arrakasta neurtzea. Nolanahi ere, *adin, ezinkizun, gogara* eta beste batzuk 1745. urtearen ondoren hedatu ziren Hegoaldera, dela HHren bitartez edo zuzenean lapurterazko liburuetatik. Hegoaldetik Iparraldera igarotako hitzik ere bada, Añibarroren eskuliburu esaterako; eta Gipuzkoako autoreen lanetan ere bizkaierazko *gitxi* 'gutxi', *lora* 'lorea' eta *uri* 'hiria' bezalakoak atzeman ditu Urgellek (1999: LXI-LXIX).

Aipatu berri dugun bezala, hitz berrien kopuruan eragin zuzena izan zuen testua zeinendako prestatua zen: hartzaile jasoagoa, eta hitz berri gehiago (Sarasola, 1986). Horren adibide ezin hobea da Bizenta Mogel. Azkoitiarrak base-

rritar eta umeentzat idatzi zuenean hitz berri gutxi erabili zituen; aldiz, Luis de Borbon kardinalaren adierazpenak itzultzean, erruz sartu zituen *aosdar* ‘batzordekide’, *lelenkari* ‘primatua’, *zirikari* ‘fiskala’ eta antzekoak. Garaiak aurrera egin ahala, geroz eta gehiago erabili ziren HHko hitz berriak, batez ere Gipuzkoan. Iparraldean ere, hitz berri ugari sortzeko beharra izan zuten iraultza garaian, politikarekin loturiko hainbat kontzeptu itzultzerakoan (*liburu bisitatzaille* ‘zentsuratzaile’, *herritar*, *elektur edo hautatzailea* ‘hautesle’...).

Idazkiak lexiko aberatsaz hornitzeko, LEMko idazleek zenbait teknika erabili zituzten; horien artean oso ugariak dira hitz eratorriak. Larramendik hitzen bilduma oso aberatsa aurkeztu zuen HHn, tartean hitz eratorri andana. Aukera ugari eman bai, baina ez zuen eskainitako guztien artetik bat hobetsi eta hori eza-gun da, garai hartako idazleek hainbat aldaera erabili baitzituzten egun *hasiera* esaten duguna adierazteko (erabiliena (*h*)*asiera* bada ere): (*h*)*asipen*, (*h*)*askuntza* eta (*h*)*aste* adibidez. Bakoitzak hobekien zeritzon aldaeraren aldeko hautua egin zuela ematen du, eta, adibidez, Mendiburuk ekintza adierazten duten aditzekin *-kuntza* erabiltzea hobetsi zuela dirudi; haren lanean *deikuntza*, *ibilkuntza* eta abar luze bat aurki baitaitezke.

Sinonimoak binaka, hiruak edo are segida luzeagoetan jarraian ematea ere ohikoa da, askotan, maileguak eta hitz berriak (*izkunde edo lengoajea*; Cb) ala euskalki desberdinetako hitzak (*achina edo aurrera*, Añibarro) lotzeko. Lexiko aberatsaren erakusgarri izan liteke edota, agian, irakurleei testua ulertzen laguntzeko. Horrekin batera, sinonimoak hitz-elkarketaren bidez emateko jokatoldea ere antzeman daiteke, nolabaiteko hitz-elkartu tautologikoak sortuz.

Halakoak darabiltzaten autoreetatik Mendiburu da aipagarrienetarikoa, baina Lizarragak ere badarabiltza (*nekaporratu*, *errepeispildu*...).

Azkenik, HHko hitzak bakoitzak bere hizkerara egokitze joera ere antzeman zuten Urgellek, eta, hala, Larramendiren hiztegian *lenjiao* ‘premia’ dena, *lenjiao*, ematen du Añibarrok, eta han *aize-emailea* ‘abanikoa’ dena, *axe-emollea*

Badirudi, hortaz, LEMan lexikoa ikasteko ez ezik, lexikoa sortzeko bide ugari zituztela orduko idazleek.

### 2.1.3. Argitalpenak

Euskaraz inprimaturiko lan gutxi ezagutzen ziren LEMaren hasieran. Larramendik ezagutzen zituen guztiak zerrenda batean eman zituen HHko hitzaurrean (XXXIV - XXXVI). Guztira hamar liburu, Harrieten gramatika, zehaztu gabeko katixima kopuru bat eta Landucciren eta Etxeberri Sarakoaren hiztegien eskuizkribuak aipatzen ditu.



LEMan sorkuntza literarioa (erlijioarekin loturikoa batez ere) biziki hazi zen. Nagusiki sermoitegi eta debozio liburuak sortu ziren, nahiz eta dotrinek ere garrantzia izan zuten. Garai honetako idazle gehienen ardura predikazioa zen, eta elizkizunetan erabiltzeko materialak edota elizgizonei euren jarduneko eredia eskaintzea zuten helburu nagusi. Horrez gain, eta Larramendiren proiektuarekin bat eginez, zenbait jesulagun gazte euskaraz idazten hasi ziren, euskaldunek euskaraz irakurtzeko materialak eskura izan eta ohitura har zezaten. Kardaberazek gaztetatik hasteko gomendioa egiten zien euskaldunei:

Seme ta alabak txikitatik eskolan erdaraz ta euskaraz, edo guztitara, oitu bear dira, ta arrazoi gabeko lotsa beltz gaiztoa pisatu ta kentzera. Bestela, zer lotsa gaizto itsusiagorik, euskaldun galtzadun edo gizon egin bat, lau errengloi euskeraz ezin irakurrik, ez atzera ta ez aurrera, lotuta ikustea baño? Ta ori guzia, zergatik? Añ aisa ta erraz lau egunean libru bat irakurtzen ez ekin edo jarduteagatik; Lau eguneko ejerzizio piska batekin seguru, erdaraz bezala edo aisago, euskaraz irakurtzera egingo zera: egin ta irakurri, ta nekerik ta lotsarik eztago. (EBO: 16)

LEMan, eta baita lehenago ere, euskarazko lanak inprimatu izan ziren Nafarroan, gaztelaniazkoak baino kopuru askoz txikiagoan izanik ere. Esaterako, egun galdurik dagoen Eltsoren dotrina (1561), ezagutzen den nafarreraz idatzirikoa lan inprimaturik zaharrena, Lizarran inprimatua da. Iruñeko moldiztegi-tan inprimatu ziren Beriainen *Tratatzen da nola entzun behar den Meza* (1621) eta *Dotrina kristioarena euskaras* (1626)<sup>11</sup> eta Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras* (1735).

Garai honetan, aldiz, gauzak aldatu ziren 1766an Venancio Legarrak euskarazko lanak argitaratzeko debekua ezarri zuenean. Debekua Kardaberazek *Aita San Ignacioren bizitza laburra* inprimatu nahi izan zuenean jarri zen indarrean, eta zenbait historialariren aburuz jesuiten kontrako erabakia izan zen euskararen kontrakoa baino gehiago. Zuzenean euskararen kontrako eraso ez izanagatik ere, 1767an jesuitak kanporatu ondotik debekuak indarrean jarraitu zuen, harik eta 1800. urtean, salbuespen bezala edo, Mogelen *Confessio ta Comunioco sacramentuen gainean eracasteac* argitaratzea lortu zen arte. Ordutik aurrera euskarazko beste lan batzuek ere argia ikusi zuten, zailtasunak zailtasun eta oso kopuru xumean. Hala eta guztiz ere, argitaratuen kalitate eta kantitateak gora egin ahala, hala egin zuen irakurleen kopuru eta gaitasunak ere. Euskaltzale ikasien multzo bat ere sortu zen, gero eta kide gehiago biltzen zituena. Esan liteke Hegoaldeko literatur hizkuntza finkatu zela garai honetan, eliz gaieci dagokienez behintzat (Urgell, *EH*: 585).

11 Lan hauek badute gaztelaniazko izenburua ere: *Tratado de como se ha de oyr missa* (1621); *Doctrina Christiana en Romance y Bascuence* (1626).

### 2.1.3.1. Hego-nafarreraz jasotako lekukotasunak

Aurrerago (§ 3.3.) hego-nafarrera xehekiago aztertuko dugun arren, orain idatzizko tradizioa aipatuko dugu labur.

Hego-nafarreraren hizkerek hartzen duten eremuko idatzizko lekukotasun gehienak Euskara Zahar eta Klasikokoak (EZK) dira, hots, 1600. urtetik 1745. era doan denbora tartekoak. LEMan lekukotasun bakarra ezagutzen dugu Lizarragaren lanez gain: Urritzolako olerkia (c. XIX. mendeko eskuizkribua).

XVII. mendean hego-nafarreraz jaso diren lekukotasunak honakoak dira: Orreagako amari eginiko bertsoak (1617), Beriainen *Tratatzen da nola entzun behar den Meza* (1621) eta *Dotrina kristioarena euskaras* (1626) eta beste zenbait gutun, esaldi eta kopia labur. XVIII. mendearen lehen erdian 1729ko predikua, *Larrasoñako sermoia* (XVIII. mendea), Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras* (1735), *Muruzabalgo sermoiak* (1743, c. XVIII), *Goñerriko sermoia* (1743) eta Obanosko *Missiora Deeya* (c. 1744) ezagutzen dira<sup>12</sup>. Aurreko puntuan esan dugun bezala, EZKaren garaian euskaraz argitaraturiko lan gutxi ezagutzen zen, eta esanguratsua da hain idatzizko lekukotasun gutxi dituen hizkera honek duen argitaraturiko lanen kopurua. Aurreko puntuan aipatu dugun bezala, bederatzi lekukotasun horietatik sei eskuizkribu labur samarrak<sup>13</sup> dira eta gainerako hirurak<sup>14</sup> argitaraturiko lan aski luzeak.

### 2.1.4. Euskararen mugak

Euskararen mugek atzerakada nabarmena izan zuten LEMan. Galera hori, batez ere Araba eta Nafarroako lurraldeetan izan zen, gainerako mugak gutxi-asko bere horretan gelditu baitziren. Nafarroari dagokionez, atzerakada hori ez zen lurralde osoan zehar berdina izan: hego-mendebaldean ez zen aldaketa handirik izan, garaiaren hasieratik bukaerara euskararen muga Urbasa eta Andia mendilerroen hegoaldeetik iparraldera igaro baitzen. Hegoalde eta hego-ekialdean, aldiz, atzerakada askoz ere larriagoa izan zen. Nafarroa mendebaldetik ekialdera gurutzatzen zuen euskararen mugak 1778an Tafalla eta Leireko mendilerroaren iparraldea ukitzen zuen eta 1863an Iruñea, Agoitz eta Garde. Hortaz, Lizarragak idatzi zuenean, Iruñerriko hegoaldean euskara galzorian zela pentsa daiteke.

12 Garaiotan Nafarroako eremu euskaldunean jasotako lekukotasunen gainean sakontzeko, Reguero (2019).

13 Orreagako bertsoak 4 lerroko hiru ahapaldi dira, 1729ko predikuak 8 orrialde ditu, Larrasoñako sermoiak 4, Muruzabalgoek 9 eta 12 hurrenez hurren, Goñerrikoak 14 eta Missiora deeyak 14.

14 Beriainen biak eta Elizalderena.

## 2.2. Joakin Lizarragari buruz dakiguna

Joakin Lizarragaren bizitzako gertakizun aipagarrienak ekarri ditugu atal honetara, bere obraren gorabeherak hurrengorako (§ 2.3.) utziz. Nor zen eta nola bizi zen ezagutu nahi badugu, eta egin zuena (euskaraz 5.000 orrialde inguru idatzi) zergatik egin zuen argitu nahi badugu, Juan Apecechearen obrara hurbildu beharko dugu nahitaez. Elkanokoaren obrak duen balio erlijiosoak mugiturik, haren obra edukiaren eta hizkuntzaren aldetik aztertzen hasi zen, eta handik gutxira haren bizitzari buruzko datuak biltzeari ekin zion, gehien azertu duen aditua izatera iritsi arte. Francisco Ondarrak ere ia Apecechearen pare azertu du Joakin Lizarragaren obra (ikus bibliografia), besteren artean, bi edizio lan argitaratu baititu bakarka eta beste bat Apecechearekin elkarlanean. Horien atzetik eta bereziki hizkuntzari erreparatuz Salaberri, Villasante, Mitxelena, Bonaparte eta beste zenbait euskalari daude, baina Lizarragaren bizitzari dagokionez, batek ere ez du Apecechearen sakontasuna erdietsi.

Atal hau osatzeko beraz, Apecechearen *Joaquin de Lizarraga (1748-1835)*. *Un escritor navarro en euskara* liburua erabili dugu. Lan hori doktorego tesi bezala aurkeztu zen Gasteizko Teologia Fakultatean eta Joakin Lizarragaren bizitza eta ingurua xehekien aztertzen dituen da. Gauzak horrela, irakurketa arinago gerta dadin, ez ditugu lan horretatik ateratako informazioaren erreferentzia guztiak eman; bai, ordea, bestelako lanetatik ateratako informazioa erabili dugunean.

### 2.2.1. Haurtzaroa eta gaztaroa


Joakin Lizarraga 1748ko irailaren 17an jaio zen Elkanon (Eguesibar), Migelena etxean. Bere aita bertakoa zen eta ama Egozkuekoa (Anue), eta Joakin izan zen lehenjaioa; guztira bost anai-arreba ziren.

xviii. mendearen erdian, Elkanok 19 etxe edo familia zituen, eta bertako biztanle gehienak, Lizarragaren gurasoak bezala, nekazariak ziren. Txikitatik oso gertu izan zuen eskola, Eguesibarko bakarra Elkanon bertan baitzegoen<sup>15</sup>. Gainera, badirudi herrian bertan beste eskola bat ere bazegoela, eta apaiz ikasketak egin nahi zituzten ibarreko gazteek bertan egiten zituztela prestaketa ikastaroak eta, zenbait kasutan, baita lehendabiziko urtea ere. Apececheak jasotakoaren arabera, litekeena da, Lizarraga haurra zela, “apaizen eskola” horren ardura haren osabarena izatea, eta dakigunagatik, 1815. urte inguruan bederen, Lizarragaren esku egon zen (Ondarra, 1978).

---

15 Lekarozek (2014) Eguesibarko lehen eskola 1805 inguruan irekitako Badostaingoa dela aipatzen du. Apececheak berriz (1978: 31), 1797ko zentsua aipatuz, urte hartan Elkanok eskola zuela dio.

Migelenakoek harreman estua zuten elizarekin, senideen artean apaiz eta abade ugari baitzegoen; horietarik bat autorearen izen bera zuen Joachin Lizarraga osaba, Elkanoko bikarioa. Izenkide biak elkarrekin bizi ziren, harik eta gazteenak, ikasketak zirela eta, jaiotetxea utzi zuen arte. 1. irudian ikus daitekeen bezala, Elkanoko Migelena etxea eta eliza metro gutxira daude. Lizarragak, beraz, kultura eta erlijioa inguruan izan zituen haurra zenetik, eskola eta eliza herrian bertan eta familian apaiz ugari zituen eta.



1. irudia: Migelena eta Elkanoko eliza.

12 urte zituela, 1760an, Iruñeko Anuntziada ikastetxera joan zen humanitate ikasketak egitera. Ikastetxearen eraikina egun Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren egoitza da, Konpainia plazan. Plazak eta izen bereko ondoko kaleak egoitzaren garai bateko arduradunen berri ematen dute, Jesusen Lagundiaren gaztelaniazko izenetik (Compañía de Jesús) baitator haien izena ere. Ikastetxea 1580ko apirilaren 19an inauguratu zen eta 1767ko apirilaren 3an itxi, Karlos III.ak lagundia Espainiatik kanporatzeko agindua eman ondoren<sup>16</sup>. XVIII. mende hasieran Espainiako estatuko ikastetxerik prestigiotsuenetarikoa zen, jesuitek kudeatzen zituzten gehienak bezala.

16 <https://www.jesuitaspamplona.org/nuestro-colegio/nuestra-historia/> [azken kontsulta: 2021-07-29].



2. irudia: Anuntziada ikastetxea izandakoaren eraikina 1916an (J. J. Arazuri).

Anuntziadan egiten ziren humanitate ikasketek lau urte irauten zuten, baina Lizarragak hiru urtean burutu zituen, 1760tik 1763ra hain zuzen ere. Apececheak lortu ahal izan zituen paperetan ageri denaren arabera, bigarren ikasturtean ageri da lehen aldiz matrikulaturik. Pentsatzekoa da bere osaba Joachinek lagunduko ziola zuzenean bigarrenean sartzeko azterketa prestatzen, hark ere humanitateak ikasi baitzituen apaiz izan aurretik. Zailago da jakitea hori non eta nola egin zuten, etxean edota gorago aipatu dugun Elkanoko apaizen eskolan egin baitzezaketen. Anuntziadan garrantzi handia ematen zitzaien humanitate ikasketei, baina, horiez gain, filosofia eta teologia ere irakasten ziren. Esan berri dugun bezala, Lizarragak humanitateak ikasi zituen, eta, normalean, lau urteko epean bost ikasgai ematen ziren: gramatikako hiru, erretorikako bat eta humanitateetako beste bat. Hala ere, azterketak egin eta aurrera egiteko aukera zuten ikasleek. Lizarragak horrela eginen zuen lehen ikasturtea, esan dugun bezala, zuzenean bigarren urtean hasi baitzen.

Gramatikako eskoletan batez ere latinaren gramatika, sintaxia eta literatura irakasten ziren, Nebrijaren *Arte*a landu eta itzulpengintzan trebatzeko ariketak egiten zituzten (horiek ere latinetik nagusiki, baina ez bakarrik). Erretorikan, gaiari buruzko autore klasikoak lantzen zituzten (Horazio, Zizeron, Tito Livio...). Humanitatez den bezainbatean, Greziako historia eta geografia ikas-

ten ziren, eta, horiez gain, hala nahi zutenek greziera ikasteko aukera zuten. Humanitate prestaketa aberatsa eskaintzen zen, hortaz, Anuntziadan, eta Perez Goyenak bost bertute nagusi aitortzen dizkio: latina irakastea, Nafarroako historia ezagutaraztea, katekesia zabaltzea, euskara sustatzea eta Jesusen bihotzaren debozioa (1947 (I): 167).

Humanitateen ziklo horretan bi izan ziren Lizarragaren maisuak: Pedro Amezketa eta Francisco Martín de Villacomero. Horiez gain, euskal kulturaren sona handikoak diren bi pertsonaia ere ikastetxe horretako irakasle izan ziren XVIII. mendean: Agustin Kardaberaz eta Sebastian Mendiburu. Historiaren Errege Akademiak jasotzen duenaren arabera<sup>17</sup>, Kardaberaz 1734-1735 urteetan Filosofia irakasle aritu zen bertan. Mendiburuk, aldiz, 28 urte egin zituen bertan, hiru egonalditan: 1737tik 1745era<sup>18</sup>, 1746tik 1755era eta 1756tik 1767ra, hots, Italiara erbesteraturik joan behar izan zuen arte (Pérez, 2008). Lizarraga Mendibururen azken egonaldian egon zen Anuntziadan, eta, zuzenean bere irakasle izan ez bazen ere, pentsatzekoa da eskolaz kanpo egiten zituzten eskolako jardueretan eta eguneroko bizitzan elkarrekin egoteko tartetik izanen zutela. Mendiburu, Kardaberaz antzera, oso idazle eta predikari ospetsua zen garai hartan, eta Lizarragarengan euskaraz idatzi eta predikatzekeo grina piztu zezakeela uste da. Pérez Goyenaren hitzetan, Mendiburu eta Kardaberaz liburuek euskara bultzatzen lagundu zuten eta eragin handia izan zuten garai hartako Anuntziadako ikasleengan (1947 (I): 167).

### 2.2.2. Nobiziotza jesuitekin

1763an, 15 urterekin, Iruñeko ikasketak bukatu eta ondorengo bi urteetan, Elkanoko parrokiako benefiziadu bezala ageri da idazkietan Lizarraga. Urte luzez, nobiziotza Loiolan egin zuelako ustea zabaldu zen aditu askoren artean, baina Apececheak erakutsi zuen ez zela horrela izan (1978: 67-71). Jakin ahal izan zuen bezala, nobiziotza Villagarcía de Camposen egin zuen eta lehen aldiz 1765ean ageri da lehen urteko nobizio bezala matrikulaturik. Bigarren urtean nobizio bezala agertzeaz gain, irakasle bezala ere ageri da; tartean 18 urte zituen.

Lizarraga Villagarcíaiko gramatikako irakaslea zen, klaustroa osatzen zuten zazpi irakasleetatik gazteena. Hiru komunitate edo talde biltzen ziren bertan: aita jesuitak, nobizioak eta eskolako ikasleak. Lizarragak, lehen urteko ikasleen irakasle izateaz gain, bera bezala nobizio zirenen ikuskaritzaren ardura ere ba-

---

17 <https://dbe.rah.es/biografias/19971/agustin-de-cardaveraz> [azken kontsulta: 2021/09/01].

18 Urte horretan Loiolara bidali zuten eta bertan egon zen Larramendiren hiztegia inprimatu zen urtean, Larramendi eta Kardaberazekin, atzera Iruñera bidali zuten arte.

zuen. Haren lana nobizioak bide zuzenetik eramatea, behar zutenean laguntzea eta egin behar zituztenak egiten zituztela ziurtatzea ziren.

Lizarraga Villagarcían zegoela, jesuitak kanporatzeko agindua eman zuen Karlos III.ak (§ 2.1.1.2.), eta 1767ko apirilaren 3an, eraikina inguratu eta bertan zeuden jesuita guztiak preso hartu zituzten, jesuitek kudeaturiko eskola guztietan gertatu zen bezala. Erregeak aita jesuita guztiak zuzenean kanporatzea agindu zuen, eta jesuita izateko ikasten ari ziren nobizioei erabakitzeko aukera eman zien: haiekin erbestera joan edo etxera itzuli eta, nahi izanez gero, beste kongregazioren batean sartu.

Lizarragak hasieran desterruko bidea hartzea erabaki zuen, eta apirilaren 5ean Villagarcíatik Ampudiara bidali zuten erabaki bera hartu zuten 73 kideekin batera<sup>19</sup>. Ampudian txalo artean jaso zituzten herritarrek eta bertan eman zuten gaua, aterpe eman nahi izan zieten herritarren etxeetan. Hurrengo egunean, apirilak 6, Palentziara abiatu ziren eta bertara iristean antzeko giroa aurkitu zuten: herritarrak negarrez, haien alde oihuka eta gaua igarotzeko beren etxeko atea irekitzen zieten herritar andana. Biharamunean Torquemadara bidea hartu zuten, baina hara iritsi baino lehen, Magazen igaro behar izan zuten gaua, eta bertako giroa ez zen hain atsegina izan. Hori gutxi balitz, nobizioak aita jesuitengandik banandu zituzten, eta gazteen artean atsekabea zabaldu zen. Erabaki horren atzean asmo argia zegoen: egindako hautuaren gainean berriro hausnartu eta atzera egin zezaten.

Apirilaren 8an nobizio guztiak Torquemadara iritsi ziren eta bertan herritar gehienak aurka zituztela ikusi zuten. Egoera nahikoa gogorra ez izaki, eta agintariak gazte guztiak binaka jarri eta etxeetan banatzea erabaki zuten. Horrela, elkarren arteko komunikazioa ahalik eta gehien mugatu zuten, nobizioen kemena galarazi eta haien borondatea hautsi nahian.

Eguneroko betebeharren zerranda osatu zuten nobizioek, egunean zehar egin beharreko otoitzak, mezak, etab. jasotzen zituena. Horiek egin ahal izateko lekua behar zutela eta, herriko apaizarekin elkartu ziren Lizarraga eta Arévalo abizeneko beste nobizio bat, guztien ordezkari bezala. Lekua eta elkartzeko baimena lortu zituzten, baina herriko alkateak gero eta traba gehiago jarri zizkien. Aurrekoez gain, nobizioek zituzten arazo guztiak konpontzen saiatzen ziren Lizarraga eta Arévalo: askori egokitu zitzaizen etxean ez zieten ia jaten ematen, beste asko lurrean lo egitera behartzen zituzten, gaixo zeudenak ez zituzten artatu nahi, etab. Arazo guztiak konpontzea lortu ez arren, bi arduradunen lanari esker egoera hobean gotea lortu zuten askok.

---

19 Villagarcían 79 nobizio zeuden eta horietarik hiruk Jesuita izateari uztea erabaki zuten, eta beste bik bertan geratu behar izan zuten gaixorik zeudelako.

Benetan ofiziala zenetz argi ez dagoen dokumentu bat zela medio, apirilaren 12an egoerak okerrera egin zuen. Nobizioei esan zietenenez, erregearen aginduak ziren, baina ez zieten dokumenturik erakutsi, Lizarragak askotan eskatuagatik ere. Agindu horrek honakoak biltzen omen zituen: 1. Nobizioak ezin ziren jarduera kolektiboak egiteko elkartu, eta Lizarragak eta Arévalok ezin zuten agindurik eman. 2. Nobizioak ezin ziren gainerakoen etxeetara bisitan joan, bisituak gaixo egonik ere. 3. Paseatzera ateratzekotan, etxe berean bizi zirenak soilik atera zitezkeen elkarrekin. 4. Kanean beste nobizioren bat aurkitzekotan, agurtu besterik ezin zuten egin, beste deus esan gabe. 5. Ezin zioten elkarri animorik eman. 6. Nobizioak ezin ziren Lizarraga eta Arévalo bizi ziren etxera aholku eske joan.

Egoera horretan igaro behar izan zituzten Torquemadako azken egunak, apirilaren 19ko goizeko zazpitan Palentziako bidean jarri zituzten arte. Hara iristean, aurrekoan bezala, harrera beroa egin zieten palentziarrek. Soldaduek, ia jendea gainetik kendu ezinik, udaletxera eraman zituzten zuzenean, alkatearekin elkar zitezen. Bertan, banan-banan deitu eta bakoitzari erregearen agindua irakurri ondoren, gogoia alda zezaten saiatzen zen alkatea; hobe zutela etxera itzultzea, jesuitek Italian umezurtz utziko zituztela, beste konpainia askotan sartzeko aukera zutela eta abar esaten zien. Hitzaldiaren ondoren, desterruko bidea hartu nahi zuten ala ez galdetzen zien. Lehendabiziko galdeketa horretan, hogeita hamabost inguruk tinko eutsi zioten harturiko erabakiari, tartean Lizarragak. Horiek bigarren aldiz pasa behar izan zuten, banaka, alkatearen aurretik eta, orduan, Lizarragak etxerako bidea hartzea erabaki zuen. 1767ko apirilaren 21a zen. Azkenean, Villagarcían zeuden 79 nobizioetatik 20 izan ziren Italiako bidea hartu zutenak.

### 2.2.3. Elkanora

Jesuitak utzirik, 1770eko martxoaren 10ean, subdiakono izendatu zuten, eta 1771ko udazkenean, urriaren 5ean, Elkanoko parrokiaren ardura hartu zuen. Azaroaren lehenengoan, Sandu Guztien Egunean, bere lehendabiziko sermoia predikatu zuen (euskaraz): *De audiendo Verbo Dei et quomodo* izenburua du, eta Nafarroako Gordailu Nagusiko Bonaparte ondarean aurki daiteke 7. zenbakiarekin (§ 2.3.1.). 1773ko azaroaren 8an Elkanoko parrokiako titular izendatu zuten.

### 2.2.4. Gramatikako irakasle izatear

1777an Iruñeko apaizgaitegia sortu zen, eta, harekin batera, ikasketa programa berritzaile bat proposatu zen. Hasieran, diru falta zela eta, ikasleek handik kanpo jasotzen zituzten gramatikako eskolak, baina 1786an eskola horiek



garrantzitsuegiak zirela eta apaizgaitegi barrenean eman behar zituztela erabaki zen. Ez hori bakarrik, Aguado y Rojas gotzainak elizarekin loturiko pertsona batek eman behar zituela azpimarratu zuen. Postu horretarako katedratiko baten bila hasi ziren orduan, eta, hilabete batzuen buruan, bi hautagai zituzten esku artean: Joakin Lizarraga eta Ramon Labeaga.

Irakasle berriari lagunduko zion pertsona bat ere izendatu beharra zuten, eta ia hasieratik argi zegoen zeinek hartuko zuen ardura hori: bertako ikasle zen Miguel de Sorron 28 urteko tolosarrak. Erabakiaren gaineko xehetasunak ez dira ezagutzen, baina katedra Labeagaren esku uztea erabaki zuten azkenean. Gauzak horrela, Lizarragak Elkanoko bikario izaten jarraitu behar izan zuen.

#### 2.2.5. Predikazioa

Euskarazko materialei dagokienez, Iruñean xvii. eta xviii. mendeen artean katiximak, dotrinak eta erlijioarekin loturiko liburu ugari inprimatu ziren. Besteak beste, ezagutzen dugun baina galdurik dagoen Eltsoren dotrina (1561), Beriainena (1626) eta Elizalderena (§ 3.3.2.1.).

Lehenago esan dugun bezala (§ 2.1.1.2.), 1777an apaizgaitegia ireki zen apaizen heziketa hobetzeko asmoz. Lizarraga predikatzen hasi zenean, beraz, Nafarroako Elizaren baitan aldaketa ugari gertatzen ari zen. Pentsatzekoa da aldaketa horiekin eroso egonen zela, Iruñeko zikloa egitea eta Villagarcían irakasle aritzea ezohiko ezagutza humanistikoa eta heziketa intelektuala eskuratzeko baliagarri izan zitzaizkion eta. Euskarari dagokionez, ziurrenik Villagarcían ezin izan zuen sakonki landu, eta horretarako tresnak eta ereduak beste nonbaitetik hartu beharko zituen. Gauzak horrela, agian, Mendibururi esker ezagutzen zituen iturrietara joko zuela pentsa dezakegu. Garai hartan bolo-bolo zebiltzan arazoak izanik, sobera ezagutuko zituen, eta akaso, konponbidea ematen saiatzeko sorturiko Larramendiren proiektua eta haren inguruko elizgizonen (horietariko asko jesuitak) kezkek eta proposamenak ere bai (§ 2.1.). Lizarraga jesuitekin ikasten ari zenean, Larramendi artean bizirik zegoen, kanporaketa baino urtebete lehenago hil baitzen (1766/01/29). Aurrez aurre egon zirela frogatzen duen ebidentziarik egon ez arren, zenbait datuk Elkanokoak andoaindarra ezagutzen zuela erakusten dute. Argiena, Lizarragaren liburutegian HHren lehen liburukiaren kopia bat topatzea (egun kaputxinoen Iruñeko egoitzan).

#### 2.2.6. Elkanoko parrokiako egitekoak

Elkanoko parrokian ehun eliztar inguru elkartzen ziren. Hain kopuru murritza izanik, esan daiteke ez zela kudeatzeko zailenatarikoa. Hala ere, Lizarraga ez

zen alferkerian erori eta egunaren zatirik handiena ikasten eta predikazio lanak ontzen ematen zuen. Begi bistakoa da bere betebeharra ahalik eta hobekien egitea zuela helburu, eta hori ezagun dute prestaturiko materialaren kopuruak eta kalitateak.

Lizarraga parrokiaren arduradun zen garaian, Konbentzioaren Gerra (1793-1795) eta Independentziarena (1808-1814) gertatu ziren. Lehenak ez zuen Elkanon eragin zuzenik izan, tropa frantsesak Pirinio inguruko herrietan ibili baitziren gehienbat. Hala ere, Elkanoko herritar batzuek frontera joateko erabakia hartu zuten, eta Lizarragak ere eliz jantzirik onenak Milagrora bidali zituen. Bertan egon ziren 1795eko uztailaren 22ra arte, Basileako ituna sinatu arte, alegia.

Independentzia Gerraren hasieran (1808), Iruñerriko eta Elkanoko herritarrek ez zuten Bonaparte erregeak ezarritako zerga handien zama bestelako ezbehar nabarmenik sufritu. Zergak, ordea, oso altuak ziren, eta herritar asko pobre izatera iritsi ziren, horien eta noizean behingo arpilatzeen ondorioz. Herriko parrokiak, orduan, zenbait gauza saldu zituen ordaindu ezin zuten herritarrei laguntzeko.

Gerrak aurrera egin ahala, egoera geroz eta tirabiratsuago bilakatzen hasi zen. 1810 inguruan, Iruñerriko elizgizon batzuek armak hartu zituzten frantsesen aurka jotzeko. Ez dago informaziorik Lizarragaren erabakiaren gainean, baina bere adina kontuan harturik (60 urtetik gora), eta 1813an, osasun arazoak zirela eta, bikario izateari uzteko eskaria egin zuela jakinik, pentsatzekoa da ez zuela halakorik eginen.

Frantses armada 1812an Iruñerrira iritsi zenetik, Elkanoko herritarrek bost edo sei aldiz utzi zuten herria hutsik, frantses soldaduengandik ihesi. 1813ko ekainaren 23an, Gasteiztik erretretan heldu ziren soldadu frantsesak gauzez iritsi ziren herrira, eta herritarrei ez zien ihes egiteko denborarik eman. Soldaduak, nahi zuten guztia hartu ondoren, ondasun gehiagorik ez zegoela eta, diru eske joan zitzaizkion Lizarragari, ezpatarekin mehatxu eginez. Hark bere iloba bidali behar izan zuen auzokide bati dirua eskatzera. Auzokideak 20 peso eskaini zizkien soldadu haiei eta haiek atzera lau ontza eskatu zizkieten. Azkenerako, bost ontza baino gehiago kendu zizkieten gizonari. Denbora gutxi igarota, Lizarragak galdutako diru guztia itzuli zion<sup>20</sup>.

Garai latzak bizi izan zituzten guda bukatu aurreko urteetan Elkanon. Behin, Frantziako soldaduek gizon bat hil zuten Lizarragaren etxe atarian eta hark ozta-ozta lortu zuen ihes egitea, tiro egin zioten arren. Egun hartan, elizako zenbait objektu baliotsu ostu eta kalte handiak egin zituzten eliza barrenean.

---

20 Apececheak (1978: 162-167) jasotako lekukotasunak, Lizarragak berak jaso zituen Elkanoko parrokiako gordailuan dagoen *Libro de Fábrica (1727-1957)* liburuan.

Hala ere, unerik latzenak 1813ko uztailaren 27tik abuztuaren 10era bizi izan zituzten. 27an frantsesak iritsi eta herritarrek mendira ihes egin zuten. Lizarragak elizan geratzen zen azkeneko kaliza eta aldareko sakramentua eramatea lortu zuen. Abuztuaren 2an frantsesek atzera egin behar izan zuten eta herritarrek menditik jaitsi ziren, egoera baretu zelakoan. Ez zen hori, baina, aurkitu zutena: ingelesek frantsesen lekua hartua zuten eta lehenek utzitako apurrak berendako hartuak zituzten. Eliza ukuilu bihurtu zuten, etxeak, soroak, baratzeak, etab. bereganatuak zituzten... herritarren artean atsekabea nagusitu zen. Honela azaldu zuen Lizarragak aurkituriko egoera:

Idos ellos (los franceses), luego entraron acá los ingleses de a caballo que hicieron el templo establo de sus caballos y de sí mismos: cuando yo volví, que fué a dos del siguiente agosto, aunque hallé la casa destrozada y despojada tan de todo, que no había ni carretón, ni un gerón donde reclinar me, sin embargo la mayor pena la tenía de mi iglesia. Supliqué humilde rendidamente al Comandante, que mandase quitar los caballos de la iglesia: no hubo remedio, hasta que el once de dicho mes de agosto se fueron dejándola extremadamente despojada de todo, llena solamente de paja y estiércol, que para limpiarle, hubimos de trabajar todos los del pueblo, hombres y mujeres. (Apecechea, 1978: 164)

Galera nabarmenak izan zituen Elkanoko herriak 1813ko udan. Elkanoko Udal Agiritegian jasotakoaren arabera, uztari dagokionez frantsesek 47.362 erreal gogorreko kalteak eragin zituzten eta ingelesek 38.420koak. Arropa zuri eta beltzean<sup>21</sup> 135.868 erreal gogor galdu zituzten. Gainera, gorde ahal izan zuten hazi kopuru txikia zela eta, ereiteko arazoak izan zituzten hurrengo urtean.

Gerraren ondorioz, hain zen latza Elkanoko biztanleen egoera, ez baitziren Elizarekin zituzten maileguak itzultzeko gai. Lizarragak, egoeraren jakitun, 1828an herritarren zorrak barkatzeko eskatu zuen, berak bere dirutik ordaindutako bi kanpainen truke. Otsailaren 27an eskaera onartu eta zorrak barkatuko zituela ebatzi zuen elizbarrutiko zuzkitzaileak.

Bikario izateari uzteko eskaera 1813an egin bazuen ere, 1819ra arte ez zioten onartu, eta orduan ere, ordezeko bezala egotera beharturik ikusi zuen bere burua. 1834ko azaroaren 6an bere osasun egoerak okerrera egin eta paperak sinatzeari utzi zion. Data horretatik aitzina, Pedro Idoatek, Uztarrozko (Eguesibar) abadeak, sinaturik ageri dira elizako paper guztiak.

1835eko urtarrilaren 20an zendu zen Joakin Lizarraga, eta, hark hala eskatu, ez zen ospakizun handirik egin:

---

21 Arropa zuria azpiko arropa, maindireak eta mahai-oihalak dira. Arropa beltzarekin zer esan nahi duten ezin izan dugu jakin, baina kanpoan eramanez ohi diren jantziez ari direla uste dugu.

Declaro ser mi voluntad que sucedida mi muerte sin mudar de estado y lugar, sea sepultado mi cuerpo en ésta dicha iglesia parroquial y sepultura que mi casa nativa tiene en la misma, que se halla a los pies del crucifijo de la adoración, y que a luego de mi muerte se ponga encerrado y cubierto en una caja, sin andarlo lavando, ni desnudando, ni vistiendo y que la función de entierro se haga muy moderado, con poco aparato y menos pompa, siguiendo mi ánimo que se celebren misas y sufragios verdaderos más que otras esterilidades que usa el mundo. (*Lizarragaren testamentua*; NGN, Uharteko protokoloak, leg. 95 z.g.)

Urtarrilaren 23an bere anaidiko sei apaizek Migelenatik elizara eraman zuten gorpua, eta, meza baten ondoren, bertan lurperatu zuten. Lizarragaren azken nahia betetzeko, bost egunen buruan anaidiko kide guztiek bijilia egin zuten eta Lizarragaren izenean egindako requiemean egon ziren.

### 2.3. Lizarragaren obra

Joakin Lizarragak berrogeita hamar urte eman zituen idazten, ia Elkanoko parrokian lanean eman zituenak bezainbeste (§ 2.2.). Ezagutzen den lehendabiziko eskuizkribua 1771koa da, eta azkena 1821ekoa. Bi urte horien artean, 5.000 orri inguru hartzen dituzten hamabost eskuizkribu utzi zituen idatzirik (Apecechea, 1978: 241), guztiak erlijio gaiei buruzkoak.

Ondarrak 1972an argitaraturiko "Producción literaria de Joaquin Lizarraga (1748-1835)" artikuluan eskaintzen dena da Lizarragaren obrari buruz egin den ikerketarik zehatzena. Hori oinarri harturik, Apececheak datuak eguneratu zituen 1978an. Atal honetara ekarri ditugunak bi lan horietan jasotako datuetan oinarrituak dira, azken urteotan gertatu diren toki aldaketa gutxi batzuk gorabehera.

#### 2.3.1. Eskuizkribuak

Ezagutzen diren hamabost eskuizkribuetatik bi galdurik daude. Bat Ondarrak 1972an idazten duenerako falta da, eta bestea 1972 eta 1978 artean desagertu zen (Apecechea, 1978: 251).

Heldu diren lerroetan hamabost eskuizkribu horien deskribapena eginen dugu banaka, izenburua, ezaugarri fisikoak, edukia eta kokapena aipaturik. § 2.4. atalean, obraren bizitzaren inguruko informazioa emanen dugu, hots, eskuizkribuek Lizarragak idatzi eta egungo lekura iritsi arte egindako bidez arituko gara. Ondarrak eta Apececheak bezala, eskuizkribuak hurrenker kronologikoan antolatuz emanen ditugu, hasi 1771kotik eta 1821ekora arte. Kasu askotan eskuizkribuen datazioak arazoak planteatzen ditu, eta data gutxi gorabehera.

beherakoa da. Horrelako kasuetan aipatu bi autoreek proposaturikoa ontzat hartu dugu.

Eskuizkribu guztiek pergaminozko azala dute, eta batzuetan bi edo hiru izenburu: bizkarrean, azalean eta lehendabiziko orrialdean. Eskuizkribu bakoitzaren deskribapenean, izenburu bakoitza nongoa den zehaztu dugu.

Zenbakiak Ondarrak hasi eta Apececheak jarraitutako tradizioarekin bat ezarri ditugu:

1. Lehen orrialdeko izenburua: *Zenbait prediku ta platika uskaras, urte guziko igandeetan ta berze zenbait jaietan predikatuak aldiritan Jangoi-koaren gloria, ta arimen protxutako, milla zapitan egun ta amekagarren urtetik alzina, ta librugontan nasteka ezarriak*  
Bizkarreko izenburua: *Explicatio symboli et sacramentorum. Tomo 1º.*  
Azaleko izenburua: *Sermones cathetici consentanei ad Cathecismum Romanum. Ab anno 1771. Vasconice.*  
Urtea: 1771 – 1782  
Neurria: 297 X 200 mm.  
Orrialde kopurua: 458  
Edukia: Sermoiak  
Non / signatura: NGN. ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N.7.
2. Lehen orrialdeko izenburua: *Liber continens sermones de eucharistia ad populum rusticanum cantabrico idiomate. Ab anno 1776, et deinceps.*  
Bizkarreko izenburua: *Sermonarium Eucharisticum.*  
Urtea: 1776  
Neurria: 215 X 160 mm  
Orrialde kopurua: 476  
Edukia: Sermoiak  
Non / signatura: NGN. ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N.43.
3. Lehen orrialdeko izenburua: *Sermones de Decalogo et Oratione Dominica etc.*  
Bizkarreko izenburua: *Explicatio Decalogi et Domincae Orationis.*  
Urtea: 1782 - 1784  
Neurria: 300 X 205 mm  
Orrialde kopurua: 385  
Edukia: Sermoiak  
Non / signatura: Iruñeko kaputxinoen Gordailu Historiko Probintziala. NA-AHPC.06.01. COD C 001.

4. Bizkarreko izenburua: *Sanduen bizitzak euskaras. Jesus ta Maria.*  
Urtea: c. 1793  
Neurria: 300 X 200 mm  
Orrialde kopurua: 396  
Edukia: Jesus, Maria eta santuen bizitzak  
Non / signatura: NGN. ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N.3.
5. Bizkarreko izenburua: *Sanduen biziak. Koplak*  
Urtea: c. 1793  
Neurria: 300 X 200 mm  
Orrialde kopurua: 330  
Edukia: Santuen bizitzak. Maria, Jesus eta santuei eskainitako koplak.  
Ebanjelioa  
Non / signatura: NGN. ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N.2.
6. Lehen orrialdeko izenburua: *Sermones breves in lingua vasconica ad populum rusticanum in Dominicis et aliquibus festivatibus. Auctore D. Ioachimo de Lizarraga, presbitero, Parocho Oppidi Elcano in Navarra Hispaniae. Anno 1800.*  
Urtea: 1800  
Neurria: 215 X 155 mm  
Orrialde kopurua: 434  
Edukia: Sermoiak eta Bonapartek egindako oharrak jasotzen dituzten bi orrialde.  
Non / signatura: NGN. ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N.31.
7. Lehen orrialdeko izenburua: *Ad majorem Dei gloriam. Sermones breves pro Dominicis totius anni de diversis materiis juxta diversitatem Evangeliorum occurrentium: Ad populum rusticanum sermone cantabrico, ut aliquo modo satisfiat praecepto Tridentini ses. 5, de reformatione c. 2 scriptii aquodam Parocho rusticano. Ad majorem Dei gloriam. Amen. Anno 1802 D. J. L. E. V.*  
Bizkarreko izenburua: *Pro dominicis totius anni sermones breves cantabrico*  
Urtea: 1802  
Neurria: 205 X 150 mm  
Orrialde kopurua: 314  
Edukia: Sermoiak  
Non / signatura: Iruñeko kaputxinoen Gordailu Historiko Probintziala. NA-AHPC.06.01. COD B 022.

8. Lehen orrialdeko izenburua: *Dotrina Kristioa euskarás urteasko jai berex batzuetan [...] 1802 urtean.*  
Bizkarreko izenburua: *Sermones de festis 3.*  
Urtea: 1802  
Neurria: 205 X 150 mm  
Orrialde kopurua: 392  
Edukia/gaia: Sermoiak eta dotrina  
Non / signatura: Iruñeko apaizgaitegian. 5055-0004-0016.
9. Lehen orrialdeko izenburua: *Dotrina kristioaren katetxima euskarás: kredoaren mandamentuen, eta sakramentuen erabakiéra plau, senzill, klaro euskaldún-erri txipietán probetxa dezakéna languntzekó apezaitéi erakústen beren menekoéi labúrki ta erráz: Cum brevitate et facilitate sermonis (Tridentinum) Aldiritako apez-aíta bátek manerátua Jaungoikoaren ta Jesu kristorén gloriátan, eta arimen probetxután. Amen. Paraturik bitartéko Maria santisima, guzién, baña berxiki sazerdoteén patrona ta Ama propia ón guzietáko béti izán, ta izanen déna. Alá dá. Milla, zórtzi eún, ta irugárrén urteán.*  
Bizkarreko izenburua: *Dotrina kristioaren explikazioa euskarás. 1 tomo.*  
Urtea: 1803  
Neurria: 205 X 150 mm  
Orrialde kopurua: 418  
Edukia: Katiximak eta sermoiak  
Non / signatura: Iruñeko apaizgaitegian. 5055-0004-0018.
10. Lehen orrialdeko izenburua: *Erién óngi maneátzeko, eta óngi iltzen lagúntzeko, zenbáit itz gáien oroigárrri ta asiera, eskritúra sagratuetáic, ta santuetáik berexiak, eskunará izáteko zér errán bear ordúan apezaitak bere hume espiritualeéi, klaro, pláu, ta senzillki parátuak. Biz Jangoiko andiarén gloriátan, eta arimen protxután. Amen. Azkenik egina milla zortzi eún ta zazpigárrren urtean.*  
Bizkarreko izenburua: *Ongi iltzen laguntzekó itz gaiak.*  
Urtea: 1807  
Neurria: 150 X 110 mm  
Orrialde kopurua: 316  
Edukia: Gaixo daudenak bisitatzean erabili ahal izateko materiala eta Bibliako zenbait pasarte.  
Non / signatura: Iruñeko kaputxinoen Gordailu Historiko Probintziala. NA-AHPC.06.01. COD A 003.

11. Bizkarreko izenburua: *Dotrina kristioaren explikazioa ta izkétak. 2 tomo.*  
Urtea: 1810  
Neurria: 205 X 150 mm  
Orrialde kopurua: 414  
Edukia: Sermoiak eta Dotrina  
Non / signatura: Iruñeko apaizgaitegian. 5055-0004-0019.
12. Lehen orrialdeko izenburua: *Dotrina kristioa euskarás Aita Gaspar Astete jesuitak erdarás dakárran gisará guti gora bera: Iruñ-aldeán usatzen den mintzaéran (égia erratecó, euskára gaitzkará) [...] 1811 urtean.*  
Bizkarreko izenburua: *Dotrina kristioa euskarás expenpluéki.*  
Urtea: 1811  
Neurria: 205 X 150 mm  
Orrialde kopurua: 296  
Edukia: Dotrina eta gaixoak bisitatzean erabiltzeko materiala  
Non / signatura: Iruñeko apaizgaitegian. 5055-0004-0017.
13. Lehen orrialdeko izenburua: *Dotrina kristioa euskarás, Aita Gaspar Astete jesuitak erdarás dakarran gisará guti gora bera, Iruñ-aldean usatzen den mintzaéran [...].1821 urtean. Jangoikoaren gloriatán. I. L. Amen.*  
Bizkarreko izenburua: *Dotrina kristioa expenplutxoéki. Urte 1821.*  
Urtea: 1821  
Neurria: 154 X 110 mm  
Orrialde kopurua: 174  
Edukia: Dotrina  
Non / signatura: NGN. ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N.31.
14. Neurria: 150 X 105 mm  
Orrialde kopurua: 64  
Edukia: Dotrina  
Non / signatura: Galdurik. Azkeneko arrastoa, NGN, Bonaparte ondarrea, 2. kutxa 58-63.
15. Orrialde kopurua: 50 baino gehiago.  
Edukia: Koplak  
Non / signatura: Galdurik. Ezagutzen den informazio bakarra Inzak (1921) Euskaltzaindian onartu zuteneko sarrera ekitaldian emandakoa da, 1921eko urtarrilaren 27an. Antza 50 orrialde inguru zituen lana da, eta edukia, Jesusi eskainitako koplak.



### 2.3.2. Argitaratuak

Lizarragak, bizi zen artean, ez zuen bere lanik argitaratzen ikusi. Argitaratu zen bere lehen lana hura hil eta 11 urtera iritsi zen lehendabiziko aldiz moldiztegiara. Ondoren, ugariak izan dira eskuizkribuen edizioak, batez ere Apecechea eta Ondarraren lanari esker.

Ondoko lerroetan, argitaratu diren Lizarragaren lanak aipatuko ditugu hurrenkera kronologikoan. Izenburua, inprimatu zen hiria eta jatorrizko eskuizkribua zein den aipatuko dugu, § 2.3.1. atalean erabili dugun zenbaketari jarraituz. Horrekin batera, edizioaren egilearen izena aipatuko dugu.

1. 1846, *Urteco igande guztietaraco plasticac edo itzaldiac Nafarroan, Elcano deritzan errian, bertaco vicario jaun don Joaquin Lizarragac conpondu eta predicatuac*, Donostia, Baroja. 7. eskuizkributik<sup>22</sup>, Iturriagak.

2. 1868, *Jesus. Copla guisa batzuc molde gutitacoac, celebratus Jesus Jaunaren amoreac ta favoreac. Don Joaquin Lizarragac conponduac, ta Luis Luciano Bonaparte principeac arguitara emanac*. Londres: Strangeways and Walden. 5. eskuizkributik<sup>23</sup>, Bonapartek.

3. 1868, *Jesucristoren evangelio santua Juanec dacarran guisrara, Don Joaquin Lizarragac euscaran itzulia itzes itz, daiquen diña, eguiaren amorez, ta Luis Luciano Bonaparte principeac arguitara emanac*. Londres, Strangeways and Walden. 5. eskuizkributik<sup>24</sup>, Bonapartek.

4. 1922, *Jabier 'tar Frantzisko Santuaren Bizitzatxoa. Lizarraga 'tar Joaquin Elkano 'ko Apaiz zanak egiña*. Iruñea. 4. eskuizkributik<sup>25</sup>, Inzak.

5. 1883, “Meachuak ez dituztenei guardatzen amar mandamentuak. Sentencias”, *Euskal-Erria* (VIII), 251. 7. eskuizkributik<sup>26</sup>. Ez da edizioaren egilerik aipatzen.

6. 1954, *Milla euskal-olerki* eder. Larrea-Amorebieta. 7. eskuizkributik<sup>27</sup>, Onaindiak.

---

22 <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/29608> [azken kontsulta: 2021/12/05].

23 <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/29586> [azken kontsulta: 2021/12/05].

24 <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/9197> [azken kontsulta: 2021/12/05].

25 <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/9194> [azken kontsulta: 2021/12/05].

26 <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKVisorBibliotecaWEB/visor.do?ver&amicus=178878&amicusArt=299550> [azken kontsulta: 2021/12/05].

27 230-232. orrialdeetan.

7. 1969, *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco, Literatura vol. 1*, Donostia, Auñamendi. 7. eskuizkributik<sup>28</sup>, Estornes Lasa anaiek.

8. 1979 [1803], *Doctrina christioarén catechima*, Iruñea: Euskaltzaindia. 9. eskuizkributik, Apececheak.

9. 1983 [1793-1821], *J. Lizarraga Elkanokoa. Koplak*, Bilbo: Euskaltzaindia. 5. eskuizkributik, Apececheak.

10. 1984 [1807], *Ongui iltzen laguntzeko itzgaiak*, Iruñea: Euskaltzaindia. 10. eskuizkributik, Ondarrak.

11. 1994 [c. 1793-1813], *Jesu Kristo, Maria eta Santuen bizitzak*, Iruñea: Nafarroako Gobernua. 4. eta 5. eskuizkribuetatik, Apececheak eta Ondarrak.

12. 2004 [1803], *Doctrina Christioaren Catechima*, Iruñea: Nafarroako Gobernua. 9. eskuizkributik, Apececheak.

13. 2004b [1771-1800], *Sermoiak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (Deiker). 1. eskuizkributik, Pagolak.

14. 2004c [1821], *Beste zenbait itzulpen*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (Deiker) 5. eta 13. eskuizkributik, Pagolak.

### 2.3.3. Lizarragaren obraren oihartzuna

Esan liteke Joakin Lizarragaren obrak ez duela haren tamainaren besteko entzuterik izan euskal letren munduan. Bonaparte printzea izan zen hura ikuspegi linguistikotik aztertu zuen lehena (Apecechea, 1978: 2), hego-nafarrera aztertzeko hain zuzen ere. Are gehiago, euskalki hori hedadura geografikorik handienekoa zela aipatu zion Inchausperi gutun batean (Riezu, 1958: 158). Zenbait buruhauste ere ekarri omen zizkion, 1872an D'Abbadieri honakoa adierazi baitzion: “Hegoaldeko goi nafarreraren aditzaren taulak hainbeste nekatu dit burmuina, non eta bere bukaera guztiak nire buru gaixoan iltzatzen diren orratz zorrotzak balira bezala sentitzen baititut” (Riezu, 1958: 158).

Lizarraga aztertu duten adituak ez dira, oro har, bat etorri haren hizkuntza kalifikatzeari dagokionez: [...] *bere yoskerak erderatiko kutsu bat badu; baina oso aberatsa da bestalde verboaren itzulietan, itzetan eta esakeretan ere* (Irigarai, 1959: 120). Lekuonarentzat, aldiz, Lizarraldeko apezekin alderaturik “resulta más gramatical, más cultivado, menos espontáneo, incluido (sic), sin duda, por Larramendi” (1973: 370). Aipatu beharra dago Lekuonak “Domingo Lizarraga de Elcano” bat aipatzen duela, baina Apececheak ere Joakinez ariko balitz

---

28 302-304. orrialdeetan.

bezala hartu zuen (1978: 266). Satrustegik (1981: 660) “aberatsa hizkuntza aldetik nahiz etnografia ikerketarako” dela dio. Policarpo Iraizozek hizkera zaindua erabiltzen zuten autoreen kontrakotzat dauka, haren ustez gaztelaniatiko hitz eta partikulak eragozpenik gabe eta askotan beharrik gabe erabiltzen baitzituen (1978: 245). Harendako, edonor asaldatzeko modukoa da egiten duen erdararen erabilera, ez soilik lexikoari dagokionez, baita gramatikari eta sintaxiari dagokienez ere, eta uste du edozeinek pentsa dezakeela ez duela merezi eredutzat hartu beharko ez litzatekeen autore bat aztertzea (ibid.). Hala ere, Iruñerriko euskara ezagutzeko oso datu baliagarriak ere jasotzen dituela dio (ibid.). Bide beretik doa Salaberriren epaia ere, Lizarraga atsegin handiz irakurtzen duela diotenean “ez, jakina, erakusten duten ortografia ederragatik edo egileak gaiak erabiltzeko zuen antze eta trebetasunagatik, han-hemenka aurkitzen ditugun bitxi linguistikoengatik, Iruñerriko euskararen berri ematen diguten erranairu, itzuli eta hitzengatik baizik” (2008: 597).

Azkuek oparo erabili zituen Lizarragaren lanak bere *Diccionario vasco-español-francés* eta *Morfología vasca* lanetan (Ondarra, 1980: 108), baina ez zuen Lizarragaren lana bere osotasunean erabili, eskuizkribuak alde batera utzi eta argitaraturiko lanak besterik ez baitzituen baliatu (ibid.: 107). Villasantek ere tokia egin zion bere *Historia de la literatura vasca* lanean (1979: 237-239), Lizarraga erraldoi bakarti bat zela aipatuz (ibid.: 237) eta haren euskara “muy rico en palabras, especialmente navarras, giros y flexiones verbales” dela esanez (ibid.: 239). Dena dela, esan liteke Apecechea eta Ondarra izan direla gaur arte Lizarraga aztertu eta ezagutzera emateko ahalegin handiena egin dutenak.

Apececheak 1975. urtean eman zuen argitara Lizarragarekin lotura duen bere lehendabiziko lana. Urte hartan, hiru sermoi argitaragaberen edizioa aurkeztu zuen, autorearen hizkuntzaren eta bizitzaren gaineko zenbait datuekin batera. Handik hiru urtera, 1978an, bere tesia argitaratu zuen, lehendabiziko artikulu horretan sakonduz, Lizarragaren bizitza eta testuinguru historikoaren gaineko informazio xehea jasoz eta erlijio ideiak, corpusa eta hizkuntza aztertuz. 1978tik 1990era argitaraturiko artikulu sorta batean, zazpi sermoi eman zituen argitara *Fontes Linguae Vasconum* (FLV) aldizkarian. Bertan, sermoi endukiaz gain, Elkanokoaren lexikoa aztertu zuen, hitz zerrenda oso interesgarriak eskainiz. Zenbait edizio ere egin zituen, batzuetan bakarka —*Doctrina Christioaren Catechima* (1979, 2004) eta *Koplak* (1983)— eta beste batzuetan, *Jesu Kristo, Maria eta Santuen bizitzak* (1994) (JMSB aurrerantzean) bezala, F. Ondarrarekin batera. Apecechearen interesa hizkuntzalaritzatik haratago zegoen eta hala adierazi zuen behin baino gehiagotan: “[n]o nos parecía justo limitar el área de difusión de una obra cuyos valores desbordan los del campo estrictamente lingüístico” (Lizarraga, 1979: 27) edota “[...] Elkanoko Bikarioaren idazlanek

euskarari buruzko balioa eta muga gainditzen dutenez gero, komenigarria iduritu zait gaztelaniara itzultzea" (1979b: 775).

Ondarrak ere hainbat lan eta artikulu argitaratu zituen Joakin Lizarragarekin loturik. Apecechearekin batera paraturiko edizioaren aurretik, *Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)* eman zuen argitara 1972. urtean. 1980an Lizarragak Azkueren hiztegian izandako eragina aztertu zuen eta 1984an, *Ongui iltzen laguntzeko itzgaiak* argitaratu zuen. Euskaltzainak argitaraturiko azken edizioa *Urteko Igande Guztietarako Prediku Laburrak* (1990) izan zen.

Fagoagak (1959) egin zuen Lizarragaren lexikoan oinarrituriko lehendabiziko hitz zerrenda, argitaratu gabeko bi eskuizkribu azterturik. 1955ean, Azkueren hiztegia eguneratzeko egitasmoari hasiera eman zion Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren bitartez, eta Fagoagaren helburua zen hiztegi horretan jaso beharko liratekeen hitzak proposatzea. Horretarako, lekeitiarrak aurretik ere Lizarragaren lana erabilia zuela argudiatu zuen, eta hark erabilitakoa Lizarragaren obraren zati bat besterik ez zela ikusarazi nahi izan zuen: "Azkue yaunak Lizarragaren liburu argitaratuak ongi ikuskatu zituen. Amaika nafar itz badaude aren Iztegian, Lizarragaren liburuetatik artuak. Baño Lizarragak, argitaratu baño, argitaratu ez diran liburu geiago ditu" (1959: 63). Pasarte horretan aipatutakoak berretsi zituen Ondarrak (1980) ia hogeitun urte geroago. Hitzei buruzko informazio ugari jaso zuen Fagoagak:

ALTSAI. Azkue toma alsai de Araquistáin con el significado de ‘pastor’ y añade: “Debe de ser alzai”. Pero Lizarraga, hablando de la adoración de los pastores, les llama varias veces arzaik y poco antes usa alsaiac [...]. (1959: 64)

ANBATE: Cantidad (Larramendi) (ibid.: 65).

Urte eta aldizkari berean (*Euskera* 4), Irigaraiak “Lizarraga Elkanokoa” artikulua argitaratu zuen, eta bertan zenbait datu interesgarri bildu zituen, aipagarri suertatu zitzaizkion hitz, esaldi eta aditzak zerrenda batean biltzearekin batera. Emandako datu guztiak ez dira zuzenak, bertan aipatzen baita Lizarraga Loiolan egon zela 1766. urtean (Irigarai, 1959: 120). Apececheak datu hori gezurtatu zuen (1978: 67-71) eta haren jatorria Felix Idoatek 1867an José Joaquin Ollori idatzitako gutun batean egon zitekeela idatzi zuen. Apececheak Mitxelenari (1960: 101, 102) egozten dio Idoateren datu oker horren lehen erabilera, baina, Irigarai urtebete lehenago aipatu zuen Lizarraga Loiolan egonik zela, eta, beraz, baliteke Mitxelenaren iturria Irigarairen 1959ko artikulua izatea (Lizarragaren bizitzaz, ikus § 2.1. eta § 2.2.). Hitzen eta esaldien inguruko informazioa ere ez da Fagoagak eskainitakoa bezain xehea. Gehienetan, itzulpen hutsa eskaintzen du, nahiz eta noiz edo noiz hitzaren ingurunea edota oharrak ere txertatzen dituen:

Aisanaiaak “Comodones” (Irigarai, 1959: 124)

*Beira nindégo erorcen Satanás ausnarria becala* (Ausnarria “chispa, centella”. Traducción de Lucas 10, 18. *Videbam Satanam sicut fulgur de caelo cadentem*) (ibid.: 122).

*Eztiote gezur egin gizonei* (Bonaparte anota de su letra: *eztiozete?*) (ibid.: 126)

Lizarragaren lexikoa oinarri duen hitz zerrendarik luzeena Policarpo Iraizozek (1978, 1979) egin zuen. Hitzak hautatzeko, baina, ez zuen Lizarragaren obra osoa aztertu, eskuizkribu bakarra baizik, eta hori da lanaren gabeziarik handiena, autorearen garapena azterkizun geratu baitzen.

1981. urteko *Euskera* aldizkarian, Fermin Ixurkok Aldatzen (Larraun, Nafarroa) aurkituriko Elkanoko Joakin Lizarragaren eskuizkribu baten inguruko artikulua idatzi zuen. Bertan, eskuizkribuaren deskribapen fisikoa, edukiaren azalpena, balizko iturriak eta hitz zerrenda bat dakartza, baina azterketa sakonik egin gabe: "Ehun hitzetik goiti bada bilduman. Adieraz dudatzen banaiz, esaldi osoa ematen dut, uztatzen dakienak uzta dezan" (Ixurko, 1981: 336). Aurretik beste autore batzuek onduriko hitz zerrendetan jaso gabeko hitzak biltzen saiatu dela dio, baina ez zuen Fagoagaren lana aztertzeko aukerarik izan. Fagoagak jasotako zenbait hitz bildu arren, errepikaturikoen kopurua ez da oso handia (zortzi hitz besterik ez), eta gehienetan bat dator autore biek ematen duten definizioa, Ixurkorena hain xehea ez bada ere.

Patxi Salaberrik egin du Lizarragaren lexikoa aztertzeko azken saioa 2008an. Bere lanean, Lizarragaren eta haren iturri zein eraginaren gaineko datuak biltzen ditu, lexikoa, maileguak, deklinabidea, aditzen balentzia, aditz jokoa eta abar aztertuz. Lan horren eragozpenik handiena artikulua izateak ezartzen dion muga da.

#### 2.4. Obraren bizitza eta eskuizkribuen egungo kokapena

Lizarragaren obra eskuizkribatuak egin duen ibilbidea Ondarrak (1972) eta Apececheak (1978) aztertu dute xehiekien, eta haien lanak erabili ditugu atal honen oinarria idazteko. Egungo egoerari buruzkoak guk geuk ikerturikoak dira

Lizarraga hil zenean, Orrioko bikarioa zen Francisco Joaquin de Unciti ilobaren esku utzi zituen bere liburu eta eskuizkribu guztiak. Hil ondoren liburuak atzera Migeleneara itzultzea zen horretarako ezarri zuen baldintza bakarra. Liburu horien guztien artean, egun ezagutzen diren Lizarragak idatziriko 15 eskuizkribuak zeuden.

Gutxienez 15 eskuizkribu idatzi zituela badakigu, baina zoritxarrez, horietako bi galdurik daude egun. Lehenik 15. eskuizkribua galdu zen 1921 eta 1972 artean, Inzak (1922) horren berri eman eta Ondarra (1972) haren bila hasi bitartean. Apececheak (1978: 251) dioenez, Iruñeko kaputxinoen liburutegian galdu zitzaion arrastoa.

Horren ondotik, 1972 eta 1978 artean, Ondarrak bere lana idatzi zuen urtetik Apececheak berea idatzi zuenera joan zen denbora tartean, 14.a galdu zen Nafarroako Gordailu Nagusitik.

Geratzen diren 13 eskuizkribuetatik 7 Bonaparteren eskuetan izan ziren (1, 2, 4, 5, 6, 13 eta 14), eta, Azkueren eta Mandasko Dukearen lanari esker, Londrestik NGNra ekartzea lortu zen. Egundak Bonaparte ondarean daude (14.a ezik), eta 2019. urteko urtarriletik sarean edozeinen eskura digitalizaturik<sup>29</sup>.

Atalaren hasieran, Lizarragaren liburu guztiak bere ilobaren esku geratu zirela esan dugu, baina hori ez da guztiz horrela. Badakigu 6 zenbakia duena ez zela Lizarragaren ilobaren eskuetara iritsi, hil aurretik (1835a baino lehen) Lizarragak berak Arangurengo apezka zen Pedro Vicente Ricarteri oparitu baitzion. Honela irakur daiteke lehen orrialdean:

Joakin Lizarraga jaunak niri, Pedro Vicente de Ricarte jaunari, Arangurengo apezka naizenari oparitu zidan hain estimatua izan eta izanen zidan bere sermoien liburuki hau (1800: 0, *itzul.*).

Hura hil zenean, haren oinordekoek Felix Idoate Arreko Trinitateko kapilauaren esku utzi zuten, eta hark era berean Jose Joaquin Ollo Hondarribiko apezari eman zion. Azken horrek 1866an Bonaparteri eskaini, eta halaxe bukatu zuen Londresen, printzearen liburutegian.

Felix Idoatek, Arreko Trinitateko kapilauak, Ricarteren oinordekoengandik jaso zuen honako liburukia eta niri oparitu zidan: era berean nik J.T.P. Luis Luciano Bonaparteri eskaintzeko ohorea dut. Hondarrabian, 1866ko otsailaren 23an. Jose Joaquin Ollo (1800: 0).

5 eta 14 eskuizkribuek ere antzeko ibilbidea egin izanen zutela proposatzen du Ondarrak (1972: 267), Idoatek Ollori oparitu baitzizkion. Gainerako bost eskuizkribuek egindako ibilbidearen inguruko daturik ez dago.

Iruñeko apaizgaitegiko eskuizkribuak (8, 9, 11 eta 12) Severo Adrianiren liburutegitik igaro zirela ezagun dute, azalaren barruko aldean haren liburutegiko zigilua itsatsirik baitute. Adriani Iruñeko apezpiku izan zen 1830-1861 aldian, eta eskuizkribu horien jabe izatea Lizarragak idazle bezala lortu zuen prestigioa-

---

29 [https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archi-vo+Abierto/FondosAA/Principe+Bonaparte.htm](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archi-vo+Abierto/FondosAA/Principe+Bonaparte.htm).

ren erakusle argia da, Elizaren barruko pertsona garrantzitsuen interesa bereganatzea lortu baitzuen. Litekeena da eskuizkribuak Adrianik berak apaizgaitegiari oparitu izana.

Geratzen diren hiru eskuizkribuez (3, 7 eta 10) den bezainbatean, 3a eta 10a Lizarragaren etxean aurkitu zituztela aipatzen du Inzak (Apecechea 1978: 253). 7az ez da informaziorik, baina badakigu Iturriagak argitaratu zuela 1846an, Gipuzkoako hizkerara egokitu ondotik. 2011. urtean, kaputxinoek euren liburutegiak elkartu eta katalogoa bateratzea erabaki zuten, eta, horren ondorioz, hiru eskuizkribuak Iruñeko kaputxinoen Gordailu Historiko Probintzian daude egun.

## **2.5. Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak (JMSB)**

Atal honetan JMSB lanaren nondik norakoak ezagutuko ditugu. Lehenik eta behin, Lizarragak erabilitako grafia sistemari erreparatuko diogu (§ 2.5.1.), eta, ondoren, eskuizkribuen informazioa eta autoreak erabilitako iturriak aipatuko ditugu (§ 2.5.2.).

### 2.5.1. Grafia azterketa

Azpiatal honetan Lizarragak JMSBn erabilitako grafia sistema aurkeztuko dugu. Lehenik, Garai hartan nagusi ziren joera nagusiak azalduko ditugu, Urgell 2018 oinarri harturik<sup>30</sup> (§ 2.5.1.1.); ondotik, Lizarragaren idazkera (§ 2.5.1.2.) eta erabilitako grafia sistema ikusiko ditugu (§ 2.5.1.3.). Bukatzeko, hiztegiko hitzen eta adibideen grafia eguneratzeko jarraitu ditugun irizpideen berri emanen dugu (§ 2.5.1.4.).

#### *2.5.1.1. Garaiko grafiaren joera nagusiak*

Lehen Euskara Modernoaren garaian, grafiaren inguruko kezka hazten zihoan. Gero eta gehiago idazten zen euskaraz eta hizkuntzari hobeki egokituko zitzaion grafia sistema baten beharra gero eta nabarmenagoa zen, batez ere garai horren bukaera aldera idazten zutenen artean (EH: 565). Erdal grafietatik heldu anbiguotasunak ezabatzeko eta gainditzeko ahaleginak egin zituzten idazleek, baina proposaturiko aldaketak zenbaitetan atzera botatzen zituzten moldiztegietan, proposamen berriak aurrera eramateko baliabide faltagatik.

---

30 Bereziki grafiari eskainitako ataletik (2018: 607-614).

Lapurtera klasikoko lanak Hegoaldera hedatzearen ondorioetariko bat, idazkera etimologikoen ugaritzea izan zen (*bat-tasun*, (*h*)*itzkuntza*...), kodan txistukari afrikatuei eusteko joera dago (*aberatstasun*, *eragotzpen* ...), eta askok erroa eta atzikia bereizten dituzte deklinatu eta eratorrietan (*bazter-etan*, *egin-garri*...). Ezezko partikularekin, ahoskera islatu ohi zuten batzuek (*eztira*, *ezpada*...), eta beste batzuek etimologikoki idaztea nahiago zuten (*ez dira*, *ez bada*...). Garai honetan, idazkera jasoaren erakusle zen maileguetan <v> eta <h> erabiltzea. Esaterako, euskal jatorriko *bide* eta *bizi* latinezko *via* eta *vita* hitzeta-tik zetozela uste zabaldua zenez, *vide* eta *vici* idatzi ohi ziren.

Larramendik zenbait hausnarketa egin zuen, esplizituki grafia sistemarik proposatu ez bazuen ere. Esaterako, <h> norberak bere euskalkiaren arabera erabiltzea iradoki zuen (1729: 338); berak maileguren batean eta euskal hitz gutxi batzuetan besterik ez zuen erabili (*hitz* eta bere eratorriak, *hil*, *hume*, erakusle-tan homofonia saihesteko —*ura* vs *hura*— eta Iparraldeko tradizioetik harturiko hitzetan). Horrekin batera, <ç> alde batera uztea lortu zuen, eta <ts> eta <tz> sustatu. Hitz barruan <iñ> idatzi ohi zuen sudurkari hobikariaren bustidura adierazteko (*baiña*), eta <in> zein <iñ> hitz amaieran (*bein* edo *bein*). [j] adierazteko, <sy> eta <is> zerabiltzan (*gosyo* edo *goiso*). Azentuari atal oso bat eskaini zion gramatikan (1729: 336-372), nahiz eta ez zuen eragin handiegirik izaterik lortu. Iparraldean ez dago horri buruzko daturik eta Hegoaldean Lizarraga Elkanokoa izan zen azentua sistematikoki adierazi zuen bakarra.

Kardaberazek Larramendiren sistematik apur bat aldendurik idatzi zuen. Adibidez, <h> eta <v> erabat arbuiatu zituen, lehena Bizkaian eta Gipuzkoan ez zela erabiltzen argudiatu, eta bigarrena, Añibarrok azalduko zuenez, “ez dago[elako] euskal hitzik berekin *v* kontsonantea dakarrenik” (EH: 608). Kontsonante sudurkari hobikariaren bustidura adierazteko, <ñ> idazten du “*i* ez baita ez esaten, ez entzuten” (ibid.). Txistukarrietan, [j] adierazteko, <f> eta <i> darabiltza (*gofo* edo *goi/so*), baina baliteke moldiztegiaren erabakiz izatea, eskuizkribuan <ś> darabilelako.

### 2.5.1.2. Lizarragaren idazkera

Lizarragaren idazkeraren berezitasun nabarmenatariko bat da azentua markatzea. Bere garaian ez zen batere ohikoa eta, alde horretatik, biziki interesgarria da idazle honen obra. Azentua esaldiaren arabera markatzen du, hots, hitz bera modu askotara azentuaturik aurki daiteke (*guero*, *guéro* eta *gueró*)<sup>31</sup>. Gehiengotan, azken-aurreko silaban markatzen du, nahiz eta azken silaban ere usu ageritzen. Mailegu batzuetan eta euskarazko forma gutxi batzuetan azken-hiruga-

31 JMSB: 359, 537 eta 162 hurrenez hurren.



rrean jartzen du. Bestalde, askotan bokalarteko kontsonanteak galdu egiten dira, gehienetan azentu markaren ondoren: *diolá[r]ic, naibá[d]ute*. Aferesirik ez dugu aurkitu azterturiko laginean, baina bai, ordea, sinkopa ugari euskarazko hitz zein maileguetan (*at[e]rátzeco, bed[e]rátzi, d[e]réchos...*). Aurkituriko sinkopa guztiak azentuaren aitzinean gertatzen dira.

Bestalde, esan daiteke oro har idazkera fonetikotik nahiko hurbil den sistema darabilela. Esaterako, txistukari ondoko herskari ahostunak ahoskabe adierazten ditu (*ezpaita, eztéla, ezcaizazula...*), ozen ondoko afrikatzeak (*escatzen-tzué*) eta baita bi txistukarien elkartzetik sorturiko afrikatzeak ere (*etzué*). Dena dela, bada salbuespen ugari: *incituen, ez zuen, ezdezáquet...*

Mailegu zein euskal hitzekin erabiltzen du <h>, Larramendiren irizpideei jarraituz, edo haren antzera (§ 2.5.1.1). Honako hauek dira Lizarragak JMSBn <h>-rekin idazten dituen hitzak<sup>32</sup>:

*ahorratu, alhagatu, alhaja, anhelo, arha, desahogo, deshon(o)re, errehusatu, erreprehensio, etxe-hazienda, exhalatu, exhortatu, habil, habitu, hagoan, hamua, hau, hazienda, hebreo, hein, heredaje, heredatu, hereje, herenzia, heri, hermita, himno, hipokrita, hispillu, historia, hogera, honesta, honore, honra, horroroso, hortelano, hospitale, hostia, hozpiñ, humanidade, humano, hume, humil, humore, konprehendi, malhur, ohore.*

Igurzkari belar ahoskabea adierazteko orduan, Lizarragak <ge> eta <gi> idazten du, [xe] eta [xi] hotsak adierazteko, bai maileguetan eta baita euskal hitzetan ere.

Elkanokoak <je> eta <ji> idazten duenean, erdal maileguetan [xe] eta [xi] adierazten dute, baina euskal hitzetan [je] eta [ji] txistukariak ere izaten ahal dira, besteak beste, hego-nafarreraren ezaugarri ia eskusiboa baita hitz hasierako [ \*j- ] / [ j- ] bilakabidea (Camino 2004: 69).

Hego-nafarreraz igurzkari belarraren lekukotasunak badauden arren<sup>33</sup>, eta Ezkabarte, Txulapain, Imotz eta Larraun ibarretako zenbait herritan eta Erroi-barren [J-] sabaikaria badago ere, oro har, badirudi hego-nafarreraren eta bere inguruko hizkeretan ere [j-] zela nagusi. Gorago esan dugun bezala, Lizarragak <chs> darabil txistukari sabaiaurrekoa adierazteko, eta batzuetan horixe erabiltzen du *chsaquin*<sup>34</sup> hitza dazteko, nagusiki *jaquin* idazten duen arren (102 aldiz

32 Hitzen forma jokatuak ere <h> daramate, esaterako *hospitaleren* kasuan, *hospitaleak, hospitalean, hospitaleetan, hospitaleko, hospitalera* eta *hospitaletora* aurkitu ditugu.

33 HHNko Garesen eta, zurrar ez bada ere, MHNko Gesalitzen (Camino, 2004: 68).

34 *Chsaquin, chsaquinac, chsaquinen, chsaquinic, chsaquinsu, chsaquintasun, chsaquintasuna, chsaquintasunac, chsaquintasunaren, chsaquintasunean, chsaquintsu* eta *chsaquitea*.

*chsaquin* eta 263 *jaquin*). Dena dela, aurretik ezeztapena duenean, *echaquin* idazten du gehienetan<sup>35</sup>, eta gure ustez horrek ahozkoan [ʃ-] erabiltzen zela erakutsiko luke, hots, afrikazioa gertatu dela, egun Aezkoan dagoen bezala: *ez* + [ʃ] *jakin* > *etxakin*. Hala ere, kontsonante klusterren konbinazio ugari dago. OEHN (s.v. *ez*) “-tz- como resultado de *ez z-*; -tx- de *ez j-*” agertzen da, baina aurrerago:

Expresiones habituales como *ez jauna* pueden dar lugar a formas como *ezkauna* (*CatAe* 20); cf. tbn. *ezkauna* en Bon-Ond 163 (AN-egüés), y *ezkone* (AN-olza); la inicial de *jaun* es sin duda velar. Cf. tbn., ante palatal, *etxauna* (V-och, B, Sal) o *etxakin* (LE-Ir, Etch 638, ZMoso 46)<sup>36</sup>.

Lizarragak <chs> eta <ch> erabiltzen ditu [ʃ] eta [tʃ] adierazteko:

### 1. taula

<b>tx-</b>	<i>ain chusto</i> ‘hain justu’, <i>ain txusto</i>	<i>chastatu</i> ‘dastatu’, <i>txastatu</i>	<i>chostatu</i> ‘jostatu’, <i>txostatu</i>
<b>x-</b>	<i>chsaiqui</i> ‘jaiki’, <i>xaiki</i>	<i>chsaquin</i> ‘jakin’, <i>xakin</i>	<i>chsauchi</i> ‘jaitsi’, <i>xautxi</i>

Hala ere, guztiek dute <j> dun aldaera Lizarragarenean. Gainerakoan <j-> da nagusi (*jaio*, *jan*, *jauna*, *jautu*, *joan*...), izan ere, Joakin Lizarraga Elkanoko fededunentzat elizan predikuak ematen zituen apez eguesibartarra izateaz gain, Mendiburu ezagutu zuen, Larramendi jarraitzen zuen edo Axular irakurri zuen idazlea ere bazen. Horregatik, ongi zekien [ʃ-] ahoskatzen zuten lapurtarrek <i-> idazten zutela, eta [x-] ahoskatzen zuten giputzek <j-> idazten zutela. Hori dela-eta, une hartan euskaraz idazten zuten Hegoaldeko apez euskaldunek bezala idatzi zuen <j-> Lizarragak ere, nahiz eta Eguesibarren [ʃ-] ahoskatzen zen. Eguesibarren horrela ahoskatzen zela ez dakigu Lizarragatik bakarrik, Jose Javier Larraintzar Elkanoko Bonaparteren berriemaileak ere horrelaxe ahoskatu baitzituen 1869. urte inguruan honelako euskal aditzak: *šan* ‘jan’, *šanarazi* ‘janarazi’, *šarri* ‘jarri’, *šo* ‘jo’, *šosi* ‘josi’, *šautsi* ‘jaitsi’, *šaiki* ‘jaiki’, *šardoki* ‘jarduki, mintzatu’, *šayo* ‘jaio’, *šakin* ‘jakin’ (Ondarra 1982: 156-160). Aurrerago,

35 45 aldiz idazten du *echaquin* (*echaquin*, *echaquines*, *echaquinez*, eta *echaquitea* formatan) behin *ez xakintasunak*, eta bi aldiz *ez jakin*.

36 *Jauna* eta *xakin* kulturalki hitz ezberdinak dira: *Jaungoiko* bezala, Elizaren predikazioaren bidez [x-] izatera iritsi da *jaun*, baina ez da hitz gehiagotan gertatu, besteetan [ʃ-] dago, ez da aldatu. Izatekotan, [x] *joan* da salbuespena, gainerakoak [ʃ-] dira. Horrela ageri da Elkanon XIX. mende bukaeran ere.

ordea, *šai* ‘jaia’, *šokatu* ‘jokatu’ eta *jauna* (belarra), *joan* (belarra) eta “*jaso* entre aspas” eman zituen.

Badakigu orobat Lizarragak idatziriko <jautu> ahoskeraz *xautu* dela Aezkoan (*CaminoAe*). Lizarragak [ʃ] *jasi* ahoskatu eta <jasi> idatzi zuena da, ziu-renik asimilazioaren bitartez, Aezkoan *sasi* ‘eutsi’ eman duena (*CaminoAe*). Hego-nafarrerako corpuseko datuetan ere bilakabide horren lekukotasunak aurkitu ditugu aditz gutxi batzuetan (*xakin* ‘jakin’, *xarduki* ‘jarduki’, *xarri*, ‘jarri’, *txautxi* ‘jaitsi’...).

Antzera gertatzen da Lizarragaren <mereji>rekin (122 agerraldi)<sup>37</sup>: Erronkarin eta Zuberoan bezala, Aezkoan *merexi* dago eta Zaraitzun *mereximentu*. Iraizozek (1978) *merexi*, *xasi*, *xautu* dakartza, eta baita *xito* ‘ijitoa’ ere, azkena Lizarragaren <chsito> emateko. Era berean, badakigu Aezkoan eta Eugin *zito* dagoela (*CaminoAe*, *IriarteE*).

Gauzak horrela, Bonaparteren garaian jasotako Elkanoko, Artzibarko eta Aezkoako [-]ren lekukotasunek, HNCor-en aurkituriko formek eta Caminoren azterketak (2004: 69) aintzat harturik, ahozkoan *-jauna* eta *joan* kenduta– Lizarragaren garaiko Elkanon [-] zegoela proposatzea iruditzen zaigu zentzuzkoena, eta horrela jokatu dugu.

### 2.5.1.3. Lizarragaren grafia sistema

Atal honetan Lizarragak euskara idazteko hartu zituen erabakien berri ematen dugu. Fonemetatik abiaturik, Lizarragak fonema horiek adierazteko erabili zituen grafemak ikusiko ditugu.

/b/: <b> *biz*, *berce*; <v> *Avenduarén*, *vicitza*, *preservatus*  
 /c/: <tʃ> *aurritōa*  
 /f/: <f> *faltatu*; <ff> *offrecitucé*  
 /g/: <g> *galtzerá*, *yagotan*, *egunetic*; <gu> *igues*, *ainguiruen*  
 /i/: <i> *idia*; <y> *mysterio*  
 /j/: <y><sup>38</sup> *yago*  
 /k/: <c> *becatu*, *contatzecó*; <qu> *dezaque*, *jaquin*; <ch><sup>39</sup> *Christo*  
 /ɲ/: <ñ> *baña*  
 /r/: <rr> *aurr*

37 *mereji*, *mereximentu*, *mereximentua*, *mereximentuak*, *mereximentuen*, *mereximentuengatik*, *mereximentuetan*, *mereximentus*, *mereximentutako*, *mereximentuz*, *merexirikako*, *merexitu*, *merexiturik*, *merexitus*, *merexitzea*, *merexitzen*.

38 Kultur hitzetan edota izen berezietan.

39 Kultur hitzetan edota izen berezietan.

/s/: <c\_e,i> *ceñéqui, gucién*; <z\_a,e,i,o,u> *izambazé, zeiqueláic, guizonoc, caridadezco*

/ś/: <s> *ásqi, óbras, espóso*; <ss> *Santissimaréqui*

/j/: <chs> *Berechsis, chsaquin*; <j> *jaquin, mereji*

/t/: <t> *mutico*; <th><sup>40</sup> *theologia*

/ts/: <tz> *etzue, mendórtz*

/tś/: <ts> *etsái*

/tʃ/: <ch> *bacocha*

/x/: <g> *Magestadea, imagina*

/ʎ/: <ll> *doncella*

Batzuetan [x] <x> idazten du, gaztelania zaharraren ohituren eraginez: *exémpļu*

#### 2.5.1.4. Lizarragaren grafia eguneratzeko harturiko erabakiak

Lanean zehar, eta hiztegiaren atalean bereziki, JMSBko zenbait adibide erabili ditugu azaldukoak hobeki ulertzeko. Adibide horiek ulergarriago izan daitezzen, grafia eguneraturik ematea erabaki dugu, eta horrek zenbait erabaki hartzea eskatu digu. Atal honetan, horien berri emanen dugu. Hasteko irizpide orokor batzuk aipatuko ditugu, eta, ondoren, grafema bakoitza aztertuko dugu banaka.

Bokalak bere horretan utzi ditugu, kultismo batzuetan egindako aldaketak gorabehera (cf. *mysterio* > *misterio*). Aldatu gabe utzi ditugu *Genovefa*, *Godoléva* eta *Venzesláo* pertsona izenak eta honako leku izen hauek: *Carmesko*, *Catana*<sup>41</sup>, *Maqueda*, *Salamanca*, *Vienan*. Beste leku izen zenbait aldatu ditugu: *Calcedonia* > *Kaltzedonia*, *Calvariorat* > *Kalbariorat*, *Castela* > *Kastela*, *Cordoba* > *Kordoba*, *Valenciara* > *Valentziara*. Pertsona izen berezietan <x> batzuk ez dira aldatu, euskaraz ere berdin delako (*Xabier*); hauek dira aldatu ditugunak: *Curzio* > *Kurzio*, *Francisco* > *Franzisko*, *Ignacio* > *Ignazio*, *San Francisco Xabier* > *San Frantzisko Xabier*. Hitz batzuetan, tradizioa jarraitzeagatik edo kultura hitz direlako, <x>, <g>, <gi> eta <ge> ez ditugu aldatu (*exenplu*, *Egipto*). Euskaltzaindiak <g>rekin idatzi behar direla erabaki duenetan (*astrologia*, *teologia*), Akademiaren irizpideekin bat egin dugu, eta horiek jarraitu ditugu.

Hauek dira egin ditugun egokitzapenak, Lizarragak erabilitako grafiatik abiatuta:

- <b> → <b>
- <c\_a,o,u,#> → <k>

40 Kultur hitzetan edota izen berezietan.

41 Dakigularik, Siziliako Catania.

- <c\_e,i> → <z>
- <ch> → <tx>
- <ch> → <k> (kultismoetan)
- <chs> → <x>
- <ff> → <f>
- <g\_e,i> → <j>
- <gu\_e,i> → <g>
- <h> → <h>
- <j> (ahozko hitzetan [j] dagoela ziur dakigunean): <x>
- <j> (hitz jantzi eta maileguetan): <j>
- <ll> → <ll>
- <mb> → <nb>
- <mp> → <np>
- <nn> → <n>
- <pp> → <p>
- <qu> → <k>
- <rr\_c.#> → <r>
- <ss> → <s>
- <th> → <t> (kultismoetan)
- <ts> → <ts>
- <tz> → <tz>
- <v> → <b>
- <x> → <j>
- <x> (idazkera tradizioa duten hitzetan) → <x> (*exenplu*)
- <y> (kultismoetan) → <i>
- <z> (aldaera afrikatuak agerpen gehiago duenean) → <tz> (*gurutze*)

## 2.5.2. *Jesukristo, Maria eta Sanduen Bizitzaken* nondik norakoak

Atal honetan lan hau osatzeko erabili ditugun Lizarragaren idatziak eta horiek jasotzen dituzten eskuizkribu eta edizio modernoak emanen ditugu ezagutzera. Bakoitzaren deskribapena, kokapena eta nondik norakoak azalduko ditugu, eta ondoren horiek osatzeko Lizarragak erabili zituzkeen iturriak aurkeztuko ditugu.

### 2.5.2.1. *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak* (JMSB)

JMSB Juan Apececheak eta Francisco Ondarrak 1994. urtean Nafarroako Gobernuaren laguntzaz argitaraturiko Joakin Lizarragaren bi eskuizkribuen edizio paleografikoa da. Edizio honetatik hautatua da lan honetan aztertu dugun

lexikoa, eta Klasikoen Gordailuak eskaintzen duen OCR<sup>42</sup> bidez egindako haren bertzio digitalizatua<sup>43</sup> erabili dugu kontsultak eta bilaketak egiteko.

Lanaren hasieran, eskuizkribuen inguruko informazioa biltzen duen bost orrialdeko aitzinsolasa eskaintzen dute Apececheak eta Ondarrak (JMSB: 9-14); bertan adierazten dutenaren arabera, “besteak beste azentuaren arloa ikertzeko protxugarri” izatea da edizioaren helburua. Eskuizkribuak jatorrizko hurrenkeran eman dituzte, hiru ataletan. Alde batetik, Jesu Kristo eta Mariaren bizitzak eta bestetik, santuenak biltzen dituen eskuizkribua lehendabizi, eta, horren ondotik santuen bizitzen ingurukoa.

JMSBn erabilitako bi eskuizkribuak, larruz azalezatuak, Nafarroako Gordailu Nagusian (NGN) daude egun, Bonaparte Ondarean sailkatu eta digitalizaturik. 2018ko otsailean, NGNk Bonaparte ondareko eskuizkribuak Gordailu Irekian<sup>44</sup> argitaratu zituen, beste bilduma batzuekin batera, publiko zabalaren esku utzirik. Apecechea eta Ondarraren tradizioari jarraituz, bati *A kodizea* eta besteari *B kodizea* deituko diegu.

#### 2.5.2.2. A kodizea

*A kodizea* deitu dugun eskuizkribua NGNko Bonaparte Ondarean aurki daiteke, *ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N3* signaturapean. Jatorriz Carmelo Echegarayren katalogotik heldu da<sup>45</sup>, eta bertan 46 zenbakia zuen.

Eskuizkribuak 300 mm luze eta 200 mm zabaleko 399 orrialde ditu, eta orrialde bakoitza bi zutabetan banaturik dago. Zutabe bakoitzaren testuari eskainitako eremua laukizuzenez mugaturik dago, eta orrialde zenbakia orrialdearen goiko aldean erdian ematen da aurkian eta ifrentzuan. Horrez gain, orrialde bakoitietan goian ezkerrean orri zenbakia idatzirik dago arkatzez, 1etik hasi eta 200era, eta ez dirudi Lizarragak idatzia denik. Eskuizkribua bi zati edo atal nagusitan banaturik dago 1-65 orrialdeak hartzen ditu lehenak, eta 66-399 bigarrenak. Lizarragak zenbaketa beregaina eman zion bakoitzari.

---

42 Optical Character Recognition (Karaktere Hautemate Optikoa). Idatzizko iturri baten irudi eskaeratik automatikoki testua eskuratzeko softwarea.

43 Hiru zatitan ematen da *Klasikoen Gordailuan* [azken kontsulta 2021/12/8]: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LizarragaKristoBirjina.htm>; <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LizarragaZenbaitSandu.htm>; eta <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LizarragaSanduak.htm>.

44 [https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archivo+Abierto/FondosAA/](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archivo+Abierto/FondosAA/)

45 Euskal erakundeek Bonaparte Ondareko dokumentuak eros zituzten esku hartu zuen Echegarayk, Bizkaiko aldundiari 1906an bidalitako gutun batean ikus daitekeenez (<https://www.kmliburutegia.net/Record/369351> [azken kontsulta 21/12/08]). Informazio gehiago Soria Sesé, (2021).

Lehendabiziko 65 orrialdeen buru honako izenburua ageri da, orrialdearen zabalera guztia eta altueraren 1/6 inguru hartzen duen lauki baten barruan: “Jesu Kristoren bizitarén história laburkiró; eta berarén Ama Birjina Maria Santisimaréna bidanabar. Berexis mistério zebratzen dirénak urteáz elizan, kontatzekó itzez itz nai badú, bakótxa bere áldian”. Horren ondoren, izenburuak adierazi bezala, 1-54. orrialdeetan Jesu Kristoren eta Mariaren bizitzak kontatzen ditu 34 ataletan, paragrafoak zenbakiturik. Lehen orrialdeko lehen paragrafoari 1 zenbakia paratu dio autoreak eta 54. orrialdeko azkenari 83.

55. orrialdean Jesu Kristoren eta Mariaren bizitzaren partetzat har litekeen beste atal bat hasten da, 64. orrialdera arte luzatzen dena. Pasartearen izenburua zutabe bakarrean eman zuen, gainerako testuak duen tamaina berarekin, zutabearen erdian lerraturik. Izenburuak atala aurrekoarekin loturik dagoela adierazten du: “Zenbáit dotrina Maria Santisimak emának Sor Maria de Jesus Agredakoari”. Honakoan paragrafo baten eta hiruren arteko luzera duten 90 azpiataletan banaturik ematen du informazioa (gehienak paragrafo bakarrekoak dira). Azpiatal bakoitzaren bukaeran, Agredakoaren liburuan agertzen diren pasarte zenbakiak ematen ditu, baina zein liburukitakoak diren zehaztu gabe. Lizarragak pasarte hau idazteko erabili zuen iturriaren bila hasi ginenean, biziki lagungarria izan zen zenbaki horiek adierazten zutenaz ohartzea, pasarte zehatza aurkitzeko aukera ematen baitute. Gehienetan “&” zeinuaren ondotik heldu dira zenbakiak, baina ez du beti formula bera erabiltzen (JMSB: 78): “& 1303”, “n. 1313”, “& n. 1326 &.”, “& 1333. Beira án faboratuén &”, “& n. 1529”.

Apecechea eta Ondarraren JMSBn ez da 65. orrialdea eman, eta oin ohar batean aipatu besterik ez da egin<sup>46</sup>. Zabaleran besteak bezalakoa da, baina altueran 300 mm beharrean, 205 mm dauzka, mozturik balego bezala. Horrez gain, hurrenkera akats bat dago, orria atzekoz aurrera josirik balego bezala ageri baita; hau da, 64. eta 65. orrialdearen artean, beste orrialde bat dago. 64b deituko dugun orrialde horretan, bigarren atalaren izenburua dago. Baliteke jatorrian bereizirik zeuden bi eskuizkribu izatea eta gerora josterakoan akatsa egin eta atzekoz aurrera josi izana. Santuen atalean zenbaketa berriro hutsetik hasteak garai desberdinetan onduriko pasarteak izan daitezkeela pentsatzera garamatza, eta baliteke geroago elkarrekin josteko erabakia hartzea. Nolanahi ere den, 65. orrialdean Agredako Teresaren liburuko pasarteekin jarraitzen du Lizarragak, eta bukaeran Ama Birjinari eskainiriko bi otoitz daude:

46 “0 izendatzen dugun orrialde hau 64. eta 65. orrialdeen artean dago eta ez du zenbakirik. Atzetik, Agreda Amaren zenbait gairen aurkibide labur-labur bat dago idatzia, eta zazpi lerrotan Ama Birjinari zuzendutako otoitzak: den-dena euskaraz. Bi orrialde horiek osatzen duten orria besteak baino motzagoa da” (JMSB: 83; 22. oin oharra).

Bitz laudátua ta bedeikátua aldaréko Sakraméntu Sándua, ta Maria Santisimaren konzépzio gárbia, zein izan baize konzebitua bekátu originalarén mantxarík bátere gabe bere lenbiziko istánte Sagrátuan. Amen.

Orónak ematean: Ô Jesusen Ama ederra, bitz bedeikatua ordu gúra, noiz iruzkirík obéna eman zindigun mundúra. Amen. Abe Maria &. Geró Jangoikoa amaten dút: Kóntra egínas damu dút: Ordu gontaik ya betíkos guzis amatu nai dút. Amen.

Honakoa da 64b orrialdean dagoen izenburua:

Sandu zenbaiten bizitzak euskarás laburkiró parátuak asis abendutik; daizkénak konta urbilén jai edo igandeetan urteás kristio fieléi; ez adiaraztekó sollík, baita ikusiaraztekó ére erreligióne kristioarén dotrina óna ongi kunpliturik ayengánik, mogiaraztekó imitatzerá ayék nork bere ariorá dezáken gisan, eta alá plazér ematekó Jangoikoarí; ta logratzekó berarén grázia, ta glória.

Berexidire Aita Pedro Rivadeneirak kontatzen tuenetáik<sup>47</sup> bere *Flos Sanctorum* deitzen dén libruán, ez án diren guziák, baizik ezaunágo direnének, ta protxu yago eman dezaketéla idu[ri]<sup>48</sup> duténak aldiritár pobreén értean.

Nai ez dituének kontátu ala nola dauden emén, dezázke átra eméndik nai tuénak<sup>49</sup>, ta útzi naituének, prinzipalkiró exenplu ónak.

Guziá biz Jangoikoarén, Ama Birjinarén, ta santuén gloriátan, eta arimaén probetxután. Amen.

Atal berriarekin batera zenbaketa berria hasten da, eta orrialdeak berriro ere bi zutabetan banaturik ematen ditu. Aurkeztu berri dugun izenburuak aditzera ematen duenez, santuen bizitzei dagokien atala da honakoa, Rivadeneiraren *Flos Sanctorum* lana oinarri harturik ondua. Abenduaren hirugarrenean hasten da, Xabierko San Frantziskoren bizitzarekin.

Ez ditu urteko egun guztiak aipatzen, baina dataren araberrako hurrenkera jarraitzen du. Batzuetan, egun berean bi santu ematen ditu, bakoitza bere izenburuarekin: cf. azaroaren 4an San Karlos (JMSB: 290) eta San Emeriko (JMSB: 292). Abenduan hasten da, ondoren izotzila (urtarrila), otsaila eta abar pasatzen ditu, azaroa osorik bukatu (azaroaren 30ean San Andres; JMSB: 314) eta hortik, izotzilaren 14an hasita, berriro hasten da santuak aipatzen, dataren araberrako hu-

---

47 'Dituenetik'.

48 Lerroaren bukaeran dago "idu-" idatzirik eta hurrengoan "dutének" hasten da.

49 'Dituenak'.



renkeran<sup>50</sup>. Bigarren itzuli horretan, santu baten eta hurrengoaren artean denbora jauzi handiagoa dago lehendabizikoan baino, eta hori ezagun da orrialde kopuruari erreparaturik: lehendabiziko itzuliak 270 orrialde eta 153 santu hartzen ditu<sup>51</sup>, eta bigarrenak 58 orrialde eta 28 santu<sup>52</sup>. Urtariletik abendura artekoa da bigarren itzulia, baina Abenduaren 17ra iritsi ondotik, azaroaren 2ko “Purgatorioko Arimen memoria” gaineratzen du (JMSB: 366).

Santu bakoitzaren atalak bere izenburua du, eta barrenean paragrafoak zenbakiturik daude, batetik hasita. Batzuetan akatsak gertatzen dira zenbaketan; adibidez, aipatu berri dugun Xabierko Frantziskorenean zazpigarreneraino iritsi eta berriro 1 zenbakitik hasten da.

Lizarragaren zenbaketaren arabera 328. orrialdea denaren ondotik, hiru orrialde hartzen dituen aurkibidea dago, zenbaketarik gabe. Identifikatzeko A1, A2 eta A3 deituko ditugu. Eskuizkribua abenduaren 3an hasten dela esan dugu, baina aurkibidea ez da abendutik hasten, urtariletik baizik. Aurkibidean, lehendabiziko lerroak 28. orrialdera garamatza, urtarrilaren leko San Fulgenciorengana, alegia. Aurkibidearen bukaeran abenduko santuak datoz, 1-27 orrialdeei erreferentzia eginez. A2 orrialdearen beheko aldean bukatzen da lehen itzuliko aurkibidea, eta, gero, “ondorean añadituak illóro” idatzi eta gorago *bigarren itzuli* deitu dugunaren aurkibidea ematen du azken orrialdeko (A3) ezkerreko zutabea ia osorik betez.

### 2.5.2.3. B kodizea

*B kodizea* deitu dugun eskuizkribua NGNko Bonaparte Ondarean aurki daiteke, *ES/NA/AGN/F022/AP\_BONAPARTE,N2* signaturapean. Hau ere Carmelo Echeagarayren katalogotik heldu da, eta bertan 44 zenbakia zuen.

Bigarren eskuizkribu honek ere 300 mm luze eta 200 mm zabal ditu, baina lehendabizikoa baino pixka bat laburragoa da, 356 orrialde baititu. Eskuizkribu honen lehendabiziko parteak ez dugu lan honetarako aintzat hartu, laster ikusiko dugun bezala, zati asko gaztelaniaz baitaude.

---

50 Izotzilaren 14a baino lehen, eskuizkribuko orrialdearen hasieran “Izotzilaren 23.an San Raimundo Peñafort. p.a 34” aipatzen du (JMSB: 319), eskuizkribuko 34. orrialdeari erreferentzia eginez, han baitago santu horri dagokion informazioa. Bigarren itzuliko aurkibidean ere lehenengoa agertzen da San Raimundo, 34. orrialde zenbakiarekin. Eskuizkribuan zehar, askotan aurkitzen dira eskuizkribuaren beste orrialde batzuei erreferentzia egiten dioten oharrak.

51 Aurkibidean 151 santu jaso zituen. Eskuizkribuaren 67. orrialdean ageri den martxoaren 4ko “San Casimiro Prinzipe Poloniakoa” eta 234. orrialdean dagoen *lastallaren* 28ko “San Simon ta San Judas Tadeo apostoluak” falta dira.

52 28 santu dira, San Raimundo Peñafort kontuan hartu gabe.

1-17 orrialdetan *Kapilautza liburua* dago, Elkanoko elizaren eta ibarreko etxeen arteko tratua, gertaerak eta abar gaztelaniaz jasotzen dituen. Idazkera garbiak orrialdearen zabalera osoki hartzen du, ezkerretik eskuinera justifikaturik eta alboetako tarteak errespetaturik.

18. orrialdean bi zutabetan antolatu da testua, eskuinekoa laukiaren barruan eta ezkerrekoa laukirik gabe. Orrialdeak ez du zenbakirik, eta ezkerrean zenbait izen ageri dira gurutze batekin (x) ezabaturik. Beheko partean, Joaquin Ollok Lizarragaren eta eskuizkribuaren datu batzuk ematen ditu (§ 2.4.). Datu horietan akats bat dago, Ollok Lizarraga Loiolan egon zela baitio, eta gorago ikusi dugun bezala (§ II.), hori ez da horrela, dakigularik. Eskuineko zutabea “Ortzegun Sanduko misterioa. Aldaréko sakramentuaren fundazioa: dezáke zerbitzatu predikurako” izenburua duen sermoia hasten da. Horren ondoko orrialdeak lauki bidez bi zutabetan banaturik daude, eta, edukiari dagokionez, aipatu berri dugun sermoia eta bestelako dotrina eta materialak eskaintzen ditu. Orrialdeek ez dute autoreak jarritako zenbakirik, baina eskuineko aldean geratzen diren orrialdeetan arkatzez orri zenbakia dago idatzirik, 21. zenbakitik hasita bukaeraino.

25. orrian hasten da autorearen zenbaketa, zenbaki erromatarrez. Ezkerreko zutabea “Zenbáit santuen biziak, asteáz datozinak, kontatzeko bere kargukoéi” izenburua dago, eta horren ondotik “izotz-illaren lenbizikoan: San Odilón Abadea” izenburua, zutabearen erdian lerraturik. Bigarren eskuizkribu honetan santuak urtarrietik abendura ematen ditu, dataren arabera antolaturik, eta eskuizkribuaren 25. orritik 133.era luzatzen da. Santuen bizitzen atalak duen azkeneko orrialde zenbakia CCXVIII (218) da.

Gorago aipatu dugun bezala, *A kodizean* santu bakoitzari eskainitako azpiatletan, paragrafoen hasieran zenbakiak daude. Bigarren honetan, soilik hasieran jarri ditu; VIII. orrialdera arte bai, hortik XIII.era ez, XIX.era arte berriro bai eta handik aurrera ez.

134. orrian koplak biltzen dituen atal berri bat hasten da, zenbaketa beregaina duena. Orrialdearen goiko aldean, orrialde zenbakiaren ezkerretara “Sacris solemnibus himnoaren gisará” dago idatzirik, doinuari erreferentzia eginez. Atal honetan jasotako koplak guztien edizioa egin zuen Apececheak (Lizarraga, 1983). Batzuk Ama Birjinari eskainitakoak dira, beste batzuk Jesusi, aldareko sakramentuari, etab. Aldareko sakramentuari eskainitakoetan, ohar bat dakar Lizarragak orrialdearen goiko aldean: “eginak gerra denbóran etsaien ermean, naigabeen ta tristuren arintzeko, ta ematzeko” (164. orria).

188. orrian eskuizkribuaren aurkibidea dago, hasi eta buka. Ifrentzuaren beheko aldean Lizarragak “emén falta direnak beira berze libruan” oharra dakar, *B kodizea* zaharragoa dela erakutsiz.

Beraz, ikusi dugunaren arabera, lanik osoena *A kodizea* da. Hala eta guztiz ere, santu berberen pasarteak ez ditu berdin ematen, eta horrek argi erakusten du lan bat ontzeko ez zuela bestea erabili.

#### 2.5.2.4. Lizarragaren iturriak

Edukiari dagokionez, JMSB hiru atal nagusitan bereizten ahal da: Jesu Kristo eta Mariaren bizitzak, Agredako Teresaren aipuak eta santuen bizitzak.

Lehengo atalean, Jesus eta Mariaren bizitzen pasartea osatzeko, Apecechea eta Ondarraren ustetan Lizarragak Ebanjelioei buruz zuen ezagutza sakona erabili zuen (JMSB: 10). Baliteke hori horrela izatea, baina ez da bistatik galdu behar, Rivadeneiraren *Flos Sanctorum* (FS) lanaren 1610eko edizioaren lehen-dabiziko partean aurkitu ahal izan dugunez, badela bertan “De la vida de nuestro señor Iesu Christo” (1610: 1) izenburua duen atal bat, eta akats bateratzailerik edota erreferentzia espliziturik aurkitu ezin izan dugun arren, iturri hori ere erabil zezakeela iruditzen zaigu, eta Ebanjelioei buruzko ezagutzari esker osatu.

Jesus eta Mariaren bizitzen pasartearen ondotik, Agredako Teresa aipatzen du autoreak, eta Apecechea eta Ondarraren edizioko hitzaurrean aipatzen denez, “Maria de Jesusek idatzitako *Mistica Ciudad de Dios* liburua ukitzen duen gauzatxoren bat eta zenbait otoitz Ama Birjinari” biltzen ditu Lizarragak (JMSB: 13). Iruñeko apaizgaitegian obra horren 1705eko edizioa dute, bai eta 1744 (1. liburukia), 1759 (3.etik 8.era arteko liburukiak) eta 1765ekoak ere. Guk 1860ko edizioaren ale bat eskuratu dugu, eta honi esker ikusi dugu horrela dela; egiazta-tu dugu, halaber, Lizarragak batzuetan bertatik zuzenean itzuli eta beste batzuetan zati txiki bat hautatu edo laburtu eta euskaraz eman zituela. Adibide bezala, honakoa da Lizarragak erabilitako Agredakoaren lanean ageri den pasarte bat:

439. [...] *ni jamás miré al rostro a hombre alguno, ni de mi esposo Josef, ni de los mismos Angeles, cuando en forma humana se me aparecían; pero en Dios los vi y conocí todos: y a ninguna cosa criada ó racional tuve afecto, ni en operación ó inclinación humana; ni tuve querer propio; sí ó no, haré ó no haré; porque en todo me gobernó el Altísimo, ó por sí inmediatamente, ó por la obediencia de las criaturas á quien de voluntad me sujetaba.* (1860(2): 200, *etzana gurea*)

Honela itzultzen du Lizarragak:

Modestiaren

Beñere ez nuen beiratu aurpegira gizonai, ezta S. Josefñi ere, ezta Aingiruei ere, agertzen zirelaik gizonen idurian: baña Jangoikoan ikusi ta ezaundu nitue guziak: eta lurreko kriaturei ez nuen izan afekto edo inklinazio humanorik & p. 1. 1. 2. c. 2. n. 439. (JMSB: 69-70)

Santuen bizitzen atalari dagokionez, *A kodizeari* eskaini diogun atalean ikusi ahal izan dugu Lizarragak aipatzen duela Rivadeneiraren *Flos Sanctorum* liburua erabili zuela. Kasu horretan ere, zenbait alde-raketa egin ditugu jatorrizko iturriarekin erabilitako itzulpen edo ego-kitzapen estrategiak ezagutzeko, eta Agredakoarenean bezala, gehie-netan zatiak bere horretan itzuli zituen, batzuetan laburtu eta euskarara egokitu bazituen ere. Halere, horrez gain, FSn ez dagoen informazioa aurkitu dugu, eta ez dugu haren iturria aurkitzerik izan.

Rivadeneiraren lanaren bertsioak bilatzeari ekin genion, eta zenbait edizio aurkitu genituen gaztelaniaz: 1610 (bi liburuki), 1675, 1688, 1716, 1734, 1761 eta 1790ekoak. Horiez gain, latinez idatziriko 1700. urteko bertsio bat ere aurkitu genuen, 1610ekoaren eduki bera duena. Iruñeko apaizgaitegiko funtsean egun dituzten edizioak honakoak dira: 1675 (2. eta 3. liburukiak), 1715 (2. li-burukia), 1716-1717 (urtarrila-iraila, urria-azaroa eta abendua biltzen dituzten liburukiak), 1734 (1. liburukia) eta 1761 (1. liburukia).

Rivadeneiraren lana osatzen duten liburukiek normalean bi edo hiru hila-beteko tartea hartu ohi dute, baina guk eskuraturiko 1610eko edizioak urte guz-tikoak biltzen ditu: lehendabiziko liburukiak “las vidas de Cristo nuestro señor y de su santísima Madre y de todos los Santos que reza la Iglesia Romana, por todo el año” dakartza, eta bigarrenak “Los santos extravagantes de que reza (sic) Iglesia Romana por todo el año”.

Material guztia eskuratu ondotik, edizio horiekin guztiekin alderaketak egiten hasi ginen, eta Lizarragarekin lotura erakuts dezakeen hitz bat aurkitu genuen: Lizarragak, garagartzaroaren (ekaina) 2ko santuen pasartearen (JMSB: 196), “bidro” idatzi zuen eta hori da *bidro* hitzak duen agerpen bakarra (*bidrio* ez du erabiltzen). Rivadeneirarenean, 1610eko edizioko 406. orrialdean agertzen da pasarte bera, eta bertan “vidro” idazten du bi aldiz, eta lan horretan, gai-nerakoan “vidrio” ageri da. 1675eko bertsioan akatsak bere horretan dirau, eta 1688ko edizioan akatsa zuzendurik dago eta “vidrio” dakar bigarren liburukiko 274. orrialdean. Hortik aurrerako edizio guztietan ere zuzendurik dago. Horiek horrela izanik, pentsatzekoa da 1675eko bertsioa erabili zuela.



### **III. Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa**

---



### 3.1. Balizko iturrien azterketa

Aurreko atalean (§ II.) Lizarragaren garaia, kultur giroa eta orduko ideia nagusiak aztertu, eta euskaraz predikatu ahal izateko egin zuen lan eskerbaren zioak argitzen saiatu gara. JMSBn jasotako edukiaren iturriak § 2.5.2.n aurkeztu ditugu eta oraingo honetan eduki hori euskaraz eman ahal izateko lexikoa eskuratzeko erabilitako iturriei helduko diegu; hau da, hitz baten euskarazko ordaina emateko zailtasunak izan zituenean edo lexiko aberatsagoa erabili nahi izan zuenean, autorea nondik edan zuen ezagutzea da atal honen helburua.

JMSB, funtsean, itzulpen lana da (§ 2.5.), eta halako lanetan autoreak berak hutsetik sortutakoetan baino ohikoagoa da hitz edo esamolde bat bilatzeko hiztegi-tara jotzea. XVIII. mendeko euskal hiztegiarik garrantzitsua Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (1745) da, eta badakigu ere, Lizarraga ale baten jabe zela. Aurretik azaldu dugu Larramendirena, hiztegi hutsa baino gehiago, hizkuntza egitasmoa zela (§ 2.1.) eta hizkuntza baino esparru zabalagoa hartzen zuela, tartean literatura. Haren eraginez, edo laguntzarekin bederen, ezagutu ziren lapurtera klasikoko lanak Hegoalde gehienez, eta horien artean, Larramendik Axular jarri zuen guztietan aurrena (Urgell *EH*: 580-582).

Andoaindarrarendako hain autore aipagarria izanik, normala besterik ez da LEMko bere jarraitzaile gehienak *Geroko Geroren* (*Geroren* bigarren edizioa) aleren baten jabe izatea, irakurri izana edo behintzat ezagutzea. Lizarraga, baina, aurreko edizioaren ale baten jabe zen, nondik edo nola eskuratu zuen zuzen ez badakigu ere.

Horrez gain, eta aurreko atalean aipatu bezala (§ II.), Lizarragak Iruñeko Anuntziada ikastetxean egin zituen lehendabiziko ikasketak, eta garai berean Larramendiren jarraitzaile zen Mendiburu irakasle ari zen bertan. Lehenago, Kardaberaz ere bertan irakasle aritu zen, eta, Perez Goyenak dioenez, bertan ikasi zuten euskaldunengan, eragin handia izan zuten biek (Perez Goyena, 1947 (I): 167).

Gauzak horrela izanik, Lizarragak lexikoa ikasteko edo eskuratzeko erabilzen ahal zituen iturri nagusiak aipatu berri ditugun lau horiek izan zitezkeela pentsatu, eta horiek banan-banan aztertu ditugu. Iturri bat erabili izana nahikoa bermerekin frogatzea ez da batere erraza. Delako hitz bat proposatu iturrietariko



batean lekukotzea ez da froga nahikoa, beste autore edo lan batetik (are proposatu edota ezagutzen ez den batetik) ikasia izan baitaiteke. Esku artean ditugun iturrien kasuan, Lizarragarendako erabilerrazena HH da, momentuko zalantza bati azkar erantzuteko aukera eskaintzen diolako. Hortaz, lehentasuna du, edo aukera gehiago behintzat, hitz baten iturria izateko, gainerakoen aldean. Arrazoibide edo irizpide horrek baina, ez du erabateko bermerik eskaintzen. *Akats bateratzaileek* ziurtasun handiagoa ematen dute, esklusiboak izan ohi direlako, toki edo testuinguru zehatz batean gertatzen direlako edo ezohiko forma edo adiera dutelako. Gorago, adibidez, *bidro* ‘beira’ baliatu dugu Lizarragak *Flos Sanctorum*en zein edizio erabili zuen proposatzeko (§ 2.5.2.). Iturri berean bigarren, hirugarren edota akats bateratzaile gehiago aurkituko bagenu, orduan eta ziurtasun handiagoz proposatzen ahalko genuke delako iturriaren erabilera.

Idatzizko iturriez den bezainbatean, komeni da haiekin nola lan egin dugun azaltzea. Aipatu berri dugun bezala, hitz baten iturria proposatzerakoan hiztegiari lehentasuna aitortu diogu gainerakoen aurrean. Bestalde, hitz baten HHko agerpena ez dugu erabileratztat hartu; hots, aurretik erabili gabeko hitza balitz bezala tratatu dugu, bai Lizarragarekin eta baita gainerako autoreekin ere. Hortaz, Lizarragak erabiltzen dituen HHko hitz askori “Lehen erabilera” etiketa ezarri diegu, irizpide horren arabera, Lizarragarena delako lehen erabilera. *Lizarragaren ekarria* deitu dugun atalean (§ 3.2.) xehekiago azalduko dugu nola sailkatu dugun Elkanokoaren lexikoa lekukotasunei dagokienez; esan nahi baita, zer hartu dugun hapaxtztat, aldaera ezezaguntzat edota lehen erabileratztat.

Heldu diren puntuetan, balizko lau iturriak aurkeztu eta aztertuko ditugu banaka, Larramendiren HHTik hasi eta Axular, Mendiburu eta Kardaberaz hurrenkera jarraituz.

### 3.1.1. Larramendi

Lizarragak LEMan idatzi zuen, eta gorago aipatu dugunez (§ II.), garai horretan Larramendiren hiztegiak eta hizkuntz proiektuak berebiziko garrantzia izan zuten. Badakigu Lizarragak bere liburuen artean HHren ale bat zuela, lehen liburukiarena<sup>53</sup> behinik behin, Iruñeko kaputxinoen liburutegian baitago egun *1141-1-10* signaturapean. Liburutegi horretan, 1745eko edizioaren lehen liburukiaren hiru ale dituzte: Lizarragarena, Lekarozko kaputxinoen zigilua duen bat (*R57-6-06*) eta Leongo kaputxinoena duen beste bat (*608-C-07*). Bigarren liburukiaren bi ale ere badituzte: batek Lekarozko kaputxinoen zigilua du (*R57-6-07*) eta besteak ez du zigilurik, eta portada eta lehendabiziko orriak falta ditu (*1170-6-17*).

53 HHk bi liburuki ditu. Lehenak hitzaurrea eta hiztegiaren A-H hizkiak jasotzen ditu; eta bigarrenak I-Z hizkiak eta hiztegia osatzeko gehituriko *Eranskina*. Sakontzeko ikus Blanca Urgell (2014).

Larramendik eragin handia izan zuen bere garaiko idazle euskaldunengan, bai ideologikoki eta baita hizkuntzari dagokionez ere. Lexikoan izandako eraginak testuaren ezaugarriekin lotura duela frogatu zuen Sarasolak (1986: 211), testu jasoagoetan HHko hitz berri gehiago aurkituta. Heziketa akademiko mugatuagoa zuten pertsonendako idatziriko sermoietan, aldiz, tradizio luzeagoko mailegu gehiago eta hitz berri gutxiago ageri dira (EH: 630-631).

Guztiarekin ere, Lizarragak Larramendi aipatzen du esplizituki 1811. urteko *Asteteren dotrinaren* itzulpenean. *Ave Maria* atalean, “Dió Aita Larramendik, Ave María, Agúr Maria erran behar déla” (1811: 5) ageri da, haren irizpideak aintzat hartzen dituela erakutsiz, baina herritarrek ulertuko ote duten guztiz argi ez balu bezala.

Urgellek (EH: 628-637) *hitz larramenditar*<sup>54</sup> bezala ezagutzen direnen zenbait adibide bildu zituen LEMko lexikoa aztertu zuenean. Elkarketa eta eratorpena erabiliz sortuak dira gehienak, eta Lizarragaren lanean ere aurkitu ditugu. Ondorengo puntuetan horiek aztertuko ditugu, elkarketa bidez sorturikoak lehendabizi, eta eratorpenaren bidez sorturikoak gero.

### 3.1.1.1. Elkarketa bidez sorturikoak

Hitz berriak sortzeko estrategietarik bat aurrez ezagutu eta erabiltzen ziren hitzak elkartzuz esanahi berriak betetzea da. Lizarragak halakoak baliatu zituen, eta, orain ikusiko dugunaren arabera, batzuk zuzenean HHTik hartuak izateko aukera dute.

*Antuste*, *handi* eta *uste* hitzak elkartzuz sorturiko hitza, norbere burua pertsona oso garrantzitsutzat duenari esateko darabil Lizarragak. Euskal letretan soilik HHren ondoren eta Hegoaldean lekukotu da, Gipuzkoan bereziki (EKC, s.v.) eta xvii. mendean, Larramendiz gain, Mendiburuk eta Lizarragak erabili zuten, HHn ikasirik agian.

*Jomugaz* den bezainbatean, Larramendik semantikoki oso gertukoak diren bi ordain emateko erabili zuen: “Blanco, a donde se tira, *zuria*, *kozka*, *jobenia*, *jomuga*” eta “Terrero, a que se tira, *jomuga*”. Bi aldiz ageri da JMSBn, biak Jesu Kristo eta Mariaren bizitzak kontatzen dituen eskuizkribuan, eta bi adibideak antzekoak dira. Hona adibideetariko bat FSKo pasartearekin alderaturik: “[B]eira, aurtto gáu dago paraturíc ala nola jomuga bát [...]” (JMSB: 56) vs “He aquí a este niño puesto como blanco [...]” (1610a: 81). Duen tradizio urria ikusirik, HHTik harturiko hitza dela pentsa liteke; gainera, Lizarraga da lehena hitza erabiltzen eta EKCn 11 agerraldi besterik ez dira jaso lehen agerralditik xx. mendearen bigarren erdira arte.

54 Larramendik ohiz kanpoko prozedurak baliatuz egin zituen hitz berriak (EH: 629).

## 3.1.1.2. Eratorpen bidez sorturikoak

Elkarketa bezala, eratorpena ere oso baliabide emankorra da esanahi be-riak betetzeko. Urgellek Larramendiren jarraitzaileak detektatzeko baliagarriak diren eratorpen hizkien zerrenda dakar LEMko lexikoa aztertzen duen atalean (EH: 630). Jarraian, atzizki horietatik JMSBn aurkitutakoak aztertuko ditugu.

*-de*

Atzizki honekin sorturiko hitzak aurkitu ditugu JMSBn, batzuk HHn jaso dira (horrek ez du esan nahi Lizarragak ezinbestean bertatik hartu zituenik), eta besteak Lizarragak berak sortuak edo ezagutzen ez dugun iturriren batetik ika-siak izan litezke.

Lizarragak sortua dirudi, adibidez, *baimende* ‘baimen’ hitza, ez baitago HHn eta lehen erabilera berea baita. Gainera, EKCn jasotakoaren arabera, Iz-tuetak bakarrik erabili du *Gipuzkoako probintziaren kondaira* lanean (1847) eta bertan ere agerpen bakarra du.

*Galmende*, aldiz, Larramendiri ikasitakoa dela dirudi. Aurrekoak bezala, oso lekukotasun gutxi ditu hitz horrek (EKCn Lizarragaren erabilerez gain, Uriarteren bakar bat jaso da soilik), baina Larramendik *asolamiento* eta *desolación* ‘hondamendi’ hitzen ordaintzat ematen du, eta Lizarragak ere zentzu berberarekin erabili zuen. *Sareko Euskal Gramatikaren* arabera<sup>55</sup>, *-men/pen* eta *-mendu* dira aditzak oinarri harturik ‘ondorioa, gertaera edo egoera’ adierazten duten eta izenak sortzeko erabiltzen diren atzizkiak. HHn, ordea, *-mende* ere agertzen da, balio semantiko berberarekin, *arguimendea*<sup>56</sup> (s.v. *argumentación*), *egosmendea* (s.v. *aprieto*), eta *gozamendea* (s.v. *dotacion de capellania*) hitzekin. Larramendik *-men/pen*<sup>57</sup> atzizkidun hitzak ere jaso zituen eta badirudi haien esanahia hedatzeko bi eratorpen hizki pilatzeko estrategia ere baliatu zuela batzue-tan; *-men* eta *-de* kasu honetan. Esaterako, *arguitu/arguimendutu*<sup>58</sup> ‘argudiatu’, *arguimen/arguimendu* ‘argudio’ eta *arguimende* ‘argudiaketa’ daude. Bestalde, *gozamen* ‘kirol’, ‘sentsualitate’ eta ‘atsegin’ adierekin erabiltzen du, eta *goza-mendutik* (s.v. *dotar*) *gozamendaria* (s.v. *dotador* eta *usufructuario*) dago<sup>59</sup>. Li-zarragak ez du hitzak sortzeko estrategia hori erabili, *galmenderekin* ezik, eta hortaz, HHTik hartua izateko aukera handia du.

55 <https://www.ehu.eus/seg/morf/4/5/0/1/5/4> [kontsulta: 2021/04/23].

56 HHn “arguimende” idatzirik, hots, [gui] ahoskatutik.

57 baita *-mendu* ere (cf. *antolamendua*, *barkamendua* ‘induljentzia’, *erauzimendua* ‘ezjakintasuna’...).

58 *Argui-* oinarriko <u> ere ahoskatzen da.

59 Baita *gozamen* ‘kirol’, ‘sentsualitate’ eta ‘atsegin’ adierekin.


Lizarragak erabiltzen dituen hitzetatik, *jakinde* da sail honetan aztertuko dugun azkena, Larramendiren eragina argien erakusten duena. Larramendik ‘zientzia, ezagutza’ adiera eman zion, eta harengandik *-kinde* atzizkia erauzi zuen (EH: 580). Horrekin, *izarkinde*<sup>60</sup> ‘astrologia’, *jainkokinde* ‘teologia’, etab. sortu zituen. Lizarragak *jakinde* baliatu bazuen ere, ez zuen *-kinde* atzizkiarekin sorturiko hitz berririk erabili edo sortu; elizan erabiltzeko egoki ez zirelakoan akaso. Halakoak erabiltzen hasteko asmoa antzeman daiteke, ordea, haien ego-kitzapenak aurki baitaitezke JMSBn: “pasatu zé Ejiptorá estudiátzera astrologia, au dá zeruen ta izárren jakindea” (JMSB: 264).

*-kiro eta -ro*

Lizarragak askotan darabiltza atzizki adberbio-sortzaile hauek, esaterako, eskuizkribuen hiru izenburuetarik bitan *laburkiro* ageri da.

Atzizkiaren historiari dagokionez, EKCrene arabera, 1.131 aldiz lekukotu da eta Lizarraga izan da atzizkia gehien erabili duen autorea (235 agerraldi). Lehen lekukotasunak hego-nafarreraz jaso ziren, Beriainen lanetan (*falsokiro, fazilkiro, firmokiro, humilkiro, klarokiro, komunkiro, kunplitukiro, liberalkiro, partikularkiro, prinzipalkiro, ziertokiro* eta abar) eta baita Elizalderenetan ere (*fazilkiro, firmekiro* eta *prinzipalkiro*). Ikusten denez, HH argitaratu aurretik, maileguekin erabiltzen zen nagusiki. Euskal jatorriko hitz batekin erabili zuen lehena Kardaberaz izan zen<sup>61</sup> (1744), *berezkiro* ‘bereziki’ hitzarekin hain zuzen ere. HH argitaratu ondoren, Lizarraga, Mendiburu, Mogel eta beste zenbait autoren erabili zuten bai maileguekin eta baita euskal hitzekin ere. XVIII. mendearen bigarren erdian (Lizarragaren garaian) lekukotu zen gehien atzizkia eta hortik aurrera beheranzko joera nabari da (ikus 2. taula).

## 2. taula: *-kiro* atzizkiaren agerpenak mendez mendez



60 Hitzaurrean *izarkinde* dakar Larramendik (1745: XLIX), baina hiztegian *izarjakindea* ematen du (S.V. *astrologia*).

61 *Kristabaren bizitza* lanean lekukotzen da EKCrene arabera, baina ezin izan dugu faksimilea eskuratu.

Ezin daiteke erabateko ziurtasunez Lizarragaren iturria zein den zehaztu, Larramendik eta haren jarraitzaileek erabiltzen zuten arren, horren aurretik hego-nafarreraz lekukotu baita.

*des-*

Gaztelaniaz ohikoa da *des-* edo bestelako aurrizkiak dituzten hitzak aurkitzea, baina euskaraz ez. Euskaraz atzizkiak dira maizenik erabiltzen direnak (kasik ez da besterik erabiltzen).

Larramendiren jarraitzaileek, ordea, *des-* erabiltzen dutela atzeman zuen Urgellek (EH: 630) eta halaxe egiten du Lizarragak. Maileguekin erabiltzeaz gain, euskal lexikoarekin ere badarabil, adibide gutxi batzuekin bada ere: *desarrazio* ‘desarrazoi’, *desbardin* ‘desberdin’, *desegin*, *deshonre* ‘ohorea galarazten duena’ eta *deserran* ‘hitza jan’.

### 3.1.1.3. Larramendiren eraginaz

Larramendik Lizarragarengan izan zezakeen eragina neurtzerako orduan, argi izan behar dugu Lizarraga zertan ari zen. Ez baita gauza bera jende ikasiarendako edo Larramendiren beste jarraitzaile batzuek idatziriko, demagun, nobela bat idaztea edota ikasketarik ez duen nekazari bati zuzenduriko sermoi, dotrina edo antzeko testu bat ontzea. Bigarren horri dagokionez, eta Urgellek aipatu bezala (EH: 630, 631), tradiziozko mailegu gehiago eta hitz berri gutxiago erabiltzera beharturik ikusi zuten euren burua egiteko horretan aritu zirenek. Guztiarekin ere, dela zuzenean edo zeharka, Lizarragaren lanean Larramendiren eragina antzeman daitekeela ikusi ahal izan dugu, bai hitzak sortzeko estrategiei dagokienez eta baita bere horretan erabiltzeko ere.

### 3.1.2. Axular

Axularrek *Gero* argitaratu zuen 1643an, Tartas eta beste batzuek ez bezala, hartzaile jasoago, ikasiago edo heziago bat buruan zuela. Goi mailako kulturadun hartzailea ez izanik ere (1643: 19), bere lanean txertaturiko aipamen jasoagoek gutxieneko heziketa zuen norbaitendako idatzi zuela erakusten dute (San Agustin, Sto. Tomas Akinokoa, Seneka, Plutarko, Horazio...).

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, LEMan Axular Hegoaldean ezagutu zedin berebiziko garrantzia izan zuen Larramendik (EH: 580-582). Baliteke Lizarragak ere haren bitartez ezagutzea, aurreko azpiatalean ikusi ahal izan dugunez, argi baitago Lizarragak Larramendi ezagutu ez ezik, jarraitu ere egin zuela. Egia da ere, Larramendiren jarraitzaileek eta LEMko irakurle gehienek

erabili ohi zuten edizioa *Geroko Gero* zela. Ez dakigu zehazki lehendabiziko argitalpenaren zenbat ale inprimatu ziren, baina oso esanguratsua iruditzen zaigu gaur egun ezagutzen diren 12 aleetatik (Salaberri Muñoa, 2012) bat Lizarragarena izatea<sup>62</sup>. Gauzak horrela izanik, hipotesirik “merkeena” Larramendiren bidez ezagutu zuela bada ere, ez dugu uste beste iturri baten bidez ezagutu izana guttiz baztertu beharrekoa denik.

GORAGO ESAN DUGUN BEZALA, eta Axularrek argi adierazi zuenez, ez zuen bere lana “letratu handientzat, eta ez soil deus ez dakitenentzat ere” (1643: 19) idatzi. Pentsa liteke horien artean sermolari eta apaiz euskaldunak zeudela nagusiki, eta Lizarragarendako, azken buruan nekazariendako idazten bazuen ere, hurbilen zuen hartzailea berbera zen, santuen bizitzen hitzaurrean adierazi bezala:

Sandu cembaiten vicitzac euscarás laburrquiró parátuac, asis Awendutic; daizquénac conta urbilén jai edo igandeeatán urteás christio fieléi; ez adiaraz-tecó sollíc, baita icusiarazteco ére erreligióne christioarén doctrina óna on-gui cumplituríc ayengánic, moguiaraztecó imitaterá ayéc [...]. Naieztuénac contátu ala nola dauden emén, dezazque átra eméndic naituénac ta utzi naitué-nac, principalquiró exemplu ónac. (JMSB: 83)

Ematen du, hortaz, Lizarragaren JMSBko hartzailea eta Axularrena antze-koak direla, helburua desberdina bada ere. Ondorengo puntuetan lexikoan izan-dako eraginari erreparatuko diogu.

Esan beharra dago, puntu honetan eraginari erreparatuko diogula eta ez hainbeste Axularren hizkerak eta Lizarragarenak partekatzen dutenari, hori § 3.3. atalean egin baitugu.

### 3.1.2.1. Axularrek eta Lizarragak erabilitako lexikoa

Esan dugun bezala, hartzailea berdina izanagatik ere, bi autoreek helbu-ru ezberdina zuten eta halaxe erakusten du lexikoak ere. Sarasolak ohartarazi bezala, hitz elkartu eta eratorriak ugaritzea idazkera landuagoa erabiltzearekin loturiko fenomeno da (EH 524) eta horretarako joera nabari da Euskara Zahar eta Klasikotik hasita. Euskara eginkizun berrietarako erabiltzen hasi zen, eta ho-rretan zihardutenak euskal hitzak erabiltzen saiatu ziren beharrezkoak zituzten hitzak erdaretatik mailegatu beharrean (berriak sortuz ala hedadura semantikoaren bitartez egokituz). Horren adibide dira, besteren artean, Axular edo Etxeberri Sarakoa.

62 Hil ondoren, alea kaputxinoen esku geratu zen eta haien Hondarribiko egoitzan egon zen urte luzez. Egun, ordea, ondarea bateratu eta Hondarribiko katalogo guztia Iruñean duten egoitzara eramán dute. *Geroren* aleak 1198-2-25 signatura du eta haren bertsio digitala interneten ere badago: <http://www.bidicap.org/doi/BCC001198-2-25000000000000000000/HTML/> [kontsulta: 2021/12/17].

Axularrek *Geron* erabili hitzen % 67,43 elkartu edo eratorria da (Sarasola 1997: 641) eta guk JMSBtik jaso dugun corpusean % 25. Beraz, lexikoak ere helburu desberdina zutela erakutsiko luke, hitz elkartu eta eratorrien kopuruan alde handia baitago. Lizarragak euren egitekoa hobeki betetzen laguntzeko materiala eskaini nahi die predikari euskaldunei (egokitu dezaten iradokiz), baina herritarrek mezua ongi uler dezaten eguneroko hizkeratik gertuagoko hizkuntza baliatu behar izan zuen, Axularrek ez bezala.

### 3.1.2.2. *Axular eta Lizarragaren lanetan erabilitako lexikoa*

Lizarragak Axularrengandik ikasiriko lexikoa zein den zehaztea ez da aise, are gehiago kontuan hartzen baldin badugu Larramendik HH osatzeko Axularrek erabilitako hitz ugari baliatu zituela. Lehenago esan dugun bezala, printzipioz, JMSB bezalako itzulpen lan batean, hiztegi batek beste edozein testuk baino aukera gehiago du hitz baten iturri izateko. Hortaz, errazago aurkituko dugu Axularri harturiko pasarte bat Elkanokoak sorturiko sermoietan FStik itzulitako zatietan baino. Jarraian ikusiko ditugun Lizarragaren pasarteek, esaterako, antza handia dute Axularrenarekin, handik hartuak direla frogatu ezin dugun arren:

- Axular: “Bekatua zauri hatz-gilea bezala da. Hatz egitean atsegin hartzen duzu. Ordea hatz gordin eginik, gelditzen zaitzu ondotik errasumina”. (1643: 431)
- Lizarragak bi sermoitan erabili zuen:  
“ala nola sarnain arraskazeak tentazen baitu sopra arraskazera ta azkeneko usten baitu erresumiña”. (1771: 75)  
“Ala nola sarnain arraskatzeain gustottoain ondorean gelditzen baita erresumiña”. (1782-84: 230)

Bestalde, OEHn bizkaierazko marka duten zenbait hitz Larramendiren eta bere jarraitzaileen bitartez iritsi dira mendebalderaino. *Adin* ‘edade’ da horietako bat; Lizarragak erabili zuen, eta bizkaieraz XVIII. mendearen bigarren erdira arte ez da jaso (Larramendiren jarraitzaile Mogelek (Kortazar, 1982) erabili zuen lehendabizi mendebaldean).

Axularrengandik ikasirikoak izateko aukera handia dute Axularrek darabil-tzan eta Nafarroako hizkeretan lekukotu ez diren hitzek. Gogoan izan, hitz bat alderdi batean lekukotu ez izanak ez duela zertan hitz hori erabiltzen ez zenik esan nahi, baina gutxi erabiltzen zela edo ezezagun samarra zela suposa lite-ke. Irizpide horren arabera, *erdiskatu* ‘erditik zatitu’ eta *tentu*, ‘konorte, zentzu’

dira Axularrengandik ikasiak izateko aukera gehien duten hitzak<sup>63</sup>. Ikus ditzagun bada, banaka.

Axularrek *erdizkatu* eta Lizarragak *erdiskatu* idazten badute ere, Hegoaldean ez da (Lizarraga kenduta) XIX. mendera arte lekukotzen. Lehen lekukotasuna Axularrena da eta 6 aldiz ageri da *Geron*, 164. eta 166. orrialdeen artean jarraian dauden lau paragrafoetan (1643). Axularrek hitza lehen aldiz erabiltzen duenean ez du azalpenik ematen, baina bigarren agerpenean hobeki ulertzen laguntzeko definizio moduko bat ematen du: “bere egunak erdizkatzeintuzte, bi erdi egiteintuzte” (1643: 165). Gauzak horrela izanik, eta agerpenen urria ikusirik, baliteke Axularrek berak sorturiko hitza izatea eta Lizarragak hari ikasia edota paraleloki sortua izatea. Hala eta guztiz ere, Eugin egindako galdeketetan jaso ahal izan dugu, eta horrek, gutxi izanagatik ere, ekialdeko hizkeretan ahozkoan erabiltzen den hitza dela erakutsiko luke, eta Axularrengandik ikasia izatea zailago bihurtuko luke.

*Tentu*<sub>2</sub> ‘konorte, zentzu’ soilik lapurteraz jaso den hitza da. Axularrez gain, edo haren atzetik, Pouvreauk, Duvoisinek eta Harrietek euren hiztegieta jaso zuten. Gainerako euskalkietan ez dagoenez, eta agerpenak ere oso urriak direnez, Axularren lanetik ikasia izateko aukera dago. Larramendik *Eranskinera* ere eraman zuen, baina ‘irmotasun’ zentzuarekin eta Lizarragak ez du adiera horrekin erabili.

Aztertu ditugun autoreen artean (Ax, Lar, Cb, Mb), Lizarragak eta Axularrek soilik darabiltzaten hitzak honakoak dira:

*Abre* ‘etxeko animalia zaldizko handia’, *ainberze* ‘ainbeste’, *aingiru* ‘ainguru’, *alokairu* ‘soldata’, *altxatu* ‘ezkutatu’, *amen* ‘ahamen, mokadu’, *arrapatu* ‘hartu, erdietsi, heldu’, *aurkitu* ‘topatu’, *autara eman* ‘hautatzeko aukera eman’, *bait* ‘menderagailu marka’, *baitan*<sub>3</sub> ‘berez, bere horretan’, *baitan*<sub>4</sub> ‘(bere edo nire-ren ondotik) kontzientzia berreskuratu’, *bakotx* ‘bakoitz’, *barride* ‘auzo’, *berarias* ‘nahita’, *beroi* ‘hori bera’, *bortxa egin* ‘bortxatu’, *deklaratu*<sub>1</sub> ‘jakinarazi’, *deklaratu*<sub>2</sub> ‘agindu edo erabaki bat publiko egin’, *denbora*<sub>2</sub> ‘eguraldi’, *dilindan* ‘zintzilik’, *dono* ‘dohain’, *erdiskatu* ‘zaticatu’, *eriotze* ‘bizirik ez egotearen ekintza eta ondorioa’, *erregetasun* ‘erregealdi’, *erresumin* ‘minaren eta haserrearen artean dagoen sentipen desatsegina’, *gaizki-egile* ‘gaizkile’, *iduri*<sub>1</sub> ‘antzeko, moduko’, *lauretan ogei* ‘laurogei’, *lazo* ‘arduragabea’, *mendekatu* ‘mendekua hartu’, *neskato* ‘neska gazte’, *ondoreko* ‘ondorengo, oinordeko’, *orai* ‘orain’, *orzilare* ‘ostirala’, *persekuzione* ‘jazarpen’, *tentu*<sub>2</sub> ‘konorte’.

*Gaizki-egille* Axularrek bezala idatzirik dakar Lizarragak. Larramendik (s.v. *malhechor*) *gaiztakiña*, *gaizgillea* eta *dongaria* ematen ditu, Kardaberazek *gaiz-*

63 Aezkoan *tentu* ez da entzuten, baina *tentuzu* ‘temoso’ eta *tentumotz* ‘kokoloa’ ibiltzen dira.



*kille* darabil eta Mendiburuk *gaizkigille*. Lizarragak erabiltzen duen aldaera, Iparaldeko tradiziokoa da (OEH, s.v. *gaizki-egile*), nahiz eta goi-nafarreraz idazten duten zenbait autoreren lanetan ere ageri den. Horietako bat Baztango 1826ko dotrina da (*gaizki egille*; CatB: 37), eta hortaz Axularrengandik ikasia izaten ahal den arren, baliteke ahozkotik ezaguna izatea.

*Ondoreko* ‘oinordeko’ hedadura nahiko zabala eta erabilera urria (61 age-raldi EKCn) duen hitza da. Nolanahi ere den, Axularrek bere liburua argitara eman baino lehen, Beriainen *Tratado* lanean (1621) ageri da, eta hortaz, litekeena da Lizarragak etxean ikasitako hitza izatea.

### 3.1.2.3. Axularren eraginaz

Ikusi ahal izan dugun bezala, Lizarragak Axularrekin partekatzen duen lexikoa nagusiki ekialdeko hizkeretan lekukotu da, eta horrek biziki zailtzen du Axular hitz baten iturri fidagarri bezala proposatzea.

Horrez gain, kontuan izan beharra dago autoreak baldintzaturik idazten duela, JMSB itzulpen lana baita. Lizarragak berak sorturiko sermoiak aztertuz gero, ziurrenik Axularren eragina agerikoagoa litzateke, goian aipatu dugun pasarteak iradoki dezakeen bezala. Guztiarekin ere, ez dugu Axularrek JMSBn eragina izan zuela ziurtatzeko nahikoa frogarik aurkitu.

### 3.1.3. Mendiburu

Axularrena bezala, Mendibururena idatzizko lana da, eta hortaz, idatzi ahal sorturiko zalantza lexikoak argitzeko erabiltzen zailagoa oiartzuarrarena HH baino; edo deserosoagoa behinik behin. Kasu honetan, Lizarragaren eta Mendibururen arteko lotura zuzenagoa da, Anuntziadan batera egon baitziren, lehena ikasle eta bestea irakasle zirela (§ 2.2.). Gauzak horrela izanik, pentsatzekoa da harremanetan egonen zirela eta lexikoan izan zezakeenaz haratago, eragin ideologikoa izanen zuela harengan, Larramendiren proiektuarekin loturiko gaiei dagokienez behintzat.

JMSB itzulpen lana da eta halaxe da Mendibururen *Jesusen biotz maitearen debozioa* ere. Bertako hitzaurrean, autoreak idazteko helburuak eta itzulpen estrategiak aipatzen ditu. Lizarragarenarekin alderatzen badugu, antzekotasun ugari aurkituko ditugu bi lanen artean, bai, forma eta baita helburuan ere:

Librua ez da guzia nerea, ez eta besterena ere. Onegatik ezpaliz, hitz al-ferra lizake *euskaraz*, Libruaren asieran, izenean edo tituloan ezarri dudana. Egiten hari nintzanean, begietan iduki dut geienean, Jesusen Konpañiako Aita Juan Croisetek debozio beraren gañean egin zuena. Hark berean dakartzien

bezala arkituko dituzu onetan esaten diran gauzen asiera edo buruak. Emen arkitzen diran gauzarik geienak an arkitzen dira; baña ez dira arkitzen bietan gisa batean. Ango gisara bagenekartzi ango gauzak, ezpagenekartzi bezala izain lirake, eskolarik ez duten asko Euskaldunentzat. Neke andirik gabe nork nai adi ditzakean moduan epeñi ditut, nere ustez, han modu eder goratuan, gizon adituentzat egiñak bezala dauden gauzak. (Mendiburu, 1747: Irakurleari atala, *grafia eta puntuazioa egokituak*)

Berexidire Aita Pedro Rivadeneirak kontatzen tuenetáik<sup>64</sup> bere *Flos Sanctorum* deitzen dén libruán, ez án diren guziák, baizik ezaunágo direnének, ta protxu yago eman dezaketéla idu[ri]<sup>65</sup> duténak aldiritár pobreén értean.

Nai ez dituének kontátu ala nola dauden emén, dezázke átra eméndik nai tuénak<sup>66</sup>, ta útzi naituének, prinzipalkiró exenplu ónak. (Lizarraga, JMSB: 83)

Mendiburu oiartzuarra zen eta bertako euskara goi-nafarreraren barnean sailkatu zuen Bonapartek. Berriki egin diren ikerketek, ordea, egun Gipuzkoarantz lerratuago dagoela iradokitzen dute (Zelaieta, 2008: 102). Nolanahi ere den, aski ziurra dirudi Mendibururen euskarak nafar kutsua zuela, eta ez hori bakarrik, aipatu berri dugun liburuaren hasieran dagoen Larramendiren gutunean irakur daitekeen bezala, nafarreraranzko joera ere bazuen: “Ongi egin dezu Nafarroako hitzen batzuek ekartzea, egokiak diranean eta besterik ezteanean: zerrren lenbizian ta bat-batetan aditzen ezpadira, aurki adituko dira” (1747: Larramendiren gutuna).

Mendiburu Larramendiren jarraitzailea zela ikusi dugu gorago (§ 2.1.), eta hortaz, pentsatzekoa da HH eta hitzak sortzeko bertako estrategiak<sup>67</sup> ezagutzen zituela. Horrek biziki zailago bihurtzen du delako hitz berri bat Mendibururengandik ikasia dela frogatzea, HHn jasotako hitzen kasuan, ziurrenik bi autoreek iturri bera erabiliko zutelako; eta hitzen sorkuntzarako estrategiei dagokienez, bakoitzak bere aldetik erabiltzeko aukera ere badagoelako. Hala eta guztiz ere, gauza jakina da idazle bakoitzak bere estiloa duela, eta Mendibururena tautologia (sinonimoak elkartzea) usu erabiltzea dela aipatzen du Urgellek (*alper-nagi, sor-gortu...*) (EH: 636).

64 ‘Dituenetik’.

65 Lerroaren bukaeran dago “idu-” idatzirik eta hurrengoan “dutének” hasten da.

66 ‘Dituenak’.

67 Larramendik ez zuen hitz berriak sortzeko irizpide espliziturik eman, HHko hitzaurrean *jakinetik izarkinde* eta abar nola sortzen diren aipatu bazuen ere (1745: XLIX). Edonola ere, bere jarraitzailetariko askok Larramendik erabili zituen zenbait estrategiaz ohartu eta horien arabera hitz berriak sortu zituzten (elkarketa eta eratorpenaren bidetik nagusiki).

Mendibururengandik ikasitakoa izateko aukera gehien duen lexikoa errazago identifikatzeko, Nafarroan lekukotu gabeko hitzetatik hastea erabaki dugu, geografiak ezarritako distantzia paperak laburtzen ahalko zuelakoan. Honakoak izan dira:

-*(r)en gain* ‘-(r)i buruz’, *afaltegi* ‘afaltzeko tokia’, *akorduratu* ‘bere onera itzuli’, *argitu*<sub>4</sub> ‘persona baten kontzientzia edo sinestean eragin’, *arinkeria* ‘funtsik gabekoa’, *arrapatu* ‘hartu, erdietsi, heldu’, *arrika eman* ‘harriak botatzea kalte eragiteko asmoz’, *auxe* ‘1. graduako erakusle enfatikoa’, *betiro* ‘betirako’, *erabili* ‘ibiliarazi’, *erregalo* ‘oparia’, *esku eman* ‘ahalmena, baime-na, eskumena eman’, *eskupe* ‘aginte, ardura’, *gaixtatu* ‘kutsatu’, *goritu* ‘gori dagoena’, *hamu* ‘amua’, *iraundu* ‘mantendu’, *iru(r)ogeita amar* ‘hirurogeita hamar’, *itzkuntza* ‘hizkuntza, mintzaira’, *jabetu* ‘zerbaiten jabe egin’, *jaitegun* ‘urtebetetzea’, *jakinde* ‘jakintza, ikasketa’, *jautzi* ‘garbitu’, *kee* ‘kea’, *kostu*<sub>1</sub> ‘kostua’, *larritu* ‘hazi’, *lego* ‘ordena klerikalik ez duena’, *loizu* ‘lohi edo lokatz asko dagoen lekua’, *manda* ‘diru kopurua’, *ordikeria* ‘mozkorkeria’, *ordu gaixto* ‘norbait modu txarrez uxatzeko’, *palakatu* ‘sosegatu’, *present* ‘oparia’, *silizio*<sub>1</sub> ‘penitentziarako, azalaren gainean janzten den ahuntz edo gamelu lar-ruz eginiko jantzi latza’, *tentu*<sub>3</sub> ‘axola, ardura’, *triaka* ‘antidotoa’, *zarrez ta zatarrez* ‘arropa zahar edo hautsiak, trapuak... jantzirik egon’, zenbait bakotx ‘batzuk (bakar batzuk)’, *zilizio*<sub>1</sub> ‘penitentziarako, haragiaren gainean estu loturik eramaten den eta barrura begira punta edo iltzeak dituen gerrikoa’, *zili-zio*<sub>2</sub> ‘penitentziarako, azalaren gainean janzten den ahuntz edo gamelu lar-ruz eginiko jantzi latza’.

Hitz talde horretatik zortzi Mendiburuk soilik erabili ditu aztertu ditugun autoreen artean: *akorduratu*, *arinkeria*, *arrika eman*, *hamu*, *jaitegun*, *manda*, *silizio*<sub>1</sub> eta *zilizio*<sub>2</sub>. Azter ditzagun.

*Akorduratu* hitzari dagokionez, Lizarragak *akorritu* ere erabiltzen du ‘bere onera itzuli’ zentzuarekin. Ematen du hitz biek oinarri bera dutela, baina desberdinak dira, eta ez du ematen egilearen borondatearekin loturarik duenik. Mendiburuk eta Lizarragak soilik erabili dute EKCrene arabera. Erabilera salatuko lukeen pasarterik aurkitu ezin izan dugunez, ezin izan dugu hitzaren iturria frogatu.

*Arinkeria* hitzak euskal letretan izan zuen lehendabiziko agerpena Pouvreauren *Philotea* (1664) lanean izan zen. Horren ondotik Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (1747) arte ez da lekukotu, eta hurrengoa Lizarragaren agerpena da. Larramendik (s.v. *frivolo*) *zekai* ematen du. Mendibururen eta Lizarragaren adibideak aurrez aurre jarrita ez dugu biak lotzeko moduko ebidentziarik aurkitu, eta hortaz, ezin jatorria ziurtasunez proposatu, baina baliteke *-keria* atzizkiarekin eraikitako hitz eratorri paraleloak izatea.

*Arrika eman* aditz esapidea aztertzeke, XIX. mendea baino lehenagoko autoren lanetan ‘harriekin eraso egitea’ nola adierazten duten bilatu dugu, eta bi joera nagusi atzeman ditugu: Mendiburuk (AN), Agirrek (G), Etxeberriak<sup>68</sup> (AN), Lardizabalek (G), Otaegik (G) eta Urruzunok (G) *arrika eman* darabilte; Añibarrok (V), Astarloak (V), Mogelek (V), Zabalak (V), Uriartek (V) eta Iturzaetak (V), *arrika egin*. Ematen du mendebaldeko autoreek batera eta erdialde eta ekialderagokoek bestera egiten dutela eta horiek horrela, ez dugu Mendiburu jatorritzat aipatzeko oinarri sendorik.

*Hamu* hitza, OEHk jasotakoaren arabera, Pouvreaux, Eguiateguyk, Inchauspek, Leonek, Oskillasok eta Mirandek idatzi dute hasperenarekin. Mendibururen lana azterturik, ordea, 11 bider aurkitu dugu *h-z* idatzirik, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak* lanean, denak elkarrengandik nahiko hurbil (1982: 470-477). Altunak Mendibururen idazlan argitaragabeak bildu eta argitaratu zituen, tartean aipatu berri duguna, eta hitzaurrean honakoa adierazi zuen:

Mendiburu *H-z* baliatzen da zenbait hitzetan: hala nola *behar*, *bihotz*, *mehatxu*, *hau*, *hura*, *hamu*, etab. Egia esan, lehen idatzia jorratu eta orraztean, horietako asko eta asko ezabatu egin zituen, baina beste asko oharkabean lehen bezala utzi. (1982: LXXIII)

Irudi lezake beraz, lana idatzi ahala Mendiburuk irizpidea aldatu zuela. Aztertzen ari garen lana Italiako erbestealdian idatzia da (Perez 2008: 19), eta baliteke *h* gabe idaztea bertan harturiko erabakia izatea, Lizarragari *h-z* idatzi behar dela irakatsi edo iradoki ondotik. Elkanokoaren lan guztiak azterturik, 11 aldiz dakar *hamu* eta behin bakarrik *amu* (1781: 81. sermoia).

Mendiburu eta Lizarraga dira *jaitegun* erabiltzen duten autore bakarrak OEH eta EKCre arabera. Ez da HHn ageri, bertan (s.v. *dia de cumpleaños*) *jaitegun* eta *sor-eguna* ematen baitira (ez da lehenaren erabilerarik jaso). Badirudi ekialdeko hizkeretan ohikoagoa dela *urt(h)ebet(h)etze* eta haren aldaerak erabiltzea (OEH, s.v. *urtebetetze*), baina ez Lizarragaren lanean eta ezta HNan ere, ez dugu lekukotasunik aurkitu. *Jaitegun* aldaera soilik Mendiburuk eta Lizarragak (batez ere bigarrenak) darabiltela ikusirik, bien artean sortutako aldaera delako aukera kontuan hartzera garamatza, baina baliteke Larramendiren elkarketa ereduari jarraituz, autore biek bakoitzak bere kabuz sorturikoa izatea; ezin jakin.

*Manda*, *zilizio*, eta *zilizio*<sub>2</sub> maileguak dira eta § 3.2. atalean landuko ditugu.

Bestalde, JMSBn Kardaberazek eta Mendiburuk bai, eta Axularrek eta Larramendik erabiltzen ez dituzten bi hitz daude: *kee* ‘kea’ eta *triaka* ‘antido-toa’. Bigarrena mailegua da eta aurrerago aztertuko dugu. Lehenari dagokionez,

68 Oiartzun 1773 - Urnieta 1853.

EKCn lehendabiziko agerpena Pouvreaurena da, eta hurrengoak LE, Mb, Cb eta Mg. Bertan, bizkaieraz, gipuzkeraz, lapurteraz eta zubereraz jaso da, eta Nafarroako agerpen bakarrak Lizarragarenak dira. EHHAn (1026. mapa) Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugatik gertuko Oñati, Eibar eta Elgoibarren jaso da soilik; eta Nafarroan, oro har, *eke* da formarik erabiliena. Absolutibo mugagabeen Lizarragak ez du *keez* beste formarik erabiltzen, baina artikuluekin *kea* ematen du eta ez *keia*, *kee* erabiltzen duten autoreek egiten duten bezala (OEH, s.v. *l ke*). Kardaberazek *keeren* agerpen bakarra du eta Mendiburuk zazpi. Agerpenok Lizarragarekin alderaturik, ez dugu jatorria proposatu ahal izateko moduko antzekotasunik aurkitu.

### 3.1.3.1. Mendibururen eraginaz

Mendiburuk Lizarragaren lexikoan izan duen eragina lausoa dela ikusi dugu, eta, zantzuak izan arren, froga sendoak falta ditugu hitz batzuen jatorria proposatu ahal izateko.

Gure ustez, argi geratu dena da Mendiburuk Lizarragarengan izan zuen eragin “teorikoa” dei genezakeena. Lanen ezaugarriak hain antzekoak izateak, eta dakigun bezala, Mendiburu Anuntziadako irakasle izateak Lizarragak eredutzat hartu zuela iradokitzen dute. § 2.1. atalean ikusi ahal izan dugunez, itzulpen-gintzak pisua zuen Anuntziadako programan, nagusiki hizkuntza klasikoetatik egiten bazen ere. Dena dela, oartzuarra eta elkanoarra itzultzeaz gain, testu jasagoak nekazariendako egokitzen aritu ziren, hura kendu, bestea laburtu eta hemengoa sortu edo erantsiz.

### 3.1.4. Kardaberaz

Aztertuko dugun azken idatzizko iturria Kardaberaz da. Ez dugu lortu Lizarragaren eta bere artean lotura zuzenik egitea; ez baitakigu Lizarragak haren lanik izan edo erabili zuen, ezta harremanetan egon ote ziren ere. Guztiarekin ere, Perez Goyenaren aipua (1947 (I): 167) kontuan hartu eta Lizarragarengan izan zezakeen eragina aztertzea merezi duela iruditu zaigu.

Alderdi lexikoaz den bezainbatean, honakoak dira Lizarragak eta Kardaberazek partekatzen dituzten hitzak:

*Aio* ‘haurtzaina’, *ajustatu* ‘adostu’, *alibio* ‘lasaitua’, *amagarri* ‘maitagarri’, *anda* ‘hilak eramateko ohe modukoa’, *ansiatu* ‘irrika izan’, *arakintza* ‘zauri edo heriotza basatiak eragitearen ekintza eta ondorioa’, *argitu*<sub>4</sub> ‘pertsone baten kontzientzian edo sinestean eragin’, *arraia* ‘marra’, *aurkez aurke* ‘aurrez aurre’, *auxe* ‘1. graduko erakusle enfatikoa’, *bat banaka* ‘banan-banan’, *betiro* ‘betirako’, *bofetada* ‘zaplazteko’, *dediñatu* ‘mespretxatu’, *dre dre dre* ‘diskurtso jarraia adierazteko onomatopeia’, *erregalatu*<sub>1</sub> ‘atsegin eman’, *erre-*

*galo* ‘oparia’, *erresabio* ‘bizioa’, *esku eman* ‘baimena eman’, *grazioso*<sub>1</sub> ‘graziaz betea (Jaungoikoaren grazia)’, *grazioso*<sub>2</sub> ‘dibertigarria’, *iraundu* ‘mantendu’, *iru(r)ogeita amar* ‘hirurogeita hamar’, *itzkuntza* ‘hizkuntza’, *jakinde* ‘jakintza’, *kee* ‘kea’, *kostu*<sub>1</sub> ‘balioa’, *leni(k)jαιο (hume)* ‘lehenseme’, *mainku* ‘besoa edo eskua falta duen pertsona’, *mugonez* ‘garaiz’, *oneratu* ‘bide zuzena hartu’, *ordikeria* ‘mozkorkeria’, *ordu gaixto* ‘norbait modu txarrez uxatzeko’, *palakatu* ‘baretu’, *sisatu* ‘lapurtu’, *triaka* ‘antidotoa’, *txasko* ‘desilusioa’, *zarez ta zatarrez* ‘arropa zahar edo hautsiekin, trapuekin... jantzirik egon’, *zilio*<sub>1</sub> ‘penitentziarako, haragiaren gainean estu loturik eramaten den eta barrura begira punta edo iltzeak dituen gerrikoa’.

Horietatik zortzi ez ditugu azterturiko gainerako iturrietan aurkitu: *alibio*, *anda*, *bofetada*, *grazioso*<sub>1</sub>, *grazioso*<sub>2</sub>, *mainku* eta *oneratu*. Ikusten denez, horietatik bost mailegu argiak dira eta hurrengo atalean (§ 3.2.) aztertuko ditugu. *Mainku* mailegua da ere, baina euskaraz hartu ohi duen ‘erren’ adiera izan beharrean, jatorrizko ‘besomotz’ adierarekin darabilte, eta hortaz, *oneraturekin* datozen lerroetan aztertuko dugu.

*Mainku* ‘besomotza’ hitzari buruz, Lizarragak jatorri bereko *maingu* eta *maingi* darabiltza ‘erren’ adierazteko, eta Bonapartek ere *maingi* ‘boiteaux/cojo’ dakar Elkanon (Ondarra, 1982: 154). HHn begiraturik (s.v. *manco*), *eskuila*, *maingua*, *elbarria* daude. “Coxo” ‘errena’ bilatuz gero *urguna*, *errena*, *makia*, *maingua* aurkituko ditugu. Kardaberazek ‘besomotz’ adierarekin darabil *mainku*, eta ‘errena’ adierazteko *urgun* eta *erren*. Gaztelaniazko formatik hain gertukoa izanik, eta Lizarragak ez duenez bestelako sinonimo edo aldaerarik erabiltzen, erabateko ziurtasunik gabe, baina berak mailegatua dela uste dugu.

*Agiazko* hitza XVIII. mendean lekukotu da lehen aldiz, eta Egiategi eta Mogelen lanetan jaso da (EKC, s.v.). Lizarragak, aldiz, aldaera apikalduna darabil, FSKo “contingente” (1860(3): 336) hitzaren ordainetan. Irakurlerik saiatuenak konturatuko ziren aipatu ditugun autore guztiak Larramendiren jarraitzaileak direla edo, gutxienez, haren hiztegiaren erabiltzaileak<sup>69</sup>. Ez gara, ordea, Larramendiren lanetan hitza aurkitzeko gai izan; HHn begiraturik (s.v. *contingente*, *adj.*), *lizakeana*, *leizakeana* ageri dira, eta ezagutzen ditugun corpus guztietan ez da Larramendi eta hitza lotzen dituen lekukotasunik ageri. Gure ustez, hitzaren atzean Larramendi egon liteke, baina ezin dugu frogatu.

### 3.1.4.1. Kardaberaz en eraginaz

Kardaberaz en eragin argirik ez dugu aurkitu lexikoan. Gainerako alderdiei dagokienez ere, zaila izan da eraginik aurkitzea, ez baitugu bi autoreen arteko loturarik egiteko modurik izan.

69 Egiategiri buruz, ikus Peillen (2010: XIV) eta Mogeli buruz, Kortazar (1982: 48).

### 3.2. Lizarragaren ekarria

Atal honetan, Lizarragak ez beste inork erabilitako lexikoari begiratuko diogu, bere lumaren bitartez ahozkotik idatzizkora lehen aldiz igaro zenari, hiztegietatik hartu eta lehen aldiz testuratu zuenari, beste hizkuntza batzuetatik euskarara ekarri zuenari... finean, Lizarragaren lexiko eskusiboenarekin arituko gara heldu diren lerroetan.

Hitz bakoitzaren agerpenaren eta, posible izan denean, kronologiaren inguruko informazioa OEH, EKC, EHHA, *IbarraH*, *ArtolaAr*, *CaminoAe* eta *IriarteE* lanetatik hartu dugu. Baliteke iturri horietan jaso gabeko bestelako agerpenik izatea. Baliteke ere, liburu hau argitaratu eta ondorengo urteetan hemen jasotakoa zuzentzea eskatuko duen bestelako idatzizko lekukotasunen bat aurkitzea (hala izanen ahal da!).

Lizarragaren ekarria, hiru azpitalde edo multzotan antolatu dugu: 1) Hapaxak, aldaera ezezagunak eta lehen erabilerak; 2) Eratorpena eta elkarketa; eta 3) Maileguak. Talde bakoitzean azaldu dugu bertara bildutako lexikoaren ezaugarriak eta sailkatzeko irizpideak zein izan diren.

#### 3.2.1. Hapaxak, aldaera ezezagunak eta lehen erabilerak

Hiztegian hapaxtzat hartu ditugunak, euskararen historian Lizarragak bakarrik erabili dituen 157 hitz dira eta horiei “hap.” etiketa ezarri diegu. Etiketa horren azpian, baina, “hapax” deitu ohi dena baino talde zabalagoa bildu dugu: 1) egiazko hapaxak; 2) hitz ezagunen aldaera ezezagunak; 3) berak bakarrik erabili dituen hitz elkartu eta eratorriak; eta 4) berak bakarrik dituen maileguak. Datozen lerroetan, horiek bereizirik eta xehekiago landuko ditugu, Lizarragak euskal lexikoari egindako berebiziko ekarpenaz jabetzen laguntzeko.

Mailegu batzuen kasuan, Lizarragak bakarrik erabili ditu euskal letretan, eta horiek § 3.2.3. atalera eraman ditugu. Hapaxen adiera proposatzeko oso lagungarria izan da Lizarragaren iturria zein izan zen ezagutzea, *Flos Sanctorum* begiraturik, delako hitzaren adieraz jabetzea errazago suertatu zaigulako.

Beste kasu batzuetan, soilik Lizarragak erabilitako aldaerak aurkitu ditugu. Atal honetan, horiek ez ditugu hapaxtzat hartu, eta *aldaera ezezagunak* taldera bildu ditugu. Horietariko bat da, adibidez, *egaste* ‘hegazi’.

Aipatuko dugun azkeneko hitz taldea *lehen erabilerak* deitu duguna da, eta haren barnean bi motatako hitzak bildu ditugu. Batetik, euskal letretan lehen aldiz Lizarragaren obran jasotako hitz eta aldaerak (ahozkotik ekarriak adibidez), eta beste autoreren batek ere erabili dituenak; bestetik, lan lexikografikoetan

jasotako hitzak (HHn batez ere), idatzizko testu batean lehen aldiz Lizarragak erabili dituenak eta geroagoko beste lanen batean aurkitu direnak.

Hapaxen eta lehen erabileren artean, kasu zenbaitetan eratorpen edo elkar-keta bidez sorturiko hitzak aurkitu ditugu, Lizarragak sortuak izan daitezkeenak zein ez, eta horiek § 3.2.2. atalean landuko ditugu.

### 3.2.1.1. Hapaxak

Azpiatal honetan, izenburuak iradokitzen duen bezala, hapaxei helduko diegu. Gorago adierazi dugun bezala, hapaxak soilik Lizarragak erabili dituen hitzak dira. Aurrerago banaka azalduko ditugun arren, hona hemen zein diren JMSBn aurkitu ditugunak:

*Agiasko* ‘kontingentea’, *ajent* ‘prestua’, *aldirita* ‘eskualdea’, *animaletu* ‘animalien antzera jokatu’, *barronde* ‘zelatan’, *bidro* ‘beira’, *butzanka / putzanka* ‘balsa, putzu txikia’, *emanka* ‘liskarra, borroka’, *erdikal* ‘ertaina’, *erreflon* ‘zaplazteko’, *gabete* ‘estalki’, *idiskile* ‘idiak zaintzen eta gidatzen dituen pertsona’, *jarin* ‘isuri’, *lano* ‘alor’, *pulpa-pulpa* ‘tantaka borborka’.

Hapax bakoitzaren inguruan ahalik eta informazio gehien biltzen saiatu gara. Informazio iturri nagusiak OEH, EKC, HNCor, *IbarraH*, *ArtolaAr*, *CaminoAe* eta *IriarteE* izan dira oraingo honetan ere. Horiei Rivadeneiraren *Flos Sanctorum* gehitu diegu, eta atal honetako gako nagusienetarikoa izan da, hori gabe biziki zaila suertatuko bailitzateke zenbait hitzen adiera proposatu edo are argitzea ere. Ikus dezagun bada, banan-banan aurkitu ditugun hitz bereziak zein diren:

*agiasko* ‘koningentea, gerta daitekeena edo gerta ez daitekeena’

Lizarragak *Mística Ciudad de Dio*seko “contingente” itzultzeko erabiltzen duela dirudi, berak idatzitako pasarte eta jatorrizkoa alderatzen baditugu:

“Errégla generála dá, bizi onarí darraióla eriótze óna: gañarákoa dá dudás-ko, argál, ta agiásko”. (JMSB: 75)

“883. pero la regla general es, que a la buena vida le espera buena muerte: lo demás es dudoso, muy raro y contingente”. (Agreda, 1860 (3): 336)

Badago *agizko* adjektibo eta adberbio gisa adiera ezberdinetan (‘arrunta, normala’, ‘orokorrean’, ‘normalean’) xx. mendeko testuren batean (Orixerentetan, adibidez). Bestalde, Lizarragaren erabileratik hurbilago, *agiaz* ‘agian’ leku-kotuta dago (L, *aiaz* B, Azkueren arabera, ap. OEH, s.v. *agiaz*), eta *agiz* aldaera xx. mendeko idazle gipuzkoar pare batean.



*ajent* ‘prestu’

Euskal letretan ez da hitza darabilen autorerik, OEH eta EKCren arabera. JMSBn ere behin bakarrik ageri da: “Guzién értean zebila Apostolu zori gaix-tokoa listo ajént itekóso, etzezáten uts egin arrapátzean berzeren bát Jesusen lekuan [...]” (JMSB: 44). Iraizozek (1978, s.v.) Lizarragaren lexikoarekin osaturiko hitz zerrendan ‘arduratsu, prestu’ adiera proposatu zuen eta goiko adibidea ikusirik hala dela uste dugu guk ere.

Adibidea Jesu Kristo eta Mariaren bizitzari dagokion atalean dago eta iturria zein izan zen ezin izan dugunez aurkitu, ez dugu gaztelaniazko pasartearekin alderatzerik izan.

*aldirita* ‘eskualde’

Salaberrik (2008: 599) Larramendirengandik harturiko hiztat dauka, eta hark Leizarragari *aldiri* hartu ziola frogatu zuen Urgellek (2000: 68). Guk aztertu ditugun autoreen artean, Larramendik eta Mendiburuk erabili dute hitza. Leizarragak, Oihenartek eta Belapeirek lehenago erabili zuten, eta Pouvreaux ere bere hiztegian jaso zuen.

Larramendiren hiztegiari bagagozkio (1745: 211), bi sarreratan ageri da: “Comarca, *aldiria*” eta “Comarcano, *aldiricoa*, *aldiritarra*”. 1729ko *Diccionario de Autoridades*era jotzen badugu (s.v. *comarca*), “El país contíguo y cercano a una tierra o lugar, que están en contorno de ella” eta (s.v. *comarcano,na*) “Circunvecino, cercano y situado al contorno de algún país, tierra, ciudad, lugar o término”.

Lizarragak aurreko autore guztiek erabilitako adiera berberarekin darabil, ondoko adibideetatik ondoriozta daitekeen bezala: “S. Jenobefa Parisgo Patrona jaio ze ango aldirita batean urbil” (JMSB: 107). “Atratzen ze aldirita eta montañaetara arimen eizian” (JMSB: 266). “Sandu admirablea izan ze nekazari honratu birtuosoen hume Groti aldiritan Toskanan” (JMSB: 363). Baina hitzaren forma ez da berbera.

Tradizioari erreparaturik, *aldiri* da jaso den forma bakarra, eta beraz, badirudi Lizarragak ez zuela mozketa ongi egin, eta atzizkiaren zati bat hitzarena balitz bezala hartu zuela. Hori egiaztatzeko, eratorpenari erreparatu diogu, eta honako agerpenak bildu ditugu Lizarragaren lanetatik: *aldiritar* (10), *aldiritan* (7), *aldirita* (4 aldiz), *aldiritakoa* (2), *aldiritara* (2) eta *aldiritatik* (1). Guztiak singularrean daude, eta beraz ezin izan dugu jakin, adibidez, pluralean *\*aldiritetan* eta mugagabeen *\*aldiritatan* idatziko zuen ala ez. Iraizozek dakar Lizarragak *aldiri* erabili zukeeneko lekukotasun bakarra: “aldiri ta montaña gebetan” (1978: 251) eta ‘herri’ adiera ematen dio. Lanaren hasieran egiten dituen oha-

rretan (1978: 246), grafia eguneratu zuela aipatzen du, baina ez du zuzenketen inguruko aipamenik egiten. Hortaz, eskuizkribua aurrean eduki gabe, ezin jakin Lizarragak jatorrizkoan *aldiri* ala *aldirita* erabili zuen.

Aurreko guztiak ikusirik, gure ustez Larramendiren lanetik hartua balitz, ez luke *aldirita* erabiliko, “Comarca” eta “Comarcano” elkarren ondoan baitaude eta, beraz, hitza ongi mozteko aukera lukeelako. Mendiburuk bere lanetan sei aldiz darabil *aldiritar* hitza (EKC, s.v. *aldiritar*), horietako bat *Festegunetarako irakurraldiak* lanean eta gainerako bostak *Urte guztiko igande ta festegunetarako irakurraldiak*en (*aldiritar* (bi aldiz), *aldiritarra*, *aldiritarrik* eta *aldiritarrik*). Hitza erabili duten autoreetatik Mendiburu da Lizarragarengan eragina izateko aukera gehien duena, baina eragin hori zeharkakoa eta argibiderik gabekoa izan zela iruditzen zaigu, bestela izatera hitza gainerako autoreek bezala ebakirik erabiliko zuelako.

*animaletu* ‘animalien antzera jokatu’

OEH eta EKCn Lizarragaren adibideak jaso dira soilik, eta Harrietek bere hiztegian jaso zuen (OEH). *Flos Sanctorum*en “se dió a todo genero de vicios y deshonestidades, y se convirtió en una bestia, no solo carnal” (FS 1761: 43) ageri da, eta hortaz, argi dago Elkanokoak zer adierazi nahi zuen.

*barronde* ‘zelatan’

JMSBn zenbait bider darabil Lizarragak *barronde* hitza, horietariko bat honakoa da: “Barronde zegolarik egun bates goart egin zio nola zoeien alzoan zerbait zeramala” (JMSB: 163). Gaztelaniaz ere pasarte bera aurkitu dugu eta honela dio: “Acechóla un día y viéndola recogida su falda, fué a ella, y preguntole con grande enojo, qué llevaba?” (FS 1610 (1): 244). Gainerakoetan ere, testuinguruak adiera bera proposatzera garamatza.

*bidro* ‘beira’

Gorago, § 2.5.2.4. atalean azaldu dugunez, hitz hau *Flos Sanctorum*en 1675eko edizioarekin lotzeko aztarnak ematen dituen akats bateratzailea izaten ahal da. San Marzelino santuaren pasarteetan, honakoa ageri da Rivadeneirarenean: “ordenó que le apartasen de Pedro y le volviesen a la cárcel, y le tendiesen en el suelo, sembrado de pedazos de vidro y le dejasen sin luz y sin darle cosa de comer” (FS 1610: 406). Lizarragak honela ematen du pasarte bera: “eramanarazi zue kartzelerá ta útzi án lurrean bidro ta tella puskes eraikirik, eman gábe amenik” (JMSB: 196). FSn “vidrio” erabili ohi da normalean, eta soilik bi aldiz ageri da “vidro”(1610: 406, 517). Lizarragak ez du *bidrio* erabiltzen, eta *bidro*-ren agerpen bakarrak pasarte horretan dira.

*butzanka / putzanka* ‘balsa, putzua’

Lizarragaren adibideak “Zé án estánke edo urésko bálsa ta putzanka bát” (JMSB: 334) dakar, eta Rivadeneirak “Había una laguna de agua muy fria cerca de la ciudad” (1716: 290). RAEren hiztegian *laguna* (s.v.) lakua baino txikiagoa dela esaten da. *Balsa* (ibid., s.v. *balsa*<sub>1</sub>) naturala edo artifiziala izaten ahal den ur putzua dela, eta *estanque* (s.v.) balsa artifiziala. Horiek horrela, baliteke Lizarragak gaztelaniazko *pozo* adierazteko *putzu* erabiltzea eta *poza* ‘istil, putzu’ adierazteko, aldiz, *putzanka*.

*emanka* ‘liskarra, borroka’

Larramendik gaztelaniazko bi *pelea* bereizi zituen. Batetik, “*pelea, guduá, gudá, gatazca*. Lat. pugna” eta, bestetik, “*contienda, riña, jaitea, liscarra*. Lat. rixa”. Iraizozek ‘*riña, pendencia, golpes*’ (1978: 284) proposatzen du hitz honendako, Larramendiren *contienda*ren bidetik-edo.

Badirudi Lizarragak ere biak bereizten dituela, eta *pelea* gudu edo borroka epikoagoak adierazteko darabilela (deabruaren kontra, heretikoen kontra, herria agintari maltzurren kontra, etab.), Larramendik emandako lehen adierarekin bat. *Emanka*, aldiz, tirabira txikiagoei erreferentzia egiteko dela dirudi: “eriotze edo emanka bat nonnai da bekatu justiziaren kontra” (2004b: Sermo XXXIII), “gaix-tofikatuak ajustatu zúte kentzekó bizia sainduari noiz ta nola. Órtako forjatu zúte armátzea diskórdia, ta emanka-iduri bát arren atarietan gauaz” (1994: 328).

*epelkara, ertxikara, eutxikara, gogorkara, gutikara, txipikara*

Hitz hauek guztiek amankomunean duten *-kara*<sub>1</sub> atzizkiak adjektiboak hartzen ditu, eta zalantza edo erabatekotasunik eza adiera ematen die.

Lapurdin, Baztanen, ErdHNan eta Aezkoan lekukotu da atzizkia, eta alderdi horietan horrelako aldaerak sortzea erraza den arren, hemen aztergai ditugun oinarri/atzizki konbinazioak Lizarragaren lanetan lekukotu dira soilik.

*erdikal* ‘ertain’

OEHN (s.v. *erdikala*), ‘erdialderaino’ dago eta (s.v. *erdika*) ‘erdibana’ adierazteko erabiltzen dela aipatzen da. *Erdikal* duten adibide guztiak Lizarragarenak dira, baina guk aurkituriko adibidean adjektibo bezala ageri da, eta ez du balio semantiko hori hartzen, eta hala ulertzen da *Flos Sanctorum*eko adibidean: “etorri zire infinizio bát arrái andi, txipi, erdikal;” (JMSB: 199); “vino una muchedumbre de peces, grandes, medianos y pequeños [...]” (FS 1610 (1): 418).

*idiskile* ‘idiak zaintzen eta gidatzen dituen pertsona’

EHHAn (2559. mapa) jasotakoaren arabera, mendebaldean *karretero* eta haren aldaerak, eta erdialdean zein ekialdean *itzain* eta aldaerak dira nagusi. Zilbeti eta Mezkiritzen *unai* ere jaso da. JMSBn *idiskile* behin bakarrik ageri da, eta lan horretatik kanpo, Lizarragak *itzain* eta *unai* ere badarabiltzala ikusi ahal izan dugu (EKC, S.VV.).

Aztertzen ari garen hitzak, ordea, ez du agerpen gehiagorik ez Lizarragarenean eta ezta bestelako autoreren obran ere.

*istargitu* ‘distiratu’

Lizarragaren lanean erabili da soilik. Baliteke *listatu* ‘distiratu’ (Ondarra, 1982: 156) eta *argitu* hitzen arteko elkarketatik sorturiko hitza izatea. Nolanahi ere den, ez dugu elkarketaren bestelako lekukotasunik aurkitzerik izan, eta, forma gorabehera, adiera gardena da Lizarragaren adibideak ikusirik: “Paratu zékio aurrégia ain grábe edér istargitzen zuéla, ezpaitziokéte beirátu” (JMSB: 277).

*jarin* ‘isuri’

*Jarior*en aldaera hau Lizarragak soilik erabili du aztertu ditugun corpusetan jasotako informazioaren arabera. Hiru modutara aurkitu dugu JMSBn: “Joaterákoan zoézi atzétik zázpi ándre debóta bildus odól jariten zekióna lllagaetáik” (129); “eztéla arritzekó [...] iltzerákoan jarizékion ésne odolarén lékuan (216); eta “Ongi egina, jarin baize orren lepotik esne, mostratzeko orren arimaren txuri eder garbia” (551).

*lano* ‘alor’

Badirudi Lizarragak ‘alor’ zentzuarekin darabilela, eta *Flos Sanctorumek* ere berdina iradokitzen du: “Berze bein aurkitu zúzte idiak bakárrik berak lánoan, niór etzéla agéri kidatzen zituenik, ta anitz lur landu zutela” (JMSB: 449); “Otra vez sucedió que yéndo unos hombres a buscar a San Isidro a la heredad, no le hallaron, sino sólo a los bueyes uncidos, que estaban por si arando, sin regirles nadie, y habían arado mucha tierra” (1761: 90).

RAEren hiztegian *heredad* bilaturik, lehendabiziko adieran “jabe bakarrena den lur zati landua, bereziki familia bati oinordetzan utzi ohi zaiona” (guk euskaratua) ageri da.

*pulpa-pulpa* ‘tantaka, borborka’,

Iraizozek azterturiko eskuizkribuan ere ageri da, eta horren berri eman zuen *Vocabulario y fraseología de Joaquin Lizarragan* (1978: 155). JMSBn ere aurkitu dugu (JMSB: 45) eta EKCn (s.v. *pulpa*) zein OEHn ez da Lizarragarenaz beste erabilerarik jaso. Guztiarekin ere, kontuan izan beharra dago hitz fonosinbolikoa dela, eta idatziz jaso izan ez arren, ahozkoan erabilia izan dela ezin dela

baztertu. Nolanahi ere den, *Iriarte* Erako eginiko galdeketetan, lekukoek adierazi dute ez zutela ezagutu edo erabiltzen.

Lizarragaren adibidean isurketa kanporantz gertatzen den arren, horren kide dira edatearekin lotura duten *kulka-kulka* (OEH, s.v. *kluku-kluku*) eta Aezkoako *txurka-txurka edan* (*CaminoAe*).

### 3.2.1.2. Aldaera ezezagunak

Atalaren hasieran aipatu dugun bezala, talde honetan hapax ez diren, baina euskal letretan soilik Lizarragak erabili dituen aldaerak aztertuko ditugu. Guztira 44 item bildu ditugu talde honetara:

*Ainkurias* ‘intzirika, uluka’, *aizineko* ‘arbasoak’, *aizkor* ‘aldakorra’, *alhaitu* ‘poztu, animatu’, *Aragua* ‘Aragoi’, *aurkasean* ‘parean’, *baiaztatu* ‘(garia) bahetu, iragazi’, *bentzait* ‘gutxienik, gutxienez’, *berrogei bat guti* ‘hogeita hemeretzi’, *bideasko* ‘oinezkoa’, *bimon* ‘biharamun’, *buldurka* ‘animaliek adarrekin edo buruarekin elkarren kontra jotzen dutenean’, *doaiik* ‘musu-truk’, *egaste* ‘hegazi’, *egunkara* ‘egun aldera’, *eiziatu* ‘ehizatu’, *epelkara* ‘epel samar’, *erregalatu*, ‘erregalatu izatearen ekintza eta ondorioa’, *erteka* ‘tarte’, *ertzikara* ‘hertsu, estu samar’, *eutxikara* ‘zeken samarra’, *falder* ‘itxura txarrekoa baldarra zakarra’, *furo* ‘haserre’, *furoso* ‘haserre, sutan dagoena’, *furotu* ‘haserretu’, *gogorkara* ‘gogor samar’, *gutikara* ‘gutxi samar’, *ikar-ikar* ‘dardarka’, *jangoikostatu* ‘jangoikoaren izpirituaz prestatu errebestitu ta armatu’, *lanparon* ‘eskrofula’, *maingi* ‘eskumotza’, *noizean noizka* ‘tarteka’, *nori bere gisa* ‘bakoitzari dagokion bezala’, *ordik orrat* ‘han-hemenka’, *ordik* ‘hortik’, *pokal* ‘muga, atalasea’, *pozio* ‘pozoi’, *progu* ‘froga’, *putxikatu* ‘hautsi’, *txastre* ‘jostuna’, *txipikara* ‘txiki samar’, *xakintasun* ‘jakinduria’, *xasi* ‘eutsi, zutik irauarazi’, *xupon* ‘norberaren enborra babesteko erabiltzen den burdin-zeko jantzia’, *zarmendu* ‘mahatsondoaren enbor edo adarrak’, *zimall* ‘malgu eta gogorra’.

Sarrera kopurua eta batzuen inguruko informazio urria direla eta, aldaera guztiak ez aipatzea hobetsi dugu, irakurketa hain astuna suerta ez dadin eta informazio asko lan honen bukaeran dagoen hiztegian errepikaturik dagoelako. Honakoak dira aipagarrien iruditu zaizkigunak, baina lehenik eta behin akats izan daitezkeen bi agerraldi aipatuko ditugu:

*aizineko* ‘arbasoak’

Forma ziburra da, zeri zor zaion ez badakigu ere. Baliteke gaizki ulertu edo kopiatu izana, baina *A kodizeak* ez du zalantzarako tarterik uzten eta OEHN ere honako hau ageri da (s.v. *aizineko*): “Según el editor hay *aizineko* ‘antepasado’ en la Doctrina de Lizarraga de Elcano”.

*furo* ‘haserre, sutan dagoena’

Hutsa izan liteke, gainerako agerraldietan *furos* edo *furoso* erabiltzen baititu. Guztiarekin ere, mantentzea erabaki dugu, izatez bai baita *furo* ere Nafarroan. Erronkariko Uztarroze herriko Felix Ordunak jakinarazi zigunez, katu bat erasokorra dela edo ez ukitzeko adierazteko, “ese gato es furo” diote. Batez ere animaliekin erabiltzen dute, katuekin areago, baina baita behiekin ere. Pertso-nekin, berriz, norbait haserre bizian egon dela adierazteko “estaba furo raso” esaten dute, baina gutxiago.

Jarraian aipatuko ditugunak Lizarragak berariaz idatziriko aldaera ezezagunak dira:

*ainkurias* ‘intzirika, uluka’

Baxenabarreko Arnegi, Arrueta, Behorlegi eta Larzabalen *zinkuri(n)* dena, *zinkuli(n)* da Izturitzen zein Jutsin; Zuberoako Barkoxen *zinkhur* eta Larrainen *zinkhui* (EHHA, 2436. mapa). Landibarren (BN) *zinkurina* eta *minkurina* jaso dira. Hegoaldean, aldiz, *eñuri* dago Dorraon eta *aiuri* Etxarrin zein Igoan (ibid.). Testuetara igaroz gero, Ultzaman eta Zaraitzun *ainuria* ‘ulua’ dago (OEH, s.v.) eta *añuria* Artzibar eta Zaraitzun (ibid.); *ainurias* dago berriro ere Zaraitzun eta *aulubias* darabilte Aezkoako Garraldan (EkiHN) adiera berberarekin (*CaminoAe*).

JMSBn agerpen bakarra du: “In zue orázio, ta tzakúrrek ezin pasatu zire alzina, baizik aukas ta ainkúrias itzuli zire Nausiengána lastér” (JMSB: 246). *Flos Sanctorum*en pasarte bera gaztelaniaz aurkitu dugu, baina aztertzen ari garen hitza falta da. Ematen du Lizarragak xehetasun handiagoz deskribatu nahi izan zuela gertaturikoa: “y los perros no pudieron passar adelante, antes dando grandes ladridos, se volvieron atrás para sus amos” (1610 (1): 672).

Guztiarekin ere, testuinguruari erreparaturik argia da aipatu ditugun gainerako aldaeren eta Lizarragaren *ainuriasen* artean dagoen lotura, dela formari, dela adierari dagokienez.

*aizkor* ‘aldakor’

Azkuek Tolosan *aizakor* ‘aldakor’ jaso zuen bere hiztegirako (OEH, s.v. *haisakor* ♦4). Lizarragak fonetikoki higatuagoa den *aizkor* darabil, aldiz, eta forma horrekin ez da beste inon jaso adiera berarekin. Gernikan *aizkor* ‘harroa’ adierazteko erabiltzen da (OEH, s.v. 1 *aizkor*) eta Damaso Inzak ‘beldurti’ adierarekin jaso zuen Erron (OEH, s.v. 2 *aizkor*).

*bentzait* ‘gutxiarik, gutxienez’

Larramendik (s.v. menos) “A lo menos, cuando viene con el sí, o con otro determinante, beintzat, beintzatic, beintzatican, bederik, bedere, edolarik, edolarikan” ematen du. Lizarragak salbuespenik gabe erabiltzen ditu *bentzait* eta *benzait*, beraz, argi dago ez garela idazkera akats batez ari.

OEHren arabera (s.v. behintzat), ez da inon beste agerpenik jaso, eta hegonafarrerez ezta ere. Aezkoan *beinas bein* erabiltzen da adiera berarekin. Ipar-Esteribarko lekukoekin *Iriarte* Erako eginiko elkarrizketetan, *bentzait* erabiltzen dutela esan digute.

*bimon* ‘biharamun’

Lizarragak *biramon* darabil, behin ageri den *bimon* kenduta. Agerpen bakarra izanik, idazterakoan egindako akatsa izateko aukera kontuan hartzea garramatza. Hitzaren kokalekuak akatserako ohikoa baino aukera gehiago ematen dituela iruditzen zaigu, lerro jauzian kokaturik baitago “bi-” lerro batean eta “món” hurrengoan agertzen direlarik (*A kodizea*: 85).

*egunkara* ‘egun aldera’

Lizarragak bi *-kara* darabiltza, eta horietatik bat hitz bakarrarekin aurkitu dugu, orain aztertzen ari garen *egunkararekin*. Denbora momentu bat markatzen duen oinarria harturik, momentu horren inguruko denboran edo momentu horrekin lotura egiten du: “orréki utziko dút doaien libre bazkoa egunkará” (JMSB: 50). Ez dugu gaztelaniazko pasarte zehatza aurkitzerik izan, baina testuingurua honakoa da: Jesus preso dago eta gurutzera eramanez dute. Epaileak Pazko egunean aske utzi nahi du, egun horretan preso bat aske uzteko ohitura baliaturik.

Gaztelaniaz ere erabili izan da “cara” adiera berarekin, gaur egun hain erabilia ez bada ere (DLE, s.v. *cara*): *cara*<sub>15</sub> ‘inguruan’, *cara a* ‘aldera’ eta *de cara a* ‘-i/ra begira’. Ez dakigu Lizarragak gaztelania oinarri harturik sorturiko aldaera den, ala benetan horrela erabiltzen zen, baina gure ustez, aldea dago bi atzizkien artean, bai hartzen duten hitzaren kategoriari eta baita adierari dagokionez ere.

*falder* ‘itxura txarrekoa, baldarra, zakarra’

*Baldar* hitzaren aldaeratzat hartu dugu, eta Aezkoan *fardel* dago adiera horrekin (*CaminoAe*); *falder* aldaera soilik Lizarragaren lanetan lekukotu da. JMSBko agerpen guztietan janzkerari erreferentzia egiten dio, OEHko *baldar* hitzaren bigarren adierarekin bat eginez edo: ‘arduragabea, utzia’. Adiera horrekin, betiere OEHn jasotakoaren arabera, soilik Hegoaldean jaso da *baldar* formarekin.

*marranko* ‘ia ahotsik gabe, ahots latzarekin, marrantaturik’

Ia Nafarroa osoan lekukoturiko (EHHA, 2415. mapa) *marranka* hitzarekin loturiko aldaera, soilik Lizarragaren lanetan agertzen dena, Aezkoan *marranta* eta *marrantatu* ere badaude (*CaminoAe*).

3.2.1.3. *Lehen erabilerak*

Atal honetan euskal tradizioan lehen aldiz Lizarragaren lan batean erabili diren hitz eta aldaerak jaso ditugu. Batzuk soilik Lizarragak jaso ditu idatziz, baina ahozko corpusetan ere aipatu izan dira (*CaminoAen* esaterako). Beste batzuk lan lexikografikoren batean ageri dira lehen aldiz, baina Lizarraga da erabili dituen lehena.

Kanpoan utzi ditugu mailegutzat hartu ditugunak, lehen aldiz Lizarragaren lan batean agertu arren, horiek § 3.2.3. atalean aztertu ditugulako. Esanguratsuen iruditu zaizkigunak aipatuko ditugu zerrendaren ondotik:

*Abeatu* ‘abiatu’, *ain nola* ‘hala nola’, *aintzu* ‘irudi, itxura’, *aiots* ‘intziri, aiene, ahuen’, *aixkide* ‘lagun’, *aixtean* ‘berriki’, *aizeratu* ‘soroan jasotako garria garbitzea, airean botaz’, *aizkatu* ‘uxatu, bidali’, *akorritu* ‘bere onera itzuli’, *alas edo olas* ‘era batera edo bestera’, *alesta* ‘garbitzeko erabiltzen den oihal lakarra’, *alkaizun* ‘lotsa’, *alkitz* ‘nekazaritza tresna, kimatzeko erabiltzen dena’, *altsai* ‘ardien zaintzaz arduratzen den pertsona’, *alzur* ‘aitzurra’, *ametaik atra* ‘gutziz bere bidetik atera inolako kontrolik gabe’, *amiña* ‘amona’, *angabetu* ‘ahuldu’, *aratxago* ‘pixka bat haratago’, *argira eman* ‘erditu’, *ario-ra* ‘arabera’, *arrabutxa* ‘zerbait, haziak batez ere, eskutadaka botatzea airean zehar barreiatuz’, *arrantzu* ‘arrantza (etekina)’, *arrapa* ‘gona’, *arras* ‘zeharo, guztiz’, *at(r)ija* ‘doministikua’, *atari pokale* ‘atari muga’, *atxeki* ‘aitzakia’, *atxon* ‘usain ona, atsegina’, *atxun* ‘aitona’, *ausnarri* ‘tximista, inaztura’, *auspesskatu* ‘ahoz behera jarri’, *bagada* ‘olatua’, *baitan<sub>1</sub>* ‘-(r)en ondoren, -(r)en atzetik’, *baldurro* ‘makila, pertika’, *barrendegi* ‘zerbaiten barruko lekua’, *bateo* ‘batera, aldi berean’, *bateratu* ‘elkartu, bat egin’, *beraxtu* ‘bigundu’, *berex<sub>2</sub>* ‘berezikiki’, *berzergusu* ‘lehengusu bigarrena’, *bidanabar* ‘bide batez, abagunea probesturik’, *biku* ‘pikua’, *biluxi* ‘gorputza estaltzen duen jantzirik gabe’, *denbora labor* ‘gutxira, laster’, *elemenio* ‘pila, mordoa’, *eman ala* ‘ahal den guztia emanik’, *erabaki* ‘kontatu, azaldu’, *eraiki* ‘erein’, *eri-beatz* ‘hatz lodia, erpuru’, *erkada* ‘lerro, ilara’, *erlaztañ* ‘liztorra’, *erman* ‘eraman’, *errautstu* ‘errez hauts bihurtu’, *errotu* ‘zainak edo sustraiak haziz egonkortzea’, *erru<sub>1</sub>* ‘larria, handia’, *erru<sub>2</sub>* ‘indartsua, biolentoa’, *eskaida* ‘aukera’, *estrabille* ‘ikuilu’, *eultzi* ‘eultzitzearen ekintza eta ondorioa’, *ezaundu<sub>1</sub>* ‘ezagutu’, *ezpore* ‘ezproia’, *fixtu* ‘txistua’, *frinkatu* ‘iltzatu’, *gabete* ‘estalki’, *gebek* ‘1. graduko erakuslea’, *goratu<sub>1</sub>* ‘goraino bete’, *go(r)i* ‘2. mailako erakusle plurala’, *goartu* ‘hauteman, ohartu’, *goixtar<sub>2</sub>* ‘goizean goiz jaikitzen dena’, *gusto izan* ‘atsegin ematearen ekintza eta ondorioa’, *iaute* ‘aratusteak, inauteriak’, *ilari* ‘hileta, hobirentzea’, *ilunkara* ‘ilun samar’, *inbolokatu* ‘itzulipurdika ibiltzearen ekintza eta ondorioa’, *ixilkias* ‘sekretuan, inork deus jakin gabe’, *ixtikatu* ‘zapaldu, zanpatu’, *jaintsi* ‘jantzi’, *jaundi* ‘jaun handiak, gizarte maila altukoak’, *jokatu* ‘erasotu’, *kabo (bere)* ‘bere kasa’, *-kara<sub>2</sub>* ‘aldera, gutxi gorabeherako data bat markatzeko atzizkia’, *karraiatu* ‘garraiatu’, *kazkaragar* ‘kazkabarra’, *klamatu* ‘zerbait lortzeko itxaropenez oihukatu edo deiadar egin’, *kozkor* ‘arto-burua’, *kuntze* ‘orbaina, arrastoa’, *lano* ‘alorra’, *lañu* ‘hodeia’, *larran(t)zi* ‘urratu, la-



rrutu', *lenean* 'aurrean, aitzinean, lehen postuan', *leor*<sub>2</sub> 'hezetasunik gabea', *ligu* 'lihoa', *liluratu* 'zorabioa', *lixtukatu* 'txistua bota', *lotsakor* 'beldurtia', *maiolatu* 'pixoihala edo fardela jarri', *malder* 'erren ezindurik', *matsoko* 'mahats-mordoa, mahats-lukua', *mene* 'apala', *mogitu*<sub>2</sub> 'norbait zerbait egite-  
ra bultzatu', *montiatu* 'pilatu, elkartu, batu', *montio* 'pila, multzoa', *nai ba-...  
ez ba-* 'nahi eta nahi ez', *naski* 'antza, itxuraz', *neurritu*<sub>1</sub> 'gehiegikeriarik ga-  
bekoa', *onki* 'norbaiti edo zerbaiti mesede egitearen ekintza edota ondorioa',  
*ontto* "'on"-en txikigarria', *ontziak egin* 'ontziak garbitu', *opatu* 'topatu',  
*orraxa* 'orrazia', *punzika* 'muturretariko batean burnizko iltze bat duen maki-  
la, abereak xaxatzeko erabiltzen dena', *porratu* 'xehetu, xahutu', *sapite* 'da-  
mua', *soil* 'klausurazkoa', *soto* 'zelaia', *suber* 'haserre', *sutillete* 'gutziz erre  
gabeko egur zatia', *turditu* 'norbaiten edo zerbaiten lasaitasuna edota egoera  
bortxaz edo bortizki aldatu', *txarrantxatu* 'txarrantxa, arrastelu edo antzekoe-  
kin urratu', *txastagin* 'daratulia', *txastatu* 'dastatu, probatu', *txindi* 'txinpar-  
ta', *txintxa* 'ezkila edo kanpai txikia', *txintxurri* 'zintzurra, eztarria', *txostatu*  
'jostatu', *txurtu* 'gutxitu, urritu', *tzakur* 'zakurra', *ubel gorriturik* 'ubeldurik',  
*urrunkara* 'urrun samar', *urrupe* 'trago', *xakin* 'jakin', *zabartu* 'bide zuzena  
galdu', *zalaparta* 'zaplastekoa, txaloa', *zalui*<sub>1</sub> 'arina, bizkorra', *zalui*<sub>2</sub> 'aise,  
arin, bizkor', *zarbaildu* 'zarpildu, kaskartu, galdu, usteldu', *zaro* 'makil estua,  
abereak xaxatzeko erabiltzen dena', *zartegi* 'zartagina', *zeuroi* 'bigarren per-  
tsonaren izenordain bihurkaria', *zor* 'eskerra', *zorotu* 'zoratu'.

*abeatu* 'abiatu'

OEHN ez da aldaera honen agerpenik jaso, eta EKCn soilik Lizarragarena. *IriarteEn*, aldiz, forma eta zentzu berarekin jaso dugu lekuko batengandik, eta horrek gutxienez Eguesibarko mendebaldean eta Esteribarren gutxi-asko erabi-  
lia zela erakutsiko luke.

*arrabutxa* 'zerbait, haziak batez ere, eskukadaka botatzea airean zehar barreiatuz'

OEHN aipatzen diren adibide bakarrak Lizarragarenak dira. Testuetan hapax  
izan arren, Iribarrenek (1952: 61) *arrebuxa* jaso zuen Nafarroako erromantzean  
eta baita Elorzek (1997: 476) ere. Horrez gain, jakin ahal izan dugunez, Nabas-  
kozen garia ereiterakoan "echar a rebuche" erabiltzen dute gaztelaniaz. Ibarrak  
*arrebuxi* eta *arrebuxi* dakartza, eta *IriarteEn* ere jaso dugu, *arrebuxi* forman.

*arrapa* 'gona'

Lizarragaz gain idatziz jaso ez den arren, EHHAn Abaurregainan eta Eugin  
jaso da, eta *IriarteEn* *arrapa* eta *arropa* jaso ditugu. *ArtolaAr* eta *CaminoAen*  
*arropa* aldaera dago.

*eman ala* 'ahal den guztia emanik'

OEHN (s.v. *eman*) "eman-ahala" jaso da 'bere indar guztiekin' adierarekin.  
JMSBko adibideak indarrarekin baino, ahalmenarekin du lotura, eta gertuko ba-  
lio semantikoa izanagatik ere, aipatzea merezi zuen. Hona adibidea: "Ama Bir-

jinak lagundu zió orátzen irín galetsi bát, ta atrá ze ógia, aláko eskuetáik bekála, txúri edér, gozo ezin yagos, eta emanik eman ála pobreéi, beti gelditzen zé ogi saskián” (JMSB: 176).

*erabaki* ‘kontatu’

HHn (s.v. *explicar*) *azaldu*, *arpeztu* eta *erabaki* ageri dira, baina Lizarraga da hitza adiera horrekin darabilen autore bakarra, eta soilik adiera horrekin darabil. JMSBn bost agerpen ditu *erabakik*, eta adibideek ez dute zalantzarako tartetik uzten: “Luze litzáke erabakitzea nola azi zén Jaunaren amórean ta gañaráko birtuteetán, ta Jangoiko onak in zituen miragárriak berarén amóres, ezi bere amazaleén amazále dá Jaun dibinoa. Zenbáit bakótx errain túgu” (JMSB: 399).

*eraiki* ‘erein’

Larramendik (s.v. *sembrar*) *ereiñ* eta *ereindu* ematen ditu. OEHn (s.v. *ereiki*) *ereiki*, *eraiki*, *ereki* eta *eriki* aldaerak ematen dira, guztiak “AN” etiketarekin. Jasotako *eraikiren* adibide guztiak, ordea, Lizarragarenak dira eta jaso duten hiztegiak Arakistain, Duvoisin eta Harriet dira. Ibarrak (2007) ere jaso zuen bere lanean (s.v. *ereiki*), Erroibar eta Esteribarren ahozkoan erabiltzen dela frogatuz, eta *Iriarte*En *ereki* aldaera jaso dugu. Hegoaldeko hego-nafarreraz ere badago eta ekialdean *erein* erabiltzen da.

*erlaztañ* ‘liztor’

Lehen aldiz Lizarragaren lan batean lekukotu da, eta OEHn zein EKCn jasotakoaren arabera, forma horrekin Lizarragak soilik erabili izan du euskal letratan. Aldaera ugari jaso izan dira, bai idatziz eta baita ahozkoan ere, denak Nafarroan: *erlastain*, *erlastin*, *erlaiztan* eta *erlaztain* idatziz (OEH, s.v. *erlakiztain*), eta ahoz *erlastin*, *erlaztain*, *erlaztiñ*, *erleaztin* eta *erleztañ* (EHHA, 20. mapa).

*errautstu* ‘erraustu’

Hitz honen berezitasuna txistukari afrikatua gorde izana da. *Errautstu* idatzirik agerpen asko ditu, baina afrikatuaz idatzirik soilik Pouvreaux eman du. Lizarragak bietara darabil, 8 aldiz frikariarekin eta 6 aldiz afrikatuarekin. Ez dugu Lizarragarenaz gain erabilera gehiagorik aurkitzerik izan.

*gabete* ‘estalki’

Lizarragak behin bakarrik darabil santu batek lotarako erabiltzen zituenak azaltzerakoan: “goátzea lúrra; bururdikoa arri bát; gabétea tellatua” (JMSB: 330). *Flos Sanctorum* honakoa ematen da gatzelaniaz: “su cama fué el suelo, su cabezal una piedra y por covertor el techo” (1610: 149). Adiera garbi dago, hortaz, eta hitzaren formari dagokionez, eskuizkribuan (*A kodizea*: 283) argi irakurtzen da “gabétea” idatzirik dagoela. *Camino*En *goabete* eta *bagote* aldaerak jaso dira.

*kuntze* ‘orbain, arrasto’

Lizarragak gain, *CaminoAen* soilik jaso da, eta Lizarragak soilik gorputze-ko orbainei erreferentzia egiteko erabiltzen badu ere, Aezkoan bestelako aztarnekin ere erabiltzen da, esaterako Abaurregainan (cf. *etxakuntze* eta *etxakuntza*).

*mene* ‘apala, maila baxuagokoa’

Hitz honen kasuan zalantza ugari izan ditugu. Bai formari, adierari eta jatorriari buruz. JMSBn beti superlatiboan darabil *meneena* idatzirik. *Mene* ‘autoritatea’ dago goi-nafarreraz (OEH, s.v. *I men*), baina Lizarragak ez darabil adiera horrekin: “erreligioso eginik, berealá asi zé nekazálgo espiituálean, kastigátus érru gorpútza, mortifikátus pasióneak, humillátus bere búrua, garaitus tentázioak, obeditus guziéi ta zerbitzátus guzién meneéna balitz bekála” (JMSB: 188). Gaztelaniaz, “a todos servía con alegría y caridad, reputándose inferior” (FS 1761: 119) da pasarte.

Lizarragak *meneko* ‘mendeko’ eta *menean* ‘mendean’ darabiltza eta ezin uka liteke hitz horiekiko lotura semantikoa. OEHN 3 *men* begiraturik, ‘apala’ adiera jaso da eta Larramendiren hiztegiko *Eranskina* atalean “Último, en lo último, apretado, *men menean*” aurkitu dugu. Testuingurua ikusirik, azken hiru aukera hauek hobeki ematen dute, baina batek ere ez du forman bat egiten.

*sapite* ‘gorrotoa, herra’

Azkuek Baztanen jaso zuen bere hiztegirako (OEH, s.v. *sapite* 2), eta JMSBn bi aldiz ageri da: “geró agerturik án Demónioa bizpirur áldis, sapite gaixtoa zué-la gáltzeas lén irabazia bere infernuráko” (JMSB: 288). “Baña Demónioak zué inbidia eta sapite: orgátik inspiratu zióte bere ministroei” (JMSB: 307). Pasarte horiek *Flos Sanctorum*en bilatu ditugu, eta biak Lizarragak egindako eransketak dira: bigarrenari dagokionez, “tuvo el demonio envidia de este bien, y movió a algunos ministros suyos” (FS 1610(1): 876) aurkitu dugu, eta lehena FS 1734: 233-234 orrialdeetan aurkitu arren, *sapite* hitzaren testuingurua Lizarragak txertaturiko pasarte batean dago.

*soto* ‘zelaia’

Elkano, Gares, Oltza eta Goñiko lexikoa alderatzen zuen Bonaparte ondareko bildumaren edizioa paratu zuen Ondarrak (1982). Bertan jasotzen denaren arabera, (ibid.: 138), Garesen *untze* ‘zelai, larre’ jaso zuen Bonapartek, Goñin *larre*, Oltzan *soto* eta Elkanon *soto* eta *untze*. Iruñerriko toponimian ere ageri da, Soto Lezkairu izeneko auzoa baitago bertan ‘ihi larrea’ adiera lukeena. Arzamendik (1985) aurkituriko 1408. urteko dokumentu batean, “Item el prado de Lezcayru” ageri da.

*zalaparta* ‘txaloa’

*CaminoAen* ere jaso da, baina Aezkoan erabili ohi den hitzak hotsarekin du lotura, ez kolpearekin. Lizarragak azken adiera horrekin darabil, adibideetatik ondoriozta daitekeenez: “Il zékio Nausiari záldia alórrean; joán ze santua ta emán zalaparta bát, ta errán zio: *jaiki adi*; ta jaiki zé sáno ta séndo” (JMSB: 186). FSn honakoa dago: “Se le murió el caballo; avisado el Santo fue allá y cuando le vio muerto, dióle una palmada” (1688: 180).

### 3.2.2. Eratorpena eta elkarketa

Atal honetan Lizarragak erabilitako hitz eratorri eta elkartuei begiratuko diegu. Aurreko atalean erabili ditugun hiru taldeetako hitz berberak erabiliko ditugu, hau da, hapaxak, aldaera ezezagunak eta lehen erabilerak.

Deklinabidea oso interesgarria da Lizarragaren idatzietan, baina alde batera utzi ditugu lexikoaz haratago dauden atzizkiak, lan honen muga gainditzen dutelakoan baikaude. Kanpoan utzi ditugu, esaterako, destinatiboaren adieradun *-en*<sup>70</sup> edo *-tzekos*<sup>71</sup> baldintzazko menderagailua, dialektologikoki ere oso interesgarriak suerta daitezkeen arren.

Ezaugarri horiek dituzten hitzek aukera gehiago dute Lizarragak sortuak izateko aurretik erabiliak izan direnek baino. Lehendabizi eratorriei begira jarriko gara, eta ondoren elkartuak aztertuko ditugu.

#### 3.2.2.1. Eratorriak

Atal honetan Lizarragak erabilitako eratorpen atzizkiak aztertuko ditugu. Hori egiteko, eratorpen atzizkiak berak eta euren esanahia aipatuko ditugu bana-bana, eta ondoren Lizarragak atzizki horiekin erabilitako hitzak zerrendatuko ditugu.

- *-ari*: ‘hartzen duen izena ardatz duen ekintzan aritzen dena’: *arranzuari* ‘arrantzale’.
- *-de*: ‘hartzen duen aditzaren ekintza eta ondorioa’: *baimende* ‘onespena, baimena’.

70 “Larunbat óro usatzen zué parátzea elze bát *pobreén* Ama Birjinaren honratán” (JMSB: 185).

71 “Ezkindezáke akába, guziák *kontatzekós*. Sanduak errán zue, Hibérmian gelditzezós, ark nai lukéla [...] baña andik kanpoan izatekós (JMSB: 290).

- *-deria*: ‘hartzten duen izenarekin lotura duena’:  
*sorginderia* ‘sorginkeria, aztikeria’.
- *-di*: ‘hartzten duen izenaren ugaritasuna markatzeko’:  
*arboledi* ‘zuhaitz mota ugari duen zaindu gabeko eremua’, *loredi*  
‘lorategia, belardia, jardina’, *sasidi* ‘sastraka’.
- *-dun*: ‘hartzten duen izenaren ezaugarria duela markatzeko’:  
*beldurdun* ‘beldur dena’, *sabeldun* ‘haurduna’.
- *-dura*: ‘hartzten duen aditzaren ekintza eta ondorioa’:  
*atzendura* ‘ahantzura, ahaztea’, *ikaradura* ‘dardara’, *lazadura*  
‘zirrikitua’, *ozidura* ‘hotza, hipotermia’.
- *-esa*: ‘emakumezkoa dela markatzeko’:  
*artzaiesa* ‘artzaintzan aritzen den emakumea’.
- *-gende*: ‘hartzten duen izenaren familiako produktua’:  
*aragigende* ‘haragizko jakiak’, *arraigende* ‘arrain jakiak, arraina’,  
*txurigende* ‘arropa zuria, azpiko arropak, maindireak, etab.’
- *-garri*: ‘hartzten duen aditzari ‘-t(z)en ahal dela’ balioa eransteko’:  
*sinetsigarri* ‘sinets daitekeena’.
- *-go*: ‘hartzten duen lanbide izenaren ingurukoa edo harekin lotua’:  
*zurgingo* ‘egurra lantzen dutenen lanbidea’.
- *-ka*: ‘modua adierazteko’:  
*atsanka* ‘arnasestua’, *barrataka* ‘borborka’, *besarka* ‘besoetan harturik, besoekin harturik’, *firindaka* ‘azkar, bizkor, arin’, *futoska*  
‘purrustaka, kexaka’, *ildorka* ‘erortzen, itzulipurdika edo bueltak ematen hil bitartean’, *inguraka* ‘buelbaka, biraka’, *muzurka* ‘animaliek muturrarekin lurrean zuloa egiten dutenean’, *puñaladaka*  
‘labankadak emanez’.
- *-kara<sub>1</sub>*: ‘hartzten duen adberbioari gutxi gorabeherako balioa emateko’:

*berantkara* ‘berandu antzean; nahiko berandu’, *dudankara* ‘zalan-tzati, zalantzarekin’.

- *-kara*<sub>2</sub>: ‘gutxi gorabeherako data bat markatzeko’: *egunkara* ‘egun aldera’.
- *-keria*: ‘hartzten duen hitzari balio gutxiesgarria emateko’: *bearreztenkeria* ‘egin behar ez den ekintza, gaizki egindakoa’, *far-raskeria* ‘zikinkeria, hondakin, gauza zikin edo moralki gaizki ikusia’, *urdakeria* ‘lizunkeria’.
- *-keta*: ‘ugaritasuna, oparotasuna markatzeko’: *erauntsiketa* ‘ekaitz errua’, *jendeketa* ‘jendetza, jende kopuru handia’, *ugarreketa* ‘zaparrada’.
- *-ki*: ‘balio hanpatzailea eransteke’: *baiki* ‘bai horixe’.
- *-(ki)ro*: ‘hartzten duen adjektiboak adierazten duen moduan’: *laburkiro* ‘gehiegi luzatu gabe’, *lotsagarriro* ‘modu ikaragarrian, beldurgarriro’.
- *-ko*: ‘txikigarria’: *artxaiko* ‘artzain gaztea’.
- *-kor*: ‘hartzten duen izenaren ezaugarria duena’: *alkekor* ‘lotsatia’.
- *-kunde*: ‘hartzten duen aditzaren ekintza eta ondorioa’: *aipakunde* ‘aipamena, aipua’.
- *-mende*: ‘hartzten duen aditzaren ekintza eta ondorioa’: *galmende* ‘hondamendia’.
- *-mentu*: ‘hartzten duen aditzaren ekintza eta ondorioa’: *adimentu* ‘entzumena’, *lotsamentu* ‘beldurra, ikara’.
- *-so*: ‘hartzten duen adberbioaren egoeran dagoela markatzeko’: *furoso* ‘sutan dagoena’, *itekoso* ‘lanpeturik’.

- *-tasun*: ‘hartzten duen adberbioaren ezaugarria duena’:  
*bakantasan* ‘bakartasuna, erretiroa’.
- *-ti*: ‘hartzten duen izenaren ezaugarria duela markatzeko’  
*beldurti* ‘beldur dena’.
- *-tsu*: ‘hartzten duen izenaren ezaugarria duena’:  
*irapetsu* ‘denbora luzez irauten duena’.
- *-tun*: ‘hartzten duen aditza egiten duena’:  
*erakustun* ‘maisua, dotrina erakusten duen pertsona’.
- *-txo/tto*: ‘txikigarria’:  
*neskatxo* ‘haur emea, forma txikigarrian’, *ontto* ‘ona, forma txikigarrian’.
- *-tza*: ‘hartzten duen aditzaren ekintza eta ondorioa markatzeko’:  
*ezauntza* ‘jakitea’.
- *-zale*: ‘hartzten duen aditzaren egiletza markatzeko’:  
*arrikazale* ‘harriak botatzen dituena’, *kuidazale* ‘zaintzailea’.
- *-zio*: hartzten duen aditzaren ekintza eta ondorioa markatzeko  
*arrizio* ‘harridura’, *nastekazio* ‘nahastea’.
- *-zutu*: ‘garaia, aroa markatzeko’:  
*aurzutu* ‘haurtzarora’, *estudiantezutu* ‘ikasle denbora’, *gastezutu* ‘gaztarora’, *mutikozutu* ‘mutil denbora, nerabezaro eta haurtzaroren arteko denbora tartea’, *txikizutu* ‘haurtzarora’, *txipizutu* ‘haurtzarora’, *zarzutu* ‘zahartzarora’.

### 3.2.2.2. Elkartuak

Honakoak dira Lizarragak bakarrik edo lehen aldiz erabili dituen hitz eta aldaera elkartuak.

*Ajologuti* ‘axola gutxikoa’, *amabitxi* ‘bataiatzerakoan, bataiatzen den haurra eskaintzen duen eta harenganako nolabaiteko konpromisoa hartzten duen emakumea’, *andialde* ‘handikia’, *arrerauntsi* ‘kazkabarra’, *atsanditu*

‘arnasestuka ibili’, *atxondu* ‘zerbaiti usain ona eman’, *balsa-leze* ‘urmaela’, *baseizi* ‘animalia basatia’, *eder-itsusi* ‘duintasuna’, *eizia larri* ‘basurdeak, basahuntzak eta ilea duten animalia basati handiak ehizatzearen ekintza eta etekina’, *erozoraturik* ‘norbait edo zerbaitengatik maitasun handia sentitzea’, *errepispildu* ‘kiskali’, *eskergeaitz* ‘esker txarrekoa’, *fundagabe* ‘alferrikakoa’, *gaixtofikatu* ‘gaiztoa’, *galzazpi* ‘galtzontzilloak’, *gogaitz* ‘gogo txarra’, *goganditu* ‘harrotu’, *il-biztu* ‘berpiztua’, *iletsi* ‘hiltzat eman’, *inal* ‘eginahala’, *indarrustu* ‘indarrik gabe geratu’, *irri(-)abar* ‘iseka’, *iturrama* ‘iturburua’, *jende aurkintze* ‘gizarte ekitaldia’, *jomuga* ‘helburua, jopuntua, diana’, *makilukaldi* ‘makilkada’, *mintzo gisa* ‘hizkuntza’, *naizbai* ‘nahiz eta’, *nekaporratu* ‘indarrik gabe geratu, akitu’, *odolizerditu* ‘odola izerditu’, *ogi beltz* ‘bihi osoarekin egindako ogia’, *oroat* ‘era berean’, *otapur* ‘ogi apurra’, *otsorrai* ‘erroia, belea’, *sortuerri* ‘persona jaio den herria edo nazioa’, *su botrada* ‘sugarra’, *ur egur* ‘ibai eta errekek eramaten dituzten egur zatiak’, *uraldi* ‘iturria, iturburua’, *zapeta-zola* ‘zapataren beheko parte gogorra’.

Hitz elkartu hauetariko batzuek kategoria desberdinetako hitzak dituzte oinarrian: izen eta zenbatzaileak (*ajolaguti*), izen eta adjektiboak (*gogaitz*), izenak eta aditzak (*sortuerri*)...

Beste batzuetan kategoria bereko elementuak elkartzen ditu: bi izen (*arre-rauntsi* < *harri+erauntsi*, *baseizi* < *baso + eizi* ‘ehiza’) edo bi adjektibo (*eder-itsusi*). Bi aditz elkartzen diren kasuetan, aurkitu ditugunak sinonimoak elkartzen dituzten hitzak dira (*erozoratu*, *nekaporratu* eta *errepispildu*), eta aditz kategoriari eusten diote. Baliteke horrelako hitzen atzean Mendibururen eragina egotea, bera baita euskal literaturan horrelako hitzak gehien darabiltzana: *atseguin-contentu* (Altuna, 1982 (I): 141), *estu-ertsi* (ibid.: 277), *itzul-giratu* (ibid.: 485), *min-oñace* (ibid.: 257) *sucar-calentur* (ibid.: 572)... Bestelako elkarretetan ez da horrela, esaterako adjektiboekin, *eder-itsusi* ‘duintasuna’ hitzaren kasuan, bi adjektiboren elkarketatik izena sortzen baita.

Horrez gain, ez dirudi kokaguneak eragin handirik duenik, *gogaitz* izenak adibidez, izena adjektiboaren aurretik du, eta *sortuerri* izenak aditzaren atzetik.

Beste zenbaitetan, hitz elkartuak oinarri harturik, aditzak sortzen ditu (*atsanditu* < *hats+handi*, *atxondu* < *hats+on*).

Kasu zenbaitetan higadura fonetiko handikoak dira, esaterako *gaixtofikatu* hitzaren kasuan, Eugiko lekukoei *Iriarte* Erako jakinarazi zigutenez, horren atzean *gaixto purifikatua* baitago.

### 3.2.3. Maileguak

Maileguei dagokienez, LEMan “erdarakadak” saihesteko joera nagusitu zen. Hala eta guztiz ere, eta ulermena aintzat harturik, Elizari zegozkion gaietan



guztiz desagerraraztearen kontra agertu zenik ere izan zen, esaterako Mogel bizkaitarra (Urgell, 2018: 630). Horren kontrako jarrera agertu zuten Kardaberaz bezalako beste batzuek, eta horiek izan ziren nagusitu zirenak.

Maileguen erabilerari dagokionez, Urgellek (ibid.) *aberiguatu*, *aborrezitu*, *admirable*, *añaditu* eta *akzidente* garaiko autore jasoenen lanetatik desagertu zirela dio, baina Lizarragak bostak erabiltzen ditu, ziurrenik jende eskolatu gabeari zuzentzen zitzaielako. Bestalde, Larramendik euskal etimologiaren bidez azalduko hainbat maileguen erabilerak gora egin zuela antzeman zuen Urgellek (2018: 631), eta Lizarragak horrelako asko dakartza bere lanean, garaiko autoreek bezala: *alabanza*, *amatu*, *bizarro*, *donzella*, *ira*, *manso*, *mantxa*, *modestia*, *muralla*...

JMSBn aurkituriko mailegu ugarietatik, batzuk Lizarragak erabili ditu lehen aldiz, eta beste zenbait berak bakarrik erabili ditu (EKC, OEH<sup>72</sup>, s.Vv.<sup>73</sup>). *Errekateatu* ‘tratuan aritu’ adibidez, HHn ageri da. Datozen lerroetan, mailegu batzuk aipatu eta aztertuko ditugu, baina honakoa da Lizarragaren aurretik erabili ez diren maileguen zerrenda:

*Abastoki* ‘oparo, erruz, ugari’, *agarrotxatu* ‘garrotxaz zirikatu’, *ain txusto* ‘hain zuzen’, *alborote* ‘istilua, iskanbila, zalaparta’, *algo* ‘laudorioa, lausengua, zurikeria’, *amorosgarri* ‘maitatua izateko modukoa; maitagarria’, *amorostu* ‘maitemindu’, *antes bien* ‘kontrakoa adierazteko erabiltzen den testu lokailua; aitzitik’, *arrama* ‘adarra’, *asasino* ‘hiltzailea’, *asesino* ‘hiltzailea’, *astatu 2* ‘asmatu, bete betean eman’, *azare* ‘egitekoa, lan nekeza’, *berdugo* ‘borreroa’, *bisorra* ‘erregeordea’, *bizarro(ki)* ‘eskuzabalki’, *debalde* ‘alferrik’, *enkubatu* ‘zigorra (ikus hiztegiaren)’, *entremetitu 1* ‘besteen kontuetan sartzea gustoko duen pertsona, sudurluzea’, *entremetitu 2* ‘norbait ez dagoz-kion kontuetan sartzea’, *erposatu* ‘atseden hartu’, *erredoma* ‘beirazko ontzia, behean zabala eta ahorantz egin ahala estutzen dena’, *errefinatu* ‘egokitu, hobetu’, *errekateatu* ‘saltzaile eta eroslearen artean, zerbaiten salneurria adosten saiatu’, *errobotu* ‘lapurtu; ostu’, *errokatu* ‘artilea, zeta, kotoia, etab. hari bihurtu’, *esperan* ‘zain’, *espiritatu* ‘izpiritu batek edo deabruak kontrolaturiko pertsona’, *esporta* ‘saskia’, *estado 2* ‘nazioa, herria’, *estado 3* ‘gizarte maila, leinua, kasta’, *estameña* ‘artilez egindako ehuna’, *extrematu* ‘garbitu’, *ezkildorre* ‘elizetan izan ohi den dorrea, goian kanpaiak dituena’, *firmatu 2* ‘finkatu, gogortu’, *fritatu* ‘frijitu’, *heredaje* ‘aspaldidanik familia batena den lur sail landua’, *infinizio* ‘ezin konta ahala, asko, ugari’, *intxa* ‘gorrotoa’, *kalkatu* ‘estutu, zanpatu, zukua atera’, *kalzina* ‘karea’, *kapatxa* ‘fruta eramateko erabili ohi den ihi edo zumezko saskia, bi helduleku dituena’, *karreraka* ‘bizkor,

72 Hitz batzuk ez dira EKCn jaso, eta halakoetan OEHren kronologia hartu dugu kontuan (cf. *asasino*).

73 Aditzak partizipio forman eman ditugu hemen, baina baliteke Lizarragarenean soilik aditz izen formarekin agertzea. Esaterako, *fritaturen* kasuan, EKCn “frita” edo “fritat” jarri beharra dago “hitz hasiera” aukerarekin, Lizarragaren lekukotasuna agertzeko.

laster’, *kasamentari* ‘ezkontzagina’, *kaseria* ‘etxaldea, nekazari edo abeltzainak bizi diren etxea’, *kasko 1* ‘punta, tontorra, burua’, *kasko 2* ‘zattia’, *kasko 3* ‘burua’, *kofrakide* ‘kofradia bateko kide bakoitza’, *koltxilla* ‘koltxoi txiki edo mehea’, *konjurio* ‘zerbait lortzeko erabiltzen den esapide magikoa’, *kubil* ‘leizea, haitzuloa’, *kuna* ‘sehaska’, *loriga* ‘norberaren enborra babesteko erabiltzen den burdinezko jantzia’, *merendu* ‘askaria’, *morrión* ‘burua babesteko erabiltzen den burdinazko txapela’, *pañolo* ‘zapia’, *pella* ‘azalorea’, *petardo 1* ‘txantxa, amarrua’, *solibo* ‘zutoin edo euskarri bezala erabiltzen den egurrezko zatia’, *suberbo* ‘harroputza, hantustea duena’, *temenario* ‘latza, izugarria’, *tentabide* ‘tentatzeko modu’, *txatxakatu* ‘txikitu, xehatu’, *txufeatu* ‘iseka egin, norbaiten kontura barre egin’, *zafloñ* ‘zaplaztekoa, txaloa’, *zurriago* ‘kolpazteko erabiltzen den soka zabala, larruzkoa edota harizkoa izan daitekeena, normalean animaliak xaxatzeko erabiltzen dena’.

§ 2.5. atalean azaldu dugunez, JMSB itzulpen lana da, eta horrelakoetan, ordainen bila hiztegiatara jotzea bezalaxe, maileguak erabiltzeko aukera handiagoa dago zuzenean helburu den hizkuntzan sorturiko lanetan baino. Ziurrenik, lana itzultzen ari zenean, Lizarragak ahozkoan erabili edo gutxienez ezagutzen ziren hitzen ahozko ordainak bilatuko zituen HHn, eta baliteke euskarazko ordainak gaztelaniazko hitzak baino ulergaitzago zirela iriztea eta bere horretan uztea erabakitzea. Honakoak erabilitako mailegu batzuen HHko ordainak dira (s.v.v.):

- *Alivio*: *gozaera*, *atsedena*, *unalaita*. Gaixo batena bada: *obeagoa*.
- *Anda*: ez da jaso.
- *Bofetada*: lehendabizi hitza jatorriz lapurterakoa dela dio, eta gero *masalleko*, *matralleko*, *matalekoa*, *autzekoa*, *belarrondokoa*, *zaplada*, *zinkeia* eta *ukaldia* ematen ditu.
- *Grazioso*: Kasu honetan “gracia” eta “gracioso nahasirik ageri dira HHn. *Grazioso 1* hitzaren kasuan “gracia de dios” bilatu beharra da eta bertan *Jainkoaren grazia*, *doaya*, *doaiña* eskaintzen ditu. *Grazioso 2* bilatzeko “gracioso chiste” eta “gracioso así” bilatu beharra dago eta bertan *gozitza* eta *gozitzuna* ageri dira.

Eliztarrendako zailak izan zitezkeen euskarazko ordain horietarik gehienak. *Bofetadaren* kasuan agian ez horrenbeste, jasotakoak zenbait euskalkitan erabiliak direlako eta are Lizarragak, JMSBn bertan, *ukaldi* (cf. *makilukaldi*) eta *matela* (“emán zio bofetada bát matélean” (JMSB: 100) ere badarabiltzalako.

Horrez gain, esanahi bereko *zaflon* hego-nafarrerazkoa ere badarabil, eta hortaz, mailegua saihesteko aukerak bazituen.

Delako mailegu bat lehen aldiz Lizarragaren lan batean lekukotu izanak ez du zertan esan nahi Lizarragak berak mailegotuak edo egokituak direnik, baina aukera hori ere badago. Zerrendako mailegu batzuek higadura fonetiko nabarmena dute (*aztatu*<sub>2</sub> < *azertatu* < *gazt. acertar*), eta horrek Lizarragak sortuak izatea zaila bihurtzen du. *Debalde* hitza Covarrubiasen 1611ko hiztegian dago (s.v. *balda*) eta Lizarraga da euskarazko lehen lekukotasuna jaso duen autorea. Kasu horretan, higadura fonetikorik ez duen arren, ezin froga daiteke berak mailegotua denetz, eta gerora euskaraz izan duen hedadura ikusirik, zail samarra dirudi hitz hori euskarara Lizarragaren bitartez sartu izana.

Grafia azterketari dagokion atalean (§ 2.5.1.) aipatu dugun bezala, hego-nafarreraren eremu batzuetan *[j]>[x]* egiten da eta horrek maileguen ahozko erabileraren berri ere ematen digu. Lehen aldiz Lizarragak darabilen *ain txusto* (< *gazt. justo*) hitzaren garapen fonetikoak ahozkotik heldu hitza dela erakutsiko luke, eta berdin *txatxakatu* (< *gazt. machacar*). Euskararen barruko bilakabide fonetikoak jasan izanak bi gauza erakusten ditu: hitz horiek ez direla idatziz mailegotu eta ez direla berriak.

Nolanahi ere den, maileguen kasuan ere oso zaila da haien jatorria ziurtasunez proposatzea, baina ikusi ahal izan dugunez, aspaldiko maileguak eta eguneroko hizkeran erabiliak zirenak bere horretan utzi zituen Lizarragak, hitz berriak erabili beharrean.

### 3.3. Hego-nafarreraren lexikoa Lizarragaren obran

Atal honetan, hego-nafarrera oinarri harturik, Lizarragak JMSBn erabili zuen lexikoa dialektologikoki sailkatzea dugu helburu. Bestela esan, “Lizarragak erabilitako hitzak non erabili izan dira?” galderari erantzun nahi diogu, bere obra, pentsaera eta proiektua ulertzeaz gain Iruñerriko ekialdeko euskara hobeki ezagutzen lagunduko digulakoan.

Gurea bezalako lan batean azterketa sinkronikoa egiteak interesa izan dezakeen arren, askozaz interesgarriago deritzogu diakronikoki aritzeari. Zergatik, eta, sinkronikoki ariturik, historiako momentu zehatz baten azterketa deskriptiboa egiten ahalko genukeelako; edo bestela esan, zer non erabiltzen zen argitu. Diakronikoki ariturik, aldiz, historiako hainbat momentu hartuko ditugu kontuan, eta besteren artean, autoreak hitzak nondik ezagutu/hartu zituzkeen proposatzen ahalko dugu. Gauzak horrela, sei corpus erabili ditugu, eta denak uztarturik, EZKtik hasi eta EGrainoko lekukotasunak eskura izatea lortu dugu (§ 3.3.2.): HNCor, *IbarraH*, *ArtolaAr*, *IriarteE*, OEH eta EKC.

Corpusaren urritasunak hartaturik, ahozko eta idatzizko testuak erabili behar izan ditugu nahasirik. Aipatu berri ditugun corpusetatik, HNCor, OEH eta EKC idatzizko testuez osaturik daude eta *IbarraH*, *ArtolaAr* eta *IriarteEk* ahozko testuak dituzte oinarri. Haiekin lan egiten hasi aurretik, galderak sortu zaizkigu: “idatzizko testu batek ahozko hizkera islatzen al du?” eta “zer puntutaraino da alderagarria idatzizkoan eta ahozkoan erabiltzen den lexikoa?”. Badakigu testu idatziek ez dituztela ahozko hizkuntzaren xehetasun fonetiko-fonologiko guzti-guztiak islatu ohi eta orobat jasoagoak direla, zainduagoak eta polikiago pentsatuak. Gure lanerako ahozko lekukotasunak erabiltzea egokia den ala ez erabakitzeko, filologia behar dugu, baina filologiarik zorrotzenak ere ez digu erantzun borobilik eskainiko. Testuaren eta idazlearen inguruko xehetasunak gorago eman ditugu (§ 2.), eta horiei esker badakigu, adibidez, Lizarragak sortu testu hauek elizan ahoz emateko prestatuak direla. Ezin dira, ordea, osoki ahozko zat hartu, hurbilekoak direla pentsa daitekeen arren. Edonola ere, ahozkoaren erregistroa ez da berdina egunerokoan, soroan lanean edo tabernan erabiltzen dena eta elizakoa. Lizarragarena, beraz, ahozko erregistro formaletik gertu da goen testu idatzia dela esaten ahal da.

Esandako guztiaz gain, ezin bistatik galdu JMSB, funtsean, itzulpen lan bat dela eta horrek eragina duela, baita lexikoan ere (§ 2.5.). Horrelako testuetan autorearen sormena ez da guztiz askea, ideiak, hizkuntza eta adierazteko modua jatorrizko testuari loturik dauzka eta.

Horiek guztiak kontuan harturik, JMSBtik hautaturiko item lexikoak corpus horiekin guztiekin alderatu ditugu, hitz bakoitzaren hedadura dialektala proposatzeko, betiere hego-nafarreraren ikuspegitik.

Honela antolatu dugu atala: lehenbizi, HNaren eremua eta barne isoglosak zertan diren aipatuko dugu (§ 3.3.1.); ondoren, hizkera bakoitzaren hedadura eta corpora osatzen duten testuak aurkeztuko ditugu (§ 3.3.2.). Jarraian, Lizarragak erabilitako lexikoa hego-nafarrerarekin alderatu (§ 3.3.3.), eta lexikoa dialektalki sailkatuko dugu hedadura zabalena duten hitzetatik hasi eta murriztenekora eginez (§ 3.3.4.). Bukatzeko, (§ 3.3.5.) ateratako ondorioak ekarriko ditugu.

### 3.3.1. Hego-nafarreraren eremua

Bonapartek 1869an bi goi-nafarrera bereizi zituen: iparraldekoa eta hegoaldekoa, bakoitza euskalki beregaintzat hartuz. Hegoaldekoa “ultrapamplonés” (mendebaldekoa), “cispamplonés” (ekialdekoa) eta “Izarbeibarko” azpihizkeretan banatu eta Aezkoako hizkera mendebaldeko behe-nafarrerara bildu zuen.

xx. mendearen hondarrean eta XXI.aren hasieran argitaraturiko zenbait ikerketak, ordea, bi azpihizkera dituen euskalki bakarra dela proposatzen dute,

besteak beste Zuazok (1998), Ibarrek (2000) eta Caminok (2003 & 2004a). Nafarroako gobernuak azkenaren *Hego-nafarrera* liburua eman zuen argitara (2004a) eta bertan egiten da egun ezagutzen den hizkera honi buruzko azterketarik xehe eta zehatzena. Aurreko proposamenak gainditu eta beste era batera sailkatu zituen hego-nafarreraren baitako hizkerak, lau hizkera bereiziz: mendebaldekoa (MHN), hegoaldekoa (HHN), erdialdekoa (ErdHN) eta ekialdekoa (EkiHN). Hego-nafarrera erdiguneko euskalkia da, eta halako eremuak ez dira dialektologikoki sailkatzeko errazak izaten; are zailago, euskalki honek azken mende eta erdian jasandako atzerakada (§ 2.1.) eta lekukotasunen urria (§ 3.3.2.) kontuan hartzen badira.

Hizkera hau osatzen duten azpiahizkeren erdian, Etxeberri Sarakoak “euskaldunen hiri buruzagia” deitu zuena dago: Iruñea, Nafarroa Garaiko hiriburua. Iruñerria (gaztelaniaz *Comarca* edo *Cuenca de Pamplona*) esaten zaion eremu hori ere bertan dago. Bere baitan biltzen diren herriek ez dute entitate ofizial bat osatzen, ez eta administratiboki ere, eta hori dela-eta ez dago argi zehazki zein herrik osatzen duten delako eremua. Definizio asko eman zaizkio historian zehar eta askotan ibar edo herri batzuk barnekotzat hartu izan dira eta beste batzuetan ez. Caminok jasotakoaren arabera (2004a: 15), Foru nagusiak Ezkabarte Iruñerrikotzat hartzen zuen, baina Perez Ollok (2002: 15) ez zuen horrela ikusten. Harentzat, Iruñerria Oltza, Antsoain, Itza, Zizur eta Galar zendeek eta Eguesibarrek eta Etxauribarrek osatzen dute. Aldiz, Mendiolarendako (2002: 391) aurrekoetz gain, Txulapain, Olloibar, Olaibar, Ezkabarte, Aranguren eta Elortzibar ere Iruñerrikoak dira.

Geografikoki definitzeko hain zaila ematen duen eremu hori isoglosa bertikal ugariaren elkargune ere bada, eta, inguru horretan, hego-nafarreraren baitako bi joera bereizten dira (Camino, 2004a: 30-31 & 2003: 461). Ematen du Iruñetik ezker, Gesalatz, Izarbeibar, Goñerri, Olloibar eta Oltzan, Euskal Herriko erdiguneko hizkeren zenbait ezaugarri antzematen direla eta Eguesibar, Erroibar, Artzibar eta Aezkoan, aldiz, ekialdeko hizkeren eragina nabarmenagoa dela. Guztiarekin ere, hego-nafarrerako hizkera guztietan iparralde eta ekialdeko hizkerekiko halako lotura bat sumatzen da, Nafarroa iparraldeko hizkeretan ez dagoena eta bi nafarrerak justifikatzeko balio duena. Zehaztasun gehiagorekin ikusiko ditugu banatzaileak diren ezaugarriak (§ 3.3.3.), baina zertaz ari garen apur bat uler dadin, isoglosa lexiko horren erakusgarri txiki bat ekarri dugu Gares (HHN), Goñi (MHN), Oltza (MHN) eta Eguesibar (ErdHN), hurrenkeran (Camino, 1999: 18):

25. - *au, ori, ura / au, ori, oré / au, ori, oré / gau, gori, gura*

26. - *atzeratu / atzeratu<sup>74</sup> / atzeratu/ gibelatu, atzeratu*

74 Bonapartek *gibel* eta *atze* jaso zituen Goñin.

27. - *altu / altu / altu / gora, altu*

28. - *esplego 'lavanda' / ixkiripuru / ixkiripuru / ispiku*

29. - *istarzain 'iztazaina' / zangazpi / zangazpi / istarzain*

Ikusten denez, isoglosa ez da muga gotorra, ezaugarriak batera eta bestera ageri baitira. Hurrengo taulak Goñerri eta Eguesibar banatzen dituen lexikoa (Camino 2004a: 95) jasotzen du eta hori JSMBn jasotakoarekin alderatu dugu. Lizarragak bi aldaerak erabiltzen dituenean, bakoitzaren agerpen kopurua eman dugu parentesien artean:

**4. taula:** Alderaketa lexikoa, Goñerri/Eguesibar/JSMB

Goñerri	Eguesibar	JSMB	Goñerri	Eguesibar	JSMB
altu	gora / altu	gora	izen	nombre / izen	izen
apar	abuña	abuña	kabi	kafi	kafi
azpi	pe / azpi	Pe (51) / azpi (3)	lar	malda / lar	lar
barga	peña	peña	maiz	usu / maiz	maiz (41) / usu (9)
beatz	eri	eri	mozkor	ordi / mozkor	ordi
beatz 'erpuru'	beatz aundi	eri-beatz	ondoan	altakan / ondoan	aldakan (41) / ondoan (11)
berandu	berant	berant (29) / berandu (1)	partz	bartz	bartz
berdin	bardin	bardin (15) / berdin (1)	tanta	txorta	tanta
bi	bida / bi	bi (505) / bida (15)	txikitu	xeatu	zeatu
ille 'artile'	elle	elle	txintxurri / estarri	txintxurri	txintxurri

Goñerri	Eguesibar	JMSB	Goñerri	Eguesibar	JMSB
iltze	itze	itze	txispe	txindi	txindi

Ikusten denez, Lizarraga isoglosaren ekialdera jasotako lexikoarekin bat dator gehienetan, baina ez beti (cf. *tanta*). Heldu diren ataletan adibide gehiago aztertuko ditugu.

### 3.3.2. Hego-nafarreraren hizkerak eta corpora.

Lizarragaren mintzoa dialektologikoki aztertzeko, lehenik eta behin hego-nafarrera osatzen duten hizkerak zein diren aipatuko dugu labur. Hizkera bakoitzarekin azpiatal bat osatu dugu (§ 3.3.2.1.-3.3.2.4.) eta azpiatal horietariko bakoitzaren barnean, hizkerak hartzen duen eremua zehaztu eta bakoitza ordezkatzeko erabili dugun corpora zein izan den adierazi dugu. Corpora osatu ahal izateko, ezinbestekoa izan da Iñaki Caminoren laguntza, hark jarri baitzikigu eskura erabilitako testuen edizioak. HNren ezaugarrietariko bat lekukotasunen urria da, eta erabili ditugunak baino lekukotasun gutxi batzuk gehiago izan badiren arren, fidagarritasun mailarik handiena dutenak soilik erabiltzea erabaki dugu. Era berean, atalaren sarreran esan dugun bezala, ahozko eta idatzizko corpusak uztartu ditugu eta baita garai ezberdinetako lekukotasunak ere.

Kontuan izan *IbarraH*, *ArtolaAr* eta *CaminoA*eren eta JMSBren artean mende eta erdi inguruko aldea dagoela. Alegia, xviii. mendearen erdian ikasi zuen Lizarragak euskaraz Elkanon eta xx.aren bukaeran bildu dira datuak Erroibar, Esteribar eta Aezkoan, xx. mendearen hasieran jaio ziren jendeengandik. Hizkuntza bizirik dago eta denborak aurrera egin ahala aldatuz doa. Lizarragaren lekukotasuna estatikoa da eta ez da aldatzen, eta, hortaz, distortsioa sortzen da bi elementu horiek alderatzean. Alderaketa egitean distortsio hori leuntzen saiatu gara, eta ez dugu bistatik galdu denborak izan duen (eta duen) eragina eta horren ondorioz heldu diren berrikuntzak gertatu direla Erroibar, Esteribar eta Aezkoan. Joakin Lizarragaren lana, aldiz, hizkuntza horren aspaldiko egoeraren lekukotasuna da, akaso, Erroibar-Esteribar, Aezkoa eta Eguesibarko euskararen batasun handiagoa zegoeneko, gerora izan den baino. Lizarraga lotuago ageri da forma zaharragoi, hiru ibarretako ahozko datuetan hizkuntza berrikuntzak gertatu dira eta zertxobait urrundu dira mintzo horiek Lizarragarenetik, baina Lizarragarena aldatu ez denez, zinezko urrunketa lexikoaren zenbatekoaz jabetzea lan erlatiboa eta zaila da, Lizarraga geldirik baitago eta beste bi eskualdeak mugitzen, garatzen.

Atalaren bukaeran (§ 3.3.2.5.), iparraldetik ErdHNrekin muga egiten duen Eugin sorturiko lekukoekin osatu dugun *IriarteE* corpusaren nondik norakoak azalduko ditugu.

Hizkera bakoitzari eskaini diogun azpiatalean, bakoitzaren eremua zehaztasun handiagoz erakusten duten mapak eman ditugun arren, ikuspegi zabalago bat eskaini eta hego-nafarreraren azpihizkerak geografikoki kokatzen laguntzeko, hizkera guztiak biltzen dituen Nafarroako mapa eman dugu jarraian (3. irudia).



**3. irudia:** hego-nafarreraren banaketa Nafarroan





argitaraturiko liburu bakarra dela dio Reguerok (2019: 490). Iruñean argitaratu zen Alfonso Burgueteren alargunaren etxean 1735ean.

Bigarren testua FLV aldizkariaren 53. zenbakian argitaratu zuen Ondarrak (1989), 1921ean Goñerriko Munarritz herrian aurkitutako beste zenbait testu-ekin batera. Egileari buruz ez du daturik ematen, baina testuaren gaia ikusirik, elizgizona izan behar zela proposatzen du.

### 3.3.2.2. Hegoaldeko hego-nafarrera (HHN)



## 5. irudia: hegoaldeko hego-nafarreraren udalerriak

Hegoaldeko aldakiak Izarbeibar du bere eremua. Zenbait herri biltzen dira Iruñetik gertu, Erreniega mendia igarota, hegoaldera dagoen ibar honetan: Adios, Añorbe, Biurrun, Eneritz, Gares, Legarda, Muruzabal, Obanos, Olkatz, Tirapu Ukari eta Uterga.

Hegoaldeko hego-nafarrera (HHN) da EZKn hego-nafarrerazko corpusik handiena duen hizkera. Honako hauek dira hizkera honetako corpusa osatzen duten bost testuak: Juan de Beriainen *Tratacen da nola ençun vear den meza* (1621) eta *Doctrina Christioarena Euscaras* (1626), *Missiora deeya* (1744) izenburua duten bertsoak eta Muruzabalgo bi sermoi (1743ko bat eta XVIII. mendeko beste bat).

Juan de Beriain Utergan jaio zen 1566 urte inguruan (Jimeno Jurio, 1988) eta bertan aritu zen apaiz 1602az geroztik, 1633an hil zen arte. Bi liburu argitaratu zituen ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz). Lehena 1621ean Iruñean,

Carlos Labaien inprimategian eta bigarrena 1626an, ezagutzen ez den tokian (Reguero, 2019: 430).

*Missiora deeya* izenburua daramaten bertsoak nork, non eta noiz idatzi ziren zehazki ezagutzen ez den arren, Ondarrak proposatzen du Juan de Undianok Obanosen eta 1744 inguruan idatziak izan zirela (1994: 535).

Muruzabalgo sermoiez den bezainbatean, bietariko batean ere ez dakigu idazlea zein izan zen. Hala ere, horietariko batean 1743 urtea adierazten da hasieran<sup>76</sup> eta bestea XVIII. mende hasierakoa izan daitekeela proposatzen du Sastrustegik (1987: 63), baina egun ezagutzen den kopia geroago berridatzitakoa omen da (ibid.).

### 3.3.2.3. Erdialdeko hego-nafarrera (ErdHN)



## 6. irudia: erdialdeko hego-nafarreraren udalerriak

Erdialdeko hego-naferreran (ErdHN) Euskara Zahar eta Klasikotik (EZK) hasi eta Bigarren Euskara Modernora (BEM) arteko lekukotasunak jaso dira. Garai guztiak kontuan harturik, erdialdekoa da informazio iturririk oparoena eskaintzen duen hizkera, bai lekukotasunei eta baita azterketei dagokienez ere.

76 “Domingo tercero de quaresma año 43” (Reguero, 2019: 331).

Iruñe ondoan dagoen Eguesibar, hego-Esteribar<sup>77</sup>, Erroibar eta Artzibar bil-tzen ditu hizkera honek eta, gorago aipatu dugunez (§ 2.2.), aztergai dugun lanaren autorea Eguesibarko Elkano herrian jaio zen.

Lau iturri erabili ditugu hizkera honen ordezkari: *Larrasoañako sermoia*, *1729ko sermoia* eta berriagoak diren *ArtolaAr* eta *IbarraH*.

*Larrasoañako sermoia* herri horretan irakurtzeko sortu zen testu bat da. “Dichososo Erria, dichosoa diot dela Larrasuaña” esaldiarekin hasten da eta egilea eta data agertzen ez diren arren, Satrustegik (1987b: 57) XVIII. mendekoa izan daitekeela adierazten du.

1729ko sermoiak ez du idatzia izan zen lekuaren edo autorearen inguruko informaziorik ematen eta Otsagabian agertu zen arren, testuak ezagun du hego-nafarreraz idatzirik dagoela, dagoeneko Ondarrak adierazi zuen bezala (1981a: 147). Gure ikerketan erabiltzeko, ErdHNren barruan sailkatzea erabaki dugu, testuan aurkituriko zenbait ezaugarrik sailkapen horren alde egiten baitu. Esaterako, *elle* ‘artile’ ageri da ErdHNan bezala, MHNko eta HHNko *ille* eta EkiHNko *eile* beharrean. MHNtik eta HHNtik aldentzen da, ez baita *aungi* ‘ongi’ edo *beaurzu* ‘behar duzu’ bezalako formarik ageri eta iraganeko hirugarren pertsona-ko adizkietan ez duelako bukaerako -en galtzen (cf. *zu* ‘zuen’ edo *zitu* ‘zituen’). EkiHNtik urruntzen duten zenbait hitz ere aurkitu ditugu, hala nola, *amabirjin* (EkiHN *amaberkin*) eta *estrabi* ‘ukuilu’ (EkiHN *artegi*).

Corpus berriagoei dagokienez, Artolak 1980ko hamarkadan Artzibarren jasotako ahozko lekukotasunekin osatu zuen *Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan* (*ArtolaAr*) artikulua sorta eta Orreaga Ibarrek ondu *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia* (*IbarraH*) baliatu ditugu. Biak ala biak Euskara Garaikidean (EG) jasoak izan arren, BEMan jaiotako lekukoak dituzte informazio iturri.

---

77 Esteribarko Eugi eta Iragi izan ezik, ibarreko gainerako herriak.

### 3.3.2.4. Ekialdeko hego-nafarrera (EkiHN)



#### 7. irudia: ekialdeko hego-nafarreraren udalerriak

Aezkoa ibarra hartzen duen hizkera da EkiHN. Historikoki Baxenabarrekoaren barruan sailkatu izan da. 1955. urtean Lafonek (1955: 121) hegoaldeko goi-nafarrerarekin zenbait ezaugarri partekatzen dituela adierazi zuen, baina ez zuen hego-nafarrerara bildu. Camino izan da (1997) hizkera hau gehien aztertu duen ikertzailea eta berak hego-nafarreraren hizkeratzat hartzea proposatzen du (Baxenabarreko euskararen eragina ukatu gabe). Ekialdeko aldakia aztertzeko, lau iturri erabili ditugu: Nafarroako Gordailu Nagusiko (NGN) Bonaparte ondarean jasotako lekukotasunak, Caminok Aezkoan jasotako eleen bilduma, eta OEHko “Ae” etiketa.

Bonaparte ondareko katiximak NGNko gordailu irekian eskuragarri daude<sup>78</sup> eta sei dokumentu dira<sup>79</sup>: Abaurrepeko eta Ariako bana eta Garraldako<sup>80</sup> eta Orbarako bina.

78 [https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archivo+Abierto/Buscador/?Ambito=FONDO+BONAPARTE&TextoLibre=](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Programas/Archivo+Abierto/Buscador/?Ambito=FONDO+BONAPARTE&TextoLibre=)

79 Abaurrepekoa 41. zenbakiduna da, Ariakoak 39.a du eta Orbarako biak 35. eta 40. zenbakia dutenak dira.

80 Egiazki lau dokumentu desberdin balira bezala sailkatu daude, hots, 36, 37, 38 eta 42. zenbakia duten dokumentuak dira. 42 zenbakia duen dokumentua 37aren jarraipena da, eta, hortaz, dokumentu bakarra osatzen dute. Era berean, 36. zenbakia duen dokumentua Etxenikek Bonaparteri bidaltzeko egindako 38.aren kopia da; hori dela eta, dokumentu bakartzat hartu dugu hori ere (Camino, 1989).

Abaurrepekoak 41 zenbakia du, 1794. urtean idatzia da eta Miguel Antonio Sarioren sinadura du; gorago jartzen duenaren arabera bertako bikarioa omen zen. Horrekin batera, arkatzez “Abaurrea baja (de Abaurrea alta)” jartzen du lehen-dabiziko orrialdean.

Ariakoak 39 zenbakia du eta 1851. urtea du idatzirik azken hirugarren orrialdearen bukaeran. “Por Don Miguel Olave” jartzen du azken bigarren orrialdean eta “Por Don Miguel Olave en Aria” azken aurrekoan, “José Loigorri” izenarekin batera. Caminok (1991a) “Sor Don Miguel Olave” irakurri zuen. Horrez gain, bi izenen atzean dauden pertsonen arrastoaren bila aritu zen, eta egindako ikerketetatik ondorioztatu zuen oso zaila dela dotrina bietariko batek idatzia izatea (ibid.: 429-433).

Garraldan bi lekukotasun jaso dira (Camino 1989), NGNn lau dokumentutan banaturik dauden arren (36 zenbakia duena eta 38.a loturik daude eta baita 37. eta 42.a ere). 36. dokumentua Etxenikek, Bonaparteren laguntzaileak, egindako 38.aren kopia da, grafia egokiturik eta beste zuzenketa batzuekin. 38. zenbakia duena Javier Loperena Garraldako abadeak idatzirik dotrina da, Bonapartek 1863an Etxenikeri eskatu eta 1865eko otsailean jaso zuena. 37 eta 42 zenbakidun dokumentuek dokumentu bakarra osatzen dute: Asteteren dotrinaren itzulpena. José Minondo Garraldako irakasleak Aribeko Martin Elizondorekin idatzi zuen eta Bonapartek 1869an argitaratu zuen, *Le petit catechisme espagnol du P. Astete, traduit en trois dialectes basques* lanean, zaraitzuerazko eta erronkariarazko aldaerekin batera. 37.ak lehen zatia jasotzen du eta 42.a horren jarraipena da.

Orbarako dotrinez den bezainbatean, bi dokumentu erabili ditugu, NGNan 35 eta 40 zenbakia dutenak. *Orbarako dotrinak* bezala ezagutu arren, ez dirudi bertakoak direnik, baina bertan jaso zirenez, izen horrekin ezagutzen dira. Bi dokumentuen egileak eta urteak ere ez dira ezagutzen (Camino, 1991b). Nolanahi ere den, badakigu 35.a noizbait Juan Miguel Garciacelay orbaratarrarena izan zela eta 1862an Angel Pedroarena aribetarrarena. 40. zenbakia duenak, aldiz, Santiago Labayen izena du idatzirik bigarren orrialdean eta, letrakera txikiagoan, baita “joan maartin (sic)” ere.

Bukatzeko, *CaminoAe* deitu dugun corpusa ere erabili dugu, Iñaki Caminok eskuzabalki utzi digun *Aezkoako hitzen bilduma (1982-1997)* lan argitaragabea.

### 3.3.2.5. *IriarteE* corpusaren ezaugarriak

Hasteko eta behin, argitzea komeni da *IriarteE* ez dela HNko corpus bat, ErdHNren iparraldeko mugaren bestaldean galdeketak eginez osaturiko corpusa baizik. Ipar-Esteribarren (Eugi eta Iragin) eta bideodei bidez galdeketak egin

ditugu eremu hartako lexikoaren eta Lizarragak erabilitakoaren arteko lotura norainokoa den ezagutzeko asmoz. Guztira 332 sarreraren gaineko informazioa eskuratzea lortu dugu, atal honetan zehar ikusiko denez.

Eugin sorturiko hiru lekukorekin lan egin dugu, hirurak gizonak. Egun Eugin bizi den 62 urtekoa bata, Iragin bizi den 88 urtekoa bigarrena eta Iruñeko El Vergel zahar-etxean bizi den 91 urtekoa hirugarrena. Hiruen H1 (ama hizkuntza) euskara da eta ez dute artikulatzeko arazorik.

Lehenarekin aurrez aurreko solasaldi bakarra egin genuen eta haren bidez izan genuen beste bi lekukoen berri. Eugitik kanpo usu ibilia da, euskarazko telebista eta irratiak kontsumitzen ditu, jende gazte anitzekin euskaraz aritzen da eta haren euskarak eragin horiek guztiak ezagun ditu. Aezkoako, Baztango eta beste leku batzuetako ezaugarriak eta lexikoa antzeman genituen harekin izandako solasaldian. Ikerketa honetarako eraiki genuen profilarrekin bat ez zertorenez, ez genuen harekin lanean jarraitu.

Bigarrena Eugin sortu eta gazterik Iragira joan zen bizitzera. Iragi herri euskalduna da egun. Lekukoak esanik, bertan bizi diren familietarik bakarra da erdalduna, duela urte batzuk Iragin etxea erosi zuen Logroñoko familia, hain zuzen. Lekukoak egunerokoan euskara erabiltzen du, seme-alabei euskara irakatsi zien eta bere hizkeraren eta ingurukoen ezaugarrien gaineko ezagutza du; horrez gain, elkarrizketa eta galdeketa ugari egin izan dizkiote 90eko hamarkadatik hona, eta beraz, ohiturik dago gurea bezalako ikerketetan laguntzera. Guk aurrez aurreko hiru saio egin ahal izan genituen harekin, inkesta moduko galderak eta solasaldi librea tartekatuz, abereei eta gazte denborako kontuei buruz batez ere. Hamabost egunean behin elkartzen ginen harekin Iragiko bere etxean, eta bigarren eta hirugarren saioak grabatzeko baimena eman zigun. Oso emankorrak izan ziren saio hauek, baina lekukoa nekatu eta egitasmoa bertan behera utzi behar izan genuen.

Hirugarren lekukoarekin, saio gehiago egiteko aukera izan genuen. Orain dela urte batzuk Eugitik Iruñeko El Vergel zaharren egoitzara joan zen bizitzera, baina hizkuntza ongi gorde du. Osasun larrialdi egoera zela eta, ezin izan genuen harekin aurrez aurre egon, baina egoitzako zuzendaritzari eta langileei esker, ordenagailuak erabiliz elkarrizketak egin ahal izan genituen. Formatu hori erabiltzeak abantaila asko ditu: elkarrizketa irudi eta soinuarekin grabatzeko aukera eskaintzen du, lekukoengana mugitzeak dakartzan gastuak eta denbora aurrezteak, etab. Hala ere, ordu eta erdi inguruko ia 30 saio egin genituen arren, ezin izan dugu bigarren lekukoarekin ateratako etekin bera lortu. Audioaren kalitatearengatik elkar ulertzeko arazoak izan genituen batzuetan, arrazoi beragatik xehetasun fonetiko-fonologikoen gaineko informazioa eskuratzea oso zaila izan zitzaigun askotan, komunikazioaren bi norabideetako audioaren kalitatea ez baitzen behar bezalakoa. Horrek, gainera, komunikazio ariketa bera nekezagoa

bilakatzen zuen eta lekukoari astunegi gertatzen zitzaizkion inkesta formatuko galdeketak. Ziur gaude aurrez aurre etekina askozaz handiagoa litzatekeela, baina egoerara egokitzea beste aukerarik ez genuen izan.

### 3.3.3. Lizarragak erabilitako lexikoaren banaketa hego-nafarreraren baitan

JMSBn jasotako lexikoa non lekukotu ahal izan dugun aztertu aurretik, eta apur bat kokatzen laguntzeko, Caminok (2004a) hego-nafarreraren berezkozat aurkeztu zituen bost ezaugarri nagusien eta ia eskusiboak diren beste seiren aurrean Lizarraga nola ageri den erakutsiko dugu. Lexikoa albo batera utzi eta hizkuntzaren beste alderdi batzuetan murgiltzea eskatuko du horrek batzuetan, dela fonologian, aditzean edo sintaxian.

Ezaugarri eskusibo eta ia eskusiboak izanik, oso eremu geografiko murriztean lekukoturiko ezaugarriez ari gara eta pentsatzekoa da Lizarragarentzat hori ezaguna zela, hots, bazekiela bere inguruan soilik erabiliak zirela. Gauzak horrela, alderaketa honek Lizarragak bere hizkerarekiko izan zuen jarrera ezagutzen lagunduko digulakoan gaude, eta hori mesedegarria da lexikoa aztertzeko ere.

#### Hego-nafarreraren berezko ezaugarriak

1. Lehen graduko erakusle plurala (*g)ebek* izatea, *hauek* edota alboko hizkeretako *ok*, *koek* eta *kuek/kek* formatatik bereiziz. Lizarraga hego-nafarrerarekin doa, (*g)ebek* bakarrik erabiltzen baitu.
2. *Gauren* lehen graduko izenordain plural indartu analogikoa. Oinarrian *geure* duen aldaera horrek bi bilakabideren ondorioz erdietsi zuen forma hori. Lehendabizi *-n* hartu zuela dirudi, *geuren* baitago dagoeneko XVII. mendean. Hala eta guztiz ere, 1729ko predikuak *neure*, *zeure* eta *gure* dakartza. *Gauren* aldaera erdiesteko, *eu* > *au* bilakabidea ere gertatu bide zen. Horren lehen adibidea Orontzen lekukotu da XVIII. mendean, bertako dotrinan dagoeneko *gauren* ageri baita. Aitzitik, Lizarragaren garaiko Eguesibarren lehen bilakabidea gauzaturik zegoela ematen du, baina ez hala bigarrena, *geuren* erabiltzen baitu beti (*geure* ere ez da behin ere lekukotzen).
3. Iraganeko adizkietan *-n* gabeko formak erabiltzea.<sup>81</sup> Indikatiboko lehen aldiko hirugarren pertsonako aditz laguntzailea *-n* gabe darabil Lizarragak. Berriak batez ere, baina ez beti, *-ndun* adizkiak erabiltzen ditu, forma horiek nagusi zireneko eta hego-nafarreraren berrikuntza hasta-

81 Gure lanaren ardatza lexikoa den heinean, ez ditugu aditz nagusiak besterik aztertu, baina hizkera definitzaileak diren aldetik, ezaugarri hauen kasuan aztertzea merezi duela iruditu zaigu; esan dugun bezala, Lizarragaren jokaera hobeki ezagutzeko balioko duelakoan.



penetan zegoeneko egoera erakutsiz. Lizarragak idatzi zuenerako berrikuntza aitzinatuago zegoela ikus daiteke, forma berria nagusi da eta.

4. Alokutiboko maskulinoko *-t-* morfema erabiltzea *-k-* ordez. JMSBn ez dugu *xeota* ‘zegoan’ eta *xitxeidata* ‘zitzaidaan’ modukorik aurkitu.
5. Iraganeko ahaleko adizkietan *-eza-* gabeko adizkiak (cf. *zuke(a)* ‘zezakeen’) erabiltzea. JMSBn adibide ugari aurkitu dugu: “Konfesátzera eldu zékion jendetzearén amargárren zátia ére etzúke aditu, naiz órtan egoník gau ta egún al guzían” (1994: 86); “Aurkitu zúte án sanda ilík gu-ruze gárren ondoán eta orzi zúte Kristioék al zukéten gisan” (1994: 97).

### Hego nafarreraren ezaugarri ia eskusiboak

6. Gorago aipatu dugun *eu > au* bilakabidea (cf. *auri* ‘euri’, ikus goiko 2. puntua eta § 3.3.4.5.), Lizarragaren lanean gauzatzen ez dena. Dirudie-nez, ezaugarri hori ez dago Elkanon Lizarragak idatzi zuen garaian eta ezta Bonapartek datuak jaso zituenean ere, printzeak *euri* jaso baitzuen, eta ez *auri*.
7. Beste hizkera batzuetan *-oi* eta *-oe* (*arratoi / arratoe* ‘arratoi’) gauzatzen diren atzizkietan metatesia gertatzen da HNz. Lizarragak kasu bakarra du: *arrazio*.
8. Hitz hasierako *\*j-* zaharraren ahoskeraz den bezainbatean, hego-nafarreraz badirudi frikari sabaiaurrekoa nagusi zela, belarraren lekukotasu-nak ere badiren arren (*jakín* eta *xakín*, esaterako). Grafiak argi erakusten duenez, Lizarragak [j], [tʃ] eta [x] erabiltzen ditu<sup>82</sup> (§ 3.3.4.5.), sabaika-ria adierazteko <y> erabiltzen baitu (cf. *yago*, *ayen*, *oyu*, *oyal*...).
9. ‘Aroa, aldia’ adierazten duen *-zutu* atzizkia Nafarroako erdialdetik ekialdera lekukotzen da (§ 3.3.4.4.). JMSBn zenbait adibide aurkitu ahal izan ditugu. Dena den, behinola Erronkariraino iristen zen atzizki hori ipar-Esteribarren galdua dela dirudi xx. menderako. Halaxe ikusi ahal izan dugu mendearen lehen erdian jaiotako lekukoekin, Eugin eta Iragin egin galdeketatetik heldu emaitzetan, esan baitigute ez dutela ezagutzen. Dena dela, Damaso Intzak 1974ko *Naparroa-ko Euskal-esaera zarrak* lanean jaso zuen<sup>83</sup> eta handik hartu zuen Orreaga Ibarrek 2007ko *Ibarr-Hn* jasotzeko (s.v. *zarzutu* eta *-zutu*)<sup>84</sup>.

82 [j]: *chsaquin* ‘jakín’; [tʃ]: *chostatu* ‘jostatu’; eta [x]: *joan*.

83 “Aurzutue ta zarzutue, beti aur-kontue” (1974: 146).

84 Ibarrek “Intza Est.” etiketa ezarri zion *zarzutu* hitzari, Intzak Esteribarren jasoia zela adierazteko; eta “Intza Mez.” *-zutu* atzizkiari, Mezkirizkoa zela adierazteko. Nolanahi ere den, Intzak jasotako adibidea dakar bi sarreretan: “aurzutue ta zarzutue, beti aur-kontue” (ikus aurreko oharra).

10. Pluralgile berria \**ezan* erroa duten aditz laguntzaileetan, hots, *-it-* > *-zki-*. Hego-nafarreratik ekialderantz Zaraitzuraino hedatzen den berrikuntza da, eta iparraldera Lapurdi eta Baxenabarrera hedatzen den arren, Zuberoan ez da erabiltzen. 1729ko predikuan ageri den ezaugarria da, eta Lizarragak ere salbuespenik gabe erabiltzen du.
11. Sail honetako azkeneko ezaugarria *kaso* partikularen erabilera da. Kausazko perpausak erabiltzerakoan *-(e)n kasos* edo *-(e)la kaso* eta enparauak erabiltzen ditu Lizarragak, hego-nafarreraren eremuan gutxi asko lekukotzen den egitura berbera. Hala ere ez da erabiltzen duen forma bakarra. Hurrengo adibidean antzeman daitekeenez, pasarte bera itzultezko bi estrategia desberdin erabiltzen ditu:
- “Sandac seréna, eztút il orren sémea nic, bai, bere itsutasúna cela cáso, ilaraci dú ene guardiaco Aingiruac”. (1994: 394)
  - “Erranzue sandac, nic eztút il, baicic bere atrevénciac. Libre atradire gañaráoac; baña onéc errespetoricgábe nainindue borchátu: orgátic ilaracidú ene Ainguiru guardiácoac”. (1994: 122)

Ikusi berri ditugun ezaugarri horiek Lizarragak nagusiki hego-nafarreraz idatzi zuela erakusten dute. Bost ezaugarri eksklusiboetatik lau eta ia eksklusiboak diren seietatik bost ageri dira JMSBn. Lekukotu ez ditugun 4. eta 6. ezaugarrietatik, lehena forma alokutiboan agerpenen urriarekin loturik egon daiteke, eta bigarrena bilakabidearen geografiarekin loturik dago, Eguesibarren ez baitzen *eu* > *au gertatu*.

### 3.3.4. Lizarragaren lexikoaren banaketa dialektologikoa

Lizarragak erabilitako hego-nafarrerazko lexikoaren historiari begiratuko diogu atal honetan. Diakronian eta geografian murgilduko gara, hitzen lekukotasunak, erabilera eremua eta (azpi)hizkeren continuumean hartzen dituzten balio semantikoak aztertuko. Lizarragak zerabilen lexikoaren hedaduraz gain, eragin lektalak aztertu nahi ditugu eta baita Euskal Herriko erdialde edota ekialdearekin partekaturiko eremu geolektalak.

Bada Lizarragak darabilen lexiko bat Iparraldean ere ageri dena, batzuetan Baztanen eta beste batzuetan Aezkoan falta dena. Bietan falta diren hitz edo aldaeren kasuan, idatzizko iturriren baten eragina ote dagoen aztertu dugu § 3.1. atalean. Bestelako kasuetan, bateko eta besteko hiztun erkidegoen arteko lotura neurtzeko erabili dugu

Lizarragarengandik abiatuko gara, eta orain arte bezala, JMSBtik hautaturiko *corpusa* izanen da gure lanabesa. Atal hau osatzeko baina, hego-nafarreraz lekukotu ditugun 775 sarrera eramanen ditugu gurekin, hapaxak eta lehen erabilerak alde batera utziz (horiek § 3.2.1. atalean aztertu ditugu).

Azterketa egiteko, hego-nafarreraz lekukoturiko hitz eta aldaerak taldetan bildu ditugu. Hala, talde bat osatu dugu hedadura zabala duen lexikoarekin, esan nahi baita Bizkai-Zuberoetan ere lekukotu denarekin (§ 3.3.4.1.), beste bat erdialde zabalekoarekin, hots, Gipuzkoan edo Baxenabarren ere lekukoturikoarekin (§ 3.3.4.2.), Nafarroa, Lapurdi eta Baxenabarreko lexikoa beste batera bildu dugu (§ 3.3.4.3.) eta Nafarroatik kanpo lekukotu gabekoa beste batera (§ 3.3.4.4.). Bukatzeko, hego-nafarreraren muga markatzailea (§ 3.3.4.5.), barne banatzailea (§ 3.3.4.6.) eta ErdHNan eksklusiboa (§ 3.3.4.7.) den lexikoa bereizi dugu. Bestela esan, HNan bai eta mendebalde eta ekialdeko hizkeretan ere lekukotu diren hitzekin hasi, eta ErdHNan bakarrik lekukoturikoekin bukatuko dugu.

Bestalde, hitzak eta aldaerak bereizi ditugu, batzuetan hitzak direlako joera edo eremu lexikoak banatzen dituztenak; *jausi/bota/erori* hitzen kasuan, adibidez. Zer hitz erabiltzen den eta horren arabera autorea lerratuago izanen da mendebalde zabalarekin (*jausi*), Nafarroako eskualde batzuekin<sup>85</sup> (*bota*) edo erdialde eta ekialde zabalarekin (EHHA, 2204. mapa). Aldaeren kasuan, Euskal Herria bitan zatitzen duten *esan* eta *erran* modukoez ari gara. Eskualdeen arteko kohezioari dagokionez, froga sendoagoa da berrikuntza bat edo batzuk partekatzea, berrikuntza baten aurrean gordetzaile jokatzea baino; lehena erkidegoen hartuemanaren adierazle baita, eta bigarrena ez.

Aztertu ditugun item lexikoen kopurua handia da, eta hura osatzen duten sarrera guztien bana-banako azalpena eskainiko bagenu, atala irakurtzeko nekeza suertatuko litzatekeela iruditu zaigu. Esaterako, *ama* edo *aita* bezalako hitz orokorrek beste ikerketa lan batzuetan izan dezaketen interesa gorabehera, gure azterketarako ez digute informazio erabilgarririk eskaintzen, eta haien gaineko iruzkinik ez egitea erabaki dugu. Guztiarekin ere, azpialde bakoitzean eremu geografiko horretan lekukoturiko hitz guztien zerrenda eman dugu, esan nahi baita iruzkinduak eta iruzkindu gabekoak.

Atal honen oinarri eta giltzarrietako bat OEHTik eskuratu dugun informazioa izan da. Informazioa erabili ahal izateko, hango irizpide eta etiketak baliatu ditugu. Etiketa horien artean hemen *goi-nafarrera* (GN) itzulirik eman dugunak (OEHko “alto-navarro”) aipamen berezia merezi du. OEHN Nafarroa Garaiko

---

85 Nafarroan, Sakanan ageri da mendebaldean; erdialdean Imoztik Baztan iparraldera marra diagonal bat eginez, eta handik Erroibarko Mezkitzeraino. Aezkoa guztian jada *erori* dago, Luzaiden bezala.

honako eremu hauek bildu dira: Gipuzkoako zati bat (Bonapartek *Irungoa* deitu zuena), Larraun, Bortziriak, Arakil, Ultzama, Egues, Olaibar, Artzibar, Erroibar, Auritz, Izarbeibar (Bonapartek *Gareskoa*), Oltza, Zizur eta Gulibar. Zenbait kasutan GN etiketaren ondoan xehetasun geografikoak ematen dira eta horiek ere kontuan hartu ditugu.

#### 3.3.4.1. *Hedadura zabaleko lexikoa*

HNz eta Euskal Herriko muturretan lekukotu den lexikoa ekarriko dugu azpiatal honetara. Lehenik, mendebaldean eta ekialdean, bietan, lekukotu diren item lexikoekin osatu dugun multzoa aztertuko dugu, eta horren ondotik, soilik mendebaldean edo soilik ekialdean lekukoturikoak.

Inork pentsa lezake, bi muturretan lekukoturiko lexikoak zaharra behar duela izan, harako Euskara Batu Zaharrekoa-edo (ikus Lakarra, 2011). Horrelakoak izan, badiren arren, erabili dugun corpusak 1745. urtea baino beranduago argitaraturiko lanak ere biltzen ditu, hots, Larramendiren HHren eragina antzeman daiteke hitz askoren hedadura geografikoan (§ II.); izan ere, idazle eta predikari askok euren lexikoa aberasteko erabili zuten hiztegi hori, eta jakinaren gainean ala ez, haiena ez zen euskalkiko hitzak eta aldaerak erabili zituzten (adb. *adin*).

#### I. Bizkaian eta Zuberoan lekukoturiko lexikoa

Talde honetan hedadura geografiko zabalena duten hitz eta aldaerak jaso ditugu, hots, mendebaldean, eta ekialdean lekukoturikoak. Banaketa geografikoak den bezainbatean, gehienak orokorrak dira, hots, mendebalde, erdialde eta ekialdeko hizkeretan lekukotu dira; eta gutxi batzuk gipuzkeraz falta dira. Atalaren bukaeran eremu bakoitzean lekukoturiko hitzak eta aldaerak emanen ditugu.

##### a) *Hitz esanguratsuenen iruzkina*

#### *abar/adar*

Aztergai dugun eremuko hizkera guztietan lekukotu dira *abar* eta *adar* hitzak: lehena zuhaitzena izendatzeko soilik erabiltzen da eta bigarrena dela zuhaitzetakoei, dela animalienei. Lizarragak, ordea, balio semantiko bakarrarekin erabiltzen du bakoitza: lehena soilik zuhaitzekin eta bigarrena soilik animaliekin bakarrik.

#### *adin*

Mendebalde eta ekialdean lekukotu ahal izan dugu. Lehen lekukotasunak ekialdekoak dira, eta hala, HH (1745) baino lehen, behe-nafarreraz lekukotu zen

xvi. mendean, gero lapurteraz, nafarreraz eta, azkenik, zubereraz xviii. mendearen lehen erdian. HNko azpihizkera guztietan ere lekukotu dugu eta HH argitaratu ondotik, mendebaldeko hizkeretan ere lekukotzen da.

*agotz*

*Agotz* ‘lasto’ hitzaz den bezainbatean, OEHk ematen duen informazioaren arabera (s.v. *ahotz*), inoiz hizkera guztietan lekukotu izan den aldaera da. Gure corpusean ErdHNaz eta EkiHNaz lekukotu ahal izan dugu, eta, EHHAk dakarrenean arabera (1870. mapa), behinola Lizarragak erabili *a(g)otzek* bizirik dirau Nafarroako hegoaldeko hizkeretan, eta Bizkaiko Orozkon *abotz* gorde da.

*aien*

*Aien* ‘mahatsondoaren egurra’ hizkera guztietan jaso da salbu zaraitzueraz eta erronkarietaz. Egun *mahatsondo* (EHHA, s.v. *cepa*) nagusi den arren, hizkera gehienetan mantendu da *ai(h)en*. *Iriarte*En ez da halakorik jaso, *sarmendu* baizik.

*alegranzia*

*Alegran(t)zia* hitzaren kasuan, batez ere Iparraldeko tradizioan erabili izan dela ikusi dugu, baina mendebaldeko euskalkietan ere lekukotu da. Axularrek, esaterako, *alegriantza* erabili zuen. Lizarragak darabilen *alegranzia* aldaera 1796an oñatiar batek idatzitako bertso batean ageri da lehen aldiz (Urkizu, 1987: 103). Bertso horretan islatzen den hizkerak ekialdeko zenbait ezaugarri erakusten ditu (*khexa* ‘laster, bizkor mugitu’ goi-nafarrerazkoa, *-rat* alatiboa, *zare* [izan, +orain, zu]’...), baina baita erdialdeko hizkerenak izan ohi diren beste batzuk ere (-e- [\*edun, +orain, 1. eta 2. pertsona, sg. eta pl.]...). Lizarragarena, hortaz, bigarren agerpena da.

*arratsalde/arrats*

*Arratsalde* eta *arrats* hitzen kasuan, biak izan dira hizkera guztietan erabiliak, nahiz eta lehena Zuberoan lekukotu ez, Oihenarten *Les proverbes basques recueillis par le Sr d’Oihenart. Plus les poesies basques du mesme auteur* (1657) lanean kenduta. Bigarrena, aldiz, hizkera guztietan lekukotu da, mendebaldetik ekialdera, eta Lizarragak biak darabiltza.

*bakotx*

MHNn eta HHNn *bakoi(t)z* dago, baina Lizarragak *bakotx* palatalizatua erabiltzen du salbuespenik gabe. EZK-ko idazle lapurtar eta baxenabartarren lanetan bi formak ageri dira, baita idazle beraren baitan ere, nahiz eta Axularrek

beti *bakotx* darabilen (OEH, s.v. *bakoitz*). Larramendik, biak jaso zituen arren, ez die balio semantiko bera ematen: *bakotx* ‘bakar’ zentzuarekin erabiltzen du (s.v. *ciclan*, *ciclope*) eta *bakoitz* ‘multzo bateko unitate oro’ (s.v. *barba* (*a perdiz por barba*), *cada uno*, *cada vez*...). Lizarragak beti bigarren adierarekin erabiltzen du. EkiHNan bi zentzuekin jaso da *bakotx* forman (*CaminoAe*).

#### *bekatari*

Lizarragak *bekatari* darabil eta ez *pekatari*. Bi aldaera horien banaketa bat dator *bekatu/pekatu* aldaerenarekin (OEH, s.v. *bekatu*): mendebalde eta erdialdean *p-* dago, baina mendebaldean *bekatari* ere jaso da. Hegoaldeko hizkeretan lekukotu da gehien *b-*dun aldaera. EKCn jaso diren 2.723 agerpenetatik, bakarra du lapurteraz, bi behe-nafarreraz eta beste bi zubereraz.

#### *berreun*

ErdHNan *berregun* lekukotu zuen Orreaga Ibarak *IbarraHn*, baina Lizarragak ez du JMSBn aldaera hori behin ere erabiltzen, *berreun* baizik. Hala ere, gainerako lanetan agerpenik ez duen arren, *Sermoiak* lanean *berregun* aldaera hamabost aldiz ageri da eta *berreun* behin bakarrik. Baliteke, Elkanoko parrokiara gerturatzen ziren herritarrek egunerokoan *berregun* erabiltzea, eta sermoiendako aldaera hori hobetsi izana.

#### *eltxo*

Mendebaldetik ekialdera ia hizkera guztietan lekukotu den hitza da *eltxo* ‘moskito’, Lapurdin, Baxenabarren, Baztanen eta Erronkarin falta bada ere. Nafarroan *eltxo* da nagusi, EkiHNan *eltzo* aldaera dago eta, EHHAk jasotzen duenaren arabera (29. mapa), *ulitxo* eta *moskito* daude Nafarroako gainerako herrietan. Lizarragak baina, *eltxo* soilik erabiltzen du.

#### *igan*

HNko hizkera guztietan eta hortik gaindi gipuzkera ez direnetan lekukotu da Lizarragak darabilen *igan* ‘igo’. Hego-nafarreraz Ibarak *igen*, *iyán* eta *iyen*<sup>86</sup> aldaerak ere jaso dituen arren, Lizarragak ez ditu erabiltzen.

#### *jakin/xakin*

Lizarragak *jakin* eta *xakin* idazten du. Grafiari eskaini diogun atalean (§ 2.5.1.) ikusi ahal izan dugunez, Lizarragak <j> idazten du [x] eta [ʃ] adie-

86 *IriarteEn* *iyen* jaso dugu Eugin. Baliteke *IbarraHko* *iyán* eta *iyen* ere ipar Esteribarkoak izatea, ez baitu jatorria zahazten. *Igen* Erroibarren dakar

razteko, baina euskal hitzetan [j] adierazten duelakoan gaude. OEHk (s.v. *jakin*) ez du hasierako hots belarraren eta sabaikariaren banaketa dialektologikoaren inguruko xehetasunik ematen, eta EHHAn ez da aditzaren partizipio forma jaso. Hala ere, hots belarrak hasitako beste aditz batzuetako fenomenoei begiratu, erdialde zabaleko forma [x]-duna dela pentsa dezakegu (EHHA, s.v. *josi, jaitsi...*), Lizarragak horrelakorik erabili ez arren.

*jarri*

Mendebalde eta ekialde muturretan jaso den *jarri* ‘eseri’ hitzarekin antzera gertatzen da, ahoskerari dagokionez. Kasu honetan baina, aipatu beharrekoa da ez duela erdialdeko hizkeretako *eseri* erabiltzen eta hego-nafarreraz ere ez dugula lekukotu. Grafia eta ahoskeraz den bezainbatean, Lizarragak <*jarri*> idazten duen arren, /*jarri*/ ahoskatzen zuen. Gure corpusean *yarri* idatzirik dugu *IbarraH* berriagoan eta *jarri* testu zaharragoetan.

*laster egin*

Egun mendebaldeko hizkeretan lekukotu ez den arren, *laster egin* ‘korrika egin’ bizkaieraz ere lekukotutzat hartua da OEHn (s.v. *LASTER EGIN*(s.v. *laster*), lehen aldiz Marineo Siculoren hiztegian<sup>87</sup> ageri delako. OEHn aipatzen diren gainerako adibideak erdialde eta ekialdeko hizkerari dagozkie eta EKCn aurkitu dugun ‘korrika egin’ adieradun adibide bakarra Añibarroren *Geroko Gero* lanean aurkitu dugu, ziurrenik Axularren jatorrizko lanaren eraginez (Urgell, 2001: 41, 2-32 oh.). Zaila da, hortaz, ziurtasun osoz *laster egin* mendebaldekoa ere badela frogatzea, eta lan honen mugak gainditzen dituen heinean, azterketa sakonago baten beharra azpimarratzea besterik ez zaigu geratzen.

*sorgin*

*Sorgin* hitza mendebaldetik ekialdera lekukotu den arren, hartzen dituen balio semantikoetan aldea dago alderdi batetik bestera, eta halaxe jasotzen da EHHAn (s.v. *sorgin*). Mendebaldeko hizkeretan nagusiki emakumezkoari esateko erabiltzen da, baina ekialdera egin ahala, *sorgin* gizona zkoa ala emakumezkoa izaten ahal da. Larrabetzun, Getarian, Ataunen, Asteasun, Mugerren, Izturitzen, Santa Grazin eta Etxalarren biekin erabiltzen omen dute eta Lizarragak ere badu gizonei erreferentzia egiten dien adibiderik: “Aién sazerdoteék irritatzen zúte jéndeá, ta lotus ta golpatús [San Jorge] santua, klamatzen zúte [...] ilarazteko sórgingúra” (1994: 168).

87 Lau bertsió ezagutzen díra, hiru gaztelaniaz (1530, 1533 eta 1539koak) eta bat latinez (1533koa).

*zaldi*

ErdHNaz eta EkiHNaz *zamari* ‘zaldi’ jaso da, baina Lizarragak JMSBn *zaldi* darabil salbuespenik gabe. Hala ere, *zamari* bi aldiz ageri da *Sermoiak* lanean. Batez ere Iparralde eta Nafarroako hitza da (OEH, s.v. *zamari*), baina badirudi Lizarragak *zaldi* orokorragoa hobetsi zuela aztertzen ari garen lanerako, agian, gorago aipatu dugun *berregun* hitzaren bidetik. Nolanahi ere den, hego-nafarre-raz *zaldi* ez da hitz arrotza, azpizhizkera guztietan lekukotu dugu eta.

*b) Eremuan lekukoturiko lexikoaren zerrenda*

**Hitzak:** *-(r)en begietan* ‘-(r)en iritiziz’, *aberats*, *abisu*, *adar*, *adin* ‘edade’, *adiskide*, *agertu*<sub>1</sub> ‘zerbait ikusgai jarri’, *agotz* ‘lasto’, *agur*, *aien* ‘mahatsondoaren adar moztua’, *ain* ‘hain’, *aita*, *akabatu* ‘bukatu’, *aker*, *ala* ‘hala’, *alako* ‘halako’, *aldata*, *alde*<sub>1</sub> ‘albo’, *alde*<sub>2</sub> ‘zerbait edo norbait babestu’, *alegratu* ‘poztu’, *alík eta* ‘arte’, *ama*, *an* ‘han’, *anaia*, *andi*, *antzu*, *aparte*, *aplikatu*<sub>1</sub> ‘zerbaitetan gogo biziz aritu’, *aplikatu*<sub>2</sub> ‘aplikatua den pertsona’, *aplikatu*<sub>3</sub> ‘jarrri’, *apostolu*, *ar* ‘har, zizare’, *aragi*, *argi*<sub>1</sub> ‘ikustea ahalbidetzen duen agente fisikoa’, *argi*<sub>2</sub> ‘iluna ez dena’, *argitasun*, *argitu*<sub>1</sub> ‘argiz bete’, *arima*, *arka* ‘kuxta handia’, *arrano*, *arratsalde*, *arreba*, *arrigarri*, *arritu*, *asi* ‘hasi’, *asko*, *asto*, *atso*, *atze*, *aur* ‘haurra’, *axuri* ‘bildots’, *azi* ‘handitu’, *azken*, *bakar*, *bake*, *bana* ‘bat zenbakiaren banatzaila’, *barkatu*, *bartz*, *baso*<sub>1</sub> ‘edalontzi’, *bat*<sub>1</sub> ‘unitatea’, *bat*<sub>2</sub> ‘izenordain zehaztugabea’, *batera*, *batzuk*, *bear*, *begi*, *beñere*, *berbera*, *bereala*, *berez*, *berreun*, *berri*<sub>1</sub> ‘zaharra ez dena’, *berriz*<sub>1</sub> ‘beste behin’, *berriz*<sub>2</sub> ‘ordea’, *besarkatu*, *beso*, *bezpera*, *bi*, *bide*<sub>1</sub> ‘kamio’, *bigarren*, *billa*, *biluxirik*, *biotz*, *birjin*, *bisitatu*, *bitartean*, *bizi*, *bizi izan*<sub>1</sub> ‘bizirik egon’, *bizi izan*<sub>2</sub> ‘leku batean bizi’, *bizio*, *borrero*, *bota*, *boto*, *buru*<sub>1</sub> ‘gorputz atala’, *buru*<sub>2</sub> ‘nagusia’, *debozio*, *dei(tu)*<sub>1</sub> ‘dei egin’, *denbora*<sub>1</sub> ‘magnitudo fisikoa’, *denbora*<sub>2</sub> ‘eguraldi’, *desegin*, *deskansu*, *desterru*, *dibino/a*, *ditxa* ‘zorte ona’, *dotrina*, *dolore*, *donzella* ‘birjin’, *duda*<sub>1</sub> ‘zalantza’, *dulze*, *eder*, *efekto*, *egia*, *egon*<sub>1</sub> ‘nonbait izan’, *egon*<sub>2</sub> ‘zerbaitetan aritu’, *egun*<sub>1</sub> ‘eguna’, *ekaitz*, *ekarri*, *eliza*<sub>1</sub> ‘erakina’, *eliza*<sub>2</sub> ‘instituzioa’, *eltxo* ‘moskito’, *ene* ‘nire’, *engañatu*, *engañu*, *epel*, *erakuste* ‘erakustea’, *erakutsi*<sub>1</sub> ‘irakatsi’, *erakutsi*<sub>2</sub> ‘agerian jarri’, *erdi*<sub>1</sub> ‘bat osatzen duten bi zatietariko bakoitza’, *ere*, *erre*, *errega*, *erregina*, *erreak*, *erremedio* ‘konponbide’, *errespetatu*, *erresto* ‘arrasto, apur’, *erri* ‘herri’, *esker*, *esku*, *esne*, *estimatu* ‘onetsi’, *etorri*, *etxe*, *etxola*, *eun*, *euri*, *exenplu*<sub>1</sub> ‘eredu’, *exenplu*<sub>2</sub> ‘adibide’, *explikatu*, *ezaun* ‘ezagun’, *ezindu* ‘elbarri’, *ezkondu*<sub>1</sub> ‘esposatu’, *ezkondu*<sub>2</sub> ‘esposatua’, *ezpata*, *gaizki*<sub>1</sub> ‘txarto’, *gibel*<sub>2</sub> ‘gibela’, *gogoratu*, *goratu*<sub>2</sub> ‘altxatu’, *grazia*<sub>2</sub> ‘dohain’, *hume* ‘ume’, *izurri*, *jakin*, *jarri*, *laster* ‘bizkor’, *laster egin* ‘korrika egin’, *leitu* ‘irakurri’, *leku*, *leze*, *loi* ‘lokatz’, *lokartu*, *maiatza*, *martxo*, *mear* ‘estu’, *neska*, *ondata*, *ondo* ‘albo’, *oñetako*, *ongarri* ‘simaur’, *ordi* ‘mozkor’, *orduko*, *paper*, *probetxu*, *samiñ* ‘mingotsa’, *sorgin*, *tema* ‘egoskorkeria’, *toki*, *txakur*, *txarrantxatu* ‘txarrantxarekin urratu’, *urde* ‘zerri’, *urlia* ‘zehaztu gabeko pertsona’, *zaldi*, *zaticatu*, *zoko* ‘txoko’.



**Aldaerak:** *abar* ‘adar’, *aixkide* ‘adiskide’, *ameka* ‘hamaika’, *bakotx* ‘bakotz’, *bekatari*, *igan* ‘igo’, *igortzi* ‘igurtzi’, *kazkaragar* ‘kazkabar’, *korputz* ‘gorputz’, *pike* ‘likido itsaskorra’, *tzakur* ‘zakur’.

## II. Bizkaian bai eta Zuberoan lekukotu ez den lexikoa

Multzo honetara hego-nafarreraz eta bizkaieraz bai, baina zubereraz lekukotu ez den lexikoa ekarri dugu. Kontuan hartu behar da hitz bat leku batean jaso ez izanak ez duela nahitaez erabilia ez zenik esan nahi, erabilera horren frogarik ezin izan dela lortu baizik. Guztira, 128 sarrera bildu ditugu zerrenda honetara.

128 sarrera horietatik gehienak HNren inguruko hizkeretan ere jaso dira. Hala, 111 goi-nafarreraz lekukotu dira, lau Baztanen<sup>88</sup>, hiru Baxenabarren<sup>89</sup> eta bi Baztan eta Baxenabarren<sup>90</sup>. Hego-nafarrerarekin muga egiten duten eremuetan lekukotu gabekoak zortzi dira, eta horietatik zazpi Hegoaldean bakarrik lekukotu dira<sup>91</sup> (B edota G) eta bakarra Iparraldean<sup>92</sup> (L).

### a) Hitz esanguratsuenen iruzkina

#### *abendu*

Hilabete izenekin hasiko dugu talde honetako hitz iruzkinduen atala. *Abendu* hizkera guztietan lekukotu da, ekialde muturretakoetan izan ezik, esan nahi baita, Erronkarin eta Zuberoan izan ezik. Tartas zuberotarrak bi agerpen dakartzatza bere lanean: bata “Gomendiozko karta” atalean ageri dena (1666: 4), eta bestea oniritzia ematen duen Utziateko Irunberri priorearena da (ibid.: 8). Gainerakoan, *abentü* edo *abenti* darabiltza, Zuberoan jasotako aldaerekin bat. HHNan eta ErdHNan *abendu* jaso dugu eta EkiHNan hamaikagarren eta hamabigarren hilabeteari esateko erabili ohi da.

#### *aborrezitu*

*Aborrezitu* darabil Lizarragak, nahiz eta Larramendik mailegua ekiditeko aukera ugari eskaini (HH, s.v. *aborrecer*): *gorrotatu*, *gaitzetsi*, *higuindu*, *gorrotoa*, *gaitzerizkoa*, *gaitziriztea izan*, *iduki*. Horietatik batzuk aurkitu ditugu JMSBn, baina askoz kopuru txikiagoan: *aborrezitu* (63), *aborrezigarri* (2), *aborrezitzen* (48), *gorrotagarri* (1), *gaitzetsitzen* (5), *gaitzetsi* (4) eta *gaitzetsiturik*

88 *Agoztegi, asarre<sub>1</sub>, asarre<sub>2</sub>, asarre<sub>3</sub>.*

89 *Apaldu, arrikatu eta buztarri.*

90 *Illunbe eta madarikatu.*

91 *Amore, azertatu, deskuidatu, eske bidali/joan, galani, hispilu eta lanze.*

92 *Idatzarri.*

(1). Erronkarieraz eta zaraitzueraz salbu, soilik Hegoaldeko hizkeretan lekukotu da, baita HHNan, ErdHNan eta EkiHNan ere.

*adiña*

*Adiña* ‘bezain beste’ dugu Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Hego-nafarreraz HHNan eta ErdHNan lekukotu ahal izan dugu, *diñe* eta *diña* aldaerekin batera. Batez ere Gipuzkoan lekukotua da (EKC, s.v. *adiña*)<sup>93</sup>, gero Nafarroan, eta agerpen gutxien Bizkaian jaso dira. Iparraldean behin bakarrik lekukotu da, Etxeberri Ziburukoaren lanean.

*agustu*

Lizarragak *agustu* aldaera darabil urteko zortzigarren hilabeteari erreferentzia egiteko. Mendebalde eta erdialdean *abuztu* eta *abustu* dira formarik erabiliak, eta Iparraldean *agorri*. ErdHNan *agustu* forma lekukotu dugu corpus idatzian eta *ArtolaAren*, eta *CaminoAen agustu* dago. OEHN eta EKCn jasotako *agusturen* lekukotasunak mendebaldekoak eta XIX. mendeaz geroztikoak dira.

*alfer*

*Alper* eta *alfer* aldaeren artean, Lizarragak bigarrena darabil salbuespenik gabe, eta hori da hizkera gehienetan lekukotzen dena (OEHN, s.v. *alfer*). Iparraldean ere *alfer* dago Zuberoan izan ezik, bertan *auher* erabiltzen dute. ErdHNan *alfer*, *auffer* eta *ofer* daude eta EkiHNan *afer* eta *auffer*.

*anima/arima*

*Anima* ‘arima’ aldaeraz den bezainbatean, oso agerpen gutxi aurkitu ahal izan ditugu JSMBn: 4 aldiz darabil *anima* eta 260 aldiz *arima*, semantikoki bereizketarik egin gabe. *Arima* HNko hizkera guztietan lekukotu dugu; *anima*, aldiz, MHNan, HHNan eta hortik gauraino, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

*atze/gibel*

Erdialdean eta mendebaldean *atze* dago eta ekialde muturrean *gibel*. *Atze*-ren lekukotasunak Aezkoaraino iristen dira *CaminoAek* erakusten duen bezala, eta hori da Lizarragak nagusiki darabilena, *gibelen* agerpen gutxi batzuk ere badiren arren (140 *atze*<sup>94</sup> vs 8 *gibel*<sup>95</sup>).

93 Agerpenetarikoz batzuk ‘edade’ esanahiari dagozkio, eta horregatik banaka aztertu ditugu.

94 *Atzean*, *atzeko*, *atzeraz* eta *atzetik* kontuan harturik.

95 *Gibela* ‘gibelera’, *gibelarazi*, *gibelat*, *gibelatu*, *gibelatzen*, *gibelean*, *gibelek* kontuan harturik.

*andi/aundi*

Bi aldaera hauen artean, *andi* ‘handia’ zaharragoa mendebaldean eta ekialdean lekukotu da EKCn eta OEHn, eta HNko gure corpusean ere azpizkera guztietan dago. Lizarragak gutxiago darabil *aundi*, mendebaldetik ekialderantz Izarbeibar, Baztan (Zelaieta, 2008: 176) eta Aezkoaraino iristen dena, azken horretan *andi* nagusi bada ere, eta Zaraitzun, Erronkarin eta Zuberoan ez dagoena. Lapurdiko lehen lekukotasunak xx. mendekoak dira eta Baxenabarrekoak xix. ekoak EKCren arabera (s.v. *aundi*).

*baña*

Aldaera palatala, hots, <ñ>-rekin idatzirik, Hegoaldean gehien lekukotzen den forma da. Iparraldean, aldiz, *baina* aldaera ez-palatala da nagusi eta Zuberoan *bona* dago. Lizarragak <baña> idazten du eta horren ekialdeko muga lapurterak eta goi-nafarrerak markatzen dute iparraldetik eta Aezkoak hegoaldetik; hego-nafarreraz azpizkera guztietan lekukotu dugu.

*buztarri*

Bizkaian, Baxenabarren eta Aezkoan lekukotu da Lizarragak erabiltzen duen *buztarri* ‘idiak elkarri lotzeko tresna’. Erdialdeko hego-nafarreraz baina, Lizarragak erabilitakoa ez, beste hiru aldaera jaso ditu Ibarak: *buzterri*, *buzterra* eta *puzterri*.

*egotzi*

Hizkera guztietan lekukotu da (OEH, s.v. *egotzi*), baina Zuberoan, gehien erabili den alderdian, aldaera palatala izan da lekukotu den bakarra (*egotxi*). xix. mendetik aurrera erabilerak behera egin zuen, eta egun, EHHak jasotakoaren arabera (s.v. *derribar*, *escupir*, *lanzar*, *vomitar*), Jaurrietan soilik gorde da. Lizarragak, *egotziz gain*, *bota*, *botatu* eta *urtiki* darabiltza.

*errespeto*

Iparraldeko hizkeretan *errespetu* da nagusiki lekukoturiko aldaera (OEH, s.v. *errespetu*). Hegoaldean maizenik *errespeto* lekukotu da eta Lizarragak ere hori darabil. Lizarragaren aurretik, eta Elkanotik hegoaldera, Beriainek *respeto* (2), *respetu* (4) eta *errespetu* (1) darabiltza; eta Lizarragaren ondoren, Ibarak *errespetu* jaso zuen Mezkitritzen eta Caminok *respeto* Aezkoan. Hortaz, badirudi Iparraldeko eta Hegoaldeko aldaeren arteko isoglosa HNaren inguruan dagoela. Guztiarekin ere, Lizarraga Hegoaldearekin lerraturik ageri da.

*idatzarri*

*Iratzarri* ‘esnatu’ aldaera Euskal Herriko hizkera gehienetan lekukotu da (B-Arratia-Orozko-Markina-Bergara-Gatzaga, G-Burunda-Etxarri-Aranatz, N-Bortziriak, L, BN, Z, Er-Uztarroze, EkiHN). *Idatzarri*, aldiz, linguistikoki bizkaieraren baitan sailkatzen diren Bergara eta Gatzaga Gipuzkoako herrietan, ErdHNan eta Aezkoan lekukotu da (OEH, s.v. *iratzarri*). Hego-nafarrerari dagokionez, aipatu berri ditugunez gain, hegoaldean *irezarri* dago. Lizarragak erdialdeko hizkeretan lekukotu den *idatzarri* darabil JMSBn eta eskuratu ahal izan ditugun gainerako lan guztietan. Iraizozek (1978: 470) adierazten duenaren arabera, baina, *Sermones de decalogo et Oratione Dominica etc.* lanean *iratzarri* ere badarabil.

*ikasi*

‘Zerbaiten berri izan, zerbait jakin’ balio semantikoarekin Lazarragaren lanean du Hegoaldeko lehen agerpena eta Etxeparenean Iparraldean. Leizarragak ere badarabil eta batez ere erdialdeko aldaera ematen du, Bizkaian lekukotasun gutxi baitaude eta ekialde muturreko hizkeretan ez baita lekukotu. Ekialdeko muga Aezkoan lekukotu da eta Utergako Beriainek ere badarabil; gainerakoan, B, G, GN, eta Ln jaso da (OEH, s.v. *ikasi*).

*Iruñea*

Nafarroako hiriburuari *Iruñea* esaten dio Lizarragak eta hala jaso da bizkaieraz, gipuzkeraz, goi-nafarreraz, lapurteraz, behe-nafarreraz, erdialdeko hego-nafarreraz eta aezkeraz. *Iruña* aldaera, aldiz, HNz idazten zuen Muzkiko Elizaldek (MHN) eta aetzek darabilte, eta baita bizkaitarrek, gipuzkoarrek, nafarrek, lapurtarrek eta baxenabartarrek (EKC, s.v. *iruña*, *iruñe*) ere. Corpus berrietan ere nagusi da *Iruñe* (cf. Etxaide, 1989: 322-323, *ArtolaAr* eta *CaminoAe*).

*leneko*

*Lenekok*, ‘lehenagoko’ adierarekin, agerpen bakarra du Bizkaian, Añibarroren *Geroko Geron* (Urgell, 2001: 221); Axularren “leheneco”-ren egokitzapena dateke (ibid. 13-171. oharra). Gainerakoan, Gipuzkoan eta Nafarroan lekukotu da, eta baita HHNan eta ErdHNan ere, azken horretan *lengo* aldaerarekin batera.

*neurri*

Artolak *neurri* eta *ne(g)urri* lekukotu zituen Artzibarren, eta Caminok *naurri* Aezkoan. Lizarragak, Zuberoan eta Zaraitzun izan ezik, hizkera guztietan

jaso den *neurri* darabil. Zaraitzun *laurri* dago eta Zuberoan *izari*, baina Lizarragak ez du halakorik erabiltzen.

*oñaze*

xvii. mendean ageri da lehen aldiz *oinhaze* aldaera Iparraldean, eta xviii. mendearen lehen erdian Hegoaldean, baina hasperenik gabe. Egun, *min* da hitzik erabiliena (EHHA, s.v. *dolor*), baina *oinaze* eta gainerako aldaerak ere hizkera gehienetan aurki daitezke, nahiz eta hiztunek minaren intentsitatearekin loturiko ñabardura semantikoak eman, *min* jasangarriagoa denean eta *oinaze* min handia sentitzen denean. Hego-nafarreraz erdialdean eta ekialdean lekukotu da idatzizko corpus zaharragoan eta baita berrienetan ere. Lizarragak *oñaze* darabil gorputz atal batekoari edota gorputz osokoari erreferentzia egiteko, eta *min*, aldiz, leku jakin batekoa denean soilik (cf. *begietako min*, *biotzeko miñ*, *txintxurriko min...*). Horrez gain, baliteke minaren bizitasunarekin ere lotura izatea, egun herri askotan gertatzen den bezala (EHHA: *ibid.*): “Zelebratzen dúte Kristioék Abogada bekála ortz ta aginetáko minen, agián zerén ebetán pasarazi zióten tormentu ta oñáze érrua” (1994: 133).

*paxa*

Hegoaldean, Bizkaian, Gipuzkoan eta Baztanen ‘gerriko’ adierarekin lekukotu da. Añibarrok lehen adieratzat “faja para envolver a los niños” eman zuen eta bigarren bezala, “faja en general”, Bizkaian erabilia dela zehaztuz. Egun (EHHA, s.v. *pañal*), Bizkaiko eta Gipuzkoako herri batzuetan besterik ez dira lekukotu *paxa*, *paixa* eta *paja* aldaerak, Gamiz-Fikan, *fajarekin* batera.

*txinurri*

OEhN jasotakoaren arabera, Hegoaldeko hizkeretan afrikatuarekin eta Iparraldean frikariarekin hasten diren aldaerak dira ohikoen, dela lepokari (*tzinurri*, *zinurri*) dela sabaiaurreko (*txindurri*, *ximaurri*). Lizarragak *txinurri* darabil, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan eta Lapurdin lekukoturiko aldaera. HNko hizkeretatik, erdialdean eta ekialdean aurkitu dugu. Erdialdean *txingurri* eta *tzinurri* aldaerak ere lekukotu ditugu eta azkena Aezkoan ere badago.

*zango*

Aezkoan, ‘hanka’ eta ‘oina’ adierak har ditzake eta ErdHNan ‘oina’ esanahiarekin soilik jaso da. Lizarragak ‘hanka’ adierarekin bakarrik darabil, eta adiera horrekin Baxenabarren, Lapurdin eta Nafarroan erabili ohi den aldaera *zango* da, Bizkaian, Gipuzkoan eta Zuberoan *zank(h)o* den artean. Bestalde,

HHNan *anka* ere lekukotu dugu, Beriainek behin baitarabil, baina ez gizakienei erreferentzia egiteko: “zaldi gainean zioanak erran zion: igan zaitez ene zaldi honen hanketan. Igan zen berehala, eta egun hartan berean ezarri zuen bere hiriaren aldean”<sup>96</sup> (1621: 113).

### *zulo*

Euskal Herriari dagokionez, Hegoaldean lekukoturiko hitza da *zulo*, eta Iparralde eta ekialdean nagusiki *zilo* ageri da (OEHD, s.v. *zulo*). *Zilo* dago ErdHNan eta EkiHNan, baina *Artola*Aren *zulo* ere jaso da. Beriainek ez du hitza izen bezala erabiltzen, baina adverbio bezala *çulaturic* dakar (1626: 156), eta ez *zilataturik*\*. Lekukotasunak ikusirik, badirudi HNaren inguruan dagoela bi formen arteko trantsizio gunea. Nolanahi ere den, Lizarragak hego-mendebaldearekin bat egiten du, *zulo* darabil salbuespenik gabe.

#### *b) Eremuan lekukoturiko lexiko guztiaren zerrenda*

**Hitzak:** *abendu*, *aborrezitu*, *adiña* ‘bezainbeste’, *agoztegi* ‘lastategi’, *aide* ‘senide’, *aitu* ‘entzun’, *ale* ‘pikor’, *alegria* ‘alaitasun’, *amore* ‘maitasun’, *amoroso*, *antxume*, *apa* ‘muxu’, *apal*<sub>1</sub> ‘baxu’, *apaldu* ‘makurtu’, *arbola*, *ari* ‘ahari’, *asarratu*, *asarre*<sub>1</sub> ‘haserrea’, *asarre*<sub>2</sub> ‘erraz haserretzen dena’, *asarre*<sub>3</sub> ‘borroka, eztabaida’, *astelen*, *atenzio*, *atertu*, *aurkitu*, *aurpegia*, *auster egun* ‘Aste Santuaren ondoko asteazkena’, *azertatu* ‘asmatu’, *balsa*, *banidade* ‘harrokeria’, *barkazio*, *bataio*, *betazal*, *bete*, *beti*, *bezino* ‘herritarra’, *birtute*, *bizikide*, *bizkor*, *borondate*, *deabru*, *demonio*, *deskuidatu*, *dignidade*, *disponitu* ‘prestatu’, *ditxoso/a* ‘zorte onekoa’, *edozein*, *egotzi* ‘bota’, *emen* ‘hemen’, *enkomendatu* ‘norbait edo zerbaiten eskuetan jarri’, *erokeria*, *erredimitu*, *erreinatu*, *erremediatu* ‘konpondu’, *errepara* ‘ohartu’, *errespeto*, *errespuesta*, *erretiro* ‘bakartze’, *eskalera* ‘eskailera’, *eskatu*, *eske bidali/joan.*, *eskojitu*<sub>1</sub> ‘hautatu’, *eskojitu*<sub>2</sub> ‘hautatua’, *eskribitu*, *esperatu*, *espíritu*, *eternidade*, *eterno*, *firmatu*<sub>1</sub> ‘sinatu’, *gaizki*<sub>2</sub> ‘gaizkia’, *galant*, *ganbela* ‘animalien bazkatokia’, *gau*<sub>2</sub> ‘gaua’, *gaur*, *gorputz*, *hispilu* ‘ispilu’, *ikasi*, *intz* ‘ihintz’, *iraun*, *Iruñea*, *itsusi*, *jentil* ‘kristaua ez dena’, *lanze* ‘gertakari’, *madarikatu*, *makur*<sub>2</sub> ‘gaizto’, *merkatari*, *nekatu*, *neurri*, *oiu*, *ol* ‘ohola’, *oñaze*, *ondasun*, *oratu* ‘ogi orea landu’, *osasan*, *paratu* ‘jarri’, *trukatu* ‘aldatu’, *txarrantxa* ‘orrazi mota’, *txita* ‘oilo kumea’, *zango*, *zeru*<sub>1</sub> ‘kristauena’, *zeru*<sub>2</sub> ‘atmosferikoa’, *zulo*.

**Aldaerak:** *ago*<sub>1</sub> ‘aho’, *ago*<sub>2</sub> ‘mozteko tresnaren zati zorrotza’, *agustu* ‘abuztua’, *alfer*, *anima* ‘arima’, *aprila*, *aundi*, *bekatu*, *bior* ‘behor’, *buztarri* ‘idiak elkarriz lotzeko tresna’, *eskindu* ‘eskaini’, *etzin* ‘etzan’, *idatzarri* ‘esnatu’, *illunbe* ‘iluntasun’, *jito* ‘ijito’, *katea*, *leneko*<sub>1</sub> ‘lehenagoko’, *libru* ‘liburu’, *mogitu*<sub>1</sub> ‘mugitu’, *nekoso*, *paxa* ‘pixoihala’, *txinurri* ‘inurria’, *txipi* ‘txiki’.

96 Ortografia eta puntuazioa gaurkoturik ekarri dugu adibidea.

### III. Bizkaian ez eta Zuberoan lekukotu den lexikoa

Azpiatal honetan, mendebaldean lekukotu ez den, baina ekialdean lekukotu den lexikoa aztertuko dugu. Aurreko atalean bezala, lehendabizi esanguratsuenak iruditu zaizkigun edo informazio gehien eskaintzen duten hitzen iruzkina eginen dugu, eta, ondotik, lekukoturiko hitz guztien zerrenda ekarriko dugu.

129 sarrera bildu ditugu talde honetara, eta bereziki interesekoak iruditzen zaizkigu Iparraldea eta Eguesibar batzen dituzten eremu geolektalak. Horrela, hiru<sup>97</sup> talde edo multzo proposatzen ditugu: Iparraldea-Baztan-Eguesibar hartzen duena bata, Iparraldea-Aezkoa-Eguesibar bestea, eta azkenik, Iparraldea-goi-nafarrera-Eguesibar.

Lehen taldean hitz bakarra dago, *etsitu*; bigarrenean, Aezkoan esan nahi baita, hiru: *arratsalde apal*, *egunoro* eta *ezi*. Azken taldean ere hiru hitz daude: *baiki*, *baratu* eta *buruko*.

#### a) Hitz esanguratsuenen iruzkina

##### *ageri/agerri*

JMSBen *ageri* dago, Nafarroako eta Iparraldeko tradizioarekin bat. Hala ere, ez da hori Nafarroan lekukoturiko aldaera bakarra, Bizkaian eta Gipuzkoan nagusi den *agiri* Izarbebarren, Aezkoan eta Erronkarin ere lekukotu baita, lehendabiziko bietan *ageri*ekin batera. Guztiarekin ere, Lizarragak *agiri* gabe, *ageri* eta *agerri*<sup>98</sup> darabiltza soilik.

##### *agitu*

OEH eta EKCren arabera, Mendibururena da *agitu* ‘gertatu’ren lehen lekukotasuna eta batez ere goi-nafarreraz eta zubereraz lekukotzen da XVIII. mendetik aurrera (nagusiki Mendiburu eta Lizarragaren lanetan). Ondoren, XIX.ean Iparraldeko gainerako hizkeretan ere ageri da. *Camino*Aen jaso da, eta Caminok (2003: 458) berak dioenaren arabera, Iparraldearen eta hego-nafarreraren arteko lotura erakusten duen hitza da; frantsesetik dator, Nafarroa Garaiko iparralde euskaldunean ez dago, eta Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan eta Elkanon lekukotu da.

##### *aisa*

Bizkaian ez dago hitz honen eta haren aldaeren (*aixa*, *aise*, *aixe*) lekukotasun zaharrik, lehenak XVIII. mendearen bigarren erdikoak dira (EKC, s.v. *aisa*,

97 Badira JMSBn Lizarragak idatzizko iturrien bidez ikasi edo erabili zituzkeen Iparraldeko hitzak ere, baina horiek gorago aztertu ditugu (§ 3.1.)

98 *Agerri* G, GN, L, BN eta Zn lekukotu da.

*aise*). *Aisaren* lehendabiziko lekukotasuna Tartasena da (xvii. mendea) eta ondotik Nafarroa eta Gipuzkoan ageri da xviii. mendean. Goizuetako gutunetan *aisa* dago (Salaberri *et al.*, 2021(2): 208), Artolak Artzibarren ere jaso zuen eta Bonapartek 1869an argitaraturiko Garraldako dotrinan *aisago* dago. Hego-nafarreraz, ErdHN eta EkiHNko azpihizkeretan jaso da, lehendabizikoan *aise* eta *aixe* aldaerekin batera.

Lehen lekukotasuna Zuberoakoa izan arren, badirudi euskal eremuko erdialde eta ekialdeko hitza dela.

*alaber*

Lokuzio hau Olatzagutian ageri da 1548. urtean eta Zufian 1552an (OEH, s.v. *halaber*). Aezkoan eta Baztanen ageri da eta HNko azpihizkera guztietan ere lekukotu dugu. Ez dago Gipuzkoan xx. mendera arte.

*aldarte(z)*

Lizarragak ‘tarte’ adierarekin darabil, gehienetan instrumentalarekin, baina ez soilik, ‘tarteka’ adiera duten adberbioak ere sortzen ditu: “Etsáiak perseguitzen ta tentatzen zué milla manéras [...]. Aláko aldarte batén ondórean agertu zéquio Jesús óna” (1994: 174); “eta oñaze gau [hau] aldartes biziago da, aldartes ilago, baña beñere ez ain il, ezi uz nazan libre” (ibid.: 338). Mendiburuk ere adiera berarekin darabil, beti instrumentalarekin: “Ez ote zait, zenbait aldartez, eskergabeko eran berotzen niri nere mii galdu au” (1904 (2): 163). Lekukotasunen eremu geografikoa Gipuzkoatik Zuberoaraino hedatzen da eta ekialdeko hego-nafarreraz antzeko adiera izan dezakeen adibide bat ere ageri da. Bertan, *aldarte (gori)* ‘astia izatea’ dago, baina testuingurua ezagutzerik ez dugu izan eta hortaz ezin esan *aldarte* bera den ala ez. *IbarraHn* instrumentalarekin soilik ageri da, ‘aldika, tarteka’ adierarekin. Gainerakoetan ez dugu lekukotzerik izan.

*alke*

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan lekukotu den hitz hau, HNko hizkera guztietan ere bada. Ematen du hitza Aezkoatik iritsi dela HNra, Zelaietak (2008: 182) Baztangoizan (Baztango iparraldean) lekukotu zuen arren, hortik hegoaldera *lotsa* jaso zuelako eta Goizuetako Minondotarren gutunetan ere ez da ageri (Salaberri, 2021).

*apart(e)*

Iparraldean *apart* ‘urrun’ dago eta Hegoaldean *aparte* (OEH, s.v. *aparte*). Hego-nafarrerari dagokionez, *CaminoAen* (EkiHN) eta *Missiora deeya* testuan



(HHN) lekukotu dugu, baina Beriainek *aparte* darabil. Lizarragak bi aldaerak darabiltza, nagusiki *apart*, JMSBn 41 aldiz ageri baita eta *aparte*, aldiz, 3 bider.

Irudi du aldaera honek Aezkoan barrena egin duela bidea Elkanora. Goizuetan *aparte* dago (Salaberri, 2021(2): 217) eta Zelaietak (2008) ez du jaso, eta Bonaparteren ondarean (Baztango testuetan) ez dugu aurkitu.

#### *ar-lauza*

Erdialdeko hego-nafarreraz corpus zahar eta berrietan ageri den hitza da hau. Horrez gain, (*arri*)*lauza* ere badago alderdi horretan. Aezkoako toponimian (*Arlauzeta* Garraldan) eta ahozkoan lekukotzen da eta berdin Zaraitzun eta Iparraldeko hiru eskualdetan. Auriztik gertu, iparraldera, toponimian ageri da, eta pentsatzekoa da eremu guztian partekaturiko item lexiko batez ari garela.

#### *arratsalde apal*

Iparraldean, Erronkarin, Aezkoan, Erroibarren, Esteribarren eta Eguesibarren lekukotu da ‘iluntze’ adiera duen item lexiko hau. Kasu honetan ere badirudi HN-Iparralde lotura ekialdetik heldu dela.

#### *arteo*

Lizarragak *arteo* darabil beti ‘zerbait bukatzen den puntua’ adierazteko. HNari dagokionez, MHN, HHN eta ErdHN batera doaz Baztan eta Iparraldearekin. ErdHNaz *ertio* eta *artio* jaso ditu Ibarrek adiera berarekin eta azkeneko hori Aezkoan ere bada. Zuberokan *artino* nagusi da.

#### *baiki*

Baieztapenaren forma hanpatua goi-nafarreraz, zubereraz eta erronkarieraz lekukotu da. Azkuek Erroibarren jaso zuela adierazi zuen (*IbarraH*, s.v. *baiki*), baina guk ez dugu hego-nafarrerazko corpusean lekukotzerik izan. Gipuzkoan xx. mendean lekukotzen da.

Forma honek Nafarroako zenbait alderditan aditzekin erabiltzen den *-ki* hanpatzailea du oinarrian (cf. *izaki*), eta Lizarragak ere badakartza halako adibide zenbait: “Admititu zute: baña luza-bide, bear zela diru erosteko habitua; ta santuak ez **izaki**: baña erremediatu zue zeruko erregina gloriosak” (1994: 365, *beltza gurea*). Oro har, Nafarroan dagoen ezaugarri hau (Iñigo *et al.*, 1995: 293) ez da mendebalderago aurkitzen ahal. Gipuzkoan, esaterako, aditz laguntzailea ezabatu eta partizipioa erabiliz adierazten dute hanpatzea (Iñigo, 2007: 301-306), aurreko adibidea kontuan harturik: *ta santuak ez izaki = ta santuak izan ez*.

*bazkaltzera eman*

Bizkaian eta Gipuzkoan inesiboarekin erabiltzen den aditz esapide hau, alati-boarekin lekukotu da ekialdeko hizkera guztietan. MHN, HHN eta EkiHNan lekukotu ditugu *jatera eman* eta *edatera eman* modukoak. Ematen du Ekialde zabalekoa dela.

*bearri*

Tarteko [I] gabeko *bearri*, *biarri* eta *beharri* aldaerak ekialdeko hizkeretan lekukotzen dira. Nafarroan, besteren artean, Malerrekan, Bortzirietan eta Ultzamako Alkotzen badago, baina hortik ezker *belarri* dago. Lizarragak *bearri* darabil, HHNaz, ErdHNaz eta EkiHNaz bezala. Erdialdeko eta ekialdeko hego-nafarreraz *biarri* ere aurkitu dugu, baina Lizarragaren lanean ez.

*ebatsi*

Gipuzkoan eta handik mendebaldera ageri ez den hitza dugu hau. Nafarroa osoan (Etxaide, 1989: 295) eta Lapurditik ekialdera hizkera guztietan lekukotu da, baita hego-nafarreraren azpizkera guztietan ere.

*edeki*

*IbarraHn*, *CaminoAen* eta Baztanen (Lekaroz, 2006: 89) ‘ireki’ adierarekin jaso den hitz honek ‘kendu, errotik atera’ adiera du JMSBn. Nafarroan tradizio luzea du bigarren adiera horrek, dagoeneko Juan de Amenduxek 1564an Iruñean idatzirik poemetan ageri baita, Beriainen 1626ko dotrianan, xviii. mende bukaerako Goizuetako Minondotarren gutunetan (Salaberri, 2021(2): 253) eta baita Erronkarin ere (OEH, s.v. *edeki*). Iparraldean, Leizarragak eta Axularrek badarabilte eta Baxenabarre eta Zuberoan ere lekukotu da (ibid.). Gipuzkoa eta Bizkaian ez da lekukotasunik jaso, baina *edegi* aldaera dago Milia Lasturkon, Lazarragan eta Garibairen errefracuetan.

Hitz hau ‘kendu, errotik atera’ adierarekin, Baxenabarre eta Zuberoa arteko mugan besterik ez da gorde egun (EHHA, 617), *ideki* eta *idoki* aldaeretan.

*egunoro*

Maiztasuna adierazteko, *-ero* atzizkia erabili ohi da egun (Euskaltzaindia, 110. araua). Lizarragak, aldiz, *-oro* darabil, *aldioro*, *asteoro*, *egunoro*, *gauoro* eta *goizoro* hitzen kasuan. OEHren arabera (s.v. *egunero*, *gauero*), *-oro* da nagusi xix. mendera arte eta handik aurrera *-ero* hedatzen hasiko da, xx. mendean nagu-

si bilakatu arte. Nolanahi ere den, *-oro* duten formak ez dira behin ere Bizkaian lekukotu eta nagusiki ekialdeko hizkeretan ageri dira.

*eldu*

Ekialde zabalean, ‘etorri’ eta ‘iritsi’ adierekin erabiltzen da *heldu* aditza eta Gipuzkoan eta Bizkaian soilik bigarrenarekin. Hego-nafarreraz bi adierak aurkitu ditugu, Nafarroan bigarrena ia agertu ez arren (OEH, s.v. *heldu* ♦1). Lizarragak lehen adierarekin erabiltzen du beti eta halaxe dago Nafarroa eta Iparralde gehiengan. Adiera horrekin ere, *jin* dago Iparraldean eta *xin* eta *jin* Zaraitzu-Erronkarietan (Etxaide, 1989: 320; Artola, 1977: 78), baina Lizarragak ez darabil halakorik.

*goatze/guatze*

Nafarroan, *goatze*, *guatze* eta *oatze* aldaerak lekukotu dira ‘ohe’ adierazteko. Lizarragak lehendabiziko biak soilik darabiltza.

*Goatze* aldaerak eremu geografiko zabalagoa hartzen du, Burundatik Zaraitzuraino eta Baxenabarretik Zuberoaraino dagoen eremuan lekukotu baita (Lapurdin *ohantze*), Baztan eta Aezkoa barne harturik. *Guatzeren* kasuan, eremu murrizagokoa da, Ultzaman, Baztanen eta Aezkoan besterik ez baita lekukotu (OEH, s.v. *ohatze*). Hego-nafarrerari dagokionez, *goatze* dago HHNan, ErdHNan eta EkiHNan eta *ohatze* Beriainen *Dotrinan*.

*-gende*

Lizarragak hiru izen darabiltza atzizki honekin: *aragigende*, *arraigende* eta *txurigende*. Atzizkia eta Lizarragak erabiltzen dituen harekin sorturiko izenak ekialdeko hizkeretan soilik lekukotu dira, esan nahi baita goi-nafarreraz, zaraitzueraz, erronkariaraz eta, hego-nafarrerari dagokionez, aezkeraz eta ErdHNaz.

Izen bakoitzaren hedadura desberdina izan arren, espero izatekoa da atzizkiarekin sorturiko izen bat lekukotu den eremuan gainerakoak ere lekukotzeko aukera dagoela.

*izitu*

Iparraldeko tradizioan *izitu* dago eta Hegoaldean *izutu*. Hala ere, xviii. mendean bigarren erditik aurrera badira zenbait agerpen Hegoaldean, baina oso urriak dira: Larramendi, Mendiburu eta Lizarragarenak. Guztiarekin ere, Bortziritan, Baztanen eta Aezkoan jaso da (OEH, s.v. *izutu*), eta hortaz, pentsatzekoa da Iparraldearen eta hego-nafarreraren arteko lotura eskualde horietako baten edo batzuen bitartez egin zela.

*lotsatu*

Lizarragak ‘beldurtu’ adierarekin erabiltzen du aditz hau, Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa, Erroibar, Artzibar, Aezkoa eta Erronkarin lekukotu den bezala. Lekukotasunen kronologiak erakusten duenaren arabera, badirudi hitzak Iparralde-Erronkari-Aezkoa-Eguesibar bidea egin zuela.

*mendre*

Iparraldekoetz gain, Larramendi eta Lizarragarenak dira XIX. mendea baino lehenagoko lekukotasun bakarrak. Nolanahi ere den, Lizarragak Ipar Euskal Herria, Esteribar eta Eguesibar arteko konexio geolinguistikoaren eraginez jaso izateko aukera asko dago, bertan ere lekukotu baita, eta *IbarraHn* ere jaso delako.

*mintzatu*

*Mintzatu* hitza hego-nafarreraren eta ipar-Esteribarren arteko aldearen erakusgarri da. Eugiko lekukoei egindako galdeketetan ikasi ahal izan genuenez, ez dute erabiltzen; bertan, *yolastu*, *yolas egin* aldaerak erabiltzen dituzte. Aitzitik, hego-nafarreraren azpizkera guztietan *mintzatu* jaso dugu, Izarbeibarren *solas eman* darabil Beriainek eta Aezkoan ere *solas (e)in* eta *solastu* jaso zituen Caminok.

*nastekatu*

Leizarragak eta Beriainek darabilte, eta Baztanen, Erronkarin eta Zuberoan ere lekukotu da. Ez dugu hego-nafarrerazko bestelako hizkeretan lekukotu, eta hortaz, badirudi HN-Baztan-Iparralde eremuan partekaturiko aldaera baten aurrean gaudela.

*ortots*

Baxenabarren, Zuberoan eta Nafarroa gehienez (Etxaide, 1989: 30) lekukotu den aldaera, HHNan eta ErdHNan ere bada; ez ordea Aezkoan, bertan *otsots* baitago (ibid.).

*parete*

Tradizioari erreparatuz, *pareta* da formarik hedatuena Euskal Herrian (OEH, s.v. *pareta*), baina parete dago Zuberoan (*ph-*), Erronkarin, Aezkoan eta, XIX. mendetik aurrera, Gipuzkoan. Eugin egindako inkestetan aldaera bera jaso dugu, eta Artolak *pareta* eta *parete* jaso zituen Artzibarren (2013: 78). Honako aldaera Aezkoa bitartez eginiko Iparraldearekiko loturaren erakusle da.

*-zale*

Lizarragak *adizale*, *amazale*, *arrikazale*, *defendazale*, *il(t)zale*, *konpañazale*, *kriazale* eta *kuidazale* erabiltzen ditu JMSBn. Ikus daitekeenez, aditzei atxikirik, egiletasuna markatzen duten izenak sortzen ditu atzizki honek. Aipatu berri ditugunetatik, *arrikazale* eta *kuidazale* hapaxak dira eta gainerakoak lehendik erabiliak. Aipatu berri ditugun izenak ez dira denak leku berean lekukotu. Lekukotasun horiek guztiak kontuan harturik, esaten ahal dugu, inoiz, aztertzen ari garen aldaera lapurteraz, baztaneraz, goi-nafarreraz, behe-nafarreraz, zaraitzueraz, erronkarieraz, zubereraz eta hego-nafarreraren azpizhikera guztietan erabilia izan dela. Esan liteke, beraz, ekialdeko aldaeraren aitzinean gaudela.

*zinka egin*

Batez ere Iparraldean eta XIX. mendearen bigarren erditik aurrera lekukoturiko hitza, EKCrean arabera lehen lekukotasuna Lizarragarena da. Baliteke oinarria gaztelaniazko *jurar* hitzarekin loturik egotea (< *zin egin*), baina gainerako lekukotasunak ikusirik ez dirudi Lizarragak sorturiko mailegua denik.

*b) Eremuan lekukoturiko lexiko guztiaren zerrenda*

**Hitzak:** *admiratu*<sub>1</sub>, *ageri izan* ‘ikusteko moduan egon’, *ageri*, *agian*, *agitu* ‘gertatu’, *aipatu*, *aisa* ‘erraz’, *aitetamak* ‘gurasoak’, *akabantza* ‘bukaera’, *alaber* ‘era berean’, *aldarte* ‘tarte’, *alke* ‘lotsa’, *alor*, *apart* ‘urrun’, *ar-lauza* ‘harri laua, ez oso lodia’, *arratsalde apal* ‘arratsalde bukaera’, *aski* ‘nahikoa’, *asteazken*, *azaro*, *azpi*, *baiki* ‘baieztapen hanpatua’, *baitare*, *baizik*, *baratu* ‘gelditu’, *batere*, *beiratu*<sub>1</sub> ‘kontuan hartu’, *beiratu*<sub>2</sub> ‘begirada zerbaiti zuzendu’, *berri*<sub>2</sub> ‘zerbaiten gaineko informazioa’, *bide*<sub>3</sub> ‘ote’, *bildu*<sub>1</sub> ‘elkartu’, *bildu*<sub>2</sub> ‘jaso’, *bitarte* ‘denbora tarte’, *bortxatu*, *buruan* ‘denbora baten ondoren’, *buruko* ‘aipaturiko denboraren bukaerarako’, *dei(tu)*<sub>2</sub> ‘izena ezarri’, *deusetaik* ‘ezerezetik’, *doi-doia* ‘ozta-ozta’, *dudatu*, *ebatsi* ‘lapurtu’, *edatu* ‘luzatu’, *edeki* ‘kendu’, *egal*, *egun*<sub>2</sub> ‘gaur’, *eldu* ‘etorri’, *eman*<sub>1</sub> ‘zerbait eskuz aldatzearen ekintza’, *emeki* ‘leunki’, *entendatu*, *eraman*, *erauntsi* ‘ekaitza’, *erori*, *eskarnio* ‘iseka’, *espartin* ‘abarketa’, *estado*<sub>1</sub> ‘egoera’, *etsai*, *etsitu*, *ezi*<sub>1</sub> ‘juntagailu esplikatiboa’, *ezi*<sub>3</sub> ‘batez ere’, *eza* / *ez eta* / *ez eta ere*, *fite* ‘azkar’, *-gende* ‘produktu’, *gibel*<sub>1</sub> ‘atzea’, *idor* ‘lehor’, *igande* (igante Zuberoan), *itzuli*, *karrika* ‘kale’, *lasterka*, *lauretan ogei*, *lotsatu* ‘izutu’, *manatu* ‘agindu’, *marraka* ‘ardi edo ahuntzen orroa’, *mendekatu*, *mendre* ‘txikia, ahula’, *mintzatu*, *neskato*, *plomu*, *sagarroi* ‘trikua’, *saldo* ‘animali talde’, *sarri* ‘laster’, *saski*, *sui*, *tortxa* ‘argi zuzia’, *urin* ‘koipea’, *urrin* ‘usaia’, *usu*<sub>1</sub> ‘maiz’, *usu*<sub>2</sub> ‘ugari’, *zain* ‘sustrai’, *-zale* ‘-tzaile’, *zapatatu* ‘lehertu’, *zinka egin* ‘garrasi egin’.

**Aldaerak:** *amalur* ‘hamalau’, *arbole*, *arteo* ‘arte’, *aterbe* ‘aterpea’, *ats* ‘hatsa’, *bago* ‘pagoa’, *baratze*, *batzarre*, *bazkaltzera eman* ‘bazkaltzen eman’, *bearri* ‘belarri’, *beiti* ‘behea’, *beldur*, *berant* ‘berandu’, *berere* ‘gutxienez’,

*bulkatu* ‘bultzatu’, *dretxo* ‘eskubidea’, *egun oro* ‘egun guztietan’, *eriotze*, *erdi*, ‘umea izan’, *erran*, *goatze* / *guatze* ‘ohea’, *iduri*, ‘kanpo itxura’, *iltzale* ‘hiltzaille’, *iretsi* ‘irentsi’, *itze* ‘iltzea’, *izigarri* ‘izugarri’, *izitu* ‘izutu’, *jendetze* ‘jendetza’, *laur*, *matela* ‘masaila’, *nastekatu* ‘nahasi’, *orai* ‘orain’, *ortots* ‘trumoi’, *parete* ‘pareta’.

#### IV. Ondorioak

Azpiatal honetan, 464 hitz sailkatu ditugu eta horietariko batzuen gaineko iruzkin xehegoa eman dugu. Kopuruei erreparatuz, Lizarragarena erdialdeko hizkera dela ikusi dugu. Bizkaia eta Zuberoa hartzen dituen eremuan 207 hitz batu ditugu, Zuberoa ez beste guztiak harturik 128 eta Bizkaiaz bestekoetan 129.

Hedadura zabaleko 207 item lexiko eta aldaerak aztertzerakoan, nolabaiteko batasuna antzeman dugu, gehienak ia hizkera guztietan lekukotu baitira, erdialdeko hizkeretan falta ziren 13 izan ezik.

Bizkaian lekukoturiko, eta Zuberoan ez dauden, 128 item lexikoak ere eremu zabalekotzat hartzen ahal dira, horietarik gehienak goi-nafarreraz ere jaso baitira eta ikusi ahal izan denez, goi-nafarrerazkoak ez direnetatik gehienak HNko hizkerekin muga egiten duten hizkeraren batean lekukotu dira (adb. Baztanen edo Baxenabarren).

Ekiialdera begira jarri garenean, Iparraldearen eta Elkanoren arteko lotura nondik egiten den ezagutu nahi izan dugu, eta hala, Baztanen, goi-nafarreraz eta Aezkoan lekukoturiko hitzak aztertu ditugu. 129 sarrera bildu ditugu hirugarren talde honetara, eta eskura izan dugun informazio dialektologikoaren arabera, hedadura zabalagoko hitzez den bezainbatean, lotura handiagoa antzematen da Aezkoa eta goi-nafarrerarekin Baztanekin baino (hiruna agerpen lehendabiziko bietan eta bakarra hirugarrenean). Heldu diren ataletan lotura honen nondik norakoak aztertzen jarraituko dugu eremu geografiko txikiagoan lekukoturikoekin.

##### 3.3.4.2. Erdialde zabaleko lexikoa

Talde honetan erdialde zabaltzat hartu dugun eremuan jasotako lexikoa bildu dugu. Landu berri ditugun Bizkaia eta Zuberoa alde batera utzirik, Gipuzkoan, Nafarroan, Lapurdin eta Baxenabarren lekukoturiko lexikoa aztertuko dugu oraingoan.

Aurreko azpiatalean bezala, aztergai den eremu geografikoan lekukoturiko item lexikoak ezagutzeaz gain, Eguesibar eta haren inguruko hizkeren arteko eragin lektalak aztertzea dugu helburu. Talde honetan bilduriko 80 hitzetatik 70

goi-nafarreraz lekukotu dira, eta horietatik 45 baita Iparraldean ere<sup>99</sup>. Iparraldean ez dauden 25 hitzetatik<sup>100</sup> gehienak ekialdeko hizkeretan lekukotu dira; hots, Nafarroa ia osoki hartzen dute. Goi-nafarreraz lekukotu ez diren hamar horien artean ere, hiru Erronkariraino hedatzen dira<sup>101</sup> eta bat Lapurdi, Baztan, Baxenabarre eta hego-nafarreraren azpizkera guztietan jaso da, baita Aezkoan ere<sup>102</sup>. Gainerako seiak HNko hizkeraren batean lekukotu dira soilik<sup>103</sup>.

Ikus daiteke, hortaz, talde honetan bilduriko sarrerek nahiko banaketa geografiko homogeneous eta hedadura zabala dutela, Gipuzkoan lekukotzeaz gain, gehienak ekialderaino ere iristen direlako. Ikus dezagun xehekiago hitz horietariko batzuek erakusten dutena.

a) *Hitz esanguratsuenen iruzkina*

*abarrikatu*

Larramendik *abarrikatu* aldaera jaso zuen HHn eta baita *Azkoitiko sermoian* ere. Lakarraren ustez “ia seguruenik Lizarragaren lekukotasuna harengan [Larramendi] oinarritzen [...] da” (1985: 264). Guztiarekin ere, Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan lekukotu dugu, EHHAn (2442. mapa) Alkotzen jaso da eta baita Gipuzkoan, Lapurdin, Baxenabarren, Zaraitzun eta Erronkarin ere (OEH, s.v. *abarrikatu*). Gauzak horrela, uste dugu Lizarragak ahozkotik hartutako hitza dela.

*akullo*

EKCn (s.v. *akullo*), Iturriaga, Lizarraga, Orixe eta Uriarteren lekukotasunak ageri dira. Uriarteren kasuan, Lizarragak dakarren pasarte bera aurkitu dugu, gainera. Lizarragak honela dakar: “Nor dá ori, Jauna? Errespondatu zió: Ni naiz Jesus, perseguitzen nauzúna zuk. Gauza gogórra dá zuretáko ostiko tirátzea akulloaren kóntra” (JMSB: 215); eta Uriartek (*Apostoluen egiteak-I*): “Zeñ zera zu, o Jauna? Eta Jaunak esan zion: Ni naiz Jesus, zuk persegitzen nauzuna; gau-

99 *abarrikatu*, *adiarazi*, *aditu*, *aldaka*, *aldare*, *amaiarreba*, *argatik*, *arranzari*, *astatu*, *atzapar*, *autatu*, *beazun*, *beldurtasun*, *bide*, *despeitu*, *dilindan*, *diña*, *eguerri*, *elkar*, *ezkila*, *ezperen*, *galdetu*, *hazienda beltz*, *iduki*, *iduki*, *iduki*, *iduki*, *iruzki*, *kanibet*, *landara*, *lenbiziko*, *maiz*, *mertxede*, *ortzegun*, *ozka*, *pikor*, *pixka*, *pizu*, *sendatu*, *sor*, *ukitu*, *ukitu*, *ura*, *urrikitu*.

100 *admirazio*, *adorazio*, *ala ere*, *amatu*, *ardo*, *artikulo*, *artzai*, *atari*, *atendu*, *barratu*, *bedeikatu*, *biali*, *deseo*, *egi*, *elzari*, *eskui*, *garill*, *idiki*, *mi*, *onara*, *oñaztur*, *protxu*, *txoil*, *txuri*, *ugalde*.

101 *barride*, *errepertitu* eta *galarazi*.

102 *Iduri*.

103 *akullo*, *barutu*, *eman*, *enkarnazio*, *errotazai* eta *guti gora bera*.

za gogorra da zureztat, akulloaren kontra ostikoak aurtikitzea” (Uriarte, 1858-1859).

Euskal Herriko herri gehienetan *akullo* edota haren aldaeraren bat jaso da, baina Eugin *pertike* dago, Abaurregainean eta Jaurrietan *pertika* eta Zuberoan *phertika* (EHHA, 1590. mapa eta *CaminoAe*). *Akullo* da ele sorta honetan ekialdean lekukotu ez dugun hitz gutxietariko bat.

#### *ala ere*

Gipuzkeraz, goi-nafarreraz, hegoaldeko, erdialdeko eta ekialdeko hego-nafarreraz lekukotu dugu. Iparraldean eta Baztanen, aldiz, (*h*)*alere* aldaera erabiltzen da eta ekialdeko hego-nafarreran *alaik ere*, *aleik ere* eta *alere*. Lizarragak Hegoaldeko aldaera darabil beraz.

#### *aldaka*

Gipuzkoan, Lapurdin, goi-nafarreraz, Aezkoan eta Erronkarin dago (*altea* azken horretan) ‘alboa’ adierarekin. OEHren arabera (s.v. 1 *aldaka*), litekeena da Larramendik HHko eranskinerako Axularri hartua izatea. Hitzaren hedadura geografikoari erreparatuz, ez dirudi Lizarragak idatzizko iturriren batetik hartu zuenik, bere inguruan ahozkoan erabiltzen zen hitza dela baizik.

#### *amaiarreba*

Aztertzen ari garen ia eremu guztian aurkitu ahal izan dugun bezala, Lizarragak beti darabil *amaiarreba* ‘amaginarreba’. Bestelako aldaerak ere aurkitu ditugu, eta hala, HHNan *amagiarriba* dago, Goizuetan bezala (Salaberri, 2021: 214), eta Zaraitzun *amagiarba*.

#### *atzendu*

Hego-nafarrera eta Baztan lotzen dituen eta Iparraldean ageri ez den hitz gutxi horietarik bat da honako hau: Gipuzkoan, Sakanan eta Baztanen lekukotu da eta baita HHNan, *IbarraHn* eta *CaminoAen* ere. Baliteke batzuetan HNak zubi lana egitea mendebaldeko eta ekialdeko hizkeren artean, edo garai batean Hegoaldeko gainerako hizkerekin joan zela zenbait berrikuntzari dagokionez.

#### *beiratu*

Egun Gipuzkoa mendebaldean eta Bizkaian *be(g)itu* eta Iparraldean *be(h)atu* (EHHA, 2087. mapa) gauzatzen den aditza, *beiratu* da aztertzen ari garen eremuan, batez ere Ultzama eta Baztanen. Testu zaharretan, Lapurdin le-



kukotzen da lehendabizikoz xvii. mendearen bigarren erdian (EKC, s.v. *beiratu*). EKCKo agerpen gehienak Lizarragarenak dira, eta bi adierarekin erabiltzen du: ‘zaindu, babestu’ eta ‘begirada zuzendu’. Lapurdi eta Baxenabarren ere lekukotasun ugari jaso da, eta Gipuzkoan ere ageri da, baina batez ere xix. mende bukaerako bertsolarietan.

Esan dugun bezala, Lizarragak bi adierarekin erabiltzen du eta lehena ErdHNan eta EkiHNan lekukotu dugu Iparraldeko autoreen tradizioarekin bat (OEH, s.v. *begiratu* ♦ 2). Bigarren adierarekin Iparraldekoez gain, ErdHNkottzat hartu dugun 1729ko predikuan (§ 3.3.2.3.) aurkituriko lekukotasuna dago, eta baita gainerako HNko azpizkera guztietakoak ere. Hortaz, Lizarragak bere euskalkian zegoena erabili zuela esaten ahal dugu.

#### *bide2*

Baztanen eta Zaraitzun izan ezik, aztertzen ari garen eremuko hizkera guztietan lekukotu da ‘omen’ adiera duen aditz partikula hau, baita Goizuetan ere (Salaberri, 2021: 243). Hego-nafarreraz 1729ko predikuan ageri da lehen aldiz eta Lizarragaren ondorengo lekukotasunei dagokienez, *IbarraHn* eta *CaminoAen*.

#### *eguerri*

Izarbeibarren eta Aezkoan *eguberri* dago eta Erroibarren *eguarri*. Lizarragak baina, *eguerri* darabil salbuespenik gabe eta halaxe lekukotu da HHNan, Gipuzkoan, goi-nafarreraz, Lapurdin, Baxenabarren eta Baztanen ere.

#### *elzari*

‘Lekale’ adierazteko erabiltzen da gipuzkeraz, goi-nafarreraz, baztaneraz, zaraitzueraz eta erronkarieraz, eta Ipar-Esteribarren ere jaso dugu.

Hego-nafarrerari dagokionez, *IbarraHn*, 1729ko predikuan (ErdHN) eta Muruzabalgo xviii. mendeko sermoian (HHN) lekukotu da, azken horretan *elzeri* aldaerarekin batera. Aezkeraz *leka* ‘aleen zorroa’ jaso da *CaminoAen*, eta harekin sorturiko *alubia leka*, *baba leka* eta antzekoak ere badaude. *Eltzari* ere jaso da, baina balio semantiko ezberdina du, ‘jana’ adierazten baitu, eta ez ‘lekale’ Lizarragarenean bezala.

#### *errotazai*

Hegoaldean *errotari* erabili ohi da eta Iparraldean *eiherazain*. Nafarroan, aldiz, *errotazai* dago Sakanako mendebaldean eta HNan (ErdHNaz *errotari* ere jaso den arren). xx. mende inguruan jasotako corpusetan, *errotazai(n)* lekukotu

da Artzibarren (*ArtolaAr*), Erroibarren (*IbarraH*) eta Aezkoan (*CaminoAe*), eta baita Sakanan, Malerrekan, Bortzirietan, Lapurdin, Baztanaldean, Esteribarren eta Zaraitzun ere (EHHA, 2566. mapa).

Goizuetan *errotari* dago xviii. mendean (Salaberri, 2021: 264) eta baita xx.ean ere (EHHA, 2566. mapa). Sakana eta Alkotzen dago *errotariren* muga (ibid.), bertan *errotazairen* eremua hasten baita. Hitz hau gorago aipatu dugun Sakana-HN-Nafarroako ekialdea loturaren beste adibide bat da.

#### *galarazi*

‘Galtzea eragin’ adierarekin, Iparraldeko aldaera da (OEH, s.v. *galarazi*), baina ez Zuberokoakoa. Hegoaldean ere badu agerpenik, Gipuzkoan, Aezkoan eta Erronkarin. Ez dago Baztanen eta, hortaz, balirudike Lizarragarengana Aezkoan barrena iritsi zela.

#### *hazienda beltz*

Zerriei esateko modu hau Nafarroan eta Baxenabarren lekukotu da. Aezkoan eta Zaraitzun badago. Aziendarekin ez dutela erabiltzen adierazi digute Eugin, baina *animale beltz* darabiltela ‘basurde’ adierarekin. Aurrekoez gain, Añibarrok Gipuzkoan lekukotu zuela jaso da OEHN (s.v. *AZIENDA BELTZ* (s.v. *azienda*)).

Hitz honen kasuan, ez dirudi Iparraldetik hedatua denik, 1729ko predikuan (ErdHN) *azienda belz* ageri baita (Ondarra, 1981: 158).

#### *iduri*

Nagusiki Iparraldean (Zuberokoan ez) lekukoturiko hitz hau Lizarragaren lanean lekukotu da soilik xx. mendearen bigarren herenera arte. Guztiarekin ere, *IbarraH* eta *CaminoAen* badago eta OEHN jasotako informazioaren arabera (s.v. *I iduri - II ♦ I*) Gipuzkoan eta Baztanen ere jaso da.

Hego-nafarrerazko hizkera guztietan jaso dugu, hegoaldekoan (HHN) *irudi* aldaerarekin batera, eta hortaz, egiantzekoena eremu guztiko hitza zela pentsatzea da.

#### *iruzki*

Hegoaldeko hego-nafarreran *eguzki* dago eta ekialdekoan (EkiHN) *iduzki*. Lizarragak *eguzki* eta *iruzki* erabiltzen ditu, baina bigarrena nagusiki (7 vs 92 agerpen JMSBn). Lehen aldaera da hedatuena, eta bigarrena Gipuzkoa ekialdean, Nafarroan, Lapurdin, Baztanen, Baxenabarren eta Aezkoan jaso da (OEH,

s.v. *eguzki*); eta hego-nafarrerari dagokionez, Artzibarren (*ArtolaAr*) eta Erroibarren (*IbarraH*).

*kanibet*

Gipuzkeraz, goi-nafarreraz, lapurteraz eta aezkeraz lekukoturiko hitza. ErdHNan ere badago, *IbarraHn kanabiterekin* batera. Baztanen *kanabit(a)* dago, baina Lizarragak ez ditu azken bi aldaera horiek erabiltzen.

Aipatu berri ditugun bi aldaerek atalaren hasieran proposatu ditugun ErdHN-Baztan eta ErdHN-Aezkoa loturak erakusten dituzte, bi alderdietako aldaerak lekukotu baitira bertan.

*maiz*

Gipuzkoatik Baxenabarreraino, Baztanen bai eta Aezkoan ez dagoen hitza dugu. Aezkoan *usu* dago, eta Baztanen *maiz*. HHNan eta ErdHNan ere lekukotu ahal izan dugu; ez, ordea, MHNan eta EkiHNan. Azken horretan *usu* dago, baina Lizarragak ez darabil eta HNko gainerako azpizkeretan ere ez dugu lekukotzerik izan.

*txuri*

Txistukari afrikatua duen aldaera Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga inguruan lekukotu da. Mendebalde eta ekialdean afrikatu gabeko aldaerak dira nagusi. *Zuri* dago *txuriren* erabilera eremua inguratzen duten herrietan, eta urrunago, *suri* mendebaldean eta *xuri* ekialdean (EHHA, 2791. mapa). Hego-nafarreraz mendebaldeko eta hegoaldeko hizkeretan lekukotu da, ez hala erdialdeko eta ekialdekoetan. Abaurregainean (EkiHN) *zuri* eta *xuri* jaso dira (ibid. eta *CaminoAe*) eta Artzibarren ere berdin (*ArtolaAr*).

Hitz honek erakusten du, Iruñetik ezker edo eskuin eragin lektalak ezberdinak direla kasu batzuetan.

*ugalde*

Burundatik hasi eta Erronkariraino lekukotzen da, baita Malerreka eta Baztanen ere. Hego-nafarreraz erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan aurkitu dugu, erdialdekoan *ubelde* eta *ugelde* aldaerekin batera, eta lehena Eugin ere erabiltzen da (*IriarteE*). Nafarroatik kanpo, aldiz, ez da lekukotu, Ainhoako (Lapurdi) *uhalde* aldaera kenduta.

## b) Eremuan lekukoturiko lexiko guztiaren zerrenda

**Hitzak:** *aditu* ‘entzun’, *admirazio* ‘miresmen’, *adorazio* ‘gurtze (izaki dibinoena)’, *akullo* ‘abereak xaxatzeko erabiltzen den eta punta batean ezten bat duen makila’, *ala ere* ‘dena dela’, *aldaka* ‘albo, ondo’, *aldare* ‘apaizak meza emateko erabiltzen duen mahai laukizuzena’, *amatu* ‘maitatu’, *ardo* ‘mahatsarekin egindako edari alkoholoduna’, *argatik* ‘horregatik’, *artikulo* ‘artikulu’, *astatu*<sub>1</sub> ‘ukitu’, *atzapar* ‘erpe’, *atzen(du)* ‘ahaztu’, *autatu* ‘aukeratu’, *beazun* ‘behazuna’, *bide*<sub>2</sub> ‘omen’, *deseo* ‘nahi, gura’, *despeitu* ‘agurtu’, *egi* ‘egia’, *eguerri* ‘eguberria’, *elkar* ‘izenordain elkarkaria’, *elzari* ‘lekale’, *eman*<sub>2</sub> ‘norbere bizitzaren ardatza zerbaiten inguruan jarri’, *enkarnazio* ‘gorputz bilakatzearen ekintza eta ondorioa’, *errepertitu* ‘banatu’, *ezkila* ‘kanpaia’, *ezperen* ‘bestenas, bestela’, *galarazi* ‘norbaiti bere burua edo beste zerbait galtzea eragin’, *galdetu* ‘itaundu, galdegin’, *hazienda beltz* ‘zerri motako aberea’, *lenbiziko* ‘aurreneko’, *maiz* ‘askotan, usu’, *pixka* ‘kantitate txikia’, *pizu* ‘pisutsu, astun’, *protxu* ‘probetxu, etekin, abantaila’, *sendatu* ‘osatu, sendotu’, *txuri* ‘zuri kolorea’.

**Aldaerak:** *abarrikatu* ‘hautsi, txikitu, xehetu’, *adiarazi* ‘esan, jakinarazi’, *amaiarreba* ‘norbaiten senar-emaztearen ama’, *arranzari* ‘arrantzan ibiltzen den pertsona’, *artzai* ‘ardiak zaintzen dituen pertsona’, *barratu* ‘zabaldtu, sakabanatu’, *barutu* ‘jan gabe egon’, *bedeikatu*<sub>1</sub> ‘ezaugarri sakratuak dituen’, *beldurtasun* ‘beldur, izu’, *biali* ‘bidali’, *diña* ‘partikula konparatzailea’, *errotazai* ‘errotaren ardura duen pertsona’, *eskui* ‘eskuin’, *garill* ‘urteko zazpigarren hilabetea’, *guti gora bera* ‘gutxi gorabehera, inguru’, *idiki* ‘ireki’, *iduki*<sub>1</sub> ‘zerbait edo norbait egoera batean mantendu, bere borondatea kontuan izan gabe’, *iduki*<sub>2</sub> ‘zerbaiten jabe izan, eduki’, *iduki*<sub>3</sub> ‘-tzat hartu, iritzi’, *iduki*<sub>4</sub> ‘eutsi’, *iduri*<sub>1</sub> ‘antzeko, moduko’, *iruzki* ‘eguzki’, *kanibet* ‘labana’, *mertxede* ‘mesede’, *mi* ‘mihia’, *oñaztur* ‘lurra ukitzen ez duen tximista’, *ortzegun* ‘asteko laugarren eguna’, *ozka* ‘haginka’, *pikor* ‘ale, bihi’, *sor* ‘gor, entzuten ez duena’, *txoil* ‘erabat, zeharo, arras’, *ugalde* ‘ibai’, *ukitu*<sub>1</sub> ‘kontaktu eginez sentitzea’, *ukitu*<sub>2</sub> ‘hunkitu’, *urrikitu* ‘damutu’.

## c) Ondorioak

Ikusi ahal izan dugunez, nahiko eremu homogoneoa da item lexikoen hedadurari dagokionez, gehienek antzerako banaketa geografikoa baitute. Horrekin loturik, Iparraldean lekukotutakoen eta lekukotu gabekoen arteko aldea da azpimarragarriena, multzo honetan bilduriko sarreren kopurua ia erditik zatitzen duelako.

Horrez gain, Lizarragak Elkanoko hizkera darabilela erakusten duten hitz eta aldaerak agertu dira multzo honetan (cf. *errotazai*). Dena dela, ekialdeko hizkerekiko lotura nabari da.

### 3.3.4.3. Nafarroa, Lapurdi eta Baxenabarreko lexikoa

Bada Iparraldean lekukoturiko lexikoa Zuberoan eta Gipuzkoan ez dagoe-na, goi-nafarreraz, baztaneraz edo aezkeraz lekukotu dena, eta Lizarragak darabilena. Lexiko hori HNaz ere lekukotu dugu eta atal honetan bi eremuen arteko lotura nondik egiten den, hots, Lizarragarengana nola iritsi den aztertuko dugu.

Horago Zuberoan lekukoturiko lexikoarekin egin dugun bezala, besteren artean, Iparraldearen eta hego-nafarreraren arteko lexiko partekatua Baztanen edota Aezkoan ere baden bilatu dugu. Hego-nafarreraren hizkeretatik Aezkoa (EkiHN) kontuan hartu gabe, Lapurdi/Baxenabarre-Baztan-HN eremuan lekukoturiko hitz edo aldaerak bi dira: *elze* ‘lapiko’<sup>104</sup> eta *lekeda* ‘itsasgarri, kola’. OEHko “GN” etiketa ere kontuan hartzen badugu, eta Aezkoa alde batera utzirik, *agitz* ‘oso’, *bait-* menderagailu marka eta *sukil* ‘erretzeko enborra’ gehitzen ahal ditugu.

Lapurdi-Baxenabarretan, Aezkoan eta hego-nafarreran, Baztan eta goi-nafarrera alde batera utzirik, *euri ugarre* ‘euri zaparrada’ eta *urratu* ‘eraitsi, hautsi’ daude. Goi-nafarreraz eta Aezkoatik ekialdera dauden zaraitzueraz edota erronkieraz lekukoturikoak ere gehitzen baditugu, hamar hitz edo aldaera gehiago dira: *abrats* ‘aberats’, *anitz* ‘asko’, *belauriko* ‘belauniko’, *bilo* ‘ile’, *botatu* ‘jaurti’, *garagartzaro* ‘ekaina’, *gizonki* ‘gizon’, *kafia* ‘habia’, *nafartar* ‘nafar’ eta *peña* ‘harri handia’.

Hiru dira Aezkoan edota Baztanen lekukotu ez diren talde honetako hitzak edo aldaerak: *fruita* ‘fruta’ (GN, BN, ErdHN), *emaste* ‘emaztea’ (txistukari apikariarekin, GN, BN, MHN, ErdHN) eta *konprehenditu* (<h>-z idatzirik Leizarragak, Etchartek, Urtek eta Laneufvillek besterik ez dute eman)<sup>105</sup>.

#### a) Hitz esanguratsuenen iruzkina

*-kara1*

Lizarragak hainbat adberbio edo adjektiborekin erabiltzen du ‘samar’ adiera duen atzizki hau JMSBn: *arinkara*, *beltzarankara*, *berantakara*, *dudankara*, *epelkara*, *ertxikara*, *eutxikara*, *gogorkara*, *gutikara*, *ilunkara*, *txipikara* eta *urrunkara*. Ikus daitekeenez, Lizarragaren garaian oso emankorra da, eta *Arto-laAren* eta *CaminoAen* ere jaso da.

104 Txistukari frikariidun aldaera dago Baztanen, eta Aezkeraz afrikatuarekin jaso da *CaminoAen*.

105 OEHn (s.v. *konprenitu*) jasotako informazioaren arabera, Iparraldean *konprenitu* da nagusiki erabiltzen den hitza; baina *konprehenditu* ere badago. Hegoaldean bigarrena da ugarien lekukotzen dena, bertsolarien testuetan bereziki.

Lizarragak atzizkiarekin sorturiko item lexiko guztiak ezin izan ditugu lekukotu, baina bai, ordea, atzizkiarekin Lapurdin eta Baztanen jasotako beste batzuk (OEH, s.v. *berankara*, *bortxakara*, *deskontentkara*...).

*aberats/abrats*

Lizarragak bi formak darabiltza, nagusiki forma sinkopatuaren alde egiten badu ere (JMSBn 65 *abrats* vs 24 *aberats*). Nafarroako ekialdeko hizkeretan forma sinkopatua da lekukotu den bakarra, eta hego-nafarreraz ere horrela jaso dugu hizkera guztietan. Sinkoparik gabeko aldaera Bizkaitik Zuberoara lekukotu da (Nafarroako ekialdean salbu), eta hego-nafarrerari dagokionez, soilik HHNan. Hitz bikote honen kasuan, hego-nafarrerak ekialdeko hizkerekin duen lotura antzeman daiteke.

*aborrezitu*

Lehen lekukotasuna Beriainena da (HHNan) eta horrez gain ErdHNan eta EkiHNan ere lekukotu dugu. Larramendik zenbait aukera ematen ditu *aborrezitu* saihesteko (HH, s.v. *aborrezer*): “gorrotatu, gaitzetsi, higuindu, gorrotoa, gaitzerizkoa, gaitziriztea izan, iduki”. Horietatik zenbait erabiltzen ditu Lizarragak (agerpen kopurua parentesi artean eman dugu): *aborrezitu* (63), *aborrezigarri* (2), *aborrezitzen* (48), *gorrotagarri* (1), *gaitzetsitzen* (5), *gaitzetsi* (4), *gaitzetsiturik* (1).

*abre*

‘Etxeko animalia zaldizko handia’ adierarekin darabil Lizarragak, egun erabili ohi den zentzu zabalagoan baino (*Batua*, s.v. *abere*). Horrez gain, sinkopaturik ematen du beti, Baztanen, Zaraitzun eta Erronkarin bezala eta baita Lapurdin ere. Kasu honetan ere, ErdHNa eta EkiHNa ekialdearekin lerratzen dira, eta ez hala MHNan eta HHNan, azken bi horietan ez baitugu lekukotzerik izan.

*amen*

‘Ahamen, mokadu’ adierarekin ekialdeko hizkera guztietan lekukotu da, lapurtarrez izan ezik. Ipar-Esteribarren jaso dugu eta ErdHNan eta EkiHNan ere badago; ez, ordea, MHNan edo HHNan (azken horretan *bocado* dago). Kasu honetan, HNaren baitan igar daitezkeen bi joera lektalak agerian geratzen dira, Iruñetik ekialdera dauden hizkerek ekialdeko eragin nabarmenagoa dute.

*argiaste*

Hitz hau aztertzen ari garen eremu guztian ageri da, hots, GN, L, Bzt, BN, Zar, Er eta EkiHN etiketak ditu. Hala eta guztiz ere, Lizarragaren eta *CaminoAe-*

ren lekukotasunez gain, ez dugu hego-nafarrerazko beste hizkeratan aurkitu; bai, ordea, *argialde* eta *argiesti*, biak ala biak ErdHNan.

*berex*<sub>1</sub>

XIX. mendea baino lehenagoko lekukotasun guztiak Iparraldean jasoak dira, baina Axularrek ez du erabiltzen. Larramendik (s.v. *aparte*) *aparte*, *appart berecian* ematen du, eta eranskinean (s.v. *aparte*) *berech*, *beregain*. Lakarrak (1991: 239) eta Urgellek (2002: 87), Harrieti hartu ziola erakutsi zuten, eta Hegoaldean egiten den lehendabiziko erabilera Lizarragarena da. Hego-nafarrerazko gure corpusean *berex* dago *CaminoAen* eta *berexi* ‘banandu’ aditza hizkera guztietan (HHNan *beraxi*). Ekialdeko agerpenak ahozkoaren alde eginen luke, baina Larramendiren eranskinetik hartua izateko aukera ere badago.

*etorki*

JMSBn ‘pertsonek jatorria’ adierazteko darabil autoreak. Batez ere Iparraldean (L, BN) erabilitako hitza. Hego-nafarrerazko gainerako hizkeretan ez dugu lekukotu.

*huri ugarre*

Lapurdin eta Aezkoan besterik ez da jaso. EHHAn (393. mapa), *ugarre* ‘ur zikina’ jaso da Leitzan, baina *CaminoAen* ‘erauntsi’ adieran dago eta *Flos Sanctoruumean* ere “tiempo lloviioso y ventoso” (1610(2): 155) ageri da. Lizarragaren adibideko agerraldiak ere ‘huri zaparrada’ esanahia duela ematen du: “bestitu ze tresena pobrees, eta denbora ekaitz-aldi batez atrarik, huri ugarreak eraunsten zegola” (1994: 331).

*fruta*

1729ko sermoian du lehen agerpena eta ondotik Lizarragaren lanean ageri da. Ondotik, Baxenabarreko eta Lapurdiko autore gutxi batzuek erabili dute: Duvoisinek (XIX. mendea), Jean Etxepare Landerretzek (XIX. mendea) eta Goienetzek (XX. mendea). Ez dugu beste lekukotasunik aurkitu, eta zaila da hitzaren hedadura eraginari edo eremu geolektal partekatuari zor zaion ebaztea.

*gizonki*

Erabilera eremu geografikoa arras ezberdina da *gizonki* ‘gizon’ eta gorago aztertu dugun *emasteki* ‘emakume’ren artean. Lehena Baxenabarren, goi-nafarreran, Baztanen eta Aezkoan badago ere, *gizonki* Lapurdin, Baxenabarren eta

goi-nafarreraz soilik lekukotu da. Hego-nafarrerari dagokionez, *emasteki* dago ErdHNan eta *emazteki* HHNan, ErdHNan eta EkiHNan. *Gizonkiren* kasuan, aldiz, *IbarraHn* bakarrik jaso da.

### *ilundura*

Leizarragak erabili zuen lehendabiziko aldiz XVI. mendean eta Lizarraga arte ez da berriro lekukotu (EKC, s.v. *ilundura*). Ondoren ere, oso agerpen gutxi dauzka, 13 autorerenak Lapurdin, Manezaundirenak Baxenabarren eta Larreko-renak Nafarroan. *CaminoAen* ere jaso da Aezkoarako.

*Ilundura* erabiltzen duten autore guztiek (baita Lizarragak ere), *iluntasun* orokorragoa ere erabiltzen dute; biak ala biak balio semantiko birekin: ‘argirik eza’ eta ‘gaitza, tristezia, atsekabea’.

Idatzizko iturrien arteko loturarik ezin izan dugu aurkitu, eta, hortaz, agerpen gutxi izan arren, atal honetan aztertzen ari garen eremuan ahozkoan erabilia izan dela dirudi egiantzekoena.

#### *b) Eremuan lekukoturiko lexiko guztiaren zerrenda*

**Hitzak:** *agitz* ‘oso’, *amen* ‘ahamen, mokadu, otamen’, *anitz* ‘asko’, *argiaste* ‘egunsentia’, *bilo* ‘ile’, *errebelatu*<sub>1</sub> ‘jakitera eman’, *konprehenditu* ‘ulertu’, *kuxin* ‘kuxina’, *lazo* ‘arduragabea, alferra, nagitsua’, *lekeda* ‘kola’, *peña* ‘harri handia’, *sukil* ‘erretzeko den enborra’, *urratu* ‘hautsi, eraitsi, hondatu, puskatu’.

**Aldaerak:** *abrats* ‘aberats’, *abre* ‘abere’, *aingiru* ‘aingeru’, *belauriko* ‘belauniko’, *berex*<sub>1</sub> ‘aparte, bereizirik’, *berze* ‘beste’, *bida* ‘bi zenbakia’, *bortz* ‘bost zenbakia’, *botatu* ‘jaurti’, *elze* ‘lapikoa’, *emasteki* ‘emakume’, *erze* ‘hes-te’, *etorki* ‘jatorri (pertsonea)’, *huri* *ugarre* ‘huri-zaparrada’, *fruta* ‘zuhaitzek ematen duten jakia’, *galde(g)in* ‘galdetu, itaundu’, *garagarzaro* ‘urteko seigarren hilabetea’, *gizonki* ‘gizon’, *iduritu*<sub>1</sub> ‘iruditu, iritzi’, *ilundura* ‘iluntasuna’, *jautsi* ‘jaitsi’, *jendaki* ‘leinu, kasta’, *kafia* ‘habia’, *komekatu* ‘gorputz santua hartzea’, *kontent* ‘pozik, gustura’, *kutsatu* ‘kontaminatu, zikindu’, *maneatu* ‘maneiatu’, *nafartar* ‘nafar’, *orzilare* ‘asteko bosgarren eguna’, *sines-tatu* ‘sinetsi’, *sukai* ‘erregai’, *usmatu* ‘usaindu, ohartu’, *urrikaritu* ‘errukitu’, *ziriku* ‘zeta’.

**Atzizkiak:** *bait-* ‘menderagailu marka’, *-kara*<sub>1</sub> ‘samar’.

#### *c) Ondorioak*

Lapurdik eta Baxenabarrek hego-nafarrerarekin duten lexiko partekatua aztertu dugu azpiatal honetan. Ikusi ahal izan dugunez, aztertutako sarrera gehienak Baztanen edo Aezkoan ere jaso dira, apur bat usuago Aezkoan eta handik ekialdera dauden ibarretako hizkeretan.



## 3.3.4.4. Hego-nafarrera eta Nafarroa

Atal honetan, hego-nafarreraz lekukotu diren eta Nafarroako muga gainditzen ez duten item lexikoak aztertuko ditugu, esan nahi baita goi-nafarreraz, baztaneraz, zaraitzueraz eta erronkarieraz bai, baina gainerako euskal hizkeretan ez daudenak.

93 item lexiko bildu ditugu talde honetan. OEHko goi-nafarrera etiketarekin du bat etortze gehien, 47, hain zuzen ere<sup>106</sup>. Etiketa hori duten elementuak alde batera utzirik, Baztanekin *ganbara* eta *uzkur* partekatzen ditu, Zaraitzurekin *aurkintze*, *etxamaxter*, *kristio* eta *ones on*; eta erronkarierarekin *abrastu* ‘aberas-tu’ eta *ezaumentu* ‘jakintza’.

## a) Hitz esanguratsuenen iruzkina

*atra*

Gorago aztertu ditugun *abrats* eta *abre* aldaera sinkopatuak ez dira Baztanen lekukotu, baina *atra* ‘atera’ goi-nafarreraz, ipar-Esteribarren, baztaneraz, zaraitzueraz eta erronkarieraz jaso da. Hego-nafarreraz, mendebaldekoan izan ezik, azpizkera guztietan jaso da.

*ear*

Larramendik (s.v. *seco*) *sicua*, *leorra*, *idorra*, *agorra*, *leihorra*, *elcorra*, *sicatu* eta *leortua* ematen ditu. OEHren arabera, zaraitzueraz bakarrik erabiltzen da *ear* ‘seco’. ErdHNaz eta EkiHNaz ere jaso dugu, *eiartu* aldaerarekin batera. Lizarragak *ear*, *idor*, *seko* eta *leor* darabiltzala ikusi ahal izan dugu. Ziurrenik, laurak eguneroko ahozko hizkuntzan erabiltzen ziren Eguesibarren, hego-nafarrerazko corpusak hala erakusten baitu, eta berdin gertatzen da *idor* hitzarekin ere. Bonapartek *seko* eta *sekatu* jaso zituen (Ondarra, 1982: 160) hego-nafarreraz eta Aezkoan *txukatu* aldaera ere badago. Gure corpusean *lehor* ere ageri da, baina Lizarragak aurreko hiru hitz eta aldaerak pertsona edo objektu ororen egoerari erreferentzia egiteko erabiltzen ditu; aldiz, *leor* lurrari (*leorlean*, *leorretik*...) edo haren egoerari erreferentzia egiteko erabiltzen du soilik. Hego-nafarreraz jaso dugun agerpen bakarrak, ordea, ez dio lurrari erreferentziarik egiten: “[...] aliqueta leortu arte Jangoicoaren iturri misericordiaoac [...]” (Satrustegi, 1987: 67).

106 *Ainberze*, *aldartez*, *alzin*, *alzinatu*, *arara*, *aunka*, *auspeska*, *autxi*, *bedeikatu*, *bedeizio*, *bekala*, *berla*, *betikos*, *ebek*, *elle*, *elleba*, *elleba*, *ellegatu*, *entendatu*, *eraizio*, *erdetxi*, *errespondatu*, *erte*, *ertxi*, *espiritualkiro*, *estado*, *etxiden*, *etxokandre*, *gastigatu*, *gau*, *geldi-geldia*, *goñata*, *grazia*, *iduritu*, *jito*, *katuli*, *maindre*, *maiza kozkor*, *onate*, *orgatik*, *otrontze*, *perlesiatu*, *soñatu*, *tresena*, *urbilen*, *urrikitan*, *urrintzu*.

*elleba*

Bi adierarekin erabiltzen du Lizarragak *elleba*, goi-nafarreraz bezala. Batetik, euskara batuan *iloba* dena adierazteko, eta bestetik (*bir*)*biloba* dena adierazteko. Hori argitzeko, Rivadeneiraren Flos *Sanctorum*eko pasarteak baliatu ditugu. Hona hemen alderaketak:

*Flos Sanctorum* (1716 (2): 351): “[...] y el fin de Maria penitente, su sobrina”

JMSB (1994: 153): “Elléba Maria ere iltze handic borz [...]”

Era berean, ‘birbiloba’ adierazteko, San Francisco Borjaren bizitzari eskainitako pasarteak:

*Flos Sanctorum* (1716 (5): 334): “primogenito de [...] Doña Juana de Aragon [...] hija de Don Alfonso de Aragon [...] hijo de el Rey Catholico”

JMSB (1994: 267): “[...] Errége Catholicoen elléba”

Aezkoan *ailoba* eta *eiloba* aldaerak daude *CaminoAen*, biak ‘iloba’ eta ‘biloba’ esanahiarekin.

*etxamaxter*

EHHAn ageri denaren arabera, erdialdean eta hego-ekialdean nagusi dira *etxa-* gabeko aldaerak, mendebaldean erabiltzen diren *errenteru* eta *errentadore* hitzen edota ipar-ekialdeko *bordari*, *etxetiar* eta antzekoen aldean. Hala ere, Lizarragak bi aldaerak erabiltzen ditu, baita pasarte berean ere “*echamachstér*” (1994: 184) eta “*machsterrarén*” (1994: 185) aurki ditzakegu.

*oron*

Aezkoan ere badagoen *bi orontako* testuinguruan aurkitu dugu soilik (1994: 228). Hiru agerpen ditu Lizarragak, digitalizaturik dauden bere lan guztiak kontuan harturik. Horrez gain, *oron batean* aurkitu dugu behin eta *oren batean* beste behin. Denbora zenbatzerakoan, *ordu* erabiltzen du batez ere: “*zazpi órdus*” (ib.), “*bi ordu*” (ib.), “*ordubát*” (ib.). EHHaren arabera, hori da Nafarroan oro har lekukotu den forma, Luzaiden eta Zugarramurdin izan ezik.

*uzkur*

EHHako datuen arabera, Nafarroako herri gehienetan ErdHNan eta EkiHNan ere jaso dugun *kuzkur* aldaera dago. ErdHNan *uxkur* jaso da *IbarraHn*, baina Lizarragak Baztanen eta Aezkoan lekukotu den bustidura gabeko *uzkur* aldaera darabil.

-zutu

‘aldi, aro’ adierazi nahi duen atzizkia Piriniotako euskalkietan lekukotu da. Normalean bizitzaren aldiei erreferentzia egiten dioten adjektiboekin ageri da (*aurzutu, zarzutu...*), baina ez da hori aurkitu dugun erabilera bakarra, adibidez, ikasle garaiari “estudiantezutu” (1994: 228) esaten baitio Lizarragak. *IbarraHn aurzutu* eta *zarzutu* jaso dira eta Lizarragak *aurzutu, estudiantezutu, gastezutu, mutikozutu, txikizutu, txipizutu, zarzutu* darabiltza JMSBn.

b) Eremuan lekukoturiko lexiko guztiaren zerrenda

**Hitzak:** *akar* ‘errieta’, *aldartez* ‘aldika, tarteka’, *aldioro* ‘beti, adi guztietan’, *alkegabe* ‘gainerako pertsonen iritzia kontuan hartzen ez duen pertsona; lotsagabe’, *almadraka* ‘koltxoia’, *altxatu* ‘ezkutatu’, *area* ‘harea’, *arroitu* ‘is-tilu, zalaparta, zarata, eztanda’, *askitu* ‘nahikoa izan’, *aurzai* ‘beste norbaiten haurrak zaintzeaz arduratzen den pertsona’, *entraña* ‘gizaki eta animaliek gorputz barnean dituzten organoak’, *eri* ‘behatz, atzamar’, *errespondatu* ‘erantzun’, *estado*, ‘egoera’, *ganbara* ‘lo egiteko erabiltzen den gela’, *gastigatu* ‘jakinarazi, ohartarazi esan’, *izotzil* ‘urteko lehen hilabetea’, *lamikatu* ‘miazkatu, mihiarekin igurtzi’, *oian* ‘mendi’, *otrontze* ‘jateko hitzordua, otordua, jatordua’, *perlesiatu* ‘elbarri, paralizatu’, *tresena* ‘jantzi, arropa’, *urrikitan* ‘damuturik’, *urrintzu* ‘usain txarrekoa, itsusia, gaizki ikusia’.

**Aldaerak:** *abrastu* ‘aberats bihurtzearen ekintza eta ondorioa’, *ainberze* ‘izen edo aditz baten balioa areagotzeko erabiltzen den partikula’, *alzin* ‘aurre’, *alzinatu* ‘aurreratu’, *ardantze* ‘mahasti’, *arrazio*, ‘zio, zergati’, *atra* ‘atera, barrutik kanpora igaro’, *aunka* ‘zakurrek atera ohi duten zarata edo oihua’, *aurkintze* ‘topaketa’, *auspeska* ‘ahoz behera’, *autxi* ‘apurtu’, *barin* ‘baldintzazko *ba-* partikula indartzeko haren aurrean jarri ohi den hautazko partikula’, *bedeikatu*, ‘zerbaiti edo norbaiti ezaugarri sakratuak ematea’, *bedeizio* ‘bedeinkatzearen ekintza eta ondorioa’, *bekala* ‘bezala, era berean’, *berla* ‘denbora tarte laburrean, azkar’, *betikos* ‘momentu batetik aurrera denbora mugarik gabe’, *biramon* ‘aipatzen ari den egunaren hurrengo eguna; bihar-mun’, *biztu*, ‘berpiztu; hilik dagoena bizitzara itzuli’, *biztu*, ‘konbustiorik ez izatetik izatera pasatzearen ekintza eta ondorioa. baita sentimendu bizien kasuan’, *borz* ‘bost zenbakia’, *ear* ‘lehorra, idorra’, *eartu* ‘lehortu, disekatu’, *ebek* ‘1. graduko izenordaina’, *elle* ‘artilea, ardiaren ilea’, *elleba*, ‘norbaiten anai-arreben seme-alabetariko bakoitza. iloba’, *elleba*, ‘biloba eta birbiloba’, *ellegatu* ‘iritsi’, *entendatu* ‘ulertu’, *eraizio* ‘ereitearen ondorioz lortzen den lehengaia’, *erdexi* ‘loritu, atzeman’, *erte* ‘arte, tarte’, *ertxi* ‘estu, mehar’, *espiritualkiro* ‘espirituari dagokion moduan’, *etxamaxter* ‘etxean alokatuta bizi den pertsona, dirua edo lanarekin ordaintzen duena’, *etxiden* ‘itxoian’, *etxokandre* ‘etxeokandre, etxeaz arduratzen den emakumea’, *ezaumentu* ‘ezagutza, jakintza, kontzientzia’, *geldi-geldia* ‘oso geldirik, zeharo geldirik’, *goñata* ‘koinata’, *guartu* ‘ohartu’, *iago*, ‘alderaketan balio edo kopuru altuagoa duela

adierazteko erabiltzen den adberbioa ‘, *iago*<sub>2</sub> ‘ezezko perpausetan aditzaren ekintza eten dela adierazteko’, *iago*<sub>3</sub> ‘aipaturikoa areagotu edo elementuak gehitzeko’, *iduritu*<sub>2</sub> ‘iruditu, eman, antza izan’, *jito* ‘ijito arrazako pertsona’, *karaka* ‘solosalদি hutsala’, *katuli* ‘edukiontzi sakona, zabala eta ez oso handia’, *kristio* ‘kristau’, *maindre* ‘izara, oherako erabiltzen den oihala’, *maiza kozkor* ‘artaburuari aleak kentzean geratzen dena’, *oin urtusian* ‘oinutsik, oinetakorik gabe’, *ondoreko* ‘ondorengo, oinordeko’, *ones on* ‘asmo onez, inor kaltetzea bilatu gabe’, *orgatik*<sub>1</sub> ‘zerbaiten zergatia adierazteko’, *oron* ‘ordu’, *ortzi* ‘lurperatu, ehortzi’, *soñatu* ‘soinua atera, jo’, *txutirik* ‘zutik’, *urbilen* ‘hurrengo’, *uzkur* ‘makur’.

### c) Ondorioak

Ikusi denez, Nafarroan eremu zabalagoa hartzen duen lexikoa alde batera utzirik, harako GN etiketa duenak, Lizarragak darabilen lexikoak ekialderanzko joera nabarmenagoa du, Baztan aldera baino.

#### 3.3.4.5. Hego-nafarreraren muga markatzailea den lexikoa

Orain artean hego-nafarrera inguruko hizkerekin lotzen zuen lexikoa aztertzen aritu gara, eta atal honetan kontrako norabidea hartuko dugu, hots, hego-nafarrera inguruko hizkeretatik bereizten duten hitz eta aldaerak zein diren aztertuko dugu. Azterketa hau egiteko, Iñaki Caminoren *Hego-Nafarrera* liburua baliatu dugu eta zenbaitetan hapax edo lehen erabileratzat hartu ditugun zenbait sarrera ere aipatu eta erabili behar izan ditugu. Nolanahi ere den, haiei eskainitako atalean informazio xeheagoa eman dugu bakoitzaren gainean (§ 3.2.1.).

Lizarraga hego-nafarrerarekin lerraturik ageri da, inguruko hizkeretan gertatu diren zenbait berrikuntzaren aurrean gordetzaile agertzean: *i + g* eta *i + h* segmentuetan ez du irristari epentetikorik adierazten, ez du palatalizaziorik etorkizuneko morfeman (*tuko* > *-tiko*)<sup>107</sup> edota \**ezan* erroko *-itz-* pluralgilean (> *-tx-*) eta ezta ahalerazko *-ke-* morfemaren pleonasmorik ere.

Caminok esklusiboki hego-nafarrerazkotzat harturiko zenbait aldaera aipatzen ditu bere lanean eta Lizarragak horietarik hauek darabiltza: *atxon* usain gozo’, *barin* ‘baldin’, *berere* ‘bederen’ (baina ez *berare*), *elle* ‘artile’ (baina ez *eile*), *eraiki* ‘erein’ (baina ez *ereki*), *jendamende* ‘belaunaldi’, *katuli* ‘katilu’, *kurtu* (& *makurtu*), *mereji* ‘merezi’, *montiatu* ‘pilatu’ eta *nirabe* ‘zerbitzari’. Hego-nafarrerazkoa den *arkindu* ‘aurkitu’, aldiz, aditz-izen forman bakarrik dara-

107 Bilakabide honen adibide ugari jaso dugu ipar Esteribarko Eugi eta Iragiko lekukoengandik.

bil (*aurkintze*)<sup>108</sup> eta gainerakoan *aurkitu*. *Iragazi* hitzaren kasuan, JMSBn hego-nafarrerazko eskusiboa den ‘irabazi’ balio semantikoarekin darabil,<sup>109</sup> *Sermoiak* lanean bezala.

Beste zenbaitetan, aldiz, eremu zabalagoko hitz edo aldaerak erabiltzen ditu hego-nafarrerazko eskusiboak beharrez: *agirtu* ‘agertu’ aldaeraren kasuan, *agertu* darabil eta *antija* ‘doministiku’ beharrezan *at(r)ija*, ia Nafarroa osoan erabiltzen den bezala (EHHA 2092). Hego-nafarrerazko *armam(b)ilo* hitzaren kasuan, Lizarragak *armiarma* eta *armirmau* erabiltzen ditu,<sup>110</sup> eta beste askotan ere antzera jokatzeko du: *arroitze* ‘arraultza’ beharrezan, *arrautze*; *bejain* ‘bezain’ ordez, *bezain*; *bejala* ‘bezala’ ordez, *bekala*; *ez biko* ‘piku’, *biku* baizik; *bortzetan ogei* ‘100’ ere ez du erabiltzen, *eun* baizik, baina eremu zabalagokoak diren *iruetan ogei* ‘60’ eta *lauretan ogei* ‘80’ erabiltzen ditu. Ez du *dristetu* ‘distiratu’ edo oinarri lexiko bera duen *distiraturen* aldaerarik erabiltzen, *istargitu* hapaxa baizik. Sudurkariarekin erabiltzen du beti Lizarragak *egun* ‘gaur’ forma, Aezkoako *egu* beharrezan. Ez ditu erabiltzen *eramo* (*eraman* eta *erman* soilik), *igau-treak* ‘ihauteriak’ (*iaute* baizik), *igor* ‘inor’ (LE *nior*), *ijan* edo *iken(du)* ‘izan’ (LE *izan*), *il(l)unsarre* (LE *ilunabar*), *llano* (LE *lañu*), *oreitu* ‘oroitu’ (LE *oroitu*), *otsots* ‘ostots’ (LE *ortots*), *oxtoxirik* ‘ortozik’ (LE *oin urtusian*), *sasi* ‘zutik edukiarazi’ (LE *xasi* eta *jasi*), *sautsi* ‘jaitsi’ (LE *xautsi*), eta ezta *sostatu* ‘jostatu’ (*txostatu*) ere.

Hego-nafarrerarekin muga egiten duten hizkerekiko banatzailea den lexikoa<sup>111</sup> aztertuko dugu heldu diren puntuetan, mendebaldetik hasi eta ekialdera. Ezin izan dugu HHNarekin muga egiten zuten hizkerekiko alderaketarik egin, ezin izan baitugu daturik eskuratu. MHN eta Sakanaren arteko alderaketa egiten dugu, ipar-Esteribar eta Anueren artekoa, ErdHN eta Baztanen artekoa, Aezkoa eta Garaziren artekoa eta bukatzeko Aezkoa eta Zaraitzuren artekoa. Azterketa honen helburua, banatzailetzat hartua den lexikoaren aurrean, Lizarragak noiz egiten duen batera eta noiz bestera ezagutzea da.

108 “Baña Jangoikoaren aldetik grazia, bere aldetik juntatzen zue dilijenzia, goardatus sentidoak, espezialki begiak, ibilis modesto, ta apartatus peligroetaik, espezialki emastekien konbersazio, ta aurkintzeetaik” (1994: 464).

109 “[...] batálla adiña biktória kontatu zuéla; kastelu, zitudade, erreinu akometitu zituen guziák guziák iragazi zituéla; eta alá Moroén errege batzúk garaiturik kendu zitue” (1994: 193). Beherago, hurrengo paragrafoan: “Nai zueláik irabázi Sevilla, biali zue [...]” (1994: 194).

110 Ibarrek *armimaro*, *armiarma* eta *armimagu* jaso zituen Erroibarren. Hego-nafarrerazko corpusen hauek aurkitu ditugu guk: *arbanbilo* (ErdHN<sup>^</sup>), *armanbilo* (ErdHN<sup>^</sup>), *armamilo* (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), *armamelo* (ErdHN<sup>^</sup>), *armamila* (EkHN<sup>^</sup>), *armigu* (ErdHN<sup>^</sup>).

111 Alderaketarako Camino (2004: 91-118) erabili dugu.

- **MHNaren mugak**

Mendebaldean hego-nafarrerak Sakanarekin egiten du muga eta Lizarraga batzuetan Goñerrirekin doa, baina beste batzuetan Sakanarekin. Honako hauek hego-nafarrerazko item lexikoak dira, Sakanarekiko banatzaileak, eta Lizarragaren lanean ageri direnak (Camino, 2004a: 103-105):

**Hitzak:** *aingiru* ‘aingeru’, *atra* ‘atera’, *bertz* ‘lapiko handia’, *biku* ‘piku’, *bortz* ‘bost’, *buluxi* ‘biluzi’, *erdetxi* ‘erdietsi’, *gibel*<sup>112</sup>, *izotzil* ‘urtarrila’, *ukitu*.

**Aldaerak:** *aitzin*<sup>113</sup>, *alke* ‘lotsa’, *atzendu* ‘ahaztu’, *bilo* ‘ile’, *deus* ‘ezer’, *ebatsi* ‘ostu’, *matel* ‘masaila’.

Gorago aipatu dugu (§ 3.3.1. eta § 3.3.3.2.) hego-nafarreraren hizkeretan halako ekialdeko kutsu bat antzeman daitekeela eta, ikusten denez, oro har Lizarraga ekialdeko forma eta aldaeretan dator bat MHNarekin. Badirudi, beraz, bat etortzeak ez direla Lizarragak harturiko erabakien ondorioz, isoglosaren bi aldeek partekatzen zuten lexikoarengatik baizik. Jarraian, Lizarragaren lanean eta Sakanan lekukoturiko lexikoa emanen dugu, Goñerrin ageri ez dena.

**Hitzak:** *alor* ‘landutako lur saila’, *primabera* ‘udaberri’.

**Aldaerak:** *amaiyarreba* ‘amaginarreba’ (LE *amaiarreba*), *amiña* ‘amati’, *atxun* ‘aitona’, *bialdu* ‘bidali’, *eman* (LEk baita *eraman* eta *erman* ere), *infernu*.

Zenbaitetan, Lizarragak mugaren bi aldeetan lekukoturiko aldaerak erabiltzen ditu. Hori gertatzen da *soro/alor* eta *aitzin/aurre* bikoteen kasuan. Guztia-ekin ere, Sakana edo Araban lekukoturiko lexiko partekaturik ez dugu aurkitu, halakoetan, hego-nafarrerazko aldaerak erabiltzen dituela ikusi baitugu, hau da, *barga* ‘haitza’, *beko(s)ki* ‘kopeta’, *idugi & iruki* ‘eduki’, *iregi* ‘ireki’ eta *martso* ‘martxoa’<sup>114</sup> beharrean, JMSBn *peña*, *kopeta*, *iduki*, *idiki* eta *martxo* daude.

Arakil ibarra polimorfismo ugari duen eremua da, eta, halakoetan, Lizarraga ekialdearekin ageri da beti. Esaterako, *-st-* / *-rtz-* kontsonante taldeari dagokionez, Lizarragak sistematikoki eta salbuespenik gabe *-rz-* (frikariarekin) erabiltzen du: *berze*, *ainberze*, *orrenberze* eta *erze* (eta horien forma deklinatuak). Aurrez azaldu dugun (§ 3.3.3) hitz hasierako *\*[j]*- zaharraren ordain diren *[j]*- eta *[x]*- bilakabideen kasuan, Lizarragak *etxakin*, *txusto*, *txastatu*, *txostatu*, *xaiki*, *xakin* eta *xautsi* hitzekin bakarrik erabiltzen du. Irañetan, xx. mende hasie-

112 Goñerrian, Sakanan eta JMSBn *atze* ere badago.

113 Goñerrian, Sakanan eta JMSBn *atze* ere badago.

114 Caminok horiez gain *eskutur* ‘eskumutur’, *kunkun* ‘apoa’, *okaran & aran*, *zille* ‘zilborra’ aipatzen ditu, baina JMSBn ez dugu horien ordainik aurkitu.

ran (EI) *xan*, *xakin* eta *xegi* jaso ziren. Irurtzun inguruan *eu* > *au* bilakabidearen muga dago, hala, Ihabarren eta Irañetan *auri* ‘euri’ eta *aurri* ‘neurri’ eta EkiHN-an *aultz* ‘eultz’ jaso dira, baina Lizarragak *eultz*, *euri*, *euri ugerre*, *neurri* eta *neurritu* darabiltza (§ 3.3.3). Era berean *esan* erabiltzen da mendebaldean eta *erran* ekialdean.

• **ErdHNaren mugak**

Iparraldean, ipar-Esteribarreraino iristen den hego-nafarrerazko lexikoaren eta Anuen erabiltzen denaren arteko alderaketa egin zuen Caminok. Lizarragak erabilitakoak gehienetan ipar-Esteribarren du etena, baina kasu gutxi batzuetan Anuera ere hurbiltzen da. Hauek ipar-Esteribarrek eta hego-nafarrerak partekatzen dituzten Lizarragaren lexikoko hitzak dira:

*Futoska*<sup>115</sup> ‘purrustaka, kexaka’, *iskiritu* ‘oihu’, *izotzil* ‘urtarrila’.

Honakoak ipar-Esteribarrek eta hego-nafarrerak partekatzen dituzten Lizarragaren lexikoko aldaerak:

*Albas* ‘ahalaz’, *atson* ‘usain on’, *belauriko* ‘belauniko’, *berere* ‘bederen’, *buhuxi* ‘biluzi’, *elle* ‘artile’, *eraiki* ‘erein’, *jasi* ‘eutsi, zutik irauarazi’, *kazkaragar* ‘kazkabar’, *pizu* ‘astun’.

Horiez gain, Eugin *aixtean* ‘arestian’ aurkitu dugu eta baita Anueretikiko banatzaileak diren *atson/urrin on*, *iskiritu/oiu* ere. *IriarteEn* jasotakoaren arabera, Eugin aferesia dago *karri* ‘ekarri’, *man* ‘eman eta *torri* ‘etorri’ hitzetan. ErdHNko *karri* eta EkiHNko *man* aldaerek ahozkoan aferesiarekin erabiltzen zirelako aukera kontuan hartuzera eraman gaituzte, baina Lizarragak ez du halakorik. *Betiroko* beharrean *betiko* jaso dugu Eugin eta *idukiren* ordeztan, *iruki* ‘eduki’ eman digute 4 kasuetan.<sup>116</sup> Oinarri lexiko ezberdina dago Lizarragak erabili *mintzatu* eta Eugin jasotako *yolastu* eta *yolas egin* hitzen artean.

Erdialdeko hego-nafarreratik iparraldera erabiltzen diren *akaitu* ‘nekatu’ eta *zerik* ‘nola’ erabiltzen ditu Lizarragak, baina ez Baztanen eta Aezkoan leku-koturiko *ele* ‘hitz’ eta *tzitzar* ‘kazkabar’, haien ordain *itz* eta *arrrerauntsi/kazkaragar* darabiltza Lizarragak.<sup>117</sup>

115 Guk Iragin egindako inkestetan hitz hori ez zutela ezagutzen esan digute.

116 *iduki*<sub>1</sub> ‘norbait edo zerbait leku batean izan. Eduki’, *iduki*<sub>2</sub> ‘zerbaiten jabe izan. Eduki’, *iduki*<sub>3</sub> ‘-tzat hartu, iritzi’, *iduki*<sub>4</sub> ‘eutsi’.

117 Caminok horiez gain *kuxeta* ‘koilara’, *larrazken* ‘udazken’ eta *okitu* ‘aberats okitu’ ematen ditu HN eta Baztango euskararen eremuan (2004: 99).

• **EkiHNaren mugak**

Aezkoa eta Garaziren arteko muga lektalari dagokionez, honako hitz hauetan Lizarraga EkiHNrekin batera doa:

*Abuztu* (LEk *agustu*), *akatu* ‘bukatu’ (LEk *akabatu*), *amatxi* ‘amandrea’ (LEk *amabitxi*), *argizari*, *atra* ‘atera’, *bilatu*, *bular*, *erroi* ‘bele’, *ezkila* ‘kanpaia’, *etorri*, *garil* ‘uztaila’, *garagartzaro* ‘ekaina’, *laronbat* (LEk *larunbat*), *oñaztura* ‘lurra ukitzen ez duen tximista’, *urri* ‘iraila’, *ziriku* ‘zeta’.

Aldaera hauetan ere EkiHNrekin doa:

*Amets*, *ardo*, *aste*, *atari* ‘atea’, *goatze* ‘ohea’, *Jangoiko*, *sor* ‘gor’, *ukitu*.

Garaziraino iristen diren *sukar* eta *odei* erabiltzen ditu Lizarragak eta mugaren bi aldeetako formak *at(r)ija in/urtzintz in*, *bolatu/airatu*<sup>118</sup> eta *aurpegi/begitarte* elementuen kasuan.

Hego-nafarreraren eremutik ekialdera Zaraitzu ibarra dago. Lexikoari dagokionez, aldea dago Aezkoa eta Zaraitzuren artean, eta jarraian emanen ditugunak Aezkoan lekukoturiko aldaerak dira. Lizarraga ez doa beti Aezkoarekin bat, eta halakoetan erabiltzen duen aldaera eman dugu parentesien artean:

**Hitzak:** *afari*, *aide* ‘senide’, *atzendu* ‘ahaztu’, *barkatu*, *basurde*, *deitu*, *denbora*, *ekarri*, *eltxo*, *erregu* ‘gari neurria’, *etorri*, *etxe*, *ezkondu*, *gerra* ‘gudu’, *ibili*, *ikusi*, *inguratu*, *kopeta* ‘bekoki’, *mutiko*, *ordu*, *oñaztura* ‘tximista’, *pasatu* ‘igaro’, *utzi*, *zein*, *zenbat*.

**Aldaerak:** *aitautxi* (LEk *aitabitxi*), *akatu* ‘bukatu’ (LEk *akabatu*), *amiña* ‘amona’, *amutxi* ‘amandre’ (LEk *amabitxi*), *arropa* ‘gona’ (LEk *arropa*), *atra* ‘atera’, *berendu* ‘askari’ (LEk *merendu*), *goatze* ‘ohe’, *gurutze*, *iduki*, *kafia* ‘habia’, *muña* ‘muina’, *ukitu*.

*Akatu* eta *merendu* hitzen kasuan, Lizarragak gaztelaniazko formatatik (*acabar*, *merienda*) gertuago dauden aldaerak darabiltza.

Zaraitzurekin doa *ke*, *ordi* ‘mozkor’ eta *xarduki* ‘mintzatu’ (LEk *jarduki*) hitzetan. Hego-nafarrerak eta zaraitzuerak partekatzen dituzten eta Lizarragak erabiltzen dituen elementu lexikoen sorta bat ere badago: esaterako, *butzu* (LEk *butzanka* hapaxa ere badu), *entendatu*, *iago* (*geiago* hedatuagoaren kasu gutxi batzuekin batera) eta *eskui*. *Albas* ‘ahalaz’ eta *burrin* ‘burdin’ (LEk *burriñ*) hitzek, hego-nafarreraren banatzaileak diren arren, Zaraitzuranzko isuria dute. *Lastall* ‘urria’ adierarekin erabiltzen da ErdHNan, eta halaxe egiten du Lizarragak ere; Aezkoan eta Zaraitzun ez dago, ordea.

118 *Airatuk* agerpen bakarra du.



### 3.3.4.6. Hego-nafarreraren bi joerak

Orain arte aztertutako item lexiko batzuetan ikusi dugunez, bi joera-edo antzeman daitezke hego-nafarreraren barruan: mendebalderago dauden hizkeren eragin nabarmenagoa duena bata (funtsean ekialdeko hizkera izan arren) eta ekialderagokoena bestea.

Iruñe inguruan biltzen da hego-nafarreraren isoglosa kopururik nabarmenena (§ 3.3.1.). Balirudike Eguesibarreraino (ErdHN) argiago iristen direla ekialdeko lexikoaren oihartzunak, eta handik ezker oso gertu, Oltza zendea, pixkaka Euskal Herriko erdiguneko hizkerenek estaltzen dituztela.

Lizarraga Elkanokoa izanik, isoglosa horretatik hain gertu egoteak haren eraginik izan ote zuen argitu nahi dugu, Eguesibarko euskararen izaera eza gutu eta horren aurrean nola jokatu zuen aztertutik. Hasteko, atal honetan isoglosa horren bi aldeetara kokatzen diren elementuak aztertuko ditugu. Lehenik, ErdHNan eta EkiHNan lekukoturiko hitz eta aldaerak, eta haien artean banatzaileak direnak azalduko ditugu. Ondoren, MHNko eta HHNko elementuekin berdin egingen dugu.

- **Isoglosaz ekialderako lexikoa**

Esan berri dugun bezala, azpial honetan, hego-nafarreraren ekialdeko hizkeren lexikoa aztertuko dugu, bertako elementu bateratzaileak eta banatzaileak aurkeztu eta Lizarragak horien aurrean izandako jokabidea aztertuko dugu. Ondoren, noiz doan ekialdearekin eta noiz mendebaldearekin erakutsiko dugu.

- ErdHNak eta EkiHNak partekatzen dituzten ezaugarri ugari ageri dira JMSBn. Esaterako, herskaridun erakusleak (cf. *gau* ‘hau’<sup>119</sup>); *-l* bukaturiko gaztelaniazko maileguetan *-le* atzizkiaren erabilera (*arbole, kristale...*); instrumentaleko mugatu singularraren hedadura (*ixilkias, gauasko zortzikoetan...*); izenari *-ko* atzizki sintaktikoa eransterakoan *-ta-* artizkia eranstea nolakotasuna adierazterakoan<sup>120</sup>; baldintzazko perpausetan *-tzekos*<sup>121</sup> atzizkia erabiltzea; xedezko

119 Caminok 1982an Eugin ezaugarri honen adibideak jaso zituen (*pantano gontas*), baina guk egindako grabazioetan ez dugu halakorik aurkitu. Galdetu dugunean, ez dutela halakorik erabiltzen esan digute lekukoek. Badirudi, beraz, galdu den ezaugarri baten aurrean gaudela.

120 Ipar Euskal Herriko, Erronkariko, Aezkoako eta Erroibarko ezaugarria da hau. “Biótz jeneróso *anditákoa* bekála” (1994: 336).

121 *-tzekos* atzizkia ErdHNan, EkiHNan eta Ultzaman lekukotu da: “Bera ez *iltzekós* su amoréskoas, beár ze bústi ur ótzes bulárra, bésoak, aurrégia” (1994: 454).

-*t(z)ekotan*<sup>122</sup>; perpaus erlatiboetan burua ezkerrean agertzea<sup>123</sup>; eta *ere* partikula daramaten perpausetan aditza indartu nahi denean partikula aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean agertzea<sup>124</sup>.

Lexikoari dagokionez, honako hauek dira Lizarragak darabiltzan eta ErdHN-an eta EkiHNan lekukoturiko hitz eskusiboak:

*atxon* ‘usain ona’, *disposizio2* ‘jarrera’, *errokatu* ‘artilea, zeta, kotoia, etab. hari bihurtu’, *kuadratu* ‘gustuko izan’.

Honakoak bertako aldaerak:

*kristale* ‘kristala’, *kurtu* ‘makurtu’.

• ErdHNaren eta EkiHNaren artean badago banatzailea den lexikoa *ere* (Camino, 2004a: 111-113). Jarraian ikusiko dugun bezala, Lizarragak batzuetan ez du ez bataren ez bestearen alde egiten, eta eremu zabalagoko hitzak edota HNtik geografikoki gertu dauden hizkeren aldaerak darabiltza. Hauek dira Eguesibar Aezkoatik bereizten duten hitz eta aldaerak. Lizarragak beste aldaera bat darabilenean edota Aezkoarekiko aurkaritza argiago gera dadin, oharrak eman ditugu parentesien artean:

**Hitzak:** *azaro* ‘11. hilabetea’ (Aezkoan ‘10. hilabetea’), *estrabille* ‘ukuilu’, *galzina* ‘karea’ (LEk *kalzina*), *kalentura* (LEk baita *sukar ere*; Aezkoan *berotasun*), *lastall* ‘urria’, *opatu* ‘topatu, aurkitu’, *tellatu* (Aezkoan baita *etxein ere*), *zartagi* (LEk *zartegi*; Aezkoan *kaxo*).

**Aldaerak:** *amabirjin*, *amiru* ‘hamahiru’ (LEk *amirur*), *anaia*, *armimau* ‘armiarma’, *arrapatu* ‘harrapatu’, *arrantze*, *ausnarri* ‘tximista’, *burrin* (LEk *burriñ*), *elle* ‘artile’, *erakutsi*, *erdetxi* ‘erdietsi’, *eriki* ‘erein’ (LEk *eraiki*), *erte* ‘tarte’, *fritatu* ‘frijitu’, *izerditu*, *izur* ‘kizkur’, *joan* (Aezkoan *fan*), *kanibeta* ‘labana’, *kendu* (Aezkoan *ekendu*), *lañu* ‘laino’, *maingi* ‘herren’, *naurritu* (LEk *neurritu*), *negar* ‘malko’, *oroitu*, *ortots* ‘trumoi’, *otsarroi* ‘bele’, *peña* ‘harria’ (Aezkoan *peina*), *pike* ‘likido likatsua’, *sinestatu*, *zulatu* (Aezkoan *zilatu*).<sup>125</sup>

Ikusten denez, Lizarragak jatorrizko formatik gertuago dagoen *kalzina* (gazt. *calcina*, Berriainek bezala) darabil. Gorago aipatu dugun bezala, ez du

122 Malerrekan, Bortzirietan eta Baztanen baldintzazko balioa du atzizki horrek; Lizarragak, ordea, EkiHNan eta ErdHNan ohikoa den xedezko balioarekin erabiltzen du. Adibide honetan argi ikus daiteke *-tzeikos* eta *-tzeotan* atzizkien arteko aldea: “[...] Sanduak ezin ori sopórta, ta ezin erremé-dia berriró eskatu zió lizenzia: eta Errégek etzió eman nái, baizik joatekós zoeiéla desterraturik, ez itzultzekotán” (1994: 439).

123 “Ondoreán izán zue espiituaren elebázio sobrenaturale bát, zeintan ikusi zuén *Aingiruen tropa eldu zéna arimarén eske*” (1994: 194).

124 “[...] goratu zióte ásko testimonio fálsu, ta *akusátu ere zíte* Aita Sanduarén preséNZian (1994: 453).

125 Alderaketa hauetan kronologia aintzat hartzeko da, zeren behar bada inoiz *joan* izan baitzen Aezkoan, *eile* despatalizazioz *elletik* heldu da, berdin *peina peñatik*, etab.

ematen XVIII. mende bukaeran Eguesibarren eta Lizarragarengan *eu* > *au* bilakabidea gauzatu denik (cf. *naurritu*). Gure corpuseko lanik zaharretan *eu* dago eta berriretan *au*, baina kasu batzuetan soilik. Ondokoak Aezkoako hitz eta aldaerak dira, Lizarragak erabiltzen dituenak, baina ErdHNko gainerako testuetan ez daudenak:

**Hitzak:** *oinpe* ‘oin zola’.

**Aldaerak:** *atsartu* ‘arnasa hartu’, *aztapar* ‘atzapar’, *defendatu*, *egazti* (LEK *egaste* ere darabil), *eri-beatz* ‘erpuru’, *erman* ‘eraman’, *ilunabar*, *iretsi* ‘irentsi’, *irur* ‘hiru’, *itsusi*, *kafia* ‘kabi’, *kristio*, *laur*.

Talde horretara bildutako *irur* eta *laur*-en kasuak eremuari ez ezik, kronologiari ere badagozkio. Bonapartek Elkanon Jose Javier Larrainzarrengandik *iru* eta *lau* aldaerak jaso zituen (Ondarra, 1982: 153), dela Lizarragak gordetzaile jokatu zuelako, dela Lizarragaren garaitik Larraintzarren XIX. mendearen bigarren erdialdera aldaketa gertatu zelako.

Bi eremuetako aldaerak ere erabiltzen ditu batzuetan Lizarragak. Esaterako, Eguesibarren lekukoturiko *itxeki* ‘piztu’ eta Aezkoan dagoen *biztu*, edota Eguesibarko *bota* eta Aezkoako *botatu*.

Gerta daiteke garai batean eskualde zabal hartan (Aezkoa / Artzibar / Agoitz = Longida / Eguesibar) aukeran zeuden bi formak erabiltzea Lizarragak, eta biak Eguesibarkoak izatea; eta gerta daiteke Lizarragaren garaian Aezkoan ere bi forma horiek erabiltzea eta ondotik Aezkoan bi formetarik bat galtzea, eta egungo Aezkoako formak eta orduko Lizarragarenak alderatzean, pentsatzea aldea edo desberdintasuna dagoela bi ibarren artean. Hori izan daiteke, ordea, Lizarragak dakartzan bi formetarik bat gerora Aezkoan galdu delako, eta ez ezaugarri horretan Aezkoa eta Eguesibar ibarren artean desberdintasuna zegoelako Lizarragaren garaian.

Gerta daiteke forma bat izatea orduko Lizarragak, beste bat egungo Esteribarko eta Erroibarko euskarak eta beste bat egungo Aezkoakoak, ala Lizarragak forma bat eta egungo Esteribarrek, Erroibarrek eta Aezkoak beste bat. Kasu horretan, Lizarragarena aldaera zaharra litzateke eta berrikuntza bat legoke Esteribar-Eroibar alderdian egun, beste bat desberdina Aezkoan egun, ala Lizarragaren formarekiko berrikuntza desberdintzaile bat Esteribar-Eroibar-Aezkoako euskararen egun. Kasu guztietan denboraren iraganaren isla litzateke, Lizarragak garaiko forma dakar eta ahozko bildumak egin direnean, bai Erroibar-Esteribar eta bai Aezkoan aldaera berriagoak bildu dira, eta Lizarragaren formarekin alderatzean ageri den desberdintasuna ez da geografikoa, kronologikoa da.

Beharbada, 1904. urteko Elkanoko euskararen bazen berrikuntza gertatua Lizarragaren euskararekiko eta segur aski Erroibar-Esteribarko berrikuntzaren

antza izan lezake, ala ez, hau da, Elkanon berrikuntza mota bat, Esteribar-Erroibarren beste bat, Aezkoan beste bat, ala Eguesibar / Esteribar-Erroibar / Aezkoan berrikuntza bera, eskualdeko euskarak jasana, Lizarragaren garaiko forma zaharragoarekiko desberdina. Jakina, 1904an euskara galtzen ari zen Elkanon –baina Iruñeko apezpikutegiaren 1904ko Gidak euskaraz mintzo zirela dio (Irigaray 1974: 20)– eta ez dago orduko bertako daturik. 1904an oraindik euskaldunak daude Elkanon, baina ez dakigu Elkanoko 1904ko euskaran zein berrikuntza gertatu ziren, ez dugu orduko daturik. Ondoko eskualdeetako datuak ditugu.

Zenbaitetan Lizarragak ErdHNko eta Aezkoako aldaerez beste bat darabil. Zerrenda honetako aldaera batzuk, Lizarragaren ondotik, ondoko eskualdeetan gertatu diren berrikuntzak izan daitezke. Guzti guztiak ez, beharbada, baina batzuk bai:

*aitabitxi* ‘aitajauna’ (ErdHN *aitabutxe*, EkiHN *aitautxi*), *amabitxi* ‘amandrea’ (ErdHN *amabutxa*, EkiHN *amutxi*), *ezaundu* (ErdHN *ezautu*, EkiHN *ezoutu* & *ezondu*), *idiki* (ErdHN *iriki*, EkiHN *ereki*), *larunbat* (ErdHN *lagunbat*, EkiHN *laronbat*), *nigar in* (ErdHN *negar in*, EkiHN *niar in*), *orraz* ‘orrazi’ (ErdHN *orraxa*, EkiHN *orraxe*).

Bestela esan, XVIII. mendearen erdian ikasi zuen Lizarragak euskaraz Elkanon, eta XX.aren bukaeran bildu dira datuak Erroibarren, Esteribarren eta Aezkoan, XX. mendearen hasieran jaio ziren jendeengandik; hots, 150 urteko aldea dago Lizarragaren eta beste eskualdeetako datuen artean. Datu batzuk eta besteak alderatzean *per se* sortzen da distortsioa, nahi eta nahi ez. Distortsio hori leuntzea da ikerketaren helburua, eta alderaketa egitean, aldi oro jakitun izan behar da Lizarragaren datuetarik ondoko beste ibarretakoetara badela eragile nagusi bat, denbora, eta denbora horretan gaindi berrikuntzak gertatu direla Erroibarren, Esteribarren eta Aezkoan. Joakin Lizarragak bere garaiko euskara zaharragoa dakar, horregatik, ulertu beharko da, hein batez, Lizarragaren garaian Erroibar-Esteribarko, Aezkoako eta Eguesibarko euskararen beharbada batasun handiagoa egon zitekeela gerora izan dena baino. Lizarraga lotuago ageri da forma zaharragoei, hiru ibarretako ahozko datuetan hizkuntza berrikuntzak gertatu dira eta zertxobait urrundu dira mintzo horiek Lizarragarenetik, baina Lizarragarena aldatu ez denez, zinezko urrunketa lexikoaren zenbatekoaz jabetzea lan erlatiboa eta zaila da.

- Lizarraga hego-nafarreraren mendebaldeko hizkeretatik bereizirik ageri da JMSBn, mendebaldeko hego-nafarrerarenak diren ezaugarri hauek ez dituelako erabiltzen: *egi* > *aigi/eigi*, *o* > *au* (cf. *aungi* ‘ongi’), kontsonante ozen bustiek eragindako *a* > *e* palatalizazioa (cf. *burriñe*), *o* bokalak eragindako palatalizazioa (cf. *ardoe*). Badirudi horiek MHNko berrikuntzak direla, Larrainzarrek ere (Ondarra, 1982) ez dakarrelako horrelakorik.

MHNko eta HHNko zenbait idatzitan *-rgati(k)* motibatiboa ageri da, baina ez JMSBn, Lizarragak *-gatik* bakarrik erabiltzen baitu, beti bukaerako herskariarekin.

Hala ere, mendebaldeko hizkerekin bat etorri ez arren, (adibidez, ez dugu datiboko *-agi* eta *-egi* (cf. *agii* ‘haiei’, *egii* ‘horiei’ edota genitiboko *oigena* ‘hori-riena’ zein *aigen* ‘haiena’ formarik aurkitu) JMSBn jasotako hizkuntza ez dator beti bat ekialdeko hizkeren ezaugarriekin. EkiHNan, Arruitzen edo Oderitzen agertzen den *-kal* atzizkidun adberbiorik ere ez du erabiltzen (cf. *aldikal* ‘aldiko’, *etxekal* ‘etxerik etxe’), baina *erdikal* ‘ertain’ adjektiboa dakar<sup>126</sup>. Beriainen lanean *\*iron* erroko adizkiak lekukotu dira eta baita Ipar Euskal Herriko zenbait lekutan, Nafarroako ekialdeko mintzoetan eta EkiHNan ere (azken horretan XIX. mendean); ez, ordea, JMSBn.

- **Isoglosaz mendebalderako lexikoa**

Gesalazten, denborak aurrera egin ahala ekialdetik urruntzeko joera nabari dela erakutsi zuen Caminok (2004a: 109). Gesalazko 1735eko eta XVIII. mende bukaerako bi testu alderatu zituen eta zaharrenean ekialdearekiko lotura nabarmenagoa zegoela frogatu zuen<sup>127</sup>. Azterketarako erabilitako elementuak eta JMSBtik harturikoak aurrez aurre jarri ditugu eta bat-etortzerik gehien testurik zaharrenarekin dituela ikusi ahal izan dugu. Honako hau da 1735eko Elizalderen dotrinak eta JMSBk partekatzen duten lexikoa: *alzin* ‘aurre’, *atra* ‘atera’, *egun* ‘gaur’, *emaste(ki)* ‘emakume’, *eraman* (Aezkoan *erman*), *erran*, *erte* ‘tarte’, *eskui* ‘eskuin’, *guti* ‘gutxi’, *igan* ‘igo’, *jautsi*<sup>128</sup> ‘jaitsi’, *santu* eta *sinestatu* ‘sinetsi’. Bi bider egiten du testu berriagoan erabilitako aldaeraren alde: *baru* ‘barau’ (vs *barur*) eta *paratu* ‘jarri’ (vs *imini*).

Ekialdeko hizkerekin egin bezala, MHNan eta HHNan batera doazen lexikoa aztertuko dugu lehenik, eta ondoren batean eta bestean agerturikoa, hots, partekatzen ez dutena. Bukatzeko, Lizarraga mendebalderago edo ekialderago agertzen den adibide batzuk emanen ditugu.

- Honako hau da Lizarragak darabilen eta MHNan eta HHNan lekukoturiko lexikoa, eta hizkera hauetan Euskal Herriko erdialdeko hizkeren eragina suma daiteke (cf. *emakume*):

126 Hapaxa den aldetik, baliteke Lizarragak berak sorturikoa izatea. Aztertu dugunaren arabera, *Sermoiak* lanean, ‘erdizka’ esanahiarekin erabiltzen du beti, hau da, *-kal* atzizkiak gainerako hizkeretan duen balioarekin, baina JMSBn ‘ertain’ adiera du beti: “Gorputzarén neurrian zé erdikál, ez gora ta ez apál” (1994: 240).

127 Non eta Elizaldegan ez zen literatura-eragina gertatu.

128 Caminok *jaitsi* ere jaso zuen (2004: 109), baina Lizarragak ez du erabiltzen.

*admiratu*<sub>2</sub> ‘harritu’, *azotukaldi* ‘zigor kolpe, latigazo’, *emakume*<sup>129</sup>, *esposa* ‘emazte’, *prebenitu* ‘prestatu’, *turbatu* ‘asaldatu’.

EkiHNtik urruntzen denean, Lizarragak polimorfismoa ageri du gehiengotan. Partizipioaren *-tu/-du* aldaera analogikoaren kasuan, *iraundu*<sup>130</sup> (& *iraun*) eta *izandu*<sup>131</sup> (& *izan*) aditzetan, aditz-izenak sortzeko *-itze* atzizkiarekin<sup>132</sup> eta *-ka* atzizki adberbio sortzailearen *-kan* aldaeran<sup>133</sup>. Berdin instrumentaleko txistukariarekin, bizkarkaria eta apikaria erabiltzen baititu, bigarrena nagusi izan arren.

### Isoglosaren bi aldeetan lekukoturiko lexikoa

Atal honetan, Lizarragak darabilen eta hego-nafarreraren isoglosaren bi aldeetan lekukotu den lexikoa aztertuko dugu. 24 sarrera dira osotara, gehienak maileguak:

**Hitzak:** *agrabio* ‘irain’, *bestitu* ‘jantzi’, *betiroko*<sub>1</sub> ‘momentu batetik aurrera denbora mugarik gabe, betirako’, *betiroko*<sub>2</sub> ‘denbora mugarik gabekoa’, *deklaratu*<sub>1</sub> ‘jakinarazi, esan’, *deklaratu*<sub>2</sub> ‘agindu edo erabaki bat publiko egin’, *disposizio*<sub>1</sub> ‘gorpuzkera, itxura’, *enpleatu*<sub>2</sub> ‘erabili’, *erreberenzia*<sub>1</sub> ‘errespetua’, *erreberenzia*<sub>2</sub> ‘errespetua adierazteko egiten den gorputz mugimendua, normalean aurreraka makurturik egin ohi dena’, *esklabela/o* ‘morroi’, *kaso* ‘egoeira, okasio, arrazoi’, *komunkiro* ‘oro har, jeneralean, normalean’, *konkurritu* ‘elkartu, bat egin’, *kriatu* ‘sortu’, *kriazale* ‘sortzaile’, *merexi* ‘merezi’, *porfia* ‘tema, seta’, *porfiatu* ‘tematu, irmoki’.

**Aldaerak:** *arrazio*<sub>1</sub> ‘zentzu’.

**Atzizkiak eta morfologia:** *-(r)ik* ‘moduzko partikula’, *baitan1* ‘-(r)en ondoren, -(r)en atzetik’, *baitan*<sub>2</sub> ‘-(r)engan, -(e)n barruan’, *geuren* ‘lehen graduko izenordain indartu plurala, geure’, *gura* ‘3. graduko erakuslea’,

Hego-nafarrerako hizkera guztietan lekukoturikoak hiru bakarrik dira: *-(r)ik*, *kaso* eta *merexi*. Gorago aipatu dugunez, hitz edo aldaera bat hizkera ba-

129 Bi hizkera hauetan *emazteki* ‘emakume’ ere lekukotu da.

130 Gure corpusean ez dugu MHNan eta HHNan lekukoturiko partizipiorik, etorkizuneko formak besterik ez. JMSBn *iraun* forma ahalera eta ezezkoetan (*ezin iraun*) bakarrik ageri da (*iraundurekin* batera) eta gainerakoetan, *iraundu* erabiltzen du. Agerpen bakarra du *iraunduk* \**ezan* errodun adizki batekin.

131 Beti *etzu(t)e nai izandu* eta *etzio nai izandu* bezalako egituren baitan ageri da.

132 Caminok Eguesibarren ezaugarri hau falta dela dio (2004: 84-85). Lizarragak ordea, gutxi diren arren, baditu adibide batzuk (*jarritzea*, *jautsitzea*...): “[...] baña ene esküi ta ezkerreko aldetik *jarritzea* bégo norendáko dagon Jangoikoas” (1994: 561). *Jartzen* etab. ere erabiltzen ditu.

133 Aurreko oharrean aipatu bezala, hau ere ez da ohikoa Eguesibarren, baina adibide bakar bat aurkitu dugu JMSBn: “Joan zire montónkan ándik elizará” (1994: 152). *Montonka*, etab. ohikoagoak dira.

tean lekukotu ez izanak ez du esan nahi bertan erabiltzen ez zenik, horren frogarik ez dugula baizik. Hitz asko gainera, hego-nafarreraren bi muturretan agertu dira tarteko hizkeretan agertu gabe, esan nahi baita HHNan eta EkiHNan; eta horrek, noski, ez du esan nahi erdiko hizkeretan ezagutzen ez zituztenik.

### 3.3.4.7. ErdHNan soilik lekukoturiko item lexikoak

Bukatzeko, erdialdeko hego-nafarreraz bakarrik lekukotu ahal izan ditugun sarrerei helduko diegu:

**Hitzak:** *akordu egon* ‘ados egon’, *alkitz* ‘nekazaritza tresna, kimatzeko erabiltzen dena’, *disposizio4* ‘erabaki’, *erabaki* ‘kontatu, azaldu’, *errefinatu* ‘egokitu, hobetu’.

**Aldaerak:** *aixtean* ‘berriki, duela momentu bat’, *amistanza* ‘adiskidetasun’, *arrapa* ‘gona’.

Kasu batzuetan, erromantzearen eragina ikusten da, *amistanza* hitzaren kasuan bezala, jatorri erromantzea duen *-anza* atzizkia baitu. Beste batzuk badirudi ErdHNra iritsi, Lizarragaren ondotik iritsi direla. Horiatariko bat *otamen* ‘anoa, errazioa’ da. Larramendi izan zen hitza jaso zuen lehena eta haren ondotik Mendiburuk eta Lizarragak erabili zuten. HNCorean ez dugu aurkitu; bai, ordea, *IbarranHn*. Nafarroan, EKCn jasotakoaren arabera, Astizek eta Iraizozek (azkenak ziurrenik Lizarragaren eraginez) ere erabili zuten eta baita Uriartek, Lhandek eta Orixek ere. Hego-nafarreraz, *amen* dago *ArtolaAr* eta *CaminoAen* eta horrek hego-nafarrerazko hitza hori zela pentsatzera garamatza.

### 3.3.5. Ondorioak

Lizarragak darabilen eta hego-nafarreraz lekukotu den lexikoa hartu dugu oinarri atal hau osatzeko, hapaxak eta lehen erabilerak (§ 3.2.) zein idatzizko iturrietatik ikasitako hitz eta aldaerak (§ 3.1.) kanpo utzita. Lizarragaren lexiko dialektalena aztertu dugu, alegia. Ereku zabalenetatik hasi gara, Bizkaian eta Zuberoan ere lekukotu direnak aztertutik, eta apurka geroz eta ereku txikiagoetan aritu gara, Elkanon lekukotutakoetara soilik iritsi arte.

Egin ditugun hitz eta aldaeren talde guztietan Lizarragaren lexikoak batez ere ekialderanzko joera eta edo hango isuria duela nabaritu dugu, hango hizkerekin izandako bat etortzeen kopurua Elkanotik iparraldera dauden hizkerekin izandakoa baino handiagoa izan baita. Alde batetik, Baztanekin eta Iparraldearekin, eta, bestetik, Iparraldearekin eta Aezkoarekin partekaturiko lexikoaz den bezainbatean, argi ikusi dugu bigarrenak indar gehiago duela lehendabizikoak baino. Era berean, Lizarragak kasu batzuetan gordetzailer jokatu duela antzeman dugu (cf. *irur*, *laur*...).

## **IV. Hiztegia**

---





## Nola erabili hiztegi hau

Hiztegi edo corpus lexiko hau ez da lan beregaina, aurreko azterketaren oinarria osatzen duten elementuen bilduma baizik. Bestela esan, atal honen helburua azterketan esandakoa berrestea da. Horrek esan nahi du sarrera bakoitzean aipatzen dena baino informazio gehiago aurki daitekeela lanean zehar. Lizarragaren lexikoa eta lan egiteko modua ezagutu eta ulertzen saiatu gara, eta, horretarako, aurreko ataletan item lexikoen erabilerari, hedadurari eta bestelako alderdi batzuei buruzko zenbait datu eman eta aztertu ditugu.

### *Item lexikoen hautaketa*

JMSBk 322.600 hitz inguru ditu guztira, errepikatuak alde batera utzirik 22.300 inguru. Kopuru horren barnean izen arruntak, bereziak, aditz nagusiak, laguntzaileak, adjektiboak, adberbioak, zenbatzaileak, maileguak eta abar aurki daitezke.

JMSBko hitz guztietatik 1.509 hautatu ditugu. Hautaketa subjektiboa izan da, Lizarragaren lexikoaren lagin ahalik eta ñabar eta askotarikoena eskaintzeko asmoz egina: eskusiboagoak (*akar in* ‘errietan eman’, *farraskeria* ‘zikinkeria’, *itekoso* ‘lanpeturik’), zerbait frogatzeko balio dutenak (Larramendiren eragina salatzen duten *jakinde* ‘jakintza’ eta *galmende* ‘hondamendia’) eta orokorragoak (*argi, itsusi...*) hartu ditugu, bai eta akats, zatiketa oker edo gaizki-ulertuak izan litezkeenak ere (*aldirita* ‘eskualdea’ da nabarmenena). Beharrezkoak iruditu zaizkigun hitz guztiak gehitu ditugu, dela adibideak ulergarri egiteko, dela sarrera batek bestea eskatzen zuela iruditu zaigulako (hilabete eta asteko egunak, esaterako) edo dela adieren kontrastea edota forma aniztasuna adierazteko. Adibidez, irakurle gehienek agian ulertuko ez dituzten hitzak kontuan hartu beharrekotzat jo ditugu, hala nola nekazaritza edo abeltzaintza tresnak. Bestalde, *leor*<sub>1</sub> ‘lurra (vs *itsasoa*)’ vs *leor*<sub>2</sub> ‘idorra’ bereizi behar ziren, bai adjektiboa adierazteko Lizarragaren obran dagoen aberastasuna agerian jarri (*ear, idor, leor*<sub>2</sub> eta *seko*), bai eta lau sinonimo horietatik idazlan honetan *ear* adjektiboa / *eartu* aditza bikotea osaturik duen familia bakarra dela ere.

Hiztegia sarrera-buruen arabera antolatu dugu alfabetikoki, *h* letra ere hurrenkeran kontuan hartuta (adibidez, *alhaitu* Lizarragaren ohiz kanpoko idazkera errespetaturik *algo* eta *alibio* artean aurkitzen da). Izenkiak eta adizkiak era askotara agertzen zaizkigu; hona *zeru* hitzarenak, adibidez:

*zeru, zerua, zeruaganik, zeruak, zeruan, zeruaren, zeruas, zeruen, zerueta-ko, zeruetan, zeruetara, zeruko, zerukoa, zerukoagatik, zerukoak, zerukoaren, zerukoas, zerukoei, zerukoek, zerukoeki, zerukoen, zerukoena, zerukoets, zerukoetaik, zerukook, zerura, zerurako, zerurakoan, zerurako, zerurat, zerutik.*

Honelako lanetan ohi denez, lemak mugagabeen eman ditugu. Adibideekin jarraiturik, *zeru*<sub>1</sub> ‘Jainkoa eta aingeruak bizi diren lekua, kristautentzat’ eta *zeru*<sub>2</sub> ‘Zerua, lurraren gainean ikusten den bitartea, ostertzak mugatzen duena’ jaso ditugu.

Bestalde, lexikalizaturik dauden forma jokatu asko ere jaso ditugu, bai eta hainbat esapide ere, Lizarragaren lexikoaren erabilera hobeto ezagutzeko jakin-garriak edota irakurleari azaldu beharrekoak iruditu zaizkigunak.

Salbuespen gisa, Lizarragarenean bereziki emankorrak edota literatur euskararen ezo-hikoak-edo diren atzizki zenbait jaso ditugu; adibidez, *gende* ‘produktua’ (*aragigende*), *-kara*<sub>1</sub> ‘samar’ (*urrunkara*), *-kara*<sub>2</sub> ‘aldera’ (*egunkara*) eta *zutu* ‘aldia, aroa’ (*gaztezutu*). Mintzatu gara hauen gainean azterketaren barnean (§ 3.2. eta § 3.3.). Horrez gain, euskal tradizioan agerpen gutxi duten atzizkietan JMSBn lekukoturiko item guztiak ematea erabaki dugu. Hala izan da *-kara*<sub>1</sub> atzizkian: *arinkara, beltzarankara, berantakara, dudankara, egunkara, epelkara, ertxikara, eutxikara, gogorkara, gutikara, ilunkara, txipikara* eta *urrunkara*-k zeinek bere sarrera dute. Aitzitik, ez ditugu *-tto* hipokoristikoaren adibide guztiak ekarri, bakan batzuk baizik<sup>134</sup>. Hiru gaik merezi dute, gure ustez: alde batetik, atzizki honek zein gramatika-kategoria hartzen duen. Hegoaldean erabilia goa da *-txo* aldaera (*Sareko Euskal Gramatika*, s.v. *-txo*) eta, horrek bezala, *-ttok* ere izenak eta adjektiboak hartzen ditu, baina Lizarragak ez dakar adberbioa

134 Hona hemen diren guztiak: *agoztio, agoztioak, aingirutto, alabatto, alabatto, alzinutto, anaiatto, anaiattoak, animalutto, animalutto, arraitto, arreatto, artto, arttoas, arttoek, aurtto, aurtto, aurttoak, aurttoaren, aurttoari, aurttoas, aurttoei, aurttoek, aurttoen, axuritto, axurittoak, baratzetto, baratzettoaren, besottoak, bolatto, donzellatto, donzellattoari, donzellattoei, erritto, esklabattoaren, eskutto, eskuttoan, eskuttoas, estalpetto, etxetto, etxettoan, etxettora, ezuritto, ezurittoak, figuratto, gastetto, gastettoan, gastettoek, gauzatto, goatzettora, gorputzitto, gorputzitto, guruzetto, guruzetto, gutitto, hospitalettora, humettoak, humiltto, humilttoeki, iruzkitto, islatto, istantetto, itzto, kajatto, laburitto, leiutto, libritto, morottoak, mutikotto, mutikottoa, neskatto, neskatto, obenttoak, oialtto, oiantto, olitto, olitto, onttoeki, onttoen, opillto, papellto, papelltoaren, papertto, perlatto, pobretto, pobretto, pobrettoak, pobrettoari, pobrettoei, pobrettoetaik, sandatto, sandattoaganik, sandattoak, sandattoaren, sandattoari, sandutto, sanduttoak, saskitto, sutto, txakuritto, txakurittoek, txipitto, txipitto, txipittoak, txipittoareki, txipittoaren, txipittoegi, txipittoek, txipittoen, txipittoenak, txorittoak, usotto, zaritto, zaitto, zeldatto, zerbaitto, zokotto.*

hartzen duen adibiderik, SEGn (ibid.), maila apalagoan bada ere, har ditzakeela aipatzen den arren. Bigarrenik, zein kategoriatan sortzen duen eta, alde honetatik, kategoriatan bakoitzetik adibide bat ekartzea nahikoa zela iruditu zaigu: *artto* ‘hartxo’ eta *ontto* ‘on adberbioaren hipokoristikoa’. Hirugarrenik, aldaera erabiliagoaren adibide bakarra dakar Lizarragak (*neskatxo*), eta hori ere jaso dugu, ezinbestean *neskatto* bere obran ohikoagozat jo behar dugunarekin batera.

Lizarragaren aditz paradigmak aztertzea oso interesgarria iruditzen zaigun arren (*dida* ‘dit’ forma arkaikoa, *ziote* ‘zien’...), lan honen helburua lexikoaren atala aztertzea da, eta, hortaz, aditz nagusiak jaso ditugu, baina laguntzaileak kanpoan utzi (ikus Santazilia (2006) sakontzeko).

### Erabilera

Atal honetan, sarrerak dituen atalak eta atal bakoitzak eskaintzen duen informazio mota azalduko ditugu. Hona sarrera adibide zenbait:

	Kategoria gramatikala	Adiera	Idatzizko tradizioa
Sarrera-burua	<b>lenbiziko</b> , <i>zenbatz.</i>	Lehenbizikoa.	Erab. (Lar): Idatzizko iturriak
Idatzizko iturriei buruzko informazio gehigarria	Idatzizko iturriak+: Ax <i>-he-</i> .	(G, GN, L, Bzt, Zar, MHN, HHN, ErdHN).	Informazio dialektologikoa
JMSBko erreferentzia	<b>l e m i x ( i ) k o</b>	(ErdHN, EkiHN <sup>^</sup> ), <b>lenbeziko</b> (MHN), <b>lenbiziko</b> (EkiHN <sup>v</sup> ), <b>lendabiziko</b> (MHN, HHN, ErdHN), <b>limix(i)ko</b> (ErdHN <sup>^</sup> ), <b>limizi</b> (ErdHN <sup>^</sup> ).	Hego-nafarrerazko aldaera(k)
OEHko erreferentzia	OEH: LEHENBIZIKO (s.v. <i>lehenbizi</i> ).		Erreferentzia gurutzatua(k)
Azpisarrera	■ <b>len-lenbiziko</b> . iz. Erab. <i>Agitz zé aplikátua estudiorá ta bátea ain óna ta onéra emána, ezi len-lenbizikoa jaikitzen zé goizetán</i> (494). OEH: LEHEN-LEHENBIZIKO (s.v. <i>lehenbizi</i> ).		

Eugiko ahozko egungo lekukotasunen inguruko informazioa	<p><b>ale.</b> <i>iz.</i> Alea, bihia. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, Zar, EkiHN). Dialekto+: Bizkaieraz gutxi. <i>Eraman zitue arren graneroko gari ta ále guziak karririk barna</i> (100).</p> <p>AELIE: <i>ale</i>          OEH: <i>ale</i></p>	Xehetasun dialektologikoak
Hitz edo aldaerari buruzko informazio jakingarria	<p><b>ametaik atra.</b> <i>ad. esap.</i> Guztiz bere bidetik atera inolako kontrolik gabe. Leh. <i>Atra zé ametaik Romako ugaldea, Tiber</i> (158). Informazio gehigarria: “<i>Šalió el río Tiber de madre</i>” (1716: 410).</p>	
Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko informazioa	<p>EHHA:          Abaurregaina          Jaurrieta -A: <i>amatik kanpo</i>. -S: <i>kanpora elki</i>          AELIE: Gaspar -A: - -S: -;          OEH: -</p>	
Adierak bereizteko zenbakiak	<p><b>aplikatu 1.</b> <i>ad.</i> Zer baitetan gogo biziz jarri. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). <i>Ortáka aplikatu zé orazio mentalerá aín gogotik, ezi egun óro zegó orázioán denbora lúzean</i> (338).          OEH: <i>aplikatu 2</i></p> <p><b>2.</b> <i>adj.</i> Zer baitetan gogo bizia jartzen duena. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). <i>Zé agitz aplikátua estudioetára: estudiantu zué edérki gramátika, Filosofia ta Teologia</i> (502).          OEH: <i>aplikatu 2</i></p>	

- *Sarrera-burua:*

Sarrera-buruan Lizarragaren lanetik harturiko item lexikoak eman ditugu: ohi denez, izen-izenondoak mugagabea eta aditzak partizipioan, grafia eguneraturik (§ 2.5.1.4.).

Itxura bera izan arren, adituek item ezberdintzat jotakoei “homonimo” izena ematen zaie. Adibidez, *baso* ‘edalontzia’ eta *baso* ‘basoa’ bereizi behar izan ditugu. Honelakoak aintzat hartzeko, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Orotariko Euskal Hiztegia* jo dugu. Ohikoa denez, homonimoak sarrera-buruaren aurrean ezarritako zenbakiaren bidez bereizi ditugu.

- *Kategoria gramatikala:*

Gramatika-kategoriak lagungarri izan nahi du lan honetan, item lexikoa-  
ren ulerpenaren osagarri, ez besterik. Beraz, ahal zen guztietan Euskaltzaindiak  
hartutako erabakietatik eta dakitenei egindako galderetatik abiatuta sailkapen  
ahalik eta bakunena egin dugu, adituek ere erabaki ez dituztenak erabaki nahi  
ezik. Honako hauek dira baliatu ditugun kategoriak:

*Adberbioa, aditza, aditz esapidea, adjektiboa, determinatzailea, erakus-  
lea, erakusle indartua, esapidea, galdetzailea, interjekzioa, izena, izenordai-  
na, juntagailua, lokailua, menderagailua, onomatopeia, partikula, zenbatzailea.*

Haien laburdurak liburuaren hasieran paratu ditugu, horretarako gorde du-  
gun atalean.

- *Adiera:*

Adiera euskaraz eman dugu, hitza bera errepikaturik aski ezagun denean  
edo definitzen ibili beharra alferrikakotzat jo dugunean (*aita, aurpegi, bana* eta  
abar) edota besterik ez dagoenean; bestela, gehienetan sinonimoak erabili ditu-  
gu. Inoiz definizio landuagoak beharrezkoak iruditu zaizkigu, dela sinonimo-  
rik aurkitu ez dugulako edo ñabardura semantikoak ikusarazi nahi genituelako.  
Halakoetan, gehienetan guk geuk sortutako azalpenak dira, baina bai hauetan,  
baita sinonimoetan ere maiz Euskaltzaindiaren, Sarasolaren (1997) edo RAEren  
(2014) hiztegietatik abiatu gara, beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.

- *Idatzizko tradizioa:*

Hautaturiko item lexikoei idatzizko tradizioan izan duten erabilerari buruz-  
ko informazioa eman dugu atal honetan. Lau multzo bereizi ditugu *Orotariko  
Euskal Hiztegian* eta *Euskal Klasikoen Corpusean* jasotako informazioa erabiliz:  
*hapaxa* (Hap.), *aldaera ezezaguna* (Ald.), *lehen erabilera* (Leh.) eta *erabilia*  
(Erab.).

*Hapax* terminoa adiera zabalean hartu dugu: Lizarragarenean bakarrik le-  
kukotu diren itemak izango dira, beraz, nahiz behin soilik agertu edo behin baino  
gehiagotan. Hapaxtzat hartu dugu, halaber, Lizarragaren agerpen soilez gain,

hiztegi batek bere sarrera osoki Elkanokoaren adibideen gainean osatu badu: Azkuek, adibidez, baditu honelako sarrera anitz. *Aldaera ezezaguna*, izenak berak dioenez, item zabalduago batek Lizarragarenean agertzen duen forma berezia, beste inon jaso gabea, adierazteko baliatu dugu. *Erabilia* marka ezarri diegu Lizarragaz beste testu batzuetan erabiliak izan direnei, eta *lehen erabilera* Lizarraga denean lehenengo erabiltzailea. Lehenagoko hiztegi edo hitz zerrendetan jaso izana ez dugu erabileratzat hartu. Hau da, esate baterako, hitza lehenago *Hiztegi Hirukoitzean* jaso bada, baina gure iturrien arabera Lizarragak bakarrik erabili badu, ez dugu hapaxtzat hartu, lehen erabileratzat baizik; izan ere, filologoek ez bailukete berdintzat hartuko Lizarragaren testuan erabilitako hitzak (lehen mailako lekukotasunak) eta hiztegietan jasotakoak (bigarren mailakoak), lehenengoak erabilera zuzenak direlako, eta bigarrenak balizkoak. *Euskal Klasikoen Corpusean* eta *Orotariko Euskal Hiztegian* jaso ez arren, euskara garaikideko bildumak diren *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean*, *Artolaren Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan* artikulu sortan, *Ibarraren Erroibarko eta Esteribarko Hiztegian* edo *Iriartek Eugiko ahozko lekukotasunetan* bildutako Lizarragaren hitzak lehen erabileratzat hartu ditugu, eta Euskara Zahar eta Klasikoko lekukotasunak dituen hego-nafarrerazko corpusean jasotakoak erabiltzat (§ 3.3.2.).

- *Idatzizko iturriak:*

Item lexiko oro Larramendiren hiztegian jasota dagoen, bai eta Axular, Larramendi, Kardaberaz ala Mendibururen lanetan erabilia den begiratu dugu. Informazio hori lortzeko OEH eta EKC baliatu ditugu lehenik, baina, horrez gain, iturri bakoitzaren corpus ahalik eta zabalena eskuratu eta bertan ere bilaketak egin ditugu. Atal honetan aukeran balio semantiko eta forma berbera dituzten lekukotasunak markatu ditugu, nahiz inoizka hurrengo atalean azaltzen ditugun gorabeherak ere agertzen dira.

- *Idatzizko iturriak+:*

Idatzizko iturriak aztertzerakoan aurkitu dugun informazioa dago izenburu honen azpian: askotan Lizarragaren aldaera bera edo adiera bera ez, baina iturriak gertuko zerbait darabil (*lenbiziko* vs Axularrek *lehenbiziko*, adibidez). Forma edota esanahi ezberdintasun horiek agerian jarri nahi izan ditugu, eta batzuetan Lizarragaren eta bere balizko iturrien arteko konparazio interesgarriak egiteko oinarritzat hartu ditugu. Atal hau erabili dugu, halaber, delako hitz edo aldaera lau iturri horiek (Ax., Lar., Cb., Mb.) ez beste autore edo testu bakar batek erabili duenean eta informazio hori aberasgarria izanen zela iruditu zai-gunean.

- *Informazio dialektologikoa:*

Atal honetako laburdurak orokorrean OEHTik hartu eta egokitu dira, hego-nafarrerari dagozkion zehatzak izan ezik. Nafarreratik kanpoko hizkerari dago-kienez, euskalki marka hutsarekin gelditu gara (B, G, L, eta abar). Nafarroako hizkerari dagokien alderdia, berriz, biziki landuago dago hemen, lanari dagokionez.

Erdialdeko eta ekialdeko hego-nafarrerazko hizkeretan bi garai edo mul-tzo bereizi ditugu atal honetan. Batetik, Euskara Zahar eta Klasikoa (EZK) eta Lehen Euskara Modernoa (LEM) eta, bestetik, Bigarren Euskara Modernoa (BEM) eta Euskara Garaikidea (EG). Lehendabiziko garaiari dagokion informa-zioa eskuratzeko, HNCor eta OEH erabili ditugu; BEMrako eta EGrako, aldiz, *IbarraH*, *ArtolaAr* eta *CaminoAe*. Bi garai horien artean bereizteko, zeinu dia-kritikoak erabili ditugu. Hala, item lexiko bat EZK edo LEMkoa bada “√” gehitu diogu (adb. ErdHN√), eta BEMan eta EGan lekukotutakoei “^” (adb. ErdHN^). Bi garaietan lekukotu direnak markarik gabe eman ditugu (ErdHN). Mendebal-deko eta hegoaldeko hego-nafarreran, ezin izan dugu bereizketarik egin, gorago azaldu dugun bezala (§ 3.3), hizkera horien eremuetatik euskara LEMan desa-gertu baitzen.

- *Dialekto+:*

Zenbait sarreratan, informazio dialektologikoaren atala hobeki interpreta-tzeko, datu gehiago ematea beharrezkoa iruditu zaigu, batez ere erabilera maiz-tasunarekin, aldaerekin eta informazio dialektologikoaren jatorriarekin loturiko informazioa.

- *HN+:*

Sarrera batzuetan, hego-nafarrerarekin loturiko berriak agertuko dira, non-dik jaso ditugun (adibidez, *Artola*) edo bestelako jakingarriak: esate baterako, *arakintza* ‘sarraski’ hitza bera ez dugu aurkitu, baina *IbarraHk arakin* dakarrela zehaztu dugu.

- *Adibideak:*

Adiera bakoitzeko adibide bat ematea izan da gure neurria. Halere, batzue-tan bi adibide jasotzea beharrezkoa zela iruditu zaigu, bakarren batean are hiru edo lau, formaren edo adieraren aldetik zalantzak edo jakingarriak zeudenean. *Goixtar* hitzaren 2. adieran, ‘goiz’ adierako adberbioan, adibidez, bi adibide eka-rri ditugu ñabardura semantikoak ongi islatzeko, batean *goixtar* ‘egunean goiz’ izateari baitagokio, eta bestean pertsonaren bizitzan ‘goiz’:



*Goiz oró agitz goixtár joaten zé elizará, ta jartzen zé pazienziarén álkian* (1994: 343).

*Aur santuak ártu baso bát úr, ta emán zio heriarí: txastaturík aurkitu zúé guziá ézti gozóa ta sendatu zé istántean. Ain goixtár iten zitue milágroak, baitare báruak, orázioak ta gauza ónak.* (1994: 153)

Adibideek ez dituzte nahitaez testuko perpausak osorik hartzen: aitzitik, OEHren ereduari jarraiturik, adibidea non hasi eta non buka guk erabaki dugu, hiztegia gehiegi zamatuko luketen hasiera-bukaerako hiru puntuak gabe. Hala ere, nahiago izan dugu luze jo, ezen ez labur gelditu, irakurleak behar beste tesuinguru izan dezan. Goraxeago aipatutako bi adibideetan agerian denez, gaurko grafian eman ditugu, Lizarragaren hizkuntza irakurlearengana hurbiltzeko asmoz. Guztiak Apecechea eta Ondarraren JMSB lanetik hartuak dira eta, horregatik, orrialde zenbakiaz beste erreferentziarik ez daramate. Dudak izandakoan bakarrik jo dugu jatorrizko eskuizkribura.

- *Informazio gehigarria:*

Sarrera batzuetan, Lizarragak JMSB idazteko oinarritzat erabili zituen Pedro Rivadeneiraren *Flos Sanctorum* edo Agredako Teresaren liburuetan (§ 2.5.) aurkituriko pasarteak ekarri ditugu, Lizarragaren adibideak hobeki ulertzen laguntzeko. Hitzaren adieraren, hedaduraren edo tradizioaren berri ere eman dugu atal honetan, eta gure zalantzak eta hipotesiak plazaratzeko lekua ere izan da.

- *Hego-nafarrerazko aldaera(k):*

Atal honetan, hego-nafarreran aurkituriko aldaeren berri eman dugu, euskalki hori hobeki ezagutzen laguntzeko asmoz eta Lizarragak erabilitako lexikoa non-nahikoa eta noiz-nahikoa ez dela, hizkera eta garai guztietakoa ez dela erakusteko. Adibidez, *ezaundu* ‘ezagutu’ sarreran, Lizarragak erabiltzen ez dituen, baina hego-nafarreraren eremuan erabiltzen ziren *ezautu* (HHN, MHN, ErdHN, EkiHN), *ezondu* (EkiHN) eta *ezoutu* (EkiHN) aurkitu ditugu gure corpusean.

- *Erreferentzia gurutzatuak:*

Zenbaitetan, elementu lexiko baten baino gehiagoren artean loturak daude, dela sinonimiaz, dela antonimiaz, edo dena dela. Honetarako, ohi denez, erreferentzia gurutzatuak edo bidalketa deiak txertatu ditugu. Normalean erreferentzia horiek bi norabideetan doaz: esaterako, *ugalde* sarreran *erreka* sarrerara bidaltzen duen erreferentzia eman dugu eta, era berean, *errekan* *ugaldera* bidaltzen duena. Lizarragaren lexiko aberastasunaren edota forma aniztasunaren berri emateko balio du erreferentzia gurutzatuak. Bestalde, *-kara*<sub>1</sub> sarreraren kasuan,

atzikia daramaten sarrera guztiak aurki daitezke, atzikiaren gaineko informazioa osatzeko.

- *Azpisarrera(k)*:

Elementu lexiko bakoitzari bere sarrera eskaintzea lehenetsi badugu ere, logikak edota praktika lexikografikoak hala aginduta, batzuetan informazioa azpisarrera gisa antolatu dugu. Honelakoetan, “■” zeinua erabili dugu sarrera nagusitik banatzeko. Azpisarreraren osagaiak eta antolaketa sarrera nagusiarenak bezalakoak dira.

- *Azken osagaiak*:

Sarrera guztiek bukaera-bukaeran OEH laburdura daramate, gure sarrera osatzeko handik hartu dugun informazioa non aurkitzen den jakinarazteko. Aurkitu ez badugu, marratxo batez adierazi dugu.

OEHren atala baino lehenago beste bi egon daitezke, sarreraren arabera: EHHA eta AELIE. Lehenak Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* jasotako informazioari egiten dio erreferentzia. Honela eskaini dugu informazioa:

a) Lizarragak bakarrik erabilitako forma jaso denean, herriaren izena eman dugu: “Abaurregaina” (s.v. *garagarzaro*).

b) Lizarragarena ez den aldaera bat denean, herriaren izenaren ondotik “-A:” eta jasotako aldaera eman ditugu: “Etxaleku -A: *gaartzaro*” (ibid.). Alderaz gain, Lizarragaren forma ere bildu den herrien kasuan, “&” zeinua ageri da aldaeraren aurretik: “Abaurregaina -A: & *abuztu*” (s.v. *agustu*); hots, Abaurregainean *agustu* eta *abuztu* jaso dira.

c) Lizarragaren formaz gain, sinonimo bat jaso denean, herriaren izena eta “-S” ageri dira: “Mezkiritz -S *egun*” (s.v. *gaur*); hau da, Mezkiritzen, adiera berberarekin, *gaur* eta *egun* jaso direla adierazten du horrek. Sinonimoaz gain aldaera bat bildu den kasuetan, lehendabizi aldaeraren berri eman dugu, *b*) atalean azalduko irizpideei jarraituz, eta ondoren, sinonimoa: “Sunbilla -A: *garabarzaro*. -S: *junio*” (s.v. *garagarzaro*).

AELIE (ahozko egungo lekukotasuna ipar-Esteribarren) atalarekin antzera jokatu dugu, baina galdeketa egin dugunez, ezezko erantzunen berri ere eman dugu:

- a) Lizarragaren forma berbera jaso dugunean, honela eman dugu: “AELIE: *aide*” (s.v. *aide*).
- b) Aldaera bat denean, “-A”ren atzetik adierazi dugu: “AELIE: -A: *aise*” (s.v. *aisa*).
- c) Sinonimo bat edo batzuk bildu ditugunean, aldaeraren atzetik jarri ditugu: “AELIE: -A: *putzu*; -S: *balsa*” (s.v. *butzanka*).
- d) Ezezko erantzuna jaso dugunean, marratxoarekin “-” adierazi dugu: “AELIE: -A: -; -S: *lapurtu, ostu, ebatsi*” (s.v. *errobotu*) edota “AELIE: -A: -; -S: -” (s.v. *futoska*).

# A

**abantaila.** *iz.* Abantaila. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar *abaintaila*. (L, BN, Z). Dialekto+: ohikoena *abantail*. Hegoaldean LE eta Villasante. *Asi ze estudiátzen gramátika ta alzinako estúdioak egines guziéi abantálla ikástean óngi ta aisa* (141).

OEH: *abantaila*

**abar.** *iz.* Abarra. Erab. (Lar). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Itzulirik ixíl-ixíla, itxéki zué súa abar batzuéki, eta oñak urtuxirik sartu zé sugarretán* (332). Ikus *arrama*.

AELIE: *abar*

OEH: 1 *abar*

**abarrikatu.** *ad.* Xehatu, txikitu, birrindu. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar *abarrakitu*. (G, GN, L, BN, Zar, Er, ErdHN, EkiHN). *Erori ze lurreán, ta abarrikaturik zángoak, etzeike ibili óñes ere, ta iltze biramónean* (214). **barrakatu** (EkiHN). Informazio gehigarria: Larramendik *abarrakitu* dakar hitzaren lehen agerpena jasotzen duen Azkoitiko sermoian (Lakarra, 1985) eta baita HHn ere. Dena dela, Lizarra-

gak, Satrustegik (1981) bildu Erroko sermoiak eta ekialdeko hego-nafarrerako gure corpusak *abarrikatu* dakarte. Lakarraren (1985: 264) ustez, “ia seguruenik Lizarragaren lekukotasuna harengan [Larramendi] oinarritzen [...] da”. Badirudi ahozkotik harturiko aldaera dela eta Aezkoa eta Erroibarko lekukotasunek indar handiagoa ematen diote gure proposamenari.

EHHA (2442): Alkotz -A: *abarrikatuik*. -S: *nekatuik*.

AELIE: *abarrikatu*

OEH: *abarrakitu*

**abasto.** *adb.* Oparo, erruz, ugari. Leh. Dialekto+: “*Juan-abastu*, derrochador (AN-erro, B)” Inza *EsZarr* 177 (ap. OEH). *Geró in zuéla penitenzia, ta Jangoikoak eman zióla grázia ta glória abásto* (162). Informazio gehigarria: Arakistainek jaso zuen lehenengoz, eta Nafarroan (Aq 854), baina *abastu* aldaera ‘nahikoa’ adieran badago jadanik Etxepareren testuan.

OEH: *abastu*

**abastoki.** *adb.* Oparo, erruz, ugari. Hap. *Esperanza dút ene Jaun onak pagatuko dizula ene partez abastoki, ezi ni pobrea naiz, ta eztút zeréki pagátu* (430). Informazio gehigarria: Ikus *abasto* ahozko forma; badirudi

di Lizarragak berak *-ki* adberbioak eratzen dituen atzizkia gehitu ziola tarteka, erator atzizkiak erabiltzeko literatur hizkuntzaren joerari amore emanik.

OEH: *abastoki*

**abeatu.** *ad.* Abiatu. Hap. *Jangoikoak emanarazi zió prisa, zeren ezi abeaturik idiak, ta goldea gañetik pasaturik il uste zué án* (188). Informazio gehigarria: Adibide bakarra JMSBn; OEHren arabera, ez dago beste inon. Nolanahi ere, Lizarragak ez du *abiatu* behin ere erabiltzen; beraz, akatsa ez balitz, baliteke ongi ezagutzen ez zuen forma baten *ia* > *ea* hipertzuzenketa izatea.

AELIE: *abeatu*

OEH: *abiatu*

**abendu.** *iz.* Abendua. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Zar, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Abenduaren Irugarrenean San Franzisko Xabier* (83). ‘azaroa’ (EkiHN) EHHA (294): Aniz, Dorrao, Etxarri (Larraun), Ezkurra, Gaintza, Leitza, Oderitz.

OEH: *abendu*

**aberats.** *adj.* Aberatsa. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Z, HHN). HN+: *abera(t)s* & *abra(t)s*, badirudi *abrats* dela erabiliena. *Bizi ze Ro-*

*man kaballéro Jaun andi bát, aberátsa, ta poderósoa* (351).

Ikus *abrats*.

OEH: *aberats*

**abisu.** *iz.* Abisua, gaztigua. Erab. (Ax, Lar, Cb). (B, G, GN, L, BN, Z, HHN, ErdHN<sub>v</sub>). Dialekto+: Mucho mejor documentado al Norte que al Sur; se encuentra ya en Leizarraga. *Azkenik bere onetsiari bekála biáli zió Jangoikoak abisu noiz il beár zen* (101).

OEH: *abisu*

**aborrezitu.** *ad.* Gorrotatu, higuindu. Erab. (Cb). (B, G, GN, Bzt, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: Solo en textos meridionales. *Kastidadearén birtútea zein ederra dén ta prezíósoa Jangoikoaren gustorá, ta zein aborrezitua Deabruagánik* (409). Informazio gehigarria: mailegua, Beriainek erabilitakoa eta haren ondoren Kardaberazek. Hegoaldeko hego-nafarreraz agertzeak eta Aezkoan ahozkoa izateak ahozkotik jasotako hitza izan daitekeela pentsatzera garamatza. Ziurrenik ez zen kalean ahoz aho ibiltzen zen hitza, baina bai eliza giroan. Hala ere, ezin dugu Kardaberaz eragina erabat baztertu. Larramendik zenbait aukera ematen ditu *aborrezitu* saihesteko (s.v. *aborrecer*): “gorrotatu, gaitzetsi, higuindu,

gorrotoa, gaitzerizcoa, gaitzizteza izan, iduqui”. Horietatik zenbait erabiltzen ditu Lizarragak eta honakoak dira erabile-ra kopuruak: *aborrezitu* (63), *aborrezigarri* (2), *aborrezitzen* (48), *gorrotagarri* (1), *gaitzetsitzen* (5), *gaitzetsi* (4), *gaitzetsiturik* (1). Kopuruei erreparatuz eta aurrekoak kontuan izanik, ahozko jatorriaren alde egin dugu.

OEH: *aborrezitu*

**abrastu.** *ad.* Aberastu. Erab. (B, G, GN, MHN, ErdHN). *Saldurik edérki guzia, abrastu zé bera ta erremediatu zé jéndea* (94).  
OEH: *aberastu*

**abrats.** *adj.* Aberatsa. Erab. Idatzizko iturriak+: Lç *abrats*. (GN, BN, Zar, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Diru edo ondasun ugari duen pertsona. *Joan zire guziák lastérka, gizón, emástéki, gáste, zar, póbreak ta abrátzak armaturik nola zukéten* (349). Ikus *aberats*.  
OEH: *aberats*

**abre.** *iz.* Etxeko animalia zaldizko handia. Erab. (Ax). (GN, L, Bzt, Zar, Er, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola3. *Baña gero ere kunplitzeagátik erman zúte abre bátean* (125). Informazio gehigarria: gehienetan zaldiei erreferentzia egiteko. EHHA-ren arabera, Goizuetan *abere-*

*jende* eta Mezkitzen *biorjende* jaso dira. “le prendieron y puesto sobre un jumento” (FS, 1610: 181).

EHHA (707): Abaurregaina, Aniz, Donamaria, Erratzu, Etxalar, Lekaroz, Suarbe, Sunbilla, Zillbeti.

Alkotsz -A: *abre & abere*.

Etxaleku -A: *abere & abre*.

Eugi -A: *abre & alimele*.

AELIE: *abre*. Informazioa: mandoa eta zaldia, astoa ez.

OEH: *abere*

**abuñ.** *iz.* Lerdea, adurra. Erab. (Ax *habuin*). (GN, L, EkiHN). *Arrás koleratu zé, ta bégiaq turbaturik, abuña zerióla agotik* (123). **abuñ** (ErdHN, EkiHN). Informazio gehigarria: “Hay (*h*)*abuñ* en Axular, en Lizarraga de Elcano y en un texto de Erro del s. XIX” (OEH).

EHHA (621): Luzaide -A: \**hagun* (behiarendako erabilia).

OEH: *hagun*

**adar.** *iz.* Adarra (animaliena). Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>). Dialekto+: gral. *Deábruak zezenaren figuran nai zue ilarázi aurttoa, bere adarréki atra zué kunatik, ta bota zué lurrean* (427). Informazio gehigarria: ez darabil zuhaitzenei deitzeko.  
OEH: *adar*

**adiarazi.** *ad.* Adierazi, jakinarazi. Erab. (Lar). (G, GN, BN, EkiHN). *Jangoikoak adiarazi zión il bear zéla* (524).  
OEH: *adierazi* 3

**adimentu.** *iz.* Entzumena. Leh. (Bzt, HHN). *Anitz Demonio atrarazi zitue gizónen gorputzetáik, anitz sorréi emán adimentua, anitz mutuéi míntzoa, argitu ítsuak* (432).  
OEH: *adimendu*

**adin.** *iz.* Adina. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral.* *Augustino ogeitamirur urtetáko adinean* (447). *Aparezitu zeláik zitue adinarén 54 urte, 3 ilabéte, ta 24 egún* (65). Informazio gehigarria: adina adierazteko, egun ohi den sozietatiboa erabili beharrean, inesiboa darabil: “adinaren x.ean edota x urtetan”.  
EHHA (2494): Eugi -A: *gizon adiñeko*.  
OEH: *adin*

**adiña.** *part.* Bezainbeste. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Nola daike níor izán digno bear adiña?* (557). **dina** (EkiHN<sup>^</sup>), **diñe** (ErdHN<sup>^</sup>), **diña** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *adina*

**adiskide.** *iz.* Adiskidea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral.* *Jesus etorri zéna salbatzeagatik bekatáriak, bekátuen etsaiik andiéna, ta bekatárien adiskiderik obéna* (26). **aixkide** (ErdHN<sup>^</sup>), **aexki** (ErdHN<sup>^</sup>), **exkidetu** (EkiHN<sup>^</sup>). Ikus *aixkide*.  
AELIE: -A: *aixkide*  
OEH: *adiskide*

**aditu.** *ad.* Entzun. Erab. (Lar, Cb). (G, GN, L, Bzt, ErdHN). Dialekto+: Salvo en suletino, se documenta en todas las épocas y dialectos, aunque en vizcaíno es relativamente menos frecuente. HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Aditu zé boza bát, zióna: “Nik barkatzen diótet ene sierba Martinaren aténzios”* (126). **aitu** (ErdHN). Ikus *aitu*.  
EHHA (2073): Abaurregaina, Aniz, Donamaria, Dorrao, Erratzu, Etxalar, Eugi, Jaurrieta, Lekaroz, Urdiain, Zilbeti, Zugarramurdi -A: *aitu*.  
Etxaleku, Etxarri (Larraun), Goizueta, Igoa, Oderitz, Suarbe, Sunbilla -A: *aitsu*.  
Arbizu, Leitza -A: *attu*.  
Beruete -A: *aitto*.  
Gaintza -A: *atto*.  
Alkotz -A: *aitsu*. -S: *entzun*.  
Ezkurra -A: *aitsu, aitto*.  
Luzaide, Mezkiritz -A: *aitu*. -S: *entzun*.  
OEH: *aditu*

- adizale.** *iz.* Entzulea. Erab. (Lar aditzaile). *Predikátus gauza báy, adizaleék entendatzen zúte, batak au, berzeak uráy, nola bear zuen bakotxak* (281).  
OEH: *aditzaile*
- admirable.** *adj.* Miresgarria. Erab. *Asko gauza notagarri dire Sandu gónen bizi admirablean* (387).  
OEH: *admirable*
- admiratu.** *ad.* Harritu. Erab. (Lar, Cb). (G, GN, L, Z, MHN, HHN, ErdHN<sub>v</sub>). *Goratu zúte gurutzearéki, zeudeláik beira ogei báy milla persóna lastimaturík ta admiraturík* (552). *Dióte bere húme proprio báy ere ilarazi zuéla zelos, manneráz, ezi enperadóre Erromákoak aditurík ori, ta admiraturík, erran omen zué obe zela Herodésen etxeán izán haziéndabéltz, ezi arren húme* (564).  
OEH: *admiratu 1*
- admirazio.** *iz.* Harridura, miresmena. Erab. (Cb). Idatzizko iturriak+: Cb lehen erabilera. (G, GN, ErdHN<sub>v</sub>). *Egia gónek admirazio ematen diote bienabenturatuéi ezauntzen dutenéi* (78).  
OEH: *admirazio*
- admititu.** *ad.* Onartu. Erab. (B, G, GN). Dialekto+: Meridional. *Módu ón guziés porfiatu zió*
- admiti zézan matrimonio ain ongi zegoquióna* (121).  
OEH: *admititu*
- adoratu.** *ad.* Gurtu. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er MHN, HHN, EkiHN). *Desengañátzera engañaturík bizi dirénak sinétsis ta adorátus ainbérze Jangoiko fálsu, eztelarík baizik báy egiáskoa* (512). Informazio gehigarria: izaki dibinoekin soilik erabiltzen du. XIX. mendetik aurrera erabilerak behera jo zuen.  
OEH: *adoratu*
- adorazio.** *iz.* Gurtzea. Erab. (G, GN, HHN). Dialekto+: *adorazione* en autores septentrionales y *adorazino(e)* en vizcaínos. *Jaun guzién Jauna, zeñi zor záion erreberénzia ta adorázio dibinoa* (134). Informazio gehigarria: izaki dibinoekin erabiltzen du soilik.  
OEH: *adorazio*
- afaltegi.** *iz.* Afaltzeko tokia. Erab. (Lar, Mb). (B). *Zegoláik Jesus óna Jerusaléngo zenákulo edo afaltégian bere améka Apostoluéki* (60).  
OEH: *afaltegi*
- afekto.** *iz.* Maitasuna. Erab. (Cb). (B, G, GN). Dialekto+: Meridional. *Án biltzen zé gógoas, ta mintzatzen zé aféktoas bere*



Jesus onaréki elzeen értean ére (174). Informazio gehigarria: ‘afecto, deseo’. Larramendik (s.v. *afecto*) *gogoa* eta *bihotzgintza* ematen ditu. Lizarragak *gogoa* hitza ‘arima, konzientzia’ eta ‘nahia’ bezala erabiltzen du eta *bihotzgintza* ez du erabiltzen. Kardaberazek ere *afekto* erabili zuen eta hego-nafarreraz *afektu* jaso dugu. **afektu** (HHN).

OEH: *afekto*

**aflikzio**. *iz.* Atsekabea, nahigabea, samina. Erab. *Ezin erremédia iten zúzten agrábíoaak Ama birjinái bere imajinaetán ere, péna ta aflikzioarén útses heritu zé kasi eriotzeraño* (327).

OEH: *aflikzio*

**agarrotxatu**. *ad.* Garrotxaz zirikatu. Hap. *Loturik Sanda bi zezén furoéi, agarrotxatzen zúzte punzika gorituéki, zatika zezáten* (257). Ikus *garrotxatu*. Informazio gehigarria: Larramendik “Agarrochar, *garrotxatu*, *garrotxaz zicatu*” dakar HHn. Gaztelaniazko *agarrochar* aditzetik Lizarragak, Larramendik ez bezala, jatorrizko *a*-ri eustea erabaki zuen, nahiz *garrotxatu* ere erabili zuen. Zehazkiago, *a*-Lizarragak berak gehitu zuen, jatorrizkoan *garrochar* ageri baita: “los garrocharon con garrochas encendidas las puntas” (1734: 67).

OEH: *garrotxatu*

**ageri izan**. *ad.* Agertu, begi bistan azaldu; ezagun izan. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, BN, Z, EkiHN). *Etzé niondik ageri ez errestorik, ez notiziarik, ez eta memoriarik ere* (178). *Karidá-dea geienik ageri dá padezitzean ta padezitzera esponiztean onetsiengátik* (146). **ageri** (HHN, EkiHN). Ikus *agerri*.  
OEH: **AGERI IZAN** (s.v. *ageri*)

**agerri**. *adj.* Ageria. Erab. (Lar). (G, GN, L, BN, Z, EkiHN). *Pre-dikátzean bein Bayonan kanpo agerrian, agitu zé tenpestáde erru bát aize, ortóts, oñastúr ta erauntsi andiéki* (159). Ikus *ageri izan*.

OEH: 1 *agerri* I, 1

**agertu**. *ad.* Agertu, ikusgai bihurtu, jakitera eman, errebelatu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Án agertu zué kanporá barnean altxaturik zeukan glória Jangoikoaréna, ikusarázis árgi edér bere begitártea* (40). *Ortzi zúte Kristioek honratukí, eta Jangoikoak agertu zué injustizia egin zéna* (499). Ikus *errebelatu 1*. Informazio gehigarria: hego-nafarreraz bada *agirtu* ere (Camino 2004: 96), baina Lizarragak ez darabil sekula.

OEH: *agertu*

**agian.** *adb.* Agian, beharbada. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sub>v</sub>, EkiHN<sup>^</sup>). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Agían duda dúzu dagóla presénte zerén eztúzun ikústén?* (414).  
 OEH: *agian*

**agiasko.** *adj.* Kontingentea, gerta daitekeena edo gerta ez daitekeena. Hap. *Errégla generála dá, bizi onarí darraióla eriótze óna: gañarákoa dá dudásko, argál, ta agiásko* (75). Informazio gehigarria: “883. pero la regla general es, que a la buena vida le espera buena muerte: lo demás es dudoso, muy raro y contingente” (Agreda, 1860 (3): 336). Badago *agizko* adjektibo eta adberbio gisa adiera ezberdinetan (‘arrunta, normala’, ‘orokorrean’, ‘normalean’) xx. mendeko testuren batean (Orixerenetan, adibidez). Bestalde, Lizarragaren erabile-ratik hurbilago, *agiaz* ‘agian’ lekukotuta dago (L), *aiaz* (B, Azkueren arabera, ap. OEH, s.v. *agiaz*), eta *agiz* aldaera xx. mendeko idazle gipuzkoar pare batean.  
 OEH: *agizko*

**agitu.** *ad.* Gertatu. Erab. (Mb). (GN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN<sub>v</sub>). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Agitu zé Jesu Kristorén iltzea bere adinarén ogei ta*

*amirur urte beterik* (56). Informazio gehigarria: OEHren arabera, Mendibururena da *agitu* ‘gertatu’-ren lehen lekukotasuna eta batez ere goi-nafarreraz eta zubereraz jaso izan da xviii. mendetik aurrera (batez ere Mendiburu eta Lizarragaren lanetan) eta ondoren xix.ean Iparraldeko gainerako hizkeretara zabaldu zen. Ekialdeko hego-nafarreraz ahozkoan ibiltzen da; hortaz, egiantzekoagoa da ahozko tradiziotik hartua izatea, Sarasolak (1986: 214) aipatu zuenez, Aezkoa bezalako alderdian “euskaldun ikasirik ez zegoela eta [...] kultur arazo baten ondorioz «irabazi» ez den [hitz]” ugari daudelako. Dena dela, ez dirudi ezinezkoa hitzaren zabaltze prozesuan Mendiburuk eta Lizarragak eragina izatea.  
 OEH: *agitu*

**agitz.** *adb.* Oso. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (GN, Bzt, BN, HHN, ErdHN). *Ilik bién burátsoak, ayén ondasunkéta, agitz andia gelditu zekioténa, asi zire errepartitzen pobreéi liberálki* (112).  
 OEH: *hagitz*

**ago 1. iz.** Ahoa. Erab. (B, GN, L, Bzt, BN, Zar, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Beirátus pobre gúra, nola balitz Kristo bera, aplikatu zué bere ágoa*

*llagará, txupatu zió matéria zerióna* (84).

EHHA (2094): Abaurregaina, Alkotz, Aniz, Arbizu, Beruete, Donamaria, Dorrao, Erratzu, Etxaleku, Etxarri (Larraun), Eugi, Gaintza, Igoa, Jaurrieta, Lekaroz, Mezkiritz, Oderitz, Suarbe, Sunbilla, Urdiain, Zilbeti.

OEH: *aho*

2. *iz.* Mozteko tresnaren zati zorrotza. Erab. (Ax, Lar). (B, GN, ErdHN). *Jardukitzea neurririk ta pizurik gábe dá bi agotako kanibeta bát, heritzen duéna jardukizálea ta adizálea* (69). Informazio gehigarria: agerpen bakarra JMSBn.
- EHHA (1821): Alkotz, Arbizu, Beruete, Donamaria, Dorrao, Erratzu, Etxaleku, Etxarri (Larraun), Gaintza, Mezkiritz, Oderitz, Urdiain, Zilbeti.
- Ezkurra -A: *abo, aoa*.
- Abaurregaina, Eugi -A: *agobiru*.
- Igoa -A: *agobizar*.
- OEH: *aho 2*

**agotz.** *iz.* Lastoa. Erab. (Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN). *Eskatu zió Nausiari lizenzia aizerátzeko berriz agótza, pobreendáko gari atra zeiéna* (186). Informazio gehigarria: Mendiburuk ere badarabilen arren, hego-nafarrerazko corpusean jaso dugu, eta hego-nafarreraz gain-

di, egun Nafarroako zenbait lekutan (cf. Arbizu) ahozkoan erabiltzen da.

EHHA (1870): Abaurregaina, Alkotz, Arbizu, Eugi, Jaurrieta, Mezkiritz, Suarbe, Urdiain, Zilbeti.

Dorrao -A: *a(g)otz*

Oderitz -A: *a(g)otz*. -S: *lasto*

AELIE: *agotz*

OEH: *ahotz*

**agoztegi.** *iz.* Lastategia. Erab. (Lar, Mb). (B, Bzt, Zar, ErdHN). *Igés doaieláik, altxaturik agoztegi bátean erre zúte bizirik heréje bekála* (349).

EHHA (1836): Mezkiritz.

Zilbeti -A: *aoztegi*. -S: *sabai*.

AELIE: *agoztegi*

OEH: *ahoztegi*

**agrabio.** *iz.* Iraina. Erab. (Cb). (HHN). *Eskatu zué barkázio, in bazio agrábio noribaiti* (458). Informazio gehigarria: Kardaberazek erabilitako hitza; Larremendik “agravio, injuria, irainá, bidegabé, bidebageá” dakar alde batetik eta “agravio, daño, caltea” bestetik. Lizarragaren lanetan ez dugu *irain* hitza aurkitu; bai, ordea, *bidegabe* bereiz idatzirik: *Benefizioa ta agradezimentua elkarri darraizkio [...] ala da txarrerria ta bidegabea ez ongigilleai eskerrak ematea* (2004: Sermo XLIV). Halaz, *agrabio* ahozkotik harturiko hitza delakoan

gaude, baina baita erdaratik, mailegu jaso bezala.

OEH: *agrabio*

**agrazean.** *adb.* Heldu gabe (batez ere mahatsaz esaten da). Erab. *Eta ala nola ardantze baten já-beak baitu drétxo, artzekó bere ardantzetik mátsak, déla agrá-zean, déla zoritu óndoan, nio-ri perjuiziorik in gábe* (105). Larramendik ez zuen mailegua onartu: “*agraz, agua exprimida de uvas no maduras, mats eldu baguekoen ura, mats ura*”. Lehen agerraldia Landucciren *agaraz* litzateke.  
OEH: AGARATZEAN (s.v. *agaratz*)

**agur.** *interj.* Hasierako agurra. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: *gral.* Cf. OEH (s.v.): “Los autores septentrionales lo emplean como saludo de encuentro. Este uso está documentado tbn. en la tradición meridional: los testimonios más antiguos corresponden a Micoleta y las escrituras de Andramendi”. *Agertu zekiotéla Jesus bera, ta errán, agúr, Jangoikoak guarda zaiztela* (224).  
OEH: *agur*

**agur egin.** *ad. esap.* Agur egin. (B, G, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN, L, BN, Z). *Au asarraturik zerbitzukoén kóntra zergátik utzi zúten sar-*

*tzerá, etzé mogitzen ere egitekó agúr ta óngi etórria* (297).

OEH: AGUR EGIN (s.v. *agur*)

**agustu.** *iz.* Abuztua. Erab. (B, GN, ErdHN). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Agustuaren 17an* (236).  
**abuztu** ( EkiHN<sup>^</sup>), **aguztu** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN).  
EHHA (290): Arbizu, Gaintza, Sunbilla.  
Abaurregaina -A: & *abuztu*.  
Goizueta -A: *austua, abuzto*.  
Jaurrieta -A: & *abuztua, agostua*.  
OEH: *abuztu*

**aialdeko.** *iz.* Aliatu, laguna, aholkularia (?). Leh. (GN). Dialekto+:  
ap. A. *Elegitu zúte Innocencio II: kontra goratu zé makur bát deitua Pierleon, zituéna bere ayaldékoak* (407). *Dudatzen asi zé bi aldis alá errate garreki; baña kendu zioite burutik ayaldéko lagotero gaixtoak* (428). Informazio gehigarria: Lizarragarena da hitz honen lehen lekukotasuna. Larramendik (s.v. *amigo*) *adiskide* eta (s.v. *compañero*) *laguna, elkarguna, alkarguna, soinkidea* dakartza. Lizarragak, horietarik, *adiskide* eta *lagun* bakarrik erabili zituen. Dena dela, Lizarragak oso gutxi erabili zuen: *aialdeko* (10), *adiskide* (323) eta *lagun* (116). Aztertutako gainerako autoreek ez dute *aialdeko* erabili. OEHk (s.v.

*aialdeko*) “compañero, socio, el que está al lado; protector, ayudante” ematen du eta Irai-zozek “compañero, socio, el que está al lado” (1978: 248). Guri, Lizarragaren adibideak ikusirik, egokiago iruditu zai-gu ‘aliatua’, esanahi ñabardura berezi bat duelakoan, baina ezin alde batera utzi FS-k proposatzen digun ‘aholkularia’ (ikus beherago): *Etxalde ona du, dote ona du, ondasun ona du, aialdeko onak tu* (2004b: Serm. 110). *Orazio-gisa gonek dezazke eraman, ta konbeni da eramatea irur aialdeko. Zein dire? Kontrizioso negarrak, penitenziasko mortifikazioak ta limosna edo obra miserikordiaskoak* (2004b: Sermo in dominica 5a). Hego-nafarreraz ez dugu *aialdeko* aurkitu; bai, ordea, *lagun, adiskide* eta *eixkidetu*. Lizarragaren lekukotasuna baliatuz, Azkuek bere hiztegian jaso zuen *aialdeko* eta horren ondotik beste zenbait agerraldi aurkitu ditugu (Orixe, Gurbindo, Erkiaga...). Ahozkotik harturiko hitza delakoan gaude, baina baliteke Lizarragak sorturikoa izatea, euskarazko *aldeko* oinarri hartuz. FS 1716: 428 ‘consejero’ ageri da. FS (1688: 59) ‘lisonjeros, ministros y otra mucha gente perdida’. OEH: *aialdeko*

**aide.** *iz.* Ahaidea. Erab. (Ax *ahaide*, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *ahaidea* L, Bzt, BN. HN+: Ar-tola3. *Jaintsirik gure zamárta póbrea, gure aide, gure arágitá odoléko eginik* (559). EHHA (2521): Ezkurra, Mez-kiritz, Urdiain, Zilbeti. Alkotz, Arbizu, Suarbe -S: *pariente*. Beruete -S: *parientala, pariental, pariente*. Etxaleku -A: *aidi*. -S: *pariente*. Donamaria -A: *aidi*. -S: *famili, jendaki*. Dorrao -S: *fameliko* Eugi -S: *aidengo* Leitza -S: *familiko, familliko, parentela*. Sunbilla -S: *jendaje* Zugarramurdi -A: *aire*. -S: *kusinaireak, kusina*. AELIE: *aide* OEH: *ahaide*

**aien.** *iz.* Aihena, mahatsondoaren egurra. Erab. (Lar). (*ai(h)en* B, G, GN, L, Bzt, BN, Z, EkiHN). Dialekto+: gral., Sal & R izan ezik. *Jangoikoa, moxten bairzue alá nola bere zarmendua, edo ayéna alkitzas* (314). EHHA (1885): Legazpi, Etxaleku, Makea, Sara, Aldude. Lekaroz -S: *matsain aiena* Zugarramurdi -S: *maatsen aiena* Arrangoitze -S: *aldaska* Barkoxe -A: *aienondo*. -S: *xarment*

AELIE: -A: -; -S: *sarmendu*  
 OEH: 1 *aihen*

**aiko.** *iz.* Ahaikoa, ahaidegoa, sendia. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar ahaiko. *Aideék zióte, niór etzéla bere aikoan izen góí zueník* (467). **aide** (HHN, ErdHN).  
 AELIE: -A: *aide*; -S: -  
 OEH: *ahaiko*

**ain.** *grad.* Hain. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Cb *añ*, Ax *hain*. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Z, MHN, HHN, ErdHN<sub>v</sub>, EkiHN). Dialekto+: Ae *gein*; R & Sal *kain*. HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Ain sánda alde bát, berze álde ain ederra* (459). **gain** (EkiHN).  
 EHHA (1692): Mezkiritz, Zilbeti, Oderitz, Eugi, Arbizu, Donamaria. Abaurregaina, Erratzu, Alkotz, Aniz, Etxalar, Ezkurra: -A: *aiñ*.  
 Sunbilla -A: *aiñ*. -S: *orreiñ*  
 OEH: *hain*

**ain nola.** *mend.* Hala nola. Leh. (EkiHN). *Bere konturá artu zué bere izeba bátek, bere Amarén aizpak, Diana deituak, ta maite zué ta azitzen zué ain nola balitz Ama propia* (452). Informazio gehigarria: OEHn Mendigatxaren adibideak ageri dira soilik.  
 OEH: HAIN NOLA (s.v. *hain*)

**ain txusto.** *lok.* Hain zuzen. Leh. Idatzizko iturriak+: *hain justu/justu* ez da XX. mendera arte lekukotu (OEH, s.v. *justu*). *Tratatu zué mendéku ártzeas, soldádo bekála: eta ain txústo ortziláre sandu batéz zebilaláik akonpañaturik lagúnes* (478-479). **ein justo** (EkiHN).  
 OEH: HAIN TXUSTO (s.v. *txusto*)

**ainberze.** *zenb.* Hainbeste. Erab. (Ax). Idatzizko iturriak+: Ax: *hainbertze*. (GN, MHN, HHN, ErdHN). *Arriturik mediku guziak, nola zeiken bizi padezi-tus ainbérze gaitz mortále dolorésko lotsagárri* (455). **ainbertze** (ErdHN<sup>^</sup>), **gainbertze** (EkiHN<sup>^</sup>), **inbertze** (EkiHN<sup>^</sup>).  
 EHHA (1693): Abaurregaina, Erratzu, Etxalar, Eugi, Mezkiritz, Zilbeti.  
 Suarbe -A: *ambertze*.  
 OEH: *hainbeste*

**aingiru.** *iz.* Aingerua. Erab. (Ax). Idatzizko iturriak+: Lar, Mb, Cb: *aingeru*. (GN, L, Bzt, Zar, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Bietán dió, alá alegratzen diré-la Aingiruak Zéruan, penitén-zia iten duelaik bekatari bátek lurreán* (38). **aingeru** (MHN, HHN). Informazio gehigarria: Ibarrak *aingiri* eta *aingeru* ere ematen ditu.  
 EHHA (2547): Abaurregaina, Aniz, Erratzu, Lekaroz,

Zugarramurdi.

Eugi -S: *anjel*.

OEH: *aingeru*

**ainkurias.** *adb.* Intzirika, uluka.

Hap. *In zue orázio, ta tzakúr-rak ezin pasatu zire alzina, baizik aunkas ta ainkúrias itzuli zire Nausiengána lastér* (246). **aulubias** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: Baliteke Nafarroa Behereko Behorlegi eta Larzabaleko *zinkuri*, Izturitze zein Jutsiko *zinkuli(n)*, Zuberoako Barkoxeko *zinkhur* edo Larraineko *zinkhui* hitzekin loturik egotea. Hurbil daude, halaber, *ainuriaz* “aullando” (Zar ap. Azkue), eta oro har *ainuria* (GN, Zar ap. OEH) eta aldaerak.

EHHA (2436): Larzabale -A: *zinkuria*. Arnegi -A: *zinkurin*.

Arrueta -A: *zinkuri*.

Landibarre -A: *zinkurina*, *minkurina*. -S: *ai aika*.

Dorrao -A: *eñuri*.

Etxarri (Larraun) -A: *aiuri*.

Igoa -A: *aiuri*.

OEH: *ainkuria* & *ainuria*

**aintzu.** *adb.* Gisa. Leh. (Mb; Ax

*antzu*, Lar *antzo*). (GN). Dialekto+: soilik Iparralde eta GN. *Bitártean urbildu zekiote Jaun dibinoa peregrino-aintzu, ta galdein zióte: “Zer zindeuzte jardukitzen elkarréki, baizauzte alá triste?”* (59). Informazio gehigarria: Leizarragarengan-

dik hasita lekukotzen da eta autore askoren lanetan jaso da, baita XVI. mendeko goi-nafarrerazko testu batean ere. Larramendik *antzo* ‘semejanza’ eraman zuen HHra eta Axularrek *antzu* darabil ‘como, a modo de’ eta ‘estéril’ adierazteko. Mendiburuk *aintzu* dakar eta haren atzetik Ubillosek eta Lizarragak erabili zuten XIX. mendean, eta Darricarrèrek eta Iraizozek XX.ean. Goi-nafarreraz hain agerpen goiztiarra izanik, litekeena da *aintzu* ahozkotik hartu izana.

OEH: *antzo*

**aio.** *iz.* Hautzaina. Erab. (Lar, Cb).

Idatzizko iturriak+: *ayo*. “Ayo, aya, es voz Bascongada [...], *aioa*, *aurzaia*, *seinzaina*” Lar. *Enperadoreén ta Erregeén humeéi billatzen tióte ayo ta kuidazále daizken obénak* (412). *Kuidatzekó berén seme lenbizikoa, Prinzipe Jáuna, billatzen dúte persona bát alikáko obéna, deitzen déna ayo edo kuidazále* (139).

OEH: 2 *aio*

**aiots.** *iz.* Intziria, aienea. Leh. (GN,

ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: GN ap. A. *Arritu zé jueza óntas, ta ayots batéki erran zue: “Emastékiek ere ta aurrek garaitzen gaitúte”* (129). Informazio gehigarria: Ibarrek ez dakar izen bezala, baina *aioska* ‘oihuka’

adberbioa dakar. ‘Zakurraren kexu hotsa’ (EkiHN<sup>^</sup>).

EHHA (2436): Jaurrieta.

AELIE: -A: -; -S: *iskiritu*

OEH: *aiots*

**aipakunde.** *iz.* Aipamena, aipua.

Leh. *Aiturik Ministroek ondasunen aipakúndea, berealá arrapatu zúe preso Lorenzo* (231). Informazio gehigarria: Baztanen *aifakunde* OEHaren arabera.

OEH: *aipakunde*

**aipatu.** *ad.* Aipatu. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *-ph-*. (G, GN, L, BN, Z, HHN, EkiHN<sup>^</sup>). *Aixtean aipatu dúgun Monja inbidiosa gárrek errán zue búrla egines berzeén beldúrras, zer?* (150).

OEH: *aipatu*

**aisa.** *adb.* Erraz. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar *-s-* & *-x-*, Ax *-e*. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: G, L, BN *-e*; AN-g-ulz *-xe*. HN+: Arto-la1, Ibarra zehaztu gabe. *Orái santidádea konpontzen deláik birtúte guzies, ezta aisa determinátzea, zein birtúte izán zen andiéna sandu góntan* (194).

**aise** (ErdHN, EkiHN), **aixe** (ErdHN).

AELIE: -A: *aise*

OEH: *aise*

**aisatu.** *ad.* Erraztu. Erab. (Lar). (Bzt, Z). *Au dá diona Elizak egin zéna guzia guziendáko: aisatu zuéna zerurako bidea, ta suabétu Kristoren bustárria, ta arindu kárga* (326).

OEH: *aisatu*

**aiskide.** *iz.* Adiskidea. Leh. (B, G, GN, L, BN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: lehena *ais-* erabil-tzen. *Baña, o, arima pobré-ttoak: zuék penatán zauzte, ta zuén aide ta aiskide ta kide izának daude atzendurik* (542). **aiskide** (MHN), **adiski-de** (ErdHN, HHN), **exkidetu** (EkiHN<sup>^</sup>). Ikus *adiskide*.

AELIE: *aixkide*

OEH: *adiskide*

**aita.** *iz.* Aita. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Aita infor-maturik galméndeas itzuli zé etxerá, ta arturik apárt bere semea, egin zio kárgu bere bi-zimodu gaixtoas Aitarén amóre ta konpasionearéki* (339).

OEH: *aita*

**aitabitxi.** *iz.* Aitabitxia. Erab. (Lar). (B, GN, L). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Atrarik ikusi zuteláik bizi zéla konsolátu ta admiratu zire, ta bataiatu zúte, Aitabitxi zelarik bizkónde bera* (356).



Informazio gehigarria: Ibarrek  
*aitagutxi* dakar.

AELIE: -A: *aitabutxe*

OEH: *aitabitxi*

**aitetamak.** *iz.* Gurasoak. Erab. (G, GN, L, BN, Z, Er, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola2. *Aite-taméi sokorritzeagátik, baizire póbreak, egoten zé trabajátzen gau erdiráño* (244).

OEH: *aitetama*

**aitu.** *ad.* Entzun. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Manamendu gáu aitu ordúko itzuli ze bere baitan, irur órdus mútu egon zéna* (456). Ikus *aditu*.

AELIE: *aitu*

OEH: *aditu*

**aitun.** *iz.* Aitona. Erab. (G, GN, Bzt). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Bere Aitún edo Atxunak, sano zegoláik, errán zio bere elléba aurttoari, iltzen zego-narí* (188). **aitatxi** (ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>), **aitetxi** (ErdHN), **apitxi** (EkiHN). Ikus *atxun*. Informazio gehigarria: Ibarrek *aitatxi* eta *aitexi* dakartza.

EHHA (2494): Arbizu.

OEH: *aitona*

**aixtean.** *adb.* Arestian. Leh. (ErdHN<sup>^</sup>). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Erran dúgun bi pa-reteén erteka gúra derepénte* (sic) *aurkitu zé beterik armir-mau-sareés edo telaráñas, de*

*manéra ezi, nióri etzékio gogorátu sartu zéla án gizoník aixteán* (116). **aixtian** (ErdHN, EkiHN), **aixtirik** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: OEHN (s.v. *arestian*), aldaera honendako, Lizarragaren adibideak jaso dira soilik. Hego-nafarraz *aixtian* jaso dugu eta, beraz, uste dugu Elkanoko aldaeraren aitzinean gaudela. Ibarrek *aix-tian* dakar.

AELIE: *aixtean*

OEH: *arestian*

**aizeratu.** *ad.* Haizeratu, haizatu. Leh. Idatzizko iturriak+: Ondoren Txomin Agirrek. (GN, ErdHN<sup>^</sup>). *Aizeratu zué berriz agótza, ta atra zué ásko gariké-ta, guziák zeudeláik arriturik. Eskatu zió Nausiari lizenzia aizeratzekó berriz agótza, pobreendáko gari atra zeiéna* (186).

OEH: *haizeratu*

**aizineko.** *iz.* Arbasoak. Hap. (*aitzineko* Ax, Lar, Mb). *Nola ofrezitu zuén gure aizinekoéi Abraham ta arren jendakiarén faboretán betikós* (23). Informazio gehigarria: Zeri zor zaion ez badakigu ere (gaizki ulertu edo kopiatu ote zuen?), forma ziurra da: “Según el editor hay *aizineko* ‘antepasado’ en la *Doctrina* de Lizarraga de Elcano” (OEH).

OEH: *aitzineko*

**aizkatu.** *ad.* Uxatu, bidali. Leh. (Bzt). *Naiz diren ain zále gorputz ilén, ez solamente etzúzte ukitu ayék, baizik aizkatu zúzte andik otsorrái ta miru gúziak* (283). **aizatu** (EkiHN), **eizatu** (EkiHN). Informazio gehigarria: Jean Etxeparek ‘harriekin edo harrikadaz uxatu’ adieran darabil eta Lekuonak, aldiz, ‘uxatu’ bezala. EKCn ez da beste erabilerarik jaso. AELIE: -A: -; -S: *igorri*. Informazioa: Eugiko lekuko batek ezagutzen du *aizkatu*, baina ez darabil. OEH: *aizkatu*

**aizkor.** *adj.* Harroa (?). *Etzé Sanda gáu triste sério mostratzen zéna, eskrupulóso ertxi, akar inzále, aizkór ta alá, ez, baizik afáble, llána, pásta onékoa* (276). Informazio gehigarria: Testuan ez dago adibide gehiago. Ez dago argi esanahia zein den. OEHko hiru sarrerarekin lotu daiteke: 1 *aizkor* “arrogante” (Bzt), 2 *aizkor* “espantadizo” (GN) eta *haizakor*-en bi adiera: “espantadizo” (BN-baig) eta “persona veleidosa” (G-to). OEH: *haizakor* 3 & 4, 1 *aizkor* & 2 *aizkor*

**ajent.** *adj.* Prestua, bizkorra. Hap. *Guzién értean zebila Apostolu zori gaixtokoa, listo, ajént, itekóso, etzezáten uts egin*

*arrapátzean berzeren bát Jesusen lekuan* (44). AELIE: -A: -; -S: *prest* OEH: *ajente* 1

**ajola.** *iz.* Axola. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN). *Ez ajolarik lurréko ondasúnes, eztaré infiélen meátxues ta tormentues* (249). OEH: *axola*

**ajolaguti.** *adj.* Axola gutxikoa. Leh. *Deábruak errespondatu zió, ezi donzella gárren lazo, ajolaguti izáteak ekarri zuéla ta zególa ongi aurkiturik án* (128). Ikus *ajolakabe*. AELIE: -A: -; -S: *azolakabe* OEH: *axolaguti*

**ajolakabe.** *adj.* Axolagabea. Erab. (G, GN). *Bat zé Senan, guzis gaixto ajolakábea, blasfematzen zuéna Jangoikoas ta bere sándues* (175). AELIE: -A: *azolakabe* OEH: *axolagabe*

**ajustatu.** *ad.* Adostu. Erab. (Lar, Cb). *Obligatu zé bizitzerá birjin betiró: eta alá biak ajustatu zire bizitzekó Anái ta Arreba bekála* (284). OEH: *ajustatu*

**akabanza.** *iz.* Bukaera. Erab. (Ax, Lar). Idatzizko iturriak+: Ax -*kh*-. (L, BN, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: Iparraldean, GGe-

ron eta LEn. *Ta egunarén akabánzan goarturik billatzen zutéla aideén ta ezaunén értean* (426). **akabantxa** (EkiHN).  
AELIE: -A: -; -S: *akabu*  
OEH: *akabantza*

**akabatu.** *ad.* Bukatu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Zar, Z, HHN, ErdHN, EkiHN). *Seigarren itza errán zue azkenerát: “Consummatum est, bukátu edo akabátu dá; kunplitu dá itékoa”* (56).  
OEH: *akabatu*

**akaitu.** *ad.* Nekatu. Erab. (BN, Zar, Er). *Elias zoéie igés erregina Jezabelengánik, ta akaiturik etzan zé lurrean bizias etsiturik* (413). **akeitu** (EkiHN), **akitu** (EkiHN). *Ikus aspertu, nekaporratu, nekatu, porratu.*  
OEH: *akitu*

**akar in.** *ad.* Ahakar egin, errietan eman. Erab. (GN, Zar, HHN, ErdHN<sub>v</sub>). HN+: *Berriain Doctrina. Artu zué berze medio bát, baize untátzea begiak pimientoréki, zeñéki sútan paratzen zekizkio, ta anditurik, ezpaizekióke beirátu. Amak, ezaundurik, akár iten zió, paratzen zéla peligróan galtzekó bista* (500).  
AELIE: -S: *asarre (asarre in)*  
OEH: *ahakar*

**aker.** *iz.* Akerra. Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: *gral. Il zúzte bi akér, ayén arágias alimentatzekó ta ayén lárrues anditurik aizes pasatzekó ugálde andi bát* (361).  
AELIE: *aker*  
OEH: *aker*

**akomodatu 1.** *ad.* Akomodatu, leku egokian jarri. Erab. (Lar, Cb). (BN). *Denboraréki nai izán zue Aitak akomodátu bere heredéra bekála* (91). *Zénbat emastéki galdu atra zitue galmendetik? Zénbat dotatu zitue, ta akomodátu?* (146).  
OEH: *akomodatu*

**2.** *ad.* Moldatu, egokitu. Erab. *Mintzátu guziéi alégre modés-to. Akomodátu tratatzen duenaren genioaréki; ez mintzatu pensatu gábe: ez diskulpátu* (529).  
OEH: *akomodatu*

**akordu.** Zentzu ona, kordea. (GN). *Konsejatzen diziet il baño lén, akordurá itzuli zaizten* (282). *Il zékio anaiá bát: sentitu zué arrébak sobráxko, ta Jangoikoak txurtu zitio erregáloak: ta eremutar baték gastigatu zió zela, zerén etzuen izán konformidáde perféktoa. Orgátik geró il zekiolaik aita, egón ze akordu obeán* (165). Informazio gehigarria: Axularrek

*akorduan egon* Lizarragak bigarren adibidean darabilen antzeko zentzuan erabili zuen (ik. OEH, AKORDUAN EGON, s.v. *akordu*).

OEH: *akordu* 2

**akorduratu.** *ad.* Nor bere onera etorri. Erab. (Mb). *Egun batéz ellegaturik pobre bāt limósna éske, itekóso zego láik, despeitu zué gábe: akorduraturik berealá, atrá ze lastérka atzétik, ta erdetxirik emán zio limosna on bāt* (261). Ikus *akorritu*. Informazio gehigarria: Lizarragak *akorritu* ere erabiltzen du ‘bere onera itzuli’ zentzuarekin. Ematen du hitz biek oinarri bera dutela, baina desberdinak dira. Ez du ematen egilearen borondatearekin loturarik duenik, adibidez, *akorduratu ze* (251) eta *asi ze akorritzen* bezalako adibideak aurkitu baititugu. EHHAn (s.v. *desvanecerse*). Igoan *akordua galdu* ageri da.

AELIE: Eugiko lekuko batek *akorduratu* eta beste batek -A: *akordatu*

OEH: *akordura(tu)*

**akorritu.** *ad.* Bere onera itzuli, bizkortu. Leh. (GN, ErdHN<sub>v</sub>). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Bitárteo obiarén guárdian zeuden soldádoak akorritu zire berén desmayo gartáik*

(58). Ikus *akorduratu*. Informazio gehigarria: *akordu*

AELIE: -S: *akordatu*

OEH: *akorritu*

**akullo.** *iz.* Akuilua. Erab. (G, ErdHN<sub>v</sub>). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Nor dá ori, Jauna? Errespondatu zió: “Ni naiz Jesus, persegitzen nauzúna zuk. Gauza gogórra dá zuretáko ostiko tirátzea akulloaren kóntra”* (215). Informazio gehigarria: OEHn (s.v. *akuilu*) Iturriaga, Orixe era Munitaren lekukotasunak aipatzen dira *akullo* hitzari dagokionez. EKCn begiraturik, Iturriaga, Lizarraga, Orixe eta Uriarterenak ageri dira. Uriarteren kasuan, pasarte bera aurkitu dugu (Apostoluen egiteak-1). Hona Lizarraga eta Uriarteren pasarteak: *Nor dá ori, Jauna? Errespondatu zió: “Ni naiz Jesus, persegitzen nauzúna zuk. Gauza gogórra dá zuretáko ostiko tirátzea akulloaren kóntra”* (215). *Zeñ zera zu, o Jauna? Eta Jaunak esan zion: “Ni naiz Jesus, zuk persegitzen nauzuna; gauza gogorra da zuretzat, akulloaren kontra ostikoak aurtikitzea”*. EHHAn *pertike* jaso da Eugin, Abaurregainean eta Jaurrietan bezala; Nafarroako gainerako herrietan *akullo* edota haren aldaeraren bat. EHHA (1590): Alkotz, Aniz, Beruete, Dorrao, Erratzu, Etxalar, Etxaleku, Etxarri (La-

rraun), Gaintza, Goizueta, Igoa, Jaurrieta, Leitza, Leka-roz, Oderitz, Suarbe, Zilbeti. Donamaria, Mezkiritz, Sunbilla, Urdiain: -A: *akullu*.

Arbizu -A: *akillu*

Ezkurra -A: *akillo*

Luzaide -A: *akulu*

Zugarramurdi -A: *akoilo, akilo*.

Gaintza -A: *akollo*

OEH: *akuilu*

**al guzia.** *grad.* Ahal bezainbat (beti mugaturik jokatua). (EkiHN<sup>^</sup>). *Enpleatzen zé orázioan al guzia* (78). *Azi zúte kuidádo al guziaréki: baña desgrazias geienak bekála larritus bekála zoéie lazatus ta gaixtatus, lagun gaixtoen gaitz kutsusko abasto denareki munduan* (384). *Eta alá al guzián beti apárt igéska zebila emastekietáik* (142).

OEH: AHAL GUZIA (s.v. *ahal*)

**ala.** *adb.* Hala. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Z, HHN, ErdHN<sub>v</sub>). Dialekto+: V-gip. *Sazerdote bekála zego-la obligatúrik beragána eldu ziren guziéi erakusterá, ta kidatzerá zeruráko bideas: ta alá egin zuéla Leokriziaréki* (149). **gala** (EkiHN).

OEH: *hala*

**ala ere.** *lok.* Hala ere. Erab. (Lar, Mb). (G, GN, HHN, ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>). HN+: Ibarra zehaz-

tu gabe. *Ala ére gau bátez nai izan zúzte eramán sazerdote on batzuek; baña sentiturik ta segiturik guardiengánik doidóia eskapatu zire* (533). **alaik ere** (EkiHN<sup>^</sup>), **alare** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), **aleik ere** (EkiHN<sup>^</sup>), **alere** (EkiHN<sup>^</sup>).

OEH: HALA ERE (s.v. 1 *hala*)

**ala nola.** *junt.* Hala nola, bezala. Erab. (Lar, Cb). (G, GN, L, BN, Z). *Eta súak formatu zué ala nola arku bát ingúruan, eta érdian sándua zego, ala nola úrrea istargitzen zuéna: eta errespirátzen atxon bát gozoá* (125).

OEH: HALA NOLA (s.v. 1 *hala*)

**alaber.** *lok.* Halaber. Erab. (Ax, Lar). (L, Bzt, BN, Z, MHN, HHN, ErdHN<sub>v</sub>). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *S. Eufrasia, zein aipatzen duén Sta. Theresak [...] Aita zué Antigono Jaun andía [...]: Ama gisa berékoa, ta deitua alabér Eufrasia, edo Eufrosina* (423).

OEH: *halaber*

**alaitu.** *ad.* Adoretu. Erab. (Lar, Cb). *Eta sándua, nola ezpálitz aragiskoa, burlátzen tormentues ta tormentazáles: ebék akaiturik, ta bera alaiturik* (123). Ik. *alhaitu*.

**alako.** *adj.* Halakoa. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Nola dezakégu áski estimátu aláko amórea, ta aláko amazálea? Nóla zelebrátu dignoki aláko fabórea?* (557).  
OEH: *halako*

**alas edo olas.** *adb.* Era batera edo bestera. Leh. *Azkenéko determinatu zúte bear zéla itzúli errirá alás edo olás, nola zeiken* (386).  
AELIE: *alas edo olas*  
OEH: HALAZ EDO HOLAZ (s.v. *halaz*)

**albas.** *adb.* Ahalaz, ahal izanez gero. Erab. (Mb *albaz*). (EkiHN). *Altxatzen zitue álbaz bérak, baña ikusi zúzte ásko errelijiosoék, zenbáit kardenaleék, ta Aita sánduek ere il baño lén ta il óndoan* (519-520).  
OEH: *albaz*

**alborote.** *iz.* Istilua, iskanbila, zalaparta. Leh. *Ikusirik Pilatosék etzukéla átra arraziorik, guziá zéla arroitu ta alboróte, eskatu zué ur, ta guzién alzinean in zue itxurapena eskuen garbitzeas* (52).  
OEH: *alboroto*

**aldaka.** *iz.* Aldaka, alboia. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar < Ax. (G, GN, L,

Er, EkiHN). *Etzeláik konfesatzeorík, egoten zé konfesonarioarén aldákan orázioan edo léitzen* (343). Ikus *aldamen*.  
OEH: *aldaka*

**aldamen.** *iz.* Ingurua. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN). *Tolosan baño gogotikago predikatzen zué aldamenetán* (491). *Paratu zé Maxter bekála Madrilgo kaballero Juan de Vargas deituarén, kuidatzekó haziénda árka zuen bates aldaménean, onenbérze alokairután* (449). Ikus *aldaka*. Informazio gehigarria: bi agerpen besterik ez, biak B kodizekoak.  
EKCn ikusitakoaren arabera, Gipuzkoako testuetatik hedatua dela ematen du: XVIII(1) ean 6 agerpen 5 G 1 V (Barrutia). XVIII(2)an, Lar (6), Mb (24), Cb (1), LE (4) eta Mogel (6). Guztira garai guztietan 76 V, 1087 G, 5 GN, 8 L, 6 nafarrera. *Sermoiak* lanean ere 'ingurua' zentzuan darabil eta 'ondokoa' adierazteko *aldaka* darabil.  
OEH: *aldamen*

**aldapa.** *iz.* Malda, muinoa, mendixka. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, Bzt, BN, Zar, EkiHN). *Eta sándua loturík erruéda pisu batéki botarázi oián piko batétik aldápa bera* (354). *Igán ze aldapa gora batéra, nondik eskatu zuén eskarmentu on*

*bát zerútik* (167). Informazio gehigarria: “y menospreciando ellos con oprobrio la palabra de Dios, se subió a un cerro alto de la ciudad, donde está” (FS, 1610 (1): 258).  
OEH: *aldapa*

**aldarazi.** *ad.* Aldarazi. Erab. (L).  
Dialekto+: ap. A. *Eta alá errespondatu zió, bazezákela tormentarázi ta ilarázi, baña ez aldarázi* (135).  
OEH: *aldarazi*

**aldare.** *iz.* Aldarea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, HHN, ErdHN, EkiHN).  
*Bere pétxoa kontatzen zué templo-gisa, ta aldáre biótza* (174).  
OEH: *aldare*

**aldarte.** *iz.* Garaia, tartea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Z, EkiHN). *Etsáiak persegitzen ta tentatzen zué milla manéras [...]. Aláko aldar-te batén ondórean agertu zékio Jesús óna* (174). Informazio gehigarria: ekialdeko hegonafarreraz antzeko adiera izan dezakeen adibide bat ere bada: *aldarte (gori)* ‘astia izatea’ dio, baina ez du testuinguru gardetik eta ezin *aldarte* bera den ala ez esan.  
OEH: *aldarte*

**aldartez.** *adb.* Aldika, tarteka. Erab. (Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Haranederrek eta Alphonsa Rodriguezek erabilia LE baino lehen. (AN, ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: ap. A. *Baña gozoéki nastéka zitue pénak ére aldartes* (426). Informazio gehigarria: Lizarragak ‘tarte’ adieran darabil, gehienetan instrumentalarekin ‘tarteka’ adierako adberbioak sortuz: *Ta zaldun garren maleta bateki soñean zoeie alzinean oñes, ta aldartez lasterka ladronen kasos elur eta loietan!* (87). *Eta oñaze gau aldartes biziago da, aldartes ilago, baña beñere ez ain il, ezi uz nazan libre* (ibid.: 338). Mendiburuk ere ‘tarteka’ adieran zerabilen instrumentalean: *Ez ote zait, zenbait aldartez, eskergabeko eran berotzen niri nere mii galdu au* (1904 (2): 163). Ibarrek *aldartez* ‘batzuetan, aldika’ dakar.  
OEH: ALDARTEZ (s.v. *aldarte*)

**aldatu.** *ad.* Aldatu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: gral. L eta BN gutxi, S oso eskasa. *Eskribitu zió Aitari attento, ene Aita, asarratzen badá, zerén aldatu dúten erreliónes, nik eskatzen diót* (435).  
AELIE: *aldatu*  
OEH: *aldatu*

**1 alde.** *iz.* Aldea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: . (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Ugalderá ellegatu zeláik zeñaturik, ta mantelina edaturik ur gáñean, ártan bera oñes busti gábe pasatu zéla berze aldéra* (450).

OEH: *alde*

**2 alde.** *adb.* Alde. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Zué kaballe-ro bát alde zegóna gaitz luze batéki kurátzeko esperantzarik gabe* (384).

OEH: *alde II*

■ **alderat.** *adb.* Alderantz. Erab. (Ax, Mb). Idatzizko iturriak+: Mb *Jesusen bihotzaren debozioa* lanean. (GN, L, BN, Z). Dialekto+: “Usado por autores septentrionales y por el alto-navarro Lizarraga” (OEH). *Sanduak eskojitu zué eskapátzea Kordobatik Franzia alderát* (148).

OEH: ALDERAT (s.v. *alde*)

**3 alde.** Ikus **Zer x ta zer x alde?**

**aldi izan.** *ad. esap.* Dena delako tokian egotekoa izan (aurrean *-ko* genitiboa duela). Erab. (Z, EkiHN). HN+: Ibarra zehaztu gabe. *Zakéo berze ziudáde bátean zego ikusi náies Jesús*

[...] *Jaunak ikusi zió lenik biótza ta oyu egin zio pasátzean: “Ola, Zakéo, xautsi lastér, ezi egún zure etxéko áldi naiz”* (38). Informazio gehigarria: Ahozkoan *hemengo aldi* (Ipar Euskal Herria) edo *gengo aldi* (Aezkoa) esan ohi dena, erdi galdera, erdi diosala, *Nolaz zu hemen gure artean?* galderaren antzeko zerbait; lekuan dagoenak etorri denari edo agertu berri denari esana da beti.

OEH: *aldi 7*

**aldi oro.** *adb.* Aldiro, aldi guztietan. Erab. (Mb). (Zar, Er, MHN, ErdHN, EkiHN^). HN+: Artola1. *Egiten duzién aldi óro, egin zázie ene memoriátan* (44). **aldiero** (ErdHN). Informazio gehigarria: hitza hegonafereraz ageri da eta gaur egun ere *aldiro* aldaera erabilia da Nafarroako zenbait alderditan (guk entzuna Sakanan). Mendiburuk ere erabili zuen eta horrek eremu zabalean erabilia zela erakutsiko luke.

OEH: ALDI ORO (s.v. *aldi*)

**aldirita.** *iz.* Eskualdea. Hap. *S. Genovefa Parisgo Patróna jaió ze ángo aldirita bátean urbil* (107). *Atrazten zé aldirita eta montañaeátara arimen eizian* (266). *Sandu admiráblea izán ze nekazári honrátu birtuósoen hume Groti aldiritan Toscanan* (363). Informazio gehigarria:



Patxi Salaberrik (2008: 599) Larramendigandik harturiko hitzatz dauka; honek *aldiri* Leizarragari hartu ziola frogatu zuen Urgellek (2000: 68), eta honen eraginez gero Iparraldeko tradizioetik (Leizarraga, Oihenart, Belapeire) Hegoaldeko igaro zen: guk aztertu ditugun autoreen artean, Mendiburuk erabili zuen. Lizarragak ere erabili ote zuen ez dago garbi (ikus *aldiritar*; ordea). Iraizozek dakar Lizarragaren *aldiriren* lekukotasun bakarra: *aldiri ta montaña gebetan* (1978: 251), baina JMBSn ikusiak ikusirik, eskuizkribua aurrez aurre ikusi gabe, ez dago jakiterik Iraizozek forma aldatu zuenetz: grafia eguneratu duela aipatzen du (1978: 246), baina aurkituriko “akatsekin” izandako jokabideari buruzko oharrik ez dago. Honako agerpenak bildu ditugu Lizarragaren lanetatik: *aldiritan* (7), *aldirita* (4), *aldiritakoa* (2), *aldiritara* (2) eta *aldiritatik* (1). Larramendik (1745: 211), “Comarca, *aldiria*” ematen du, eta “Comarcano, *aldiricoa*, *aldiritarra*”. 1729ko *Diccionario de Autoridades*era jotzen badugu, *comarca* hauxe da: “el país contíguo y cercano a una tierra o lugar, que están en contorno de ella” eta *comarcano, na*, “circunvecino, cercano y situado al contorno de algún País, tierra, Ciudad, lugar o

término”. *Aldiri*-ren eta, ondorioz, *aldirita*-ren adiera garbia da, beraz, baina honen etorki zehatza ez; alegia, ziurrenik testuren batetik ikasi zuen Lizarragak, ez ahozkotik, baina ez dago garbi HHtik edo beste nonbaitetik hartu zuen, hitzaren ebakera ez baitzuen ongi egin (*aldirita*), dela *aldiritan* bezalako leku-kasu batetik edo dela *aldiritar*-etik. Larramendiren lanetik hartu izan balu, gure ustez, ez luke *aldirita* erabiliko, “comarca” eta “comarcano” sarrerak elkarren ondoan baitaude eta, beraz, hitza ongi ebakitzeko aukera lukeelako. Lizarragak berak zekienaz gainera, HHaren hitzaurrean jatorria adierazteko atzizkiari buruzko azalpenak ematen dira. Bertan oinarriturik ebaki izan balu, ulergarriagoa da, baina aztertzen ari garen bi hitzak elkarren ondoan egoteaz gain, “Aldeano, *aldearra*, *aldeatarra*” eta “Ciudadano, *iritarra*, *uritarra*” bezalako sarrerek ez dute Larramendirengandik hartutako hitza den hipotesia laguntzen. Mendiburuk *Festegunetarako irakurraldiak* lanean behin bakarrik darabil *aldiritar*: *Jangoicoaren escutic ondasun guztiz andiak beretu cituena da Treberisco nescach aldiritar bat* (Altuna, 1982 (2): 22). *Urte guztiko igande ta festegunetarako irakurraldiak*en agerpen bana dute *aldiritar*,

**artzaiesa.** *iz.* Artzaintsa. Hap. Dialekto+: vs **\*\*altsaiesa.** *Agertu zé án Artzaiesa iduri bát, eman zióna edátera ur trago bát, ta animatu zuéna* (418). Ikus *artxaiko*.  
AELIE: -A: -; -S: -  
OEH: *artzaintsa*

**artto.** *iz.* Hartxoa. Erab. *Zer dá gizóna, oroitzeko ártas Jangoikoa? Nola ezpálitz gizóna usteldura bát, ta gizonarén húmea artto bát* (414).  
OEH: *hartto*

**artxaiko.** *iz.* Artzain gaztea. Hap. (GN). Dialekto^: ap. Iz *Utz. Artxaiko zebilaláik egun batéz, eramán zio ardi bát ótsoak* (153). Ikus *altsai*.  
AELIE: -A: *artxaiko*  
OEH: *artxaiko*

**artzai.** *iz.* Artzaina. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, Er, HHN, ErdHN, EkiHN^). *Asi ze Artzái óna bekála kuidátzen árdies,*

*gaixtoak óntzen, ónak obétzen* (204). Ikus *altsai*.  
OEH: *artzain*

**asarratu.** *ad.* Haserretu. Erab. (B, G, GN, L, EkiHN). *Asarratu zé agitz semearén kóntra, ta paratu zué préso leku ilun bateán* (534).  
OEH: *haserretu*

**asarre 1.** *iz.* Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, L, Bzt, HHN). Haserrea. *Galtzen direláik arimak, eta erortzen direláik Jangoikoa-ren desgrázian; eta bekátuen okasioetán, asárre, ordikeria, urdaquéria, ladronqueria ta edozéin gaixtakeriaetán* (140).  
OEH: *haserre I*

**2.** *adj.* Haserrekorra. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, L, Bzt, HHN). *Bérze álde ura [senarra] zé subér asárrea: sánda humil mánsa bakéskoa* (180).  
OEH: *haserre II*

**3.** *adb.* Haserreturik. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, L, Bzt, HHN, EkiHN). *Mutikoak ezaundurik etzéla arte onékoa, bota zué órdu gaixtoan asárre óyus be-realá* (496).  
OEH: *haserre III*

**asasino.** *iz.* Hiltzailea. Leh. *Aurkitu zúte Asasino bát ofrezitu zioténa ilen zuéla pagatzen bazióte óngi* (173). Ikus *asesino, ilzale*.

Informazio gehigarria: agerpen bakarra, vs *asesino* (2), *ilzale* (4). Paragrafo berean, *asesino* darabil aurrerago.  
 OEH: *asasino*

**asentatu.** *ad.* Idatziz jaso. Erab. *Animatu zé jaiki ta joaterá étxes étxe asentátus nori zer zor zión* (422).  
 OEH: *asentatu* 2.

**asesino.** *iz.* Hiltzailea. Leh. *Bardaxina deitzen dén leku bateán, atra zekizkio bi Asesinoak; eta batak emán zio alfange batez buruán* (173). Ikus *asasino*, *ilzale*. Informazio gehigarria: 2 agerpen ditu; *asasino* (1) eta *ilzale* (4).  
 OEH: *asasino*

**asi.** *ad.* Hasi. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Il ordúko, bada dionik asi ziréla ezkila guziak soñátzen Jangoikoarén birtútes* (422).  
 OEH: *hasi*

**aski.** *adb.* Aski. Erab. (Ax, Lar, Mb). (G, GN, L, Zar, Z, Er, MHN, HHN, EkiHN). HN+: Ibarrek *aski izan. Mundúko guziék ere infernúko guziéki, etzúte, diót, indarrík ta injeniorík áski lotzéko Judako leon deitzen déna* (46).  
 OEH: *aski*.

**aski izan.** *ad.* Aski izan. Erab. *Eli-zak etzire áski jendeketarén* (171; genitiboa destinatibo adieran). *Ustéz orí askiko zén lotsaraztekó* (230). Informazio gehigarria: Ibarrek *aski izan* dakar.  
 OEH: ASKI IZAN (s.v. *aski*)

**askitu.** *ad.* Aski izan. Erab. (Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (GN, Er, MHN, HHN). *Tormentu gébek guziók etzire askitu, kentzekó sandari Jesu Kristorén amórea biotzetik* (166). *Guziáu etzé askítu desengañátzeko jueza ta ezauntzekó Jangoiko andiarén éskua* (257). Ikus *aski izan*.  
 OEH: *askitu* 2

**asko.** *zenbatz.* Asko. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: *gral. Egin zué ásko milagro bizian ta il óndoan* (168). Informazio gehigarria: Aezkoa ibarreko Abaurrepeko 1794ko katiximak *asko dut* dakar ‘aski dut’ adieran.  
 OEH: *asko*

**aspaldirik.** *adb.* Aspalditik. Erab. (EkiHN). Dialekto+: *apud Azkue “aezk”.* *Arará zego igan náiak aspaldirik: konformatzen zé, órdea, emén egóteas Jangoikoaren zerbitzuagátik* (298). **aspaldik** (ErdHN<sup>^</sup>).

Informazio gehigarria: Ibarak *aspaldik*.

OEH: ASPALDIRIK (s.v. *aspaldi*)

**aspertu.** *ad.* Asperu, nekatu. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, Bzt, BN). 1.<sup>a</sup> *Sanidádea gaitzik gábe*. 2.<sup>a</sup> *Gastetasúna zartu gábe*. 3.<sup>a</sup> *Ase bétea asperu gábe*. 4.<sup>a</sup> *Libretasúna sujeziorik gábe* (540). *An gustoak gustatuko dú nekerik gábe ta asperu gábe suabidáde gózo-gozóa ta bete-betéa ezin yagos, ain berri nola prinzipioan beti eternidade guzian* (539). Ikus *akaitu, nekaporratu, nekatu, porratu*.

OEH: *asperu* 2

**astal.** *iz.* Aztala, berna. Erab. Idatzizko iturriak+: SP. (EkiHN). *Sakrifikatu zúte [...] heritus moldegaizki lépoan, sóñean ta zángoan [...] mantenitzen dá óso miragarriró gure denbotetaráño, ageri déla astalerá urbil gorri-gorría odóla* (288).

**aztal** (ErdHN<sup>^</sup>), ‘hankaren trizepsa’ (EkiHN), ‘orpoa’ (EkiHN). Informazio gehigarria: FS-n ez da aipatutako pasarteari buruzko aipamenik eta ez dugu bestetan ere aurkitu. EHHAn ageri denaren arabera, *aztal* zenbait gorputz atal izendatzeko erabiltzen da, eskuarki ekialdeko hizkeretan: mendebalderen Elduainen lekukotu

da. ‘Pantorrilla’ adierazteko Nafarroa ipar-erdialdean eta Lapurdi gehiengan jaso da. Orkatilari esateko, aldiz, *aztal-be(h)arri* (BN eta S) edo *aztallexur* (L) ere jaso da. Asteasun oin-zolari *aztal* esaten zaio.

Eugiko lekuko batek dio *aztal* gizakiendako erabiltzen dela: zaldierendako *kasko* eta antzekoak. Ibarak ere *aztal*.

AELIE: Eugin bi lekukoek *astal* eman dute.

OEH: *aztal*

**astatu 1.** *ad.* Ukitu. Erab. (Lar). (G, GN, L, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: -z- agerpen guztietan. HN+: Artola4. *Eda zázu esku ói, astátu ene eskuók, ta parátu ene bulárrean* (60). **aztatu** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: Ibarak *aztatu* bi adierarekin: ‘asmatu’ eta ‘ukitu’. Gasparrek ‘ukitu’ eman digu galdetu diogunean, baina ‘asmatu’ erabili du hitz egiten ari ginela.

AELIE: -A: *aztatu*

OEH: *haztatu* 1

**2.** *ad.* Asmatu. Leh. (GN, ErdHN<sup>^</sup>). HN+: Artola4. *Tiratu zió alfángeas, baña ez óngi astátus, etzue beréxi búrua osóki* (283).

AELIE: -A: *aztatu*

OEH: *haztatu* 4

**aste oro.** *adb.* Astero. Erab. (Zar). *Barutzen zé bi egúnez aste óro,*

*ta orzilárean ogi ta ur solles* (161). Ikus -oro.

OEH: *astero*

**asteazken.** *iz.* Asteazkena. Erab. (Lar, Cb). Idatzizko iturriak+: Mb h-. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Abénduan ta Garizúman barutzen zé ogi ta ur solles egunóro, ta astelén, asteazkén ta orziláre garizuma-koetán amenik artu gábe* (355). **astiazken** (ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: *asteazken*

**astelen.** *iz.* Astelehena. Erab. (Lar). (B, G, GN, L, Zar, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Astelén, asteazkén, orziláre ta larunbátean etzué txastátzen baizik komunióne sagrátua* (365).

OEH: *astelehen*

**asto.** *iz.* Astoa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. *Ikusten zuteláik etzezákela xási kárga, ken zezótela, nola iten baita asto batéki, ez dezakeláik eramán* (522). **axto** (EkiHN).

OEH: *asto*

**astoko.** *iz.* Astotxoa. Erab. (B, L). *Oñes joaten zé beti alik eta zartzen asirik asi ze usatzen astoko bát bideetáko* (432).

OEH: *astoko*

**atajatu.** *adb.* Trabatú. Erab. *Sanda aurkitu zé atajaturík yá bérze atxekiarik gábe, ezpazé errelijiónea* (135).

OEH: *atajatu*

**atalzai.** *iz.* Atezaina. Erab. (Ax *athal-zain*, Lar & Cb *atezai*). (G, Zar). *Gau erdirát lokarturik guárdiak, portéro edo atalzáiak, idatzarririk zegónak, ikusi zitue xausten zerútik Aingiruak* (335). Ikus *atezai*. Informazio gehigarria: Larramendik “Ostiarío, *atezaya*, *atezaina*”, “Portalero, *atezaya*”, “Portero, *atezaya*, *atezaina*, *bortalzaina*” eta “Uxier, oficio de Palacio, *Jaureguian atazaya*” ematen ditu. Kardaberazek *atezai* darabil eta Axularrek *athal-zaina*. Hitzok ez ditugu hego-nafarreraren corpusean jaso eta, beraz, aztertu ditugun iturrietatik ikasi zituela pentsa liteke: hau Axularrenetik eta *atezai* Larramendiren hiztegitik, izatekotan. Nolanahi ere den, aldaera lexikoogatik eta morfologiagatik ez da gauza ezina *atalzai* Eguesibarko orduko ahozko hitza izatea.

OEH: *ataltzain*

**atari.** *iz.* Atea. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN, Zar, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: ohikoa Hegoaldean eta ez oso erabilia Iparraldean. HN+: Artola2. *Paratu zé geró S. Basilio ka-*

*tolikoéki orázioan, eta berealá zerróju guziak urraturik idiki zire parean-pár atáriak* (349).  
OEH: *atari*

**atari-pokale.** *iz.* Atalasea, atearen muga. Leh. *Atari-pokálean zauzte yá sartzeko glórian: litzáke óngi gibélat itzúltzea mundukoen amoreagátik?* (390). Formaz ikus **pokale**.  
AELIE: -A: -; -S: -  
OEH: ATARI-POKALE (s.v. *atari*)

**atenzio.** *iz.* Arreta. Erab. (B, G, GN, HHN, ErdHN). Dialekto+: *atenzio* Lcc. Escasos ejemplos. *Beiratsen zúte ala nóla berze mundúko gizon bát, eta aditzen zúte aténzio andiaréki* (441).  
OEH: *atenzio*

**aterbe.** *iz.* Aterpea. Erab. (G, GN, L, BN, Z, EkiHN). *Manatu zué ematekó atérbe án estalpetto bátean pobretto gárri* (351).  
OEH: *aterpe*

**atertu.** *ad.* Erab. (B, GN, ErdHN<sup>^</sup>). Gelditu. *Ori dá sóbra jardukitzea, errán zio Paskásiok: azóteak astearéki atertuko dire itzak* (99). *Destinatu zúzte zenbáit Apostolu, asistitzéko obian, atértu artáño án aditzen zén músika Zerúkoa* (68).  
OEH: *atertu 2*

**atezai.** *iz.* Atezaina. Erab. (Lar, Cb). (G, Zar). *Sartu zé lenik S. Juan: geroxágo S. Pedro. Errán zio oni zerbitzári atezáiak, errán zio: “Ori gizon górrren Diszipuloetáik dá”* (472). Ikus *atalzai*. Informazio gehigarria: agerpen bakarra du B kodizean.  
OEH: *atezain*

**atija.** Ikus *atrija*

**atra.** *ad.* Atera. Erab. (GN, Bzt, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Atra zire eskolatik ikustekó pasátzen présoa* (113).  
EHHA (680): Abaurregaina, Alkotz, Aniz, Erratzu, Lekaroz, Mezkiritz, Suarbe, Zilbeti.  
AELIE: *atra*  
OEH: *atera*

**atrija, atija.** *iz.* Doministikua. Leh. (G, GN, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Eman zio estornudo edo atija batek* (196). *Jangoikoaren probidenzias urtinz edo atri-ja bateki bota zué sudurretik, geldítus gaitzik gábe betetik konfiánzas Jangoikoan* (460). Informazio gehigarria: Maileguaren ondoan eman zuen; orde, ez dakigu arrazoia Iruñerriko euskaldunei *estornudo* azaltzea den ala *atija* ulertzen laguntzea. Caminok (2004: 96) *antija* HNko aldaera zatitzaile eta ez orokortzat dakar, baina Lizarragak ez darabil eta gure corpusean ere ez da ageri.

EHHAn Lizarragak erabilitako bi aldaerak aurkitu dira.

EHHA (2092): Abaurregaina, Arbizu.

Mezkiritz -A: *atija in*.

Alkotz, Etxaleku: -A: *atije*.

Beruede, Igoa, Suarbe: -A: *atije in*.

Zilbeti -A: *atrije*; Erratzu -A: *atrije in*.

Eugi -A: *atije*. -S: ai - *atrijeka*.

OEH: *atija*

**ats artu.** *ad. esap.* Arnasa hartu. Erab. (Lar). (MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>, GN, Bzt, L, BN, Zar, Z, Er ). *Baña etzeláik senti ats ártzen, ezaundurik ila zególa, besárka artu zué erre-gatús negárres* (118).  
OEH: *hats hartu* (s.v. *hats*)

**atsa goraturik.** *adb. esap.* Arnas estuka, hatsanditurik. Erab. *Baña yá Jaun dibinoa angabe-turik, átsa goraturik, il kolóre, ezin xásis gurútzeta, ezin arréki pása álzina* (53).  
OEH: *hats*

**atsanditu.** *ad.* Arnas estuka ibili. Leh. (GN, Zar, Er). *Apátus éskuak, ixil-ixila itzuli zé bere konbenturat prisaká, ezin oñek segitus gógoa, sartu zé atsanditurik bere zéldan* (118).  
OEH: *hatsanditu*

**atsanka.** *iz.* Arnasestua. Leh. (L, Bzt, BN, Zar, Z, Er). HN+:

Ibarrak *atsankatu. Pensa [...]* *itz bakan gáiek aditzerákoan; ta suspiroak, ayótsak, atsán-kak; nolako pena biótz amante garréna!* (482).

OEH: *hatsanka*

**atso.** *iz.* Atsoa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+:  
gral. *Eztire ebék átso-kóntuak, baizik egietafédeak progátuak infinizio bát milagroéki* (390).  
OEH: *atso*

**atxekia.** *iz.* Aitzakia. Leh. *Atxékia atra zióte, in zutéla progatzekó yá zén Predikári Apostolíkua, ta yá kunplituko zén bere baitan Kristok errána* (199). **atxaki** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *aitzakia*

**atxon.** *iz.* Usain ona. Leh. (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ezautzen zitue persónak: atxón onetik honéstoak, deshonestoak usai gaixtotik* (344).  
OEH: *atxon*

**atxondu.** *ad.* Zerbaiti usain ona eman. Leh. *Ungitu zitió oiñ sándu sagrátua eta búrua ungéndu edo likóre agitz prezíoso batéki, zeñen fragránzias atxóndu ta bete zén étxe guzía* (41).  
AELIE: -S: *urriñe*  
OEH: *atxondu*

**atxun.** *iz.* Aitona. Leh. (GN). *Bere Aitún edo Atxunak, sano zego láik errán zio bere ellé-ba aurttoari, iltzen zegonari* (188). Ikus *aitun*. Informazio gehigarria: EHHAn *attun* jaso da. Ez dirudi Lizarragak *tt* eta *tx* artean bereizteko arazorik zuenik, txikigarriak maiz *-tto* eta antzekoekin markatzen baititu.  
AELIE: *atxun*  
OEH: *aitona*

**atzapar.** *iz.* Atzaparra, erpea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>). *Bada infernukoék nola maltrátatu zúte, ainbérze arima atratzen zue-nagátik ayén atzaparretáik?* (272). **aztapar** (EkiHN<sup>^</sup>).  
OEH: *atzapar*

**atzaparkatu.** *ad.* Atzaparrez jo. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, Zar). *Ikusi zueláik ori Marzianok, bere biloak tirátus ta atzaparkátus aurpégia kóleras, akár egin zio S. Juliani, zeren galarazi zuén arrén sémea árte gaixtos* (113). Informazio gehigarria: V eta Gn *atzamar*. EHHHA (2194): Abaurregaina, Izturitze, Larzabale. Beskoitze -A: *aztaparkatu* Barkoxe, Larraine, Pagona, Urdiñarbe, Ürrüstoi: -A: *aztaparkatü*. Mendaro -A: *atzaparkau*. -S: *sarpaka eñ, arrastada, urratu*.

Behorlegi -A: *aztaparkatu*. -S: *zarramaskitu, zarrastatzia*.  
Uharte Garazi -S: *aztaparra ein*.  
Altzürükü -A: *aztaparkatü, aztaparka*.  
Domintxaine -A: *haztaparkatü*. -S: *sarramikatü*.  
Montori -A: *haztaparkatü*.  
Santa Grazi -A: *aztaparkatü*. -S: *karramikatü*.  
Arbizu, Suarbe: -S: *arramaskatu*.  
Ezterenzubi -S: *karramiskatu*.  
Hondarribia -S: *larrutu*.  
OEH: *atzaparkatu*

**atze.** *iz.* Atzea, gibela. Erab. (Lar). (B, G, GN, HHN, EkiHN). Dialekto+: vs *gibel*. HN+: *Tratado* (Berriain, 1621). *Malákan atrarazi zitue itsasónzi guti bátzuk etsáien irurogei ónzien atzeán* (89).  
AELIE: Eugiko lekukoak mintzatzean *atze* erabili du. Galde-tu zaionean, bertako hitza *gibel* dela esan du. Eskualdean bizi-rik dago *atze*, eman dezagun, Aezkoa ibarrean.  
OEH: *atze*

**atzendu.** *ad.* Ahantzi. Erab. (G, GN, Bzt, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Eztá atzendúko salbátzeas, nola eztaiken atzén bere izén propioas* (26).  
AELIE: *atzendu*  
OEH: *atzendu*

- atzendura.** *iz.* Ahantzura, ahaztea. Hap. *Gorputzarén obra penálak dire ain proprio ta dagozkiónak kriatúra mortalái, ezi onen ignoránziak ta gurutzearen artzekó atzendúrak dauka galdurik ásko arima* (76).  
AELIE: atzendura  
OEH: atzendura
- au.** *erak.* Hau (izenordain gisa baik ez). Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Z, HHN, ErdHN). Dialekto+: *gau*: GN, Ae. *In zue améts, zeramála sabeleán otsoko bát, baña áu Carmesko Elizará joán ta itzuli zéla axúri* (110). Ikus *gau I*.  
OEH: *hau*
- aundi.** *adj.* Handia. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, HHN, EkiHN). *Urbilarazirik tribunalerá biak, ta berdúgoa prést kanibéta aundiaréki, galdein zióte irur áldis, ya obeditu nai zióten* (533). **andi** (MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Ikus *andi*.  
OEH: *handi*
- aundinai.** *adj.* Handinahia. Erab. (Lar & Cb *andinai*). (B, GN). *Baiki, deus onik egitekós, beár da izán humíl. Aundinái bano subérboa eztá protxál deustáko* (183).  
OEH: *handinahi*
- aunditu.** *ad.* Handitu, puztu. Erab. (Lar). (B, G, GN, L, BN). *Gelditu zén aunditurik sabéla, ain nola balégo aurdún* (359). Informazio gehigarria: *aunditurik aizes* (361) “llenos de viento” (1734: 226).  
OEH: *handitu 4*
- aunka.** *iz.* Zaunka. Erab. (Mb). (GN, ErdHN, EkiHN). HN+: *Artola5. Ikusi zué ametsetán zeramála txakurto bát txuri edérra ta aunka iten zuéna* (496).  
OEH: *aunka*
- aur.** *iz.* Haurra, umea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Baña pasátus ilabéteak, ázis aur dibinoa, zoéie nabármendus amatasúna* (23).  
OEH: *haur*
- aurdun.** *adb.* Haurduna. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Zar, Z, Er). *Geró gúti-gúti segurátzen, bere Espósa zególa aurdún* (23). Ikus *sabeldun*.  
OEH: *haurdun*
- aurkasean.** *adb.* Aurrean, parean. Hap. Idatzizko iturriak+: SP. HN+: Elizalde *aurkas*. *Árbo-la ear bát zeldaren aurkaseán zegóna* (277). **aurkas** (MHN). Informazio gehigarria: “un ár-



bol seco que estaba enfrente de su aposento” (1734: 201).

AELIE: -A: -; -S: *parean, gainkoaldean*

OEH: AURKAZEAN (s.v. *aurkaz*)

**aurkez aurke.** *esap.* Aurrez aurre. Erab. (Lar, Cb). (B, G). *Askotán ikusten zúte suturík aurrégia istargitzen, etziréla trébe beiraterzá aurkez aurke* (89). **abos abo** (ErdHN).

OEH: AURKEZ AURKE (s.v. *aurkez*).

**aurkintze.** *iz.* Topaketa, presentzia. Erab. Idatzizko iturriak+: SP. (Zar, EkiHN). HN+: EkiHN: toki fisikoari erreferentzia egiten dio. *Beñ ere etzué niork ikusi festa, boda ta aláko jende-aurkintzeetan* (147). *Ta apartátus peligroetaík, espeziálki emastékien konbersázio ta aurkintzeetaik* (464). Informazio gehigarria: “Aparece sobre todo en autores septentrionales y navarros” (OEH). Beriainek ‘jardunbide alorra’ adieran darabil: *Aren manua- ren azpian dauden Perladoey eta edoceyni, baytu cargu eta cuydado arimen saluacioas, acerta deçaten nork bere aurkincean, cargua eta obligazioa duten bezala ongui eguiteco* (Tratado). Lizarragak ere horrela erabili zuen batzuetan, baina ez JMSB lanean.

OEH: *aurkintza* 4

**aurkitu.** *ad.* Aurkitu. Erab. (Ax, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, HHN). Dialekto+: vs (*t)opatu*. *Alá egin zúte: ta naiz aurkiturik bidean bi zezén brábo eldu zirénak* (148).

OEH: *aurkitu*

**aurora.** *iz.* Egunsentia. Erab. *Nola iruzki gárren mendórtz edo auróra edérra* (17-18).

OEH: *aurora*

**aurpegi.** *iz.* Aurpegia. Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Atrá ze Sandua súa zerióla aurrégi ta begietáik* (240).

OEH: *aurpegi*

**aurzai.** *iz.* Hautzaina. Erab. (Lar). (GN, Zar, Er). Dialekto+: *-rtz-G-nav, GN, BN-baig, Ae. Baña nork ikusi dú Prinzipe Jauna aldiritar báten aurzái?* (412).

**aurtzei** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: Ibarrek *aurtzei*.

OEH: *hautzain*

**aurzutu.** *iz.* Hautzaroa. Leh. (GN, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Aurzututik ageri zé sandatáko jaió zéla* (216). Ikus *-zutu*.

OEH: *haurzutu*

**ausnarri.** *iz.* Oinaztarria, tximista. Leh. (GN). *Bitárteo goratu zé tenpestáde andi bát ortóts,*

*oñástur ta ausnárris* (508).  
**ĩñaztura** (ErdHN).  
 AELIE: *ausnarri*  
 OEH: *ausnarri*

**auspeska.** *adb.* Ahuspez, ahoz behera. Erab. (GN, EkiHN<sup>^</sup>). *Bota zé auspéska lurreán, klamátzen*: “*Nola uzten nauzu, Paulo?*” (118). **auspez** (ErdHN<sup>^</sup>).  
 OEH: *auspez*

**auspezkatu.** *ad.* Ahuzpez jarri. Leh. (GN, Zar). Dialekto+: “Sal” ap. A. *Aditu zué berri on gáu alegránzia ta eskér milla millaéki, eta auspeškátus lurreán errán zue nola lén* (66).  
 OEH: *ahuspezkatu*

**auster egun.** *iz.* Hausterre eguna. Erab. (Mb). (V, G, GN, ErdHN). HN+: Artola5. *Austér egunetik Juan de Salvatore eguneráño mantenitu zé bizkór, deus jan ta edan gábe* (175).  
 OEH: *hausterre*

**autara eman.** *ad. esap.* Hautatzera eman. Erab. (Ax). *Diót, bada, orái autára eman balékio zein nai duén bietáik* (18).  
 OEH: HAUTARA EMAN (s.v. *hauta*)

**autatu.** *ad.* Hautatu. Erab. (Ax, Lar, Cb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Kontra joatekó autatu zué kapitan*

*Generale bát deitua Galikano.* (208). *Ikus eskojitu.*  
 OEH: *hautatu*

**autxi.** *ad.* Hautsi. Erab. Idatzizko iturriak+: “Tr. General en todas las épocas y dialectos. (...) (*H*)autsi es forma casi única en los autores navarros (salvo en algún texto antiguo y en Lizarraga de Elcano, que usa *autxi*)” (OEH). (GN, MHN, HHN). Dialekto+: gral. *Ala nolá pasatzen den irúzkiea kristale batetik autxi gábe ta mantxatu gábe kristálea* (24). **autsi** (MHN, HHN, EkiHN)  
 OEH: *hautsi*

**auxe.** *erak.* Hauxe. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, L, Z). *Azkeneán errán zio: “Filosofó Jauna, auxe dá sinesten dugúna Kristioék”* (100).  
 OEH: *hauxe*

**axuri.** *iz.* Axuria. Erab. Idatzizko iturriak+: “Empleado especialmente por los autores suletinos, bajo-navarros y alto-navarros” (OEH). (B, G, GN, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). *Orrá S. Pedro eskojiturik ta eginik Kristok berak Artzaibúru bere axúri ta ardi onétsién* (212).  
 AELIE: *axuri*  
 OEH: *axuri*

**azare.** *iz.* Hap. Gertakizuna, ustekabea. *Edozéin azáre edo trabaju naiz agi, etzázula billa alibio* (71). Informazio gehigarria: “por ningún suceso ni trabajo busques alivio” (Agreda, 1860(3): 269).  
AELIE: -A: -; -S: -  
OEH: *hazart*

**azaro.** *iz.* Azaroa. Erab. (Lar, Cb). (G, GN, L, BN, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Azaroaren 19an* (303). ‘**abendua**’ (EkiHN).  
OEH: *azaro*

**azertatu.** *ad.* Asmatu. Erab. (Lar, Cb). Idatzizko iturriak+: Lar: *-adu-*. (B, G, HHN). Dialekto+: V-gip. *Erránes agituko ziren gauzak: eta batzuetán azertatzen zué* (241).  
OEH: *azertatu*

**azi.** *ad.* Hazi. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. *S. Maurilio Milángo seme jendakí anditákoa azi ze S. Martinen dotrinarén ésneas* (251).  
AELIE: *azi*  
OEH: *hazi*

**azken.** *adj.* Azkena. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Agitu zé S. Venceslaorén martirioa amargarren jendamendearen azkenerát* (259).  
OEH: *azken*

**azotukaldi.** *iz.* Erab. (Mb). (MHN, HHN). Zigor kolpea, zartada. *Bi órduş egon zíre berdúgoak deskargátzen azotukáldiak furia lotsagarriaréki arági sandu gaiétan* (310).  
OEH: AZOTE-UKALDI (s.v. *azote*)

**azpi.** *iz.* Izterra. Erab. (G, GN, L, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Errearazi zitió saiétsak plantxa gorituéki ta ázpiak traspasátu ezpátas edo burriña gori batez* (135).  
OEH: *azpi 2*

# B

**bagada.** iz. Olatua. Leh. (Lar).

*Agitu zé nastekázio andi bát itsásoan de manera ezi uren bagadék estaltzen zúte bárkoa (211). Askotán nasten zué itsásoa, goratzen zitue ur-bagá-dak, nola balidoéie ondátzera péña ta sándua (332).*

AELIE: -A: -; -S: *itsas ola*

OEH: *bagada*

**bago.** iz. Pagoa. Erab. Idatzizko iturriak+:

SP. (GN, L, Bzt, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Eta bere adiskideéi erraten zióte zékien pixka ikasi zuéla orázioan oyanetán bágo ta pinoen értean (239). Jaiki ixil-ixila ta joaten zé bagoa baten pera, non zeukan señalaturik gurutzea (188). Informazio gehigarria: lehen adibidean berezko -a gabe ageri da eta bigarrenean badu, baina, zoritxarrez, ez dago adibide gehiago testuan. EHHAn *bago* Nafarroako herri gehienez gain, Zuberoa gehienean ere ageri da.*

EHHA (459): Abaurregaina, Alkutz, Aniz, Donamaria, Erratzu, Etxalar, Eugi, Jaurrieta, Lekaroz, Mezkiritz, Sunbilla, Zilbeti, Zugarramurdi.

Suarbe -A: *pago*

AELIE: *bago*

OEH: *pago*

**baiaztatu.** ad. Baheztatu, bahe-tu. Hap. *A, Simon, Simon Pedro, orrá, Satanas dago naiak baiaztátu zuék, garia bekála (212).*

AELIE: *baiaztatu*

OEH: *baheztatu*

**baiki.** adb. Baiki, egiatan. Erab.

(GN, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>). *Danzatu zé arín edér Herodiasen alába: baiki dióna S. Anbrosiok [...] urdearen alába danzari (207). Baña anitzéi sú eman zióte, persegitzekó beraren Majestadea ta botatzekó mundutik len baño lén. Baiki beti bekatáriak berén kóntra; ezi Jesus onaren kóntra dirénak nola eztire berén kóntra? (38). Ikus -ki.*

OEH: *baiki*

**baimende.** iz. Baimena, onespina.

Leh. Idatzizko iturriak+: Larramendik HHaren eranskinean honako hau dakar: “Licencia, *baimena, baimendua*”. *Emánik alá Maria Santisimak bere konsentiméntua edo baiméndea, berealá obratu zé istante bâtez Enkarnazioko mistérioa (22). Onék desengañatu zué etzutéla artúko Vienan Aitarén baimendea gábe (495). Informazio gehigarria: Lizarragak eta Iztuetak bakarrik erabili dute forma hau, baina honek beste adiera batean: “Baimendea, capitulación” Izt *VocC*.*

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *baimende*

**baitan 1.** *postp.* -(ren)gan. Leh. (MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Gu-ziek in zute bekatu lenbiziko Aita Adanen baitan* (18). Kristau fedearen arabera, ‘Adanengan’ ulertu behar da adibide hau, ezbairik gabe, zehatzago mintzaturik ‘Adanekin bat’ izan bazen ere.

OEH: *baita*

**2.** *postp.* Erab. (Ax). (HHN). Bere, bere horretan (*bere* edo *kideko* posesiboen ondotik). *Humildá-de falsu baten kásos zióla bere baitan etzéla digna komunika-tzekó Jangoikoaréki* (271).

OEH: BAITAN b) (s.v. *baita*)

**3.** *postp.* -(r)engan (*sinistu* bezalako aditzekin). Erab. (HHN). *Erraten zióla amorosokí: “O, ene Jesus óna, ikusten dú berórrek ene biotzarén sekrétoa, orren baitan dutéla esperánza”* (92).

OEH: BAITAN c) (s.v. *baita*)

**4.** *postp.* Erab. (Ax). (HHN). Koonortea (*Bere* edo *kideko* posesiboen ondotik eta *itzuli* gisako aditzarekin). *Denborain buruán, itzulirik bere baitan ta zelda beterik argitasúnes, asi ze emáten graziak* (249).

OEH: BAITAN e) (s.v. *baita*)

**baitare.** *junt.* Baita ere. Erab. (Lar, Cb). (GN, L, BN, Z, HHN). Dialekto+: AN-ilzarb. *Ain goixtár iten zitue milágroak,*

*baitaré báruak, orázioak ta gauza ónak* (153).

OEH: BAITA ERE (s.v. *baita*)

**baizik.** *junt.* Baizik, baino. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: xviii. mendea arte Lapurdiko testuetan ez da ageri, baina, halaz ere, Decheparek, Oihe-nartek eta beste idazle baxenabartar eta zuberotar batzuek darabilte. xviii eta xix. mendetan erabilera orokorra du Ipar Euskal Herriko, Nafarroa Garaiko eta Gipuzkoako idazleen artean. *Obispo sanduak erres-pondatu zió, etzekióla deus ere gelditu, baizik bere persóna* (205).

OEH: *baizik*

**bakan.** *adj.* Bakana, berezia. Erab. (Lar, Mb). Dialekto+: gral. *Gústo egin zió zeiken gártan; paraturik lurreán almadráka pobre bát, ontan sánduak erre-zibitu zué Biátiko sagrátua ta Olio sanduarén sakramentua debózio bakanaréki* (495).

AELIE: *bakan*

OEH: *bakan* I, 1

**bakantasun.** *iz.* Bakartasuna. Leh. *Andik gero ugalde-basterrera egiterá án orázio bakantasú-nean Jangoikoai* (359).

AELIE: *bakantasun*

OEH: *bakantasun* 2

**bakar.** *adj.* Bakarra. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *-kh-*. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. *Zué bere Nausiak alába bakar bát* (450).  
AELIE: *bakar*  
OEH: *bakar*

**bake.** *iz.* Bakea. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: G-nav. *Kuida zazula konserbátzeas beti tránkil báke barnekoán, admititu gábe turbaziorik bátere oraiko bizarén edozéin lanzegátik* (72).  
OEH: *bake*

**baketu.** *ad.* Baketu. Erab. *Baketu zitue bándo aspaldirik gerran zeudénak elkárren kóntra* (453).  
OEH: *baketu*

**bakotx 1.** *zenbatz.* Bakoitza. Erab. (Ax). Idatzizko iturriak+: Beriainek beti *bakoitz*, Lizarragak beti *bakotx*. (B, GN, L, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). HN+: HNaf: bakoitza. *Agertu zire án súsko mi batzúk bekála errepartiturik, ta joan zire barátus bakótxa bakotxarén gáñean* (62). **bakoitz** (MHN, HHN).  
OEH: *bakoitz*

■ **bakotxik ere.** Bat bera ere ez. Erab. (EkiHN<sup>^</sup>). *Bada geróstik onát sékulan ez omen dúte izán bakotxik ere ez zorri ta ez bartzik Monja profesatu dirének* (275).  
OEH: BAKOITZIK (s.v. *bakoitz*)

■ **zenbait bakotx.** Bakar batzuk. Erab. (Ax, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *zenbait bakhotx* (29). *Luze litzáke erabakitzea nola azi zén Jaunaren amórean ta gañaráko birtuteetan, ta Jangoiko onak in zituen miragárriak berarén amóres (...). Zenbáit bakóttx errain túgu* (399). *Bazire orgátik zenbáit bakóttx bano nai etzuténak, ziótela, zéla persóna txárta, presénzia gutitákoa* (295).  
OEH: *bakoitz 3*

**baldurro.** *iz.* Makila, pertika. Leh. (GN). Dialekto+: Iribarrenek Aezkoan, Tafallan, eta Iruñean jaso zuen (1984: 75) eta guk Nabaskozen aurkitu dugu, 2021. urtean. *Eta batek baldurro edo pertika batéki jo zió buruán* (177).  
OEH: *baldurro*

**balsa.** *iz.* Putzua. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, Zar, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Putzua. *Errespondatu zúte, erman zezkitéla án urbil zén balsa edo butzanka batéra* (129).  
OEH: *baltsa*

**balsa-leze.** *iz.* Urmaela (?). Hap. *Eta arren lékuan egin ze lagúna edo balsa-leze bát memoriátáko* (96).  
AELIE: -A: *balsa*  
OEH: BAL TSA-LEIZE (s.v. *baltsa*)

**bam-bam-bam.** *onomat.* OEHren arabera, ‘mugimendua’ adierazten du, baina Lizarragarenean beti suarekin loturik dago. Leh. *Bildurik sukáia frángo barnetik eta kanpotik, emán zio sú, ta aizearéki sugárrak edérki zebaturik, bam-bam-bam, guziá erre ta erraustu zé* (293). *Ezkildorre-káskoan zego kontínno argitzen zuzi edo antórtxa andi bát bam-bam-bam, turditu gábe argia batere elurkéta guziaréki* (441).  
OEH: *bam*

**bana.** *zenbatz.* Bana. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Geró loturik lepotik arri andi bána bota zúzte ugaldéra* (220).  
OEH: *bana*

**banidade.** *iz.* Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, Bzt). Handikeria. *Posésio artu zuén eguneán, baize eguérri, nai zue zelebrátu fés-ta mundúko banidáde ta ponparéki* (158).  
OEH: *banitate*

**baña.** *junt.* Baina. Erab. (Cb, Mb). (B, G, GN, L, MHN, HHN, ErdHN). Dialekto+: hay <ñ> (Etcheberri de Ziburu, Gasteluçar, Mihura) o <iñ> (Axular, Chourio, Haraneder, Goyhetché, etc.), a veces junto a <in>. Los meridionales suelen usar <ñ> (salvo <in> regular en f. Bartolomé) hasta fines del s. XIX, en que comienza a verse con cierta frecuencia <iñ> y algo más tarde tbn. <in>, ya muy generalizadas en la segunda mitad del s. XX. *Gelditu zé aurpégia gorriturik lenik, geró ubeldurik, baña ederrágo Jangoikoaren begietán* (403).  
OEH: *baina*

**baño.** *part.* Baino. Erab. (Lar, Mb, Cb). (B, G, GN, L, HHN, ErdHN). *Humiltasúna ta mansotasúna zué sinetsi daiken baño yagókoa* (262). **beino** (EkiHN^).  
OEH: *baino*

**bara.** *iz.* Makila. Erab. (Lar, Cb). (HHN). *Eta manaturik Juézak ekartzekó barak, azotatzekó sandua, onék errán zio, bara gáiek etzutéla ilén* (149).  
OEH: *bara*

**baratu.** *ad.* Gelditu. Erab. (Ax, Lar). (GN, L, BN, Zar, Z, Er, ErdHN). *Zaldiaak zeramaténak kótxea, zeintan paratu zén*

*Sandua, baratu zire bidean leku bateán, ezin mogitus, ta ez mogiarázis niolatéko manéran* (259). Artola1.

OEH: *baratu*

**baratze.** *iz.* Baratzea, ortua. Erab. (Ax, Mb). (GN, Bzt, BN, Z, Er, EkiHN). *Berén barátze bátean fraileék erran zióte falta zéla biku planta bát* (281).

OEH: *baratze*

**baratzezai.** *iz.* Baratzezaina. Erab. (Ax, Lar). Idatzizko iturriak+: Lar *baratzezaiña*. (G, GN). *Eta etzué ezaundu Magdalenak, ta uste zué zela baratzezáia edo hortelánoa* (58).

OEH: *baratzezain*

**barber.** *iz.* Erab. (Ax, Cb, Mb). (Bzt). Zirujaua. *Amabórtz urtetákoa zelarik, autxi zékio kostillezur bát; ándik segitu zire ainbérze ta ainbérze gaitz, ezin konta ála, trabajátus Medíku ta Barbér guziek bánoan kuratzekó* (164).

EHHA (2437):

Ezterenzubi -S: *eriartazale, mediku*.

Landibarre -S: *mediku*

Eskiula -S: *medezi*

Sohüta -S: *bedezi*

OEH: *barber*

**bardin.** *adb.* Berdin. Erab. (Cb). (B, GN, L, BN, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Deitzen dúte egiarén*

*pregonári, Kristioen begi ár-gia; bizitza ta dotrina bardín izan zituéna* (350). Ikus *berdin*.

OEH: *berdin*

**barin.** *part.* Baldin. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar (-l/-ld-), Mb & Cb & Ax -ld-. (GN, Er). Dialekto+: Hego-nafarrerazko eta erronkarietazko testuetan ageri da. *Berórrek kendu barin badú, erran bezáda niri non paratu duén, eta nik ermakodút* (58).

OEH: *baldin*

**barkatu.** *ad.* Barkatu. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -kh-. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Juramentu inarazi zió, etzióla barkatúko, bai tratatúko gogorkiró ilarazi artáño* (92).

OEH: *barkatu*

**barkazio.** *iz.* Barkazioa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: Kasurik gehienetan Hego Euskal Herrian ibili da. *Azkenéko bere bearréz atra zué ólloa, konfesátus bere kúlpa ta barkázio eskátus* (248).

OEH: *barkazio*

**barna.** *adb.* Barrena (absolutiboa-ekin). Erab. *Bedeizioa emánik joan zire urak barna gelditurik jénde guzia admiraturik* (199). OEHren arabera, inesiboan



erabiltzen da gehien testuetan, baina bestelako kasuak ere onartzen ditu, absolutiboa barne; ostera, ez dago honi buruzko zehaztasun dialektologikorik.

OEH: *barna*

**barrataka.** *adb.* Borborka. Leh. (EkiHN). *Arági guziák zatikaturik odóla zério barrataká alde guzietáik* (318). Informazio gehigarria: EHHAn *barrasta* jaso da ‘euri zaparrada’ adieran. **barrastaka** (EkiHN<sup>^</sup>).

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *barrataka*

**barratu.** *ad.* Barreiatu, sakabanatu. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN, MHN, HHN, EkiHN). *Banaká parátus buruak arri andi baten gañean, án berze arri batzuéki txatxakatu zizkióte barrátus muñak kanporá* (286). **barreatu** (ErdHN<sup>^</sup>).

AELIE: *barratu*

OEH: *barreiatu*

**barrendegi.** *iz.* Barrenaldea. Leh. Idatzizko iturriak+: SP. (GN, B). *Orí ikusirik furosoágo Adrianok manatu zué egitekó metalésko idi andi bít, zeñen barrendégian sarturik laurak, sú emanarazi zió petik ta ingurutik, án errepispil zeizen* (255). Informazio gehigarria: agerpen bakarra du hitzak JMSBn.

AELIE: -A: *barne*

OEH: *barrendegi*

**barride.** *iz.* Auzoa. Erab. (Ax). (G, Zar, Er, ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>). Auzoa. *Pobre bít aurkitu zéla ilik barride bátean, zitudadetik apárt* (337).

AELIE: *barride*

OEH: *barride*

**barronde.** *adb.* Zelatan. Hap. *Berze bein Ama Sandaréki zoeieláik alába Sanda, Kaballéro barrónde zegóna beira atrá ze joateko beragana, baña istante berean gelditu zé itsu bi begiatáik* (427).

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *barronde*

**bartz.** *iz.* Bartz, zorriaren arrautza. Erab. (Lar). (B, GN, Zar, Z, Er, EkiHN). *Bada geróstik onát sékulan ez omen dúte izán baktotxik ere ez zorri ta ez bartzik Monja profesatu dirének* (275).

OEH: *bartz*

**barutu.** *ad.* Barau egin. Erab. (Mb). (G, MHN, HHN, ErdHN). *Penitenziará zé guzis emána, de manéra ezi barútus sóbra, sekátu eztárria ta ertxi zékio ágoa* (170).

OEH: *barautu*

**baseizi.** *iz.* Hap. Basapizitia. *Lotuaraziko zaitut solibo bít, zatika zaizátan ta ján baseiziék* (196). Informazio gehigarria: “para que seas despedazado y comido de las fieras” (FS, 1761: 197).

AELIE: *baseizie*  
 OEH: *basehiza*

**1 baso.** *iz.* Edalontzia. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). *Ta akorritzen asi zeláik ikusi zitue án irur ógi ta baso bát árdó* (418).  
 OEH: 2 *baso*

**2 baso.** *iz.* Basoa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, Bzt). *Biramónean agertu zé ótsoa zekarrála ágoan árdia, ta utzirík mutikoarén oñetan itzuli ze basorá* (153).  
 OEH: 1 *baso*

**baso eskojitu.** *esap.* Zerbeitetarako egokia edo gai dena. Erab. Idatzizko iturriak+: SP. *Errespondatu zió Ananiasék: “Jau-na, aditu dú zénbat gaizki egin dióten ark [Saulok] Kristioéi Jerusalemén; eta dú ésku egitekó préso berórren izéna inbokatzen dúten guziak”*. Erraten dió Jaunak: “Zoáz, ezi da baso nik eskojítua, eramáteko ene izéna jendeen” (215). “Por eso dice San Pablo que fue a Jerusalém a ver a Pedro: porque aunque era vaso de Dios escogido para predicar el Evangelio” (FS, 1610: 471). Informazio gehigarria: Iparraldean *baso* ‘duina, merezi duena’ adieran hala Etxeberri Ziburu-koaren testuetan nola Pouvreurenetan ageri da OEHn (s.v.

3 *baso*), beharbada metafora honetatik sortua. RAE: “vaso de elección” (s.v. *vaso*).  
 OEH: -

**bat 1.** *zenbatz.* Bat. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Oroitu eztuzúla baizik arima bát; eztuzúla il beár baizik bein, ta bizi bát labúr* (530).  
 OEH: *bat*

**2.** *izord.* Bat. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Berze bein emán zio baték bofetáda erru bát karrikan* (328).  
 OEH: *bat*

**bat-banaka.** *zenbatz.* Banan-banan. Erab. (Ax, Lar, Cb). Idatzizko iturriak+: SP. *Bata bestearen atzetik. Eta au ángo usanzarén konfórme zoéie besarkátus Mónje guziak bat banáka* (292).  
 OEH: BAT-BANAKA (s.v. *bat*)

**bataio.** *iz.* Bataioa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, MHN, HHN, ErdHN^). *Súa izanen zéla bataio gisa, garbítzeko arimak, ta igáteko zuzénean zerúra* (549-550).  
 OEH: *bataio*

- batendako eun.** *esap.* Erab. Bakoitzagatik ehun. *Baizéquie gal eztaikéla tratu gisa góntan béñ ere, ta irabazten déla beti batendáko eún* (361).  
OEH: -
- bateo.** *adb.* Batera. Leh. (GN, EkiHN). *Egin zúte Maestru, ta erakutsi zué anitz úrtes, bateo létrak eta birtúteak* (301). **batío** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), **batera** (HHN).  
OEH: *bateo*
- batera.** *adb.* Batera. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). *Biltzeagátik baterá Jangoikoarén húmeak barraturik zeudénak* (42).  
OEH: **BATERA** (s.v. *bat*)
- bateratu.** *ad.* Bateratu. Leh. Idatzizko iturriak+: Lar ‘bat etorri’. *Baña non dá podoréik Jangoikoaren kontra, naiz bateraturík múndua ta inférnua?* (153). *Zerúkoak ta lurrékoak baterá-tu garbitasúnean ta amórean; zerúkoak gozátus, lurrékoak padezitus; guk adorátus Jangoikoaren esénzia, zuék Sakramentu Santisimoa* (529). Informazio gehigarria: Larramendik jaso zuen hitza lehen aldiz eta Lizarragak egin zuen lehen erabilera OEHren arabera. Lizarragak *uniturekin* batera erabili zuen *bateratu* eta erabile-ren kopuruak nabarmen egiten du lehenaren alde (guk erabilietako lanetan *unituk* 18 agerpen ditu eta *bateratuk* 2; *elkartu* ez dugu jaso). Aezkoan bada *unitu* egun ahozkoan, hortaz, baliteke Lizarragaren garaian ere *unitu* ibiltzea. Larramendigandik jaso ote zuen *bateratu* Lizarragak?  
OEH: *bateratu*
- batere.** *zenbatz.* Batere. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, BN, Z, HHN). *Esperanzarik kurátzeko yá guti edo bátere etzeláik, aparezitu zékio S. Pedro Apostolua, zeñen bisitaréki oberatu zé* (226).  
OEH: *batere*
- batzar.** *iz.* Bilerá. Erab. *Biramónean Sazerdóte-buruék bildu zúte batzárre, ta paraturik biak érdian galdeiten zióte* (473).  
Ikus *batzarre*.
- batzarre.** *iz.* Bilerá. Erab. (Ax, Lar). (G, GN, L, BN, Z, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Bildurik guzién értean arrapátu ta eraman zúte Juduen batzárre ta konsejurá* (560). Informazio gehigarria: “Los septentrionales (y Lizarraga de Elcano) usan generalmente *batzarre*” (OEH). Nagusiki *-e* bukatu-rik idazten du (10 agerraldi, horietarik 6 leku-kasuetan), baina behin *-r* bukatu-rik dakar. Ikus *batzar*.  
OEH: *batzar*

- batzuk.** *zenbatz.* Batzuk. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, HHN, EkiHN). *Gero arturik apárte deklaratu zizkióte berén bekatu bátzuk* (94).  
OEH: *batzuk*
- bear.** *iz.* Erab. Beharra, premia. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Múnduan dén pobreénak dezáke adiarázi bere beárra eskátus mias* (543).  
OEH: *bear*
- bearreztenkeria.** *iz.* Behargabe-keria, egite desegokia. Leh. *Errégek nai zue konbentu gártan egin bere autoridádes zenbáit bearreztenkéria* (101).  
OEH: *bearreztenkeria*
- bearri.** *iz.* Belarria. Erab. (Lar). (GN, L, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). HN+: Artola2. *Ayék tapátus beárriak etzióte nai aditu* (199). **biarri** (ErdHN).  
OEH: *belarri*
- beartsu.** *adj.* Behartsua, pobrea. Erab. (Lar). Dialekto+: Hegoaldeko tradiziokoa, Iparraldean gutxi. *Errége eginik guzia zé modéstia, debózio, karidáde, kuidátus póbre beártsués Aita báten gisará* (515).  
AELIE: -A: -; -S: *eskaile*  
OEH: *behartsu*
- beazun.** *iz.* Behazuna. Erab. (Lar, Cb). (G, GN, L, BN, ErdHN<sup>^</sup>). *Ardo bát eman zióte nasirik mirras ta beazúnes* (53).  
OEH: *beazun*
- bedeikatu 1.** *ad.* Bedeinkatu. Erab. (Lar, Cb, Mb). (GN, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ártu ógia, ta bedeikatu zué, partitu ta ematen zióte ayéi* (59).  
OEH: *bedeinkatu*
- 2.** *adj.* Bedeinkatua. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN, MHN, HHN, EkiHN). *Biz bedeinkatua Jesus ona guztiengánik* (127).  
OEH: *bedeinkatu*
- bedeizio.** *iz.* Bedeinkazioa. Erab. (GN, HHN, EkiHN). Dialekto+: “atestiguado en los navarros Beriayn, Elizalde, Lizarraga de Elcano, el catecismo aezcoano y en un texto de Zugarramurdi (1875)” (OEH). *Joaten zekizkion baseiziak ta animáleak honrázera sándua, ta errezibitzerá berarén bedeizioa egun óro* (128).  
OEH: *bedeizio*
- bedratzi.** *zenbatz.* Bederatzi. Erab. (Lar). (B, G, GN, Bzt, Zar, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Bedratzi urtetán erakutsi zió erreligioso bátek nola meditátu* (191).  
AELIE: *bedratzi*  
OEH: *bederatzi*

**begi.** *iz.* Begia. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. *Ezin sufritu zúte ainbérzeko argitasúna bégi gaixtoek* (301).  
OEH: *begi*.

- **-en begietan.** *esap.* -en iritiziz. Erab. (Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, EkiHN). *Orrá gizon txipitto gúra zein ándi Jangoikoarén eta gizónen begietán!* (183).  
OEH: *-(r)en begietan* (s.v. *begi*).

**beiratu 1.** *ad.* Erab. Begiratu. (GN, L, BN, Z, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: “*beiratu se documenta sobre todo en autores septentrionales y navarros (que generalmente usan tbn. begi-)*” (OEH). *Paratu zékio aurpégia ain grábe edér istargitzen zuéla, ezpaitziokéte beirátu* (277).  
OEH: *begiratu 1*

**2.** *ad.* Zaindu (motibatiboarekin). Erab. (GN, L, BN, Z, ErdHN, EkiHN). *Izan bear zéla berarén Espósa, ta beiratu bear zuéla berarén honragátik* (272).  
OEH: *begiratu 4*

**beitarte.** *iz.* Begitartea, aurpegia. Erab. (Ax, Lar, Mb). (Zar, Er).

*Opaturik bein batéki errán zio: “Zein beitárte gaixtoa duzún!”* (344). Informazio gehigarria: OEHren arabera, batez ere Iparraldeko hitza da, Mendiburuk eta Lizarragak erabili arren. XIX eta XX. mendeetan hedatu zen Hegoaldera.  
OEH: *begitarte*

**beiti.** *adb.* Behean. Erab. (Ax, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar: *beiti*. (GN, L, Bzt, BN, Z, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: Arto-la3. *Ain gora, ta ain apál! An goiti izárren gañean trónoa glórian! Emén beiti bi animaleén értean kúna ganbélan!* (559).  
OEH: *beheiti*

**bekala.** *junt.* Bezala. Erab. (Lar). (GN, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Guziá agitu zé, errán bekála* (365).  
OEH: *bezala*

**bekatari.** *iz.* Bekataria. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar & Cb (*b-* & *p-*). (B, G, GN, Bzt, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN). Dialekto+: “La distribución de la consonante inicial (*b-* / *p-*) coincide en general con la de *bekatu* / *pekatu*” (OEH). *Jus-toak deitzen dire axúri, ta bekatáriak antxúme* (26).  
OEH: *bekatari*

**bekatu.** *iz.* Bekatua. Erab. (Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar (*b-* & *p-*), Mb. (B, G, GN, Zar, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Errespondatu zúte: “Bekatuetán jáioa aiz guziói; eta ik nai diguk erakútsi guri?”* (36).  
OEH: *bekatu*

**belauriko.** *adb.* Belauniko. Erab. (Ax, Lar). Idatzizko iturriak+: Ax *-h-*. (GN, BN, Zar, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *S. Ignaziori eskribitzekó, ta arren kartak leitzekó, paratzen zé belauriko* (87).  
OEH: *belauniko*

**beldur.** *iz.* Beldurra. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar (*-e-* & *-i-*). (G, GN, L, Bzt, BN, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Amóre andiak kentzen dú beldúrra* (223).  
OEH: *beldur*

**beldurdun.** *adj.* Beldur dena. Leh. *Zé animósoa, ta guzis Jangoikoaren beldurdúna* (195). Ikus *beldurti*. Informazio gehigarria: EKC eta OEHren arabera, ondotik Duvoisinek eta Iraizozek soilik erabili dute.  
OEH: *beldurdun*

**beldurtasun.** *iz.* Beldurra. Erab. (Ax, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, ErdHN<sup>^</sup>). *Noraño ellega daiken emakúmea, autxias ge-*

*ros bi freno gáiek paratu zitió-nak Jangoikoak? Baitire álkea ta beldurtasúna* (410).  
OEH: *beldurtasun*

**beldurti.** *adj.* Beldurtia. Leh. (Ax, Lar, Mb). (G, GN, L, BN, Z, EkiHN). *Ikusirik bein Obispoa predikátzen epelkará ta beldúrti, arrék goraturik boza errán zue* (200). Ikus *beldurdun*.  
OEH: *beldurti*

**beltzarankara.** *adj.* Beltzaran samarra. Hap. HN+: *Ibarrak beltzaran. Begitártea alégre, afáble, benigno, beltzarankára yágo ezi txúri* (520).  
OEH: -

**bentzait.** *lok.* Behintzat. Hap. (GN). *Aipazkigun birtúte zenbáit; ezpada imitatzekó guzís, bentzáit ezauntzekó zein apál gelditzen gáren, ta alketzekó* (454). Informazio gehigarria: Larramendik (s.v. *menos*) “A lo menos, cuando viene con el sí, o con otro determinante, *beintzat, beintzatic, bederik, bedere, edolarik, edolarican*” ematen du. Lizarragak salbuespenik gabe erabiltzen ditu *bentzait* eta *benzait*; beraz, argi dago ez garela idazkera akats batez ari (non ez zuen oker irakurri Larramendirenetik edo beste nonbaitetik). OEHren arabera (s.v. *behintzat*), ez dago beste inon. Hego-nafarreraz

- ere ez dugu jaso, baina ezta *beintzat*, *beintzet* edo antzeko aldaerarik ere; Aezkoan *beinas bein* erabiltzen da, baina ez dugu horren adibiderik aurkitu Lizarragaren obran.  
AELIE: *bentzait*  
OEH: *behintzat*
- beñ ere.** *adb.* Behin ere. Erab. (Lar, Cb). Idatzizko iturriak+: Lar (-*iñ*). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Eztizu beñ ere sentitu, admititu óndoa bear etzéna án barnean desplazér; iluntásun, edo tristuraren bát?* (412).  
OEH: BEHIN ERE (s.v. *behin*)
- berant.** *adb.* Berandu. Erab. (Ax, Lar). (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Angoék inbidias kóntu eman zióte Nagusiari, beránt laneratzzen zéla Isidro* (184).  
EHHA (324): Abaurregaina, Jaurrieta.  
Zugarramurdi -A: *berante*  
Luzaide -A: *berantei*  
OEH: *berandu*
- berantkara.** *adb.* Berantxe, beranduxko. Leh. (Bzt, EkiHN). HN+: *-kara* atzizkia erabiltzen da EkiHNaren eremuan. *Afizióne ón gónen kásos askotán berantkará joaten zé alorrerá* (184).  
OEH: *berankara*
- berarias.** *adb.* Berariaz. Erab. (Ax). *Heréjeak egun goietán berarias iduki zué mula eman gábe jaterá amenik* (199).  
OEH: *berariaz*
- berartan.** *adb.* Han bertan. Erab. *Itz gebék aditzean Ananias erori ze ilik berártan* (474).  
OEH: BERARTAN (s.v. *bera*)
- beraxtu.** *ad.* Bigundu. Leh. (Bzt, Zar, HHN, EkiHN). HN+: Artola2 *beratza*. *Aldare-alzinean zego arri andi bát, zein sanduak oñés ukitu zuenekó beraxtu zé nola balítz loi oreáskoa* (285).  
AELIE: -A: *beratza* (adjk.)  
OEH: *beraztu*
- berbera.** *erak. ind.* Berbera. Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: gral. OEHren datuen arabera, era honetara erabilirik, xvii. mendearen bukaeran baino ez da aurkitu testuetan, eta usuago Hegoaldeko idazleetan. *Aita berbéra, Náusi berbéra dugu biék; goázen bateo unióne ónean, ta ezkaitzala infernuak apárta elkárren amoretik* (490). **berau** (HHN).  
OEH: *berbera 2*
- berdugo.** *iz.* Leh. Borreroa. *Ara-kintza gártan guzian egón ze presénte bere Aita, ez Aita, bai-zik tigre rabiósoa; eta aiturik sentenzia, bera ofrezitu zé berdugotáko* (92). Ikus *borrero*.

Informazio gehigarria: *borre-ro-rekin pasarte* bera.

OEH: *berdugo*

**bereala.** *adb.* Berehala. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Z, HHN, ErdHN). *Deitzen bazúte konfesatzerá, berealá uzten zuéla errezua, jana, lóata lana, joateko artara* (429).

Ikus **berla**.

OEH: *berehala*

**berere.** *lok.* Bederen. Erab. (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, MHN, HHN, EkiHN). *Nola etzíren zerbáit berére urrikaritzen aláko persónas?* (53).

OEH: *bederen*

**berex 1.** *adb.* Berezi. Erab. (Lar, GN, L, Bzt, BN, EkiHN). *Sandua, ain nola berarendáko beréx errának balire, bereala joán etxera (...) gañaráko guzia saldu ta errepartitu zióte pobreéi* (388). Informazio gehigarria: Lizarraga baino lehenagoko lekukotasun guztiak Iparraldean jasoak dira, baina Axularrek ez darabil. Larramendik (s.v. *aparte*) *aparte, apart berezian* ematen du, baina eranskinean (s.v. *aparte*) *berech, beregain*. Larrarak (1991: 239) eta Urgellek (2002: 87) Harrieti hartu ziola erakutsi zuten, eta Lizarragarena da Hegoaldeko lehendabiziko erabilera. Hego-nafa-

rrerazko gure corpusean *berex* adberbioa jaso dugu ekialdean eta *berexi* ‘banandu’ aditza hizkera guztietan (HHN *beraxi*). Ekialdeko agerpenak ahozkoaren alde egingen luke, baina Larramendiren eranskinetik hartua izateko aukera ere badago. Halere, *OEH*-k jaso duen adierarunta, ‘bereiz, berezirik’ ez da gure adibidearena.

OEH: *berex I*

2. *adj.* Berezia. Erab. *Billatu zué kuárto berex bát apárt, non egoten tzén orázioan bere Jau-naréki* (443).

OEH: *berex II*

**dre-dre-dre.** *onomat.* (Etengabeko jarioa adierazten du). *Prioreak [...] errán zio ezi noiz ikasten zué dretxo kanóniko guzía (baitá agitz lúze), emanen zióla [habitua]. Urtearen barnean ikasirik gúzia itzuli zé.*

*Admiratu zé Priórea ortás, eta yágo, progatu zueláik galdegines alde guzietáik [...] erraten zuéla guzía dre-dre-dre utsin gábe* (182).

OEH: DRA-DRA-DRA (s.v. 1 *dra*)

**dretxo 1.** *iz.* Eskubidea. Erab. (GN, L, BN, Z, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: “La forma *deretxo* se documenta en textos meridionales (incluyendo al alto-navarro Elizalde, *CatB* y *Bordel*); Beriayn y Lizarraga de Elcano, en cambio, emplean *dretxo*, que es la forma septentrional” (OEH). *Baña desengañaturik münduas erretiratu zé erreligionerá, naiz Ama bete zén pénas, zeñi utzi zió bere drétxo zuéna etxéko ondasunetan* (106). OEH: *deretxo* 1

**2.** *iz.* Zuzenbidea. Leh. *Prioreak [...] errán zio ezi noiz ikasten zué dretxo kanóniko guzía (baitá agitz lúze), emanen zióla [habitua]* (182). OEH: *deretxo* 3

**duda.** *iz.* Zalantza. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Ae, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN). Dialekto+: gral. *Joán ze bada Sándua, eta seguratu zué Sándá Jangoi-koagánik ziréla zituen erregálo ta errebelázio guziak, desegin zitio beldurtásun ta duda zitué-*

*nak* (281). Informazio gehigarria: hiru modutara adierazten du zalantza Lizarragak: *dudan*, *dudaketan* eta *dudankara*. Aldaera batek eta besteak aditz desberdinak onartzen dituela dirudi: *dudan* (27): *egon* (trinko & perifrastikoa), *paratu* + *izan/edun*, *aurkitu* + *izan*, *gelditu* + *izan*; *dudaketan* (5): *egon* (t. & p.), *hasi* + *izan*; *dudankara* (2): *egon* (t. & p.). Aldaeren arteko aldea erabat semantikoa da. Ikusi ahal izan dugunez, *-keta* atzizkiaren birtartez ugaritasuna markatu ohi du eta beti izenekin agertu ohi da: *arraiketa*, *elurketa*, *erauntsiketa*, *gezurketa*, *goseketa*, *izketa*, *jendeketa*, *joan-etorriketa*, *milagroketa*, *oihuketa*, *suketa*, *trabajuketa*... Egungo Aezkoan *dirukéta gaitza* ‘sos puska handia’ edo *jendekéta* ‘jendetza’ baliatzen den gisa berean. Azken atzizkiari (*-kara*) dagokionez, aztertu ditugun lanetan beti adjektiboekin ageri da; salbuespen bakarra *duda* eta egun izenak dira. Adierari dagokionez, *-(t)xe* atzizkiarenetik hurbil legoke: nolabait ‘gutxi gorabehera’ edo ‘antzean’ adierazten du. Besteren artean, honako hauek jaso ditugu: *beltzarankara*, *berantkara*, *epelkara*, *eutxikara* (*eutxi* ‘agarrado,-a’), *gogorkara*, *gorrikara*, *luzekara*, *nekekara*, *txipikara*...  
 OEH: *duda*

**dudaketan.** *Esap.* Zalantzan. Hap. *Egon ze dudaketan, zer egin, edo utziko zén iltzera berla, edo guardatuko zén geroráko* (386). Ikus *duda* honen sinonimo eta paraleloetarako.  
 OEH: *dudaketa*

**dudankara.** *adb.* Zalantzan. Hap. *Dudankará egón ze, ote zekióken disimulatu zerbáit, [...] baña [...] biztu zé irarén súan* (437).  
 AELIE: *dudankara*  
 OEH: *dudankara*

**dudarik gabe.** *esap.* Zalantzarik gabe. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (GN, Bzt, HHN, ErdHN). Dialekto+: vs *dudik gabe/dudipe*. *Dudarik gábe sándu andía dá S. Fermin, ta Patrono poderósoa, logratzen duéna Jangoikoagánik aibérze grázia ta miserikordia* (514). **dudukebe** (ErdHN<sup>^</sup>), **duikebe** (ErdHN<sup>^</sup>), **duikabe** (EkiHN), **doike** (ErdHN<sup>^</sup>), **duike** (ErdHN<sup>^</sup>), **du(d)ik gabe** (EkiHN).  
 OEH: DUDA GABE (s.v. *duda*)

**dudatu.** *ad.* Zalantza egin. Erab. (GN, Bzt, BN, Z, HHN, ErdHN). *Jesus onarén oneán dút aibérze konfiánza, ezi ez dezáket duda ez nauéla utziko apartátzera* (245).  
 OEH: *duda*



**dulze.** *adj.* Gozoa. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Jesus izén dulce konsolagarria, ta egiáz iten duéna dióna (26).*  
OEH: *dultze*

## E

- ear.** *adj.* Iharra. Erab. (GN, Zar, ErdHN, EkiHN). HN+: Arto-la1. *Burua inklinátzean Sándak ukitu zue oñas aldareko frontalearen márkua, baize zur earreskoa, eta berdatu zé istántean* (399). Ikus *idor*; *leor* 2, *seko*. Informazio gehigarria: Larramendik (s.v. *seco*) *sikua, leorra, idorra, agorra, leihoa, elcorra, sicutua* eta *leortua* ematen ditu. OEHren arabera, zaraitzueraz erabiltzen da *ear* ‘seco’. Hego-nafarreraz ere Aezkoan *ear*; *eartu* & *eiartu* aldaerak daude. Lizarragak *ear*; *idor*; *seko* eta *leor* darabiltzala ikusi dugu. Lehena, ahozkotik heldu da ziurrenik, hego-nafarrerazko corpusak hala erakusten baitu eta berdin gertatzen da *idor* hitzarekin ere. Bonapartek *seko* eta *sekatu* jaso zituen (Ondarra, 1982: 160) hego-nafarreraz eta *txukatu* ere jaso da ekialdeko hego-nafarreran. Gure corpusean *lehor* ere ageri da, baina Lizarragak aurreko hiru hitz eta aldaerak pertsona edo objektu oren egoerari erreferentzia egiteko darabiltza; aldiz, *lehor* soilik lurrari (*leorrean, leorretik...*) edo haren egoerari. Hego-nafarreraz jaso dugun agerpen
- bakarra, ordea, ez dagokio lurrari: *alík eta leortu arte Jan-goicoaren iturri miserikordia-koak* (Satrustegi, 1987: 67).  
OEH: *ihar*
- eartu.** *ad.* Ihartu. Erab. (GN, Zar, EkiHN). Lehortu, disekatu. [Epaileak] *manatu zué atormentatzekó berze instrumentu burriñasko izugarriéki. Ortáko zoeziláik arrapátzera mutiko sandua, eartu zekizkióte berdugoéi besoak, eta Juezari éskua* (202). **eiartu** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN).  
OEH: *ihartu*
- ebaki.** *ad.* Ebaki. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, BN, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Berdúgoak arturik eskuieko éskua, ebaki zió leník eri-beátza, geró urbiléna, gero gañarákoak; ezkerreko eskúkoak oroát [...] moxten baizue alá nola bere zarmendua, edo ayéna alkitzás* (314).  
AELIE: *ebaki*  
OEH: *ebaki*
- ebatsi.** *ad.* Ebatsi, lapurtu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: Iparralde eta AN. *Kapitan bátek emán zio guardatzekó tesoro bát. Au ebatsi [zi]óte soldádoek: eta Jábeak koleraturík manatu zué urkátzeko arbole*

*batétik, etzéla bálio egiarík, enpeñurík, deusík (418).*

AELIE: *ebatsi*

OEH: *ebatsi*

**ebek.** *erak.* Hauek. Erab. (GN, MHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *ebek* en Yanzi. *Itzuli prisaká, ta kontatu zióte S. Pedrori ta S. Juani: ebék joan zire lastérka, ta ikusirik mortáxa ta oyálak án, ta gorputzik ez, itzuli zire pensátzen beren baitán (482).* Ikus *gebek*. Izenordaina denean *ebek* da eta ondoan izena daramanean *gebek*; itz *ebeki* salbuespena da.  
OEH: *hauek*

**edatu.** *ad.* Hedatu. Erab. (Lar). (G, GN, L, Bzt, BN, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>). *Zego bere erretiroan auspéska bésoak edaturík gurutzearén fórman orázio egiten bekatariengátik (66).*  
OEH: *hedatu*

**edeki.** *ad.* Edeki, kendu. Erab. (Ax, Lar). (GN, BN, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Delitoak dire ebék merexi duténak kastigo érrua: orgátik manatzen dút nik be-realá edeki dezázien bizia (265)*  
OEH: *edeki*

**eder 1.** *adj.* Ederra. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Nolako Jangoikoaren milágroa eztá, ibilis sandu gáu India*

*gaiétan, ásko jénde animálegisa bizi zirenen értean ainbé-ze denbóras mantenitzea ain gárbi, éder, mellarik gábe nola sanduen konbentu bátean (90).*

Ikus *galant*.

OEH: *eder*

**2.** *grad.* Guztiz, arras, erabat. (EkiHN<sup>^</sup>). *Ama Birjinak lagundu zió orátzen irin galetsi bát, ta atrá ze ógia, aláko eskuetáik bekála, txúri edér, gózo ezin yagos (176).* *An berak karraiatús ura ta egúrta, eginés súa, garbitus sukáldea, ta onziak zerbitzatzen zióte guziéi kontént edér (268).* Informazio gehigarria: halaxe da egungo Aezkoan ere: *xuri eder* ‘arras xuria’ (Orbaizeta) / *polliki eder* ‘arras ederki’ (Abaurregaina) / *gizen eder* (Abaurregaina) ‘norbait arras gizen dagoenean’.

**eder-itsusi.** *iz.* Norbere buruaren zaletasuna, duintasuna. Leh. (G). *Orrén gañetik ederritsusi gabéko deshonesto eskandalósoa, edeki zióna bere anaiari ándrea bortxáz (329).*  
OEH: *eder-itsusi*

**edozein.** *det.* Edozein. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Er, MHN, HHN, EkiHN). *Etzé kolerátzen, ez enfadátzen, eztaré erresentitzen, edozéin gauza errán edo eginik*

(523). Informazio gehigarria: normalean izenaren ezkerrean kokatzen da, baina ondoko adibidean bitan dakar Lizarragak eskuinean: *Baldin zegoláik errezázten, játen, ló egiten edo lán edozeintan, deitzen bazúte konfesatzerá [...] iduri baizé-kio egia dena, arima edozéin irabáztea déla nola goratzea lurretik Kristorén odóla zebilaténa oinpetán* (429).

EHHA (1728): Aniz, Oñati.

Arbizu, Etxaleku, Urdiain: -A: *eozein*.

Beruete, Etxarri (Larraun), Ezkurra, Oderitz, Gaintza, Goizueta, Igoa, Amezketa, Andoain, Beasain, Beizama, Hernani, Oresa, Tolosa: -A: *ezozin*.  
Donamaria, Etxalar, Leitza, Sunbilla: -A: *edozin*.

Dorrao, Erratzu, Lekaroz: -A: *erozein*.

Eugi -A: *erozein, erozen*.

Suarbe -A: *edozin, eozin*.

Zegama -A: *erozin*.

Aia -A: *ezozin*. -S: *eozer*.

Arrasate -A: *edosein*.

Ezkio-Itsaso -A: *ezozin*. -S: *eozer*.

Ikaztegieta -A: &, *eozein*. -S: *edozer*.

Lasarte -A: *eozein, eozin*. -S: *eozer*.

Leintz-Gatzaga -A: *erozein*.

Mendaro -A: *ezozin, eozen*. -S: *eozer*.

Orio -A: *ezozin*. -S: *eozer*.

Urretxu -A: *ezozin*. -S: *eozer*.

Aldude -S: *zernai, edozoin*.

Alkotz, Luzaide, Mezkiritz, Zilbeti: -S: *zernai*.

OEH: *edozein*

**efekto.** *iz.* Eragina. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). *Bérze pribilejio bát ere emán zio [...], nola etzuén bekátu orijinalerik, alá ez izátea arrén efektorik, au da, bekaturáko sukái ta inklinaziorik, ez eta ére entendamentuarén iluntasunik* (18).

**efektu** (ErdHN).

OEH: *efektu*

**egal.** *iz.* Hegala. Erab. (Ax, Lar, Mb). (GN, L, Bzt, BN, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Dazianok gorputz sandua botarazi zué kánpoan, zatika ta jan zezáten tzakúrrek ta baséiziek: baña otsorrái andi bát paratu zé zentinélan; arrék pikoas, aztapárres, egáles apartarazten zitue miragarriró* (123).

OEH: *hegal*

**egaste.** *iz.* Hegazia. Hap. *Zé agitz afzionátua eiziará, órtan dibertitzen zé segitus arrapatu náies ez egasteak solamente, baita baseziak ere* (136).

EHHA (125):

Beruete -A: *easté*. -S: *txore*.

AELIE: -A *egazti*

OEH: *hegazti*

**egatu.** *ad.* Hegan egin. Erab. (Cb). (G, GN). *Órdua ellegaturik, egatu zé arima uso báten idú-*

*rian, ta sentitu zire anitz seña-  
le: zeldaren aurkaséko arbola  
bát loratu zé bat bateán* (529).  
*Egatu zé berarén fama* (279).  
Informazio gehigarria: “Vola-  
ba su fama por todas partes”  
(1734: 206).  
EHHA (127): Ezkurra, Suarbe.  
Donamaria -S: *egaka*  
Asteasu -S: *egan ibilli*  
Aia -S: *egan, egan ein, egan  
jun, egan ibilli*.  
Ikaztegieta -S: *egan*  
Lasarte -S: *egan, ega, egan  
dabill*.  
OEH: *hegatu*

**egia.** *iz.* Egia. Erab. (Ax, Lar, Cb).  
(B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar,  
Z, Er, MHN, HHN, ErdHN,  
EkiHN). Dialekto+: gral. *Kon-  
tu emán zio Enperadoreái  
agituas: onék biali zué Kurzio  
deitu bát, ikusterá égia zén  
kontatu zióna, edo imajinazio-  
ren bát* (234).  
OEH: *egia*

**egietafede.** *iz.* Fedezko egia. Erab.  
*Sanduaq Jangoikoaren ins-  
pirázios errán zue: “Baldin eta  
heréje daudenék emén ofrezit-  
zen baute sinéstea egietafe-  
dea, estaltzen badá irúzkia, nik  
ofrezitzen dút au Jangoikoaren  
partetik”* (172). *Azirik edérki ta  
ikasirik eskritura sagratuarén  
egietafedeak, errepartitu zitue  
pobreéi bere ondasúnak libe-  
ralkiró, egotekó desenbaraza-*

*turik iltzekó, ta igatekó Zerúra*  
(397).  
OEH: *egia*

**egon 1.** *ad.* Egon. Erab. (Ax, Lar,  
Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt,  
BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN,  
ErdHN, EkiHN). Dialekto+:  
gral. *Etzeike egón ténploan nai  
adiña, baña bere pétxoa kon-  
sagratu zué ténplo-gisa* (87).  
**egondu** (MHN, HHN), **eon**  
(EkiHN). Informazio gehiga-  
rria: ez darabil *egondu* eta ha-  
lakorik.  
OEH: *egon*

**2.** *ad.* Aritu. Erab. (Ax, Lar, Cb,  
Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN,  
Zar, Z, Er, MHN, HHN,  
ErdHN, EkiHN). Dialekto+:  
gral. *Konfesátzera eldu zékion  
jendetzearén amargárren zá-  
tia ére etzuke aditu, naiz órta-  
n egonik gau ta egún al guzian*  
(86). **egondu** (MHN, HHN),  
**eon** (EkiHN).  
OEH: *egon*

**egotzi.** *ad.* Egotzi, bota. Erab. (Ax,  
Lar). (B, GN, Zar, Er, MHN,  
HHN, ErdHN, EkiHN). *Ama-  
bortz urtetán egin zue bóto ez  
jatéko aragirik, ezpáze obe-  
diénzias: obligatzen zúte bein  
edo bérze, baña zé tormen-  
tutáko, ezi berealá egótzi beár  
zue, eta zerbáit gelditzen bazé-  
kio, gaizkitzen zé* (501). *Goárt  
eman zué kálizan armiárma*

[...]. *Azkenéko erresolbitu zué ártzea, il edo bizi [...]. Baña Jangoikoak naita emán zio estornúdo edo atija bátek, onéki egotzi zué sudurretáik animále benenátua* (196).

EHHA (2102): Jaurrieta

OEH: *egotzi*

**eguerditsu.** *iz.* Erab. (Z). Eguerdi ingurua. *Eguerditsutík arratsálde apaleráño iruzkiak estali zué bere árgia barrátus ilundura mundu guzia bárna* (54). *Onéki yágo desesperaturik Judas atrá ze kanporá, ta urkatu zué bere búrua arbole batétik eguerditsuan, Kristo il baño lén gurutzean* (46).

OEH: EGUERDITSUTAN (s.v. *eguerdi*)

**eguerri.** *iz.* Eguberri eguna. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (G, GN, L, Bzt, BN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Eguerri gáuean zego debóto elizan xakin náiez órdua, zeñetán jaió zen aur dibinoa* (238). **eguarri** (ErdHN), **eguberri** (HHN, EkiHN).

EHHA (358): Hondarribia, Zegama, Aniz, Arbizu, Erratzu, Etxarri (Larraun), Ezkurra, Igoa, Leitza, Lekaroz, Mezkitritz, Oderitz, Suarbe, Sunbilla, Azkaine, Bardoze, Donibane Lohizune, Hazparne, Itsasu, Makea, Mugerre, Sara, Senpere, Urketa, Uztaritze, Aldude,

Armendaritze, Behorlegi, Biddarrai, Ezterenzubi, Gamarte, Garrüze, Izturitze, Jutsi, Landibarre, Larzabale Uharte Garazi.

Beruete -A: *eguerre*

OEH: *eguberri*

**1 egun 1. iz.** Eguna. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Etzué beñ ere nigarrík; naiz útzi egún guzián esnerik gábe, aurkitzen zúte ixil-ixila beti Zerurát beira* (247).

OEH: *egun*

**2. adb.** Egun, gaur (egunean). Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN). *Bi santa Eulalia edo léngo euskarás Donalalla izan dire, bata Barzelonákoa, bérzea Meridákoa: au dá egún zelebratzen déna* (97). *égu* (EkiHN). Ikus *gaur*. Informazio gehigarria: Iparraldean, oro har *egun* erabiltzen da.

EHHA (300): Abaurregaina, Jaurrieta, Luzaide.

Mezkitritz -S: *gaur*

OEH: 2 egun

**2 egun. Ikus eun.**

**egun oro.** *adb.* Egunero. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (L, Zar, Z, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Sanduak kuidatzen zué óngi, ta egun óro bialtzen zió Nausiari*

*zerbáit lóre, fruita edo gauza* (205). Informazio gehigarria: *goiz oro* forman bezala, hone-tan ere Lizarragak gordetzaile jokatu zuen. XIX. mendea arte *egun oro* da formarik erabilie-na eta hortik aurrera *egunero* izatera aldatuko da XX. men-dean ia forma bakarra izatera igaro arte.  
OEH: *egunero*

**egunkara.** *adb.* Egun aldera. Hap. *Orréki utziko dú doaien libre bazkoa egunkará* (50).  
OEH: -

**eguraldi.** *iz.* Eguraldi ona. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, BN, Z). Dialekto+: Povreaux jasotzen du. *Alá Jangoiko ónak kuidatzen dú bere Elizas [...] ekaitzarén atzétik bialtzen dú eguráldia, eta purgatu óndoan betetzen dú glorias* (138). Ikus *denbora*. Informazio gehigarrria: gaur egun Imotz eta Sakanan erabiltzen da (*arrats gorri, biyer egueldi*)  
EHHA (222):  
Alkotz, Eugi -A: *egualdi*. -S: *denbora*.  
Etxalar -A: *eguldi*. -S: *denbora*.  
Beruete -A: *eguele*. -S: *denbo*.  
Etxaleku -A: *egualdi*. -S: *denboa*.  
Ezkurra -A: *egoaldi*. -S: *denboa*.  
Gaintza -A: *egoaldi*. -S: *tenbora, denbora*.  
Goizueta -A: *eguldi*  
Igoa -A: *egualde*. -S: *denbo*.  
Leitza -A: *egualdi, egueldi*.

Oderitz -A: *egueldi*. -S: *denbo*.  
Suarbe -A: *egualdi, egueldi*. -S: *denbora*.  
Urdiain -A: *egueldi*. -S: *denbora*.  
Ahetze -A: *egualdi*. -S: *denbo-ra, aroa*.  
OEH: *eguraldi*

**eizia.** *iz.* Ehiza. Erab. (Mb). (ErdHN<sup>^</sup>). HN+: Ibarrek *ei-zian* dakar ‘cazando’. *Ibiltzen zé karidadéko lan ebetan ain gógotik, nola eixtari bát bere eizian* (291). **aizi** (EkiHN). EHHA (204): Alkotz, Etxalar, Etxaleku, Eugi, Suarbe.  
AELIE: *eizia*  
OEH: *ehiza*

**eizia larri.** *iz.* Ehiza larria. Basur-deak, basahuntzak eta ilea du-ten animalia basati handiak ehizatzea. Leh. (ErdHN). HN+: Artola 5 *eizi*. *Egun batéz atrá ze lagunéki eizia lárri deitzen denerá, orkátz, ótso, basúrde ta alakoetará* (339).  
OEH: EHIZA LARRI (s.v. *ehi-za*)

**eiziatu.** *ad.* Ehizatu. Hap. *Deábruak nonnái paratzen tú lákioak eiziatzekó arimak* (339).  
OEH: *ehizatu*

**ekaitz.** *iz.* Ekaitza. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: *gral. Běň ere urte goietán etzué está-li búrua, baizik agerrian beti,*

*zéla irúzki, zéla ekáitz, ótz edo bero; eta oin urtúxian beti, ta habitu latz mear bát gorpú-tzean* (531).

OEH: *ekaitz*

**ekarri.** *ad.* Ekarri. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Bildurik jendekéta ándia, formaturik prozésio solemne bát aparáto ta pónpa errealaréki, arturik andaétan gorpútz sanduak, ekarri zúzte Leireko tenplorá, non depositatu zúzte hónra ta fêsta guziazaréki* (534). **karri** (ErdHN).

AELIE: -A: *karri*

OEH: *ekarri*

**eldu.** *ad.* Etorri. Erab. (Ax, Lar). (GN, L, Bzt, BN, Z, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: *bi zentzuetan. Artola1. Alá errán zio S. Juani: “Ene semea, zer inténzios eldu ote dá jendetze gúra?”*. Sanduak errespondatu zió: “Ene Ama Santisima, ez dezála beldurrik izán, onés eldu diré: ezauntzen tút diréla berórren Seme Jau-narén adiskideak”. *Ellegatu zireláik, ikusteáreki Jauna ilik* (57). **eildu** (EkiHN). Ikus *etorri*. OEH: *heldu 2*

**elemenio bat.** *zenb.* (Izenaren aurrean). Asko, pila bat. Erab. (EkiHN). *Amasei ilabéte zué*

*zeukála inguraturik, izanagá-tik bárnean zegon Moroak elemenio bát jénde, ta Sanduak guti* (457).

OEH: ELEMENIA BAT (s.v. *elemenia*)

**eliza 1.** *iz.* Eliza (eraikina). Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Amak erdi baño lén in zue améts, zeramála sabeleán otsoko bát, baña au Carmesko Elizará joán ta itzuli zéla axúri* (110).

OEH: *eliza*

**2.** *iz.* Eliza (erakundea). Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Zelebratzen dá Iruñeko obispado góntan Aingeru guardiakoarén fêsta Martxoarén lenbizikoan, ta Lastallaren bigarreneán Eliza guzían* (138).

OEH: *eliza*

**elkar.** *izord.* Elkar. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -kh-. (G, GN, L, BN, MHN, EkiHN). *Egun batéz zegoláik bere debózioan, aditu zitue bi pobre itsu erraten ziréla elkarri atra zuéna éskean bakótxak, batak berreün eskútu urréskoak, eta zeuzkiéla altxaturik kapútxan; berzeak iru-*



- eún sonbréluan* (182). **erkal** (EkiHN).  
OEH: *elkar*
- elle.** *iz.* Artilea. Erab. (GN, ErdHN).  
Dialekto+: bigarren erabilera, lehena SermAN (1729). *Jangoikoa dá justiziasko iruzkia. Edo kastigatzen duzú, edo kastigatzen dú: edo emén azóte elleskoéki, edo án susko azoteéki. Egin bada penitenzia biótzez lenik, gero gorpútzes ere* (541). **eile** (EkiHN<sup>^</sup>).  
OEH: *ile*
- elleba 1.** *iz.* Iloba, anai-arreben seme-alabetariko bakoitza. Erab. (GN, ErdHN). *Garbitu zitúe negárres ta peniténzias ta orázios bere kulpak, lagúndus bere osába sánduak [...]. S. Abraham [...] iltzé eriótze preziosoaréki [...] Elléba Maria ere iltzé ándik borz úrte* (152-153). **ailoba** (EkiHN<sup>^</sup>), **eiloba** (EkiHN). Informazio gehigarria: FSn pasarte berean Maria iloba zela ageri da: “y el fin de Maria penitente, su sobrina” (1610(2): 194).  
AELIE: *elleba*  
OEH: *iloba*
- 2.** *iz.* Erab. Biloba eta birbiloba. (GN). *Bere Aitún edo Atxunak, sano zegoláik, errán zio bere elléba aurtoari, iltzen zegonari: “Zoáz zerúra, nere sandáttoa”* (188). *Oná S. Franzisko Borja mundúko andietáik, Gandiako Duke, Lombaiko Markes, Errege Katolikoan elléba ta Españako Jaundia, orái Sandu gloriósoa* (267). **ailoba** (EkiHN<sup>^</sup>), **eiloba** (EkiHN). Informazio gehigarria: San Franzisko Borja: (‘birbiloba’). Informazio gehigarria: “primogenito de [...] Doña Juana de Aragon [...] hija de Don Alfonso de Aragon [...] hijo de el Rey Catholico” (FS, 5: 334). <https://bit.ly/3tacZnR>. *Sanduen bizitza: Errége Katolikoan elléba* (267).  
AELIE: *elleba*  
OEH: *iloba*
- ellegatu.** *ad.* Iritsi, heldu. Erab. (GN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Deseatzen zué Ama amantisi-mak ikústea presénte bere despeidan Apóstolu sánduak [...] batzúk etorririk Jangoikoaren inspirázios, berze batzúk ekarrik Aingiruen éskus. Estimatu zué agitz Ama dibinak. S. Pedrori, lenik ellegatu zenari, atra zékio errebitzerá* (67).  
OEH: *ailegatu*
- eltxo.** *iz.* Eltxoa. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, Zar, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Eltxo-kantidádeak iten zió konpañia, baña batek ere ez pikátzen, baizik goiz arráts iten zúte músika miragarriró* (500). **eltzo** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: EHHAN

jasotzen denaren arabera, nahi-ko eremu zabalean erabiltze da *eltxo*. Nafarroan, *eltxo* erabiltzen ez den herrietan *ulitx(a)* erabiltzen da.

OEH: *eltxo*

**elzari.** *iz.* Eltzekaria, lekaleak. Erab. (G, GN, Bzt, Zar, Er, HHN, ErdHN). *Ayén jatéko guzia ógi ta elzári bein sollik egúnean, ta batzuek bi eguntáik bi eguntará* (423).

AELIE: *elzari*

OEH: *eltzari*

**elze.** *iz.* Eltzea. Erab. (Ax, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: O-SP. (L, Bzt, BN, ErdHN). Dialekto+: vs *lapiko*. HN+: Artola3. *Bérze bein emanarazi zió oñean aizkóras, eroriarazi goratik béra, botarázi elze irakiten zegóna oñetán, ta aláko milla; baña Jesu Kristorén birtútes béti gelditzen zé sána* (424).

**eltze** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: *Egiptoko eltzeak* esamoldeak munduko plazerei egiten die erreferentzia. Basamortuan zirela, judutarrek Egiptoko eltzeak faltan sumatzen zituzten.

OEH: *eltze*

**emakume.** *iz.* Erab. (MHN, HHN). Emaztekoa. *Emakúme gaixtoak ainbérze inbidia, odio ta ira artu zué Amaiarreba Sandari [...], ezi zegolarik kapilla*

*bátean itoarazi zue bere tokaréki án* (258). *Bere ofizioa jokári, ladrón, alkegábe ta emakume galduéki gau ta egún jokúko étxe, tabérna, ta bide gaixtoetan* (363). **emazte(ki)** (MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Ikus *emazteki*. Informazio gehigarria: *emasteki* edozein testuingurutan ager daiteke testuan, baina *emakume* soilik negatiboetan, *gaixto* eta antzeko kalifikatiboak aldean.

OEH: *emakume*

**eman 1.** *ad.* Eman. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Joanik Obispoak aurkitu zué erreklinaturik eskañu bátean; ta eskaturik bedeizioa, emán zio Obispoak eskátus oroi zeiéla ártas zéruan* (411). **man** (EkiHN).

AELIE: -A: *man*

OEH: *eman 1*

**2.** *ad.* Erab. Ekin, lotu (datiboarekin). (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Sanda gáu afizionatu zé ta eman ze aurzututik Jesu Kristori* (401). Informazio gehigarria: Lizarragak iragangaitz darabil, Iparraldean ere ohi den bezala; Lar, Mb eta Cbk iragankor (OEH).

AELIE: -A: *man*

OEH: *eman 3*

■ **emanikako.** Emandako. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Cb 6x *-ik-*, 4x *-d-*. (G, L, Bzt). Dialekto+: G: Cat-Burg, Ub; L: ES, Dv, Urt, H, Barb; B: Izeta. *Aita Sánduak etzué nai admititu apelaziorík S. Antoninok emanikáko sentenziarén kóntra* (183).  
OEH: -

**eman ala.** *esap.* Ahal den guztia emanik. Leh. *Ama Birjinak lagundu zió orátzen irín galetsi bát, ta atrá ze ógia, aláko eskuetáik bekála, txúri edér, gozo ezin yagos, eta emanik eman ála pobreíi, beti gelditzen zé ogi saskián* (176). Informazio gehigarria: “y por más que se daba a los pobres, siempre quedaba pan en la cesta” (FS, 1610: 345).  
AELIE: -A: -; -S: -  
OEH: EMAN-AHALA (s.v. *eman*)

**emanka.** *iz.* Liskarra, borroka. Hap. *Gaixtofikatuek ajustatu zúte kentzekó bizia sanduari noiz ta nola. Órtako forjatu zúte armátzea diskórdia ta emanka-idurri bát arren atarietan gauaz, atrako zéla baketzerá, ustéz, ta orduán ilen zutéla* (328). Informazio gehigarria: Larramendik bi *pelea* bereizi zituen. Batetik, “*pelea, gudua, gudá, gataz-ca*. Lat. *Pugna*” eta, bestetik, “*contienda, riña, jaitea, lisca-*

*rra*. Lat. *Rixa*”. Iraizozek ‘riña, pendencia, golpes’ (1978: 284) proposatzen du eta gu bat gator, nolabait Larramendiren *contiidarekin bat: eriotze edo emanka bat nonnai da bekatu justiziaren kontra* (Lizarraga, 2004b: 1273). Bestalde, Lizarragak *pelea* ere erabiltzen du, baina gehienetan gudu edo borroka epikoagoak adierazteko (deabruaren kontra, herejeen kontra, herria agintari maltzurren kontra, etab.), Larramendiren lehen adierarekin bat. Beraz, *emanka* ahozkotik hartua edo Lizarragak berak sortua izateko aukera dago.

AELIE: -A: -; -S: *burruke, borroka*  
OEH: *emanka*

**emaste.** *iz.* Emakumea. (Ax & Lar *emazte*). Erab. (L, BN, Zar, Z, Er, MHN, ErdHN). *Bedeikatua zú emasteetan, eta bedeikátua zure sabeleko fruitua* (467). Informazio gehigarria: Adiera honetan orokorra Iparraldeko eta Nafarroako testuetan. **emazte** (EkiHN). Ikus **senar-emaste**.

**emasteki.** *iz.* Emakumea. Erab. (Ax, Lar & Mb *emazteki*). (GN, Bzt, BN, ErdHN). *Gero arturik despátxuak eta letrak, arrapátzeko Kristio ziren gizónki ta emastéki guziak préso* (214).

**(e)mazteki** (HHN, ErdHN, EkiHN).  
OEH: *emazteki*

**ematu.** *ad.* Erab. Baretu. (Ax, Lar). (GN, BN). *Itsásoan agiturik tenpestade andi bát, ematu zué bere orázios, guziék gráziak ematen zitiotéla orren kásos* (246).  
OEH: *ematu*

**emazur(t)z.** *iz.* Umezurtza. Erab. (Ax, Lar, Mb). (GN, BN). *Ama iltzékio irur urtetákoa zelarik, Aita, berriz, seigárren úrtean: alá gelditu zé emazúrtz goizik ta bere konturá artu zué bere izeba bátek* (452).  
OEH: *emazurtz*

**emeki.** *adb.* Leunki. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (L, Z, EkiHN<sup>^</sup>). *Orduán yá humil Prefektoak eméki erraten dió: “Bada, eskatzen dizut, otói, bizitza itzul dezozúla, ezaun dáien eztiozúla kéndu árte gaixtos”* (394).  
**emaro-emaroa** (EkiHN<sup>^</sup>), **emeki-emekia** (EkiHN<sup>^</sup>).  
OEH: 1 *emeki*

**emen.** *adb.* Hemen. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, MHN, HHN, ErdHN). *Ellegaturik Isidrook emán zio pertikas tufarrái, zióla: “Emén, Jangoiakoak nai badú, ur atrako dú”* (450). **gemen** (EkiHN<sup>^</sup>), **gen** (EkiHN).  
OEH: *hemen*.

**enbarazatu 1.** *ad.* Haurdun geratu, izorratu. Erab. *Andre ezkondu bát enbarazatu zéna ez senarragánik, sánduak exortatzen zué konfesatzerá kulpa. Etzué nai obeditu* (101).  
OEH: *enbarazatu*

**2.** *ad.* Erab. Enbarazu egin, trabatu. *Pilatos, itzultzearéki présoa bere gogoarén bórtxaz, aurkitu zé enbarazaturik kausa gártan berriró* (50).  
OEH: -

**ene.** *izord.* Nirea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Cb bokatiboan soilik (*ene seme...*). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. testu zaharretan. Ainbérze fáboire iten zióte Jaunak ebéi, ezi berén Ama atrebitu zé bein eskatzerá: “Jauna, mana béz ene bi seme gebék jarri daitzen, bata berórren eskuieko áldean, bérzea ezkerrekoan bere Erreinuan”* (104).  
OEH: *ene*

**engañatu.** *ad.* Engainatu. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Suturik Enperadoreak erran ziote: “O eroak, engañatuak zaráte guruzifikatuarén árte gaixtos”*. *Ayéek,*

*berriz: “Ori dago engañaturik, ez gú” (126).*

OEH: *engainatu*

**engañu.** *iz.* Iruzurra. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -n-. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Juezak errán zio: “Oriék dire Kristioén amétsak, engáñuak ta itz bánoak, etzaizkidának erran beár niri” (99).*  
OEH: *engainu*

**enkarnazio.** *iz.* Haragitzea, gorputz bilakatzeta. Erab. (Cb). (G). *Andik zembáit ilabeteén buruán agitu zé Jesu Kristorén enkarnázioa edo gizón egitea (156).* Informazio gehigarria: Azterturiko autoreen artetik Kardaberazek erabiltzen du soilik; berriz, Larramendik (s.v. *encarnar*) *aragitu* ematen du. Hego-nafarreraz ez dugu *enkarnazio* hitza jaso, baina hala ere ahozkotik ikasitako hitza delakoan gaude. (ikus *aragitu*).  
OEH: *enkarnazio*

**enkomendatu.** *ad.* Norbaiten esku gelditu edo utzi. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, Bzt, HHN). *Ikusi zeláik mutiko sandua serpiente gáien értean, enkomendatu zé Jangoikoai biotz guzias (202).*  
OEH: *enkomendatu*

**enkubatu.** *ad.* Gaizkilea ontzi baten barrenean sartu oilarrarekin, zakurrarekin, tximinoarekin eta sugedorriarekin, eta uretara bota. Hap. Gaztelaniaz *encubar*. *Juezak sinestátus emakumearí, sentenziatu zué enkubatzéko semea, ta parátzeko préso Apostólua (316).*  
OEH: *enkubatu*

**enpleatu 1.** *ad.* Aritu. Erab. Idatzizko iturriak+: Ax *enplegatu*. (MHN). Dialekto+: Hegoaldean. HN+: Elizalde. *Aterturik gaitz gúra, enpleatu zé asistitzen bere Izeba lauretan ogeitamár urtetako erreligiosari (453).*  
OEH: *enplegatu 2*

**2.** *ad.* Erabili. Erab. Idatzizko iturriak+: Ax *enplegatu*. (HHN). Dialekto+: Ohikoagoa Hegoaldean. *Judas traidóreak murmuratzen zué gaizki enpleátuas ungéndu prezioso gúra, zeikela sál irur eún dirután (482).*  
OEH: *enplegatu 1*

**entendatu.** *ad.* Ulertu. Erab. (GN, Zar, Z, Er, MHN, ErdHN, EkiHN). *Bada diót, ezi orrendáko diréla tormentu, enetáko erregálo, ta nere gosean izan déla beti asétzea mai góntan erregalo-gisa gebétas... Nola enténda? Nola sinésta ere*

*lenguaje gáu lurréko animalé-  
ttoek?* (493).

OEH: *entenditu*

**entraña.** *iz.* Erraiak. Erab. (Lar, Cb). (GN, Zar, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). *Azotarazi zúé Juézak de manéra ezi ageri zire ezúrrak ta entráñak urratuarén útses* (284).

OEH: *entraína*

**entrañatu.** *ad.* Barreneraino sarturik eduki. Erab. (HHN). *Mostrátus alá Ama Birjinaren debózioa esnearéki entrañaturik zeukála* (141).

OEH: *entrainatu*

**entremetitu 1.** *ad.* Tartekatu, norberari ez dagozkion kontuetan sartu. Hap. *Kontrário andiagókoa izán zue Maurizio enperadorea, lén adiskide izána, zein, zerén abisatu zuén etzezála debéka soldado izának egitea religióso ta etzeièla entremetitu elizako gauzetán, asarretu zékio* (338). Informazio gehigarria: FS-n “entremetirse” ageri da.

OEH: *entremetitu*

**2.** *adj.* Besteen kontuetan sartzea gustuko duena. Hap. *Agitz zé debóto, ixil ta humil, ez entremetitua berzerén joan-etorrietán, baizik gógoa beti Jangoikoan* (184).

OEH: *entremetitu*

**epel.** *adj.* Epela. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: ohiko adiera Iparraldean. *Etzi-re berarén itzak, gureak bekála, ótzak edo epélak, baizik orazioarén sutegian gorituak atratzen zitue súa zeriótela, urrátzeko, péñak ere, brónzeak ére* (441).

OEH: *epel*

**epelkara.** *adb.* Epel samar. Hap. *Joanik Moro-errirá Obispoaréki ta ikusirik bein Obispoa predikátzen epelkará ta beldúrta, arrék goraturik boza errán zue milla gauza ón fede Kristioas ta Mahomaren kóntra* (200).

OEH: -

**erabaki.** *ad.* Kontatu, azaldu. Leh. (Lar). (ErdHN<sup>^</sup>). *Luze litzáke erabakitzea nola azi zén Jau-naren amórean ta gañaráko birtuteetán, ta Jangoiko onak in zituen miragárriak berarén amóres, ezi bere amazaleén amazále dá Jaun dibinoa. Zebáit bakótx errain túgu* (399). *Dá imposible erabakitzea Sanda gónen abantállá guziak: eta alá, gatózin bere despeidará* (446). Informazio gehigarria: zentzu horrekin darabilen autore bakarra da. Larramendik (s.v. *explicar*) “azal-

du, arpeztu, erabaki” ematen ditu.

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *erabaki* 4

**erabili.** *ad.* Erabili. Erab. (Ax, Lar, Mb). *Amak aiturik, nola uste baizue guzién erremédioa ezkontza gartáik, tratatu zué gaizki alába itzez ta akziónez, erabilis arrastaká lúrrean.* (244). Informazio gehigarria: “tratóla muy mal de palabra, y peor de obra, hasta arrastrarla por el suelo con grande impiedad” (FS, 1761: 643).  
OEH: *erabili* 2

**eraiki.** *ad.* Erein. Leh. (GN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Baratu zé Tolósan, non eraiki zuén azi dibinoa biltzeko fruitu zeruráko, eramánes arimak fede Kristiorá, zein baita zuzen-bide bakárta araráko* (314). **erain** (EkiHN), **erein** (EkiHN). Informazio gehigarria: Larramendik (s.v. *sembrar*) *ereiñ, ereindu* ematen du. OEHN (s.v. *ereiki*) *erei-ki, eraiki, ereki, eriki* ematen dira, guztiak “AN” etiketarekin. *Eraikiren* adibide guztiak Lizarragarenak badira ere, Arakistainen lekukotasuna hartu behar da aintzat, Nafarroan entzundako hitzak jaso baitzituen bere zerrendan. Ibarrek (2007) ere jaso zuen bere lanerako (s.v. *ereiki*), Erroibar eta Esterribarren ahozkoan erabiltzen

dela bermaturik. Hegoaldeko hego-nafarreraz ere badago, ekialdean *erein* erabiltzen den arren. Ahozko iturritik hartua delakoan gaude.

AELIE: -A: *ereki*

OEH: *ereki*

**eraizio.** *iz.* Uzta. Erab. (GN, ErdHN). *Ellegatu zeláik denbóra, biltzeko bere trabájuen eraizioa, eramán zue Jaun onak bizitza eternorá* (386).  
OEH: *ereizio*

**erakeria.** *iz.* Erokeria. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN). *Presidénteak errán zio: “Obe zindúke útzi erakeria góiek, ta adorátu gure Jangoikoak, eta ártu senár, pasátzeko bizi óna”* (132). Ikus *erokeria*.  
OEH: *erokeria*

**erakuste.** *iz.* Erakustea. Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, EkiHN). *Laurgarrena berék berzeéi erakuste gúra nó n beár zen jáio Salbazálea, ta ala ére deskuidátzea berák geldí gáldus eskaida óna* (27).  
OEH: *erakuste*

**erakustun.** *iz.* Irakaslea. Leh. Idatzizko iturriak+: Lar. *irakustun*. (L, Bzt). HN+: *irakustun* ap A. O, S. *Katalina Birjin ta Mártir edér gloriósa, Jesu Kristorén espósa amánteá ta Diszipula*

*própia, Filosofoén maéstra ta jakintsuen erakustúna, garaitu tuéna tormentuak, ta eriótzea!* (551). *Asi ze goizik ikasten orázio mentalarén dotrina, zeñen erakústun admiráblea izan beár zuen geró* (270). Informazio gehigarria: “En esa misma edad empezó a gustar de la oración, de la cual había de ser después gran maestra” (1734: 185). **irakustun** (EkiHN).  
OEH: *erakustun*

**erakutsi 1.** *ad.* Irakatsi. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Errespondatu zióte gizon arrék [...] Sékulan eztá adítu argitu tuéla niórke ére itsu jaioarén bégiak. Ezpaliz au Jangoikoaren aldétik, ezin lezáke deus egin. Errespondatu zúte: “Bekatuétán jáioa aiz guziói; eta ik nai diguk erakútsi guri?”* (36).  
OEH: *erakutsi*

**2.** *ad.* Ikusarazi. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral. Joan zékio S. Tomas bein, berze ásko aldís bekála, bisitátzera bere zeldan, galdegin zio zein librután estudiatzen zituen ain gauza ónak: S. Buenabenturak erakutsi zizkio guti batzúk án zeuzkiénak* (220).  
OEH: *erakutsi*

**eraman.** *ad.* Eraman. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN). *Nai zúte eramán elizará, baña ezin apartarázi jéndeá* (352). **eman** (ErdHN).  
Ikus *erman*.  
OEH: *eraman*

**1 erauntsi.** *ad.* Jo, eraso. (Lar). (BN, Z). *Denbóra ekáitz-aldi batéz atrarík, euri ugárreak eraunsten zególa, ellegatu zé eremu gartára, ta gáua sarturik yá ihún, asi ze dei ta dei* (331).  
OEH: *erauntsi I, 5*

**2 erauntsi.** *iz.* Erauntsia. Erab. (Lar, Mb). (G, GN, L, Bzt, Zar, Z, HHN, ErdHN, EkiHN). *Milágro ta fabóre egiten tuénen testigo dire denbóra guziétan, espeziálki lográtzean denboráldi bear dirénak, déla erauntsi, déla atéri* (514). **erausi** (HHN).  
OEH: *erauntsi II*

**erauntsiketa.** *iz.* Ekaitz errua. Hap. (GN). *Pasátzean karríkan erauntsiketa batéz ikusi zúé zartto gaizo bát erdi bilúxi, ta búru agerrian: berealá kendu zúé bere sonbrélu gorri kardenalaréna, ta paratu zió pobrearí estal zeién* (357). Informazio gehigarria; “Yendo un día lluvioso por una calle de Barcelóna, encontró un pobre anciano y medio desnudo que traía descubierta la cabeza y se



venia mojado con el agua y el Santo, movido por la misericordia se quitó el sombrero de Cardenal que traía en la cabeza y se le puso al pobre” (FS, 1761: 663).

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *erauntsiketa*

**erdetxi.** *ad.* Erdietsi. Erab. (Ax, Lar, Mb). (GN, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Berén espooek eman zióte kóntu Presidenteari: onék, segiturik atzétik armatuéki, erdétxi bidean, arrapátu ta entregatu zitue Prefektoari* (220). Informazio gehigarria: “el cual con gente armada las siguió y alcanzó catorce millas de Roma y las entregó a Iunio Donato, prefecto de la ciudad” (1688: 304).

OEH: *erdietsi*

**1 erdi.** *iz.* (Izen, adjektibo, adberbio edo aditz baten ezkerrean) erdizka, ez guztiz. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: *gral. Alá aurkiturik lagúnek erdi ilik lúrrean paratu zute bere astókoan ain seréno zególa itzik atra gábe* (545).  
OEH: 1 *erdi* 3

**2 erdi.** *ad.* Erditu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: *gral. no V. Jaun prinzipale bá-*

*ten alába utzi ze deshonorátzera, ta erdi ze hume bátes* (287).

OEH: 2 *erdi*

**erdikal.** *adb.* Ertaina. Hap. *Gauza miragárria, manamendu góntara etorri zire infinizio bát arrái andi, txipi, erdikal; ta paraturik erkadán, buruak atrarik ur gañerá zeudé geldi* (199). Informazio gehigarria: “vino una muchedumbre de peces, grandes, medianos y pequeños” (FS, 1610: 418). OEHN jasotako adibide guztiak Lizarragarenak dira eta, han jasotako itzulpenak itzulpen, guztiak dira adiera berekoak gutxi gorabehera.

AELIE: -A: -; -S: *ertain* (Eugiko bi lekukok emanik).

OEH: *erdiskal*

**erdiskatu.** *ad.* Erdibitu. Erab. (Ax). Idatzizko iturriak+: Ax -z-. (GN, L, BN, Z). *Prensaturik biótza pénas bi begietáik negárria zerióla, erran omen zió: “Ene erregina ta espósa dulzísima, biotz áu erdiskatzen zaida penas, ezin aurkitus, ez-tiót etxe bát berórri dagokióna, ez eta ere atérbe pixka bát edozéin pobrerí ematen zaióna”* (24).

AELIE: *erdizketu*

OEH: *erdizkatu*

**ere.** *part.* Ere. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt,

BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Jesus onak maite ní, Nik ere maite Jesus* (25).  
 OEH: *ere*

**eri-beatz.** *iz.* Leh. (Zar, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Hatz lodia, erpurua. *Berdúgoak arturik eskuieko és-kua, ebaki zió lenik eri-beátza, geró urbiléna, gero gañará-koak* (314). **beatz** (MHN), **beatz handi** (HHN).  
 OEH: ERI-BEHATZ (s.v. eri)

**eri.** *iz.* Atzamarra. Erab. (Ax, Lar). Idatzizko iturriak+: Ax *erhi*. (GN, Zar, Er, MHN, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola5. *Eras-tun gáu paratu zió Ama bir-jinaren imajinari érian: eta dióte ezi sándua il óndoan bere erian aurkitu zéla erastun gúra bera* (301).  
 OEH: 1 *eri*

**eriotze.** *iz.* Erab. Heriotza. (Ax). Idatzizko iturriak+: Lar, Mb *eriotz*, Cb -a. (GN, L, Bzt, BN, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Pasaturik aurzútua emán ze estudiantzerá aláko aplikazioaréki, ezi sobra estudiantús heritu zé eriotzeráño: baña iltzeko zegoláik gau erdián de repénte saltatu zé goa-tzetik sáno ta sendo* (345).  
 OEH: *heriotze*

**erkada.** *iz.* Errenkada, ilara. Leh. (G, GN). Dialekto+: ap. Bon & A. *Goiz óro sei pobreéi garbitzen zitióte oñak [...] gero egun óro bazkária irur eún pobreéi erkadán; eta ikusgárri zé, alde batétik errége, berze aldétik erregina zerbitzátzen maian* (198). Informazio gehigarria: OEHn “G” marka ezarri zaio hitz honi ap. Bonaparte. Hala eta guztiz ere, EKCn eta OEHn Lizarragaren adibideak soilik jaso dira. EHHAn ez da galdetu. AELIE: -A: -; -S: *lerroan, batean*  
 OEH: *erkada*

**erlaztañ.** *iz.* Liztorra. Leh. *Bai bizitu zéla án peniténzia ándian [...] mantenitus kanpoko langostaéki, ta erlaztáñen ézti amargoaréki* (206). Informazio gehigarria: JMSBn (206) *erlaztáñen* dakarte Apececheak eta Ondarrak, baina eskuiz-kribuak *erlaztáñen* dakar (N3: 143).  
 EHHA (20):  
 Etxaleku -A: *erlastin*  
 Eugi -A: *erleztañ*  
 Etxarri (Larraun), Igoa -A: *erlaziñ*.  
 Oderitz -A: *erleaztin*  
 Suarbe -A: *erlaztain*  
 OEH: *erlakiztain*

**erman.** *ad.* Eraman. Leh. (Zar, Er, EkiHN). *Gero ere erman zúte S. Predrorén tenplorá, non idu-*

- ki zúte zazpi egúnes ortzi gábe* (352). *Berarén compañazale baték apatzerákoan sanduarén óñiak, kendu zió eri bát ózka, ermateagátik errelikia* (188). **ereman** (EkiHN<sub>v</sub>). Ikus *eraman*.  
OEH: *eraman*
- erokeria**. *iz.* Erokeria. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, ErdHN<sup>^</sup>). *Berze eguneán, presentarazirik Andres errán zio Juézak: “Uste dút itzuli bide zarela zeure baitan leneko erokeriatik, gozatzekó bizitzaren óna ta gústoa”* (317). Ikus *erakeria*.  
OEH: *erokeria*
- erori**. *ad.* Erori. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: *gral.* V ezik. *Biótza saltatu zékio ezin kabitus pétxoan, ta erori zé desmaiatúrik* (501).  
OEH: *erori*
- ero-zoratu**. *ad.* Erotu, zoratu. Hap. *Joán ze bérzea konfúso aditurik aláko gauzak: eta sinetsi zúe zególa Ines ero-zoraturik mundúko berze norbaiten amóres: eta koleraturik zelos heritu zé* (121).  
OEH: *ero-zoratu*
- erposatu**. *ad.* Atseden hartu. Hap. *Zeudeláik berzeak ló deskansátzen, sanda zégo erposá-*
- tzen orázioan.* (355). Ikus **errepausatu**.  
AELIE: -A: -; -S: *pausatu*  
OEH: *errepausatu*
- erran**. *ad.* Esan. Erab. (Ax, Lar). (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Berze bát sobra berotu zéna asi ze gaizki erránka sanduarén kóntra: ta azkeneán errán zue: “Nik errán dut égia, ta diót yago ere, alá daikela salbátu au”* (364).  
AELIE: *erran*  
OEH: *erran*
- errañu**. *iz.* Errainua. Erab. (Lar, Cb). (G, GN, BN). *Sarturik gánbaran aurkitu zúe sánda orázioan, eta Aingirua aldákan gáste eder báten idúrian argi-errañues inguraturik* (305).  
OEH: *errainu*
- erraustu, errautstu**. *ad.* Errauts bihurtu. Leh. *Zerutik xautsirik súak érre ta errautstu zúe guzia án zén guziaréki* (252). *Bildurik sukáia frángo barnetik eta kanpotik, emán zio sú, ta aizearéki sugárrak edérki zebaturik, bam-bam-bam, guziá erre ta erraustu zé* (293).
- erraustu** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: *-tstu* idazkera etimologikoa SPk eta Lizarragak bakarrik dakarte, baina badarabil Lizarragak *erraustu* ere,

zeina usu erabilia izan baita. OEHren arabera, GN, Bzt, Sal, R, L eta S euskalkietan. OEH: *erraustu*

**erre.** *ad.* Erre. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. *Bil-durik sukáia fránko barnetik eta kanpotik, emán zio sú, ta aizearéki sugárrak edérki zebaturik, bam-bam-bam, guziá erre ta erraustu zé* (293). OEH: *erre*

**errealidade.** *iz.* Errealitatea. Erab. (MHN). “*Aita*” *deitzen dú Josef, zekieláik etzéla errealidadean, bai órdea aféktoan, piedádean ta jendeén opiniónean* (157). OEH: *errealitate*

**errebel.** *adj.* Errebeldea, menderakaitza. Erab. (L, BN, Z). Dialekto+: Batez ere Iparraldekoa. *Milagro anitz egiten zué botátus espiritu gaixtoak gorputzetáik. Bat zé agitz errebel furiosóa, erraten zituéna guzién alzinean guzién bekátu sekretoénak* (197). Informazio gehigarria: “porque era muy rebelde” (FS, 1761: 210). OEH: *errebel*

**1 errebelatu.** *ad.* Ezagutarazi. Erab. (Ax, Lar, Mb). (L, Bzt). *Fedea dá sinestea ikusi gábe,*

*zerén Jangoikoak errebelátu ta Elizak alá erakusten duén* (32). OEH: 2 *errebelatu*

**2 errebelatu.** *ad.* Jaiki, matxinatu. Erab. (Lar). *1534 úrtean errebelatu zé Henriko VIII.º Aita Sanduarén kóntra* (486). OEH: 1 *errebelatu* 2

**erreberenzia 1.** *iz.* Errespetua, begirunea. Erab. (Cb). (MHN, HHN). *O, Josef, ene Siérboa, zure espósa izanén da Maria; admiti zázu aténzio eta erreberénzia andiaréki, ezi dá kuadráblea ene begiétan* (21). Informazio gehigarria: Larra mendik (s.v. *reverencia*) *erreverencia, beacurta, beguirunea* jaso zituen eta Lizarragak lehena bakarrik erabili zuen. Mendiburuk eta Kardaberazek *erreberenzia* eta *begirunea* zerabiltzaten. Hego-nafarre-raz Beriainen eta Elizalderen dotrinetan ageri da. Hona azkenaren adibide bat: “*Gal. Necessidade vague juramentu eguitenduenac cer becatudu? Err. Gutienean venialea erreverencia gutiagatic*” (Pagola, 1994: 48). Aurrekoak kontuan hartuz, ahozko jasotik ikasitako hitza dela uste dugu. OEH: *erreberenzia*

**2.** *iz.* Erab. (MHN). Errespetua adierazteko egiten den gorputz mugimendua, normalean

aurreraka makurturik egin ohi dena. *Aurki bález báteo sazerdote bát, eta sandu bát zerútik xautsia, lenik apatuko zióla sazerdoteari éskua, ta geró inén sanduari erreberenzia, zerén esku gaietáik artzen dúgun sakramentua* (519). Informazio gehigarria: azterturiko autoreetarik, Mendiburuk eta Kardaberazek soilik darabilte adiera horretan. Hego-nafarreraz Beriainen eta Elizalderen dotrintan ageri da. Elizalde: *Gal. Cer erreberencia eguin bear da imajinei? Err. Sanduey becala* (Pagola, 1994: 46). Ahozko jasotik hartua dela ematen du. OEH: *erreberentzia 2*

**errebestitu.** *ad.* Errebeztitu, (metaforikoki) zerbaitez jantzi une zailean egin beharrekoa egiteko. Erab. Idatzizko iturriak+: Beriain. *Bere garáian aurkitu zelarik bakárrik bere esposo deituaréki gánbaran, errebestiturik Jangoikoaren espirituas mintzatu zió grábe ta modésta manera góntan* (304). OEH: *errebeztitu*

**erredimitu.** *ad.* Berrerosi, askatu. Erab. (Lar, Cb). (B, G, AN, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Jesúsek erredimitu zitue guziak erremediátus; Maria beréx preserbátus ta guardátus*

*etzéien heritu* (18). **erredimitu** (HHN). OEH: *erredimitu*

**erredoma.** *iz.* Beirazko ontzia, behean zabala eta ahorantz egin ahala estuagoa. Hap. *Berarén odóla Napolesen ta Roman guardatzen déna kristalesko anpólla edo erredoma bateán, dagoláik kuajaturik gañarákoan, bere festarén bezperatík biramoneráño, ikusten omen dá urturík nola dabilan inguraká* (354). *Agertu zé án usotto txuri eder bát zekarrála pikoan erredoma bát krismas betea* (260). OEH: *erredoma*

**errefinatu.** *ad.* Findu, hobetu. Leh. (ErdHN<sup>^</sup>). *Heritásun luzeán konformidáde, paziéncia ta arimo andiaréki errefinatu zé arima sanda gúra* (198). OEH: *errefinatu*

**erreflon.** *iz.* Zaplaztekoa. Hap. *Koleraturík onék emán zio erreflon bát. Sanduak itzuli zió berze matéla, eman zézon berze bát* (146). *Ikus bofetada*. AELIE: -A: -; -S: - OEH: *erreflon*

**erregalatu 1.** *ad.* Atsegin eman. Erab. (Lar, Cb). *Gau gártan bérean agertu zékio Ama di-*

*bina, eta erregalatu zue bere presenziaréki (327).*

OEH: *erregalatu 1*

- 2. adj.** Erab. (Cb) *Santa Katalina de Sena, ofiziale pobre baten alába jáioa Senan, nóndik eman dióten apellido góí, izán ze Jesu Kristorén Espósa erre-galátua espiritualkiró (443).*

OEH: *erregalatu 1*

**erregalo. iz.** Oparia. Erab. (Ax, Cb, Mb). *Ekártzen ere zitio zerútik ángo erregáloak, ta bere éskus emáten (491).* **regalo** (HHN, EkiHN).

OEH: *erregalo 2*

**errege. iz.** Erregea. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Au dá aizpa sanda gáien martirioa agitua Lastallarén 21.an, Kristorén 840. úrtean, D. Iñigo Ximenez Nafarroako erregerén prinzipioan (533).*

OEH: *errege*

**erregetasun. iz.** Erregetasuna. Erab. (Ax, Mb). *Erreinatuko dú Jakoben jendakian betikos, ta bere erregetasúna izanen dá mugarik gábe (22).* Informazio gehigarria: Larramendik (s.v. *realeza*) *handigoia, handigoi-*

*tea eta (s.v. real, regio) handi-gitarra dakartza.*

OEH: *erregetasun*

**erregina. iz.** Erregina. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: gral. *Zé Nafarroan erregina D.a Onéka, agitz bir-tuósa (533).* **erreina** (MHN, EkiHN^), **erregia** (HHN).

OEH: *erregina*

**erreinatu. ad.** Erreinatu. Erab. (Lar). Idatzizko iturriak+: Cb *-adu*. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Er, EkiHN). *Denbora gártan alabér erreinatu zúte erré-ge guapoék, D.n Santxo Fuér-teak Nafarroan, ta D.n Jaime Konkistazáleak Aragoan (193).*

OEH: *erreinatu*

**erreka 1. iz.** Erreka. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. HN+: Artola4. *Sandua bérla jarri zé bidean, estorbátzeko maldade gúra: pasatu beár zue erreka bát: zoéie ur anditurik, ta ezin pása: zubirik ere ez (100).* Ikus *ugalde*.

OEH: *erreka*

**gaizki 1.** *adb.* Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Z, MHN, HHN, EkiHN). Txarto. *Etxékie tratátzen gaizki asárre ta itz samiñeki bere kontráριοak ez eta herejeak ere, baizik mánso, amóltsu bai konbenzitzen arrázio klaroéki* (142).  
 OEH: *gaizki I, 1*

**2.** *iz.* Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, MHN, HHN, EkiHN). Gaizkia, gaitza. *Admiragárria dá Jangoikoaaren ona, baitáki gaizkitik atrátzen ón, eta ez-paitu niór gáltzen burátsoen bekátuenganik, ezpadú berak kulparik* (127).  
 OEH: *gaizki II*

**galant.** *adj.* Ederra. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, MHN, HHN). *Zé agitz galánta ariman beká-la, gorpútzean ere* (237). Ikus *eder*: Informazio gehigarria: “Era hermoso sobremanera y

más en el alma que en el cuerpo” (FS, 1610 (2): 428).  
 OEH: *galant*

**galarazi.** *ad.* Galarazi, galdu eragin. Erab. (Ax, Lar). (G, L, BN, Er, EkiHN). *Lenbiziko egin zióna galarázi bidea; gero nai zio galarázi esperánza, etzuéla erremediarik, kondenátua zela.* (364). *Ikusi zueláik ori Marziánok, bere biloak tirátus ta atzaparkátus aurpégia cóleras, akár egin zio S. Juliani, zerén galarazi zuén arrén sémea árte gaixtos* (113).  
 OEH: *galarazi*

**galbide.** *iz.* Galtzeko bidea. Erab. (Cb, Mb). (BN, Z, Er). *Zé orduán Poloniako Errége Boleslao, eman zená deshonestidadeetára, emánes guziéi eskándalo ta galbide* (181).  
 OEH: *1 galbide*

**galde(g)in.** *ad.* Erab. (Ax, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, MHN, HHN, EkiHN). Dialekto+: vs *galdetu*. *Galdetu, itaundu. Erreligióso batek bein ikusi zue Zéruan gora katedra bát agitz edér prezíósoa miragarrriró; galdegin zue norendáko zén ta erran zékio ezi Franzisko humilarendáko* (262). *Azkenik errán zue Aitak, ez ala beti egotekós, galdein zógun aur oni, nola nai duen dei zágun* (488-489). Ikus *galdetu*.

AELIE: *galde(g)in*  
 OEH: *galdegin*

**galdetu.** *ad.* Itaundu, galdegin. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, HHN). *Joan zire Generalagána lizenziarén éske. Galdétus nóngo ta nola ziren, kláro ezaundu zué ayék ziréla bere espósa ta semeak* (255). Ikus *galdegin*.  
 OEH: *galdetu*

**galetsi.** *ad.* Galdu, hondatu. Erab. (Lar). *Milagro betirókoa dá egótea gorpútz sandua galetsi gábe barrátzen atxón zerúkoa* (188).  
 AELIE: -A: *galdu*  
 OEH: *galetsi 2*

**galmende.** *iz.* Hondamendia. Leh. (Lar). Idatzizko iturriak+: Larremendiren hitza. *Manatu zué orzitzekó estrabile bátean, erránes guziék S. Pedrorén itz gúra: “pecunia tua tecum sit in perditionem: ire dirua iréki biz galmendetáko”* (336).  
 OEH: *galmende*

**galzazpi.** *iz.* Galtzonzilloak. Leh. (GN, Er, EkiHN). *Joanik bere etxetorá eman zitue libru ta estanpa zituen guziak, diru ta trésenak; eta gelditu zé atórra ta galzázpi solléki* (145).  
 OEH: *galtzazpi*

**ganbara.** *iz.* Logela. Erab. (Ax, Lar). (Bzt, ErdHN<sup>^</sup>). *Geró erretiratu zé gánbara bátean deskansatzerá biajearén nékea* (250).  
 OEH: *ganbara*

**ganbela.** *iz.* Aska, abereei janaria emateko balio duena. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *An goiti tróno goreneán, inguraturik glórias adoratzen dutéla serafinek! Emén beiti ganbéla bátean maiolaturik agoztto batzuen gáñean, idi baten eta asto baten érdian!* (25).  
 EHHA (659): Amezketa, Andoain, Asteasu, Beasain, Elduain, Ikaztegieta, Orexa, Abaurregaina, Alkotz, Aniz, Arbizu, Beruete, Donamaria, Dorrao, Erratzu, Etxalar, Etxaleku, Etxarri (Larraun), Eugi, Ezkurra, Gaintza, Igoa, Leitza, Lekaroz, Mezkiritz, Oderitz, Suarbe, Sunbilla, Urdiain, Zilbeti, Zugarramurdi.  
 AELIE: *ganbela*  
 OEH: *ganbela*

**garagarzaro.** *iz.* Ekaina. Erab. (GN, BN, Zar, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Garagarzaroaren 2an* (195). Informazio gehigarria: EHHaren arabera *garagar(t)zaro* Nafarroako erdialdean erabiltzen da batez ere. Gipuzkoa gehienez *garagarril* da nagusi. Larramendik *garaga-*

*rril* jaso zuen, baina *garagartzaro* ez.

EHHA (288): Abaurregaina, Arbizu, Dorrao, Jaurrieta, Mezkiritz.

Alkotz, Donamaria -A: *garagartzaro*

Etxaleku -A: *gaartzaro*

Sunbilla -A: *garabarzaro*. -S: *junio*.

OEH: *garagartzaro*

**garill.** *iz.* Uztaila. Erab. (Lar, Cb). (G, GN, Zar, Er, ErdHN<sup>^</sup>). **garil** (EkiHN<sup>^</sup>). *Garillaren 4an* (216).

EHHA (289): Dorrao.

Abaurregaina, Jaurrieta, Urdiain -A: *garil*.

Arbizu -A: *gariya*

OEH: *garil*

**garrotxatu.** *ad.* Erab. (Lar). Garrotxaz zirikatu. *Alborotaturik ayék lotzen dúte zezenari, eta garrotxátus érru zezéna botatzen dúte eskáleak bera* (314). Ikus *agarrotxatu*.

OEH: *garrotxatu*

**garrutxa.** *iz.* Garrutxa Erab. (Lar & Mb *garrotxa*). *Goratu zúte gero garrútxan, ta deskoiuntá-tu bere lekuetáik ezúrrak* (98). Informazio gehigarria: Berez 'txirrika' baino ez da, baina tortura mota ezagun baten ize-na ere bada, adibidean bezala.

OEH: *garrotxa*

**gastezutu.** *iz.* Gaztaroa. Hap. (GN).

*Agertu zékio Monje zar benenerable báten idúrian; errán zio nola izán zen gastezútuán aragiaren gustoetára emána: baña geró in zuéla penitentzia* (162).

OEH: *gastezutu*

**gastigatu.** *ad.* Gastigatu, jakinarazi. Erab. (Cb, Mb). (GN, HHN, EkiHN). *Enperadóreak guzién berri izanik, gastigatu zió alabari, adinean zegónas geros, zetorréla ártzera esposo gúra, nori zén ofrezitua* (149).

OEH: *gastigatu*

**1 gau.** *erak.* Hau (ezkerrean izena duenean). Erab. (GN, ErdHN, EkiHN). *Teologia gáu eztú entendatzen baizik dagónak Jangoikoaren amorean éndoas arturik* (273). Ikus *au*.

OEH: *hau*

**2 gau.** *iz.* Gauda. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. *Manatu zué utzi zezátela bakarrik bere zéldan gau ártan. Biramónean aurkitu zúte ilik* (424). **gaba** (MHN, HHN, ErdHN), **gauba** (MHN, HHN).

OEH: *gau*

**gaur.** *iz.* Egungo gauean. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Er, MHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Berzelá in zágun pró-*



*gua, ta ofrezí bész inen déla Kristio, baldín gaur Jesu Kristok libratzen banáu ni karzeletik* (195). Informazio gehigarria: “prométeme de creer en Christo, si él me librare esta noche de la cárcel en que estoy” (FS, 1761: 196). Ikus *egun*. Informazio gehigarria: Bizkaian, Gipuzkoan, eta Nafarroako alderdi ugaritan *gaur* ibiltzen da ‘egun’ edo ‘hodie’ adierazteko, baina ez da Lizarragaren *gaur* ‘gaur gauean’ bera. EHHA-k argi dakar zein eskualdetan bereizten diren *egun* ‘hodie’ vs *gaur* ‘gaur gauean’ eta zeinetan den *gaur* ‘hodie’. Nafarroa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko datuak dakartzagu.

EHHA (300): Abaurregaina, Mezkiritz, Zugarramurdi, Ahetze, Arrangoitze, Azkaine, Bardoze, Beskoitze, Donibane Lohizune, Hazparne, Hendaia, Itsasu, Makea, Mugerre, Sara, Senpere, Urketa, Uztaritze, Aldude, Arboti, Armendaritze, Arnegi, Arrueta, Baigorri, Bastida, Behorlegi, Bidarrai, Ezterenzubi, Gamarte, Garrüze, Irisarri, Izturitze, Jutsi, Landibarre, Larzabale, Uhar-te Garazi, Altzai, Altzürükü, Barkoxe, Domintxaine, Eskiula, Larraine, Montori, Pagola, Santa Grazi, Sohüta, Urdiñar-be, Ürrüstoi.

OEH: *gaur*

**gebek.** *erak.* Hauek Leh. *Errespondatu zió sánduak [...] Jangoikoa barin badá bisitatzen nauéna oñaze gonéki, zergá-tik libratu bear náiz? Bentzáit pixka gebéki nai diót mostrátu ene agradezimentua dolóre ta pena pasatu zituenéi ene Redentóreak enegátik* (189-190). *Berze aldi bátez, anitz heré-je ziren erri bateán, sanduak ayen konpasiónes ta on náiez nai zióte predikátu; ayék, tapátus beárriak etzióte nai aditu. Joán ze itsasbasterrerá, ta Jangoikoaren izeneán deitu zítue arráiak: “Adi nazáze zuék, ezi hereje gebek ez naute aditu náí”* (199). Izenordaina denean *ebek* da eta ondoan izena darmanean *gebek*. Ikus *ebek*.

OEH: *hauek*

**geldi-geldia.** *adb.* Geldi-geldirik. Erab. (GN, ErdHN). HN+: Artola3. *Aurra zelarik zé agitz afizionátua Elizará, ta án egoten zé orázio egiten zokoren bateán geldi-geldia* (180).

OEH: *geldi-geldia* (s.v. *geldi*).

**-gende.** *iz.* Hartzen duen izena oinarri duen produktua edo produktu sorta. Erab. (GN, Zar, Z, Er, EkiHN). *Etzué béñ ere txastá-tzen aragigenderik* (136). Ikus *aragigende*, *arraigende*, *txurigende*.

OEH: *jende 3*, *abegende*, *esnegende*

**geroxago.** *adb.* Geroxeago. Erab. (GN). *Etxétik eskapaturik joán ze S. María Porziunkularen elizará [...] ta biloa kendurik bestitu zé habitu pobre gúra; ta bere aizpa bátek segitu zió geroxágo eta geroxágo berze anitz donzélla generosaék* (354-355).  
 OEH: GEROXEAGO (s.v. *geroxe*)

**geuren.** *izord.* Geure. Erab. (MHN, HHN). *Ilundúra andia dago barraturik mundua bárna, ainbérze nola utsiten baitá: guziók gareláik geuren búruen ongi náiak* (423). **geure** (ErdHN), **gerunen** (ErdHN<sup>^</sup>).  
 OEH: *geure*

**1 gibel.** *iz.* Gibela (organoa). Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). *Arraskátu ta larranzi zióte gorpútz guzia burriñásko azta-parréki ain érru, ezi atra omen zióte gibél puska bát* (166).  
 OEH: 2 *gibel*

**2 gibel.** *iz.* Atzea. Erab. (Ax, Mb). (GN, L, BN, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Bazoéie akár in bear zióla, ta urbildu zelarík ikusi zue erdian Isidro idi pare batéki lánean, ta aren alzinetik ta gibeletik berze bi pare elúrta bezáin txuri* (449).  
 AELIE: *gibel*  
 OEH: 1 *gibel*

**gizagaizo.** *adj.* Gizagaixoa, koi-tadua. Erab. (GN, L, BN, Z).  
 Dialekto+: Iparraldean & *gizagaixo*. *Berealá oroitu zire sánduas, egitekó berén Artzái; baña nola baizekite etzuéla naiko, engañatu zúte gizagai-zoa* (295).  
 EHHA (2379):  
 Gamarte -A: *gizaaizo*. -S: *maleus, gaixoa*.  
 Izturitze -S: *nahigabe*  
 AELIE: -A: *gizaaioa*  
 OEH: *gizagaixo*

**gizonki.** *iz.* Gizona. Erab. (GN, L, BN, ErdHN<sup>^</sup>). *Publikatu zelarík orí, bildu zé jendekéta, gizonki, emastéki, jaundi, señóra, zar eta gáste, ikustéra* (311).  
 OEH: *gizonki*

**goart egin.** *ad. esap.* Erreparatu. Erab. *Aurkitzen zuén aldi óro sanduak belauriko iten zió erreberénzia. Eskribáuak goárt eginik uste zué egiten zuéla búrlas, ta asarratu zékio* (200). *Asi ze goárt egiten noratá joaten zén* (190). Informazio gehigarria: “quiso enterarse de la verdad acechándole y mirando dónde iba” (FS, 1761: 140).  
 OEH: *ohart egin*

**goart eman.** *ad. esap.* Ohartu. Erab. (GN, Zar). *Baña Aitak ellegaturik atzétik goárt emán*

*zué nola batzuéi ematen zióten apa bát, berze batzuéi bida, ta irur ere (292).*

OEH: *ohart eman*

**goartu.** *ad.* Ohartu. Leh. (G, GN, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Bein deskuidatu zé beirátzean: goartu zeláik, penitenziatán sartu zé biluxirik bálsa izoztu bátean leporáño, non egón ze atra zúten árteo, erdi ilik ozidúraz (239). Eta libratuko eztéla bekatutik ezténa goárzten zebotik (333). Ikus quartu.*  
OEH: *ohartu*

**goatze.** *iz.* Ohea. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar & Mb *oatze.* (G, GN, Bzt, BN, Zar, Z, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: Arto-la3. *Prestarazi zué ganbara bát edérki alhajátua, ta án goatze bát berátza, ta ásko músika ta emastéki arín deshonestá, engaña zezáten (202). Ikus guate.*

EHHA (1006): Abaurregaina, Alkotz, Arbizu, Donamaria, Dorrao, Erratzu, Etxaleku, Eugi, Gaintza, Igoa, Lekaroz, Mezkiritz, Suarbe, Sunbilla, Zilbeti.

Jaurrieta -A: *ogatze*

Aniz -A: *gatze, guate.*

Beruete, Etxalar, Etxarri (Larraun), Ezkurra -A: *oatze.*

Oderitz -A: *goatzi.* -S: *oi.*

**ohatze** (HHN).

OEH: *ohatze*

**gogaitz.** *iz.* Gogo txarra. Hap. *Berzeén értean zé bát llágas, matérias, usái gaixtos gogáitz ematen zióna. Sánduak garaitzekó, zer egin zue? Beirátus pobre gúra nola balitz Kristo bera, aplikatu zué bere ágoa lllagará, txupatu zió materia zerióna (84).*

AELIE: -A: -; -S: *gogoikabe*

OEH: *gogaitz*

**goganditu.** *ad.* Harrotu. Hap. *Améka urtetán eskatu zué bere esposatáko D. Dionisiok Portugaleko errégek, zeñeki ezkondu zén bere denbóran. Estado górtan etzé gogánditu, bai yágo kuidadotán parátu, nola bizi beár zen bere ta berzeendáko. (216). Informazio gehigarria: FS “No se desvaneció Santa Isabel por verse sentada en el trono real” (409). EKCn ez da Lizarragarenez beste agerpenik jaso. OEHn *gogandi* ‘ausarta, kementsua’ (Lar) eta ‘kuraia’ (H) da, eta *gogoandiko* ‘eskuzabal’. HHn “desvanecer, llenar de vanidad”, berriz, *antustetu.* Hartara, badirudi Lizarragarena adieraren aldetik gainerakoetatik aske dela, arrazoiak arrazoi.  
OEH: *goganditu**

**gogoratu.** *ad.* Gogoratu, bururatu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: *gral. Erran dúgun bi pareteén erteka gúra derepénte aurkitu zé*

*beterik armirmau-sareés edo telarañas, de manera ezi nióri etzekio gogorátu sartu zéla án gizonik aixteán* (116).

OEH: *gogoratu*

**gogorkara.** *adb.* Gogor samarra. Hap. *Eta oráño ere zeude Apostoluak gogorkará sinestátzeko guzís...* (59).

OEH: *gogorkara*

**goixtar 1.** *adj.* Goiztiar, goizean goiz jaikitzen dena. Erab. (Lar & Mb *goiztar*). *Agitz zé goixtárra; ta lena beti Jangoikoa estimatzen zué, ta alá lanerá baño lén bisitatzen zitue Madrilgo zenbáit Eliza, faltatu gábe obligaziorá* (449). Informazio gehigarria: *goiztar* jadanik Garibaik jaso zuen errefrau batean.

OEH: *goiztar 1*

**2.** *adb.* Goiz. Leh. (EkiHN). *Goiz oró agitz goixtár joaten zé elizará, ta jartzen zé pazienziarén álkian* (343). *Aur sanduak ártu baso bát úr, ta emán zio heriarí: txastaturik aurkitu zué guziá ézti gozóa ta sendatu zé istánteán. Ain goixtár iten zitue milágroak, baitare báruak, orázioak ta gauza ónak* (153). **goizter** (ErdHN<sup>^</sup>). Ikus *goizik*. Informazio gehigarria: Ibarra *-zte-*  
OEH: *goiztar*

**goiz oro.** *adb.* Goizero. Erab. (Cb, Mb). (ErdHN<sup>^</sup>). *Goiz oró estudiórá baño lén joaten zé oraziorá ténploan, ta estudioas gerós oroát arratsalde óro* (234). Ikus *-oro*. Informazio gehigarria: XIX. mendea arte *goiz oro* da gehien erabiltzen zen aldaera eta handik aurrera *goizero* nagusitu zen (OEH).  
OEH: *goizero*

**goizik.** *adb.* Goizik. Erab. (Mb). (GN, L, Z, Er). *Gorpútza tratátus kruelkiró sobra, de manera ezi iltzerákoan, il baize goizik, konfesatu zué kulpa sobra gaizki tratátuas* (262). Ikus *goixtar 2*. Informazio gehigarria: (1994: 295).  
OEH: *goizik* (s.v. *goiz*)

**goñata.** *iz.* Koinata. Erab. (GN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Konde Jaun andi bát ezkondu zé bere goñata batéki dispensarik gábe; abisatu ta erreprehenditu zué sanduak, ta etzeláik bérze erremediorik, exkomekatu zué* (346).  
EHHA (2510): Abaurregaina, Eugi, Gaintza, Mezkiritz, Zilbeti. Dorrao -A: *goñeta*  
AELIE: -A: *goñatue* (gizona).  
OEH: *koinata*

**gora.** *adj.* Altua, garaia. Erab. (Ax, Lar). (GN, L, Bzt, BN, Z, Er). *Igán ze aldapa gora batéra, nondik eskatu zuén eskarmentu*

*on bát zerútik* (167). Informazio gehigarria: “y menospreciando ellos con oprobrio la palabra de Dios, se subió a un cerro alto de la ciudad” (FS, 1610 (1): 258).  
OEH: *gora* II

**goranai.** *adj.* Asmo handikoa, ambizioa duena. Erab. (L, BN, Z). *Billatu náies lagún, fundátzeko Jesúsén Konpañiako errelijiónea, ta irabázteko arimak zeruráko, egin zékio adiskide. Zé S. Franzisko animóso, goápo, garbóso ta goranáia, ta ala bizárroki portatzen zéna guzietán* (83).  
OEH: *goranahi*

**goratu 1.** *ad.* Altxatu, igo. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: gral. *Ejeas asarraturik itz ebéki goratu zé ta manatu zué sártzeko karzélean S. Andrés* (317).  
OEH: *goratu* 1

**2.** *ad.* Erab. Altxatu, jaso. *Karzeleán zeude egiten orázio: “Jauna, orrengána goratzen túgu biotzók, orren baitan gaudé konfiaturik”* (334).  
OEH: *goratu* 1

**3.** *ad.* Gorde. Erab. *Aserik nai adiña goratu zúte sobratuetáik ámabi espórta* (316).  
AELIE: *goratu*  
OEH: *goratu* 7

**go(r)i.** *erak.* Hori (ezkerrean hitza duenean *g-*). Leh. (ErdHN, EkiHN). *S. Pedrok ezin sufritus maldade gúra tiratu zió ezpatáz ta ebáki zió bearri bát. Jesus onégiak errán zio: “Pedro, itzul zázu ezpata gori bere magira”* (39). *Zure Kristo gorrék Jangoikotáko daukazúnak etzaizke libra zú presondegitik* (195). *Jaun ónak errán zio: “Itzulázu arma góii bere magirá* (46).  
OEH: *hori*

**goritu.** *adj.* Gori dagoena. Erab. (Ax, Lar, Mb). *Erre zizkióte sayétsak burriñasko plan-txa gorituéki* (232). **gorritu** (EkiHN).  
OEH: 1 *goritu*

**gorputz.** *iz.* Gorputza. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *S. Godoléva jaió ze Fránzian, nóble, abráts ta edérra gorpút z ta ariman* (350). *Ikus korputz.* Informazio gehigarria: EHHAk erakusten du (59020) *k-* duen aldaera Zube-roan, Baxenabarreko ekialdean eta Gipuzkoako erdialdeko eskualde batzuetan erabiltzen dela.  
OEH: *gorputz*

**grazia 1.** *iz.* Eskerra(k). Erab. (Cb, Mb). (GN, MHN, HHN, ErdHN). *Agerturik án S. Isi-*

*drok errán zio: “Ea, emán gráziak Jangoikoai, zeñék biali náuen zure libratzerá” (187).*

OEH: GRAZIAK EMAN (s.v. *grazia*)

2. *iz.* *Grazia*, dohaina . Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gral. *Demónioak ódios ta inbidias nai zue eroriarázi bekaturen bátean galtzekó Jangoikoaren grázia ta jendearén krédita óna zuéna* (162).

OEH: *grazia*

**graziosa.** *adj.* *Graziaz*, dohainez betea. Erab. *Ellegaturik án sánda, ikusi zuteláik ain edér, graziósa, batzuek iten zúte nigár lástimas, baña bera zégo alégre animósa* (551). Ikus *grazioso*.

OEH: *grazios*

**grazioso 1.** *adj.* *Graziaz*, dohainez betea. Erab. *Bere konfesóreak itzultzen zitue sandu: beraréki tratatzen zúten guziak oneratzten zitue bere mintzaéra graziósoas eta Espirituarén indárras* (276).

OEH: *grazios 4*

2. *adj.* *Irrigarria, dibertigarria*. Erab. (Cb). *Baña petardo-gisa bát graziósoa eman zio bein Jaun ónak bere sandu góni, probatzekó paziénzia* (171). *Eta grazióso dá sarzerákoan*

*portálean, erori baizékio ezpáta ustekábean, ta ez erreparátu aurkitu zuén árteo itzultzerákoan, adiaraztekó agián etzuela árma bearrik, defendatzen zuteláik Jangoikoak ta bere Ama Santisimak* (194).

OEH: *grazios 4*

**guartu.** *ad.* Erab. (GN, Zar, Er, HHN). *Ohartu. Gáste on bát lagúnek erman zúte engañaturik bekátu itéko zén okasiorá; guarturik peligroa, atrá zé andik berealá; baña Aingiruak emán zio zaflada on bát izán zuen deskuidoagátik* (413). Ikus *goartu*.

OEH: *ohartu*

**guatze.** *iz.* Ohea. Erab. (GN, Bzt, EkiHN<sup>^</sup>). *Bere etxéttoan egin zue zélda meár ertxi bát kabitzen zuéna sollik Sanda, ta ol bát guatzetáko iago arrópa ta deus gábe* (248). Informazio gehigarria: “*Ogatze, goatze y guatze son variantes documentadas en textos alto-navarros, baztaneses y salacencos, en su mayoría populares*” (OEH). EHHAK jasotako datuetarako, ikus *goatze*.

OEH: 1 *ohatze*

**gura.** *erak.* Hura (izen sintagmaren ondoan). Erab. (HHN, ErdHN, EkiHN). *Batzuek ziotéla edérki egin zutelá arrapátzean, il zezátela enbustero gúra,*

*zeukána engañaturik múndua*  
(49). Ikus *ura*.  
OEH: *hura*

**gusto izan 1.** *ad. esap.* Gogoko izan (iragankorra, instrumentalarekin). Leh. (ErdHN<sup>^</sup>). *Orgátik zué gústo joáteas bere burátsoek aldirítan zúten etxe-haziénda batéra, erakusteagátik ángo aurréi dotrina Kristioa* (191).  
OEH: GUSTU IZAN a) (s.v. *gustu*)

2. *ad. esap.* Plazer izan (iragan-gaitza, inpersonalean). Hap. *Lanze izan zituénak, trabáju pasatu zituénak, Jangoikoak faboratu zuén manérak gusto litzáke kontátzea, baña luze* (162).  
OEH: GUSTU IZAN b) (s.v. *gustu*)

**guti gorabera.** *adb.* Gutxi gorabehera. Erab. (Mb). (G, MHN). Dialekto+: vs *gutti goitti beitti*. *S. Zesario bizitu zenetik atratzen dá izan bide zéla Kristorén bortz eun urterén inguruán guti gorabera* (247).  
**gutis goiti beiti** (EkiHN<sup>^</sup>), **gutiz goiti beiti** (ErdHN<sup>^</sup>), **gutiz gora bera** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: GUTXI GORA-BEHE-RA (s.v. *gutxi*)

**guti bana.** *adb.* Pixkanaka, poliki. Erab. (GN). *Geró guti bana barrátus Jangoikoarén azia*

*ziudádea barna, konbertiturik anitz Kristorén federá* (288).  
OEH: GUTXI BANA (s.v. *gutxi*)

**gutikara.** *adb.* Gutxi samar. Hap. *Ain goxo deláik padezitzea orrengátik, eztá admiratzekó eman dézan neurriturik gutikará, ezi eztúte gizónek meréji aláko gozo ta aláko glória ain andía* (340).  
OEH: -

# H

**hazienda beltz.** *iz.* Zerrien motako abereak. Erab. (G, GN, BN, EkiHN). *Erran omen zué, obe zela Herodésen etxeán izán haziénda béltz, ezi arren húme, zerén nola Juduék ezpaitúte jaten urdaiik, seguroágo zególa haziénda béltza, ezi etxéko sémea* (564). *Norbaitek bialirik limósnas haziénda beltz bát ilik, artu zué berak soñean [...] eta admiratzen zirenéi ortas erraten zioté: “Zer milágro dá eramátea haziénda beltz baték bérzea?”* (269). Informazio gehigarria: “tomó un puerco muerto, que habían traído de limosna y se lo hechó a cuestas [...] y maravillándose los padres de ésto, dijo: ¿Qué maravilla es que un puerco lleve a otro puerco?” (1734: 169). AELIE: *azienda beltz*; lekuko batek informazioa eman du *basurde*-az ere. OEH: AZIENDA BELTZ (s.v. *azienda*)

**hamar zazpis zazpitaráño.** *iz.* Erab. Hirurogeita hamar aldiz zazpi. *Alabér bekátuen barkatzearen gain (c. 18.) galdegin zio S. Pedrok: “Zénbat aldís, ene anáiak bekátu eginík, barkatuko diót? Zázpi*

*aldítaráño?”*. Errespondatu zió Jesus onak: “Eztiót ník, solamente zazpi aldís, baita ere amar zazpis zazpítaráño” (211). Informazio gehigarria: pasarte hori (Matheo 18) gaztelaniaz aurkitu dugunetan (ez FS-n) “hasta setenta veces siete” aipatzen da OEH: -

**hamu.** *iz.* Amua. Erab. (Mb). *Zoáz itsasorá eta botarik hamua, lenbiziko atrako dúzun arraiarén hagoan aurkituko dén moneda emozúte ene ta zure partez* (34). Informazio gehigarria: Lizarragak baino lehen Pouvreaux (1664), Urtek (1700) eta Mendiburuk (1767-1782) idatzi zuten *h-* grafia erabiliz. Hitz hasieran *h-z* idazteko joeratxo honetaz, ikus *hispilu*. OEH: *amu*

**heredaje.** *iz.* Aspaldidanik familia batena den lur saila edo etxaldea. Hap. *Erosi zué Obispoak Elizarendáko heredaje bát Pedro deitzen zén batengánik, bere prézio jústoá pagaturík, baña eskrituráik in gábe. Irur urte zué yá iltzela saldu zióna: onen heredéroek, erregeri plazér iteagátik, eskatzen zúte heredájea justiziaz* (181). OEH: *heretaje 2*



**herikor.** *adj.* Gaixobera, erraz gaitzotzen dena. Leh. (Lar). Idatzizko iturriak+: Mb ‘osasunaren kaltegarria’. (G, Bzt, Z, Er). *An xakinik zególa S. Franzisko Asisen, naiz ez sendaturik ongi, nai izan zu[e] joán bisitátzera bere Aita on gúra. Andik oráño herikór eramán zue Fraile sandu bátek desértuan zén konbentu batéra* (199). **erikoi** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: *Gelditu zékio gorpútza akaiturik indar gábe ta herikór ainbérze trabáju ta peniténzien kásos* (463), jatorrizkoan baita: “quedando el santo flaco y cansado y con poca salud por los muchos y continuos trabajos” (FS, 1610: 423).  
OEH: *erikor*

**herizai.** *iz.* Erizaina. Erab. (Lar *erizai(n)*). Idatzizko iturriak+: SP. *Akár iten ziotenéi zergátik etzuén obeditzen Medikuéi ta herizaiéi, errespondatzen zué: “Deseatzen diótet obeditzea, baña báteo nai núke izán obediénte ene Jaun onarí tiratzen baináu suabeki elizará”* (189). Informazio gehigarria: Larremendigandik *h* gabe eman zuen (*erizaya, erizaina, s.v. enfermero*), baina ez da ezohikoa *h-z* idaztea *eri*-ren familia, gaztelaniazko *herir*-ekin lotu delako agian: cf. *Lenbizikoa da herien bisitatzea* (Ber Doc 89v) edo *heriak* (CatBurg 32).

Hitz hasieran *h-z* idazteko joeratzio honetaz, ikus *hispilu*.  
OEH: *erizain*

**hispilu.** *iz.* Ispilua. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, MHN, ErdHN). Dialekto+: Hegoaldekoa, Lazarragatik, vs *mirail* (Ip). *Ala nola kristále edo lañu mee bát, irúzkiak ematen dioláik betebetéa, árgi edertzen baitá: ala nola hispilluan irúzki ta iruzkiaréki hispillua istárgitzen baita* (538). Informazio gehigarria: EKCn ez dago berea ez den adibiderik; beraz, ezin jakin zer dela eta erabaki zuen *h-z* idaztea, baina antzeman daiteke hitz hasieran *h* eranste-ko halako joera bat: cf. *hamu, heri, hozpin* eta *hume*.  
OEH: *ispilu*

**hozpin.** *iz.* Ozpina. Erab. *Geró botatzen dióte gañetik plómua urturik irakiten ta arraskátzen tella púskas: sudurretáik ere ematen dióte hozpiñ mostazaréki ta bégiak erretzen tíote kandéla itxekiéki* (406). Informazio gehigarria: EKCrene arabera, hitz hau *h-z* Lizarragaz gain Pouvreaux (1664), Gazteluzarrek (1686) eta Duhalde (1809) erabili dute. OEHk Haranbururen *Egun ona* (1829) ere aipatzen du. Hitz hasieran *h-z* idazteko joeratzio honetaz, ikus *hispilu*.  
OEH: *ozpin*

**hume.** *iz.* Haurra. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: gal. *Sabélean dágon bitárteo, guardatzen duénak Ama guardatzen dú húmea* (412). **ume** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: Larramendiz gerozko garaian eta haren eraginez ohikoa da *h-z* idaztea.  
OEH: *ume*

**hume lenbiziko.** *iz.* Seme nagusia, premua. Erab. *Ludmila ta jende ón guziák konformatu zire paratzekó Venceslao Gobernári Estadoarén, nola zegókion hume lenbizikoarí bekála* (258). Ikus *lenjaio*.

# I

**iaute.** *iz.* Aratustea, inauteria. Leh. (G). **iautre** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), **idraute** (EkiHN<sup>^</sup>), **igoutre** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), **iote** (ErdHN<sup>^</sup>), **ioutre** (ErdHN<sup>^</sup>), **iñaute** (ErdHN<sup>^</sup>), **iñauteri** (ErdHN<sup>^</sup>), **iraute** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), **iraute** (ErdHN<sup>^</sup>), **ñutre** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *inaute*

**idatzarri.** *ad.* Iratzarri, esnatu. Erab. (B, EkiHN). *Istántean guziák artu zitue ló edo letár-go-gisa baték, ezpaizeizke idatzárri ezpáze andik atrarík* (534). **idatzarri** (ErdHN<sup>^</sup>), **iratzarri** (EkiHN<sup>^</sup>), **irezarri** (HHN). Informazio gehigarria: LE-Ir lanean (1978: 470) inoiz *iratzarri* ere badarabilela aipatzen da (OEH s.v. *iratzarri*).  
OEH: *iratzarri*

**idiki 1.** *ad.* Ireki. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -e-. (G, GN, Er, ErdHN<sup>^</sup>). *Sandak xakinik, ta portalérra ellegaturik, istántean idiki zire atáriak beréz* (383). **ereki** (ErdHN, EkiHN), **edeki** (EkiHN).  
AELIE: -A: *edeki*  
OEH: *ireki*

**2. ad.** Erab. (lar, Cb, Mb). (G, GN). Zuloa egin, ireki. *Emén idikáze Aitarén ta Semearen ta Espiritu Sanduarén izeneán* (307). Informazio gehigarria: “En nombre del padre, del hijo y del espíritu santo: cavad aquí” (1734: 373).  
AELIE: -A: -; -S: *zulatu*  
OEH: *ireki 2*

**idiskile.** *iz.* Itzaina. Hap. *Berze bein lánoan bustarturik zebiltzan bi idietáik bát iltzeláik án kánpoan, idiskilearí erraten zió ain sinéz bustar zezála bera, inen zuéla il zenaren partez lana.* (269).  
AELIE: -A: -; -S: *itzai*  
OEH: *idiskile*

**idor.** *adj.* Idorra, lehorra. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Berealá lurrean zén elúrta urtu ta sartu zé lur bárnean, utzirík idór lékua* (281). Ikus *ear*; *leor 2*, *seko*.  
OEH: *idor*

**iduki 1.** *ad.* Eduki, eutsi, gorde, mantendu. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *eduki*. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Geró inguratu zúte idi edo nobillo báten lárruan, ta iduki zúte egun batéz iruzkiará, pika zezáten uliék ta erleék, baña*

*etzúte loqrátu. (284). Demónioak, lén ematen zuzténak errespuestak Gentiléi engañaturik idukitzéko, ezin sufritus sanduarén presénzia mututu zire (314). iruki (ErdHN). Informazio gehigarria: Hegoaldean, batez ere Bizkaian, erabiliagoa, *eduki* formarekin. Hala ere, Axularrek badakar, bai eta Beriainek ere.  
AELIE: -A: *iruki*  
OEH: *eduki* 1*

2. *ad.* *Eduki*, zerbaiten jabe izan. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *eduki*. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Erránes guziék S. Pedrorén itz gúra [...] ire dirúa iréki biz galmendetáko. Orréki guziák arriturik etzire yá trébe idukitzerá erreal bát ere (336). Bizi eméngoa labúr; eriótzea segur; kontuak ertxi; sentenzia ségi; Gloria edo Inférnua beti; beti ebék memorian idúki (366). iruki (ErdHN, EkiHN).  
AELIE: -A: *iruki*  
OEH: *eduki* 1*

3. *ad.* (-*tako* atzizkiarekin) -tzat hartu. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *eduki*. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Egin zue apóstu, ekarri zeiéla heri bát inkuráblea, eta ayén sazerdoteék in zezátela orázio berén*

*Jangoikoei, ta berak inen zuéla Jesu Kristorí, eta nork ere sendatzen zuén, urá iduki zeiéla Jangoikotáko (353). iruki (ErdHN).*

AELIE: -A: *iruki*  
OEH: *eduki* 2

4. *ad.* Eutsi. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *eduki*. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *O Andrearén balórea! Ebakitzetzerákoan, ez solamente zego án, baizik berak iduki zitio óñak ta éskuak ebaki bitártean (250). iruki (ErdHN).  
AELIE: -A: *iruki*  
OEH: *eduki* 1*

**iduri 1.** *iz.* Erab. (Ax, Lar, Mb). (G, GN, L, BN, Z, Er, MHN, HHN, EkiHN). Irudia, kanpoko itxura. *Demónioa inbidias ikúsits mutil sándua ain faboraturik Ama Birjinagánik, ta Aingiruengánik, agertu zékio Artzái zar batén idúrian, bizár andi batéki, ta búrua billurdindurik (236). Informazio gehigarria: Iparraldekoa: idazleetan Hegoaldean Lizarragak baizik ez.  
OEH: 1 *iduri* I*

2. *adj.* Antzekoa, modukoa. Erab. (Ax). (G, L, Bzt, BN, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Baster batetik berzeráño ageri*

*omen dá ala nola bide sénda iduri bát ureán* (236).

OEH: 1 *iduri* II

**iduritu** 1. *ad.* Iruditu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (GN, Bzt, BN, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Errespondatu zió Juezak: "Iduri zaida, eroágo zaréla zú, aizpa baño"* (220). **iduri** (ErdHN<sup>^</sup>), **iruditu** (HHN), **iruri** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *iduritu* 1

2. *adj.* Antzekoa. Hap. HN+: Artola & *iruri*; Ibarra *iduri*. *Lén uste zúte S. Juan Bautista zela Kristo, ta gero berriz Kristo zela S. Juan Bautista. Ain elkárri idurituak ziré biak!* (208). **iduri** (ErdHN<sup>^</sup>), **iruditu** (HHN), **iruri** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *iduritu* 2

**igan.** *ad.* Igo. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Bein alá sú emanik tenplo báti, aize érru goratu zenarén kassos edatzen zireláik etxeetará, sandua igán ze tellatu batéra, ta agertu zenéko, itzuli zire sugárrak atzerát instántean* (296). **igen** (ErdHN<sup>^</sup>), **iyán** (ErdHN<sup>^</sup>), **iyen** (ErdHN).  
AELIE: Eugiko bi lekukoetarik mintzo naturalean *iyen* eman du batek eta inkestari erantzutean *igan* eman du besteak.  
OEH: *igo*

**igande.** *iz.* Igandea. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, BN, Zar, Z, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Jai edo igandeeátan* (83). **igende** (ErdHN<sup>^</sup>), **iende** (ErdHN<sup>^</sup>), **iyende** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *igande*

**iges.** *adb.* Ihes. Erab. *Sanduarén ilzálea, deitzen zéna Katino, justiziagánik igés yá-yá iltzeko peligroan libratu zé, ta sartu zé sandu gónen erreligiónean* (173). **igas** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: -

■ (*atra* edo *joan* bezalako aditzekin) *ad. esap.* Ihes egin. *Atrá ze igés Deábrua, maltratátus zenbáit Gentil burlatzen zirénak sánduas* (202). *Godóek garaiturik batalla bátean, igés doaieláik, altxaturik agoztegi bátean erre zúte bizirik heréje bekála* (349). Ikus **iges egin**, **iges ibili**.

**igesai eman.** *ad. esap.* Ihes egin. Erab. (Ax *ihesari*). Dialekto+: *i(h)esari eman* (B, G, GN). *Be-realá etsáiak eman zire igesái errege galdurik, ta gañarákoak errenditu zire Klodoveori* (517).  
OEH: IHESARI EMAN (s.v. *ihes*)

**iges (eg)in.** *ad. esap.* Ihes egin. Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, MHN). *Diligenziarik obéna*

*déla okasioetáik igés egitea, ta eztaikeláik beti egin igés, beti mortifikátzea gorpútz gaixtoa* (333). *Igés in náiez aláko laudáριο ta estimazioetáik, pasatu zé Guardiako konbenturá* (341). **iestu** (ErdHN<sup>^</sup>), **eskapu in** (ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: IHES EGIN (s.v. *ihes*)

**iges ibili.** *ad. esap.* Erab. (Lar, Cb, Mb). (HHN). HN+: Muruzabal 1700, Artola *igas*. *Ihes ibili. Preso idúkis ta maltratátus Kristiorik obénak, eta berze bátzuk igés ibilis ta altxátus oyanetáko sasidi ta kubilaétan* (319).

OEH: -

**igeska.** *adb.* *Ihes.* Erab. (Lar, Cb, Mb). (GN, BN, HHN). HN+: Muruzabal 1700, Artola *igas*. *Eta alá al guzián beti apárt igéska zebila emastekietáik* (142).

OEH: *iheska*

**igitu.** *ad.* *Higitu, mugitu.* Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, GN, L, BN, Z). *Ellegaturik au Iruñeán, egun batéz, noiz ere iten zén fēsta andi bát Jangoikotáko zeuzkiten Demonioéi ta gizonéi, Jangoiko egiaskoarén zeloarén súas itxekirik ta Espiritu Sánduas igiturik goratu zé animóso jendetze andiarén érdian* (511).

OEH: *igitu*

**igortzi.** *ad.* *Igurtzi.* Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN, Z, EkiHN). *Sartu naiz zure étxean; eztidázu emán urik oñetáko; baña onék erregatu dida negárres ta igórtzi biloes: ez nauzu apátu zuk; baña au sartu denas geros dago apátzen ene oñak* (481).

EHHA (2000):

Arbizu -A: *iyortzi*

Mezquiritz -A: *iortzi, iyortzi.*

Urdiain -A: *iyortzi.* -S: *frotatu.*

OEH: 1 *igurtzi*

**ikar-ikar.** *adb.* *Dardarka.* Hap. *Idatzizko iturriak+:* Mb: *ikar-ikara. Bein neguarén egún otz bátean soldádo lagunéki guárdian zegoláik Amiens Franziako ziudaearen portálean, ellegatu zekióte pobre erdi biluxirik zegon bát ótzak ikár-ikár limósna éske* (543). *Informazio gehigarria: Itz ebe-tará ikár-ikár Kóndea erori ze lurrerá* (240): “a éstas palabras tembló el conde, cayó en el suelo” (FS, 1761: 566). **ikare-ka** (EkiHN<sup>^</sup>).

Mendiburuk *ikar-ikara* darabil, baina behin baizik ez (1760: XLV. otoizgaia).

AELIE: Eugiko lekuko batek dioenaren arabera, izaturik ala hotzak egoteagatik izan daiteke. -A: -; -S: *daldarika*

OEH: *ikar-ikar*

**ikaradura.** *iz.* *Ikara, dardara.* Leh. *Idatzizko iturriak+:* SP -*kh-*.

*Geroxágo segitu zé terremóto edo lurrarén ikaradura bát lotsagárria Konstantinoplan (322).*

OEH: *ikaradura*

**ikasi.** *ad.* Jakin, jabetu. Erab. (Mb). (B, G, GN, L, HHN). *Baronio Kardenaleak dió, zutéla kostúnbre Judioék, justiziatzen zuteláik norbáit, arren obiarén áldean ortzitzea justiziarén instrumentuak; eta S. Helenak ikasirik nón ortzi zúten Kristo, án aldákan billarazi zuéla (178).*

AELIE: *ikesi & ikasi*

OEH: *ikasi*

**il-biztu.** *iz.* Berpiztua. Leh. (Mb). (B, BN). Dialekto+: B, *Gelditu zire guziák konbenziturik; eta Obispoak ilbiztuari errán zio, nai bazue bizitu zenbáit úrte yágo logratuko zióla Jangoikoagánik (181).* Informazio gehigarria: agerraldi bakarra du loturik idatzita. Aldiz, bereiz, beste hiru agerraldi gehiago daude: *manatu zué, lótzeko préso il-biztua ére, ilaraztekó guziák (113). Erreserbatu zitue sazerdote gúra, S. Julian, il biztua, ta bere sémea (114). Irur il biztu gaietán badá mistério (37).* Cf. *zorri lipiztu* ‘zorri hil-biztu’ (EkiHN<sup>^</sup>). Baita Baxenabarren *hil piztu* ere. OEH: HIL PIZTU (s.v. *I hil*).

**ilari.** *iz.* Hileta. Leh. (GN, Zar, Z). *Andik guti ellegatu zire Señórak, ta ikusi zuteláik ila, ilária zelebratu zúte boden pártetz (459).* **ilario** (EkiHN<sup>^</sup>).

AELIE: *ilari*

OEH: *hilari*

**ildorka.** *adb.* Iraulka (?). Hap. *Arrék etzué guzis azertátu gólpea, iltzeko istántean; sanda eroririk erioarén antsiéki ildórka, guti bát agertu zekizkio óñak; eta berealá joanik lastérka aizpak estali zizkio (533).* Informazio gehigarria: “cayó el bendito cuerpo y con los vuelcos de la muerte, descubrió parte de sus benditos pies” (1734: 69). *Eta eroririk ildórka lúrrean, agertu zekizkio guti bat óñak (283).*

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *hildorka*

**iletsi.** *ad.* Hiletsi, norbaitek sendatzerik ez duela pentsatu. Leh. (GN, L, Bzt). *Aurttoa zelarik iletsirik ofrezitu zué Amak S. Franziskori sendatzen barin bázue (220).* Informazio gehigarria: “Siendo niño tuvo una tan recia y tan peligrosa enfermedad, que le desahucieron los médicos” (FS, 1688: 414). OEHN, Lizarragaz gain, Etxahun eta Orixe aipatzen dira eta EKCn xx. mendeko autoreak. Oso agerpen gutxi ditu hitzak, baina FS-ko esanahia OEHkoarekin bat dator. OEH: *hiletsi*

**il-kolore.** *iz.* Hil-kolorea. Erab. (Z). Dialekto+: Tt-ek erabilia. *Barua kontino; orázioa gau ta egún; lóa lurreán ta guti; disziplinak úsu ta érru; sili-zioak ikaragárri, de manéra ezi denbóra labúr ilkolóre artu zué* (340).

OEH: HIL-KOLORE (s.v. *hil*)

**illunbe.** *iz.* Ilunpea. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, L, Bzt, BN, Zar, EkiHN). *Bein orázioan zegoláik gáuas ilunbétan, itxeki zé kandéla beréz* (383).

OEH: *ilunpe*

**iltzale.** *iz.* Hiltzailea. Erab. (GN, L, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). *Badákit, bai, Hereje Jaunek nai nautéla il, ta eman dutéla dirua iltzaleái* (442). Ikus *asasino, asesino, ilzale*. Informazio gehigarria: bi agerraldi, biak orrialde berean, B kodizean.

OEH: *hiltzaile*

**ilunabartu.** *ad.* Ilunabartu. Erab. (B, G, GN). HN+: *ilunabar* ErdHN. *Baña ayék geldiarazi zúte án, erraten ziotéla: “Jau-na, geldi bédi guréki, ezi pasaturik egúna yá ilunnabártu dú”* (59). Erreparatu *ilunn-* idazke-ra etimologikoari.

OEH: *ilunabartu*

**ilundura.** *iz.* Iluntasuna. Erab. (L, BN, Zar, EkiHN). *Eguerditsutik arratsálde apaleráño*

*iruzkiak estali zué bere árgia barrátus ilundura mundu guzia bárna; turbiotu zire izárrak, ikaratu zé lurra, zatikatu zire árriak elkarren kontra* (54).

OEH: *ilundura*

**ilunkara.** *adb.* Ilun samarra. Leh. (ErdHN<sup>^</sup>). *Fedearen árgia ére guti dá, ta ilunkará, ta ila ere askotán* (454).

OEH: -

**ilzale.** *iz.* Hiltzailea. Erab. (Bzt, Zar, Er). Hiltzailea. *Sanduarén ilzálea deitzen zéna Katino justiziagánik igés yá-yá iltzeko peligroan libratu zé* (173). Ikus *asasino, asesino, iltzale*.

OEH: *hiltzaile*

**inal.** *iz.* Leh. (ErdHN<sup>^</sup>). Eginahala, ahalegina. *Jangoikoaí gizónek in dezokéten zerbitzurik obéna dá konbertitzea arimak. Eta zer ditxa andiágo nai du, nola sártzea zéruan bát baizik ezpá-da ére? [...] Baña itén zue inála ta oneratu zué anitz* (502).

**einal** (EkiHN).

OEH: *eginahal*

**inbenzione.** *iz.* Asmatzea, asmakizuna. Erab. *Mayatzarén irugarrenéan gurutzearén Inbenziónea edo aurkitzea* (178).

OEH: *iminzio*

**inbolokatu.** *ad.* Itzulipurdika ibili. Hap. *Letragabékoak goratzen*



*dire ta arrapatzen dute Zérúa; eta gú geuren letraéki oná non gauden inbolokaturik loiean* (242). Informazio gehigarria: Aditza hapax izan arren, harekin lotu beharreko adberbioa ongi lekukoturik dago inguruko hizkeretan (cf. OEH s.v. *inbuluzka*): **inbolozka** (EkiHN<sup>^</sup>), **inbolauzkan** (EkiHN<sup>^</sup>), **inborazkan** (EkiHN<sup>^</sup>), **inbuluzka** (EkiHN<sup>^</sup>), **inbuluzketu** (ErdHN<sup>^</sup>).

AELIE: -S *itzulipurdika*

OEH: -

**indarrustu.** *ad.* Indarrrik gabe geratu, akitu. Leh. (GN). *Aita Sanduarén manamendus zoeieláik Leongo Konziliorá, bidean heritu zé ta indarrusturik ezin ártus alimentu óngi zegokionik* (143).

OEH: *indarrustu*

**infinizio.** *iz.* Ezin konta ahala. Hap. *Bildu zé infinizio bát jendekéta zelebrátzera berén obispo sanduarén ilária* (298).

OEH: *infinizio*

**inguraka.** *adb.* Itzulika, biraka. Leh. *Ortáko inarazi zitue erruédá-gisa batzúk, ayetán lótu sánduak ta péan itxéki su bizkor bát, eta ibiltzearéki erruédak inguraká, zoézin érres ta pizpildus, edo buruak lilura zeizen* (302). Informazio gehigarria: “para esto mandó

hacer ciertas ruedas, y atar en ellas a los Santos, y encender fuego debajo de ellas (sic), y avivarlo con aceite, para que con el movimiento de las ruedas, los cuerpos poco a poco se asasen y consumiesen, y desvaneciéndoseles la cabeza quedasen privados de sentido” (1734: 333).

OEH: *inguraka* 1

**intxa.** *iz.* Gorrotoa. Hap. *Sartu zékio gógoan pasátzea Txinará naiz zégon ertxirik erreinu gúra kanpokoendáko bizarén penaréki. Ingeniatu zué nola zeiken joán: estorbaturik ori gizonén intxa gaixtos; ingeniatu zué berze gisas joátea, naiz bizarén arrixkoan* (86).

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *intxa*

**intz.** *iz.* Ihintza, garoa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, Bzt, Zar, Er, EkiHN). *Eta edatékoa? Gau óro erortzen ze án intza áski zén adiña errefreskátzeko bera* (116).

OEH: *ihintz*

**iraulka.** *adb.* Lurrean itzulika ibili, garragarrik egin. Erab. (Lar, Mb). (GN, Bzt, Zar). *Baña Bolelao zego ain lesiaturik aragarén bizioan, ezi segitu zué oroát iraulka animálea bekala bere ongárrian* (181).

EHHA (716): Etxalar, Donamaria.

Alkutz, Aniz, Igoa -A: *iraulke*.  
 Etxaleku -A: *iraulken, iaulken*.  
 Oderitz -A: *iraulke*. -S:  
*zilipurdike*.  
 Sunbilla -S: *buelbaka*  
 Zilbeti -A: *iraulike*  
 Zugarramurdi -A: & *iraulkatu*  
 Etxarri (Larraun) -A:  
*iraultziken*  
 Eugi -A: *iraultzikan*  
 Leitza -A: *iraultzike*  
 OEH: *iraulka*

**iraun.** *ad.* Iraun. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, EkiHN). *Manatu zué paratzekó gurutzean gora, ez itzeés josirik, baizik loturik sokaéki yago iraun zézan martirioak (318). eta gerostik onát diráu berarén memória Kristiandádean beti (106). Ikus iraundu.*  
 OEH: *iraun*

**iraundu.** *ad.* Iraun. Erab. (Lar, Cb, Mb). *Baña agitu zé zazpigárrren eguneán emátzea sukárra, ta gelditzea lénto-léntoa iraundu zuéna irur ilabétez, ta joan zéna konsumitus gutibána (466). Ikus iraun.*  
 OEH: *iraun*

**iraupetsu.** *adj.* Denbora luzez irauten duena. Hap. *Eta alá eztá, ta eztaike izán ere gizón onik ta probetxuskorik humil eztenik; baizik ere zenbatenás sanduágo, humilágo, ezi obrarén*

*ariorá bear da beti ziméndua, ezperén eztá iraupetsu (87).*  
 OEH: *iraupetsu*

**iretsi.** *ad.* Irentsi. Erab. (Ax, Lar). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Etzió mellarik ere egin benénoak. Itzuli ze berriró sorginagána, eman zézon edári erruagókoa. Emán zio, ta Kristioak ikár-ikár zeñaturik iretsi zué; baña ain bérri; bátere mellarik ez sénti (563).*  
 OEH: *irentsi*

**irriabar.** *iz.* Irribarreak. Hap. *Alako batéz irristaturik zaldia loi ándi urrintzu bátean erori zé, ta bota zué Deán Jauna bal-sa gártan; guziá funditurik ta inmundizia bát eginik, án zire jendearén irriabárrak, txistuak ta oyukétak (159).*  
 AELIE: -A: *irribarre*  
 OEH: -

**irrikos.** *adb.* Irribarrez. Erab. *Geró zeñaturik ta erránik: “Jauna, orrén eskuétan enkomendatzen dút ene arima”, alégre irrikós entregatu zué: ta bizi gau eskribitu zué Metafrastek (411).*  
 OEH: *irrikos*

**irrinarte.** *iz.* Zirrikitua, arrakala. Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN). *Berrogéi egúnes iduki zúzte alá progátzen ásko manéras, eta azkenarén bezperain bézperan, zegoláik Alodia bere*

*orázioan, etxe gartáko alába zegókio beira zelatán irrinar-tetáik, ta ikusi zué inguraturik zeruko argitásun miragárris (532). Informazio gehigarria: Mendiburuk eta Larramendik palatala adierazirik irriñarte. Lizarragak ñ-z eta baita gabe ere.*

OEH: *irrinarte*

**irurogeita amabi.** *zenbatz.* Hirurogeita hamabi. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G). Dialekto+: vs *hiru(r)etan hogei. Ellegaturik irurogei ta amábi urtetára prebenitzekó obéki ain óngi prebeniturik zegóna joáteko Jangoi-koagána (243). Ikus lauretan ogei.*

OEH: *hirurogei*

**Iruñea.** *iz.* Iruñea. Erab. (Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar *Iruña*. (B, G, GN, LErdHN, EkiHN). *S. Fermin enpleatzen zé Apostoluen ofizio górtan alá Iruñean, nola Nafárroan bárna, konbertitus millaká arimak (512). Iruña (MHN, EkiHN).*

OEH: -

**iruzki.** *iz.* Eguzkia. Erab. (G, GN, L, Bzt, BN, ErdHN, EkiHN). *Zelarik oriénten edo iruzkiaren sortáldean enperadóre Maximino (asi zéna 306 urteán), publikarazi zué manamendu bát (308). eguzki (HHN), iduzki (EkiHN^).*

AELIE: *iruzki*

OEH: *eguzki*

**iskiritu.** *iz.* Oihua, garrasia. Erab. (L, BN, Zar). *Herodések bi-lirik bere soldádoak Belen alderát, ilarazi zitue leku gaietáko aur guziak [...]. Pensa nolako arakintza, nolako lotsamenturak, laméntuak, iskirituak, Amaénak prinzipálki ziren aietán (105). Ikus ixkiritu.*

AELIE: *iskiritu*

OEH: *izkiritu*

**iskirituka.** *adb.* Oihuka, garrasika. Leh. (Zar). *Agitu ze ura héri gelditzea, eta gau batés asi ze iskirituká lamentátzen, iduri zekióla bi otsoék arrapátu ta itotzen zutéla (438).*

AELIE: *iskiritu*

OEH: *izkirituka*

**istargitu.** *ad.* Argitu, distiratu. Hap. *Jainkoaren kontenplázioan anitz aldis ikusten zé goraturik airean gora ingurutik istargitzen erresplendóre miragárris batéki (530).*

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *istargitu*

**istupa.** *iz.* Iztupa, amelua. Erab. (Ax, Lar). (Bzt, BN). *Seguratzén dizut eztéla obra onik, intenzio onaréki iten denik, gelditzen premiorik gábe berladanik, ezi eztú súak itxekitzen istúpa idórra ain lastér, ez*

*arria xausten zentrorá ain fite* (78). **ixtupa** (EkiHN<sup>^</sup>), **extupa** (EkiHN<sup>^</sup>).  
OEH: *iztupa*

**itekoso.** *adj.* Lanpeturik. Hap. *Egun batéz ellegaturik pobre bát limósna éske, itekóso zegoláik, despeitu zué gábe. Akorduraturik berealá, atrá ze lastérka atzétik, ta erdetxirik emán zio limosna on bát* (261).  
AELIE: -A: -; -S: -  
OEH: *egitekoso*

**itsasbaster.** *iz.* Itsas hegia. Erab. Idatzizko iturriak+: Mb & Cb: -z- & baster (ez itsas-). (B, G, GN, L). *Báda erreinu andi gárrren ándi zabál imménsoa dá ainbérze, ezi balire itsasbasterreko área pikórrak ain andi bakótxa nola mundu gáu, guziák kabi leizke án, sobra leike lékua frángo géro ére* (537).  
OEH: *itsasbazter*

**itsu.** *adj.* Itxia, sarria, tapitua. Erab. (B, G, GN, L, BN). *Orduán zé arbolédi edo sasidi itsu bát erreka edo bálssa loizu batéki léku propía ladronendáko errobotzen baizúzte pausu gaxto gaietán ásko peregrino pasátzean Santiagorá* (183). Informazio gehigarria: basoari erreferentzia eginez, oso itxia denean, ezin pasatzeko modukoa. “en aquel lugar había antes una selva espesa y cien-

gas y lodazales” (Rivadeneyra 1688: 162).  
OEH: -

**itsusi.** *adj.* Itsusia, ezaina. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Zar, MHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). HN+: Artola3. *Zein estimagarria dá, berás, honestidade edérra! Zein abomináble, berriz, desonestidade itsúsia!* (208).  
OEH: *itsusi*

**iturrama.** *iz.* Iturburua. Leh. (G). *Urrikaritu zé Kleménte ta in zué ta inarazi zue orázio gure Jaun Jesu Kristorí, ager zezóten iturriren bát. Orázioa bukatúrik ikusi zué sanduak aldapa bateán axuri bát bésoa goraturik mostratzen zuéla iturráma* (307).  
AELIE: *iturrama*  
OEH: *iturrama*

**itxeki.** *ad.* Izeki, piztu. Erab. *Eztaike explika enperadóreak egin zuen kólera: manatu zué berealá-berealá itxekitzekó hogérra andi bát, ártan erretzekó berrogeitamárrak* (310). **itxiki** (HHN), **biztu** (ErdHN).  
OEH: *izeki*

**itxura.** *iz.* Itxura. Erab. (Cb, Mb). *Iduri zékio Pilatosí askiko zéla mostrátzea itxura gártan Jesús lastimaraztekó guziák* (51).  
OEH: *itxura* 1

**itxurapen.** *iz.* Itxura, planta, simulazio. Erab. (Ax, Mb). (B, G, GN, L). *Joán ze bada heri finjítua palo báti arrimaturik ásko itxurapenéki* (442).  
OEH: *itxurapen*

**itze.** *iz.* Iltzea. Erab. (Lar). (GN, L, Bzt, BN, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Esku báta paraturik zuloaren párean josi zióte itze andi batéki malluaren gólpez urrátus arágiak eta záñak: geró berze éskua ellegarazirik tiraká sokas zuloarén parerá josi zióte berze itze andi batéki* (54). **iltze** (EkiHN).  
OEH: *iltze*

**itzkuntza.** *iz.* Hizkuntza. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). *Mian adiarazten dá mintzaéra, mintzatzekó múndu guziarén alzinean bear zen lengúajea edo itzkúntzan* (62). Informazio gehigarria: *itz-* idazkera etimologikoa ohi-koa da Larramendiren garaiko idazleen artean.  
OEH: *hizkuntza*

**itzuli.** *ad.* Bihurtu, bilakatu. Erab. (Ax, Lar). Idatzizko iturriak+: Lar: ‘cambiar’, ‘mudar’. (L, Zar, Z). *Errespondatu zué: “Nola dá posible eramátea nik imajina góí, ain pizu delarik?”.* “*Ar zázu*” errán zio “*ezi ene sémeak itzuliko dizu arin, ermáteko aisa*” (236).  
OEH: *itzuli 7*

**ixil-ixila.** *adb.* Isil-isilik. Erab. (GN, Z, EkiHN<sup>^</sup>). *Arturík bolsa bát diru, joán ze gau batéz ixil-ixila, ta gizon árren kuartokó leiatillatik bota zué barnéra, ta itzuli ze lastér bere etxéra* (93).  
**ixil-ixile** (ErdHN<sup>^</sup>).  
AELIE: *ixil-ixile*  
OEH: ISIL-ISILA a)

**ixilkias.** *adb.* Isilean, inork deus jakin gabe. Leh. (EkiHN). *Be-raxtu zé anáia, eta guárdien borondáte onaréki gau batéz eskapatu zire ixilkias irúrak, anáia ta arrébak, xakin gábe Presidénteak* (285). *Preso zeu-kaláik Nerónek, ingeniatu zúte Kristioék ixilkias atraráztea* (213).  
AELIE: -A: *ixilke*  
OEH: ISILKIAS (s.v. 2 *isilki*)

**ixkiritu.** *iz.* Oihua, garrasia. Erab. (L, BN, Zar). *Onék inarazirik hogéra andi bát, botarazi zué artan Sanda: baña errespé-to izan zióte sugárrek idúkis érdian mellarik in gábe; par-titu zire, ta erretzen zúzte bei-ra zeuden Gentilak, goratzen baizitúzte ixkirituak Sandarén kóntra maldizioká* (394). **izkiri-rita** (EkiHN<sup>^</sup>). Ikus *iskiritu*.  
OEH: *izkiritu*

**ixtikatu.** *ad.* Zapaldu, zanpatu. Leh. (GN, Zar, HHN, EkiHN). *Bein plaza bátean predikátzen zegolarik, eldú ze zaldi beltz*

*andi báten idúrian karreraká, iduri baizue ixtikatu bear zué-la jéndeá (441). Urrea ezpáda laberátzen, burriña limátzen, gránoa eultzizen (sic), mátsa ixtikátzen (70).*

OEH: *istikatu*

**izengañeko.** *iz.* Abizena, deitura. Erab. “*Apellidoa edo izengañekoa, nola dú?*”. *Sanduak humil errán zio: “Nola aurtto bátek biali zuénak Granadará deitu zuén Joan Jangoikoaréna”, baña bera etzéla atrebitu artzerá izengañekói, indigno baize (145). izengaineko (ErdHN<sup>^</sup>).*  
OEH: *izengaineko*

**izigarriro.** *adb.* Izugarriki. Erab. (Ax *izigarriki*). *Berzea óyus sanduari botátus kulpa: baña berealá gelditu zé espíritu gaixtoak arturik tormentatzen zuéla izigarriró (162).* Informazio gehigarria: arrunta da JMSBn ageri ez den *izigarri* forma (Ax, Lar). (GN, L, Bzt, BN, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN).  
AELIE: *izigarri*  
OEH: *izugarriro*

**izitu.** *ad.* Izutu. Erab. (Ax, Lar). (G, GN, Bzt, BN, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+:  
OEH: *izutu* Hegoaldean, *izitu* Iparraldean. *Bere debóto izan bát iltzerákoan inguraturik zeukáte Demonioék, zerén*

*baizégo bekátu mortálean. Zego ura iziturik otói ta otói sanduari (187).* Informazio gehigarria: “Para los autores navarros hay *izitu* en Lizarraga de Elcano, en un texto de Ulzama de 1905 (FLV 1988, 274), en otro de Echalar de mediados del s. XIX (*Auspoa* 97, 22), en Yanzi (220) y en Izeta (*DirG* 29). Se encuentra *izutu* en Mendiburu” (OEH).

OEH: *izutu*

**izotzil.** *iz.* Urtarrila. Erab. (GN, Zar, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Izotzillaren ban (110)*  
OEH: *izotzil*

**izurri.** *iz.* Izurria. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. *Baña ez kutsatzekó munduarén izurrias, erretiratu zé leku soil bateán, non bizitu zén ogéi ta bi úrteak árteo ortzirik bekála munduráko (516).*  
EHHA (2424):  
Azkaine -A: *izurtia*. -S: *elde*.  
Ezterenzubi -A: *izurrite*. -S: *khotsu, erida*.  
Jutsi -A: *izurrite*  
Pagola -A: *izurrite*. -S: *epidemia, kozü*.  
OEH: *izurri*

# J

- jabetu.** *ad.* Jabetu. Erab. (Lar, Mb). (B, G, L, BN). *Ebén kóntra itzuli zé Juliano madarikátua, jabetu náiez berén haziéndá ta ondasúnes* (209). **xabe** (EkiHN), **xabetu** (EkiHN<sup>^</sup>).  
OEH: *jabetu 2*
- jaintsi.** *ad.* Jantzi. Leh. (GN). *Zego enperadórea guzia galas jaintsirík úrre ta perlaes istargitzen zuéla* (179).  
EHHA (2228): Aniz, Erratzu, Etxalar, Eugi, Luzaide -A: *jauntzi*. -S: *beztitu*.  
Beruete -A: *jauntze, ddauntze*.  
Igoa -A: *ddauntzi*  
Sunbilla -A: *jauntzi*. -S: *arropa patu*.  
AELIE: -A: -; -S: *beztitu*  
OEH: *jantzi*
- jaitegun.** *iz.* Jaioteguna. Erab. (Mb). *Eskaida ona izán ze, noiz ta Herodesek zelebratu zuén bere jaitegúna, konbidaturík erreinuko Jaundiak ta prinzipálak* (207). Informazio gehigarria: Larramendik *jaioteguna, sorreguna* dakartza.  
OEH: *jaiotegun*
- jakin.** *ad.* Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN).  
Dialekto+: *gral.* Jakin. **iakin** (HHN), **yakin** (ErdHN<sup>^</sup>), **xakin** (ErdHN, EkiHN).  
OEH: *jakin*
- jakinde.** *iz.* Jakintza. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Larramendiren hitza. *Bere jendaki ta injénio ilustrarén kásos, zelarik persóna prinzipaléna án, pasatu zé Egiptorá estudiátzera astrologia, au dá zeruen ta izárren jakindea* (264).  
OEH: *jakinde*
- jangoikostatu.** *ad.* Jaungoikoaren izpirituaz jantzi, jaungoikotu. Hap. *Ain Jangoikoan sarturík edo Jangoikostaturík bizi zé, ezi ez ikúsi, ez aditu, ez sentitu bekála hurréko gauzarik etzuéla iduri zué* (239). Informazio gehigarria: EKC eta OEHen arabera, *Jangoikostatu* Lizarragak bakarrik erabili zuen. Pouvreaux eta Larramendik *jainkotu* darabilte. Bestalde, Lizarragak *Sermoiak* lanean *jainkostatu* (edo *jainkoztatu*) ere erabili zuen inork baino lehenago, eta bigarren honen tradizio ugaria osatu du Iparraldean (ikus OEH s.v. *jainkoztatu*).  
OEH: *jangoikoztatu*
- jarduki 1.** *ad.* Hitz egin, solastatu. Erab. (Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *ih-*. (ErdHN).

HN+: Artola1. *Bera etzegolaik presente, barin bazeude jardukitzen suelto, agertzen baze, erraten zute, ola, Bernardino eldu da, utzagun* (). Bonapartek *xardoki* bildu zuen Elkanon (Ondarra, 1982: 158). **yarduki** (ErdHN<sup>^</sup>), **xarduki** (MHN, EkiHN), **xardukitu** (EkiHN<sup>^</sup>), **xardoki** (MHN, Zar, Er), **txarduki** (EkiHN<sup>^</sup>).

AELIE: -A: -; -S: *yolastu*

OE: *iharduki* I, 5

2. iz. Solasa, hizketa. *Guardatzen zire aipátzeas bearretzenik arren presénzian; eta barin bazeude aláko jardukietan, agertu ordúko urá ixiltzen zire, ziótela: "Alcantarákoa eldu dá: alda zágun itzkéta"* (279). **xarduki** (EkiHN<sup>^</sup>), **xardoki** (Er). OE: *iharduki* II, 2

**jarin**. *ad.* Jario. Hap. *Joaterákoan zoézi atzétik zázpi ándre debóta bildus odól jariten zekióna lla-gaetàik* (129). *Eztéla arritzekó [...]* iltzerákoan *jarizékion ésne odolarén lékuan* (216). *Ongi eгина, jarin baize orren lepotik esne, mostratzeko orren arimaren txuri eder garbia* (551). OE: *jario*

**jarri**. *ad.* Eseri. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Z, MHN, HHN, ErdHN). *Iku-si zué Jesu Kristo Juéz bekála majestade ándian jarririk*

*trono bátean, zeuzkiéla irur lánza éskuan, gáltzeko mún-dua* (490). **xarri** (EkiHN). **yarri** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: EHHaren arabera, ekialdean *yarri* erabiltzen da, erdialdean *eseri* eta mendebaldean (ez muturrean) *jarri*. Hala ere, Etxalekun (eta hortik Sakanara mendebalderantz egiteko) *jarri* jaso da. Lizarragak ez du behin ere *iarri* edo antzekorik idazten, beraz, ahoskera *x-* txistukari sabaiaurrekoa dela pentsa liteke. Bonapartek Elkanon *xarri* bildu zuen (Ondarra, 1982: 156). OE: *jarri*

**jaundi**. *iz.* Jaun handia, gizarte maila gorenekoa. Leh. (Lar). *Bazékie gaizki iduri zekiótela munduko Jaundiéi; baña berak etzué ajolarík, baizik óngi iduritzeas Jangoikoi* (303). Informazio gehigarria: Larramendiren hitza: bere ohiko *blending*-etako bat. Lizarragak gain, EKCK Añibarroren lanetan bakarrik aurkitu du. Lizarragak honekin batera badarabil *jaun andi* ere (304). OE: *jaundi*

**jazpe-arri**. *iz.* Jazpe-harria, harrinabarra. Erab. *Aingiruék zekarrá-te, batzuék kolúmna edo pilare jazpe-arri edo marmolesko bát* (65). OE: *jaspe*



**jendaki.** *iz.* Leinua. Erab. (GN, L, Bzt, EkiHN). *Sandu bát andia, gure lekukidea, nafartárra, Nafarroarén hónra, glória ta sendagálla dá S. Franzisko Xabier. Jaió ze Xabiengo Kasteluan jendaki nobletik, milla laur eún ta laur ogéi ta amazpigarren urteán* (83). Aezkoan *jendaki* ‘ahaideak’. **yendeki** (ErdHN<sup>^</sup>).

AELIE: *jendaki* ([J] ahoskera sabaikaria)

OEH: *jendaki* 2

**jendamende.** *iz.* Mendea, gizaldia. Leh. *Agitu zé au seigárren jendamendearen akabán[zan] edo zazpigarrenaren astein* (436). ‘belaunaldia’ (EkiHN).

OEH: *jendemende*

**jende-aurkintze.** Ikus **aurkintze**.

**jendeketa.** *iz.* Jendetza, jende kopuru handia. Leh. (EkiHN). *Bigarrena errán zue Bergáran publikoan logratzekó Jubiléo Aita Sánduak emána aditzen zutenendáko; baña ainbérze jendekéta bildu zé, ezi bear izán ze errátea kámpo agérrian* (521). **yendeketa** (ErdHN<sup>^</sup>). Ikus *jendetze*.

AELIE: *jendeketa*, sabaikaria, [J].

OEH: *jendeketa*

**jendetze.** *iz.* Jendetza, jende multzo handia. Erab. (Lar). (L, BN, Z,

HHN). HN+: Beriaín *Doctrina. Bérze aldi bátez jendetze andia bildurik Jesús onarén átzean erému bátean, errán zio S. Feliperi: “Nondik erosi-ko dúgu ógi ebendako diña?”* (34). Ikus *jendeketa*.

AELIE: -A: *jendetza*, sabaikaria, [J].

OEH: *jendetze*

**jentil.** *iz.* Jentila, kristaua ez dena. Erab. (Ax, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (B, G, GN, L, BN, Er, HHN, ErdHN). *Burátsoak zúzte nóbleak; baña Aita Gentil, Ama Kristio fiéla, zeñék azi zituen fede ta lége Kristioan txoil óngi, ta alá atra zire txoil ónak eta sándak* (282).

OEH: *jentil*

**jokatu.** *ad.* Eraso, oldartu. Leh. *Prinzipioan agertu zékio Demonioa tzakúr beltz andi báten idúrian; irur aldís jokatu zékio leporá nola ito náiez* (235).

**yokatu** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: oldartzen den eta erasotzen duen abereari *xokazale* esaten zaio egun Aezkoan. OEH: *jokatu* 2

**jomuga.** *iz.* Jomuga, xedea. Leh. (Lar). *Beira, aurtto gáu dago paraturik ala nola jomuga bát, zeñen kóntra tiratuko baitúte, eta zeurorren arima traspasatuko dú ezpátak* (56). *Oná aurtto gáu izanen dá askoen*

*erorzekó ta goratzekó Israélen,  
ta jomúga bekála, zeñen kóntra  
emanen baitúte* (28). Informa-  
zio gehigarria: “he aquí a este  
niño, puesto como blanco, a  
quien el mundo ha de hacer  
contradiccion: y muchos han de  
caer y levantarse por él en Is-  
rael” (FS, 1610 (1): 81).  
OEH: *jomuga*

# K

**kabo.** *esap.* (Posesiboarekin). (Bere...) kabuz, (bere...) kasa. Hap. *Sanduarén obia gáñean ikusi zire zerúko árgiak: lánparak itxekitzen bere kabo* (173). OEH: 2 *kabu* 2

**kafia.** *iz.* Habia. Erab. (Ax, Lar). Idatzizko iturriak+: SP. Ax agerpen bakarra. (GN, L, BN, EkiHN<sup>^</sup>). *Itzulirik bere konbenturá, nola bere kafiará txórria, uste zué errepausátu* (497). **kafi** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: EHHAren arabera, Lapurdi gehianean eta Nafarroa Beherean *kafi/kafe* erabiltzen da. ESHA (126): Abaurregaina, Aniz, Arbizu, Dorrao, Erratzu, Eugi, Lekaroz, Mezkitz, Urdiain, Zilbeti, Zugarramurdi, Domintxaine. Luzaide -A: *kafe* AELIE: *kafia* eman dute Eugiko bi lekukoek. OEH: *habia*

**kalentura.** *iz.* Sukarra. Erab. (GN, Zar, Er ap. OEH). *Azkenerát etorri zékio sukár edo kalentura bát, zein ezaundu zué zela eriotzearén alzindári* (281). Informazio gehigarria: “En AxN

se explica *sukar* (201) por kalentura” (OEH). Ikus *sukar*. Donamaria -S: *kalentura* Lekaroz -S: *kalenture* Etxaleku -S: *berotasun*

**kalkatu.** *ad.* Estutu, zanpatu, zuku atera. Leh. (Bzt, Zar, Z, Er, EkiHN). *Ikusi zué malda bátean mats oko bát dilindan, ori neguarén érruan; artu zué Jangoikoaren erregálo bekála, eta kalkátus éskuas bota zió ágo barnerá arren zúmoa, edo líkórea* (115). Informazio gehigarria: Larramendik ere badarabil, baina ‘oinarekin zanpatu kolpeka’ adieran, eta Mendiburuk ere berdin (OEH s.v. *galgatu* 3). OEH: *galkatu* 4

**kalzina.** *iz.* Karea. Leh. (Er). *Laudatu zió bein emasteki bátek éskuen txúria etzuéla ikúsi ederragorik: biramónean sándak kalzina bízis egin zitue ain érru, ezi beterik anpóllas eta súes ezin kuratu zúzte anitz egúnes* (500). **galzina** (HHN), **kisu** (EkiHN). ESHA (935): Arbizu, Beruete, Dorrao, Etxaleku, Etxarri (Larraun), Gaintza, Igoa, Oderitz -A: *galtzin*. OEH: *galzina*

**kana.** *iz.* Kañabera. Erab. (Er). *Paratzen díote soñetáik purpurásko mánto zar zatar bát;*

*eta éskuan kana bát zetro-itxuratako; eta jarrarazirik alki bâtean errege burlásko bekála egiten dióte bere kúrte edo adorázio-itxúra (51).*

EHHA (601): Jaurrieta, Zugarramurdi.

OEH: *kana*

**kanibet.** *iz.* Ganibeta, labana. Erab. (Cb). (G, GN, L, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola3. *Alzinágo segitus Presidentearen kruélak manatu zué ebakitzeko bulárrak sandari kanibéta tzorrótzes (92).* **kanabite** (ErdHN<sup>^</sup>), **kamieta** (EkiHN), **kañoeta** (EkiHN), **kanueta** (EkiHN).

OEH: *ganibet*

**kapatxa.** *iz.* Fruta eramateko erabili ohi den ihi edo zumezko saskia, bi helduleku dituena. Hap. *Sustentátzeko ta kurátzeko bere pobre gáiek, atratzen zé egun óro karririk bárna kapatxa batéki sóñean, ta soka batéki bi élze ándiak dilindan lepotik (420).* Ikus *esporta, saski*. Informazio gehigarria: *Ibarrak kapatxo.*

AELIE: -A: *kapazo*; -S: -

OEH: *kapatxa*

**karaka.** *iz.* Oiloaren hotsa. Erab. (GN, Bzt, Zar, Er, ErdHN<sup>^</sup>). *Itzuli ze lastér bere etxéra; ezpaizue nai xakin zézan niórka, baizik Jangoikoak: ezi etzé*

*ásko Kristio patatéroen gisará, iten dutéla nola ollo karakáriak, arraultze txar bát ta guziá karáka (93).* **kakarakas** (EkiHN), **kakarazias** (EkiHN).

OEH: *karaka*

**karraiatu.** *ad.* Garraiatu. Leh. (Lar). (L, Bzt, Z). *Oñáten egin zue bizileku bát pobre, labúr értxia. An berak karraiatús ura ta egúrta, eginés súa, garbitus sukáldea, ta onziak zerbitzaten zióte guziéi kontént edér (268).*

OEH: *garraiatu*

**karreraka.** *adb.* Bizkor, laster. Hap. *Segitu zué Aitak asárre anitz lagunéki berén zaldietan karreraká. Sandak goárt emanik formatu zué gurutzearén seña-lea lurreán; eta berealá baratu zire zaldiak ta zaldúnak geldí ezín mógi (399).* Etorri ze *karreraká Deabrua (172).* Ikus *lasterka.*

AELIE: -A: -; -S: *lasterka*

OEH: *karreraka*

**karríka.** *iz.* Kalea. Erab. (Ax, Lar, Mb). (GN, L, Bzt, BN, Z, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola1. *Juéz infámeak eramanaenzi zué sanda biluxirik karríkas karríka; baña Jaun díbinoak estali zué miragarrriró, ikusi etzeiken gisan (121).* Informazio gehigarria:

EHHaren arabera, *karrika* Nafarroa Garai gehienez, Lapurdin eta Nafarroa Beherean erabiltzen da.

OEH: *karrika*

**kasamentari.** *iz.* Ezkontzagina. Hap. *Ez omen zué nai béñ ere izán kasamentári, ta ez konsejátu joátea gerrará, ta ez ere konbitaetára* (95). Informazio gehigarria: “no quería ser casamentero, ni aconsejar a nadie que fuese a la guerra, ni ir a comer fuera de su casa” (FS, 1610: 916).

OEH: *kasamentari*

**kaseria.** *iz.* Etxaldea, etxaguntza. Hap. *Iban de Vargas ango kaballero bátek zué kaseria bát bere heredajearéki Madrildik kánpoan* (184). Informazio gehigarria: “llamado Iban de Vargas, en una casería suya, encargandose de tenerle cuenta con sus heredades” (FS, 1688: 177). Lizarragaren agerpen bakarra arestikoa da. Litekeena da ahozkoan erabiltzen ez zen hitza izatea eta itzulpenaren ondorioz Lizarragak mailegaturikoa izatea. Hala eta guztiz ere, HHn “caseria, *baserria, etxaldea, etxondoa, borda*” ageri da; beraz, euskal ordaina emateko erraz zeukan. Hala ere, maileguaren alde egin zuen, baita *heredage* hitzean ere.

AELIE: -S: *etxe alde*

OEH: *etxalde*

**kaskarabil.** *iz.* Kaskabiloa. Leh. (GN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Lóak ematen zioláik orázioan, zer iten zué? Kaskarabil batzúk lotu zángoan, ta ibili guti bát saltoká, erraten zéla: “Nai báduk Jangoikoa zerbitzátu, ez-tuk beár lokártu”* (421).

OEH: *kaskarabil 2*

**kasko 1.** *iz.* Leh. (G, GN, L, Bzt, BN, EkiHN). Punta, tontorra, burua. *Baita prodijio bát ikusgárria ta Jangoiko andiaréna proprioki, beirátzea nola doáien xaustis oyán kaskotík bera erri alderát súsko ugalde gúra, plomu edo metála urtuarén gisará lodi-lodia* (131-132).

AELIE: *kasko*

OEH: *kasko 2*

**2.** *iz.* Burua. Leh. (G, L, BN, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Eskaida óna izán zue Herodésen jaitegúna, zeintan konbita andi bát zelebraturik Jaundi guziéki, póstrean dánza [...] Errégek, káskoa yá beroturík, errán zio: “Eska zadázu nai duzúna ta emanen dizut”* (469).

OEH: *kasko 4*

**3.** *iz.* Leh. (B, G, L, Er). Zatia. *Suturik errábias manatu zué barrátzeko lurrean tella-kasko ta anitz ikatz-brása góri* (404).

OEH: *kasko 3*

**kasu 1.** iz. Kontua, ardura. Erab (EkiHN<sup>^</sup>). *Iá prinzipiotik Jesus ónak artu zué posésio arima gártas, eta zeuka amoros-turik bere Majestadeas, etzuéla kasorik gañaráko guzías* (108). Esanahia ‘egoera’ denean badira adibideak hego-nafarreran (MHN, HHN).  
OEH: *kasu 2*

■ **-la kasu.** *part.* -la eta. Erab (EkiHN<sup>^</sup>). *Asi ze urá pensátzen bere akzióne txárrean, bera zéla káso tratatzen zutéla ain kruekíró gizóon on gúra, ta anitz ón egin zióna berari ére* (46).  
OEH: DELA KASU (s.v. *kasu*)

■ **-en kasos.** *postp.* -engatik, -en kariaz. Erab. (MHN, HHN, ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>). *Orren kasos berealá urbilén urteán kanonizatu zué Aita Sanduak* (201). *Eta akziónen gónen kásos egin zio Jangoikoak grázia, ez sentitzeas andik alzína gogaitzik bátere aláko lanetán, baizik debózio ta gusto* (84). Informazio gehigarria: Lehendabiziko agerpena SermANkoa da, eta ondorengo guztiak hego-nafarrerakoak: GN ap. Bon-Ond 166.  
OEH: KASUZ b) (s.v. *kasu*)

**katea.** iz. Katea. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, Bzt, Zar, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Eto-*

*rri ze kátea batéki zekarrála Deábrua loturik, eta bera guziz sendaturik* (137).  
OEH: *kate*

**katuli.** iz. Edukiontzi sakona, zabalak eta ez oso handiak. Erab. (GN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Itzulirik bere baitan etzué nai izán ártu berzerik, baizik elzári katuli bat, baize festa egunéko erregálo guzia* (281).  
EHHA jaso denez, Nafarroa Behereko zenbait herritan, besteren artean, *gatulu* aldaera erabiltzen da. Hego-nafarreraren eta Nafarroa Behereko hizkeraren arteko lotura erakusten du hitz honek.  
EHHA (1557): Abaurregaina, Mezkitritz, Zilbeti, Behorlegi, Irisarri.  
Eugi -S: *koporra*  
Jaurrieta -S: *tazona*  
Luzaide -A: *gattuli*  
Sohüta -A: *gatüli*  
OEH: *katilu*

**kazkaragar.** iz. Kazkabarra. Leh. (B, GN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>). *Egun góntan Milánen bedekatzen diréla pálmak edo oliba-rámuak, duténak birtúte ándia arrerauntsi, kazkaragar, zentella ta ausnárrien kóntra* (443). **kaskaragar** (ErdHN<sup>^</sup>), **kazkarabar** (ErdHN<sup>^</sup>), **tzitzar** (EkiHN<sup>^</sup>), **zitzor** (ErdHN<sup>^</sup>),

- txitxor** (ErdHN<sup>^</sup>). Ikus *arreirauntsi*.  
 OEH: *kazkaragar*
- kee.** iz. Kea. Erab. (Cb, Mb). Ida-  
 tzizko iturriak+: SP. (B). *Izen*  
*gáu aipatu zueneko, desapa-*  
*rezitu zé Artzái idúria, utzirik*  
*infernúko usai bát, sú eta keé*  
*ilúna* (356). **eke** (ErdHN<sup>^</sup>,  
 EkiHN<sup>^</sup>), **ke** (ErdHN<sup>^</sup>). In-  
 formazio gehigarria: EHHAn  
 Gipuzkoaren eta Bizkaiaren  
 arteko mugatik gertuko herri  
 batzuetan soilik jaso da: Oñati,  
 Eibar eta Elgoibarren. Nafa-  
 roan, oro har, *eke* da aldaera-  
 rik erabiliena.  
 OEH: 1 *ke*
- keñu.** iz. Keinua. Erab. (Ax, Lar,  
 Mb). (GN, L, Bzt, BN, Z). Dia-  
 lekto+: S *kh-*. *Dá ere poderó-*  
*soa, ta ain poderóso, ezi keñu*  
*báteki garaitzen tú mundúko ta*  
*infernúko potestáde guziak, eta*  
*itz batéki sendatzen tú hériak*  
*eta bizten ilak* (121).  
 OEH: *keinu*
- kidatu.** ad. Gidatu. Erab. (Ax, Lar).  
 (GN, L). *Zeudeláik batálla-al-*  
*zineán irur erregeak, Kastela-*  
*koa, Nafarrokoa ta Araguakoa*  
*arrixko érruan, nai igán oian*  
*bátera, ta [...] ezín, ta etxakin*  
*nondik edo nola, Artzái iduri*  
*báteki kidátu ta iganarazi zitue*  
*políki* (186-187).  
 OEH: *gidatu*
- kindar.** iz. Kirtena. Hap. *Bazékie*  
*Jaun onak etziótela galdegiten*  
*ikasi náiez zena egia, baizik*  
*arrapatu náiez kindár, nondik*  
*eutxi, akusatzéko ta konde-*  
*natzéko* (48).  
 AELIE: -A: *kider*. Informa-  
 zioa: aitzurrarena izaten ahal  
 da.  
 OEH: *gider*
- kisuskile.** iz. Igeltseroa. Erab. *Geie-*  
*gi iduriturik debekatu zióte*  
 [mirariak] *egitea lizenziarik*  
*gábe. Agitu zé erortzea kisu-*  
*kille bát agitz goratik, beira*  
*Sánduak oyu egin zio: “Zaude*  
*guti bát nik atra árteo lizen-*  
*zia”* (433).  
 OEH: *kisuskile*
- klamatu.** ad. Deidarrez erregu-  
 tu edo eskatu. Leh. (EkiHN).  
 HN+: *CaminoAe* (s.v. *oinaze*).  
*Sanduak arrien értean zió: “O*  
*ene Jesus Jauna, errezibi béz*  
*nere espiritua”.* Bérla belauri-  
 ko paraturik, *klamatu zué oyu*  
*andi batéki: “Jauna, ez dezó-*  
*tela kárgu egin bekatu góntas.*  
*Barka bezóte”* (104).  
 OEH: *klamatu*
- kofrakide.** iz. Kofradia kidea. Hap.  
*Kofrakide lagúnek erran zióte,*  
*zertakó zekárran ainbérze pó-*  
*bre?* (185).  
 OEH: *kofrakide*

**kohorte.** *iz.* Kohortea. Erab. S. *Sebástián Martir baliéntea bizitu zé Diokleziáno ta Maximiano enperadoreén denbóran, ta izan ze lenbiziko arren kohortearen kapitán, asistituz berarén palázioan* (390). Informazio gehigarria: (FS, 1610 (1): 146) pasartean *cohorte* ageri da.  
OEH: *kohorte*

**kolore.** *iz.* Itxura. Erab. (Lar, Cb). *Berze aldi batéz konbidatu zúte bazkaris herejeék on kolórez: admititu zúe konbita sánduak irabazi náiez aién arimak* (199). Informazio gehigarria: “Otra vez, habiéndole ciertos herejes convidado, fué a comer con ellos por dárles gusto” (FS, 1761: 227).  
OEH: *kolore* I, 4

**koltxilla.** *iz.* Koltxoi txiki edo mehea (?). Leh. *Joán ze aumentátus heritasúna; errezebitu zitue elizako ordenamentuak; eta ellegaturik egún deseatu gúra, eskatu zúe para zezátela lurreán: paraturik koltxilla baten gáñean egón ze beira Zerurát, itzik atra gábe* (235). **koltxeila** (EkiHN<sup>^</sup>), **koltxella** (EkiHN<sup>^</sup>), **koltxila** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: “Echáronle un colchoncillo sobre el suelo” (FS, 1761: 526).  
OEH: *koltxilla*

**komekatu.** *ad.* Jaunartu. Erab. (Mb). (GN, L, Bzt, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: *Artola2. Komekaturik sentitu zúe gózo ta gústó soberánoa, ta ain zebaturik gelditu zé, ezi permititurik komekátzea zortzitik zortzirá, egoten zé kontá-tzen egúnak eta órduak, zénbat falta zén ellegátzeko* (454).  
OEH: *komekatu*

**komojitu.** *ad.* Hunkitu. Erab. *Ain poderóso dá bekátua komojit-zekó Zérúa, nola peniténzia tormentátzeko inférnua* (80). Informazio gehigarria: agerpen bakarra du hitzak. *Agreda 7* (1860: 44): “Tan poderoso es el pecado de su naturaleza para conmover al cielo como lo es la virtud y penitencia para atormentar el infierno”.

**komunkiro.** *adb.* Oro har, eskuarki. Erab. (Lar, Cb). (HHN). *Bekátuen kásos datozila komunkiró kalamidádeak dá égia progátua experiénzias* (179). **komunki** (MHN<sup>^</sup>), **komunski** (EkiHN), **komuski** (EkiHN<sup>^</sup>), **komuzki** (EkiHN<sup>^</sup>).  
OEH: *komunkiro*

**konjurio.** *iz.* Zerbait lortzeko erabiltzen den esapide magikoa. Leh. *Abisaturik S. Antoninok eskribitu zúe orazio bát paper bateán bere konjurioaréki, ta manatu zúe paratzekó kuarto*



*gártan Ama Birjinaren imajinarén alzinean* (183). Informazio gehigarria: OEHn ez dago informazio dialektalik eta EHHAn ez da jaso. OEHren arabera, Orixek bakarrik erabili du Lizarragaz gain, eta honek ere behin baino ez JMBSn. EKCn Lizarraga bakarrik ageri da. Jatorrizkoan “*escribió en un papel algunas oraciones y exorcismos y los mandó poner en el aposento*” (FS, 1610 (2): 281). Ematen du ahozkoan erabiltzen zen hitza dela.

OEH: *konjuro*

**konkurritu.** *ad.* Elkartu, bat egin. Erab. (HHN). *Errégek honratu zué fabrikátus tenplo gúra, nora konkurritzen dúten anitz lekuetaik peregrinoak* (226). Informazio gehigarria: OEHn Otxoa Arinen adibideak ageri dira soilik.

OEH: *konkurritu*

**konpañazale.** *iz.* Laguntzailea. Hap. *Erregina D.a Isabel Katol[ika] sendaturik sanduarén médios, joán ze gráziak ematerá sanduari; eta berarén konpañazale bátek apatzerákoan sanduarén óñak, kendu zió eri bát ózka, ermateagátik errelikia* (188).

OEH: *konpainiatzaile*

**konprehenditu.** *ad.* Ulertu. Erab. Idatzizko iturriak+: Leizarraga, Urte. (L, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Jesus berarén oñázeak nork explika? Nork konprehenditu?* (54).

OEH: *konprehenditu*

**konsient.** *adj.* Konplizea. Erab. *Bazkaltzerákoan egun batéz errán zio sanduak nola sospétxa zuén ura izán zela konsiént bere anaiarén eriótzean* (110).

OEH: *konsent*

**kontent.** *adb.* Pozik, gustura. Erab. (Ax, Mb). (GN, Bzt, BN, Zar, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Gorpútsen eritásun, beár ta gañaráko miséria direnetán, etzé kontént emáteas limósna bere éskus, bera nai ze emán persónan, ta bere bizia ere bai, zerbitzátzeko beartsuési* (204). **gotik** (EkiHN<sup>^</sup>), **gootik** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), **gustora** (ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: *kontent*

**korputz.** *iz.* Gorputza. Erab. (B, G, GN, Zar, Z, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Erregina D.a Juanak, D. Henriko bigarrenarén ándreak, nai izán zue trasladatu korpútz sandutik beso bát: baña ezin atra zé kapillatik gaitz andi bátek emanik* (188). Ikus *gorputz*. Informazio gehigarria: Lizarragak beldar ahostun eta ahoskabearekin

darabil; ikus bi formen adibideak lerro gutxik banandurik (1994: 188).

EHHA (2128): Amezketeta, Ataun, Beasain, Deba, Hernani, Orexa, Orío, Tolosa, Abaurregaina, Gaintza, Jaurrieta, Oderitz, Urdiain.

Asteasu, Ikaztegieta, Lasarte-A: & gorputz.

OEH: gorputz 1

**kostillezur.** *iz.* Saihets-hezurra.

Erab. (Mb). Idatzizko iturriak+: cf. *kostill ta saiets-ezur* (Mb *IArg* I 182). (EkiHN<sup>^</sup>). *Erori ze lurreán biotzarén palpitázio erru batéki, zein iraundu zión bizi guzian, ta ezin kabituz biótzak petxoarén bárnean, bi kostillezur autxi ta goratu zekízkió* (343). Informazio gehigarria: *kostilla* bilduzen Elkanon eta Garesen eta *kostille* Oltzan eta Goñin; ap. Bon-Ond (140).

AELIE: *kostillezur*

OEH: *kostilla & kostillezur*

**kostu 1.** *iz.* Prezioa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B). *An aurkitu zuén mariñel batéki ajustatu zé eramatekó itsas-bárnean zén peña batéra, ta arára noizean noiz ógi ta ur; ta árbofen arráma zenbáit, zeñéki inen zituen sás-ki ta espórtak, saldurik paga zéien kóstua* (332).

OEH: *kostu*

■ **-en kostus.** *postp.* -en kontura.

Erab. (Cb). (EkiHN). *Jéndeak xakinik peligroa akuditu zué otóies eta negárres, al balezákete deteniázi, naiz berén bizien kóstus* (350).

OEH: KOSTUZ (s.v. *kostu*)

**kozkor.** *iz.* (Pluralean) Puskak, apurrak. Leh. (EkiHN). *Nork ikusi zuén lén karríka gaiétan bera konfesátzen óyus bere bekátuak, tratátzen ero-gisa mutíkoek segítus irri-abárres tirátzen kozkór eta farras-keríes* (147). *Sarzen zé zenbáit etxeetan ez jaterá ta erregalátzera, baizik eskátzera limósna beartsuendáko, errepartítzeko berearéki hospítaleetan, zein bisítatzen baizítue maiz* (147). Informazio gehigarria: *Floreak eta fruituak berzeei, ondarrak ta kozkorak Jangoikoi!* (Sermoiak 2004). *Deabruari, munduari ta aragiari adinaren obena, biziaren floreak ta fruituak, eta gero Jangoikoari ondarrak, kozkorak eta farras-kak?* (Sermoiak 2004).

EHHAREN arabera, *kozkor* landareen kirtinari esateko ere erabiltzen da Baztan eta Erroibarren.

OEH: 1 *koskor* II, 1

**kriatu.** *ad.* Sortu. Erab. (Ax, Cb). (MHN, HHN). *Aingéruak dire Espiritu ditxósoak Jangoikoaren éskus kriátuak laudátzeko*

*bere Majestadea, baitaré guar-datzekó gizagéndeá (138). Ez indárrak, ez gorak, ez berak, ez gauza kriátuek batek ere ez gaizkéla apartarazi (215). Informazio gehigarria: kreatu Iparraldean erabiltzen da. Goi-nafarreraz kriatu dakarte auto-re gehienek xx. mendea arte.*  
 OEH: *kreatu*

**kriazale.** *iz.* Sortzailea. Erab. (MHN, HHN). *Segurátus beti Pantaleónek agérrian zela Kristio, ta adoratzen zuéla sollik Jangoiko guzis poderósoa, zeruarén ta lurrarén Kriazá-lea, eta ez ayén Jangoiko zuréskoak (353).*  
 OEH: *kreatzaile*

**kristale.** *iz.* Beira. Erab. (ErdHN<sup>^</sup>). *Sutilizas paratuko dú ain sutil, ta sutilágo ezi árgia, au nola pasatzen dén kristale batétik, urá pasa daikéla murálla ta mákina séndo lodiéna bárna estorburik gábe, yago ezi boza (538).*  
 OEH: *kristale*

**kristio.** *iz.* Kristaua. Erab. (Mb). (Zar, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Alegatzen dutenái infiélek eta herejeék, badiré-la Kristioetan anitz gaixto, beár da errespondátu baiétz (33). kristau (MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>).*  
 OEH: *girstino*

**kuadratu.** *ad.* Gustatu. Erab. (ErdHN, EkiHN). HN+: *Arto-la1. Milagro gonéki adiarazi zué Jangoikoak, zénbat kua-dratu zékion ayén sakrifizio gúra; eta ánitiz Infiel konbertitu zire fede Kristiorá (550).*  
 OEH: 1 *kuadratu* 1

**kuarto.** *iz.* Laurdena. Hap.  
 OEH: *kuarto* 3

■ **kuarto bat ordu.** Ordu laurden bat. Erab. *Jaikitzen zé gau óro bi orontákoan, eta yá belauri-ko, ya kopeta lurreán paraturik egoten zé orázioan zortziak ár-teo ain zebaturik órtañ, iduri baizékio kuarto bát-ordu (268). Informazio gehigarria: zenba-tzailea izenaren aurretik, *baso bat ur-en* eredura. Cf. *Kuarto bat artho* (Barb *Leg* 130 ap. OEH, s.v. *kuarto* 4)  
 OEH: -*

**kubila.** *iz.* (Animalien) babeslekua. Leh. *Urbildu zé kubila batéra, ta pokaletik asi ze beira bar-nerát, ezin órdea deus ikúsi ilún egónes, zoéie sártus bar-nerát gutibána, gelditus átsa, ta parátus beárria, yá zerbáit senti zén barren gártan (117-118). Ikus leze.*  
 AELIE: *kubila*  
 OEH: 1 *kubil*

**kuidazale.** *iz.* Zaintzailea. Hap. Zer *fabóre eztá emáteá bere pala-*

*zioko Prinzipe glorióso eder gáiek gure guárdia, kuidazále ta aurzaitáko?* (412). Informazio gehigarria: EKcñ Lizarragaren adibideak baino ez daude, eta EHHAn ez da jaso. Eugiko lekukoak -zale darabil. OEH: *kuidatzaile*

**kulpante.** *adj.* Erruduna. Erab. (Ax *kulpant*). Idatzizko iturriak+: *Kulpante* Hegoaldean BBizketik lekukotuta dago (c. 1688). (B). *Biali zúte préso desterraturik konbentu soil batéra. An penitenziaturik kulpánte bekála zégo, ta deshonoraturik, egón ta egón, espéran Jangoikoak atrako zuéla égia* (172). OEH: *kulpante*

**kuna.** *iz.* Sehaska. Leh. (GN, ErdHN, Ae, Zar, Er). *Jaio, ta irugarren ilabétean ikusi zén kúnan bere aurpégia transfiguraturik arrósa-lore eder bátean* (499). ESHA (2304): Abaurregaina, Jaurrieta, Mezkiritz. Eugi, Suarbe -A: *kune* Dorrao -A: *kuba* Beruete, Igoa -A: *kube* OEH: 1 *kuma*

**kuntze.** *iz.* Orbaina, arrastoa. Leh. (EkiHN^). *Despeitzean ándik, oñak frinkaturik iduki zituen arri bátean utzi omen zitue oñen kuntzéak, dirauténak oráño, deitzen dutéla le*

*pas de San Frenin, au dá, S. Ferminen oin kuntzea* (512). *Bidanabár dá emén agéri konserbatu zituéla Jaun dibinoak llágen kúntzeak bulárrean ta esku oñetán edér glorióso, presentatzekó Aita eternoari gure amórez pasatu zuenarén seña-leak ta insigniak* (60). OEH: 1 *kuntze*

**kur-kurra.** *adb.* Makurturik. Hap. *Nola egón ze án, zein postúra nekosoán, ez etzinik, ez jarririk, ez txutirik ere txoil, baizik kur-kurrá loturik peñamutur báti* (48). OEH: GUR-GURRA (s.v. 1 *gur*)

**kurtu.** *ad.* Makurtu. Erab. (BN, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola4. *Apostoluek ordenatuas geros Kredoa, nai dut xakin dezázun, errepetitzen nuéla nik egun óro anitz áldis belauriko kurturik erreberénte* (79). Lizarragarena da *kur-kur* egotea ere, 'makurturik egotea', Aezkoan baliatzen den legez. OEH: *gurtu*

**kutsatu.** *ad.* Kutsatu. Erab. (Ax, Lar). (GN, L, Bzt, EkiHN). *Ikusirik Diszipulo gárren ón onegía erraten zué: "Oná Israelita egiáskoia, ezpaitu idúri*

*kutsatu zéla Adánen bekátuan*”  
(220). **kutsetu** (ErdHN<sup>^</sup>).  
AELIE: -A *kutsu*: ‘contagio’  
OEH: *kutsatu*

**kuxin.** *iz.* Kuxina. Erab. (GN, Bzt, BN, Zar, Er, EkiHN<sup>^</sup>). *Preso in bear zúten bezperaren bézperan in zue améts, sugarretán zególa kuxina, zeintan zeukan búrua erreklinaturik* (124).  
OEH: *kuxin*

## L

**laburkiro.** *adb.* Laburki. Leh. (Lar). *Jesu Kristorén bizi-tzarén história laburkiró; eta berarén Ama Birjina Maria santisimaréna bidanabar* (17). AELIE: -A: *laburki*  
OEH: *laburkiro*

**lakio.** *iz.* Korapilaturiko sokaz eginitiko tranpa edo zepoa. Erab. (Lar, Mb). (B, GN, BN, Z). *Ez-takizu bilo góiek izaten diréla Deabruen lákioak, arrapátze-ko arimak ta eramáteko in-fernúra?* (244).  
OEH: 1 *lakio*

**lamikatu.** *ad.* Miazkatu, milikatu. Erab. (Mb). Idatzizko iturriak+: Ax: *lamiti*. (GN, Zar, Er, EkiHN). *Bota zúzte ba-seiziéi, arzéi ta leonéi, zatika zezkíten; baña ebék zióte erre-berénzia lamikátus oñak* (114). **lamizkatu** (ErdHN<sup>^</sup>), **lamixketu** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *lamikatu*

**landara.** *postp.* Erab. Kanpora (instrumentalarekin) (Lar). (G, GN, L, Bzt, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Orázioan zé bere okupázio prinzipaléna, ta ártas lándara peniténzia, ta guziéi zerbitzátzea neskáto beká-*

*la* (150). **(-s) landa** (MHN, EkiHN).  
OEH: LANDARA (s.v. *landa*)

**langiadura.** *iz.* Ahultasuna. Erab. Idatzizko iturriak+: SP. OEHko adibide guztiak Iparraldekoak dira. *Desmaiatzen zé askotán langiadúra amoróso suabe batéki* (235).  
OEH: *langidura*

**langin.** *iz.* Langilea. Erab. (B, G, L, BN, Z). *Bere kapellának eta zerbitzúkoak bear zire izán bir-tutézkoak irautekóz: eta dámak erretirátu honéstak, langinak, zeñéki enpleatzen zé erregina bera egiten ta bordátzen elizetáko ornamentak* (216).  
OEH: *langin*

**lano.** *iz.* Alorra (?). Hap. *Berze bein aurkitu zúzte idiak bakárrik berak lánoan, niór etzéla agéri kidatzen zituenik, ta anitz lur landu zutela.* (449). Informazio gehigarria: “otra vez sucedió que yéndo unos hombres a buscar a San Isidro a la heredad, no le hallaron, sino sólo a los bueyes uncidos, que estaban por si arando, sin regirles nadie, y habían arado mucha tierra” (FS, 1761: 90). Argi dago ez dela ‘uztarturik’, Franzisko Borjaren pasartean ikus daitekeenez: *Berze bein lánoan bustarturik zebiltzan bi idietáik bát iltzeláik án kánpoan* (269).  
OEH: -

**lanparon.** *iz.* (Pluralean) Lepoan konkorrak ateratzea eragiten duen gaixotasuna. Hap. *Lanparónak zituen bát etorri zékio nai bazué ukitu éskuas: ukitu ta ures eman ordúko sendatu zué* (110).  
OEH: *lanparoi*

**lañu.** *iz.* Hodeia. Leh. (Lar). (GN, ErdHN<sup>^</sup>). *Osgárbi zego zérúa; etzé lañu-mostrarik* (441).  
OEH: *laino*

**lanze.** *iz.* Gertakaria. Erab. (Cb). (B, G, HHN). *Denbora gártan agitu omen zékio lanze gáu: meza erraterákoan, yágo debó-zio naiez, Eliza-peko kapilla barna bátean, erreparatu zué kálizan armiarma beltz itsusi bát* (460).  
OEH: *lantze*

**lar.** *iz.* Larra. Erab. Idatzizko iturriak+: A “cambrón, abrojo”. (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>). *Enperadore Jauna, adi benaza bere oneráko: “Idiki Elizak, ezperén, galduko dá”. Mintzatu zión leku gártan zire lar ta aranzésko sasidi andiak. Enperadoreak asarraturik manatu zué bota zezatela ayetará ero gúra* (428). Informazio gehigarria: “había muchas y muy espesas zarzas y cambroneras; y enojandose Valente mandó arrojar al santo barón en medio de ellas” (FS, 1610 (2): 208).  
OEH: 2 *larre* (?)

**larranzi.** *ad.* Urratu, larrutu. Leh. *Egin béz, Aita, bere ofizioa, puntzátzea ta larranzitzea aránze-gisa; ezi nik arrósagisa kuidatuko dút atxón ona emátea fieléi* (113).  
AELIE: -A: -; -S: *larrutu*  
OEH: *larrantzi*

**larri.** *adj.* (Pertsona) heldua. Erab. (Lar). *Prinzipioan naiz ez aimbérze logaturik persóna larrietáik, baña yago ezi milla aur il zire bataiaturik* (86).  
OEH: *larri* 9

**larritu.** *ad.* Hazi, helduago bilakatu. Erab. (Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (L). *Azi zúte kuidádo al guziaréki: baña desgrazias geienak bekála larritus bekála zoéie lazatus, ta gaixtatus, lagun gaixtoen gaitz kutsusko abasto denareki munduan* (384).  
OEH: *larritu* 2

**larunbat.** *iz.* Larunbata. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Zar, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Astelén, asteazkén, orziláre ta larunbátean etzué txastátzen baizik komunióne sagrátua* (365). **laronbat** (EkiHN).  
OEH: *larunbat*

**lastall.** *iz.* Urria. Leh. (GN, ErdHN<sup>^</sup>). Urteko hamargarren hilabetea. **azaro** (EkiHN). *Lastallaren 9an* (264).  
OEH: *lastail*

**lastalla.** *iz.* Agotz edo lastoz beteriko koltxoia. Leh. (GN). *Goátzea zé lastalla bát agotzes, ta kalamúsko maindireak* (291).

EHHA (1007): Beruete, Donamaria, Etxaleku, Etxarri (Larraun), Igoa, Oderitz, Suarbe, Urdiain -A: *lastall(a)*. -S: *koltxon*.

Dorrao -A: *lastell*. -S: *koltxon*.  
OEH: *lastaira*

**laster.** *adb.* Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, EkiHN). Dialekto+: *gral.* HN+: Elizalde & Urritzola. Berehala. *Baña konfessoreén konséjus, ta bere experiéncia próprios itzuli ze lastér oráziorá, naiz ez ain lastér ústu arrás inperfékzio guzietáik* (271).

OEH: *laster*

**laster egin.** *ad. esap.* Korrika, arinetan joan. Erab. (Ax, Lar, Cb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: *vs korrika egin, leixter, laister...* *Portuan zeudenék aiturik bérria, lastér egin zúte etxola gartára eta deboziosko negarréki errebestiturik* (86).

**lasterrin** (ErdHN<sup>^</sup>), **laister in** (ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: LASTER EGIN (s.v. *laster*)

**lasterka.** *adb.* Korrika. Erab. (G, Bzt, BN, Z, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Jendeak xakinik agi-*

*tzen zéna, joan zire guziák lastérka, gizón, emastéki, gáste, zar, póbreak ta abrásak armaturik nola zukéten, librátzeko berén Artzáia otso gárrren aztaparretáik* (349). *Ikus karreraka.*

OEH: *lasterka*

**laudario.** *iz.* Laudorioa. Erab. (Mb). (G, GN, Bzt). HN+: MHN *lauda*. *S. Damaso Aita Sandu español izának ematen tio graziak ta laudáριοak osasun logratu zuénas bera zela medio* (387).

OEH: *laudorio*

**laur.** *zenbatz.* Lau. Erab. (Ax, Lar, Mb). (GN, L, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Bere Seme Jaun Jesu Kristo ilas géros, bizitu zituénak izan zire ogei ta bat urte, laur ilabéte ta emerétzi egún* (68).

OEH: *lau*

**laurazka.** *adb.* Lauoinka, zaldiaik lasterka, trostan baino azkarra-go. Erab. (Zar). *Igán ze Franzeséi kendurikáko bior bátean; eta urbildu zeláik, sentiturik animáleak bere lekúko airea, emán zio lasterrái laurázka, ta bota zué peña bátzuen kóntra* (418).

AELIE: -A: -; -S: *laukoan, galopean*

OEH: *lauhazka*



**lauretan ogei.** *zenbatz.* Laurogei. Erab. (Ax). (GN, Bzt, Z, EkiHN). Dialekto+: Batez ere Iparraldeko tradizioan. *Laurogei*-rekin batera, baina pixkanaka nagusituko da xx. mendean ia forma bakarra izan arte. *Azkeneán zitueláik yá lauretan ogei ta amasei urte, ta Obispo izanik iruogéi ta amalaur, itzuli zio Jangoikoai bere arima Kristorén 545.an* (260). **laue-tanogei** (ErdHN<sup>^</sup>), **lautanogei** (ErdHN<sup>^</sup>), **lauogei** (ErdHN<sup>^</sup>). Ikus *irurogeita amar*. Informazio gehigarria: baina ez *hiruretan hogei*.  
AELIE: -A: *lautanogei*  
OEH: LAURETAN HOGEI (s.v. *lau*)

**lazardura.** *iz.* Laxatzea, lasaiera. Hap. *Au dá Babiloniako ta Adanen humeén engañua, prokuratzen baitute billátzea zabal edo lazadúrak légean nork bere estádoan* (78). Informazio gehigarria: “este es el engaño de los hijos de Babilonia y de Adan, que procuran en sus obras buscar ensanches de la ley de Dios, cada uno en su estado” (Ag5: 342).  
AELIE: *lazardura*  
OEH: *laxadura*

**lazatu.** *ad.* Askatu. Erab. (B, G, L, Bzt, Zar, Z, Er). *Paraturik berriro karzeleán, agertu zire án árgi zerúkoak, ta lazatu zire*

*lotzáki guziak* (284). **laxatu** (HHN), **laxtu** (EkiHN).  
OEH: *laxatu*

**lazo.** *adj.* Arduragabea. Erab. (Ax). (L, Bzt, BN, Er, EkiHN). *Izán ze berarén Diszipulo, berak azi zuéna ta berak ordenátu: baña dignidáde berriaréki obetu beárrean banatu zé, ta mundukói dibertitua, erregalátua, lázoa egin zé* (299).  
OEH: 1 *laxo*

**lego.** *iz.* Legoa, apaiztu ez den erlijio-ordena bateko kidea. Erab. (Lar, Mb). *Aipaturik S. Isidro Nekazári pobrearén bizitza, etxeke zógun S. Felix Kantalizio kaputxino lego pobre berze Nekazari báten humearéna* (188).  
OEH: *lego* & FRAIDE LEGO (s.v. *fraide*)

**leitu.** *ad.* Irakurri. Erab. (Ax, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar *leatu* (s.v. “leer”). (B, G, GN, L, BN, Z, MHN, HHN, EkiHN). *Au eskribitu zué S. Athanasiok, ta eskribitu zuéna eraman zue Romará, non admiratu zire leitu zúten guziak, eta anitz oneratu zire* (387).  
OEH: *leitu*

**lekeda.** *iz.* Kola, itsasteko erabiltzen den gai likatsua. Erab. (Ax, Lar). Idatzizko iturriak+: SP. (L, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>). *Deteni-*

*tzen ta gibelatzen zué bizioen kostunbrearén lékedak ta pri-sione gisa gárrek (242).*

OEH: *lekeda*

**lekoa.** *iz.* Lekoa. Erab. (Lar). (L).

*Itzuli zé, baña gelditu zé erri bátean bizpirur lékoa apárt zitudadetik (299).*

OEH: *legoa*

**leku.** *iz.* Lekua. Erab. (Lar). (B,

G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: *gral. Ba-zoéie Jesus óna bere Aposto-luéki orazioarén lekurá, baizé Gethsemani deitzen zén ba-ratze bát Oliveteko oyanarén saiétsean (44). Ikus toki.*

OEH: *leku*

**lekukide.** *iz.* Herritarra, herrikidea.

Erab. (GN). *Sandu bát andia, gure lekukidea, Nafartarra, Nafarroarén hónra, glória ta sendagállá dá S. Franzisko Xabier (83).*

OEH: *lekukide*

**lenbiziko.** *zenbatz.* Lehenbizikoa.

Erab. (Lar). Idatzizko iturriak+: Ax *-he-*. (G, GN, L, Bzt, Zar, MHN, HHN, ErdHN). *Irur gauza diréla medio, lenbizikoa orazioarén ta sakramentuen úsoa; bigarrena persekuzióne sufrizea; ta irugarrena obedienziarén perfékzioa (522).*

**lemeziko** (EkiHN), **lemix(i)ko**

(ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>), **lenbeziko** (MHN), **lenbiziko** (EkiHN), **lendabiziko** (MHN, HHN, ErdHN), **limix(i)ko** (ErdHN<sup>^</sup>), **limizi** (ErdHN<sup>^</sup>). Ikus *leneko*.

OEH: LEHENBIZIKO (s.v. *lehenbizi*).

■ **len-lenbiziko.** *iz.* Erab. *Agitz zé aplikátua estudiorá ta báteo ain óna ta onéra emána, ezi lén-lenbizikoa jaikitzen zé goi-zetán (494).*

OEH: LEHEN-LEHENBIZI-KO (s.v. *lehenbizi*)

**lenean.** *adb.* Aurrean, aitzinean,

lehen lekuan. Leh. (GN, HHN). HN+: *Tratado. Ikusarazi zió ala nola kanpo bát, nón alde batétik zegon tropa andi bát, lénean Luzifer Kapitán bekála; berze aldétik berze tropa bát, lénean Jesu Kristo; eta bi trópak elkárren kontra peléan (486).*

OEH: LEHENEAN a) (s.v. *lehen*)

■ **len-lenean.** *adb.* Leh. *Anitz tra-bajatu zué, akaba zéien óngi Trentoko Konzilio generála, ta geró kunpli zéien ártan ordenatu zén guzia: ta bera lén-leneán paratu zé kidári ta exén-plu (291).*

OEH: LEHEN-LEHENEAN (s.v. *lehen*)

**leneko 1.** *adj.* Lehenagokoa, lehen-  
goa. Erab. (Mb). Idatzizko  
iturriak+: Ax *leheneko*. (B, G,  
GN, HHN, ErdHN). Dialek-  
to+: B agerpen bakarra: Añiba-  
rro G<sup>G</sup>ero. *Berze Apostoluen  
ta Diszipulo gáien ondorén-  
goak dire Obispoak, Apez-Ai-  
tak eta Sazerdóteak, nor bere  
grádoan: Kristio gáien on-  
doréngoak Kristio oraikoak,  
lenékoak ta gerókoak* (62). **len-  
go** (ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: *leheneko 1*

**2.** *zenbatz.* Lehendabizikoa, aurre-  
nekoa. Erab. *Ellegaturik bo-  
da-egúna, guziák alégre féstas;  
sollik Zezilia triste zégo, ta  
nigárti; eta leneko irur egúnak  
pasatu zitue bárú peniténzian*  
(547). Ikus *lendabiziko*.

OEH: *leheneko 2*

**lenijaio.** *adj.* Premua. Erab. (Lar,  
Cb). *Marzion gúra aurkiturik  
bein karrikan, saiestu zé San-  
dua etzióla nai beirátu ére.  
Goarturik hereje alkegábeak  
galdegin zio: “Ezauntzen nau-  
zu?” Errespondatu zió: “Bai  
ezauntzen dut Deabruaren  
hume lenijáioa”* (396). Ikus *le-  
nikjaio*. Informazio gehigarria:  
litekeena da Larramendiri har-  
turiko hitza izatea.

OEH: LEHENIK JAIO (s.v.  
*lehenik*)

**lenik jaio.** *adj.* Premua. Leh. *Ber-  
ze lege bát ere bazúte, pre-  
sentátzeko ténploan séme lenik  
jáioa, ta ofrátus án bi usakúme  
edo usatórtola zerbait mone-  
daéki, alá erreskatátzea bere  
seme gúra.* (28). Ikus *hume  
lenbiziko*. Informazio gehiga-  
rria: Larramendik proposatu-  
tako *lenijaio* neologismoaren  
azpian datzana berreskuratu  
zuten hala Lizarragak nola  
Añibarrok.

OEH: LEHENIK JAIO (s.v.  
*lehenik*)

**leor 1.** *iz.* Lehorra, lurra (*itsaso*-ren  
aurrez aurre). Erab. (Ax, Lar,  
Cb, Mb). (B, G, GN). *Orgátik  
eraman zúte Romará; ta joán  
ze Apostolua itsásos ta leó-  
rres bide luze bát, eraikis gu-  
ziá milágras* (477). Informazio  
gehigarria: Larramendik (s.v.  
*seco*) *sikua, leorra, idorra,  
agorra, leihorra, elkorra, si-  
katua* eta *leortua* ematen ditu.  
OEHren arabera, zaraitzueraz  
erabiltzen da *ear* ‘seco’. Hego-  
nafarreraz ere ibiltzen da *ear*;  
*eiartu* aldaerarekin batera. Li-  
zarragak *ear; idor; seko* eta *leor*  
darabiltza. Lehena ahozkotik  
heldu da ziurrenik, hego-nafa-  
rrezko corpusak hala erakus-  
ten baitu, eta berdin gertatzen  
zaio *idor* hitzari ere. Bonapar-  
tek *seko* eta *sekatu* jaso zituen  
(Ondarra, 1982: 160) hego-  
nafarreraz, eta *txukatu* aldaera  
ibiltzen da ekialdeko hego-na-

farreraz. Gure corpusean *lehor* ere ageri da, baina Lizarragak aurreko hiru hitz eta aldaerak pertsona edo objektu ororen egoerari erreferentzia egiteko badarabiltza ere, *lehor*; berriz, lurrari (*leorrear*, *leorretik*...) edo haren egoerari erreferentzia egiteko darabil soilik. Hego-nafarreraz daukagun agerpen bakarrak, ordea, ez dio lurrari erreferentziarik egiten: *alík eta leortu arte Jangoikoaren iturri miserikordiakoak* (Satrustegi, 1987: 67).  
OEH: *lehor*

2. *adj.* Lehorra, idorra. Leh. (G, GN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Egin zúte ta berealá itsasoko úrak erre-tiratu zíre barnerát lekóa bát bide utzirik leór edo seko lúrra* (307). Ikus *ear*, *idor*, *seko*.  
OEH: *leor*

**leze.** *iz.* Leizea. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Bilarazirik anitz serpiénte, súge, bibora ta animále benenátu, ta guziák sarturik zulo edo leze bátean, manatu zué botatzekó barnerá Sándá* (257). Informazio gehigarria: EHHAn ‘sima’ eta ‘cueva’ mapetan ageri da.  
OEH: *leize*

**libru.** *iz.* Liburua. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN). Dialek-

to+: XIX. mendean ohikoagoa Hegoaldeko autoreen artean. HN+: Artola4. *Bere kárta ánitiz ta ánitiz eskribitues lándara, eskribitu zué libru bát konfessoreén manamendus, kontátus bere bizia ta Jangoikoaren komunikázio ta fabóre eginak* (528-529). **liburu** (MHN).  
OEH: *liburu*

**ligu.** *iz.* Lihoa. Leh. (GN, Zar, ErdHN, EkiHN). HN+: ErdHN *ligugende. Ta etzeizen egón alfèr, eramaten zióte Merkatárien etxeetáik élle, ligu, ziriku, mise ta gauza, trabajatzekó* (421). **ligo** (EkiHN).  
OEH: *liho*

**liluratu.** *ad.* Zorabiatu. Leh. (GN). *Ibiltzearéki erruédak inguraká zoézin érres ta pizpildus, edo buruak lilura zeizen* (302).  
OEH: *liluratu*

**lixtukatu.** *ad.* Tu egin, listua bota. Leh. (GN). *Ori eginik, ta ikusirik sandak Jangoiko fálsuen imájina zeuzkiénak án Aitak, lastimátus aláko itsutasúnas, lixtukátu ta ostikatu zitue guziák, zióla: “Zuén gisará biz adoratzen zeizténak Jangoikotáko”* (92).  
OEH: *listukatu*

**loi.** *iz.* Lokatza, istila, basa. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er,

ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+:  
 gral. *Obén-obeneán zoro zebilalaik karrika nausian karreraká, erori zé bat-bátean bere zaldiaréki aintzira, loi ta ongarri zeiken andieneán, non guziá funditurik oñetáik bururáño, yá etzé gala errestorik, baizik inmundizia* (429).

OEH: *lohi* I, 1

**loi ore.** *iz.* Buztinezko orea. Erab. *Aldare-alzinean zego arri andi bát, zein sanduak oñés ukitu zuenekó beraxtu zé nola balitz loi oreáskoá, de manéra ezi artan gelditu zire señalaturik oñen kúntzeak* (285). Informazio gehigarria: Tartasen lanean *lohi* eta *orhe* elkarrekin ageri dira: *Iaunak thu eta lurrez egin du lohi bat, orhe bat, lohi eta orhe hartaz itsu haren begiak sendotu* (Onsa 85). OEHN (s.v. 1 *ore*) badira lohia eta orea lotzen duten adibide gehiago: *Lur piska bat eskuan artu, istua bota eta orea egin zuen* (Lard 414); *egin zuen beraz gizona lurraren orhetik* (Dv Gen 2, 7)...

OEH: LOHI-ORE (s.v. *lohi*)

**loizu.** *adj.* Lohitsua. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: Lar, Mb, Ax: *lo(h)itsu. Orduán zé arbolédi edo sasidi itsu bát erreka edo bálsa loizu batéki, léku propía ladronendáko, errobatzen baizúzte pausu*

*gaixto gaietán ásko peregrino pasátzean Santiagorá* (183). Informazio gehigarria: *loizu* toponimian bakarrik lekukotu da Lizarragaz gainera.

OEH: *lohitsu*

**lokartu.** *ad.* Lokartu. Erab. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ezin errenditu zutelaik ez meatxus, ta ez loxéntxus, utzi zúte kalabozo batean penaraztekó ango arri ta tella-puska barratu zuztenéki, ezin errepausa, ezin lokartu zeiken gisan* (386). Ikus *lokumatu*.

OEH: *lokartu*

**lokumatu.** *ad.* Logaletu, lokartzen hasi. Erab. *Joán ze S. Inesen obiará sendatu náies. Orázioan zegoláik án lokumatu zé, ta aditu zué sanda erraten zióla: "Porta zaite konstanteki, Konstanzia"* (122). Ikus *lokartu*.

OEH: *lokumatu*

**loredi.** *iz.* Lorategia. Leh. *Itxeiki zé; egin ze hogéra andi bát, gora sugárta bam-bam-bam. Sanda érdian ain libre, segúro, alégre, nola balégo aize ártzen jardin edo lorédi bátean* (99).

OEH: *loredi*

**loriga.** *iz.* Lorika, burdinazko bularrekoa. Leh. (Lar *lorika*, etim. *loarika*). *Mónjeak deiturik arótz edo zerrajari bát*

*inarazi zió loriga edo peto bát burriñaskoa bere lotzáki burriñaskoéki, ta zetorréla egun artáko etxola gartára (330). Ikus xupon.*  
 OEH: *lorika*

**lotsagarriri.** *adb.* Beldurgarriro. Hap. *Eta sandak manátus zoeiéla ándik, asi ze ortós-oñasturkétan lotsagarriró, xautsirik suak zerutik erre zitue sazerdóteak, ta erraustu tenplo gúra (127).*  
 OEH: *lotsagarriri*

**lotsakor.** *adj.* Beldurtia. Leh. (B, G, L, BN, Z). *Eta ziérto nekéz aurkituko dá Sandu edo Sanda ain baliénte, animóso denik eramáteko trabájuak, gaitzak, eriótzeak; eta báteo ain beldúrti, lotsakór denik bekatuarén idúrias ere, itzálas ere (272).*  
 OEH: *lotsakor 1*

**lotsamentura.** *iz.* Beldurra, ikara. Hap. *Berarén denbóran etorri ze Maximo Tiranoa tropa andiéki; guziá zé lotsamentura: guziák eskapatu náiak (95).*  
 OEH: *lotsamentura*

**lotsarritu.** *ad.* Izutu, izuarazi. Hap. *Baña derepénte sugar bátek inguratu zué kátedra, non zegon jarririk; jaiki bai jaiki lotsarriturik, egin zió sanduarí erreberenzia eta eskatzén zuen*

*guziá (297). Eta infiélek estórba etzezatén debozio gúra, lotsarritu zitue Jangoikoaren terremóto, ortóts ta oñaztureki (122).*  
 OEH: *lotsarritu*

**lotsatu.** *ad.* Beldurtu. Erab. (Cb). Idatzizko iturriak+: Mb ‘ahalkea’, Cb ‘beldurra & ahalkea’. (GN, L, BN, Z, Er, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola4. *Errán ta desaparezitu zé: baña gelditu zé an aláko erresplandóre-gisa, ezi heriak lotsatu zire ustéz erretzen zen etxea (146).*  
 OEH: *lotsatu 1*

**lotzaki.** *iz.* Lokarria. Erab. Idatzizko iturriak+: SP. (B, GN). HN+: Artola 4. *Bera dá ene atzétik etorriko déna, ni baño yago déna, zeñen oñetákoen lotzákia lazátzekó ezpaináiz digno ní (207).* **ugal** (ErdHN, EkiHN). Informazio gehigarria: lokarriari egiten dio erreferentzia eta ez korapiloari, San Juanen ebanjelioan gaztelaniaz “correa del zapato” esaten du eta. EHHk ez dakar ekialdeko hizkeretan, baina EKCn Lizarragaz gain, Pouvreau, Xurio eta Zabala agertzen dira forma bera erabiliz; *lotzaiki* formarekin Eguzkitza soilik. EHHA (1865): Kortezubi, Aramaio -A: *lotzaiki*. Zornotza -A: *lotzikin*

Azpeitia -A: *lotziki*

AELIE: *lotzaki*

OEH: *lotzaki*

**loxentxu.** *iz.* Losintxa, lausengua.

Erab. *Asi zékio loxéntxus ta  
laudários mintátus amoltsuki,  
etzeiéla útzi galtzerá aláko  
gizóna, in zezóla plazér adorá-  
tzeas ayén Jangoikoak, bera  
izanen zuéla fabore Aita bekála  
(168). lositxa (HHN).*

AELIE: -A: -; -S: *zuritu*

OEH: *losentxa*

## M

**madarikatu.** *ad.* Madarikatu. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, L, Bzt, BN, HHN, EkiHN). *Errege urdea exkomekatu ta madarikatu zue* (448).  
AELIE: -A: (*infernuko*) *madariketu*  
OEH: *madarikatu*

**magi.** *iz.* Magina, ezpata zorroa. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax “-n”. (MHN). *S. Pedrok Jaunari zión amorearén suaréki tiratu zió ezpátas atrebitu gárrri, ta ebaki zió bearri bát, zein ukitus istántean sendatu zión Jesus onak, ta S. Pedrori errán zio: “Itzulázu ezpata góí bere magirá”* (212).  
OEH: *magina*

**maiatz.** *iz.* Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. Maiatza. **meatz** (EkiHN). *Maiatzaren 18an* (188).  
OEH: *maiatz*

**maindre.** *iz.* Maindirea, izara. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar, Mb *maindire*. (GN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Emanik lizenzia, prebenitu zué Nikodemuséki beár zen guzia: maindreak, oyálak*

*ta aróma usatzen zirénak orzitzekó honratukí* (57). **maintre** (ErdHN<sup>^</sup>), **larri** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *maindire*

**maingi.** *adj.* Maingua, elbarri-tua, (ziurrenik) herrena. Hap. (G, GN). *Bildu zitue munduko pobre, maldér, estropeátu, maingi, itsu ta aláko al zúzken guziak* (232). *Berze batzúk uzten zitue itsu, maingi, heri ta maldér, sinestarázis berén kulpak zirela kausa* (241). Ikus *mainku*. Informazio gehigarria: Adibideak objektiboki argiak ez izan arren (orduko erlijio testuak ezaguturik aski argiak dira, ostera), uste dugu ‘herren’ adiera egiantzekoagoa dela. Jatorrizkoa ere ez da argia: “Cegaba a unos, mancaba a otros, y poniales impedimentos en sus miembros y atormentábalos con dolores” (FS, 1761: 590), zeren *mancar* ‘elbarritu’ baita (eta hemendik dator euskaraz maileruak duen adiera bikoitza), baina, esanguratsuki, Aezkoan *maingu* eta *maingutu* hankekin lotzen dira, besoarekin ez.  
AELIE: -A: -; -S: *eskumankarra*  
OEH: *maingu* 1 & 2

**mainku.** *adj.* Besamotza. Erab. (Cb). *Bi aldis autxi zióte besoa, gelditu baize mainku batétik* (272). Ikus *maingi*.  
OEH: *maingu* 2



**maiolatu.** *ad.* Pixoihaletan bildu. Leh. (Bzt). Dialekto+: B ap. Izeta. *Ebanjelioak dióna dá, oyaletán inguratu zuéla edo “mayolátu” dioténa, ta erreklinatu ganbéla bátean, zerén etzén berze goatzerik edo kunarík leku gártan (559).*

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *maiolatu*

**1 maiz.** *adb.* Maiz, askotan. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Sarzen zé zenbáit etxeetan ez jaterá ta erregalátzera, baizik eskátzera limósna bearsuendáko, errepartitzeko berearéki hospitaleetan, zein bisitatzen baizitue maiz (147).*

OEH: 1 *maiz*

**2 maiz.** *iz.* Artoa. Erab. (Lar, Mb). (GN). *Elizen bisitátzean, basérrri pobreetán zué bere gústoá, etzeláik aurkitzen ez ogirik ere, kontént kastáñas, maizas edo basalores (292). Korte gártan, izánik gerra-denbóra, ezin lo-gratu zué baizik desprézio ta eskárnio, tiratzen ziotéla áza ta máiza kozkórres (87).*

OEH: 2 *maiz*

**makilukaldi.** *iz.* Makilkada. Leh. (Mb). (BN, ErdHN, EkiHN). *Ayéik ikusi zuzteláik berén Jangoiko gátek alá deseginik, eman zúte arren kóntra arríka,*

*ta makilukáldis golpaturik ten-turik gábe utzi zúte iltzát (151).*

AELIE: -A: *altzurrukaldi*

OEH: *makilukaldi*

**makur 1.** *adj.* Okerra, gaiztoa. Erab. (Ax, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: B ap. A. Gaiztoa. *Kontra goratu zé makur bát deitua Pierleon, zituéna bere ayaldékoak (407).*

OEH: *makur I, 1*

**2.** *adb.* Oker, gaizki. Erab. (Ax, Mb). (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Baña gógoa Jangoikoan ta alá abisaturik errespondatzen zué makúr; ta adbertiturik fálda, errespondatzen zué naiago zuéla tónto iduritu, ezi denbóra gáldu plátika inpertienteetan (522).*

AELIE: *makur*

OEH: *makur II, 1*

**makurtu.** *ad.* Okertu, desbideratu. Erab. (Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (B, GN, L). Dialekto+: L ap. A. *Ebek biók makurtu ziréla zuzen-bidetik, nola baizeude ain usátuak gaizkian (225).*

OEH: *makurtu 2*

**malder.** *adj.* Ezindua (?). Hap. *Bérzea, zángo ónak izánes, zebila zalúu, ta sándua zángo batétik maldér zoéie segitus neketán (143). Berze batzúk uzten zitue itsu, maingi, heri ta maldér,*

*sinestarázis berén kulpak zirela kausa* (241). Informazio gehigarria: Azkuek “desvalido, desamparado” itzuli zuen Lizarragak bakarrik dakarren hitz hau. Ez dakigu Aezkoan erabiltzen den *alderka-malderka* ‘aldaroka’ esapidearekin ez ote duen loturarik.

AELIE: -A: -; -S: *baldar*

OEH: *malder*

**manatu.** *ad.* Agindu. Erab. (Ax, Lar, Mb). (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Ebatsi zióte lagúnek; eta Kapitának asárre manatu zué urka zezátela án arbole batétik* (144). *Yago asarraturik manatu zióte mutiléi, akaba zezátela án* (146). *Suturik berriró Presidéntek manatu zitue bi gizón temenário azkárak, burriñásko txarrantxa batzuéki arraska zezótela gorpútz guzía* (92). Informazio gehigarria: OEHK dio autore zaharrenek bietara erabiltzen dutela objektu pertsonala age-rian denean: forma bipertsonal zein tripertsonal iragankorrez, eta pixkanaka bipertsonalak desagertuz doazela xx. mendean ia guztiz desagertu arte. Lizarragak ere bietakoak ditu, adibideetan islatu dugunez.

OEH: 1 *manatu* I, 1

**manda.** *iz.* Dohaintza. Erab. (Mb).

*Bisione bátean obligatu zué meátxus D.a Maria Remesal pagatzerá manda bát ofrezitu zuéna S. Isidororén kanonizazioarén* (188). Informazio gehigarria: FS: “prometió [...] que [...] daría cierta cantidad de dinero para ayuda de su canonización” (1688: 185).

OEH: *manda*

**maneatu.** *ad.* Maneiatu, zuzendu, gidatu,. Erab. Idatzizko iturriak+: Mb eta Cb ‘prestatu’ zentzuan. (GN, HHN). *Jangoikoaren espírituak erakutsi zió nola maneátu arima azkár ta erikórrak: emán zio jenioarén grázia suábe amoroso bát, akomodatzekó guziéri bear bekála* (239). Informazio gehigarria: EHHAn *maneatu* ‘janaria konpondu’ edo ‘apaindu’ adieran jaso da bakarrik; hots, gatza etab. botatzeari nola esaten zaion.

OEH: *maneiatu* 1

**marraka.** *iz.* Ardien, ahuntzen eta kidekoen orroa. Erab. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN). *Nekaturik yá artu zué soñetán; baña auntzak marrákas ta buldúrka iten zió: guziák irri* (101).

AELIE: *marraka*

OEH: 1 *marraka*

**marranko.** *adj.* Ia ahotsik gabe, ahots latzarekin, marrantaturik. Hap. *Zué arrék boza on bát, ta órtas banidáde. Zer agitu zé? Sandarén orazioaréki urá gel-ditu zé marránko bozarik gábe* (165). **marranta** (EkiHN<sup>^</sup>), **parranta** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: nahiko hedadura zabala dauka *marranka* aldaerak; aldiz, *marranko*-k Lizarragaren idazlanetan bakarrik dago, eta halaxe gertatzen zaio *marrankotasun*-i ere. Ibarrrak *marrantatu*. ESHA (2415): Etxaleku, Igoa -A: *marrankatu*. Alkotz -A: *marrankatuik*. -S: *ronko*. Beruete -A: *marrankatu*. -S: *ronkera*. Donamaria -A: *marrankatu*. -S: *eztarri arrunt zerratu*. Etxarri (Larraun) -A: *marrankatu, marranka*. Mezkiritz -A: *marranka*. Oderitz -A: *marrankatu, marrankatuik, marrankatueik, marrankatuta*. Suarbe -A: *marrankatuik*. -S: *ronkatuik*. Zilbeti -A: *marrankatuik*. AELIE: -A: *marrankatu*. OEH: *marranko*

**marro.** *iz.* Orroa. Erab. (G, GN). *Arriturik Jueza etzekiela zer egin, zego kóleras nola leon bát márroa egiten abúña zerió-la agotik ta begietáik súa, ikusirik garaitua zela donzella fla-*

*ka batengánik* (99). Informazio gehigarria: AELIEn behien orroari esateko erabiltzen dela jaso dugu lekuko batengandik. AELIE: -A: (m)orro. OEH: *marru*

**martxo.** *iz.* Martxoa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Z, Er, ErdHN, EkiHN). *Martxoaren 27an* (158). OEH: *martxo*

**matela.** *iz.* Masaila. Erab. (Lar). (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Paje bátek emán zio bofetada bát maté-lean; eta sánduak kontént itzuli zió berze matéla, eman zezón ártan ere* (100). OEH: *matela*

**matsoko.** *iz.* Mahats-mordoa. Leh. (GN, Bzt, Zar, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ikusi zué malda bá-tean matsoko bát dilindan, ori neguarén érruan; artu zué Jangoikoaren erregálo bekála, eta kalkátus éskuas bota zió ágo barnerá arren zúmoa edo likó-rea* (115). OEH: *mahatsoko*

**maxter.** *iz.* Maizterra. Erab. (Lar). (G, Bzt). *Sosegatu zé Nagúsia ikusirik bere maxterrarén óna: baña ikusi náies zer garáiez asten zén lanean, zego altxaturik án urbil* (185). Ikus *etxamaxter*.

AELIE: *maxter*

OEH: *maizter*

**mear.** *adj.* Meharra, estua. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola2. *Ikusirik konfesóreak, ta txanzáz erranik, zabalégi zela, bearko zéla ertxitu yágo, errespondatu zió: “Iduri bazáio ere meár zelda gáu, badá leku ene Espóso Jaunarén ta enétako abás-to”* (245).

OEH: *mehar*

**mendekatu.** *ad.* Mendekatu. Erab. (Ax). Idatzizko iturriak+: SP. (GN, L, BN, Z, Er, MHN, HHN, EkiHN). Dialekto+: Batez ere Iparraldean eta Nafarroa Garaian. *Elizako heredajeés ta gauzes jabeturik zeudénak obligatu zitue itzultzerá bérea Elizari; ta nola ezpaize goxo, artu zióte oposizio ta nai zúte mendekátu* (460).

OEH: *mendekatu*

**mendortz.** *iz.* Egunsentia. Erab. *Nola iruzki gárren mendórtz edo auróra edérta* (17-18). Informazio gehigarria: *argias-te* bildu zen Gares, Oltza eta Goñin; ap. Bon-Ond 138.

OEH: *mendortz*

**mendre.** *adj.* Txikia, ahula. Erab. (Lar). (GN, L, Bzt, BN, Z, ErdHN<sup>^</sup>). *Prióreak ikusirik ain*

*txipitto méndre, galdegin zio yá zer estudiatzen zuén: errespodatu zió ezi dretxo kanonikoa* (182).

OEH: *mendre*

**mene.** *adj.* Apala. Hap. (B, G, GN, Bzt). *Erreljioso eginik, berealá asi zé nekazálgo espirituálean, kastigátus érru gorpútza, mortifikátus pasióneak, humillátus bere búrua, garaitus tentázioak, obeditus guziéi ta zerbitzátus guzién meneéna balitz bekála* (188). Informazio gehigarria: “a todos servía con alegría y caridad, reputándose inferior” (FS, 1761: 119). Larramendik behin (Menbibururen *JBDev*-i egin zion gutunean) *gizon zuhur; zintzo, meneak eta jakintsuak* idatzi zuen, baina agian kontrako adieran erabili zuen, hau da, ‘boteretsua’ adieran: cf. HHn “autoridad”, “jurisdicción, poder sobre otro”, “mando, poder, imperio” (adiera honetaz ik. OEH s.v. 1 *men*, non ez da goen jasota Larramendiren erabilera hau).

OEH: 3 *men*

**meneko.** *iz.* Mendekoa, menpekoa (posesiboaren edo genitiboaren ondoren). Erab. (Lar). *Ene erregetasúna ezta mundu gontákoa edo mundukoén gisarákoa; ezi alákoa balitz, ene menekoék defendatuko nindú-*

*te, ez usteko Judioén eskuetán* (49). Informazio gehigarria: oro har *meneko* Leizarraga-gandik hasita Iparraldean eta Nafarroan erabilia, badirudi Larramendiren eraginez hedatu zela Bizkai-Gipuzkoetako testutara.

OEH: *meneko* II

**merexi izan.** *ad.* Merezi izan. Erab. (L, Bazt, BN, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN). *Ain barne-tik eta sendokí zé humila, ezi inférnuá ere uste zué guti zela berak merexi zuenarendáko* (272-273). **merexi** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>), **merezi** (HHN, ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: *merezi izan*

**merendu.** *iz.* Askaria. Leh. (G, GN, ErdHN, EkiHN). HN+: Arto-la4. *Aurréi berak erakusten zitióte orázio ikasi zituénak ta obéki errespondatzen zutenendáko guardatzen zué bere almórzua ta meréndua; eta zenbáit áldis itzultzen zé tresenaik gábe pobrettoéi emanik* (326).

EHHA (1990): Alkotz, Aniz, Lekaroz, Mezkitz.

OEH: *merendu*

**merkatari.** *iz.* Merkataria. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Zar, HHN). *Bitárteo Merkatarri bátek urrúti Sizilian karga-*

*tu zué onzi bát gari saltzekó Españán* (94).

OEH: *merkatari*

**mertxede.** *iz.* Mesedea. Erab. (Lar). (G, GN, L, Bzt, BN, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Min-tzatu zé soldadoéki bozka-riúndes erraten ziotéla: “Oná emén daukáte Longinos, ni naiz; paga bezáte ostátua emánes niri eriótzea, baita in da-kidáken mertxederik obéna ta medioa logratzeko nik koróna etérnoa”* (151).

OEH: *mesede*

**mi.** *iz.* Mihia, mingaina. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: *-h-*. (G, GN, Zar, Er, HHN, ErdHN, EkiHN). *Nork adiarázi mi sandu gárren mintzaéra dibino gúra, zeñéki edo konbertitzen edo konbenzitzen zituen guziac?* (215).

EHHA (2100): Arbizu, Dorrao, Jaurrieta, Mezkitz, Urdiain, Zilbeti, Sara, Senpere, Uztaritze, Aldude, Garrúze.

Eugi -A: *mie*

OEH: *mihí*

**mintzatu.** *ad.* Mintzatu. Erab. (Ax, Lar, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola3. *Mogiturik karidádeas S. Leon, armaturik orázios, konfiánzas ta Jangoikoaren espírituas atrá ze biderá, ta ellegaturik arren*

*presenzian mintzatu zió ain grábe, prudénte, ta propikí, ezi beraxtu zé barbaro gúra* (164).  
AELIE: -A: -; -S: yolastu  
OEH: *mintzatu*

**mintzo.** *iz.* Hizkuntza. Erab. (Lar). (Zar, Er). *Mintzo gisa bátez predikátus entendatzen zúte nazióne ta mintzo diferentetakoék berén mintzo gisan* (200).  
OEH: *mintzo* 3 & 5

**miragarri.** *iz.* Miraria. Erab. *Aláko miragárriak iten zitue Jangoikoak sanduarén amórez, zerén sánduak amatzen zuén bera sinéz* (185). Informazio gehigarria: FS-n *maravilla* ageri da (1688: 181).  
OEH: *miragarri* 3

**mogitu 1.** *ad.* Mugitu. Erab. (Cb). (B, G, GN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Eta jéndeá goratu zé, bear zutéla érre bizirik. Bildu zúte egúr-abár frángo: nai zúte josi itzeéki, etzéien mógi. Sánduak errán zue: “Eztá zerén, ezi uste dút ez naizela mogitúko, naiz erre-pispildurik”* (125). **moitu** (EkiHN).  
OEH: 1 *mugitu* 1

**2.** *ad.* Bultzatu (zerbait egitera). Leh. *Ezin emán zio S. Domingok, ez izánes áski oráño, alik etá Jangoikoak mogitu zuén S. Jazinto ta bere lagún zenbáit*

*arzerá habitu bera* (236). Ikus *igitu*.  
OEH: *mugitu* 2

**moldegaitz.** *adj.* Moldakaitza, zakarra. Erab. Idatzizko iturriak+: SP. (GN, L, BN, Z, Er). *Sarrarazi zué karzélean ta iduki zué án zenbáit egúnes; ondórean presentaturik tribunálean ta aurkiturik firme konstánte Kristorén fédean, atormentarazi zué kruelkiró Tiráno moldegaitz abere tzárrak* (509). [Senarrak] *utzi zué nirábe moldegaiz (sic) bát enkargaturik etzezóla útzi, baizik ógi puska bát, gátz eta ur ordu señalatuétán [...]. Moldegaitzak tratatzen zué moldegaizki esklába bekála* (350). *Moldegaitz* aldaera Ezterenzubin soilik jaso da. Horrez gain, Euskal Herriko herri askotan erabiltzen dira *molda-* hasiera duten aldaerak, dela belar ahostunarekin edo dela ahoskabearekin.  
EHHA (2329):  
Ezterenzubi -S: *tonto, eskalapuín, dorphe, malestruk, errebes, kakola*.  
OEH: *moldakaitz* 2

**moldegaizki.** *adb.* Zakarki, basatiki. Erab. (GN, L, BN, Z, Er). *Sakrifikatu zúte bera biktima Jangoikoaren honratán, heritus moldegaizki lépoan, sóñean ta zángoan, berreín ta laur ogei ta amazpigárren urterát*

*guti gora bera* (288). Informazio gehigarria: “Cf. Cb *EBO* 13: *Moldekaiz ta gogorkiago*, seguramente equivalente a *moldekaizkiago ta gogorkiago*” (OEH).

OEH: *moldakaizki*

**montiatu.** *ad.* Pilatu. Leh. (EkiHN).

*Gobernariak, kentzekó esperánza Kristioéi, atrarazirik obiatik ta ekarrarazirik zituderá ondatu zitue léze ándi barna bátean, montiátus gañetik anitz lur ta árri ándi pizuak* (533).

AELIE: -A: *montondu*

OEH: *montiatu*

**montio.** *iz.* Leh. (EkiHN). HN+:

Artola3. Pila, montoia. *Asi ze Kalbariorát prozésio desordenatu gúra; alde guzietáik jénde-montio ándiak: presoén alzinetik, gibeletik ta inguruan anitz Ministro ta soldádo zaldizko ta oñézko armaturik* (52).

**muntxo** (ErdHN).

EHHA (1828, 858, 671): Abaurregaina, Jaurrieta.

AELIE: *monton*

OEH: *montio*

**montonkan.** *adb.* Pilaka, andanaka.

(Lar *montoika*). Hap. *Joan zire montónkan ándik elizará, ta paraturik belauriko* (152).

OEH: *montoika*

**morrión.** *iz.* Burua babesteko erabiltzen den burdinazko kasako mota. Leh. *Paratu zué larruarén gañetik peto gúra lagúndus Monjeak ta arótzak, ta segurátus amár kateéki ain fuérte, ezi sékulan etzeiken lazátu; buruán morrión edo txapela bát burriñaskoa* (330). Gaztelaraz ere horrela deitzen zaio, baina ez du *morrioi* formaren bidez egokitu, -ón bukaera baliatuz baizik.

OEH: *morrioi*

**mugonez.** *adb.* Garaiz. Erab. (Lar, Cb). (B, G). *Ainberzekoa dá ene karidadea bekatariéki, ezi mugonéz ta egiáz dei banindezáte, nior ez leike galdu* (79). Informazio gehigarria: *Agreda* 7: “Tanta es mi caridad con ellos, que si con tiempo y con verdad me llamasen, ninguno perecería” (42).

OEH: MUGONEZ (s.v. *mugon*)

**mukuru.** *adb.* Gainezka. Erab. (Lar). Idatzizko iturriak+: SP. Dialekto+: Batez ere Iparraldekoa. *Agitu ere zékio, emánes bidean anitz, ellegátzea errotará erdi-usturik kostálak; eta iorik guti gúra atrátzea ainbérze irín bete artáño mukurú* (185). **mukurru** (ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: *mukuru*

**muñ.** *iz.* Burmuina (pluralean). Erab. (Cb, Mb). (EkiHN). *Etzi-re orgátik ayék beráxten, baizik emán golpe ándik eta eméndik; eta batek baldúrro edo pertika batéki jo zió buruán ta atra zitio muñak* (177). **muin** (ErdHN^).  
OEH: *muin* 1

**mutikozutu.** *iz.* Hap. (GN). Mutiko denboran. *Mutikozútuan zé humil, obediénte, ixil, alkekór ta amáble bere naturále onagátik; eta báteo juizióso* (238). Informazio gehigarria: *Mutikozútua, zázpi urtetaik amabórz edo amaseitaráño* LE (in *BOEanm* 567 ap. OEH).  
Ikus -zutu.  
OEH: *mutikozutu*

**muzurka.** *adb.* Induska, uxarrean. Hap. *Errebelatu zió, goárt egin zezála non in zúten hazienda gáiek muzúrka zulo andi bát; án aurkituko zuéla bear zuén diru guzía erreskatatzekó* (153). Informazio gehigarria: normalean basurdeek egin ohi duten bezala. Imotz ibarrean halakoetan *basurdeek dena muturkiatu* dutela esan ohi da. Gaztelaniaz ere *muturquiáu* erabiltzen da.  
AELIE: -A: *musurketu*  
OEH: -



# N

**nafartar.** *adj.* Nafarra. Erab. (Mb). (GN, L, BN, EkiHN). *Agitu zé Nafarroan denbóra batez zebátzea langóstak ardántze ta alorretán [...]. Akuditu zúte Nafartárrek Aita Sanduagána kontátus berén trabájua, plága ta kalamidádea ta eskátus erre-medio (448).* **napar** (ErdHN<sup>^</sup>). OEH: *nafartar*

**nai ba-... ez ba-.** *esap.* Nahi eta nahi ez. Erab. *Baña eztakite altxaturik dagona án Kristio onendáko, ezpaitúte beiratzen, baizik eméngo itxúra, biár edo etzi bukatu ta deseginen déna, nai badúgu ezpadúgu (119).* OEH: NAHI BA-... EZ BA-... (s.v. *nahi izan*)

**naiz bai.** *junt.* Nahiz eta (eskuarki aditza eliditurik; inoiz kontrakotasuna adierazten duen beste juntagailu batekin batera). Hap. *Baña berarén kontrá-rioek akabarazi náiez atrarazirik andik eraman zúte aratágo ta aratágo, leku extremoetára, pasarázis biájean milla neke, pena berárias, naiz zegon heri; baña heri gorpútza naiz báí, gógoa zégo bizkór (322-323). Berze bein adiarazi zió pasatu beár zuen trabajukéta ándia:*

*baña naiz bai, alaére Jangoi-koaren amóres asi ze óius: "Iágo, Jauna, iágo, iágo" (84). Berak negár, erresisti, erreklá-ma, etzéla gauza eramatekó pizu andi gúra: baña etzékio baliátu: Bortxaz naiz bai kon-sagratu zúte Arzobispo (124). Eta alá zebila injeniátzen beti nola egin óngi eginála: diru guti naiz bai, baña zué kari-dade ánitx (343). Informazio gehigarria: Mendiburuk beste adiera batean darabil ('bai horixe'): Naiz bai, bada, Jesus maitea; naiz neka nadilla neka al adina.*

OEH: 1 *nahiz* 1

**naski.** *adb.* Antza, itxuraz. Leh. Idatzizko iturriak+: SP. (G, L, Bzt, BN, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Bizi zé órduan Bolonian S. Domingo, ta bere éskus bestitu zió bere habitua, ezaundus náski nolako húmea atrako zén urá (170).* **naaski** (EkiHN).

AELIE: Eugiko lekuko batek *neski* eman du, baina besteak *naski*.

OEH: 1 *naski*

**nastekatu.** *ad.* Nahastu. Erab. (Lar). (GN, L, Bzt, Z, HHN). *Azi ze txoil sanduki buratsoen obediénzian erretiraturik beti, nastekatu gabe mundukoen afizione ta dibertsioetán (387-388).*

OEH: *nahastekatu*

**nastekazio.** *iz.* Nahasmendua. Hap. *Berze aldi batéz [...] Jesus onaréki enbarkaturik Apostoluak, agitu zé nastekázio andi bát itsásoan de manéra ezi, uren bagadék estaltzen zúte bárkoa; baña bera zego ló* (211).

AELIE: *nastekazio*

OEH: *nahastekazio*

**negargale.** *iz.* Negargura. Leh. (GN). *Dióte soñatu ziréla ez-kila guziak milágros ta iten zutéla soñu bát diferénte, triste, lastimagárri, ematen zutéla negargále* (147).

OEH: *negargale*

**nekaporratu.** *ad.* Indarrik gabe geratu, nekatu, xehatu, akitu. Erab. *Azotarazi zúe erruki; baña bera ez, berdúgoak bai nekaporraturik zeude klamá-tzen atertzekó* (126). **errendi porrokatuik** (EkiHN). Informazio gehigarria: Araquistainek bildu zuen “aporrearse” itzulirik (1747). Ikus *akaitu, aspertu, nekatu, porratu*.

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *nekaporratu*

**nekatu.** *ad.* Nekat. Erab. (Lar, Cb). Idatzizko iturriak+: Mb & *neketu*. (B, G, GN, L, Bzt, BN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Nekatu zé Daziano; akaitu zire berdúgoak; atertu zire tormentuak* (135). **eneatu** (EkiHN), **enoia-**

**tu** (EkiHN). Ikus *akaitu, aspertu, nekaporratu, porratu*.

OEH: *nekatu*

**nekoso.** *adj.* Neketsua. Erab. (B, G, GN, Bzt, ErdHN<sup>^</sup>). *Nola egón ze án, zein postúra nekosoán, ez etzinik, ez jarririk, ez txutirik ere txoil, baizik kur-kurrá loturik peña-mutur báti* (48).

OEH: *nekoso*

**nere.** *izord.* Nirea. Erab. (Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, Bzt, MHN, HHN, EkiHN). *Zoáz itsasorá, bota zázu hámuia ta lenbiziko arrapatuko 'uzun arraiaren ágoan aurkituko dúzu mone-da bát; urá emózúte nere ta zure partez* (211). **ene** (MHN, HHN, ErdHN, EkiHN).

OEH: *ni*

**neska.** *iz.* Neska. Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: *gral. Iparraldean XIX. mendetik aurrera erabiliagoa. Eta juramentátu zé baiétz, emanen dizutela eska dezázuna dena déla, naiz ene erreinuarén érdia. Joán ze néska bere Amagána, galdegin zio: “Zer eskátuko diót?”* (469).

OEH: *neska*

**neskato.** *iz.* Neskatoa. Erab. (Ax). Idatzizko iturriak+: Lar ‘neskamea’. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN).

*Ainbérze alzinatu zé odio zioténa, ezi beár izán zue, ez iltzekós eskapátu oiñ urtúxian sollik neskato batéki bere burátsoen etxerá (350). nesako (EkiHN<sup>^</sup>), neskako (ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>), nexako (EkiHN<sup>^</sup>).*

Ikus *neskatxo*.

AELIE: -A: *nesako*

OEH: *neskato*

**neskatto.** *iz.* (*Neskato*-ren forma adierazgarria). *Pensa emén orái Jangoiko andiarén miragárriak! Neskatto bát póbreá, ofiziále pobreén alába, flakurraturik larru ta ezúr utsetán kási, ala ére ain es-timátua ta honrátua zeruagánik ta munduagánik (176).*

**neskatxo.** *iz.* *Neskatxoa.* Leh. (B). Dialekto+: ap. A. *Noráño pasa daiken gizon Deábruen fúria, egin artáño aláko inhuma-nidáde apénas sinesta daizké-nak amábi urtetáko neskatoxo bátean! (98). neskatz (HHN), neskatxa (ErdHN).* Ikus *neska, neskato*. Informazio gehigarria: EKCN ez da Lizarragarenaz besterik jaso; OEHN Lardizabal da jasotako lehena (1855). Agerpen bakarra du testuan.

OEH: *neskatxo*

**neurri.** *iz.* *Neurria.* Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>).

*Gorputzarén neurrian zé erdikál, ez gora ta ez apál (240). naurri (EkiHN<sup>^</sup>), ne(gurri (ErdHN<sup>^</sup>).* Informazio gehigarria: *naurri ez.*

OEH: *neurri*

**neurritu 1.** *ad.* *Neurtu.* Erab. (Lar, Cb). (B, G, GN, BN). *Orái, bada, nai duénak neurritu nolákoa zén Maria, neurri béz lenik nolákoa zén Jesus Jangoikogizóna (18). naurtu (EkiHN<sup>^</sup>), naurritu (EkiHN<sup>^</sup>), neurtu (EkiHN<sup>^</sup>).* Informazio gehigarria: OEHN *neurtu*-rekin batera darabilela dio, baina JMSB-n ez da horrela.

OEH: *neurtu*

**2.** *adj.* *Neurritsua.* Leh. (Bzt). Dialekto+: ap. A. *Zé egi-errállea, mánso, bakéskoa, afáble agraziátua, ta guzis neurritua itz eta gauza guziétan (361).*

OEH: *neurtu 2*

**nirabe.** *iz.* *Mirabea.* Erab. (HHN). HN+: *Muruzabal, 1751 (OEH). Patriarka gizon sándu izánas lándara zé Dukearen nirábe izanarén semea, ta orgátik ere Jangoikoas geros errezipitu zué agitz óngi; absolbitu ta animatu zué edérki (330).* Informazio gehigarria: Kardaberezek eta Larramendik *mirabe* darabilte, baina Arakistainek jadanik jaso zuen aldaera hau, nahiz ‘nerabea’ adieran. Jat-

rizkoan “criado” ageri da (FS, 1761: 231).

OEH: *nerabe* 2 (eta cf. *mirabe*)

Añibarro, Astarloa, Orixe y Zaitegi” (OEH).

OEH: *norbait*

**noizean noizka.** *adb.* Noizean behin. Hap. *Gurúzte pizu garréki soñean asi ze emekiró joáten, ezin joánes akaiturik yá ta indar-usturik: erortzen zé noizean noizka gurutzearén péan, lastimátus berriró búrua aranzeéki gurutzearén kóntra* (52).

OEH: -

**nor.** *izord.* Bakoitza (*bere*-rekin eta dagokion kasuan jokaturik). *Guziéi ematen zióte abisu ónak, ez exénpluak solamente, baita itzes ere, nori bere gisa* (165). Informazio gehigarria: “Usado por autores septentrionales y navarros, y en algo menor medida por guipuzcoanos; lo emplea tbn. el alavés Lazarraga” (OEH).

OEH: *nor* II, 1

**noribaiti.** *izord.* Norbaiti. Erab. *Ain zé gárbi honéstoa, ezi etzué aitu nái itz dezénte etzenik; eta noribaiti eskapatzen bazé-kio, bera gelditzen ze alkegorriturik* (190). Informazio gehigarria: *norbaitek, norbait* eta abar darabiltza, baina *noribaiti*. “Dechepare emplea el ergativo *norkbait*; hay además ejemplos de *noribait* en [...]”

# O

**odol-izerditu.** *ad.* Odola izerditu. Hap. *Erretiratu zé Jesus óna S. Pedro, S. Tiago ta S. Juanéki araxágo, ta ebéi enkargaturik orázioan egótea, bera zégo beréx otóitz egiten ta odólizerditzen kongójas* (212). Informazio gehigarria: *odol-izerdi* ondo lekukotuta dago (ik. OEH, ODOL-IZERDI s.v. *odol*).  
OEH: *odol-izerditu*

**odol-joate.** *iz.* Odol-isuria. Erab. (Er). *Ingeniatu zué Jesus ónak, eskojitu zuénak nola aran-zeetáik arrósa; emán zio gaitz bát oneráko, baize odóljoate bát ain iráupetsu, ezi ángo Mediku guzién ustéz zé erremedio-rik gabéko gaitza* (163).  
AELIE: -A: -  
OEH: ODOL-JOATE (s.v. *odol*)

**ogi beltz.** *iz.* Ogi beltza (vs *ogi zuria*). Leh. (B). *Óntan sarturik egón ze bedrátzi úrtés penitén-zia ándian ta orázio kontinoan; bere susténtua ogi beltz púska bát; edatékoa ur solla; bestimenta peto gúra ta silizioa; goátzea lur útsa; bururdiko arri bát* (409).

AELIE: *ogi beltz*  
OEH: OGI BELTZ (s.v. *ogi*)

**oian.** *iz.* Mendia. Erab. (GN, Zar, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: HHN *Tratado*, Artola1. *Catanatik ez urrúti dago Ethna edo Mongibél deitzen dén oian bát, botatzen tuéna su botradak aldártes; orduán asi ze etórzen alá susko ugalde bát Catana alderá* (131).  
AELIE: *oian*  
OEH: *oihan* 2

**oin urtuxian.** *adb.* Oinutsik. Erab. (GN, Er, ErdHN). HN+: Artola3. *Arrázio zeukála konfesaturik, kendu zitue koróna ta gala guziak; ta paraturik oin urtuxian hábitu pobre batéki, aisa gerostik segitu zué ta ellegatu zé parátzera gurutzea bere lékuan* (179).  
**ortoxirik** (EkiHN<sup>^</sup>), **oxtoxirik** (EkiHN<sup>^</sup>), **oztozirik** (EkiHN<sup>^</sup>), **urtuxi** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: oro har, *urtutsik* aldaera Iparraldeko eskualde gehienetan erabiltzen da. EHHA (2279): Eugi, Jaurrieta, Zilbeti, Ahetze, Donibane Lohizune -A: *urtusik*. Bardoze -A: *unthutsik*. Beskoitze -A: *untutsik*.  
OEH: *ortozik*

**oiu.** *iz.* Oihua. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -h-, SP. (B, G, GN, L, HHN,

EkiHN). *Ori ikusi zuteláik lagúnek, asi zire óyus*: “*Atózte, Romanoak, ezi Gobernariarén semea ilarazi dú Ines Kristio sorginak*” (121). Ikus *aiots*. Informazio gehigarria: grafian ez zion Larramendiri jarraitu, ezta Mendiburu edo Kardaberatzi ere, haiek -j-z idazten baitzuten. Axularrek *-ih-*.  
OEH: *oihu*

**okatu.** *ad.* Nazkatu, higuindu. Erab. (G). *Bitárteo mundúkoak okatzen zirelaik arren bizimóduas, etzé dediñátzen gloriako Erré-ge Jesu Kristo, agértus amoróso, erregalátus, faborátus, milla manéras egines ongi* (304).  
**oka in** (ErdHN<sup>^</sup>).  
OEH: *okatu 2*

**ol.** *iz.* Ohola. Erab. (Lar). (B, G, GN, Zar, Er, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola4. *Noiz erreligiósoak zeuden maitinetán, ordúan bazéla nork estimátu Jangoikoa, bera erreklinatzen zé ol bátzuen gáñean, zur bát bururdiko* (444).  
OEH: *ohol*

**ona.** Hona (aurkezpen formula; izen sintagmaren edo galde-perpau-saren ondoan). *Oná non dauz-kien, errán zio zeuzkiénak atrarik* (252). *Oná gizon bát agitz txipittoa bere begiétan, baña ándia egiáz Jangoikoarén, Zerruarén ta munduarén begiétan*

(260). Informazio gehigarria: “De uso general en todas las épocas y dialectos” (OEH). Antza denez, Lizarragak *ona* aurkezpen formulán fosildurik darabil, eta *onara* indartua alati-boan.  
OEH: *hona 2*

■ **onara.** *adb.* Hona. Erab. (Lar, Mb). (G, GN, ErdHN). HN+: Artola2. *Jaunak*: “*Zoáz Ziu-daderá zeure andre ta humeé-ki, bataia zaizten Kristioen Sazerdóteak; gero atóz onará, eta erranen dizut nauténa in dezázun*” (254). Informazio gehigarria: “En textos alto-navarros y pirenaicos hay *onara* en Mendiburu, Lizarraga de Elcano [...]” (OEH).  
OEH: *hona*

■ **onat.** *adb.* Honantz. Erab. (Lar). (GN, ErdHN, EkiHN). *Ikusirik español gaixtoen inpiedádea Indioéki, ta nola ziren estórbu ez konbertitzekó yágo, itzuli zé onát Jangoikoarén inspirázios* (266). Informazio gehigarria: “Al Sur hallamos *onat* en Lizarraga de Elcano y algunos autores del s. xx como Etxaide y Orixe [...], y *unat* en unos versos alto-navarros septentrionales de finales del s. xix (*Auspoa* 97, 53); Mendigacha usa *konat*” (OEH). Ikus *onara*.  
OEH: *honat*

**oñaze.** *iz.* Oinazea. Erab. (Ax, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -*nh*-. (B, G, GN, L, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: Iparraldean xvii. mendetik, Hegoaldean xviii.etik aitzin. HN+: Artola2. *Anitz aflikzio ariman; ezin konta ála gaitz jénero gorpútzean eta oñáze miénbro guziétan; arriturik Mediku guziak, nola zeiken bizi padezitus ainbérze gaitz mortále, dolorésko, lotsagárri* (455). Informazio gehigarria: EHHAaren arabera (2434. mapa), mendebaldean eta ekialdean izan ezik, ia orokorra da *oinaze*, baina bigarren aukera bezala edo proposatu ondoren onartua. Beruete, Luzaide, Mezkiritz eta Zilbetin lehen aukera izan da ‘mina’ adierazteko. Hortaz, badirudi ahozkoan nahiko erabilia dela.  
EHHA (2434): Zilbeti.  
Dorrao -A: *oñeze*. -S: *miñ*.

Aniz, Beruete, Erratzu, Etxalar, Etxaleku, Etxarri (Larraun), Ezkurra, Gaintza, Goizueta, Igoa, Leitza, Lekaroz, Luzaide, Mezkiritz, Oderitz, Suarbe, Sunbilla, Zugarramurdi -S: *miñ*.  
AELIE: *oñeze*  
OEH: *oinaze*

**oñaztur.** *iz.* Tximista. Erab. (G, GN, HHN). *Eta infiélek estórba etzezatén debozio gúra,*

*lotsarritu zitue Jangoikoaren terremóto, ortóts ta oñaztureki* (122). **oinaztura** (EkiHN<sup>^</sup>), **oñazture** (ErdHN<sup>^</sup>), **einaztura** (EkiHN<sup>^</sup>), **iñazture** (ErdHN<sup>^</sup>).  
EHHA (243): Abaurregaina, Urdiain.  
Arbizu -A: *iñiztura*  
Etxarri (Larraun) -A: *oñozture*.  
-S: *tximista*.  
Oderitz -A: *iñasture*.  
AELIE: -S: *aire gaixto*  
OEH: *oinaztura*

**ondar.** *iz.* Hondoa. Erab. (Lar). (B, GN, L, BN). *Eta guzién errelikiak, altxaturik egon zirenak anitz úrtes, agertu zire zimenduarén ondárrean marmolés-ko bi arkaetán 1389 urtean, ta ezúrrak ain óso ta górrri, arrósa-kolóre* (437).  
OEH: 2 *hondar* II

**ondasun.** *iz.* Ondasunak. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, Zar, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Zakeok erran zio: “Jauna, ene ondasúnen érdia biz pobreendáko, eta noribaiti perjuiziorik in badiót, erres-titúzioa laur doble in nai dut* (38).  
OEH: *ondasun*

**ondata.** *ad.* Hondoratu. Erab. (Lar). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: gral. Sartu, murgildu, hondoratu.

*Bildurik trópa ándiak ortáko, yá joatekó itsasos, onzirá igaterákoan ayén Errége eróri ta ondatu zé itsásoan (109).*

OEH: *hondatu 2*

**ondoan.** *iz.* Ondoan, aldean. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. Alboa, aldaka. *Bada yá aizkóra paraturik dago prest arbolearén óndoan. Fruitu onik eztakárran arboleá ebakiko dá ta sura botako dá (206).*  
OEH: ONDOAN d) (s.v. 2 *ondo*)

**ondoreko.** *adj.* Ondorengoa. Erab. (Ax). (HHN). *Geró Apostoluen Prinzipe S. Pedrok artu zué bere laguntáko, eta bere ondoreko nonbratu zué Aita sandu, ta Kristorén Bikáριο lurreán (306).*  
OEH: *ondoreko*

**oneratu.** *ad.* Oneratu, bide onartu. Erab. (Ax, Cb). *Konbertitu zitue anitz fundituak lujúrian; desterratu zitue sorginderiak ta árte gaixtoak; eta milla gauza ón in zitue fraile ta Monja ta género guziétan (191).*  
OEH: *oneratu*

**ones on.** *esap.* Onez onean, asmo onez. Leh. (Ax *onez onetara*, Mb *onez onean*). (Zar, EkiHN). *Onék amóltsukí yago arima*

*irabazi zué ones on, ezi ez ásko misionárieek óyus eta meátxus (326).* **onez on** (ErdHN<sup>^</sup>), **onez onean** (ErdHN<sup>^</sup>).

AELIE: *ones on*

OEH: ONEZ ON (s.v. *on*)

**oñetako.** *iz.* Oinetakoa. Erab. (Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (B, G, GN, Bzt, EkiHN). *Zebilaláik Gibraltar áldean Mertxántegisa, opatu zué bidean aurttó bat agitz ederra erdi biluxirik ta oñetakorik gábe; lastimaturik berealá paratu zitio espartin bátzuk (144).*

EHHA (2272):

Arboti -A: *hoñetakuak*. -S: *oski*.

Pagola -A: *huñetako*. -S: *oski*.

Santa Grazi -A: *huñetako*. -S: *oski, tzapata*.

Bergara, Azkaine -S: *zapata*.

Izturitze -S: *zapeta*

Hendaia -S: *zapata,*

*zangotakua*.

AELIE: *oñetako*

OEH: *oinetako*

**onetsi 1.** *ad.* Estimatu, prezia-tu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -*h-*, SP. (GN, L, Bzt, Zar, MHN, EkiHN). Dialekto+: Ae ap. A. *Ezin sufritu zúte ainbérzeko argitasúna bégi gaixtoek; eta alá estimátu ta onetsi beárrean persegitzen zúte (301).* Ikus *estimatu*. Informazio gehigarria:



MHNn *onesicea* ere aurkitu dugu.

OEH: 1 *onetsi* 1

2. *adj.* Estimatua, preziatua. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -h-, SP. (GN, L, Bzt, Zar, EkiHN). Dialekto+: Ae ap. A. *Il ze eriótze prezio-soaréki, mostrátus lén ta geró Jangoikoak bere siérbo humil onetsiarén glória ásko manéras ta milágros* (267).

OEH: 1 *onetsi* 1

- ongarri.** *iz.* Simaurra, gorotza. Erab. (Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. Hegoaldean xviii. mendetik aitzin. *Lazaro il órtzi urrinduak óbian adiarazten dú bekatári erórria kostúnbre gaixtoan, nola animálea bere ongárrian, ez-tuéla ajolarik jaikitzeas, baitu infernu-urrín* (37).

EHHA (670): Abaurregaina, Alkotz, Aniz, Arbizu, Beruete, Dorrao, Donamaria, Erratzu, Etxaleku, Etxalar, Etxarri (Larraun), Eugi, Ezkurra, Gaintza, Igoa, Jaurrieta, Lekaroz, Mezkiritz, Oderitz, Suarbe, Sunbilla, Urdiain, Zilbeti, Zugarramurdi.

Luzaide -A: *ungarri*

Goizueta -S: *gorotza*

OEH: *ongarri*

**onki.** *iz.* Ongia. Leh. *Sufrimentua ta paziénzia izán zue txoil admiráblea, eramánes seréno anitz agrábio in zitióténak, eman árteo burutik bera, itzuli gábe kóntra, baizik fabóre, garaitus gaizkiak onkiégi* (239). Informazio gehigarria: Lizarragak *onki* izen gisa erabili arren, maiz erabili ere, adverbio gisa *ongi* darabil; adibidez: *óngi egina* (154). Bera da bereizketa hori egiten duen bakarra. Badago halako paralelismo bat *onki* eta *gaizki*-ren artean, beharbada Lizarragaren hapa-xa azal lezakeena.

OEH: 1 *onki*

**ontto.** *adj.* Ona (forma hipokoristikoan). Leh. (AN, L, BN). *Igés beti lagún gaixtoetáik tratatzen zué humil onttoéki* (234). Informazio gehigarria: Larramendik *ontxo* dakar (s.v. *bonico*). *Ontto* aldaera, aldiz, OEH eta EKCrene arabera, J. Etxeparek, Barbierrek eta Zerbitzarik darabilte.

OEH: *ontto*

**onziak egin.** *ad. esap.* Harrikoa egin, ontziak garbitu. Hap. *Alákoa izánik ére, beti zebila oñez edo astoko bátean, maiz sukáldean ónzien egiten, eskóbas xautzen ta zerbitzátzen zerbitzukoéi* (182).

OEH: ONTZIAK EGIN (s.v. *ontzi*)

**opatu.** *ad.* Topatu. Leh. (GN, HHN, ErdHN). HN+: (Muruzabal c. xviii). *Baña Deábruak, ezpaitágo béñere ló gizonen kaltetáko, paratu zué bien értean diskórdia, ta zebatu zé ainbérze, ezi yá etzeizke ikúsi elkár, etzire mintzátzen, eztá beirátzen ére, naiz opaturik karrikan* (404).  
AELIE: *opatu*  
OEH: *topatu*

**or.** *adb.* Hor. Dialekto+: gral. (OEH). *Badezakézu, errán zio, baña or eztá gelditu gari piko-rrik ere* (186).

■ **ordik.** *adb.* Hortik. Hap. *Bere lagun bát zé iduri onékoa, ta adin gutitákoa; deskuidatu zé beiratzean; ordik segitu zé gogorátzea, afizionátzea, tentaturik bizitzea ta Deabruarén inspirázios ezin kasi erre-pausátzea* (399).  
AELIE: *ordik*  
OEH: *hortik*

■ **ordik orrat.** *adb.* Batera eta bestera, hara-hona. Hap. *Determinatu zué, bere Eliza utzirik joátea ordik orrat* (252).  
AELIE: *ordik orrat*  
OEH: HORTIK-HORRA (s.v. 1 hor)

**orai.** *adb.* Orain. Erab. (Ax). (G, GN, L, Bzt, BN, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Zaude, nik iten dudána zúk eztakizu*

*orái, baña xakinen dúzu gero* (471).

OEH: *orain*

**oratu.** *ad.* Orea egin (eskuarki ogia-rena). Erab. (Lar). (B, G, GN, L, Bzt, BN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ama Birjinak lagundu zió orátzen irín galetsi bát, ta atrá ze ógia, aláko eskuetáik bekála, txúri edér, gózo ezin yagos* (176).

EHHA (1943): Abaurregaina, Alkotz, Aniz, Erratzu, Etxarri (Larraun), Eugi, Ezkurra, Jaurrieta, Leitza, Luzaide, Mezkitz, Oderitz, Sunbilla, Zilbeti, Ahetze, Arrangoitze, Azkaine, Beskoitze, Donibane Lohizune, Hazparne, Hendaia, Itsasu, Makea, Mugerre, Sara, Senpere, Uztaritze, Bidarrai, Zeberio, Busturia, Ibarri (Muxika), Elduain, Legazpi, Orea. Baigorri, Izturitze -A: *orhatu*. Beruete, Igoa -A: *orato*.

Arbizu, Etxaleku, Lekaroz, Suarbe, Zugarramurdi, Aldude, Beasain -S: *masatu*.

Donamaria -A: *orato*. -S: *nasi*.

Aia -S: *masa ein*

Amezketza -S: *masa in*

Dorrao -S: *masa en*

Etxalar -S: *masatu, gozatu*.

Gaintza -S: *masa ein, ibilli ibilli ein*.

Goizueta -S: *gozatu*

Urdiain -S: *masatu, masia in*.

Bardoze -A: *oratu, orhatu*. -S: *nahasi*.

Arnegi -S: *istikatu*  
 Bastida -S: *latsatu, nahastikatu*.  
 Irisarri -S: *ixtikatu*  
 Andoain -A: *oretu*. -S: *masa in*.  
 Arroa (Zestoa) -A: *oretu*. -S: *kurau*.  
 Errezil -A: *oretu*. -S: *masatu, oria in, masa in*.  
 AELIE: *oratu*  
 OEH: 2 *oratu* 1

**ordi.** *adj.* Ordia, mozkorra. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Z, MHN). *Beira gizon sanduána ilik ordián ta urdeén senténzias, nolakoas ez luke nai librátu ere. Baña Juéz sumoarén sentenzias orái zein alaturik dauden gauzak!* (208). OEH: *hordi*

**ordik.** Ikus *or*.

**ordikeria.** *iz.* Mozkorkeria. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. Mb *ordikeri*. *Artu zué S. Pablorén librua, ta lenbiziko idiki zuén lékuan leitu zué: “Yá ez jan-edanetan, ez ordikéria ta urdakerietán, ez munduko gaixtakerietán, baizik errebesti zaizte Jesu Kristos”* (243). OEH: *hordikeria*

**ordio.** *iz.* Garagarra. Leh. *Bi egúnes solamente artzen zué sustentu, ta orduán ordióska ógi ta elzári sollik* (108). Informazio gehigarria: Gaztelaniaz bildu

*da (VocNav s.v. ordio)*. Lizarragak beti ogiarekin erabiltzen du hiru aldiz *ogi ordiosko* forman eta bakarrean *ordiosko ogi*. FS-ra jotzen badugu: “y entonces comía un poco de pan de cebada y una escudilla de habas” (1790: 95). OEH: *ordio*

**ordu gaixtoan.** *esap.* Ordu gaixtoan. Erab. (Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: *Zoaz ordu gaixtoan emendikan. HH: 49. Orduán Nizéforok, obligaraztekó, joán arén etxera ta humil paraturik oñetan eskatu zió Jangoikoaren amoreagátik barka zezóla: “Goáie eméndik órdú gaixtoan”, errán zio Sazerdote kontrákoak* (405). OEH: ORDU GAIZTOAN (s.v. *ordu*)

**orduko.** *adb.* Orduko, ordurako. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: Iparraldean xvii. mendetik eta Hegoaldean xviii.etik. *Joán ze konténtus zoraturik bekála erránes Dizipuloéi: “Ikusi dúta Jauna, ta au ta au erran dida”*. *Ordúko yá dudarik gábe ikusi bide zué Ama Santisimak* (482). Informazio gehigarria: vs *ordurako*, Hegoaldeko tradiziokoa (V-gip). OEH: *orduko* 3

**orgatik 1.** *adb.* Horregatik. Erab. (GN, ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: AN-ulz. *Deitu zué erregek, Polemio deitzen zénak, zuénak alaba bát gisa berean espiritatuá, zein libratu zué istántean Apostoluak, eta orgátik bialirik errégek presént andi bát, ezin aurkitu zúte mandatáriek* (498). **gorrengatik** (EkiHN<sup>^</sup>). OEH: HORREGATIK a) (s.v. *hori*)

**-oro.** *iz.* Hap. Guztietan. *Baña xakin náies, nor zén aláko ongiegillea, zego gau óro érne beira* (93). Informazio gehigarria: *oro* ‘guztiak’ ezagutzen ez bazuen ere, ‘denbora’ adierarekin lotutako hitzen ondoan darabil sistematikoki, ekintza errepikatzen dela adierazteko. OEHn (s.v. *arratsaldero, egunero, goizero...*) L, S eta Sal dialekto-markak agertuko zaizkigu. Ikus *aldi oro, aste oro, egun oro, gau oro, goiz oro*. OEH: -

**oroat.** *lok.* Orobat, era berean. Leh. *Alá erraten zióte sándak goizetán: “Ea ene adiskideak, goázen laudátus gure Jauna”; ta oroát arratsetán, ta asten zúte berén músika, manatu árteo ixiltzekó* (500). **orbat** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio osagarria: bada *órbat* ‘beharbada, agian’ Aezkoako egungo eus-

karan eta Artzibarko Urizko XIX. mendeko katiximetan. OEH: *orobat*

**oron.** *iz.* Orena, ordua. Erab. (GN, Bzt, Zar, Er, ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>). HN+: Artola3. *Aita Sánduak manatu zión joatekó berarén palaziorá biramónean goizeko seietáko. Asi ze bi orontákoan prebenitzen mezaráko bi órdu; ordu bát meza errátean; berze bát, erran óndoan* (228).

**oren** (EkiHN). Informazio gehigarria: Badirudi zein ordu den adierazterakoan bakarrik erabiltzen zuela Lizarragak, zehazkiago ‘ordu bata’ eta ‘ordu biak’ adierazteko: izan ere, *bi orontako* testuinguruan aurkitu dugu hiru aldiz digitalizaturik dauden lan guztiak kontuan harturik, bai eta *oron batean* behin eta *oren batean* beste behin. Denbora zenbaterakoan, aldiz, *ordu* darabil: *zazpi órdu* (ib.), *bi ordu* (ib.), *ordu bát* (ib). Hala egiten da Nafarroan oro har, Luzaide eta Zugarramurdi kenduta.

EHHA (1270): Abaurregaina, Alkutz, Eugi, Jaurrieta, Suarbe, Zilbeti -A: *oron bata*.

Etxaleku -A: *onbata*

Luzaide -A: *oren bata*

Mezkiritz -A: *oron bata*. -S: *ordu bata*.

Zugarramurdi -A: *oren bata*

AELIE: *oron bata*

OEH: *oren*

**orraxa.** *iz.* Orrazia. Leh. (GN, Bzt, Er, ErdHN<sup>^</sup>). *Asarraturik arrék manatu zióte bi gizatár moldegáitz indartsuéi, txarrantxa zezótela gorpútz guzía orráxa edo txarrantxa burriñásko tzorrótzes* (554).

**orraxe** (EkiHN<sup>^</sup>).

OEH: *orrazi*

**txufeatu.** *ad.* Iseka egin, norbaiten kontura barre egin. Hap. *Herodes Galileako errége, tratatu zuéna hero-gisa Jesus está-lis eroen mánta txuri batéki, eskárnio egines ta txufeátus bere soldadoéki* (207).

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: *txufeatu*

**txuri.** *iz.* Zuria. Erab. (Lar, Mb). (G, GN, MHN, HHN). Dialekto+: vs *zuria*. *Ongi egina, jarin baize orren leptóik ésne, mostratzekó orren arimarén txúri edér gárbia!* (551).

OEH: *txuri*

**txurigende.** *iz.* Arropa zuria (?). Hap. *Emasteki bát erreligiósa idúri garbitzen zuéna obispoarén etxéko txurigénde* (299). Informazio gehigarria: OEHN ‘arropa zuria’ adiera eman zaio, baina *zuri-garbi* bilatuz gero (s.v. *zuri*), adibidez, ‘colada’ aurkituko dugu. Jatorrizkoa bigarren adiera honetatik gertuago dago: “había una mujer que en el ábito de religiosa lavaba la ropa de obispo” (FS, 1610 (2): 535). Hala

ere, ez dago garbi beti leial eta hitzez hitz itzuli zuenetz. Nolanahi ere, historikoki azpiko arropak, izarek, mahai zapiek eta kidekoek osatzen duten multzoari esan izan zaio “arropa zuria” (*Batua*, s.v. *arropa zuri*).

OEH: *txurigende*

**txuritu 1. ad.** Zuritu. (Lar). *Ekarrazazi zué ogi txuri bát, eta onen gañeán erranik exkomekazioaren itzak, berealá itzuli zé beltz nola ikátza: baña absoluzioarénak errán, ta txuritu zé lén bekála* (183).

OEH: *txuritu*

**2. ad.** Argitu (eskuarki egia). Leh. *Sanduak errán zue: “Enkomenda gaitzen Jangoikoi, txuritzekó egia”* (172). *Nai zítue engañátu ardiak, iduriarázis ark etzuéla berzerik nai, baizik txurítu errelijionearen egietafedea: ortáko nai zuéla erresponda zezóten galde-tzen zioténa* (107). Informazio gehigarria: adiera hau ez dago OEHN s.v. *txuritu*, baina bai s.v. *xuritu & zuritu*.

AELIE: *txuritu*

OEH: -

**txurtu. ad.** Gutxitu, urritu. Leh. (GN). *Gisa óntan zoéie aumentátus Kristorén erreligíonea gizon sanduen medios, nola doáien txúrtus orái*

*gaixtoen kasos* (307). **xur** (EkiHN<sup>^</sup>).

OEH: *xuhurtu*

**txutirik. adb.** Zutik. Erab. (GN, Zar, HHN, EkiHN). HN+: *Berriain. Ikusi zúte Judatárrek Lazaro ila, ez solamente bizirik, baitaré txutirik ibiltzen, ta geró jarririk máian, játen, edáten, jardukitzen, ta gero ásko úrte bizitzen* (37).

OEH: *zutirik*

**tzakur. iz.** Txakurra. Leh. (B, GN, L, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Bitárteo erori zé heritásun grábean; eta prinzipioan agertu zékio Demonioa tzakúr beltz andi báten idúrian* (235). *Ikus txakur.*

EHHA (888): Abaurregaina, Eugi, Jaurrieta, Zilbeti.

Domintxaine -S: xakhür, txakhür.

Altzai, Sohüta -S: hoa, txakhür.

Eskiula -S: ho, xakhür, txakhür.

Larraine, Montori -S: ho, txakhür.

Santa Grazi -S: ho

OEH: *tzakur*

**tzorrotz. adj.** Oso zorrotza. Erab. (ErdHN). *Presentaturik nai zio adorarázi bere Jangoikotáko zeukána, baña desobediturik biluxarazi zue, azotátu kruélki ta arramaskátu gorpútz guzia kanibéta tzorrotzes* (398). **txorrotz** (ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>),

**zorrotz** (EkiHN<sup>^</sup>), **tzorroztu**  
(EkiHN<sup>^</sup>).

AELIE: -A: txorrotx

OEH: TZORROTZ (s.v.  
*zorrotz*)

## U

**ubel-gorriturik.** *adb.* Leh. (GN, L). Kolpearen ondorioz, azalak kolore ilunagoa harturik. *Manatu zué ematekó bofetada bát, etzéien izán alkegábe, ta ixil zéien. Gelditu zé sandarén aurpégia ubél gorriturik, baña ederrágo Jangoikoarén begietán* (131). Informazio gehigarria: beste batzuetan ere elkarrekin aurkitu ditugu bi kolore hauek (ap. OEH. s.v. *gorri* eta *ubel*): [Masailak] *zimurtsu, larrua gorri-ubel* (A Ardi 94), *Itsas-mendien ertza ubelik, gorriturik*. ‘Está cárdeno y rojo’ (Or Poem 533) eta *Egun eraunsia eginen du; ezen zerua ubel eta gorri da*. ‘(Tiempo)gris, oscuro, cubierto’ (TB Mt 16, 3). Beraz, esango nuke bi sinonimoz edo ia sinonimoz osatutako Lizarragaren hitz elkartuetako bat dela.  
AELIE: -A: -; -S: beltzatu  
OEH: -

**ugalde.** *iz.* Ibaia. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar & Mb *ubelde*. (G, GN, Bzt, Zar, Er, ErdHN, EkiHN). Dialekto+: G-nav. HN+: Artola1. *Loturik lepoetáik arri andi batzúk botarazi zitue Guadalquivir deitzen dén ugálde andi gártan,*

*ito zeizen án* (302). **ubelde** (ErdHN<sup>^</sup>), **ugelde** (ErdHN<sup>^</sup>).  
Ikus *erreka*.  
AELIE: -A: ubeldie  
OEH: *uhalde* 3

**ugarre.** Ikus *euri-ugarre*.

**ugarreka.** *adb.* (Euria) goian-behean, turrustaka. Leh. *Yá kánpoan erauntsiak alde guzietáik ugarreka, ta érdian adizáleak ur tantarik gábe* (461). **uberraka** (ErdHN<sup>^</sup>), **ugarre** (EkiHN<sup>^</sup>). Ikus *euri ugarre, ugarreketa*.  
AELIE: -A: -; -S: erauntsi  
OEH: 2 *uharka*

**ugarreketa.** *iz.* Zaparrada. Hap. *Urrún elizatik zegoláik bein, ta ugarrekéta andiak etzeikela átra etxetik, zióte, komekátzera joatekó; sándak: “Baita lánzak ére para balezkidáte pétxoan, joan nindeike, euriak ez ezi* (527). **ugarre** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: Ibarrek *uberraka* ‘euri jasa’ dakar. Cf. OEH s.v. *uhar*.  
OEH: -

**ukitu 1.** *ad.* Ukitu. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Cb & *ikutu*. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *S. Lukasek ere dió [...] jende guziék nai zutéla ukitu, zerén beragánik*

*atrutzen zén birtútea ta sendatzen zituen guziak* (35).

OEH: *ukitu* I, 1

2. *ad.* Erab. Hunkitu. (Ax, Cb, Mb).

Idatzizko iturriak+: Cb & *ikutu*. (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, HHN, EkiHN). *Leitu zué karta gáu gizónak eta ukiturik biótza Jangoikoaren éskuas, asi ze negár ta negár, zióla: “Bada, neure Amak ta neure ándreak ezparin banaute ezaundu nái bérea bekála, zer inen dú Jaingoikoak ain itsúski ofenditu duténak?”* (312).

OEH: *ukitu* I, 3

**ungendu.** *iz.* Ukendua. (Mb *ungentu* <gue>). *Mariak unjitu zítio oñak ungéndu prezioso batéki* (223). Informazio gehigarria: “En textos navarros hay *ungentu* en Mendiburu <-nt> y un manuscrito baztanés del s. XVIII, *ungendu* en Lizarraga, Echenique (que tbn. emplea *ongendu*) y en un texto de Ororbia recogido en ETZ, y *ubendu* en un evangelio alto-navarro meridional y en un cuento aezcoano” (OEH). Beti <gue> idatzirik dagoenez, ez dago erabat garbi *unguen-* ala *ungen-* irakurri behar den, orduan dieresiaren erabilera ez baitzen orain bezain argia ezta gaztelaniaz ere.

OEH: 1 *ukendu*

**unide.** *iz.* Unidea, inudea. Erab. (Ax, Mb, vs Lar *inude*). Idatzizko iturriak+: Ax: *-nh-*. (G, GN, L, Bzt, Zar, Z). *Esneán zezgoláik, agertzen bazué unideák norbaiten alzinean, desegiten zé negárres ta etzeike ixilarázi estali árteo* (147).

OEH: *inude*

**ur-egur.** *iz.* Ibai eta errekek eramaten dituzten egur zatiak. Hap. *Ur egur atrátzean erori ze mutiko bát ugáldean; sartu zé sándua atra náies; ásko denboras ibilirik ezin atrá zue, baizik péna, ozidúra ta azken heritasúna* (146). Informazio gehigarria: “fue (como solía) à sacar leña para sus pobres, de la que trae el rio en semejantes ocasiones” (FS, 1716 (2): 262). AELIE: -A: -; -S: -  
OEH: UR-EGUR (s.v. *ur*)

**ura.** *erak.* Hura. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G, GN, L, BN, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Eta ura izán ze egúna, noiz idiki zítuen lenbizikorik lurekoendáko Zerúko atáriak orduráño ertxirik egon zirénak* (61). Ikus *gura*.

AELIE: ure darabilte mintzatzean Eugiko lekukoek, baina inkesta egoeran onesten dute ura.

OEH: *hura*



**uraldi.** *iz.* Ur-erauntsia. Leh. *Sal-tatu zé uraldi bát kláro, gárbi ta ain abásto ezi berealá egin zé ugálde* (307). Informazio gehigarria: “una fuente de agua clara y dulcísima y tan copiosa y con tanto ímpetu que luego se hizo un río” (FS 1734: 373). Halere, badirudi Lizarragak ez duela “fuente” zehatz-mehatz itzuli, zeren eta *uraldi* ‘uholdea’ izaten baita (adibidez, *It Dial* 67), eta Lizarragaren honako adibide honetan ere hala izan liteke: *Ala eraikia estu eartuko beroak, estu ermako uraldiak, estu galduko izotzak*. (136). LE-Ir (bi agerpenak ap. OEH). **uraldi** (EkiHN<sup>^</sup>), ‘ur anitz’ eta ‘uholdea’ adieretan. AELIE: Eugiko lekuko batek uraldi eman du eta besteak ualde. OEH: -

**urbilen.** *adj.* Hurrengo. Leh. (GN, ErdHN<sup>^</sup>). *Gelditu zé gizon ói arriturik: eta urbilén áldian joanik sánduak arren etxéra berzeetan bekála, erreparatu zué etzióla mostratzen ain begitárte óna, nola lén* (172). OEH: HURBILEN (s.v. *hurbil*)

**urdakeria.** *iz.* Lizunkeria. Leh. (G, GN, EkiHN). *Yá ez jan-edanetan, ez ordikeria ta urdakerietán, ez munduko gaixtakerietán, baizik errebesti zaizte Jesu Kristos* (243). Informazio gehigarria: “no en comidas y

bebidas, no en camas, ni desho- nestidades” (FS, 1761: 620). OEH: *urdekeria*

**urbil.** *adb.* Hurbil (alatiboarekin). Erab. *Ebetáik ásko in zitue prisonéro ta zeuzkie kalabózoan bere palaziorá urbil loturik kateés, maltrataturik góseak, golpees ta modu gaixtoés* (162). Informazio gehigarria: “con alativo en Pouvreau, Lizarraga de Elcano y JesBih (424)” (OEH). OEH: *hurbil* I, 1

**urde.** *adj.* Zerria (iraingarria). Erab. (Ax, Lar). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). Dialekto+: gral. (Iparraldean gehiago). *Zeukáte Jentilek paraturik án Venus urdearen imajina* (178). *Il bédi, il bédi Inés sorgina, úrdea, alkegábea, infámea, bere árte gaixtos trasformatzen tuéna persónak* (122). *Nola biék erakusten baizúte dotrina bera, Kristorén dotrina sandua, gár-bia, zerúkoa, biók sentenziatu zitue iltzerá Neron urde kruélak* (216). Informazio gehigarria: JMSBn adibide anitz ditu, eta guztietan pertsonak kalifikatzeko erabilia da. AELIE: -A: -; -S: zerri OEH: *urde*

**urdeen etxe.** *iz.* Putetxea. *Sta. Ines Jesu Kristoren Espósa fiéla,*

zerén etzuén konsentitu desposátzea Romako Prefektoarén semearéki, eraman zúte urdeén etxéra, án deslora zezáten (413).

OEH: -

**urin.** *iz.* Gantza, koipea. Erab. (Lar; Ax ‘hezurraren) mamia’ adieran). (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola4. *Bere aide bátek, Limineo deitzen zénak, konsejatu zió itzularáztea karzelerá, eta án guzía untátzea urín irakiñes, orréki zikindu ta kenduko zéla argitasun gúra* (126-127).

OEH: 1 *urin*

**urkabe.** *iz.* Urkabea. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (G, L, Bzt, Zar). *Urkatu zúte ta utzi zúte dilindaká urkabetik, guardátus guárdiek gau ta egún, etzézan kéndu niórkere* (341).

OEH: *urkabe*

**urlia.** *iz.* Urlia. Erab. (Ax, Lar, Cb). (B, G, GN, L, BN, Zar, Z, Er, ErdHN). HN+: Artola4. *Askotán agertzen zekióte amestetan batzuei erraten ziotela: “ea, ots, jaiki ta konfésa urliaréki aláko bekátua in duzúna Jangoikoaren kóntra* (462).

**urlea** (EkiHN<sup>^</sup>).

OEH: *urlia*

**urratu.** *ad.* Hautsi, desegin. Erab. (Lar, Cb, Mb). (L, EkiHN<sup>^</sup>). *Bein kontráριοak sartu zire S. Salvioaren konbéntuan, sú eman zióte Elizari, urratu zúzte fábrrikak eta zéldak, Mónje guziák heritu zúzte eriózko zauriéki* (479).

OEH: *urratu*

**urri.** *iz.* Iraila. Erab. (B, G, GN, Zar, ErdHN, EkiHN). HN+: Artola3. *Urriaren 26an* (257).

OEH: *urri*

**urrikaritu.** *ad.* Errukitu. Erab. (Mb). (GN, L, Bzt, BN, HHN, EkiHN). HN+: Beriain. *Eskatu zue barkázio sanduari, eta sánduak urrikariturik emán zio arimarén ta gorputzarén sendotasúna* (173). Informazio gehigarria: “La forma *urrikaritu* (o *urrikeritu*) se documenta en textos alto-navarros y en el catecismo traducido por Mendiburu (*CatBurg* 44)” (OEH). OEH: *urrikaldu* 2

**urrikitan.** *adb.* Damaturik. Erab. (Ax, Mb). (GN, MHN, HHN, EkiHN). *Admiraturik ayék aláko modu ónas ta konténtu mostratzen zuénas, yá zeude urrikitan etórrias egiterá preso, ta zióte elkárrí: “Dela posible in dáien ainbérze diligénzia galtzekó zar gizagaizo gáu ain beneragárria?”* (125).

OEH: URRIKITAN (s.v. *urriki*)

**urrikitu.** *ad.* Damutu. Erab. (Lar, Mb, Ax). (G, GN, Bzt, BN, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>). *Agertu zékio bisiónean Birjina soberána ta errán zio: “Eztakizula urrikitu errána, ezi onesten banauzu ni, zuk irabaziko dúzu abantállá onésien értean”* (301).  
AELIE: urrikitu  
OEH: 1 urrikitu

**urrin.** *iz.* Usaina. Erab. (Ax, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ikusten bazitue zenbáit bekatári zebiltzának gaizki, ezin sufritus ayén galméndeá, erraten zióte ixil ta humil: “A! pobrettoak, nola galtzen zaráten! Inférnu urrín duzié”* (189).  
AELIE: urrin & urriñe  
OEH: 1 urrin

**urrintzu.** *adj.* Usain txarrekoa (baita adiera figuratuan ere). Erab. (GN, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). HN+: EkiHN *urrin itsusi. Zergátik zeukan arturik beretáko bere anaia Filiporen Andrea deitua Herodias eskándalo urrintzu publikoaréki, murmurátus guziék aláko gauza itsúsi indignoas* (207). *Geró sarrarazi zué kalabózo ilún urrintzu bátean* (535). *Alá sanduak naiz kurátus gaitz eta llága urrintzuak, etzué senti beñere mellarik: antes bien, errespiratzen zué beregánik atxón edo fragranzia bát zerú-*

*koa* (344). Informazio gehigarria: Antza denez, *-zu* atzizki zaharraren formak fosilduta iraun du hitz honetan Nafarroako zenbait lekutan (bestetan *mukizu*-eta bezala).  
OEH: *urrintsu* 2

**urrunkara.** *adb.* Urrun samar. Leh. (Bzt). *Faltaturik probisiónea, ofrezitu zé joain zéla billa urrunkará zeuden kaserío edo etxaldetára* (418).  
OEH: *urrunkara*

**urrupa.** *iz.* Zurrupa, tragoa. Leh. (Lar). Idatzizko iturriak+: SP. (GN, L, Bzt, BN, Z). *Etzé án aditu beár itz gaixtorik, maldiziorik, juramenturik; deskuidatzen zéna baruarazten zué arratsaldeko irurak árteo amenik ta urruparik artu gábe, ta orduán ogi ta ur sollík* (238).  
**urrupe** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: EHHari dagokionez, Nafarroako leku askotan erabiltzen dira *zurrupatu* eta antzekoak; hala ere, herrien atalean hasierako txistukaririk gabeko aldaerak erabiltzen dituzten herriak soilik jaso ditugu. EHHA (2110):  
Arbizu -A: *urrupe*  
Erratzu -A: *urrupe* in  
Ezkurra -A: *urrupe* in, *zurrup* in  
Lekaroz -A: *urrupe* in  
Luzaide -A: *hurrupatu*  
Sunbilla -A: *urrupe* ein, *zurruta*.  
OEH: *hurrupa*

**urtiki.** *ad.* Jaurti. Erab. Idatzizko iturriak+: Lar *urtigi*, Mb *aurtiki*. (Z). *Baña au joán ze gáuaz S. Bernardogána, ta utzirik Pontifizearén insigniak Sanduaréki joanik urtiki zé Aita Sandu egiaskoarén oñetará humil obediénte* (240). Informazio gehigarria: Literatur tradizioan, zuberotarrak alde batera utzirik, Lizarraga da bakarra *urtiki* aldaera erabiltzen. OEH: *aurtiki*

**usmatu.** *ad.* Usnatu, usain egin. Erab. (Lar). (GN, L, Bzt, Zar, EkiHN). *Agián duda dúzu dagóla presénte zerén eztúzun ikústen? Zer litzáke, adi bazindez? Zer uki bazindez? Edo usmátu? Eztá solamente bistas progátzen gauzen presénte egótea* (414). **usmetu** (ErdHN<sup>^</sup>), **usmotu** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: Añibarrrok ere erabili zuen nafarrazko dotrinan (Añ *CatAN* 62 ap. OEH). OEH: *usnatu*

**usu 1.** *adb.* Maiz, askotan. Erab. (Lar, Mb). (GN, L, Bzt, BN, Z, EkiHN). *Konfesa-komekátzea egiten zué agitz usu ta debózio andiaréki* (198). Informazio gehigarria: Kardaberazek ‘usadio’ moduan darabil. OEH: *usu* II, 1

**2.** *adj.* Tapitua, ugaria. Erab. (GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Izan omén ze S. Pedro góra gorpútzes, naiz ez abultátu; kolórea txúri ta deskoloritukára; bizár ta burúko biloak úsu ta rizátu izúrrak, baña ez lúze* (475). Informazio gehigarria: “los cabellos de la cabeza y los de la barba eran crespos y espesos pero no largos” (FS, 1610: 469). Arakistainek jaso zuen lehenago Nafarroa Garaian adiera honetan (1747: 671). OEH: *usu* I, 2

**uzkur.** *adb.* Makur (sarritan *uzkur-uzkurra* egitura indartuan). Erab. (Mb). (Bzt, EkiHN). *Bein karrikan joáten zoéie pensátzen nola merexi zuen infernurá kondenátzea, ta zoéie uzkúr-uzkú[r]ra, nola gora baleitez guziak kóntra emátera, ziótela: “Infernukoái, infernukoái”* (522). *Ain subér zegóna len [...] ya uzkúr-uzkúrta zoéie igés* (179). *Orrá gizon txipitto gúra zein andi Jangoi-koarén eta gizónen begietán! Humil uzkúr-uzkúrta zebilána, ta deustáko ez gauza bere ustéz, orrá zenbat gauza ón eginik joan dén!* (183). **kuzkur** (ErdHN<sup>^</sup>), **kuzkurturik** ‘bildurik’ (EkiHN<sup>^</sup>), **uxkur** (ErdHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: EHHAn Nafarroko toki gehienetan *k-*.

EHHA (2202):  
Erratzu -A: uxkur  
Lekaroz -A: uxkurtu  
Zilbeti -A: ukurtu  
OEH: 1 *uzkur* I, 2

# X

- xakin.** *ad.* Jakin. Leh. (GN, Zar, Er, ErdHN, EkiHN). *Elkárren borondátez ta konsentimentus bizitu zire kastidáde perpétuoan nola balire anáia ta arréba, niórk xakin gábe sekreto gáu* (109). **iakín** (HHN), **jakín** (MHN, HHN, ErdHN). Ikus *jakín*.  
OEH: *jakín*
- xakintasun.** *iz.* Jakinduria. (Ax eta Lar *jakintasun*). Ikus *jakinde*.  
OEH: *jakintasun*
- xasi.** *ad.* Jasan. Hap. *Baña yá Jaun dibinoa angabeturík, átsa goraturík, ilkolóre, ezin xásis gurútzeta, ezin arréki pása alzina* (53). **sasi** (EkiHN<sup>^</sup>).  
OEH: *jasi*
- xautsi.** *ad.* Jaitsi. Erab. (Lar *jautsi*). (MHN, ErdHN<sup>^</sup>). *Eta alá trukatu zire suérteak, igánes Nizeforo mártir triunfánte zerúra, eta Saprizio xautsis infernúra, eméngo pénak pasaturik alfér, penátzera án eternidade guzian* (134). **sautsi** (ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: “*Jautsi* parece tbn. la forma más frecuente en los autores alto-navarros (*jautzi* <iauci, yauci> en ETZ 79 (Etxalar,
- 1749)) y en baztaneses como Echenique, aunque los textos recojan tbn. otras variantes” (OEH). Mendiburu eta Kardaberatzek *jatsi* erabili zuten.  
OEH: *jaitsi*
- xautu.** *ad.* Xahutu, garbitu. Erab. (Lar *txautu*, Mb *jautu*). *Maiz sukáldean ónzien egiten, eskóbas xautzen, ta zerbitzátzen zerbitzukoéi* (182). Informazio gehigarria: Honako hau ageri da jatorrizkoan: “se yua a la cozina, y lauaua los platos y escudillas, y barria la casa, y servia a los moços” (FS, 1610 (2): 276). “En textos navarros hay *jautu* en una poesía de 1609, Ros (en ambos quizá represente š-), Mendiburu (que en alguna ocasión --IArg I 91-- escribe *iau-*) y Lizarraga de Elcano; *txautu* en sendos textos de Munarriz y Ororbía y en Iraizoz, *xautu* en un texto del s. XVI, Lizarraga de Elcano, Samper y F. Irigaray, *xagutu* en los salacencos Garrantza y ZMoso” (OEH).  
OEH: *xahutu*
- xito.** *iz.* Ijitoa. Erab. (GN, ErdHN<sup>^</sup>). *Itzuli zeláik Españará, aurkitu zué anitz apestaturik Priszilianorén herejias. Au apeगतu zió arri Marko deitzen zen Jito bátek* (166). **zito** (ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: Aezkoan *zito*-ren txikiga-

rri *xito* ibiltzen da, hurrei-eta  
esana.

AELIE: -A: zito

OEH: *ijito*

**xupon.** *iz.* Jipoia, jaka modukoa.

Hap. *Emán bez duén guzia  
pobreéi: para bész burriñásko  
xupon gáu, ta oin urtúxian bi-  
doéie Aita Sanduagána* (330).

Ikus *loriga*.

OEH: *jipoi* 1

# Y

**ya... ya... ban.** Erab. Batzuetan... besteetan. *Amak bere biotzeko miñaréki korregitzen zué yá beráxki, yá gogórki* (110).  
OEH: JA... JA... (s.v. *ja*)

**yago 1. zenbatz.** Gehiago. Erab. (GN, Zar, ErdHN). *Lúrrean guziá zé tristúra, negárria ta laméntua: beñ ere ez omen dá izán erregerén iltzerik yágo sentitu denik* (458). **geiago** (ErdHN, HHN, MHN), **geiao** (EkiHN), **geio** (EkiHN), **geo** (EkiHN), **iao** (EkiHN<sup>^</sup>). Informazio gehigarria: badarabil *geiago* ere.  
OEH: *gehiago* 1

**2. adb.** (Ezezko esaldietan). Aurretantzean, berriro. Erab. (GN, Zar, ErdHN). *Bein ortará joan zen batéz, erran zio arren Amak nigárti, yá eztá joanen yago eskolara zuréki ene mutikoa* (432-433). **geiago** (ErdHN, HHN, MHN), **geiao** (EkiHN).  
OEH: *gehiago* 3



# Z

**zabartu.** *ad.* Bide zuzena galdu.

Leh. *Abádeak, zeñék erraten zió beirutzen zuéla yá nola árdi zabártua saldotík ta Artzaiagá-nik apárt, peligroan otsoek arrapa zezáten* (360).

AELIE: pertsonak eta animaliak zabartzen ahal direla dio Eugiko lekuko batek.

OEH: *zabartu* 2

**zaflon.** *iz.* Zaplaztekoa. Leh. *Izéba sandak korrejitu zué mias ta eskuas, erránes ta emánes zaflon bát. Eta Jangoikoak mostratzekó ongi emána zéla, egin zue geldí zékion érien márka matélean bizi guzían memoriatáko* (141). **zaflada** (ErdHN<sup>^</sup>).

AELIE: -A: -; -S: zaplasteko

OEH: *zaflon*

**zain.** *iz.* Sustraia. Erab. (Ax, Mb). (G, GN, L, Bzt, BN, Ae, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Sei áldis eskojitu zúte Nobizioen Maestrutáko, zerén kunplitzen zuén edérki ofizio góí, baita erreliogíone guziarén ziméndo ta zaiñ* (266).

OEH: 1 *zain*

**zain-errotu.** *ad.* Sustraitu. Hap. *Baña ala nola plántak izotzaréki yago zain-errótzen ta*

*sustraitzen dirén lúr-bárnean, alá donzellattoak osabarén porfia ta meatxuéki yágo firmátzen ta konfirmatzen zire Kristorén fedearén afiziónean* (532). Informazio gehigarria: *Zain-errotu* Mendiburuk hain gogoko zituen sinonimo-elkar-te horietako bat da, Lizarragaren testuetan ere han-hemen agertu zaizkigunak. *Errotu*-ri dagokionez, Larramendiren hiztegian izan ezik, Hegoaldean ez da ageri Lizarragak darabilen arte eta hego-nafarreraz ere ez da bildu (OEH, s.v. *errotu*). Larramendiren hiztegian ikasirikoa delakoan gaude, Lizarragak ‘erroa’ adierazteko *zain* baitarabil ia beti. Iraizozek agerpen bakarra jaso zuen aztertu eskuizkribuan: *Zer erremedio estaien errotu ta zakartu lepra gaisto goi ari-man?* (1978: 290). Guk aztertu lanetan agerpen bakarra du *zain-errotu* forma honetan eta *sustraitu* ondoan duela, errazago uler dadin, nonbait.

OEH: -

**zalaparta.** *iz.* Txaloa, eskuzarta.

Leh. (Zar). *Il zékio Nausiari záldia alórrean; joán ze sándua ta emán zalaparta bát, ta errán zio: “Jaiki adí”; ta jai-ki zé sáno ta séndo* (186). Informazio gehigarria: FS: “se le murió el caballo, avisado el Santo fue allá y cuando le vio muerto, dióle vna palma-

da”. Aezkoan *zalaparta* bildu da, baina adiera hotsarena du gehiago, haizea leihotik sar-tzean, edo bestela: *zalapartaka deila, bei bat arat eta onat, min dueleik*.

OEH: *zalaparta 2*

**zaldi.** *iz.* Zaldia. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN<sup>^</sup>). Dialekto+: gral. *Segitu zué Aitak asárre anitz lagunéki berén zaldietán karreraká* (399). **zamari** (ErdHN, EkiHN).

OEH: *zaldi*

**zalui 1.** *adj.* Zalua, arina, bizkorra. Leh. (Ax ‘malgua’, Lar). Idatzizko iturriak+: Ax *lh.* (GN, L, ErdHN<sup>^</sup>). Dialekto+: Lehena Alfonsa Rodriguezekin bateratsu. *Ajilidádeas paratuko dú ain ajil, zalúí, arín, ezi daiken egátu yágo ezi saeta bát, aizea ta pensamentua bezáin* (538). **zaloi** (EkiHN<sup>^</sup>).

AELIE: *zalui*

OEH: *zalu I, 2*

**2.** *adb.* Zalu, arin, bizkor. Leh. (GN, ErdHN). Dialekto+: Lehena Monhorekin bateratsu. *Segitu zué andik alzina bidea ain zalúí, boládan bekála* (389).

AELIE: *zalui*

OEH: *zalu II*

**zango.** *iz.* Zangoa, hanka. Erab. (Ax, Mb). Idatzizko iturriak+: SP. (B, GN, L, BN, Zar, EkiHN). Dialekto+: Ohikoa-goa Iparraldean eta Nafarroan. *Bérzea, zángo ónak izánes, zebila zalúí, ta sándua zángo batétik maldér zoéie segitus neketán* (143). **anka** (HHN), ‘oina’ (ErdHN, EkiHN).

OEH: *zango 1*

**zapartatu.** *ad.* Lehertu, zartatu. Erab. Idatzizko iturriak+: Ax: *atzaparta* ‘oihua’. (GN, L, Bzt, Zar, Z, Er, EkiHN). *Gora edér igan zeláik, sánduak orázio egítearéki, erori zekio oñetán, zapartátu ta zatikaturik gelditu zé* (154).

OEH: *zapartatu*

**zapeta-zola.** *iz.* Oinetako-zola. Leh. (GN, EkiHN). *Bazkoarén egu-netán ertxiturik infinizio bát jende bárnean, gósea ain érrua zéla, ezi ez solamente jaten zúzte zapeta-zólak, baita Amaec ere berén húme propioak* (41). EHHAren arabera, Nafarroako herri guztietan lekukotzen da *zola*, Etxalekun (*zapetazpi*), Gaintza (*azpi, soru, zola*), Goizueta (*azpi, zola*), Mezkiritz (*espartin zola*) eta Urdiainen (*zapatazpi*) izan ezik. Lapurdi eta Nafarroa Beherean *zapeta zola* da nagusi. ESHA (2276): Eugi, Jaurrieta. Zilbeti -S: *zola*

Sunbilla -A: zapatazol  
 AELIE: zapeta zola  
 OEH: ZAPATA-ZOLA (s.v. *zapata*)

**zapetain.** *iz.* Zapataria. Leh. (Ax *zapatagin*). Dialekto+: *zapatain* (G-nav, L, BN ap. OEH). *Zoéie bein karríka bárna uzkurturík soñak, álkes eta beldúrres, iduri zekióla goratzen zirela zapetain, txástre ta ofiziale guziák berén ofizioko instrumentuékí arren kóntra* (269).  
 OEH: *zapatagin*

**zARBAILDU.** *ad.* Kaskartu, zarpildu. Leh. (G, GN). *Eztire zarbaildúko lore gébek, eztaré galdúko dúten atxón óna* (547).  
**zarpeil** (EkiHN<sup>^</sup>), **zarpildu** (EkiHN<sup>^</sup>).  
 AELIE: garbaildu  
 OEH: *zarpaildu*

**zarmendu.** *iz.* Mahatsondoaren adarra, xirmendua. Hap. *Moxten baizue alá nola bere zarmendua, edo ayéna alkitzas* (314). Informazio gehigarria: OEHn eta EKCn Lizarragaren adibideak bakarrik jaso dira.  
 EHHA (1892): Luzaide.  
 Arnegi, Baigorri, Behorlegi, Ezterenzubi, Gamarte, Uharte Garazi -A: xarmendu.  
 AELIE: -A: sarmendu  
 OEH: *sarmentu*

**zaro.** *iz.* Zaharoa, abereak xaxatzeko erabiltzen den makil mehea. Leh. Idatzizko iturriak+: SP. (GN, EkiHN<sup>^</sup>). *Manatu zué atormentátzeko Sánda errukiró; azotatu zúte burriñás-ko zaroéki* (253). Informazio gehigarria: *CaminoAen* Abaurregainean jaso da. Era berean, Lapurdiko ekialdeko zenbait herri jaso dugu EHHAn, baina Nafarroa Beherekoak ez ditugu jaso bertan ia herri guztietan erabiltzen baitituzte *za(h)aro* edo *za(h)alo* aldaerak. Zube-roan *zahau* da nagusi.  
 EHHA (452):  
 Luzaide Hazparne -A: zaaro.  
 Beskoitze -A: zeharo. -S: XIX-pita.  
 Makea -A: zaharo  
 Mugerre -A: zaharo. -S: mihi-menadar.  
 Bardoze -A: zahalo  
 Uztaritze: -A: zagaro  
 AELIE: zaro  
 OEH: *zaharo*

**zarratatu.** *ad.* Urratu, tarratatu. Leh. (G, GN). *Bere trésenak zar-zarrak zarraturik komunkiró* (87).  
 OEH: *zarratatu*

**zarrez ta zatarrez.** *esap.* Zatar edo zarpilez jantzita. Hap. *Informatu zé bizi ziréla án berén Amaréki irur donzélla, oiñ urtúxian, zárres ta zatárres jaintsirik* (182). Informazio

gehigarria: FS-n “cubiertas con unos handrajos” ageri da. Larramendik *andrajo* sarreran *zatarrá* dakar, eta *andrajoso* sarreran, aldiz, *zatarđuna*, *zartartsuá*, *zatarrés betea*.

EHHA (1993): Goizueta, Ode-ritz -A: esku zatar.

Abaurregaina -A: esku zatarra.

-S: sukaldeko trapuak.

Ezkurra -S: trapu

Leitza -A: & ontzi zatar

OEH: -

**zartegi.** *iz.* Zartagina. Leh. (GN, Er, ErdHN<sup>^</sup>). *Manatu zué zerrátzeko miénbros miénbro ta fritátzeko zartegiétan* (509).

EHHA (1540): Eugi, Mezki-ritz, Zilbeti, Urđiñarbe.

Santa Grazi -A: zartegin

Altzai, Eskiula, Larraine, Montori -A: zarthejin

Luzaide, Beskoitze, Izturitze -A: zartein

Barkoxe -A: zarthein

AELIE: zartegi

OEH: *zartagin*

**zarzutu.** *iz.* Zahartzaroa. Leh. (Er, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ez náuk ez engaňatúko, nagolarik Kris-toréki, zeňi konsagratu baitiot gastezútua, zarzútua ta bizi guzia* (162). Ikus -zutu.

OEH: *zaharzutu*

**zaticatu.** *ad.* Zaticatu. Erab. (Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, HHN, EkiHN). Dia-

lekto+: gral. *Onék arrapatu zué Limineo gúra, ta antxe zaticátu ta ján zue* (127).

OEH: *zaticatu* 1

**zeatu.** *ad.* Txikitu, birrindu. Erab. (Ax, Lar, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax -h-. (B, G, GN, L, BN, Z). *Alá ayék suturik deitzen zutéla sakrilegoa, inpioa, blasfémoa, paratu zúte zur batétik dilindan, zeatu zúte, txarrantxatu zúte burriňásko aztapárres, erre zúte alde guzietáik súsko zuziés* (293). **xeatu** (ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN<sup>^</sup>).

OEH: *zehatu*

**zer x ta x alde?** *esap.* Erab. Norbaiti zertaz ari den ez dakigula adierazteko formula. *Joan zékio, ta [...] eskatu zió Amarén olloa. Zer ollo ta olloalde?* (247).

OEH: -

**zerik.** *galdetz.* Zer-nolakoa. Erab. (GN, L, Zar, EkiHN<sup>^</sup>). *Azála ain miragárrri, mamia nolakoa bide da! Kóntxa gaňékoa ain prezioso delarik, pérla barnékoa zerik bide dá!* (537). *Ain ona ofendizaleéki, zerik bide dá amazaleéki!* (22). **zerike** (ErdHN<sup>^</sup>).

OEH: *zerik* 3

**zeru 1.** *iz.* Zerua (erlijioan). Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN, Er, MHN, HHN, ErdHN, EkiHN). *Bete zuéna*

*múndua erreligiósoes eta Zé-  
rúa Sándues* (260).

AELIE: zeru

OEH: zeru 1

2. *iz.* Zerua, lurraren gainean ikus-  
ten den bitartea, ostertzak mu-  
gatzen duena. Erab. (Ax, Lar,  
Cb, Mb). (B, G, GN, L, BN,  
Zar, Er, MHN, HHN, ErdHN,  
EkiHN). *Berealá asi ze lúr-  
ra ikarátzen, zerua ortotskétan  
ausnárrri tirátzen* (316).

AELIE: zeru

OEH: zeru 2

**zeuroi.** *izord.* Zerori. Leh. (GN).

*Bota segúro Jangoikoaren pro-  
bidenzian amatzen baizaitu  
yago ezi zuk zeurói* (71).

OEH: zerori

**zilegi izan.** *ad. esap.* Zilegi izan.

Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). (G,  
GN, L, Bzt, BN). *Aborrezitzen  
zué etsaiik andiéna bekála;  
etzué iltzen, ori ezpaíta zillégi,  
baña gañarákoan, tratatzen  
zué gogórki* (272). Informazio  
gehigarria: Bizkaian autore be-  
rrietan; Zuberoan ez da *zilegi*  
ageri (OEH).

OEH: ZILEGI IZAN c)  
(s.v. *zilegi*)

**zilizio.** *iz.* Zilizio. Erab. (Ax, Lar,

Cb, Mb). *Irugarren zatian etzi-  
ten zé lúrrean, bururdikotá-  
ko arri bát ta zeñiturik gérrria  
zilizio ur izóztuas bustiaréki*

(154). *Bestitu zé zilizio lotsa-  
garri bátes; búrua koronatu  
zué estañúsko koroa batéki  
itzetto bátzuk barnéko aldétik*  
(501). Ikus *silizio 1*.

OEH: *zilizio*

**zimall.** *adj.* Zimela, zaila, gogorra.

Leh. (Lar *zimel*). (GN, L). Dia-  
lekto+: Arakistainek Nafarroan  
jaso zuen: “Fuerte, correoso,  
*zimailla*” (Aq 1244). *Geró Jus-  
tinai anitz bofetáda eman ón-  
doan azotarázi bérgea zimálles*  
(258). Informazio gehigarria:  
“azotar con crudos nervios”  
(1734: 69).

AELIE: -A: -; -S: -

OEH: 1 *zimel* I, 2

**zinka egin.** *ad. esap.* Garrasi egin.

Leh. (L, BN, Z, EkiHN). Dia-  
lekto+: -*kh*-. *Pasátus oñáze  
bortitzak anitz ilabétez, gu-  
ziéi kausátus lástima ta lotsa-  
mentúra, bera béñ ere etzúte  
ikúsi zinkarik egiten* (244).  
Informazio gehigarria: “no la  
vieron llorar ni quejarse” (FS,  
1761: 641). Badarabil *zinkuri*  
‘intziria’, ‘erosta’ adierazteko  
ere: *Eta zer da inport in de-  
zaten zerbait zinkuria?* (Irai-  
zoz 1979: 327). cf. **zinkurika**  
(EkiHN^).

AELIE: -A: -; -S: izkiritu

OEH: ZINKA EGIN (s.v. 1  
*zinka*)

**ziriku.** *iz.* Zeta. Erab. (Lar). (GN, L, Bzt, BN, Zar, ErdHN<sup>^</sup>, EkiHN). *Ta etzeizen egón alfér, eramaten zióte Merkatárien etxeetáik élle, ligu, ziriku, mise ta gauza trabajatzekó* (421).  
OEH: *ziriku*

**zoko.** *iz.* Txokoa, bazterra. Erab. (Ax, Lar, Cb, Mb). Idatzizko iturriak+: Ax *-kh-*. (B, G, GN, L, Bzt, BN, Zar, Z, Er, EkiHN). Dialekto+: gral. Hala ere, Bizkaian gutxi. *Guzis erretiratu náies, lizenzia eskatu zió Amari egitekó zuten baratzettoaren zoko bátean hermita edo zel-datto bát* (245).  
OEH: *zoko*

**zor.** *iz.* Esker (datiboarekin). Leh. *Onen exenplurá egin zekizkio Españan berze anitz témplo ta beneratzen zúte il baño lén. Guzia S. Tiagori Zor* (225). Informazio gehigarria: OEHN Lizardiren *Biotz-begietan* baka-rrik aipatzen da. EKCn (s.v. *ri & zor*) ageri diren adibide guztiek ‘zorra eduki’ adiera dute.  
OEH: 1 *zor* 2

**zoritu.** *ad.* Heldu, ondu. Erab. (Ax, Lar, Mb). (GN, BN, Z, Er, EkiHN<sup>^</sup>). *Erran zio Dazianok: “Zerén gástea zarén eta juizioa ez ongi zoritua, disimulatzen dizut desatenzio góí”* (285). Informazio gehigarria: EHHAn (1860. mapa)

gariari edo fruituei egiten diete erreferentzia adibide guztiek. Lizarragak (180), aldiz, pertsonekin ere erabiltzen du.  
OEH: *zoritu*

**zorotu.** *ad.* Zoratu, erotu. Leh. (GN). *Batzúk sendatzen zitue erremedio naturáles [...] berze batzúk uzten zitue itsu, maingi, heri ta maldér, sinestarázis berén kulpak ziréla kausa. Eta alá zeuzkie zoroturik* (241).  
OEH: *zoratu*

**zorzitik zorzira.** *esap.* Zortzi egunero, astean behin, astetik astera. Erab. Idatzizko iturriak+: SP. (B, G, L, Bzt, Er). *Ain zebaturik gelditu zé, ezi permititurik komekátzea zorzitik zorzirá, egoten zé kontátzen egúnak eta órduak* (454). Informazio gehigarria: OEhk *zortzirik zortzi egunera* jaso du Añibarroren testu batean.  
OEH: ZORTZITIK ZORTZIRA (s.v. *zortzi*)

**zulo.** *iz.* Zuloa. Erab. (Lar, Cb, Mb). (B, G, GN, ErdHN<sup>^</sup>). *Errebelatu zió goárt egin zezála non in zúten hazienda gáiek muzúrka zulo andi bát; án aurkituko zuéla bear zuén diru guzia erreskatatzekó* (153). **zilo** (ErdHN, EkiHN).  
OEH: *zulo*

**zurgingo.** *iz.* Zurgintza. Leh. Idatzizko iturriak+: Mb *zurgintza*. (GN, Bzt, BN, EkiHN). *Bizi zé Jerusalénen enpleaturik zurgingoan póbre lurréko ondasúnes, óngi egina ta kuadráblea gorputzarén aldétik* (154).  
OEH: *zurgingo*

**zurriago.** *iz.* Zigor, kolpatzeko erabiltzen den soka zabala komunzki animaliak xaxatzeko erabiltzen dena. Hap. *Zórzi ilabétez iduki zúte kalabozoan, golpátus egun óro zurriágos eta palos* (340).  
AELIE: -A: -; -S: -  
OEH: *zurriago*

**zuzi.** *iz.* Zuzia. Erab. (Ax, Lar, Mb). (B, G, GN, L, Bzt, Zar, Z). *Itz ebéki suturik Juézak manatu zué paratzekó sandari zuzi itxékiak bi aldetáik, erre zéien bizirik* (358). Ik. *tortxa*.  
OEH: *zuzi*

## **Bibliografia**

---





- AGIRRE, P., 2010, “Belapeireren lexiko garbia”, ASJU 44-2: 279-334.
- AGREDA, M. J., 1860, *Mística ciudad de dios*, 7 liburuki, Librería Religiosa: Bartzelona.
- ALDAI, G., 1999a, “Hegoaldeko Goinafarrera zaharra: aditz laguntzaileekiko ezaugarri zenbait”, FLV 81: 263-274.
- ALIAGA, J. L., 2000, Aspectos de lexicografía española: el léxico aragonés en las ediciones del *diccionario académico*, Fernando el Católico erakundea: Zaragoza.
- ALLEN, H. B. eta LINN, M. D. (arg.), 1986, *Dialect and language variation*, Academic Press: Orlando.
- ALLIÈRES, J., 1981, “Dialectologie”, in Euskaltzaindia (arg.), 1981, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker 1: 273-281.
- ALTUNA, P., 1982, *Mendibururen lan argitaragabeak. Edizio kritikoa* (I eta II), Euskaltzaindia: Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1992, “Ochoa de Arin-en *Doctrina Christiana*-ren (1713) hizkeraren laburpena”, *Euskera* 37-2: 573-589.
- ALTUNA OTEGI, F., 1995, “*Acto contriciocoa eriotzaco orduracò*: Garcia de Albeniz araiarraren araberazko eskuizkribua (1778)”, ASJU XXIX-1: 83-132.
- \_\_\_\_\_, 2006, “Nafarrerazko Romance bazquenze a la deuocion de Maria Santissima (1656)”, ASJU XL, 47-80.
- ALTZIBAR, X., 1991, “Kardaberazen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa”, ASJU *Gehigarriak* 14-1: 259-276.
- ANDUEZA, P., 2012, “Una aproximación al impacto de la guerra de la Independencia, la desamortización josefina y la legislación de las Cortes de Cádiz sobre el patrimonio cultural de Navarra”, *Príncipe de Viana* 256: 681-730.
- ANTHONY, E. M., 1977, *Towards a theory of lexical meaning: an essay*, Seameo Regional Language Centre: Singapur.
- AÑIBARRO, P., 1897 [1802], *Eskuliburua*, Euskalzale: Bilbo.

- APALAUZA, A., 2007, “Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarretako lexikoaren azterketa”, ASJU XLI-1: 163-224.
- \_\_\_\_\_, 2008a, *Imozko euskara*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- \_\_\_\_\_, 2008b, “Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu”, FLV 107: 63-104.
- \_\_\_\_\_, 2011, “Nafarroako ipar-mendebaleko lau ibarretako lexikoaren azterketa”, in A. SAGARNA, J. LAKARRA eta P. SALABERRI (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, *Iker* 26, Euskaltzaindia: Bilbo, 1.157-1.172.
- \_\_\_\_\_, eta LAKAR, M., 2001-2003, *Malerrekako ahozko tradizioa*, Malerrekako Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako ikerketa-proiektua [lan argitaragabea].
- \_\_\_\_\_, eta LAKAR, 2005, *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Malerrekako Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- \_\_\_\_\_, eta ARRAZTIO, K., 2003-2005, *Araitz-Beteluko ahozko tradizioa*, Araizko eta Beteluko Udalek, eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako ikerketa-proiektua [lan argitaragabea].
- \_\_\_\_\_, eta ARRAZTIO, K., 2007, *Araitz-Beteluko ahotsak. Ahozko tradizioaren bilduma*, Araizko eta Beteluko Udalak, eta Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- APECECHEA, J., 1975, “Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el siglo XVIII. Tres sermones inéditos de Joaquín de Lizarraga en euskera”, FLV 19: 89-127.
- \_\_\_\_\_, 1978, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835). Un escritor navarro en euskara*, Príncipe de Viana: Iruñea.
- \_\_\_\_\_, 1978, 1979a, 1981, 1982, 1985, 1987, 1990, “*Tratado sobre el matrimonio*, de Joaquín de Lizarraga”, FLV 10: 339-359, FLV 11: 71-90, FLV 13: 215-231, FLV 14: 523-538, FLV 17: 283-304, FLV 19: 251-279, FLV 22: 277-301.
- \_\_\_\_\_, 1979b, “J. Lizarraga, *Doctrina Christioaren gain - Fede Christioaren gain*”, *Euskera* 24-2: 773-783.
- \_\_\_\_\_, 1983, 1984, 1985, 1987, 1988, 1991, “Comentario del Padrenuestro de Joaquín Lizarraga, el Vicario de Elcano”, *Scriptorium Victoriense* 30: 65-89, *Scriptorium Victoriense* 31: 182-202, *Scriptorium Victoriense* 32: 414-432, *Scriptorium Victoriense* 34: 102-119, *Scriptorium Victoriense* 35: 413-432, *Scriptorium Victoriense* 38: 387-411.
- \_\_\_\_\_, 2008, *Joakin Lizarraga, Elkanokoa (1748-1835)*, Eusko Jaurlaritzza: Gasteiz.

- ARAKAMA, J., 1994, "Uharte-Arakilgo dotrina", ASJU XXVIII-2: 569-613.
- ARANA, J. A., 1984, "Sebastián Antonio de la Gándara Bizkaiko idazlea", *Euske-  
ra* 29: 499-510.
- ARANA, A., 2001, *Zaraitzuko hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Hiria: Iruñea eta Alegia.
- \_\_\_\_\_, 2002a, *Izarbeibarko hiztegia*, Hiria eta Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- \_\_\_\_\_, 2002b, *Izarbeibarko hiztegia. Izarbeibarko euskara-Euskara batua. Eus-  
kara batua-Izarbeibarko euskara*, Nafarroako Gobernua eta Hiria: Iruñea eta Alegia.
- \_\_\_\_\_, 2003, *Nafarroako ipar-ekialdeko euskara. Irunberritik Aezkoaraino*, Allta-  
faylla: Tafalla.
- \_\_\_\_\_, 2004a, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko al-  
daera*. Hiztegia, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2004b, *Nafarroako euskalkiak. Zaraitzuera. Irakurgaiak*, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2005a, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Gesalazko al-  
daera*. Hiztegia, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2005b, *Artaxoako euskara. Iruzkina eta hiztegia*, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2005c, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Itzarbeibarko  
aldaera*. Hiztegia, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2006a, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Txulapaingo al-  
daera*. Hiztegia, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2006b, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Iruñeko aldae-  
ra*. Hiztegia, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2007a, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Elortzibarko al-  
daera*. Hiztegia, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2007b, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Ezkabarteko al-  
daera*. Hiztegia, Hiria: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2007c, *Nafarroako euskalkiak. Ameskoako euskara. Hiztegia*, Hiria: Donostia.
- ARANBURU, P. J.; BIDEKAIN, M.; IDIAKEZ, A. eta REZOLA, I., 1994, *Jose Ignazio Gerri-  
ko Enatarriaga (1740-1824) eta bere "Cristau Doctrina guztiaren esplica-  
cioaren sayaquera (1858)"*, V. Gerriko ikerlan-sariketa: Lazkao.
- \_\_\_\_\_, 1998, *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825) Goie-  
rriko euskal idazle ezezaguna*, VII. Gerriko ikerlan-sariketa: Lazkao.

- \_\_\_\_, 1999, *Jose Otxoa Arin (1672-1743). Gipuzkera literarioaren aitzindari*, VIII. Gerriko ikerlan-sariketa: Lazkao.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (I eta II)*, Donostia. Ardaiz, I., 1980, *Navarra. Elementos para su estudio regional* (bi liburuki), Eusko Ikaskuntza: Burlata.
- AREJITA, A., 1998, “Concomitancias léxicas entre Juan Antonio y Juan José Moguel”, in *Studia Philologica: in honorem Alfonso Irigoien*, 17-34.
- ARRAIZA, J., 1988, “Ibero. Viacrucis en vascuence del siglo XIX”, FLV 51: 143-154.
- ARTIAGOITIA, X.; GOENAGA, P. eta LAKARRA, J. (arg.), 2002, *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJUren gehigarriak XLIV, EHU: Bilbo.
- ARTIAGOITIA, X. eta LAKARRA, J. (arg.), 2008, *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*, ASJUren gehigarriak XLI, EHU: Bilbo.
- ARTOLA, K., 1977, “Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!!”, FLV 25, 75-108.
- \_\_\_\_, 1985, “Ezkaibarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan”, *Hizkuntza eta Literatura* 4, Eusko Ikaskuntza, 95-112.
- \_\_\_\_, 1992, “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)”, FLV 60: 187-227.
- \_\_\_\_, 2001, “Olaizko euskal eskuizkribuak”, FLV 88: 485-519.
- \_\_\_\_, 2006, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1 - sarrera eta lehen galdera-sortak)”, FLV 103: 393-428.
- \_\_\_\_, 2007, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (2 - inkestaren azken galdera-sortak)”, FLV 104: 5-31.
- \_\_\_\_, 2010, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (3 - Ipar-Artzibarko laginak: Hiriberri)”, FLV 112: 5-50.
- \_\_\_\_, 2011, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (4 - Ipar-Artzibarko laginak: Arrieta)”, FLV 113: 261-325.
- \_\_\_\_, 2012a, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (5 - Hego-Esteribarko laginak: Ilurdotz I)”, FLV 114: 5-59.
- \_\_\_\_, 2012b, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (6 - Hego-Esteribarko laginak: Ilurdotz II)”, FLV 115: 195-253.
- \_\_\_\_, 2013, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (7 - barnera begirako zenbait erkaketa)”, FLV 116: 31-89.

- \_\_\_\_\_, 2014a, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (8 - Elkanoko aldaerarekiko zenbait erkaketa)”, FLV 117: 25-100.
- \_\_\_\_\_, 2014b, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (eta 9 - Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan)”, FLV 118: 393-435.
- \_\_\_\_\_ eta TELLABIDE, J., 1990, “Euskararen muga 1980. urtean”, FLV 56: 247-260.
- ARZAMENDI, J., 1985, *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*, UPV/EHU: Leioa.
- ASTIZ ARREGI, A., 1960, *Goldaraz'ko bersolariaren kontu eta bersoak. Andres Astiz Oderiz*, Príncipe de Viana: Iruñea.
- AURREKOETXEA, G., 2004, “Iparraldeko hizkeren sailkapena (1): Lexikoa”, ASJU XXXVIII-1: 287- 331.
- \_\_\_\_\_ eta VIDEGAIN, X. (arg.), 1992, *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak, Iker 7*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- AZKUE, R. M., 1905-1906, *Diccionario vasco-español francés*, Paul Geuthner: Paris.
- \_\_\_\_\_, 1925, *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca: Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1927, “Aezkera edo Petiriberro inguruetakoko mintzaera”, *Euskera* 8, 179-300.
- \_\_\_\_\_, 1931, “Particularidades del dialecto roncalés”, *Euskera* 12: 207-406.
- BAJO PÉREZ, E., 2000, *Los diccionarios. Introducción a la lexicografía del español*, Trea: Gijón.
- BERIAIN, J., 1980 [1621], *Tratado de como se ha de oyr missa*, Hordago: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1626, *Doctrina Christioarena Euscaras*, Iruñea.
- BIDADOR, J., 1992, “Noticias y restos del euskera de Val de Olo”, FLV 60: 277-295.
- \_\_\_\_\_, 2001, “Ultzamako beste euskal testu bat (1796)”, FLV 88: 521-527.
- BOTTIGLIONI, G., 1986 [1954], “Linguistic geography: achievements, methods, and orientation”, in H. B. Allen eta M. D. Linn (arg.), 1986: 5-19.
- BRETON, R., 1979, *Geografía de las lenguas*, Oikos-tau: Bartzelona.
- BURKE, P., 2001, *Languages and Communities in Early Modern Europe*, Cambridge University Press: Cambridge.

- \_\_\_, P., 2004, *Languages and Communities in Early Modern Europe*, Cambridge University Press: New York.
- CABRÉ, M. T., 1987, *Lexicologia i semántica*, Enciclopèdia Catalana: Bartzelona.
- CAMINO, I., 1989, "Argitasun zenbait Aezkoako dotrinei buruz", ASJU XXIII-3: 801-807.
- \_\_\_, 1991a, "Aezkerazko testuak I: Ariako dotrina", in J. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJUren gehigarriak XIV, 427-457.
- \_\_\_, 1991b, "Aezkerazko testuak II: Orbarako dotrinak", ASJU XXV-3: 929-960.
- \_\_\_, 1994, "Etxenike eta Aezkoako lekukotasun dialektologikoa", *Euskera* 39-2: 417-434.
- \_\_\_, 1995, "Abiaburu bat aezkeraren azterketarako", in R. Gomez eta J. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, ASJUren gehigarriak XXVIII, 59-160.
- \_\_\_, 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- \_\_\_ (arg.), 1998a, *Nafarroako hizkerak*, UEU: Bilbo.
- \_\_\_, 1998b, "Hitzaurrea", in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, VII-XI.
- \_\_\_, 1998c, "Zer dago dialektologiaren gibelean?", in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, 111- 144.
- \_\_\_, 1999, "Goñerriko hizkera (I)", ASJU XXXIII-1: 5-78.
- \_\_\_, 2000a, "Goñerriko hizkera II", ASJU XXXIV-1: 137-196.
- \_\_\_, 2000b, "Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko", K. Zuazo (arg.), 2000, 51-81.
- \_\_\_, 2001, "Goñerriko hizkera (III)", ASJU XXXV-2: 445-509.
- \_\_\_, 2002, "Aitzin-solas", in A. Arana, *Izarbeibarko hiztegia*, XIII-XVI.
- \_\_\_, 2003, "Hego-nafarreraren egituraz", FLV 94: 427-468.
- \_\_\_, 2004a, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- \_\_\_, 2004b, "Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian", *Euskera* 49-2: 67-102.
- \_\_\_, 2004c, "Nafarroa Behereko euskara", FLV 97: 445-486.
- \_\_\_, 2005a, "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna", FLV 99: 265-286.

- \_\_\_\_\_, 2005b, “Euskal dialektologia FLV aldizkarian”, FLV 100: 525-557.
- \_\_\_\_\_, 2006, “Irañetako eta Arakilgo mintzoaren gurgiplean”, FLV 101: 55-68.
- \_\_\_\_\_, 2008a, “Dialektologiaren alderdi kronologikoaz”, FLV 108: 209-247.
- \_\_\_\_\_, 2008b, “Nafarroa Behereko euskara zaharra”, ASJU XLII-1: 101-170.
- \_\_\_\_\_, 2009a, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 2009b, “Mugako hitzun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan”, FLV 111: 153-218.
